

Hazi, barietate eta tomateen etnografia feminista Euskal Herrian:
Bertakotasuna, transespezie ahaidetasuna eta teknobiopolitika

Marta Barba Gassó

Tesi zuzendaria: Olatz González Abrisketa
Doktore-tesia nazioarteko aipamenarekin

Ikasketa Feministak eta Generokoak Doktorego Programa
Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia Saila

Donostia, 2021



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Doktore-tesia nazioarteko aipamenarekin:

**Hazi, barietate eta tomateen etnografia feminista Euskal Herrian:
Bertakotasuna, transespezie ahaidetasuna eta teknobiopolitika**

[Una etnografía feminista sobre semillas, variedades y tomates en el País Vasco: Autoctonía, parentesco transespecie y tecnobiopolítica]

Portadaren egilea | **Maddi Zumalabe Irastorza**

Tesirako propio egindako ilustrazioen egilea | **Maddi Zumalabe Irastorza**

[Maddi Zumalaberen ilustrazioak erabiltzekotan, ilustrazioen egilea aipatu behar da]

**Tesi honek Eusko Jaurlaritzaren "Doktoreak ez diren ikertzaileak prestatzeko
Doktoratu Aurreko Programako" laguntza jaso du 2014ko deialdian**

Ikasketa Feministak eta Generokoak Doktorego Programa

Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia Saila

Cambio social, formas emergentes de subjetividad e identidad en la sociedad contemporánea
[IT1199-19] Ikerketa Taldea

*Bizitzaz, eta bestelako genealogiez eta ahaidetasunez doan tesi hau,
joan zareten eta joatean bizitzaz mintzatu zatzaizkidanoi eskaintzen dizuet*

*A l'Àvia Lluita, sempre àvia i sempre mare,
reteixint constantment els vincles*

*A la Mercè Renau Amadó,
per la teva vitalitat, per les portes obertes, per les genealogies i famílies escollides*

*Landare, hazi, eta bestelako izakiekin jolasten, elkar-afektatzen eta konpromisoak hartzen dihardutenei
Bestelako bizitzak eta loturak sortzen, zaintzen eta iraunarazten dituztenei
Itzalpean lan egiten eta bestelako munduak sortzen dituzten "emakumeei"
Mertxe eta Maritxuri*

Aitortzak (eta eskerrak)

Tesi hau, gehienak bezala pentsatzen dut, ahots ezberdinek osatzen dute. Askotariko ahots eta bizipenetatik elikatu eta sortu da; dut. Tesian bertan aho/gorputz batzuei ahotsa eman, beste batzuei bolumena igo, eta nahigabea izan bada ere, beste hainbat isilarazi dut. Halaber, tesiaren ikergaia bertan, ahots-hartze/ahots-eman jokoak nabarmenak izan dira. Ahotsa izan, ahotsa hartu, ahotsa eman, besteak beste, genero-kontuak dira; botere- eta pribilegio-kontuak. Aitortza kontuak.

Batez ere Aretxabaletako Larrosa tomatearen kasuan nabarmenak izango dira aitortza- eta ahots-joku horiek.

Aitortzak izena ematen digu, baita toki bat ere.

Aitortzak egile egiten gaitu.

Aitortzak elkarren ondoan jartzen gaitu.

Tesi honen egilea ni naiz; eta ez naiz ni bakarrik. Nik ahotsa eman dut, eta ematen dut testu honetan. Baita nire buruari eman ere.

Tesiaren atariko honek ez du soilik gratifikaziorako g-unea izan nahi; aitortzarako izatea ere nahi dut, sinbolikoki bada ere. Tesi honen egiletza nirea da, ofizialki behintzat. Nik hartzen dut horren ardura, baina batez ere nik aterako ditut horren etekinak -hala egongo direlakoan-. Horregatik ariketa sinbolikoa, diot.

Beste batzuek horren etekinak eta aitortza "ofiziala" izango ez badute ere, beraiena "aitortu" nahi diet.

Dizuet.

Zuena ere badelako.

Eta, noski, guztiz zuena ez delako,
mila esker!

Lehenik eta behin, tesian zehar bidelagun izan ditudan Kelo eta Marci, baita Leireri ere, eskerrak eman nahi dizkiet. Zuen ondoan onartzeagatik, toki bat egiteagatik, kontuan hartzeagatik. Baita nirekin partekatu duzuen guztiagatik, noski.

Beraiekin batera, tesian elkarrizketatu eta bisitatu ditudan guztiei. Zuen baratze, negutegi, sukalde eta bulegoetako ateak irekitzeagatik. Zuen jakintza nirekin partekatzeagatik. Beste batzuegandik jasotako jakintza iraurarazteagatik.

Eta, tesi honetan agertu ez, baina haziekin jolasten, asmatzen, berritzen,... ibiltzen zaretenoi, horretan irauteagatik. Onartezina edo desegokia eta jabetu ezina diren *bestelako* bizitzak elikatzeagatik.

Baina tesi hau landa eremuan, lokatzetan, negutegietan eta laborategietan sortu bada, akademian, liburutegian, pantailaren aurrean, eta unibertsitateko mintegi-geletan ere sortu da.

Olatz González Abrisketari, tesi honen zuzendariari, esker zintzoak. Duela 10 urte baino gehiago antropologiarako grina pizteagatik eta antropologo bilakatzeko itxaropenari tokia egiteagatik; azkenengo urteotan tesiaren bide malkar honetan laguntzeagatik; inspirazio teoriko eta analitikoagatik; ondo idazten zuenari bere moldeen mugak erakutsi eta bide berriak irekitzeagatik -hau izerdi eta frustrazioa!-; etnografia zer den erakutsi, eta horretaz gozatzeko atea irekitzeagatik.

Marta Luxán Serranori. Nire aingeru guardakoa -barkatu kutsu erlijiosoagatik!-, akademian eta batez ere akademiatik kanpo. Nagusitan izan nahi duzun hori. Ikerketari lotua mantentzeagatik, interes eta gozamenetik; zure pribilegioak partekatu eta enplegu-bideak irekitzeagatik; partekatutako korridore eta termo-bazkariengatik; beti animoak igotzeko eta testuak zuzentzeko duzun prestutasunagatik. Orain hitzez zerrendatu ezin dudana guztiagatik.

Mari Luz Estebani. Kudeaketa lanengatik. Doktorego-mintegiak antolatzeagatik. Tokia emateagatik, eta norbere tokia errespetatzeagatik. Zuzenketa fin eta zainduengatik.

Doktorego-programako kideei, doktoregai zein tutore eta zuzendariei.

Eta bereziki urte hauetan zehar bulegokide eta bidelagun izandakoei: Eli, Carlos, Maria, Ainara, Laura, Jaime, Olatz, Miriam, Iosune eta Elisari. Izandako elkarrizketengatik; babesak izateagatik; noizbait, bulegoan, isilik egoteagatik.

Eta berriz, Maria Zapatari. Masterretik hasi, etxean hartu, beka batera jaso, eta garaiz bukatzeagatik.

Bukatzen dela erakusteagatik. Eta tesiaren indibidualtasunetatik "gure" gaiak ateratzeagatik. Ederra psikofarmako eta hazien arteko loturak batera topatu izana!

Eta berriz, Ainara Barroni. Liman bidelagun ikaragarria. I-ka-ra-ga-rri-a!

Eta unibertsitatearen aurpegi ez-horren liraina diren eta jaten dutenei.

Goizean bulegoan bakarrik nengoenean, ia egunero, garbitzera alai eta kantari zetorrenari. Fakultateko korridoretan "desentonatzegatik"; nire zapatatako lokatzaren arrastoen aurrean ezer ez esateagatik. Kudeaketak eta burokrasia kontuak hain ondo eraman dizkizazuenei. Zuek gabe, matrikula eta titulurik ez.

Horien artean, Ana Mariri eta Tereri. Zuen lana egiteaz gain, zuen bulegoan alaitsu hartzeagatik. Fakultateko atezainei, eta Mikeli: bulegoko atea jo eta ateratzeko txartela dudan galdetzean, noizbait etxera joan behar dela gogorarazteagatik.

Fakultateko kafetegian hainbat eta hainbat kafe eta tortilla pintxo jarri dizkizadenei.

Izenak ezagutu ez dizkizadenei.

EHUko eta fakultateko ateetatik harago, kongresuetan, mintegietan, eta bestelako gune akademikoetan nire lanaren berri entzun eta zuen iritzia eta kritikak partekatu dituzuenoi. Ankulegiko kideoi. SIMReFeko kideoi. Ingurugiro-antropologiaren sareko kideoi.

Akademiatik kanpo eta akademiaren bazterretan hausnarketa eta gogoetarako kide izandakoei. Joxemi Zumalabe eta berriz ere SIMReFeko kideei. Bestelako espazioetan, maiz janariaren bueltan, nirekin hausnarrean ibilitako guztiei. Kide feministei. Feminismoaren bazterretako feministei.

Tesia idatzi bitartean moduren batean edo bestean lagundu didatenei: bibliografia partekatu, atalen bat irakurri, eztabaida bat izan,... Josu Ozaita, Aitzpea Leizaola, Ixone Fernández de Labastida, Inaki Martínez de Albeniz, Jaime Altuna, Iosune Fernández, María Zapata, Olatz Dañobeitia, Miriam del Pino, Marta Luxán, Miren Guilló, Jokin Azpiazu, Elixabete Imaz... eta ahazten ditudanei.

Tesi hau euskaraz idaztea posible egin duzuen guztioi. AEKri, nola ez, eta bertan izandako irakasleei.

Saileko kideei, euskaraz lan egitea posible egiteagatik. Eta nire modura, "kanpotik" etorri eta/baina euskarazko giroan murgildu zaretenoi.

Nire galderei askotariko erantzunak emanik antropologiako hiztegia euskaraz lantzen laguntzeagatik: Jaime Altuna, Miren Artetxe, Jone Miren Hernández eta Elixabete Imazi.

Euskarazko atalak zuzenduz nire segurtasunik eza linguistikoa lasaitzeagatik: Garazi Eizagirre, Marta Luxán, Jokin Azpiazu eta Maider Arregiri.

Itzulpenetan fin eta eskuzabal aritzeagatik, Nerea Eizagirreri.

Astun eta luzea, eta batez ere hitz-zentrikoa izan daitekeena, eta badena, arintzeagatik.

Maddi Zumalaberi egindako marrazki eder eta indartsuengatik.

Alberto Gili formatu kontuetan eskua botatzeagatik.

Eta ez akademian, eta ez landa eremuan. Edota horietan ere, baina horietan soilik ez. Bizitzan mantendu nauzuenoi. Jasan nauzuenoi. Bultzatu eta estutu nauzuenoi. Nire ondoan eutsi duzuenoi. Baita etsi duzuenoi ere.

Etxekoei, lehenik eta behin. Ainara eta Loretxuri. Hau zuena ere bada, badakizue. Tesitik deskonektatzeko gunea sortzeagatik. Baita beharrezkoa izan denean, tesiaz entzuteko prest egoteagatik eta horretan bultzatzeagatik.

Leire eta Pauri, baita Argi eta izenik gabeko katuari ere. Maria, Fredy eta Irairi. Beste etxekoei, beste familiari. Mercè eta Santi gurasoei, eta Ainhoa ahizpari. Gurasoei, ez galdetzeagatik, batez ere, ez galdetzeagatik. Per no preguntar. Per aguantar les ganes de pressionar i preguntar. Eta ahizpari... per acollir-me de braços oberts a Lima. Per compartir el petit Bru durant tres mesos tan durs com meravellosos. Eta Arnauri, bere etxean eroso eta eskuzabal hartzeagatik.

Mertxe eta Maritxuri. Bestelako genealogia, ahaidetasun- eta zaintza-harremanak errealitatean erakusteagatik. Tokiekiko lotura eta genealogiak ere badaudela erakusteagatik. Irribarreengatik. Zuen azalaren zimurren eta begirada sakonen maitasunagatik. Nire hemengo "ez-ama", "ez-amona", "ez-izeba" izateagatik. "Odolezko familian" topa ezin daitezkeen figurak izateagatik. Bestelako figurak sortzeko bideak marrazteagatik. Etxean sentiarazteagatik.

Maitasun gertuko eta urruneko sarekideei.

Nokalariak eta bailarako ez nokalariak. Bitzitzan eusteagatik. Elkar eusteagatik, eta erortzekotan han egoteagatik. "Azpian sare bat duenak jausteko beldurrik ez du" entzun nion behin Ane Labakari. Horretxegatik beragatik. Ainhoari, gorabeherak gorabehera, eta joan-etorriak joan-etorri, sareak malguak direla baina puskatzeko zailak direla erakusteagatik; eta, berriz ere, berresteagatik. Konpromisoagatik. Olaiari, azkenengo urteotako pausuz pausuko, mendiz mendiko, palaz palako laguntasunagatik. Zure bizitasunagatik.

Eta bailaratik kanpoko lagunei. "Mallorcako" Martari, Piliri, "Ainhoa BHT"ri. Albertori, mendiak, tomateak eta piperrak,... poztasun, negar eta buruhausteetan bidelagun izateagatik. Aipatu ezin ditudan lagun guztiei.

Eta Catalunyakoei. Hele, Júlia, Dèlia, Ester, Sandra,... distantzian egoteagatik.

Ni eusteagatik eta tesiaren albo kalteak pairatzeagatik, baita esteagatik ere, Maitane eta Garaziri. Eta, nahi ez banuen ere, urte hauetan hegan egin duzuenoi. Bizitzaren bizigarri izateagatik. Eta joandakoan, bizitzaz erakutsi didazuenagatik. A l'Àvia Lluísita. Eta goizegi joan zenari, a la Mercè Renau.

Aurkibidea

SARRERA.....	1
---------------------	----------

I. Atala ETNOGRAFIAREN OINARRIAK

1. ETNOGRAFIAREN ABIAPUNTUA	15
--	-----------

1.1. Haziak, tomateak eta barietateak. Ikergaiarenganako hurbilpen kontzeptuala.....	16
1.1.1. Haziak.....	16
1.1.2. Haziak, tomateak eta barietateak.....	19
1.1.3. Barietateak.....	20
1.1.4. Natura, bioaniztasuna eta kontserbazioari hurbilpen teoriko-kontzeptuala.....	22
1.2. Ikergaia eta ikerketa-helburuak.....	26

2. ETNOGRAFIAREN NONDIK NORAKOAK.....	31
--	-----------

2.1. Amildegiaren aurrean ezin jauzi egin. Tokian tokiko lanaren abiapuntua.....	34
2.2. Noraezean norabait, eta nonbaiteraino.....	36
2.2.1. Etnografiaren pausuak, faseak eta ekimenak.....	37
2.2.2. Bi pertsonen artean egindako etnografia partekatua, eta sektoreari itzultzea.....	43
2.3. Norbere burua lanabes.....	48
2.3.1. Burua makur eta ahotsa ahul jendeari kolaborazio eske.....	48
2.3.2. Haziak eta landareek nola, nik ere konfiantza irabazi behar nuen.....	51
2.3.3. Eremu tekniko eta lan-eremuen barrenean eroso.....	54
2.4. Lekuan lekuko kaiera bidelagun, gerora egindako hausnarketak eta proposamenak.....	57
2.4.1. Etnografiaren denborak eta espazioak.....	57
2.4.2. Barietatearen historiak (berr)egin nahian horien memoria ere idatzi dugu.....	59
2.4.3. Ingurumen-antropologian pertzepzio parte-hartzailerako aukerak eta beharra.....	60
2.4.4. Bisitaldia.....	67

II. Atala TOMATEAK EUSKAL HERRIKO ISURIALDE ATLANTIKOAN

3. LOS TOMATES COMO PRODUCTO AGROALIMENTARIO.....	73
--	-----------

3.1. La dimensión cultural e identitaria de la alimentación.....	73
3.1.1. Alimentación e identidad.....	73
3.1.2. Producción de la diferencia, revalorización del sabor, localidad y autenticidad, e importancia de la genética, la limpieza y la higiene.....	76
3.1.3. Gastronomía e identidad en el País Vasco.....	82

3.2. Contexto agrícola vasco a finales del siglo XX e inicios del XXI.....	89
3.2.1. Evolución y características del sector agrícola guipuzcoano.....	93
3.2.2. Desarrollo de la agricultura ecológica.....	99
3.2.3. Producción de calidad y producción de tomates en el País Vasco.....	109
3.3. De "comida de maquetos" a la reina de la huerta.....	116
3.3.1. El cultivo de tomate en el mundo.....	118
3.3.2. La aceptación y "ascensión" del tomate fresco en el País Vasco.....	127
3.3.3. De vuelta al origen. La situación actual de la producción tomatera en Perú.....	139
4. DEL FRUTO A LA SEMILLA.....	143
4.1. El surgimiento y valorización de las variedades de cultivo y la biodiversidad cultivada.....	144
4.2. Nociones básicas sobre reproducción vegetal.....	148
4.3. Desarrollo de la biotecnología vegetal.....	155
4.4. Regulación y privatización de la producción de semillas a través de los derechos de propiedad intelectual sobre la vida.....	162
4.4.1. Marco general de la protección -y patentes- vegetal.....	163
4.4.2. Transformaciones que posibilitan establecer patentes sobre variedades vegetales.....	166
4.4.3. Conflictos y críticas en torno a estas patentes.....	169
4.5. Regulación sobre producción y comercialización de semillas en el Estado español.....	172
4.5.1. Marco regulador sobre la producción y comercialización de semillas en el Estado español.....	172
4.5.2. Registro de variedades comerciales. Exigencias y categorías.....	174
4.5.3. Registro para la producción.....	177
III. Atala	
ARETXABALETAKO LARROSA BARIETATEA	
ARETXABALETAKO LARROSA TOMATE BARIETATEAREN KASUA.....	183
Tomatearen aurkezpena. Aretxabaletako Larrosaren historia eta istorioak.....	183
Aretxabaletako Larrosa tomatea eta bere historia.....	192
1. Fasea. Etxeko tomate(k) edo tomate anonimo bat(zuk).....	192
Trantsizio garaia. Anonimotasunetik aitortzara.....	213
2. Fasea. Aretxabaletako (mozkorra/larrosa/morea) tomatea Gipuzkoan ezaugarritzen, landatzen, errotzen eta zabaltzen.....	230
3. Fasea. Aretxabaletako tomatea "famara".....	242
5. ORIGEN, PARENTESCO Y RE-PRODUCCIÓN EN LA PRODUCCIÓN Y SINGULARIZACIÓN DE LA VARIEDAD.....	289
5.1. Producción del origen y proceso de singularización de la variedad.....	290
5.1.1. Oscilando entre la génesis y el comienzo.....	290
5.1.2. <i>Istoria(k)</i> sobre el origen.....	295
5.1.3. La definición de la forma junto al nombre.....	298

5.2. Parentesco transespecie y coreografías reproductivas.....	299
5.2.1. Un acercamiento a la reproducción y el parentesco desde la antropología.....	301
5.2.2. Repensar el parentesco desde la reproducción vegetal. Parentesco transespecie, género e importancia de otras genealogías.....	313
5.2.3. Coreografías reproductivas y tensiones entre diversificación y homogeneización en la singularización de la variedad.....	328

IV. Atala

JACK BARIETATE KOMERTZIALA ETA EUSKAL TOMATEA

JACK TOMATE BARIETATEAREN KASUA.....339

Jack tomate barietatearen aurkezpena.....	342
Jack tomatearen irudi eta aurkezpen komertzialak.....	342
Jack bertakoa eta kalitatekoa: "hemengoa" eta "ona".....	345
Jacken azala: euskal tomategintza eratu eta babestu duen ezaugarria.....	347
Ekoizpenerako ere ona, edota jada ondo ezagutzen duten tomatea?.....	351
Ona bertakoa da, edo bertakoa ona da.....	352
Jack tomatearen (euskal) historia.....	353
Eguzkipe baserrirantz gerturatzeko.....	354
Erain baserrirantz gerturatzeko.....	359
Baratzegintzan espezializazioa eta Jack barietatearen etorrera.....	362
Jack barietatearekin batera tomategintza sektorearen garapena eta bilakaera I: azpiegitura eta berrikuntza teknologikoak.....	368
Jack barietatearekin batera tomategintza sektorearen garapena eta bilakaera II: merkaturatze-bideak.....	377
Jack barietatearekin batera tomategintza sektorearen garapena eta bilakaera III: sareak, entseguak eta barietateak.....	384
Barietatearen historiatik Jack hazi eta landareen urteko ekoizpena.....	388
Jack hazia. Lehenengo belaunaldiko hibrido zahar bat Bayerren eskuetan.....	390
Jack haziaren ekoizpen- eta merkaturatze-prozesua.....	394
LimaHazi. Hazien hibridazio-prozesua.....	400
Jack tomate landareen ekoizpena.....	411
2020. urtean Jack barietatearen hegemonian arrakalak? Etorkizunari begirada bat.....	414

6. LA RE-PRODUCCIÓN DE LA SEMILLA. TECNOBIOPOLÍTICA DE LA REPRODUCCIÓN VEGETAL.....417

6.1. Sexo, género y sexualidad en la reproducción vegetal. Explicaciones heteronormativas en la reproducción de híbridos hortícolas F1.....	419
6.1.1. Las nociones de sexo, género y sexualidad en el parentesco y la biología.....	419
6.1.2. Pero... ni el sexo ni el género son categorías precursores.....	421
6.1.3. Generización y sexualización de los parentales. Performatividad del género y el sexo en la reproducción vegetal.....	424
6.1.4. Sexualización y generización de las plantas según su función reproductiva. El ideal heteronormativo en la reproducción vegetal.....	429
6.2. Pureza, anonimato y trazabilidad en la re-producción de semillas híbridas. Procesos de genetización y mercantilización de la vida en la reproducción vegetal y humana.....	432
6.2.1. Fetichismo del gen y genetización de los "hechos de la vida".....	433

6.2.2. La producción de la pureza y la construcción de la propiedad y paternidad en la reproducción de semillas híbridas.....	435
6.2.3. Anonimato, manos expertas, cortes en el origen e identidad en la reproducción "asistida"	437
6.2.4. Del anonimato a la trazabilidad.....	439
6.3. Tecnobiopolíticas de la reproducción vegetal. Un análisis xenofeminista de las lógicas de generación y reproducción en la variedad Jack.....	441
6.3.1. El proceso de hibridación para la re-producción de semillas F1.....	442
6.3.2. Momentos de reproducción y generación en la re-producción de semillas de la variedad Jack.....	444
6.3.3. Interrogantes iniciales desde una mirada xeno-trans-feminista.....	448
6.3.4. Tecnobiopolítica de las F1. La reproducción de lo mismo y el cierre a la afectación mutua.....	451
6.3.5. La generación única como base para la producción de lo mismo.....	454
6.3.6. Rumiando desde el feminismo. Críticas xenofeministas a la (no) generación y a las (no) genealogías en las variedades híbridas F1.....	455
7. LA PRODUCCIÓN DEL TOMATE VASCO. LA PRODUCCIÓN DEL ORIGEN, LA CALIDAD, Y DE IDENTIDADES Y ARTICULACIONES TERRITORIALES.....	461
7.1. Diferenciación y producción de la calidad.....	462
7.1.1. La producción de <i>tomates sabor</i> frente a los <i>tomates piedra</i>	464
7.1.2. La producción local y de calidad frente a la cantidad y a los tomates "de ahí abajo" ...	468
7.1.3. La identificación y garantía de la calidad del producto.....	471
7.2. La producción y performatividad del origen.....	476
7.3. Articuciones territoriales y producción de diferentes nos/otros.....	481
7.3.1. La producción de la calidad y la localidad frente a un "allá abajo" generalizado y homogeneizado.....	482
7.3.2. Explotación y colonización en la producción de calidad y localidad.....	487
7.4. Pureza, limpieza y tradición.....	490
BUKAERAKO HAUSNARKETAK.....	493
REFLEXIONES FINALES.....	509
BIGLIOGRAFÍA.....	527
Irudien aurkibidea.....	544
Grafikoen aurkibidea.....	545
Eskemen aurkibidea.....	545
Taulen aurkibidea.....	546
ERANSKINAK	
Eranskina I Aipatutako lege eta araudien taula.....	548
Eranskina II Berriemaileen, elkarteen eta aztertutako ekimenen taula.....	549
Eranskina III Aipatutako elkarte eta erakundeen taula.....	555
Eranskina IV. Jack hazi eta landareen ekoizpen-prozesuaren ilustrazioak.....	557

Akronimoak

- **BOPV.** Boletín Oficial del País Vasco
- **CAPV.** Comunidad Autónoma del País Vasco
- **CPE.** Convenio sobre la Patente Europea
- **DHE.** Distinción, Homogeneidad y Estabilidad
- **DOP.** Denominación de Origen Protegida
- **EAE.** Euskal Autonomia Erkidegoa
- **EE.UU.** Estados Unidos
- **EHKO.** EHkolektiboa
- **EHNE.** Euskal Herriko Nekazarien Elkarte
- **ENEK.** Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua
- **ETG.** Especialidad Tradicional Garantziada
- **FAO.** Food and Agriculture Organization of de United Nations
- **GATT.** General Agreement on Tariffs and Trade
- **GILBE.** Gipuzkoako Lorazale eta Barazkigileen Elkarte
- **GSPP.** Good Seeds and Plant Practices
- **IFOAM.** International Federation of Organic Agriculture Movements
- **IGP.** Indicación Geográfica Protegida
- **MAL.** Master Amaierako Lana
- **MCC.** Mondragón Corporación Cooperativa
- **OMC.** Organización Mundial del Comercio
- **OMG.** Organismo Modificado Genéticamente
- **PAC.** Política Agrícola Común
- **PVP.** Plant Variety Protection
- **RAE.** Real Academia de la Lengua Española
- **SAU.** Superficie Agraria Útil
- **SVI.** Sin Valor Intrínseco
- **TFM.** Trabajo de Final de Máster
- **TIRFAA.** Tratado Internacional sobre los Recursos Fitogenéticos para la Alimentación y Agricultura
- **TRA.** Técnicas de Reproducción Asistida
- **TRA-D.** Técnicas de Reproducción Asistida con Donante
- **TRIPS.** Trade-Related Aspects of Intellectual Property Rights
- **UE.** Unión Europea
- **UPOV.** Unión para la Protección de Obtenciones Vegetales
- **ZAM.** Zona de Agricultura de Montaña

Sarrera

Hazi txiki bakoitza istorio zahar bat baino ez da, egunero birsortzen dugun agertokian
esnatzeko zain dagoena.
Aleka Euskal Herriko Hazi Ekologikoak

Pero nosotros estamos en, o sea, lo que nosotros estamos evitando que se extinga es una actividad, no es una semilla. Es una actividad agraria. Y en ese sentido la semilla es un aliado, más que... O sea, yo creo que tiene valor como herramienta para nuestra actividad, no como, no como valor aislado por ser semilla local y tal.
Juan (elkarrizketa)¹

2015eko urrian gaude. Donostiko Amara auzoan dagoen *Kaxilda Liburudenda eta Jatetxean* 20 bat lagun elkartu gara, *Euskal Herriko Hazien Sareak*² eta *Hazizaleak Elkarteak* antolatu duten "Norenak dira Haziak?" jardunaldian. Ia urtebete daramat tesian murgilduta, baina oraindik ez dut lortu ikergaia erabat zehaztea. Olatz Gonzalezek, nire tesi zuzendariak, hazi edo labore mota batean zentratzeko gomendatzen dit, baina nik oraindik ez dut argi ikusten. *Haziera Hazien Artxiboaren*³ arduraduna eta tesi honetan bidelagun izango dudana Marc Badalek⁴ tomatearen inguruan zentratzera bultzatu nau, berak agronomiatik eta ingurugiro-

-
- 1 Nik jarritako izena da hau, elkarrizketatu guztiei izena aldatu baitiet, anonimotasuna bermatze aldera.
 - 2 Euskal Herriko Hazien Sareak-Red de Semillas de Euskadi Euskal Autonomia Erkidego mailan lan egiten duen elkarte da. 1996ean sortu zen eta 2001ean erregistratu zuten. Bere helburua bertako barietate eta haziak berreskuratu eta gordetzea da, baita landutako bioaniztasunaren gaiaren inguruan informazioak biltzea, sortzea eta zabaltzea ere. Etnografia honetan agertu diren elkarte eta erakundeen taula kontsulta daiteke Eranskina IIIan.
 - 3 Haziera Hazien Artxiboa Donostiako Cristina Enea Fundazioaren baitako ekimena da. Bertan, bertako barietateen haziak gordetzen dira, eta nahi duenak eraman ditzake lugin txiki batzuk, bere baratzean ugaltzeko eta barietatea erabiltzeko. Halaber, bertako hazi eta barietateen inguruko informazio eta jakintza praktikoak partekatzeko eta zabaltzeko gunea da. Donostian kokatuta, hirian bizi direnei bereziki zuzendua da ekimena, eta beraz, lan dibulгатzailea da batik bat bertan egiten dena. Informazio gehiagorako, ikus: ><https://www.cristinaenea.eus/eu/haziera-proyecto-haziera>>. [Azkenengo ikustaldia: 2020/11/03].
 - 4 Marc Badal Master Amaierako Lana egiten ari nintzelarik ezagutu nuen. Orduan Jada Haziera proiektuaren arduraduna zen. Horretaz gain, eskarmentu handia du lehenengo sektorean dinamizatzaile lanetan eta

zientzietatik azaldu ezin dezakeena antropologiatik azaldu dezakedalakoan. Euskal Herrian horren gaizki ematen den labore mota bat -tomatea, alegia- baratzezain onaren ikur eta identitatearen oinarria nola bihurtu den antropologiatik azal dezadala nahi du Marcek. Baina, esan bezala, 2015eko urrian gaude eta Olatzek eta Marcek oraingoz ez naute konbentzitu.

Jardunaldi horretan, landutako bioaniztasunari lotutako zenbait gai landu da, baina bereziki hazien pribatizazioaren gaiaren bueltan aritu gara. Izan ere, Euskal Herrian *Aretxabaletako Larrosa* eta *Puntaluze* edo *Pikoluze* izenez ezagunak diren bertako bi tomate barietateak pribatizatzeko arriskuan dauden beldur da zenbait eragile. Horren aurrean, gaiaren bueltan hitz egin eta bertako bi tomate barietate horien erregistro parte-hartzailea egitea erabakia dute. Aretxabaletako Larrosaz, Pikoluzez eta hazien pribatizazioaz gabiltzalarik, baina, Jack tomatea ere agertu zaigu mintzagai. Agian, lehenago banuen tomate horren berri, baina gogoan iltzatuta egun hau geratuko zait. Borobilean jesarrita eta adi elkar entzuten ari garelarik, asko harritzen gaituen informazioa atera da: Euskal Autonomia Erkidegoan - aurrerantzean EAE⁵, eta bereziki Gipuzkoan eta Bizkaian gehien ekoizten den eta *Eusko Label*⁶ markaren barruan hegemonikoa den tomatea *Jack* barietatekoa da, eta horren hazia *Monsanto* enpresarena da⁷. Hartara, Eusko Label markarekin gehien saltzen den tomatea *Monsantorena* da.

Nola liteke *Euskal Tomatea*⁸ *Monsantoren* tomatea izatea? Hau da, agroindustriako enpresen artean famarik txarrena duen enpresarena da Euskal Tomatearen hazia? Jack tomatearen kasua

ikerketak eta txostenak egiten, bereziki agroekologian eta hazi eta labore barietateen inguruan. Halaber, agroekologia, nekazaritza eta parte-hartzearen inguruko hainbat argitalpen eta libururen egilea da. Tesi honen baitan berarekin batera egin dudan lekuan lekuko lanaren emaitza da horietako bat, *Aretxabaletako Tomatea. Bioaniztasuna, lurraldea eta jakintza partekatua* liburua, hain zuzen (2018).

- 5 Tesia EAEn eta batez ere Gipuzkoan kokatu dut. EAE eremu politiko-administratibotzat hartzen dut, eta bertan tesia kokatzea erabaki dut, bertako lege, administrazio eta kudeaketek eragin nabarmena dutelako lehenengo sektorean. Hala ere, bestelako lurralde-eremuei ere erreferentzia egingo diet: probintziei -bereziki Gipuzkoari-, estatuei -bereziki Estatu espainiarrari-, muga administratiboetatik at kokatuta dagoen Euskal Herriari, eta Europar Batasunari. Terminoa hauek nola definitu eta erabiltzen ditudan jakiteko, ikus 3.2. atala.
- 6 Eusko Label EAEn elikagaien kalitatea eta euskal jatorria bermatu nahi duen marka da. 1989. urtean sortu zen, eta orduan erabat publikoa zen. Orain, aldiz, Eusko Jaurlaritzari atxikita dagoen baina pribatua den Hazi Fundazioak kudeatzen du.
- 7 Etnografia honen hastapenetan halaxe zen, Jack hazia *Monsantorena* zen. Handik urte gutxi batzuetara, 2018an, Bayerrek *Monsanto* absorbitu zuen. Hala ere, tesian zehar *Monsantoz* hitz egingo dut batez ere. Izan ere, erosketa baino gehiago fusioa izan zen horri leporatzen zaio ospe txarra zuen *Monsantoren* izena ezabatzea, eta nik orain ez dut enpresa estatubatuarra itzalean utzi nahi. Edonola ere, Bayerri ere erreferentzia egingo diot, fusioa edo erosketa bera ere ez baitut ezkutatu nahi. Ikus: <https://elpais.com/economia/2018/06/04/actualidad/1528093556_668876.html>. [Azkenengo ikustaldia: 2020/11/03].
- 8 Eusko Label markaren barruan, *Euskal Tomatea* azpi-marka bat da. Zigilu horrek adierazten du EAEn ekoiztuak izan direla tomateak.

ezagutzen eta ulertzen joan naizen heinean hasierako harridura hori lausotzen joan zait, eta "normalizatzen" joan naiz gertaera hau. Hala ere, niretzat gero eta "naturalago" den horrek besteen harridura pizten du oraindik ere eta, beraz, nire hasierako harridura horrekin topo egiten dut behin eta berriz tesian zehar.

Joseba Zulaikak harridura berberarekin irekiera ematen dio *Violencia vasca: metáfora y sacramento* liburuari. Etnografia horren lehenengo egunean, heriotza baten aurrean hainbat emakumek galdera egin zion Zulaikari "baina, hori nola leike?" (1990, 14). Bere baitan, galdera bat baino, harriduraren adierazpena ziren hitz horiek. Nire tesi zuzendariari entzun diodanari jarraiki, harridura etnografia baterako abiapuntu egoki eta emankorra dela uste dut. Euskal Tomatearen kasuan, harridura hori ezjakintasunari erabat lotuta dago. Marka horren atzean zein barietate eta ekoizpen mota dauden ezagutzean harritzen gara, eta horrek agerian uzten digu gure ezjakintasuna, baita markarekiko konfiantza ezjakintasun horretan oinarritzen dela ere. Euskal Tomatea zer den eta nola definitzen den ulertzeko "ezjakintasun" hori gakoa da. Are, Euskal Tomatea Monsantoena nola izan daitekeen ulertzeko "ezjakintasun" hori ere gakotzat har dezakegu. Halaber, "euskal" nozioaz hitz egiten digu harridura horrek, baita elikagaien zigiluekiko dagoen atxikimendu eta jakintzaz ere. Galderak areagotzen zaizkit buruan: nola definitzen ari da Euskal Tomatea, zein den, nolakoa den eta nondik datorren jakin ez dezagun? Areago, nola definitzen ari da galdera hau egin ez dezagun? Euskal Tomatea zer da? Nola eta zerk definitzen du? Zein elementu dira gakoak bere konfigurazioan? Eta, EAEn zerk bilakatu du gehien ekoizten den tomate barietate?

Harridura berberetik, baina beste norabide batean, bestelako galdera multzoa ere badator kit burura. Jack tomatea euskal tomatearekin eta bertakotasunarekin lotuta agertzen zaigu, eta horrek *euskal* nozio eta identitatearengana eramaten gaitu, nolabaiteko bertakotasun nozio batengana, alegia. Baina, Monsanto tartean agertzean, harridura sortzen zaigu; bertako edo euskaldun definitzen den hori -tomatea, kasu- enpresa transnazional horrekin bateraezina da askoren iruditegian. Berriz ere, galderak biderkatzen zaizkit buruan: Nola eraikitzen ari da *euskal* identitatea eta nozioa tomate hauen bitartez? Nola eraikitzen dira *euskal* identitatea eta bertakotasuna, horietan Monsanto tokiko zentral bat duenean? Eta/edo nola erabiltzen ari da nozio identitario hura nekazaritzaren produktua den elikagai bati bidea emateko? Zeri egiten dio erreferentzia jatorriak? Nola definitzen da?

Bestalde, eta norabide berean, Donostian 2015ean egin zen hazien pribatizazioari buruzko jardunaldi horretan entzun nuen beste informazio batek ere harridura eragin zidan.

Aretxabaletako Larrosa tomateak, Gipuzkoan bertako bariatetetan ezagunenetarikoa, 40 bat urte baino ez darama lurralde horretan. Aramaioko moja batek, omen, ekarri zuen, ez dakigu nondik, eta aretxabaltar bati eman zion. Azkenengo horren bitartez, bariatate horren inguruan luzaz ezaguna izan den historiaren protagonistarengana heldu zen bariatatea, Keparengana⁹, alegia. Ostera ere, egin dezakegu galdera: nola liteke, bada, Gipuzkoan 40 urte baino ez daramana "bertako bariatetetzat" hartzea eta, are, bertako bariatateen artean gehien nabarmentzen direnetakoa izatea?

Bi bariatateek antzeko harridurara eta galderetara garamatzate eta jardunaldi horren ostean hasi nintzen ikergaia gero eta argiago ikusten. Nire zuzendariak eta Marc Badal bidelagunak lehenago iradoki zidatena zentzua hartzen zihoan. Bazegoen labore zehatz baten inguruan zer ikertua, tomateen inguruan, alegia. Areago, bariatate baten edo biren kasuan jar nezakeen arreta, eta handik bioaniztasunaren inguruan eta labore bariatateen inguruan nituen kezketara heldu. Aretxabaletako Larrosa tomatea oso aproposa agertu zitzaidan horren inguruan tesia zentratzeko. Bestalde, bertako bariatatearen ondoan bariatate komertzial batek toki nabarmena zuen, eta kontrasterako interesgarria izan zitekeela iritzi nion hasierako une hartan. Azkenean, bi bariatate horiek tesia bideratu dute, eta hau Aretxabaletako Larrosa eta Jack bariatateen kasu-azterketan oinarritutako etnografia izan da.

Berez, Aretxabaletako Larrosa eta Jackek, eta beraien inguruan eratzen diren logikek, oso ezberdinak izan beharko luketela pentsa genezake; bata bertako bariatatea baita, eta bestea komertziala. Aitzitik, hasiera batean, jada antzeko galderetara eramaten gaituzte bi kasuek. Beraz, hasieratik elkarren ondoan agertu zitzaizkidan Jack eta Aretxabaletako Larrosa tomate bariatateak. Bien arteko harremana, aldiz, anbigua eta askotariko ertzetakoa da: elkarren ondoan agertu bai baina, batzuetan, antagonista edo kontrajarriak bezala; beste batzuetan, elkarrengandik espero baino gertuago; hainbatetan, lehiakide; besteetan, elkarren erreferentzia eta ispilu. Soilik Aretxabaletako Larrosa tomatearen inguruan aritu nahi izan banu ere, Jack bariatatea sartu beharko nuke tesi honetan, etengabean agertu baitzait bertako bariatateen inguruko solasaldietan zein behaketetan. Finean, elkar eratzen duten bariatateak ditugu.

9 Aurrerago aurkeztuko dut hobeto zein den Kepa. Hala ere, berriemaileen zerrenda eta ezaugarri nasugiak ikusteko, ikus Eranskina II. Bestalde, esan bezala, tesi honen berriemaileei izenak aldatu dizkiet, baita baserriei eta zenbait ekimeni ere. Pertsonen kasuetan, izenak jaso bezala itzuli ditut. Izenez, ezizenez, izen eta abizenez, edota izenik erabili gabe aipatu badizkirate pertsonak, nik neuk ere horrela anonimizatu ditut. Izen eta abizenaz aipatuak zirenei izen eta abizen faltsuak jarritz, ezizenez aipatuak zirenei, ezizen berri bat jarritz, edota izenik erabili gabe euren lanbide edo rolagatik aipatuak izan direnak horrela ere aipatuz nik.

Biak ala biak, belaunaldi baten denbora daramate Euskal Herrian. Aretxabaletako Larrosa tomateak 40 urte inguru daramatza Gipuzkoan, eta Jack barietatea duela 30 bat urte hasi zen ekoizten EAEn. Halaber, biak ezagunak dira EAEn. Bertakoaren kasuan, barietatearen izenarekin. Komertzialaren kasuan, aldiz, ez da horren ezaguna barietatea bera, horren tomateak baizik. Euskal Tomatea markapean edo bertako moduan zigilurik gabe identifikatuta, Jack tomateak ezagunak dira Gipuzkoako denda, azoka eta baratzeetan. Hartara, logika ezberdinetan bada ere, biak aitortza publikoa duten tomateak dira.

Bestalde, bi kasuetan berauen inguruan identifikazio- eta bertakotze-prozesuren bat jazo da, eta biak ala biak lurralderen bati atxikiak izan dira. Barietate komertzialaren kasuan, "euskal" abizena jarri zaio, eta modu zabal batez "bertako" gisa ezaguna da; batzuetan baserri bati atxikia eta beste batzuetan "tokian toki" ekoiztua izateagatik baloratua, modu zabal batez "bertakoa = euskal" ekuazioak lotzen dio tomate hau lurraldeari. Aretxabaletako Larrosa tomatearen kasuan, aldiz, izenak berak ematen dio jatorria barietateari, eta toki zehatz batean kokatzen du: Aretxabaleta herrian.

Laburbilduz, azkenengo 30 eta 40 urteotan nolabaiteko "bertakotze" prozesuren bat bizi izan duten bi tomate barietateekin hasi nuen etnografia hau, bata komertziala eta bestea "bertakoa" edo "tokian toki" ugaldua. Hasieran, nituen informazioek bertakotasun horren inguruan galdetzera eta hausnartzera eramanez ninduten eta, horrekin batera eta hortik abiatuta, behatu diet barietateen ugalketa eta ekoizpenari, eta horien inguruan edo horiekin batera sortu eta mugatzen den aniztasunari.

Etnografia hau batez ere Gipuzkoan garatu eta testuinguratu dut. Alabaina, tomate hauetatik eta EAETik harago doan testuinguru zabalago batean ere kokatu dut hasieratik. Ikergaiak berak ere horra eramanez nau, eta Perun egindako ikerketa-egonaldiari esker hurbildu naiz tomate hauen ekoizpen globalera¹⁰. "Berotze globala" deritzon garaian bizi gara. Batzuek, bizitzen ari garen garai ekologikoa gertaera batera mugatu eta "aldaketa klimatikoa" terminoa darabilte, subjektu eta ardurarik gabeko gertakaria balitz bezala; beste batzuek, aldiz, ardura argi identifikatu eta gizakiongan jartzen dute. Horien artean, "Antropozeno" terminoa darabil

10 2018ko martxotik ekainera Liman (Perun) izan nintzen, ikerketa-egonaldia egiten. Ordurako lekuan lekuko lana amaitutzat ematen nuen arren, bertan azkenengo saio etnografiko batzuk egiteko parada izan nuen. Saio horiek gakoak izan dira batez ere Jack hazien ekoizpenaren dimentsio transnazionala ezagutzeko; eta, Euskal Tomatearen ulerkerari dimentsio transnazionala erantzi diote. Halaber, egonaldi hori ezinbestekoa izan da tesi honek nazioarteko aipamena eskura dezan.

hainbatek¹¹, eta hasiera batean geologian eta "natur zientzietan" garatu arren, gaur egun antropologia eta bestelako gizarte zientzietan ere erabiltzen da. Geologiari oso lotua izan den kontzeptu honekin, Holozenori segida ematen dion garai geologiko berri batean gaudela proposatzen da. Gizakion ekintzek eragindako aldaketak -"aldaketa antropogenikoak"- ur, harkaitz eta atmosferan iltzatuta geratu dira, eta horrek garai geologiko berri batean kokatzen gaitu: Antropozenoan. Ingurumenarengan gizakiok gaur arte izan dugun eragina hain da handia, non garai geologikoaren ezaugarri nagusia hauxe bera den. Mundu geologikoa eragin horren ondorioa da egun. Kontzeptua, baina, problematikoa izan da, eta horren aurrean bestelako terminoak jarri dira mahai-gainean: Kapitalozeno, Plantationoceno eta Chthuluceno, besteak beste¹². Edonola ere, garai geologiko eta ekologiko berri edo berezi batean bizi gara, zeinetan gizakiok eragindako aldaketak gizakiongan ere eragina izaten hasi diren.

Egoera honen aurrean, aldarri eta kritika "ekologistak" ugaritu egin dira, eta horietako batzuk feminismotik egin dira, ekofeminismotik, hain zuzen. Ekofeminismoa, ordea, oso ezaguna izan da bere bertsio esentzialistan edo "klasikoan", Alicia Puleoren hitzetan¹³. Natura/kultura dikotomiari emakumea/gizon dikotomia sexuala lotu, eta emakumeak "naturatik" gertuago agertu dituzte ekofeminista esentzialistek. Ikuspegi konstruktibista batetik, aldiz, lotura hau "eraikia" dela baieztatzen da. Hala ere, maiz emakumeak naturaren zaintzaileago agertzen ditu ikuspegi horrek, sozialki eta kulturalki esleitu zaizkien rolengatik bada ere. Halaber, emakumeek eta naturak zenbait ezaugarri partekatzen dute ekonomia kapitalistan: biak kapitalaren metaketarako "espoliorako" gorputzak edo lurraldeak izan dira (Federici 2004), eta dira.

Halabeharrez euren burua ekofeministatzat hartu gabe eta beti feminismo eta ekologismoaren arteko lotura horren esplizitua egin gabe, azkenengo urte eta hamarkadotan, ugaritzen ari dira ikuspegi feminista antiesentzialista batetik egoera ekosozial berria ikertzen eta teorizatzen ari diren akademiko feministak: mundu mailan, Donna Haraway eta Anna Tsing dira, besteak beste, oihartzuna izan duten eta izaten ari diren ahotsak. Harawayen proposamenei jarraiki, natura eta kultura bereizten zituen dikotomia modernoa baztertu, eta mota ezberdinetako

11 80. hamarkadan Eugene Stoermer ekologoak terminoa sortu zuen, baina 2000 hamarkadan zabaldu zen gehienbat diskurtso globalizatzaileetan. Orduan, Stoermerren proposamenari jarraiki nobel sari bat duen Paul Crutzen kimikariak Holozenoa ordezkatzeko zuen termino geologiko berri bat behar zela defendatu zuen. Hainbesterako ziren gizakion ekintzen eraginak, zeren garai geologiko berri batez hitz egin behar zela zioen (Haraway 2019, 79-80).

12 Terminu hauen sorrera eta esanahietan sakontzeko, ikus Haraway (2016b; 2019).

13 Ikus: <<https://mujeresenred.net/spip.php?article2060>>. [Azkenengo ikustaldia: 2020/11/03].

izakiek elkar osatu eta eratu egiten dutela baieztatzen duen planteamendua darabilte feminismitik. Harri, landare, eta gizakiak ez diren bestelako animaliekin elkar sortu, elkarri eragin, eta elkarren menpe gaude. Besteekin ditugun harremanen ondorioa gara eta, beraz, harreman horietatik at ez gara.

Tsingek (2015a) azpimarratzen du Antropozenoan ez dugula egoera latzen aurrean beste espezie batzuekin batera elkar babesteko eta bizitza birsortzeko aterperik. Aterpeak galdu ditugu. Harawayen hitzetara eramanda: "En este momento la tierra está llena de refugiados, humanos y no humanos, sin refugios"¹⁴ (2016b, 18). Haraway, bestalde, antropozeno terminotik urruntzen da. Kapitalozeno terminoarekin bat egiten du hasiera batean, eta gerora Chthuluzenoa lehenesten du. Bere iritziz, Antropozenoa garai bat baino gehiago, "muga-gertaera" bat da, (un "*evento-límite*") (2016b, 17). Aurrekoarekin eta ostekoarekin apurketa handiak ezartzen ditu Antropozenoak. Egoera larri batean kokatzen gaitu eta, horren aurrean Harawayen proposamena garai hau ahalik eta motzena izan dadin lan egitea da, berriz ere aterpeak sortzeko gaitasuna izango dugun garai berriak sortzeko (Ibid., 17). Eta bere posizio eta proposamena guztiz politikoa da. Bere eta gustuko dituen fikzio-ariketa horietako bat egiten du oraingoan ere. Antropozeno eta Kapitalozenoaren izugarrikerien aurrean, ez du joera apokaliptikoekin bat egiten, ezta teknologiekiko sinesmen itsuan oinarritutako itxaropen edo fede inozoarekin ere, eta ez du horrelakorik elikatu nahi. Bizi dugun egoera latz horren aurrean, Harawayek proposatzen du "*staying with the trouble*"; egon gaitezen arazoarekin.

Elkar-egiten dugu eta, beraz, elkar-egin behar dugu. Bizi dugun egoera latzari ekiteko, elkarrekin jardun behar dugu, elkarrekin eta elkarrengan pentsatuz. Gizakioi eragin digunean, gizakion ikuspegitik hasi da asko Antropozenoaz eta balizko "aldaketa klimatikoaz" hitz egiten. Gizakion eragina gatazkatsua den unean eta hori gure kontrara etorri zaigun unean, proposamen askok gizakia mantendu du zentroan. Horren aurrean, Haraway eta Tsingen proposamenek gizakiongandik desplazatzen dute begirada, eta bestelako izakiak ere "gizarte" zientzietako ikusmiran jarri dituzte. Horrekin batera, espezieen arteko definizioa eta bereizketa modernoa kolokan jarri, eta espezieen arteko mugetatik at pentsatzen jartzera gonbidatzen gaituzte, multiespezie-ikasketen eremuan kokaturik.

Planeta kaltetuan eta kapitalismoaren aurrietan bizi garen honetan (Tsing 2015b), haziek eta aniztasun biologikoak toki nabarmena hartzen dute. Haziak, pertsonekin eta bestelako

14 "Une honetan, lurra aterperik ez duten errefuxiatuez beteta dago, gizakiak direnak eta ez direnak". Kapitulu honetan, nik neuk egin ditut jatorriz euskarazkoak ez ziren aipu eta testuen itzulpenak.

espezieekin elkar-ekiten, bizitzarako aterpeak dira, espezie-arteke bizitzarako babesgune, alegia. Bestalde, aniztasun biologikoa elkar-ekintza horren emaitza da. Halaber, zenbatu daitekeen eta "galtzen" edo desagertzen ari den zerbait da aniztasun biologikoa; bizitza zehatz batzuk desagerrarazi ditugu. Azkenik, baliabidea da; bizitzak eta aterpeak sortzeko baliabidea da. Hortaz, bioaniztasunaren galera, eta zehazki landutako bioaniztasunaren galera, egungo testuinguru ekosozialaren ezaugarrietako bat da. Esan bezala, bizitza zehatz batzuk desagerrarazi ditugu. Baina txanponak badu beste aldea. Bizitza batzuk desagerrarazi ditugu beste batzuk bultzatu eta babestu ditugulako, hain zuzen. Beraz, horren aurrean, ikuspegi kuantitatiboa soilik ez, ikuspegi kualitatiboa ere izan behar dugu. Zeintzuk dira desagerrarazten ditugun bizitzak, eta zeintzuk elikatzen ditugunak? Zeintzuk dira bizitza legitimoak (Fassin 2009), negar eragin dezaketenak (Butler 2010), edo bizitza eta sostengatuak izatea merezi dutenak (Pérez Orozco 2019)?

Bioaniztasunaren kontzeptua, baina, problematikoa suerta daiteke darabildan planteamenduarekin. Izan ere, natura eta kultura bereizten dituzten ikuspegi kontserbazionistek erabiltzen dute, aniztasuna esentzializatu eta era kuantitatiboan neurtuz. Halaber, posizio eta jardun erabat kontraesankorretara garamatza kontzeptu horrek. Izan ere, zerbait zenbakarri eta ukigarri moduan tratatzen da bioaniztasuna, eta bere baitan gorde nahi da, bizitza horiek sortu dituzten harreman eta testuinguruak erabat ahazturik, alboraturik eta, are, eraldaturik. Esan bezala, bizitza eta izakiak harremanetan egin, sortu eta eratzen gara. Beraz, egungo egoeraren aurrean hartu beharreko neurri, pausu eta jardunek ere erlazionalak eta multidimentsionalak behar dute izan.

Edonola ere, bioaniztasunaren galeraren problematika tesi honen abiapuntuetako bat izan zen, eta tesi osoa zeharkatu du. Ia tesiaren testuingurua ere badela esan nezakeen. Hartara, erabat ezin alboraturik, terminoa erabiliko dut hainbat unetan, kontraesanak agerrarazteko eta errealitatea problematizatzeko akuilu. Ez dut terminoa erabat baztertu nahi, tesirako interesgarriak diren zenbait elementu ekartzen baitizkigu. Alde batetik, aniztasuna askotariko ertzetako gaia da, horrengana gerturatzeko bideak ere askotarikoak dira, eta aniztasunari begirada kualitatibo batetik ere behatu diezaiokegu. Halaber, aniztasunak biopolitikaz (Foucault 1987) eta teknobiobotereaz (Haraway 2004; Preciado 2008) hitz egiten digu, lehen aipatu galderetara baikaramatza: zeintzuk dira bultzatu eta sostengatzen diren bizitzak eta zeintzuk, aldiz, baztertu edo desagerrarazten direnak? Azkenik, aniztasuna feminismoan tokia hartu duen gaia da eta, oraingoan ere, aniztasun biologikoa edo landare eta baratzeetako

aniztasunaz mintzatzean, begirada eta eztabaida feministek analisirako gakoak eman diezazkigukete.

Laburbilduz, ekologia zein ingurune eta gizakion arteko harreman gatazkatsuek garrantzia hartzen ari diren testuinguru ekosozialean kokatzen dut bi "euskal" tomateen inguruko etnografia hau, (bio)aniztasunaren problematika abiapuntu eta ardatz. Hazien pribatizazioari buruzko jardunaldian ikergaia zehazten hasi nintzen eta Aretxabaletako Larrosa eta Jack tomate barietateen kasu-azterketak egitea erabaki nuen. Bi barietateen historia, EAEn eta Gipuzkoan daramaten 30 eta 40 urte hauetan egin duten ibilbidea, eta euren inguruan sortu diren istorioak jaso eta ezagutu nahi izan ditut, baita barietateen egungo egoera eta horien inguruko praktika, sare, eta ugalketa-bideak ere. Barietateak nola bilakatzen diren barietate aztertu dut. Hala, Jack barietate eta haziak Euskal Tomate nola bilakatzen diren eta Gipuzkoara izenik gabe heldu zen tomatea Aretxabaletako Larrosa nola bilakatzen den aztertu dut. Prozesu hauetan, ugalketa-praktika, -harreman eta -logikak, tomatearen inguruan erazten diren (ahaidetasun-)harremanak, eta jatorria, bertakotasuna eta euskalduntasuna sortzeko prozesuak nabarmenduko dira, ditut.

Lanaren egituraz

Azkenengo bi urteetan zehar, testuari forma eman ahala, egitura behin eta berriz aldatu dut, maiz zalantzati. Adibidez, kasuak idazten hasi, eta berehala ohartu nintzen testuinguruaren zenbait informazio jaso eta eman behar nuela, kasuak ulergarri egite aldera. Hartara, horri atal oso bat eskaini diot. Lehenengo atalean (*I. Atala. Etnografiaren oinarriak*), tesiaren abiapuntua edo oinarria ezartzen dut, eta bi kapitulak osatzen dute: lehenengoan, tesiaren ikergaia eta helburuak definitzearekin batera, oinarri kontzeptualak garatzen ditut (*1. Etnografiaren abiapuntua. Oinarri kontzeptualak eta gaiaren definizioa*). Bigarrenean, ikerketa-prozesuaren inguruko zenbait hausnarketa eta xehetasun jasotzen dut, metodologiari tokia eginik (*2. Etnografiaren nondik norakoak. Ikerketaren prozesu, hautu eta ekarpen metodologikoak*).

Sarrerako atalaren ostean, bigarren atal nagusiak (*II. Atala. Tomateak Euskal Herriko isurialde Atlantikoan*) "testuingurua" osatzeko funtzioa izan behar zuela argi ikusi nuen hasieratik. Zehazki, nekazaritzari, elikadura-ohiturei eta -identitateei, eta barietateak ugaltzeko praktikei eta legediei lotutako informazioak sortu eta jaso ditut tesiaren bigarren atal nagusian, eta atal hau bi kapitulutan bereizi dut. Lehenengoan (*3. Los tomates como*

producto agroalimentario), elikaduraren zein nekazaritzaren testuingurua osatzen dut, tomatea nekazaritzatik datorren elikagai eta produktu gisa aurkeztuta. Bigarrean (*4. Del fruto a la semilla*), haziengan begirada zentratu, eta haziak ugaltzeko bide, araudi eta praktikei begira jartzen naiz. Bi kapitulu hauek bat datoz tesia zeharkatzen duten bi dimentsio edo kezka nagusiekin: alde batetik, ugalketari eta bizitza-aniztasunari lotutako bioteknologia eta teknobiopolitiken aferari; bestetik, jatorriari lotutako identitatearenari. Bestalde, atal orokor honek, testuinguruan kokatzeaz gain, badu beste funtzio bat; EAEn tomatearen laborantza eta kontsumoaren bilakaera ulertzea eta azaltzea. Lan honen helburua kasuak eta bi barietateen historia eta zabalpena ulertzea izan arren, horretarako ezinbestekoa izan zait tomatearen bilakaera eta zabalpena ulertzea, eta horren baitan bi kasuak kokatzea. Hauxe ere bada bigarren atal nagusi horren helburua, izenburuan bertan jaso dudana bezala.

Tesiaren hirugarren atal nagusia Aretxabaletako Larrosa tomatearen ingurukoa da (*III. Atala. Aretxabaletako Larrosa barietatea*). Kasuak berak (*Aretxabaletako Larrosa tomate barietatearen kasua*) eta analisiaren lehenengo kapituluak (*5. Origen, parentesco y reproducción en la producción y singularización de la variedad*) osatzen dute hirugarren atal hau. Aretxabaletako Larrosa kasu honen bidez bereizi ditudan hiru alderdietako batengana gerturatzen gara: barietatearen eraketara edo ekoizpenera¹⁵. Oraingo honetan, Aretxabaletako Larrosaren kasuan ugalketari zein identitateari dagozkien alderdiak analisiaren kapitulu bakar batean jaso ditut (5. kapituluak).

Jackekin bezala, kasua bera kapituluaren errenkadatik atera, eta formalki ere bereizi dut. Kasuei toki berezi eta nabarmena eman nahi izan diet, osotasunean aurkeztuz eta teoria eta analisia geroko utziz. Kasuek gai askotara eramaten gaituzte, eta analisiarekin batera garatzen banituen, kasuak beraiek zatikatuta eta difuminatuta agertuko ziren, eta indarra eta presentzia galdu. Uste dut etnografia honetan kasuek beraien baitan garrantzia eta interesa dutela, eta horrela aurkeztu nahi izan ditut. Horren ondorioz, hartu duten espazio eta formak eraman naute, esan bezala, kapituluaren errenkadatik ateratzera. Nahi duenak kasuak bakarrik irakur ditzake. Halaber, nire asmoa behintzat izan da kasuak irakurri gabe edo gainetik irakurrita tesia ulergarria izatea eta koherentzia edukitzea.

Hurrengo eta azkenengo atal nagusia (*IV. Atala. Jack barietate komertziala eta Euskal Tomatea*), Jack eta Euskal Tomatearen inguruan eraiki dut. Kasuak berak (*Jack tomate*

15 Etnografia honetan zehar hiru elementu bereizten ditut: haziak, barietateak eta tomateak edo fruituak (ikus 1. kapituluak).

barietatearen kasua) eta analisiaren bigarren eta hirugarren kapituluek osatzen dute laugarren atal nagusi hau. Aretxabaletako Larrosa kasuarekin ez bezala, hemen alderdi identitarioa eta ugalketari dagokiona bi kapitulu ezberdinetan aztertu ditut. Lehenengoan (6. *La reproducción de la semilla*), haziaren ekoizpenarengana eta ugalketarengana gerturatzen gara eta, hortaz, ugalketaren dimentsioari eta dimentsio bioteknologikoari eta biopolitikoari erreparatzen diot batez ere. Bigarreanean (7. *La producción del tomate vasco*), tomatearen ekoizpenean arreta zentratu, eta jatorriari lotuta agertzen zaigun dimentsio identitarioari so jartzen naiz.

Aurreko kapitulu eta atalak solasean jarri, eta azkenengo atalean (*Bukaerako hausnarketak*) ondorioak zein bestelako hausnarketak, kezkak, zalantzak, galderak, interes eta jakin-gurak jasotzen ditut. Aretxabaletako Larrosa eta Jack tomate barietateen historia, istorioak eta nortasuna ezagututa, berauetan jatorria, identitatea, ugalketa eta aniztasuna nola agertu, artikulatu eta eratzen diren laburbiltzen dut, betiere begirada feministak ematen digun konplexutasuna eta aberastasuna bidelagun.

Euskaraz hasi naizen arren, testua euskaraz eta gazteleraz idatzi dut. Kapitulu batzuk hizkuntza batean daude, eta beste batzuk bestean. Beraz, ez ditut bi hizkuntzak nahasten horien baitan. Hala ere, nireak ez diren hitzak -izan tokian tokiko lanetik ateratakoak, izan liburu edo beste dokumentu batzuetatik ateratakoak-, jatorrizko hizkuntzan jaso ditut beti. Jatorrizko hizkuntza eta kapituluarena ezberdinak diren kasuetan, nik neuk egindako itzulpenak gehitu ditut. Bestetik, ahalegindu naiz hizkuntzaren erabilera ez-sexista egiten, baina gaztelerazko kapituluetan generiko maskulinoa edo femeninoa erabiltzerakoan, zalantzan ibili naiz. Ahal izan dudan guztietan, termino neutroak erabiltzen saiatu naiz. Beste batzuetan, baina, ezin izan dut. Horrelakoetan, generiko femeninoa erabiltzearen aldekoa naiz normalean. Oraingo honetan, baina, ez dut horrela egin. Izan ere, oso maskulinizatuta dauden lan eta sektoreen inguruan hitz egiten dut hainbat unetan, eta horrelakoetan femeninoz hitz egitea desgokia suertatzen zitzaidan. Izan dezakeen potentzialitate performatiboa ukatu gabe, gizonen gain-presentzia ezkututzen ari nintzen sentsazioa nuen. Ondorioz, zenbait unetan generiko maskulinoa kontzienteki erabili dut. Beste batzuetan, aldiz, generiko femeninoa lehenetsi dut, normalean segitzen dudan irizpideari jarraiki.

I. Atala

Etnografiaren oinarriak



1. Etnografiaren abiapuntua

Oinarri kontzeptualak eta gaiaren definizioa

Ikergaia eta lanaren helburuen definizioak hiru oin edo abiapuntu nagusi izan ditu: abiapuntu etnografikoa, abiapuntu edo testuinguru ekosoziala, eta abiapuntu edo oinarri kontzeptuala. Abiapuntu etnografikoa, 2015eko jardunaldian zein egin nituen bestelako lekuan lekuko lanaren hasierako saioek eman zidaten, baita Master Amaierako Lanetik (MAL, edo TFM gazteleraz) neukan ezagutzak ere¹⁶. Lehenengo informazio eta ezagutza horiei esker erabaki nuen tomatearengan zentratzea eta, zehatzago, bi tomate barietateen kasu-azterketa egitea. Ikergaia euskal testuinguruan eta bereziki Gipuzkoan kokatu dudan arren, horri marko ekosozial eta globala ematea ezinbestekoa iruditu zait. Horrek norabide ematen die gaiari zein helburuei, baita erro zehatz batzuk ere. Abiapuntu edo testuinguru etnografiko eta ekosozialarekin batera, oinarri kontzeptualek lagundu didate ikergaia eta lanaren helburuak zehazten. Haziak -baita barietateak eta tomateak beraiek ere-, gehienetan, objektu soil batzuk baino, izaki bizidun gisa agertu zaizkit; harremanek eta harremanetan osatutakoak. Are, objektifikatuta agertu zaizkidanean ere, sare eta harremanetan eginak eta ekinak aurkitu ditut. Hartara, hazi, tomate eta barietateetara nola gerturatu, eta berauek nola definitu nahi nituen problematizatu eta aztertu behar izan dut. Orain, etnografia honen oinarrian dagoen hurbilpen kontzeptuala argitzeko unea da.

16 2014an aurkeztu nuen *Las semillas como cuerpos generizados y generizantes. Un análisis de género de los discursos en torno a la biodiversidad cultivada* izenburuko lana. Bertan, landutako bioaniztasunaren eta bertako barietateen inguruko diskurtsoak ikuspegi feministatik aztertu nituen. Euskal Herrian haziekin gertatu eta gertatzen ari denaz aztertzen duten lanen gabezia izan zen lan horren ondorioetako bat.

1.1. Haziak, tomateak eta barietateak. Ikergaiarenganako hurbilpen kontzeptuala

1.1.1. Haziak

Ugaltzeko gaitasuna duten izakiak dira haziak. Halaber, maiz, haziak beraiek elikagaiak ere badira. Haziak ekoiztean haziak ugaltzeko ere egiten dira. Hortaz, besteak beste feminismotik oso kritikatu izan den "ekoizpena-ugalketa" dikotomia lurruntzen da haziak ekoiztean/ugaltzean, eta dikotomia hori iraultzeko eta horretatik at pentsatzeko eta munduak sortzeko bide dira haziak. Hala ere, hazien inguruko pribatizazio- eta merkantilizazio-prozesuek berauen funtzio bikoitz hori bitan banatu dute; haziak edo elikagaiak dira -beraz, produktu edo merkantzia-, edo produkzio bideak dira -ugaltzeko dira hazi-merkantziak ekoizteko- (Kloppenburger 1988). Prozesu horiek beraiek sortu dute, neurri batean, "ugalketa/ekoizpena" dikotomia hazien inguruan.

Haziek, baina, nekazaritzan eta elikaduran duten funtzioetatik harago, horietatik bereizi ezin daitekeen funtzio sozial eta kulturala ere badute (Aistara 2011, 493; Barba 2014):

Description of seeds as 'heirloom varieties' conjure images of carefully protected and cherished objects with an enduring past ritualistically laid in the hands of the next generation. Yet seeds are quintessential migrants, passing unseen across human-created borders throughout time, bringing old-world crops to the new, and sometimes invading new territories on their own (Crosby 2004). For people, seeds and plants can be the embodied memories of home and marker of tradition (Nazarea 2005b) (Aistara 2014, 12)¹⁷.

Haziak 'barietate tradizional' gisa deskribatzeak, hurrengo belaunaldiaren eskuetan erritualki jarritako eta iragan iraunkorra duten objektu preziatu eta babestuen irudiak ekartzen dizkigu. Hala ere, haziak zerbait badira, migratzaileak dira, eta denboran zehar pertsonen sortutako mugak zeharkatzen dituzte, ikusezin; 'iraganeko munduko' laboreak ekartzen dituzte orainera, eta, batzuetan, lurralde berriak inbaditzen dituzte beraien baitan (Crosby 2004). Pertsonentzat, haziak eta landareak etxeko oroimen haragituak eta tradizioaren erakusle izan daitezke (Nazarea 2005b).

Hartara, haziak gordetzearekin batera, pertsonak eta espazioak lotu eta birlotu egiten dira, belaunaldi eta muga geografikoak zeharkatuz (Aistara 2014, 15). Haziak harremanak dira, eta komunitate ezberdinetako memoria gorputzen dute. Halaber, gorde, ugaltzeko, trukatu eta ereiten dituzten nekazari askorentzat haziak izaki bizidunak dira, zeinekin harreman esanguratsuak dituzten. Pertsona eta haziek elkar zaindu eta hazi egiten dute; kolaboratzen dute, elkar babesten dute, eta konplizeak dira bizimodu zehatz batean (Aistara 2011, 493). Hazi eta giza-komunitateen artean ahaidetasun-harremanak sortzen dira, eta genealogiaren terminologia

¹⁷ Kapitulu honetan egileak egin ditu jatorriz euskarazkoak ez ziren aipu eta testuen itzulpenak.

nabarmetzen da hazien inguruko harremanez ari garenean (Franklin, Lury, eta Stacey 2000b; Van Dooren 2008; Aistara 2014; Carro-Ripalda, Astier, eta Artía 2015). Gizakiak eta labore barietateak "lagun espezieak" (*companion species*) (Haraway 2016a) dira: "They are natural living organisms on which humans have intervened and have thus coevolved with humans since the beginning of the agriculture¹⁸" (Müller 2014a, 3).

Gizakiokin batera elkar-eratzten diren izakiak dira, beraz. Horrela begiratuta, "natura/kultura" dikotomiatik at ulertzen ditut, eta horrela ere definituak izan dira. Beraien inguruan "purifikazio prozesuak" (Latour 1991) egin diren arren, horiek erabat inposatuta izan dira, nekazaritzarako haziak eta labore barietateak landare eta gizakion arteko harremanaren ondorioa baitira. Ezin ditugu kokatu "naturaren" aldean, ezta "kulturaren" aldean ere. Donna Harawayen terminologian, "cyborgak" (1995) edo "naturokulturak" (2004; 2016a) dira. Halaber, hazi bat ugaltzean, izaki biologiko bat ugaltzearekin batera kultura ere ugaltzean, zabaldu eta eraldatu egiten da (Franklin et al. 2000b). Horrenbestez, "natura/kultura" dikotomia gaindituta, espezie-arteko aliantzarako izaki aproposak dira, espezieen arteko ahaidetasun berrietarako aukera (Haraway 2016b; 2019); bizitzak birsortzeko espezie-arteko aterpeak (Tsing 2015a).

Hala eta guztiz ere, esan bezala, hazien inguruan purifikazio- eta merkantilizazio-prozesuak bultzatu dira, eta horiekin batera "natura/kultura" dikotomian kokatuak izan dira. Hori, baina, modu ezberdinetan interpretatu egin da. Sarah Franklin, Celia Lury eta Jackie Stacey (2000b) luzaz desnaturalizatu egin direla baieztatzen dute. Esanahi kulturez betetako izakiak izan dira, kulturen eta tokian tokiko historian txertatuta. Gerora, landutako bioaniztasunaren galeraren aurrean, birnaturalizatuak izan dira, eta horien inguruan kontserbazio-estrategia eta -ekimenak bultzatu dira. Birgit Müllerren (2014b) arabera, haziak naturatik bereizten dira - purifikatu egiten dira- eta gizakion ekintzaren ondorioz hartuak dira. Latourren terminologiarekin jarraituz, translazio prozesu bat gauzatzen da hazien inguruan; "naturaren input" moduan hartuta, beraien inguruan egiten diren hobekuntza-programen bidez gizakion sorkuntza bilakatzen dira (Van Dooren 2008), eta horrela pribatizatu eta merkantzia bilaka daitezke. Ezaugarritzeko, sailkatzeko, izendatzeko eta erregistratzeko prozesuen bitartez haziak jabego eta merkantzia bilakatzen dira (Van Dooren 2008; Aistara 2014). Kategorizazioa eta erregistroa diziplinarako teknikak dira, zeinen bitartez boterea zirkulatzen den (Aistara 2014). Zentzu honetan hazien biopolitikaz hitz egin dezakegu. Hala ere, XXI.

18 "Izaki bizidun naturalak dira; gizakiek beraingana eragin dute, eta beraiekin batera eboluzionatu dute gizakiak ere nekazaritza hasi zenetik".

mendean gorputzak eta izakiak inguratzen dituen teknologiarengandik bereizi ezin ditugula kontuan hartuta, nekazaritzako hazi eta barietateen inguruan aritzean teknobiobotereaz (Haraway 2004; Preciado 2008) mintzatzea nahiago dut.

Bereziki azkenengo mende erdian zehar hazien inguruan jazo diren pribatizazio-, merkantilizazio- eta purifikazio-prozesuek haziak berauen testuingurutik bereizi dituzte, hazien genetikarengan begirada zentratuz eta horren arabera horien identitatea eraikiz. Modernitatean "natura" edo "bizitza bera" (*life itself*) biologizatu bazen, azkenengo hamarkadotan genetizatu da. Bizitza informaziotzat hartua, instrumentalizatu, merkantilizatu eta pribatizatu da (Franklin 2000). Gorputza edo subjektua jada ez da "molarra", "molekularra" baizik (Rose 2007), eta zatikatu egiten da. Zatiketa horretan, nahiz eta gizaki eta ez-gizakion arteko ekintzaren nodoak izan, geneak beraien baitako objektu gisa tratatzen dira, eta bizitza eta ugalketa unitatetzat hartzen dira (Haraway 2004). Horrek, genearen fetixismoaz edo fetixismo genetikoz mintzatzera darama Haraway, eta ideia horri jarraiki hazien fetixismoaz dihardu Guntra A. Aistarak (2011).

"Kapitalismoaren forma berri gisa", bioekonomiak¹⁹ bizitzaren zientzia eta kapitalismoaren arteko artikulazio konplexuei erreferentzia egiten die, eta artikulazio horiek zenbait eremutan gertatzen dira: biobankuetan, bioprospekzioetan, laguntza bidezko ugalketarako teknologietan, edo genetikoki eraldatutako organismoetan, besteak beste (Pavone eta Goven 2017). Halaber, askotariko forma hartzen ditu bioekonomiak: neoestraktibismoan, nekazaritzan, medikuntzan edo gizakion zein bestelako izakien ugalketan, besteak beste, ikus dezakegu (Lafuente Funes 2017). Bioekonomietan material biologikoa birbaloratu eta esanahi berriz betetzen da; ikerketarako eremu, teknologiarako gorputz, eta merkantzia bilakatzen da material biologikoa, eta horretatik etekinak ateratzea helburu, merkatu kapitalisten zentroan kokatzen da. Bioekonomien gorakadaren garaian eta Antropozeno edo Kapitalozenoan kokatzen da lan hau eta bertan aztertzen ditudan hazien inguruko harreman, historia eta praktikak.

19 "Bioekonomia" eta "bioekonomiak" terminoen esanahiak eztabaidatuak eta borrokatuak izan dira, eta badira. Izan ere, hasiera batean terminoa garapenari egindako kritikei eta garapen sostengarriaren ideari lotuta agertu zen. Egun, aldiz, maiz ekonomia kapitalista bera bultzatzeko eta definitzeko erabiltzen da termino hau (Lafuente Funes 2017). Vincenzo Pavone eta Joanna Govenek (2017) terminoaren hiru interpretazio bereizten dituzte. Ematen duten hirugarrena da orain erabiltzen dudana: bioekonomia kapitalismoaren forma berri gisara definitzen dute hirugarren adiera horretan.

1.1.2. Haziak, tomateak eta barietateak. Lekuan lekuko lanak ezarrarazi didan bereizketa

Haziez ziharduen, batik bat, tesi hau egiteko bekarako aurkeztu nuen proiektuak. Haziekin batera, labore barietateez eta bioaniztasunaz ere hitz egiten nuen. Orduko hartan ez nuen aurreikusten hazi, barietate eta fruitu edo tomateen artean bereizketa argi bat egin beharko nuenik eta errealitate berdinari erreferentzia egiten zioten terminotzat nituen. Landutako bioaniztasunaren galeraz mintzatzeko behar nituen kontzeptuak ziren, alegia. Aitzitik, etnografian aurrera egin ahala, gero eta argiago izan dut termino horiek bereizteko beharra.

Andeetan nekazaritzarako landareetan hiru alderdi bereizten dituzte: alde batetik hazia identifikatzen dute; bestetik landarearen gorputza; eta, azkenik, espiritua. Patataren -"paparen"- kasuan, hazia tuberkulua bera da, landarearen gorputza landarea bera, eta espiritua landarearen fruitua (Lema 2020). Hau ez da zehazki nik aurkitu dudana bereizketa. Halaber, lekuan lekuko lanean hiru alderdi ezberdinei erreferentzia egin bazaie ere, inork ez dit horien inguruan era koherente eta kontziente batean hitz egin. Hots, hemen ez dago Andeetan bezala landareen ikuspegi osorik zeinetan hiru alderdi horiek identifikatzen diren. Edonola ere, bertako hazi eta barietateen gaira gerturatzean, eta ikertutako bi barietateen inguruan egindako saio etnografikoetan, bereizi beharreko hiru elementuekin egin dut topo: hazi, barietate, eta tomate edo fruituekin. Hainbatetan, hiru alderdi horietako baten inguruan hitz egin didate edo jardun dugu. Beste batzuetan, aldiz, bereizita agertu dira. Halaber, baten inguruan egindakoak besteengan eragina du maiz. Esaterako, haziekin egindakoak fruituari eragiten dio, edo tomatearekin egin eta bilatutakoak hazia edo barietateari. Adibidez, Jack kasuan tomatea bere ezaugarriengatik eta jarri zaion izenagatik ezaguna da, eta horretarako ezinbestekoa izan da haziaren izena, ekoizpen-prozesua, eta -harremanak ezkutatzea. Halaber, tomateen ekoizpenerako, Gipuzkoako tomategintza sektorean barietatearekin duten aspaldiko harremana eta horren inguruan duten aspaldiko jakintza ezinbestekoak dira.

Horrenbestez, hasiera batean hazien inguruan jardun behar zuen lan hau hazi, tomate eta barietateen inguruko lana izan da, eta hiru alderdi horiek argiki bereizi ditu. Halaber, bereizketa horren identifikazioa gakoa izan da bi barietateen kasuen analisirako. Izan ere, une batzuetan haziaz, barietateaz edo tomateaz ari ginela konturatzeak horien inguruko praktika, harreman eta identitateak argiago ikusten lagundu dit.

1.1.3. Barietateak²⁰

Botanikan, labore barietateak espezie taxonaren azpian dagoen kategoria edo taxon moduan definitzen dira. Halaber, identifikatzen duten zenbait ezaugarri dute barietateek, espezie berekoen artean gurutzatu eta ugaltu daitezkeen arren. Bestalde, legalki ematen den definizioa ez da askoz zehatzagoa. Kasu horretan, berriz ere, barietateek beraien artean bereizten dituzten mota ezberdinetako ezaugarriak dituztela dio hori arautzen duen legeak²¹. Halaber, barietatea norbanako edo unitate gisa identifikatu behar dela dio araudiak. Hala ere, nahiko zabala eta anbigua izan arren, definizio legalak eragin zehatzak ditu, horren arabera erregistratu, babestu, pribatizatu eta ekoizten baitira haziak. Definizio botanikoa zein legala, biak ala biak, oso zabalak dira, barietateak zerk identifikatzen dituen eta beraien arteko mugak zerk ezartzen dituen ez baitute zehazten.

Beraz, labore barietateak taxon botaniko eta kategoria legalak direla baieztatu dezakegu lehenik eta behin. Ez dira, "berez", "naturan" aurkitzen dugun zerbait; naturan kokatu eta gizakiok mugatu, definitu eta sortzen duguna baizik. Barietateak, haziak bezala, gizaki eta landareek batera izandako existentzia eta bilakaeraren ondorioa dira. Halaber, zenbait identifikazio- eta singularizazio-prozesuren emaitza ere badira.

La singularización no es otra cosa que la producción de entidades, la demarcación de objetos diferenciados, en este caso los tipos y clases del fruto que observamos en el mundo. Se trata de una suerte de orden de las cosas en sí mismas, en el que la plasticidad de las poblaciones de manzanas está, no obstante, sujeta al principio de la forma y de la distribución de formas en el espacio y en el tiempo, formas que hablan el lenguaje de las variedades (Cañedo, prentsan).

Singularizazioa izakien ekoizpena edo eraketa baino ez da, objektu bereizien mugaketa; kasu honetan, munduan behatzen ditugun fruitu mota eta klaseena. Gauzen beraien ordena-zortea da, zeinetan, hala ere, sagarrondo-populazioen plastikotasuna formaren printzipioari eta espazioan eta denboran formek duten banaketari lotuta dagoen, eta forma horiek barietateen hizkuntza adierazten duten.

Barietateak ez dira klasifikazio huts baten ondorio diskurtsiboa, klasifikazio horrekin batera abian jartzen diren praktiken ondorioa baizik. Praktika horiek barietateak beraien artean bereizi, zerbait gisa definitu, eta horrela tratatu, ugaltu eta hazi egiten dituzte, barietateei beraiei forma eta existentzia emanez (Cañedo, prentsan). Horretan, barietateen hazkuntza

20 Barietatearen nozioan eta definizioan 4.2. atalean sakonduko gehiago.

21 Ley 30/2006, de 26 de julio, de semillas y plantas de vivero y de recursos fitogenéticos. Ikus: <<https://www.boe.es/boe/dias/2006/07/27/pdfs/A28165-28178.pdf>>. [Azkenengo ikustaldia: 2020/07/20]. Tesirako kontsultatutako lege eta araudien taula aurki daiteke Eranskina Ian.

(*crianza*) gakoa da²². Barietate baten haziak gorde; erein; landaretxoak aldatu; landareak zaindu, bideratu, kimatu, mugatu eta bultzatu; eta zein landare eta fruitu edo loretatik hazia atera hautatu; hori da barietateen hazkuntza. Barietateen hazkuntza-prozesuetan barietateak beraiek sortu eta birsortu egiten dira, espezieen mugak gainditzen dituen harreman- eta praktika-sareen baitan. Hazkuntza-prozesuak, baina, ez dira norabide bakarrekoak, eta barietateak eta landareak hazten diren bezala, horiekin harremanetan dauden pertsona eta komunitateak ere hazi egiten dira (Rengifo eta Ishizawa 1997). Esan bezala, barietateak, gizakiok eta komunitateak batera eratu, existitu eta aldatu egiten dira.

Barietateen hazkuntza barietateak beraiek sortzeko prozesua da, ontografia²³ bat: "La crianza da manzanas opera, así, como una *ontografía* que practica diferenciaciones en el mundo de lo real, que traza formas en el marco de procesos de singularización" (Cañedo, prentsan)²⁴. Beraz, barietateak bereizteko, sortzeko, landatzeko eta ugaltzeko prozesuek barietateak beraiek sortzen dituzte, "errealaren munduan" barietateak kokatu eta definitu egiten baitituzte.

Barietate hibridoen kasuan, Montserrat Cañedok honakoa baieztatzen du: barietateak ez dira hibridoak sortzeko prozesuen abiapuntua, helmuga baizik. Hibridoak soilik dira barietateak potentzialki. Barietate bat izatera heltzeko, barietateak probatu, erregistratu, izen batekin identifikatu eta ezagutarazi egin behar dira. Orduan bakarrik "barietate" bat dira. Are, zenbait kasutan, izen batekin erregistratuta eta beste nonbaiten merkaturatzen diren barietateak toki berri batera heltzean berriz ere "barietate" bilakatu behar dira. Kasu honetan, bakarrik lurrak, klimatologiak, inguruko xomorroek, bertako nekazarien egiteko moduek eta bestelakoek emango diote heldu berri den barietateari "barietate" estatusa (prentsan). Beste hitz batzuetan esanda, "el estatus de variedad de un material vegetal es el producto del mismo dispositivo evaluador, y está sujeto a una relativa labilidad. Lo que en cada momento cuenta como *una* (variedad) es relativo a un entramado práctico que permite esa enunciación" (Ibid.)²⁵. Hortaz,

22 Bi prozesuen arteko tentsioak osatzen du hazkuntza terminoa; hazkuntzak bilatzen du norbanako baten garapen autonomoa baina, era berean, garapen hori bideratu edo diziplinatu nahi da (Cañedo, prentsan).

23 Cañedok zentzu etimologikoan erabiltzen du ontografia hitza. Ontografia munduaren "grafia" edo idazketa da, beraz. Mundu erreala praktikatu egiten da, ekintzan sortzen da, eta horixe bera azpimarratu nahi du Cañedok gailendu den "ontologia" terminoaren aurrean (prentsan).

24 "Beraz, sagarren hazkuntzak mundu errealean desberdintasunak praktikatzan dituen *ontografía* bezala jarduten du, singularizazio-prozesuen baitan formak marrazten dituena".

25 "Landare-material baten barietate-estatusa barietatea balioztatzen duen mekanismoaren beraren emaitza da, eta nolabaiteko labilitatearen menpe da. Une bakoitzean norbanakotzat (barietatetzat) hartzen dena, enuntziatio hori ahalbidetzen duen egitura praktikoko bati lotua zaio".

El ejercicio ontográfico de creación -de escritura de entidades en la piel del mundo-, en el que consiste el discurso de las variedades, implica singularizar objetos, no como un proceso de revelación y descubrimiento de algo que estaba oculto y ahora, finalmente, la ciencia de las plantas logra nombrar; sino como una práctica de estabilización de líneas de diferencia genética interna a la especie (Ibid.).

Sorkuntza-ariketa ontografikoak -munduaren azalean izakiak idazteko ariketa, alegia-, zeinetan barietateen diskurtsoa oinarritzen den, objektuak bereiztea dakar, ez ezkutuan zegoen eta orain landareen zientziak izendatzea lortu duen zerbait ezagutarazi eta aurkitzeko prozesu gisa; espezie barruko diferentzia genetikoko lerroak egonkortzeko praktika gisa baizik.

Ikusi bezala barietateak zerbait mugikorra eta ahula izan arren, zerbait finko eta egonkor gisa ere aurkezten dira. Hartara, barietateetan, singularizazio eta dibertsifikazioaren arteko etengabeko tentsioa ikusten dugu. Espezie baten barruan dagoen aniztasunaren *continuumean* norbanako edo unitate gisa definitzen den hori dira barietateak. Aniztasun horren beharra dute, eta horren barruan mugitu, definitu eta birdefinitu egiten dira etengabe. Bestalde, barietateak bereizi eta sortzen direnean -Cañedoren terminologian singularizatzen direnean-, usu, nolabaiteko jatorriren bati atxikitzen dira. Toki eta historia batean kokatzen dira barietateak, eta hori ere barietateen definiziorako oinarrietako bat izan ohi da.

1.1.4. Natura, bioaniztasuna eta kontserbazioari hurbilpen teoriko-kontzeptuala

Antropologiaren hainbat arlotan, bereziki mendebalde modernoan naturaren inguruan ezarri zen "natura/kultura" dikotomia oso eztabaidatua izan da azkenengo hamarkadotan. Gai ezberdinetan nola aplikatu den ere aztertua izan da. Ingurugiro-antropologia da dikotomia hori kolokan jarri duen arlo paradigmaticoetako. Izan ere, bere ikergaia "naturatzat" hartu den ingurunearekin zuzen lotuta dago. Lehenagotik jada, antropologia feministan ere era ezberdinetan eztabaidatua izan da dikotomia hori. Natura/kultura dikotomiarekin loturik eraiki zen sexu/genero dikotomia bera ere, eta azkenengo hau bada antropologo feministek gehien eztabaidatu duten dikotomietako bat²⁶. Horrekin batera, beste adibide bat jartzearren, ugalketa/ekoizpena dikotomia bera ere aspaldi kolokan jarri zen antropologia feministan, eta horrek ere badu natura/kultura dikotomiarekin zerikusirik. Beste hainbat arlotan ere dikotomia hori erabili eta/edo kolokan jarri da, besteak beste, tesi honetan presente egongo diren elikaduraren antropologian eta ahaidetasunaren antropologian. Jan daitekeen edozer gauza ez

26 Simone de Beauvoirrek (2019) *Bigarren sexuan* emakumea ez dela jaio, egin egiten dela baieztatu zuenetik, mahai-gainean jarri da emakumeen naturalizazioa eta, horrekin batera, emakumetasuna eraikuntza soziokulturala dela. Beraz, "naturalizatua" izan denari kritikak nabarmenak izan dira feminismoan. Hala ere, generoa eraikia dela onartuta ere, luzaz sexu dikotomikoa "naturaltzat" hartu zen, sexu/genero dikotomia natura/kultura dikotomiaren parera eraikiz. Azkenengo hau ere XX. mendearen bukaerako hamarkadetatik kolokan jarri da.

da elikagai bat. Elikagaia, besteak beste, kulturak egiten du. Jangarria dena eta ez dena ez baita gauza bera kultura guztietan. Baina, elikagaia ez da bakarrik kultura. Gizaki eta inguruaren arteko harremanetik sortzen dira elikagaiak (Fischler 1985). Eta, adibidez, turismoa "ondare natural" eta "ondare kultural" zutabe nagusien gainean eraiki bada luzaz, egun halabeharrez aurreko bien artean kokatu behar dugun hirugarren hanka batean sostengatzen da: gastronomian. Ahaidetasunaren antropologiaren kasuan ere, natura/kultura dikotomiak garrantzia handia izan du. Luzaz, mendebaldean, ahaidetasun-harremanak "biologian" oinarritu ziren eta dira. Horixe bera ere, baina, zalantzan jarri zen, biologia bera kulturalki eraikitako zerbait dela baieztatzean (Schneider 1968; 2007). Ahaidetasun-harremanetan natura eta kultura erabat elkarloturik eta nahasirik daude eta ahaidetasunaren oinarria baino, zenbait ahaidetasun-ereduren ondorioa direla esan dezakegu. Hartara, natura edo biologia bera, baita kultura ere, zenbait sexu-genero sistema, ahaidetasun-eredu edo inguruarekin harremanak sortzeko ditugun bideen ondorioa dira.

Modernitatearen muinean bertan koka dezakegu natura eta kulturaren artean eraikitako bereizketa ontologiko eta epistemologikoa (Latour 1991), eta biologia eta bestelako zientzia modernoek eragin handia izan dute dikotomia honen eraikuntzan. Zientzia modernoak "aurrean" eta zientziarengandik berarengandik bereizita dagoen errealitatea edo objektuak aztertzea baino, errealitatea edo balizko objektu horiek sortzen ditu (Hacking 1986; Latour eta Woolgar 1995; Haraway 1995; Preciado 2008). Besteak beste, sortzen dituen errealitateen artean naturaren nozioa bera eta naturan kokatzen diren objektu eta/edo izakiak ditugu. Halaber, natura terminoa sortzearekin batera "gorputzak" eta "komunitateak" menperatzeko baliabideak ere sortzen ditu zientziak (Haraway 1995, 72). Arraza, sexua eta generoa, besteak beste, natura kontzeptuarekin batera diskurtso biologikoaren produktua dira (Haraway 2004), eta menderakuntza sistema baten barruan eraiki diren kategoriak dira. Natura "bestea" bezala eraiki da klase-, arraza- eta sexu-menderakuntza sistemetan (Haraway 1999). Hortaz, zapalkuntza eta menderakuntza sistema horietatik ateratzeko, bizitzaren bestelako zientzia eraiki behar da, bestelako naturaren kontzeptu batekin -edo batzuekin-. Feminismotik eta ekologismotik erraza ez den ardura eta erronka hori badugula esan zuen jada aspaldi Harawayk (1995, 74). Batetik erauzketa edo estraktibismoan eta esplotazioan, eta bestetik reifikazioan oinarritzen ez den natura kontzeptuaren bila dabil filosofo feminista (1999). Zentzu honetan, natura "topos" bat edo leku erretoriko bezala definitzen du (Ibid.) eta, beraz, eztabaidatzeko gunea. Natura gatazkarako espazioa da, teknologiak gero eta presentzia handiagoa du gatazka horretan, eta gure bizitza esperientziak erabat zeharkatzen ditu naturak

edo bere inguruko gatazka horrek (Hester 2018). Beharrezkoa da, beraz, naturari lotutako gaiei gerturatze feminista²⁷.

Ingurumen-antropologiatik ere, natura kategoria diskurtsibo eta gatazkarako gune gisa definitu da (Ruiz Ballesteros 2018). "Naturalizazioa" lurralde bat natura bilakatzeko estrategia da (Ruiz Ballesteros et al. 2009; Ruiz Ballesteros 2018). Ingurunearen birdefinizio material eta sinbolikoa eragiten du naturalizazio prozesuak, mendebaldeko naturalismoarekin bat (Descola 2012), eta horren arabera birkokatzen dira bertan ematen diren gizaki eta ingurunearen arteko harremanak (Ruiz Ballesteros 2018). Objektu eta substantibo gisa aurkeztua izan den naturaren ideia baztertu eta arrakalatu, lehenengoz adjektibo edo atributu bilakatu -naturalizazioa-, eta azkenik ekintza edo aditz modura kontzeptualizatzea proposatzen du Esteban Ruiz Ballesterosek (Ibid.). Dimensio praktiko eta fenomenologikoari arreta jarrita, natura ingurunean egoteko eta egiteko modu bezala ulertzea proposatzen du egileak, *naturing* terminoaren bidez.

Edonola ere, "natura/kultura" dikotomia kultura zehatz batzuetan sortua eta, beraz, eraikia izan arren, kultura eta gizarte horietan abian den mundua sailkatzeko eta azaltzeko eta munduan egoteko modua da. Horrenbestez, kategoria horiek ezin ditugu guztiz baztertu, behintzat mendebaldean kokatzen ditugun ikergaiak ulertzeko eta aztertzeko oraingoz behar baititugu. Hala ere, mendebalde modernoan hegemoniko bilakatu den "mundu-ikuskerak" edo "ontologia naturalistak" ez ditu mendebaldean ere eta naturalismoaren ondoan existitzen diren bestelakoak estali behar (Montero Cruzada 2017). Are gutxiago bioteknologia, bioekonomia eta Antropozeno edo Kapitalozenoaren garaian, zeinetan natura eta kulturaren arteko mugak lausotu eta balizko bi eremuen arteko hibridazioak -deitu cyborgak (Haraway 1995), deitu naturokulturak (Haraway 2004; 2016a)- ugariak eta nabarmenak diren.

Naturaren -eta kulturaren- inguruan dugun mundu-ikuskerak eta/edo ontologiaren arabera kokatuko gara "bioaniztasunaren" atakan ere. Edo, agian kontrakoa, problematika bera izendatzeko eta definitzeko modua aldatzen da norbere ontologiaren arabera. Aniztasuna, eta kasu honetan landutako bioaniztasuna, zerbait kuantitatiboa balitz bezala definitua izan da. Bizitza guztiek balio bera balute bezala, bioaniztasunak bizitzen urritasuna edo oparotasunari erreferentzia egingo lieke. Nago, ikuspegi horretatik, bioaniztasuna naturan dagoen eta

27 Hala egin eta aldarrikatzen dute *Global Nature, Global Culture* liburuaren sarreran bere egileek (Franklin, et al. 2000a).

estatiko eta monolitikoa den zerbait gisa ikusten dela; bizitzak ez dira harremanetan, bizitzak bizitzak dira, eta bere baitako izaera eta balioa balute bezala aintzat hartzen dira. Zentzu honetan, bestelako zenbait izakirekin gertatu bezala, bioaniztasuna "naturalizatu" egiten da eta, beraz, naturalizatzeko prozesu horren ondorio edo emaitza da bioaniztasuna. *Naturing* ekintza bat bada, bioaniztasuna kontzeptua ere *naturing* ekintza eta/edo prozesuen ondorena da.

Aitzitik, badira aniztasunaren inguruan bestelako ikuspegiak, zeintzuk bioaniztasunaren ideia bertara gerturatzeko baliagarriak izan dakizkigukeen. Aniztasuna era kualitatiboan definitu dezakegu, eta hala egiten dugunean eskuragarri ditugun barietate edo hazi kopuruetatik harago doa (Aistara 2011). Zehatzago, maiz, bioaniztasuna sare, harreman, identitate eta praktika batzuei lotuta izan da, eta aniztasun kulturaletik ezin bereizirik agertzen zaigu. Aniztasuna bada, biokulturala da (Maffi 2005). Ikuspegi horretatik, bizitza-existentzia zehatzak eta zenbakarriak baino, bizitzak sortzeko eta sostengatzeko sareak eta harremanak interesatzen zaizkigu, "bioaniztasuna sortzeko guneak" (*sites of the 'emergence' of biodiversity*) (Van Dooren 2008), alegia. Elkarrizketatu dudan nekazari ekologiko batek esan bezala, berak ez ditu haziak gordetzen haziek beraiek duten balioagatik -soilik-; haziak praktika eta ekimen zehatzak -nekazaritza bera- bizirauteko gure aliatuak dira, eta horregatik zaindu eta ugaltu egin behar ditugu. Edonola ere, zaindu, ugaltu edo biziraute diren eta "anitzak" diren bizitza zehatz horiek badute balio kualitatibo bat bere baitan. Aniztasuna, zentzu honetan, "bestea" da, arraroa eta aurreikusi ezin dezakeguna, "xenoa" (Hester 2018), edota onartezina edo desegokia eta jabetu ezina den bestea (*otro inapropiado/inapropiable*) (Haraway 1999)²⁸. Zentzu honetan, aniztasuna kategoria edo taxonetan sartzen ez den hori da (Ibid.). Eta hori da tesi honetan atxiki eta aitortzen diodan balioa.

Bioaniztasunaren galeraren aurrean, naturalizatuta eta zentzu zenbakarri batean ulertuta, kontserbazioa izan da abian jarri den estrategia bat. Kontserbazioak, baina, kulturatik natura bereizten duen eta objektibizatzen duen ontologia naturalista du oinarri, orokorrean. Erauzketa edo esplotazioaren beste aurpegia da. Hala ere, maiz "berandu" heltzen da

28 Nik Harawaytik hartzen dut kontzeptu hau. Hala ere, nabarmentzekoa da gerora feminista ez-zuriek terminoa erabilia egin duten ekarpena. *Otras inapropiables. Feminismos desde las fronteras* (hooks et al. 2004) liburuaren izenburuan, hain zuzen, terminoa agertzen dute. Kasu honetan, bestetasun arrazializatuaz mintzatzen zaigu kontzeptua. Besteak beste, liburu horretan galdetzen dute -digute- nolatan izan duten horrenbeste oihartzun Harding, Haraway edo Butler bezalako feminista erradikalek Atlantikoko Europa aldean, eta ez, aldiz, feminista ez-zuriek (Biglia, 2004). Beraz, liburu horri erreferentzia egin gabe ezin kontzeptua erabili. Halaber, arrazaren gaian sartuko ez banaiz ere, horrekin estuki lotuta egon daitezkeen genetika eta purutasunaz arituko naiz bestetasunaren eta aniztasunaren inguruan aritzean. Eta, berriz ere, gai hauek lantzean ezinbestekoak iruditzen zaizkit bestetasun arrazializatuetatik egindako ekarpenak.

kontserbaziorako gogoia; "una vez que se completa la dominación, la conservación es urgente. Pero quizás la preservación llegue demasiado tarde" (Haraway 2015, 58)²⁹. Halaber, balizko "natura" suntsitu duten logika berdinen gainean eraikitzen da kontserbazioa.

Proyectos carísimos para reunir diversidad 'de la naturaleza' y almacenarla parecen dar como resultado moneda falsa, semillas empobrecidas y reliquias polvorientas. Como en el caso de la hipertrofia bancaria, la naturaleza que nutre los depósitos 'desaparece' (Haraway 1999, 122).

'Naturaren' aniztasuna bildu eta gordetzeko proiektu oso garestiek diru faltua, hazi pobretuak eta erlikiak baino ez dakartzatela dirudi. Banku-hipertrofiaren kasuan bezala, biltegiak elikatzen dituen natura 'desagertu' egiten da.

Hartara, jada kolokan jarri dudana eta egungo egoera ekologikoaren oinarrian dagoen "natura/kultura" dikotomian oinarritzen den heinean, kontserbazioaren paradigma ez da egungo egoera iraultzeko gai. Hala ere, nagusitasuna du (bio)aniztasunaren kudeaketan eta, beraz, ikergai behintzat behar du izan.

Laburbilduz, txiki geratzen zaizkigun, baina era berean egungo mundua aztertzeko behar ditugun kontzeptuak dira natura, (bio)aniztasuna eta kontserbazioa. Haziakin sortzen diren harreman, praktika eta jakintzak "natura" ulertzeko moduekin erabat elkarloturik daude, eta "natura" bera ere egiten da praktika horietan zehar. Tesi honetan zehar "natura/kultura" edo "natura" eta "kultura" edo "naturokulturalak" egiteko eta pentsatzeko modu ezberdinak agertuko dira, gehienetan elkarri eragiten eta elkarrengandik erabat bereizteko zailtasunekin. Naturalismoa mendebaldean abian den ontologia hegemoniko eta nagusia bada ere (Descola 2012), "gu ere indigenak gara" (Montero Cruzada 2017), baita cyborgs eta naturokulturalak ere (Haraway 2004; 2016a).

1.2. Ikergaia eta ikerketa-helburuak

Abiapuntu etnografiko, ekosozial eta kontzeptualetik definitu ditut tesiaren ikergaia eta ikerketa-helburuak. 2015eko udazkenean Kaxilda Liburudendan egin zen jardunaldia eta gero ikergaia zehazten joan nintzen, Aretxabaletako Larrosa eta Jack tomate barietateen inguruko kasu-azterketak egitea erabaki bainuen.

29 "Menderakuntza amaitu ondoren, kontserbazioa premiazkoa da. Baina, agian, beranduegi iritsiko da".

Kasu horiei begira, **ikergaia** horrela definitu dut: **Arexabaletako Larrosa eta Jack tomate barietateen singularizazio-prozesuak ikertu ditut, horien historia, laborantza eta indibiduazio-, hedatze-, eta dibertsifikazio-prozesuak aztertuturik**. Horretarako, azkenengo berrogei urteotan izan duten bilakaera zein egun berauen inguruan eratzen diren praktikak aztertu ditut, EAEn kokatuta baina bereziki Gipuzkoako lurralde historikoan aztertuta. Zehatzago, tesi honetan duela 30 eta 40 urte inguru EAera "izenik" eta osperik gabe heldu ziren bi tomate barietateen historiak, memoriak, eta horien inguruko praktikak eta sareak ezagutuko ditugu. Jack barietatearen kasuan, *Eusko Label* eta *Euskal Tomatea* marka eta zigiluak ere aztertu beharko ditugu, barietatearen beraren historia eta egoera ezagutzeko. Barietate hauek bizi izan dituzten prozesuak ulertzeko, erabat bereizi ezin daitezkeen hiru dimentsio edo eremuei so ere jarri beharko gara: nekazaritzaren egoera eta bilakaerari dagokien dimentsioa; elikadura eta nortasunari dagokiena; eta, azkenik, ugalketa eta bioteknologiari dagokiena. Hiru dimentsio hauek elkar-loturik daude, elkar elikatzen dute, eta ezin dira bata ulertu besteak kontuan hartu gabe.

Bi tomate barietate hauen kasuak EAEn eta Gipuzkoan kokatu arren, testuinguru globaleko joera eta gertakarien baitan ere aztertu beharra dago. Izan ere, tomateen laborantza eta kontsumoa globalizatuta dago, hemen gertatzen dena beste toki batzuetan gertatzen denaz aparte ezin da ulertu, eta, are, tomateek hamarkada gutxi batzuk baino ez daramatzate Euskal Herriko baratzeetan eta sukaldetan -batez ere gordinik eta entsaladan kontsumitzeko diren barietateak-. Halaber, ikertutako bi tomate barietateak "bertakotu" badira ere, Jack barietatearen kasuan bere haziak ez dira ez Gipuzkoan ez EAEn ekoizten eta, beraz, barietate horren tomateen ekoizpena bera transnazionala edo globala da. Halaber, gai zehatz eta errealitate lokal hauetatik EAetik harago doazen problematikei begira ere jarri nahi izan dut. Azaldu bezala, Antropozeno/Kapitalozenoaren garaian bizi gara (Haraway 2016b; 2019), kalteturiko lurrean (Tsing 2015a), eta genetika eta bizitza bera instrumentalizatu eta merkantilizatu duten (Franklin 2000; Haraway 2004) bioekonomien (Pavone eta Goven 2017) testuinguruan. Bizitza urritzen ari da, eta horrekin batera bizitza-aniztasuna. Bizitzarako aukerak mugatu, eta bizitza zehatz batzuk bultzatu eta ahalbidetzen dira (Fassin 2009; Butler 2010; Pérez Orozco 2019). Bizitzak birsortzeko aterpeak eta gaitasuna agortu ditugu (Tsing 2015a). Testuinguru horri heldu nahi izan diot tokian tokiko errealitate bati behatuz; bi tomate barietate hauen historiak, memoriak eta praktikak ezagutzeko eta aztertuz. Horrenbestez, horri begira zedarritu ditut tesiaren helburuak.

Honako hauek dira etnografia honen **helburuak nagusiak**:

1. **Aretxabaletako Larrosa eta Jack tomate barietateen bilakaera ezagutu nahi izan dut; hau da, euskal nekazal-eremuan duten tokia zein den ulertu, eta bertan nolako bilakaera izan duten eta horren zergatiak ezagutzea izan dut xede.** Horretarako, tomate barietate horien historia, istorioak, memoria, testuinguru komertziala eta nekazal-testuingurua ezagutu nahi izan ditut. Aurrekoarekin batera, bi barietate horien inguruan jarduten duten aktore eta egituratzen diren harreman, praktika eta sareak ere ezagutu eta aztertu ditut.
2. Aurreko helburuarekin batera, **tomate horiek nola definitzen diren, nola definituak diren, eta zein praktketan eratzen diren aztertzea ere izan dut helburu.** Tomate eta barietate horiek euren inguruan egiten diren praktketan eta eurekin sortzen diren harremanetan ezaugarritu, definitu eta egin egiten direla planteatzen dut; beraz, praktika eta harreman horiek aztertu nahi izan ditut. Kasu honetarako, singularizazio-, indibiduazio-, bereizketa- eta identifikazio-praktikez ari naiz, identitate eta subjektibitatearen eraketaz, alegia.
3. **Bi tomate hauen historian bereizketa- eta singularizazio-praktika horiek zein dibertsifikatze- eta homogeneizazio-prozesu eragin dituzten ikusi, ikusarazi eta aztertzea ere izan dut xede.** Esan bezala, eta kontraesanak kontraesan, bioaniztasuna kontzeptua tesiaren jatorrian dago eta tesi osoa zeharkatzen du, eta bi kasuak aztertuta bioaniztasunaren sorrera, kudeaketa eta galerari behatu nahi izan diot. Halaber, bioaniztasunaz aritzeaz bizitza bultzatzea edo mugatzearen inguruan hitz egitea da, eta beraz prozesu horietan bizitza nola zaindu, ugaltu, edo mugatu egiten den ere ulertu nahi izan dut. Bestalde, aniztasuna, dibertsifikazioa eta homogeneotasuna kontzeptuak ez ditut soilik aplikatu baratzean dagoen aniztasun biologikoa ulertzeko; bestelako izaki eta bizitza formei dagozkien praktika, harreman, eta jakintzen aniztasun edo homogeneotasunarekin batera ikertu izan dut hori.

Halaber, aurreko helburuekin batera, tesi honek azkenengo helburu orokorra izan du. **Gehienetan oso urrun dauden eta nire iritziz elkarri gutxi begiratu eta entzuten dioten antropologia feminista eta ingurugiro-antropologia elkarrizketan jartzea ere izan dut xede.** Soberan dira ingurugiro-antropologiak eta antropologia feministak partekatzen dituzten kontzeptu eta ikergaiak: zaintza(k), hazkuntza, bizitzak eta horren iraunkortasuna, edo

"natura/kultura" dikotomiari kritikak, besteak beste. Bestetik, Monsanto eta Bayerren arteko fusioak edo bat-egiteak erakutsi bezala, bioekonomien eta bizitzaren genetizazioaren garai honetan, gizakiei zein bestelako izaki bizidunei eragiten dieten teknobiopolitikak logika berdinen arabera eraiki eta antolatzen dira. Hartara, badu zentzua toki hibrido honetatik begiratzeak. Are, begirada eta ideia berriak ekar diezagukeelakoan nago. Halaber, maiz, ematen du antropologiaren bi adartzat hartzen diren horiek gaiak eskatzen duenean baino ezin daitezkeela batu, genero eta ekologiarekin zerikusia duen gai bat aztertzen dugunean, alegia. Oraingoan, hortik harago joan nahi izan dut, eta ingurugiro-antropologiaren gaitzat har genezakeenari antropologia feministatik begiratu diot; are gehiago, antropologia feministaren esparrura ekarri nahi izan dut, antropologia feminista generotik harago baitoa eta generotik harago doazen gaiak aztertzeke egoki bezain emankor eta iradokitzaile baita.

Bestalde, aurreko guztia kontuan hartuta eta oinarri kontzeptualetatik abiatuta, honako hau proposatu nahi dut tesi honetan: Gipuzkoara heldu zirenetik, Jack eta Aretxabaletako Larrosa tomate barietateek identitatea eta aitortza eman dien singularizazio-prozesua (Cañedo, prentsan) bizi izan dute eta, prozesu horretan, elkarren ondoan egon dira, elkarri eraginez eta elkar eginez. Bi barietate eta identitate horiek sortzeko bidean -Jack eta Euskal Tomatearen identitatea batetik, eta Aretxabaletako Larrosa identitatea bestetik-, hiru dimentsiok berebiziko garrantzia hartu du:

- Barietateak birsortzeko edo ugaltzeko moduak eta praktikek, baita espezieen arteko muga gaindituz horien bueltan sortzen diren *relatedness* (Carsten 2000) edo harremanek ere.
- Barietateak ekoizteko prozesuek; barietateak direna eta ez direna mugatu eta zedarritu, barietateak sortu, eta barietateak bereizi eta singularizatzen dituztenak.
- Aurreko biak zeharkatuz, barietateen lurraldetasuna, bertakotasuna eta jatorriak.

Halaber, identifikazio eta barietateak sortzeko prozesu horietan aniztasuna eta singularizazioaren arteko etengabeko tentsioan murgilduko gara. Barietateak eratzean izaki berriak sortu arren, existitzen den bizitza-*continuumean* mugak ezarri eta ekoiztu daitezkeena edo baloratu nahi dena identifikatu eta mugatu egiten da.

2. Etnografiaren nondik norakoak

Ikerketaren prozesu, hautu eta ekarpen metodologikoak³⁰

Soziologian lizentziatu ostean, *Ikasketa Feministak eta Generokoak Masterra* egin nuenean master horretako "ibilbide antropologikoa" egitea erabaki nuen, eta ostera doktore-tesia antropologiatik egitea ebatzi ere. Hasiera batean, sinpleki, antropologiatik ikertzea lan etnografikoa egitea zela ondorioztatuz, etnografia bat egingo nuela erabaki nuen, azkenean bi tomateen inguruko etnografia izan dena, hain zuzen. Metodologia etnografikoan nuen formazio eskasarekin, eta soziologian de-formatua, abentura etnografiko honetan sartu nintzen. Nik heldulekuak bilatzen nituenean zuzendariak "vete al campo"³¹ agintzen zidan. Amildegia.

Amildegiaurrean, maiz, ez heldulekurik, ez jauzirik, tarteko nonbaiten egon naizela pentsatu izan dut, norabiderik gabe eta planteamendu metodologikorik gabe. Hala ere, hasieratik oinarri batzuk argi izan ditut; oinarri epistemologikoak batez ere. Horiek presente izan ditut lekuan lekuko lanean zehar, eta zeharka egituratu dute lan hori. Halaber, nire gorputza ere konstante bat izan da lan etnografikoan, horren subjektu nagusia izan baita. Izan ere, etnografian, gorputza gure lanabes nagusienetakoa da. Beraz, aurretik planteamendu metodologiko zehatzik izan ez arren, lan etnografiko egoki eta emankorra egin dudala iruditzen zait.

30 Eskerrak eman nahi dizkiet lankide eta bidelagun izandako Olatz Dañobeitia Ceballos, Miren Guilló Arakistain eta María Zapata Hidalgori, atal honetarako emandako laguntzagatik; beraien tesiak eta metodologiaren inguruan emandako klaseetako materialak partekatzeagatik. Marta Luxán Serranori, atalari egindako ekarpen eta zuzenketak eskertu nahi dizkiot.

31 "Lekuan lekuko eremura joan".

Atal honetan prozesu etnografiko horren berri emango dut, helburu bikoitzarekin. Alde batetik, sortutako jakintza metodologiaren bidez balioztatzen dugulako. Bestetik metodologiak, bere horretan, garrantzia duelako. Epistemologia positibistaren planteamenduak alboratzearekin batera, balizko errealitate objektiboaren ilusioa ere baztertu izan dute positibismoari kritika egin diotenek. Errealitatea bezala, jakintza harreman eta praktiken ondorio da eta, nola ez, praktika eta harreman horietan ikerlaria kontuan hartu beharreko subjektua da. Izan ere, ikerketaren emaitza ikerketa-prozesuaren eta ikerlariak hartutako erabaki eta bideratutako ekintzen emaitza da. Horregatik, positibismoaren kontrako apustua egiten dugularik, ikerketa-prozesuaren nondik-norakoak eta ikerlariaren hautu eta ekintzen berri eman behar dugu; ikertzailea desagerrarazi ordez, presente egin. Eta hau ez da gardentasun ariketa soil. Horrek ematen dio zilegitasun eta balioa lanari, "zientifizitatea" esan nezakeen, hitz hori kolokan jarri beharko ote genukeen zalantzati. Areago, horrek objektibitatea ere ematen dio lanari, eta horrela "objektibitate feminista" (Haraway 1995) eraikitzen dugu³². Objektibitate feministak gorpuztutakoa izan behar du; "markarik gabeko" ikertzailearen ideiarekin apurtzen du. Horrela aldarrikatzen du filosofo feministak:

Yo busco una escritura feminista del cuerpo que, metafóricamente, acentúe de nuevo la visión, pues necesitamos reclamar ese sentido para encontrar nuestro camino a través de todos los trucos visualizadores y de los poderes de las ciencias y de las tecnologías modernas que han transformado los debates sobre la objetividad. [...] Así, de manera no tan perversa, la objetividad dejará de referirse a la falsa visión que promete trascendencia de todos los límites y responsabilidades, para dedicarse a una encamación particular y específica. La moraleja es sencilla: solamente la perspectiva parcial promete una visión objetiva. Se trata de una visión objetiva que pone en marcha, en vez de cerrar, el problema de la responsabilidad para la generatividad de todas las prácticas visuales (Haraway 1995, 326)³³.

Nik, metaforikoki, ikusmena berriz ere indartuko duen gorpuzaren idazketa feminista bilatzen dut; izan ere, objektibotasunari buruzko eztabaidak eraldatu dituzten bistaratzeko trikimailu guztien eta zientzia eta teknologia modernoan boterearen artean gure bidea aurkitzeko, zentzumen hori aldarrikatu behar dugu. [...] Hala, objektibotasunak ez dio erreferentzia egingo muga eta erantzukizun guztien transzendentzia agintzen duen ikuspegi faltsuari. Horren ordez, eta ez hain modu maltzurtean, gorpuzte partikular eta zehatz bati egingo dio erreferentzia. Irakaspena sinplea da: ikuspegi partzialak baizik ez du ematen ikuspegi objektiboa. Ikuspegi objektibo honek, praktika bisual orori dagokion sormenaren ardurarekiko arazoa itxi ordez, bide ematen dio.

Objektibitate hori sortzeko bidean, erreflexibitatea ezinbestekoa dugu. Antropologian 80ko hamarkadatik hona asko hitz egin eta eztabaidatu da erreflexibitateaz³⁴. Halaber, epistemologia feministatik ere, Donna Harawayen planteamenduari lotuta horren garrantzia azpimarratu izan

32 Harawayk (1995) kontzeptu hori erabili eta defendatzen du "objektibitate positibistaren" aurrean.

33 Kapitulu honetan egileak egin ditu jatorriz euskarazkoak ez ziren aipu eta testuen itzulpenak.

34 Kontzeptu honen berrikuspen baterako, ikus Rosana Guber (2011).

da. Erreflexibitatea tresna metodologikoa dugu, eta horren bidez jakintza sortzeko bidean eratzten diren botere-harremanak ikusarazi eta kolokan jar ditzakegu (Gandarias 2014)³⁵.

Horrenbestez, kapitulu hau tesi hau sortu duten harreman, estrategia eta praktikak agerian jarri nahi dituen erreflexibitate ariketa izango da³⁶. Hala ere, erreflexibitateak tesi osoa ere zeharkatuko du, egindako hautuak jasoz eta, adibidez, tokian tokiko laneko aipu eta erreferentzietan nire presentzia agerian utziz. Gainera, prozesu honetan zehar nire presentziak -eta Marc Badalenak- zein gure lanek ikergaiari eragin diote zuzen-zuzen. Hortaz, Aretxabaletako Larrosa tomatearen kasuan, gu geu ere izango gara aztergai, aztertutako gaia eta errealtatearen parte bilakatu baikara.

Aitzitik eta esan bezala, metodologiaren inguruko atal honek badu beste helburu bat. Metodologia gure lanen oinarrietako bat da, eta metodologian ere trebatu egin behar gara, eta ikasi. Hortaz, diseinu metodologikoetatik harago, ikerketa-prozesuaren berri emateak zein egindako ahaleginak, akatsak eta ikaspenak azaltzeak berebiziko garrantzia duela pentsatzen dut. Doktore bilakatzeaz gain, tesi honek antropologo ere bilakatu nau, eta bilakaera horretan lekuan lekuko eskarmentua funtsezkoa izan da.

Bi xede horiei eusteko asmotan, lau azpiataletan antolatu dut kapitulua. Lehenik eta behin, abiapuntu epistemologikoz zein lekuan lekuko lanaren abiapuntuaz arituko naiz. Bigarrenik, lekuan lekuko lanean egindakoen eta erabilitako tekniken berri emango dut, eta horrekin batera etnografia honen ezaugarri nagusi bat azpimarratuko dut; hainbat unetan, Marcekin batera lan egin dudala eta, beraz, bi pertsonen artean egindako etnografia izan dela. Hirugarrenik, prozesuan nik neuk bizitakoari eta sentitutakoari lehentasuna eman, eta horrek ezagutzarengan izan duen eraginaz arituko naiz. Azkenik, zenbait hausnarketa eta proposamen jarriko dut mahai gainean.

35 Erreflexibitatea antropologian eta epistemologia feministan nola garatu den sakontzeko ikusi aipatutako artikulua.

36 Metodologiaren inguruko kapitulua erreflexibitate-ariketa gisa aurkezteko ideia Zapata Hildagori (2019) zor diot, berak ere horrela aurkezten baitu bere tesian.

2.1. Amildegiairen aurrean ezin jauzi egin. Tokian tokiko lanaren abiapuntua

Esan bezala, soziologia ikasketak bukatu ostean ekin nion masterra eta doktore-tesia egiteari. Antropologiatik lan egin nahi nuela banekien, baina etnografia zehazki zer zenaz deus gutxi nekien, ez maila teorikoan, ez eta praktikoan. Gainera, tesi zuzendariak "vete al campo, vete al campo" esaten zidan, baina nik ez nekien ez zein zen "eremu" hori, ez eta bertara nola joan ere. Batzuetan, "vete al campo" horri gehitzen zion "berak aginduko dizu". Eta nik galdetzen nion nire buruari ea esaldi hori ez ote zen bere ikuspegi latourrianoaren gehiegizko interpretazioa. Nola aginduko zidan, bada, "el campo" k³⁷? Gerora, eskarmentuak eta irakurgaiek erakutsi didate "el campo" delako hori guk geuk ere sortu egiten dugula, ikertzen dugun errealitatearekin eta eremuarekin harremanean. Bestetik, etnografiaren gakoetako bat, hain zuzen, lekuan lekuko lanaren eremu horri lekua egin eta bertan sortzen diren hari, harreman eta galderei espazioa ematea dela ere ikasi dut.

Rosana Guberrek (2011, 20), etnografiaren inguruko bere lanetako batean, etnografiak malgua eta irekia izan behar duela azpimarratzen du. Irekitasun horri eta ikerlariaren ezjakintasunaren onarpenari esker, aurreikusi ezin dezakegun "hori" eta "zentzurik ez duen" hori ikustera hel gaitzke. Edonola ere, Guberrek berak onartzen duen moduan, lekuan lekuko lana eta etnografia egiteko modua nabarmen aldatu dira, eta horrela aldatu da, etnografiaren alde "ireki" hori ere. Etnografiaren hainbat arlotan lanketa metodologiko handiak egin dira³⁸. Horien ondorioz, etnografia egiteko modua zabaldu, aberastu, eta aldatu ere egin da. Guberrek, etnografiaren izaera ireki eta malguari lotuta, ikerlaria ezjakintasun metodologiko

37 Orokorrean, tesian zehar "lekuan lekuko lana" edo "tokian tokiko lana" terminoa erabiltzen ditut, orokortuagoa dagoen "landa lana" erabili ordez. Bestetik, gazteleraz "campo" izendatzen dugun horri erreferentzia egiteko "lekuan lekuko lanaren eremua" erabiltzea egoki irudituko litzaidake, baina adierazpena laburtze aldera "lan-eremua" edo "eremua" terminoak erabiliko ditut. Termino horiek euskaraz aurkitzea zaila izan zait, eta horretan berebiziko ahalegina egin dut, nire kasuan lan-eremua landa eremua bera zelako -landa eremua, "baserri inguruko gune edo eremua, hiriguneari kontrajartzen zaiona" da, Euskaltzaindiaren Hiztegiaren definizioa hartuta-. Beraz, konfusioak sor zitzakeen iruditzen zitzaidan. Edonola ere, nabarmendu nahiko nuke gazteleraz deritzon "campo" euskaratzeko ditugun hitzak landa eremutik datozela. Eremu edo alor terminoak aproposak izan zitezkeen horretarako. Biak ala biak, landa eremutik datoz, eta espazio edo gune mugatu bati erreferentzia egiteko erabiltzen diren hitzak dira. Landa eremu horretatik aterata, ikerketa arloan zein bestelako hainbat arlotan ere mugatzen dugun zerbaiti erreferentzia egiteko erabiltzen dugu eremu edo alor hitza. Kasu honetan, ikerketan zehar mugatzen dugun ikerketarako esparruari erreferentzia egiteko erabiliko ditut "lan-eremua" edota "lekuan lekuko lanaren eremua" terminoak. Miren Artetxe Sarasolari, Jaime Altuna Ramirez eta Jone Miren Hernández Garcíaari horren inguruan emandako azalpenak eta partekatutako hausnarketak eskertu nahi dizkiet.

38 XX. mendeko 70. eta 80. hamarkadetan azaleratu ziren gizarte zientzien epistemologia eta eredu metodologiko nagusiei egindako kritikak. Halaber, kritika horiekin batera esperimendazio metodologikorako bideak ere ireki ziren (Guilló 2020); etnografiaren "une experimental" izendatu zuten orduan jada George E. Marcus eta Michael F. Fischerrek (1986).

batetik abiatzen dela ere badien arren, metodologikoki gero eta prestatuago gaudela esango nuke nik. Halaber, metodologiaren inguruan ikastea eta horretan trebatzea irekitasun eta malgutasun horrekin bateragarria ere izan daiteke. Edonola ere, etnografiaz zein bere metodo edo metodologiez prozesuan bertan ikasi dut gehienbat. Areago, prozesuan baino gehiago, idazteko momentuan, lekuan lekuko kaiera irakurriz, egin ditut etnografiari buruzko ikaspen garrantzitsuenak.

Hortaz, etnografia honen abiapuntuan etnografiaz metodologikoki gutxi zekien Marta Barba Gassó soziologoa zegoen. Irekia, bai, baina lanerako behar diren tresnak gehiegi ez ezagutu eta kontrolatzeak sortzen duen ziurtasun ezarekin. Baneramatzen jada urte batzuk SIMReFen³⁹ parte hartzen eta epistemologia eta metodologia feministen inguruko lanketa egiten. Aitzitik, gai horiek beste planteamendu metodologiko batzuekin loturik nituen landuak, eta etnografiaz gutxi banekien, horri ikuspegi metodologiko feminista gehitzeaz are gutxiago. Horrenbestez, zeharka aplikatu ditut epistemologia feministaren begirada eta ikuspuntua nire lekuan lekuko lanean. Horren araberrako planteamendu metodologikoa taxutu ordez, prozesu horretan hainbat elementu kontuan hartuz aplikatu dut.

Horretarako, lekuan lekuko lanean zehar begirada erreflexiboa oso presente izan dut: zertarako ari nintzen lanean, zeinengana heltzen nintzen eta norekin lan egitea hautatzen nuen, zein kokapenetan nengoen eta horrek harremani eta ikerketari nola eragiten zion, eta abar. Horrek, behin eta berriz kontraesan askotara eraman nau, eta hainbat unetan blokeatu ere. Itziar Gandariasek (2014) "deserosotasuna bizitzearen" garrantzia azpimarratzen du, eta horren jakitun izan arren, deserosotasun horrek blokeatu egin nau hainbatetan. Hala ere, eta denborak ematen duen talaiatik, egin dudan moduko lekuan lekuko lan batentzat kontraesan eta deserosotasun horiek presente eduki izana lagungarria delakoan nago. Izan ere, metodologikoki nahiko lan "klasikoa" egin dut: ez dut ikerketa parte-hartzailerik egin; ni neu ere hein handi batean ez naiz ikertzen dudan errealitatearen parte; eta nik hartu ditut ikerketari dagozkion erabaki gehienak. Ikertzaileak horrenbeste botere hartzen duen horrelako planteamendu batean, epistemologia eta metodologia feministaren planteamenduak presente izatea "prebentziozko" ekintza da. Idazterakoan, begirada hori kontuan izaten eta nire presentzia jasotzen ahalegindu naiz, jendearengana nola heltzen nintzen eta gure kokapenek egoerari nola eragin dioten agerian jarritz.

39 SIMReF Ikerketa Metodologia Feministaren Diziplinarteko Mintegia da (katalanezko siglengatik du SIMReF izena). Ikerketa metodologia feminista landu eta bultzatzeko helburua du, eta horretarako ikastaroak, mintegiak, jardunaldiak zein ikerketak burutzen ditu.

Amaitzeke, epistemologia feministatik objektu-subjektu dikotomia kolokan jarri izan da. Lehenago azaldu dudan moduan, jakintza gorpuztu eta kokatu egin behar dela proposatu zuen aspaldian jada Harawayk (1995). Maiz, hitz horiek ikerlariari eta berorren kokapenari garrantzia aitortzeko erabili dira: nork eta zein kokapenetik ikertzen duen, zein harreman sortzen ditugun, eta abar. Horren garrantzia ukatu gabe, jakintza kokatuaren proposamenak ezagutzaren beraren inguruan ere hitz egiten digula esango nuke. Esan bezala, jakintza ez dago gugandik eta ikerketarengandik at, ikerketa-harremanetatik eta -ekintzetatik sortutako zerbait da, prozesuan sortutako errealitate partzial bat, hain zuzen. Horri ere tokia egin diot etnografia honetan -oraingoan etnografia bere zentzu literarioan ulertuta, hots, idatzizko testu honetan- eta, horregatik, Aretxabaletako Larrosa tomatearen historia eta istorioa posible askoren artean bat baino ez direla diot. Hori dela eta, historia hori sortzeko bidean hartutako erabakiak eta egindako pausuak ere agerian utzi ditut. Halaber, Marc eta biok historia horretan ere tokitxo bat daukagu, eta hori presente egin nahi izan dut testuan zehar. Jack tomatearen kasuan, modu bertsuan ez bada ere, nire presentzia agerian utzi dut, eta hazi, barietate eta tomate horien izaera eta errealitatea ezagutzeko egin dudan ibilbidea kontatzen ere ahalegindu naiz. Bide horrek, ikertzen ari nintzenaren inguruko informazioa emateaz gain, ikerketa-prozesu eta ikergaiaren "eraikuntzaren" berri ere ematen digu.

2.2. Noraezean norabait, eta nonbaiteraino. Etnografiaren pausuak, faseak, ekimenak eta nolakotasuna

Ikuspegi epistemologiko eta metodologiko feminista presente izanik ekin nion tokian tokiko lanari. Jada esan dut etnografiaz gutxi nekiela eta ikertu nahi nuenaren inguruan ere deus gutxi nekien; "haziak", modu zabalean. "Egungo ekoizpena eta errealitatearen berri" jakin nahi nuen, zehaztasunez. Gaia zehaztu eta lekuan lekuko lana hastekotan nengoela, aipatu jardunaldia gertatu zen Donostian. Ordurako, nire tesi zuzendariak aspaldi esana zidan kultibo mota bat aukeratu eta horretan zentratzeko. Marcek berak ere tomateen kultiboarengan arreta jartzeko esaten zidan. Tomatea horren gaizki moldatzen/hazten den lurralde batean urte "gutxi" batzuetan izan duen zabalpena bitxia egiten zitzaion, eta antropologiatik ikertzeko zerbait zela aipatu zidan hainbatetan. Jardunaldi horretan ezagutu nuen, beraz, interesgarria zatekeen errealitatea eta kasua: Aretxabaletako Larrosa tomatea. Gainera, bazirudien horren bueltan gatazka bat sor zitekeela, baita erregistro- eta pribatizazio-prozesu bat ere. Ikertzeko interesgarria izateaz gain, horrelakorik gertatzekotan baldin bazegoen, horren bueltako ikerketa bat egitea sektorearentzat ere lagungarri izan zitekeela pentsatu nuen. Gainera,

banituen bi "osagai" interesgarri, ikuspegi osoagoa izateko; EAEn nabarmentzen ari zen bertako bariedade bat egoteaz gain, jada erabat nabarmenduta zegoen beste bariedade komertzial eta hibrido bat ere bazegoen, alegia, Jack bariedadea. Orduko hartan, batez ere Aretxabaletako Larrosa tomatearen kasuan zentratzea erabaki nuen, betiere Jack kasuari ere erreparatuz. Oraindik lekuan lekuko lana nola eta non egin argi izan ez arren, zeren bueltan ikertu nahi nuen argiago nuen, eta horrek ireki zidan tokian tokiko lanaren bidea.

2.2.1. Etnografiaren pausuak, faseak eta ekimenak

Egoera ireki horretatik abiatu nuen lekuan lekuko lana. Lehenengo pausua, nituen kontaktuetatik tiraka bideak eta atea irekitzen hasia izan zen, oraindik zehazki zer eta non egingo nuen argi izan gabe. Zentzu horretan, hau ez da izan alde aurretik planifikatutako etnografia. Ez nekien zenbat elkarrizketa, zein profilekori, ezta non eta zenbat "behaketa" egingo nituen. Lanaren helburuek bestela eskatu zidaten. Parean bi tomate bariedadeak nituen, eta horien inguruko informazio mota ezberdinak bildu nahi nituen. Alde batetik, beraien historia ezagutu nahi nuen: Euskal Herrira eta Gipuzkoara heldu zirenetik egungo ospe egoerara nola heldu diren ulertu nahi nuen. Bestetik, egun bariedade horiek zein eta zer diren jakin nahi nuen: besteak beste, non landatzen diren, nola saltzen diren, edo nola ugaltzen diren euren haziak. Halaber, bi informazio mota horiek osatzeko, nekazaritza zein hazien ekoizpen eta ugalketaren inguruko zenbait informazio ere beharko nuela aurreikusten nuen. Informazio horiek osatzeko ezin nuen erabat aurreikusi zehazki nolako tokian tokiko lana egin behar nuen. Guztiz kontrara, hari batzuetatik tiraka hasi, eta kasuak osatu eta behar nituen informazioak jaso arte elkarrizketak, bisitak eta behaketak egitea besterik ez nuen aurreikusten.

Beraz, hiru eremu nagusietan kokatzen nituen hasiera batean jaso nahi nituen informazioak: Aretxabaletako Larrosa tomatearen bueltan, Jack tomatearen bueltan eta, lehenengo sektorean, hazi zein bariedadeen bueltan. Edonola ere, hasiera batean Jack bariedadearen kasuak tesian zein toki izango zuen ez neukan guztiz argi. Agian "kontraste" edo "kontrol aldagai" gisa tratatuko nuke, agian Aretxabaletako Larrosarekin alderatuko nuke, agian... galdera itxi gabe ekin nion bideari, Jacken inguruko informazioa zehazki nola osatu aurrerago erabakiko nuelakoan.

Begirada atzera botaz, oraingo ikuspegitik lekuan lekuko lanean bi fase nagusi identifikatzen ditut⁴⁰. Lehenengo fasean, modu orokorrean gaiari eta lan-eremuari gerturatu eta Aretxabaletako Larrosa tomatearen inguruko informazioak zein praktikak ezagutu eta jaso nituen. Halaber, garai horretan lehenengo sektorean eta hazien eta barietateen munduan inplikaturak zeuden hainbatekin ere egon nintzen. Fase hau, gutxi gorabehera, 2015eko bukaeran hasi eta 2016an zehar burutu nuen. Hala ere, 2017an zehar ere kontaktua izan nuen aurreko urtean ezagututako batzuekin, eta lan-eremuan gutxienezko presentzia mantendu nuen. Bigarren fasea 2017ko bukaera eta 2018ko hasieran gauzatu nuen. Aurreko fasean sortutako informazioa gainetik aztertuta, zein informazio falta zitzaidan eta zein kontrastatu nahi nuen baloratu, eta bigarren faseari ekin nion. Fase horretan, alde batetik, hainbat aditu eta erakunde publikotako langilerekin elkartu nintzen. Zenbait zalantza tekniko argitu eta erakunde publikoen zein ikerkuntza-arloaren inplikazioa ezagutu nahi nuen. Bestalde, Jacken inguruan jada jasoak nituen informazioak ondo osatzeko baliatu nuen bigarren fase hori. Atal hau idazten ari naizelarik, aurreko bi faseoi hirugarren bat gehitu behar diedala konturatu naiz. Etnografia, maiz, idazketa fasearekin batera bukatzen da, eta halaxe izan da oraingo honetan. Beraz, etnografia honen hirugarren fasea analisisa egiteko eta testua idazteko unea izan da.

Lehenengo fasean, beraz, Aretxabaletako Larrosa tomatearen inguruan aritu nintzen batik bat. Tomate horren bueltako egungo praktika, sare eta harremanak ezagutu nahi nituen: tomateak non landatzen diren, haziak non eta nola ugaltzen diren edo barietatea noraino zabaldu den, besteak beste. Halaber, Marcen interesak bultzatuta, barietatearen historian arreta jarri nuen. Horretarako, hasieran Marc eta biok genituen kontaktuetatik tiraka hasi nintzen, eta horien bidez joan nintzen tomate hori inguratzen duen jendea eta harremanak ezagutzen. Kontaktuak lortzeko bide horrek, pertsona gakoak ezagutzeko bidea emateaz gain, sektoreko harremanak eta sareak marraztea ahalbidetu zidan. Hau da, ikergaiari heltzeko bidea bera ikergaiatz ere mintzo izan zait.

Lehenengo fase honetan hiru saio mota ezberdin identifikatzen ditut. Alde batetik, pertsona gakoekin zein lehenengo sektoreko langile eta teknikariekin elkartu eta elkarrizketak egin nituen. Saio hauen helburua sektorean kokatzea, kontaktuak lortzea, eta hainbat informazio praktiko erdietsi eta kontrastatzea zen. Hauetako batzuekin tesiaren urteetan zehar behin baino gehiagotan elkartu naiz, gehienetan, gainera, era informalean. Hau da, ez naiz beraiekin elkartu propio elkarrizketa formal eta egituratu bat egiteko; zonaldera nindoanean deitu eta

40 Lekuan lekuko lanean zehar izan ditudan berriemaileekin -norbanakoak zein talde, ekimen edo eragileak- taula bat osatu dut. Ikus Eranskina II.

pote bat hartzeko, batera bazkaltzeko, edo beraien baratzean bisita bat egiteko baizik. Edonola ere, saio horiek formatu ezberdinak izan dituzte; batzuetan formalagoak izan dira, noizbait grabatu ere egin ditut, eta beste batzuetan erabat informalak izan dira. Halaber, jarduera hauek ezin dira erabat "ikerketa-teknika" batean sailkatu; ez dira ez elkarrizketak, ezta behaketak ere. Aitzitik, etnografian gakoak diren "egoteko uneak" izan dira, lan-eremuan egoteko uneak, alegia; eta, Francisco Ferrándizek (2011, 113) dioen moduan, etnografoek gehien erabiltzen duten metodoa dira. Etnografia teknika zehatz batzuen unean uneko erabileratik harago doa, eta eremuan murgiltzean eta egotean oinarritzen da prozesu etnografikoa. Nire kasuan, etnografiaren lehenengo fase horretan toki gehiago hartu zuten saio horiek eta lan-eremuan sakon eta luzaz murgiltze horrek.

Elkarrizketa eta saio horien adibide argia dira Kepa eta Patxirekin partekatutako uneak. Kepa eta Patxi, biak ala biak, Aretxabaletakoak dira, biak irakasle jubilatua, biak baratzezainak afizioz, eta bien baratzeetan aurkitzen dugu Aretxabaletako Larrosa tomatea. Halaber, Kepa Aretxabaletako Larrosa barietatearen historian pertsona gakoa da⁴¹. 2016eko udaberrian Kepa eta Patxi izan ziren Marc eta bion zonaldeko bidelagun gertukoenak, eta hainbatetan bazkaldu genuen Keparen etxean edota Patxiren baratzeke etxolaren aterpean. Beraien bidez kontaktuak lortu eta Aretxabaletako Larrosa tomatearen historia eta protagonistak ezagutzeaz gain, zonaldean kokatu, bertako nekazaritzaren bilakaera ezagutu, eta azkenengo belaunaldietan jazotako aldaketa sozial eta geografikoen berri izan genuen. Keparen baratzean jakintza tradizionala eta jakintza agroekologiko modernoaren arteko sinbiosi ederra ezagutu genuen; bere amandreak bezala egindako bideak erakutsi eta gero, arraintegian hartutako arrain-hezurak ikus genitzakeen baratze bilakatutako pinudian eta, bitartean, lurra izendatzeko ñabardurak nabarmentzen zituzten hamaika izen erabiltzen zituen. Liluratuta geratzen nintzen. Altueran kokatua dagoen Patxiren baratzean, aldiz, bailararen ikuspegi ederra genuen, bestaldeko mendiak eta zelaiak ikusten genituelako. Horiei begira, maiz, ingurunearen aldaketen berri izan genuen. Bertan biekin izandako hitzorduak oso emankorrak izan ziren, gu ia-ia desagertu egiten baikin, eta beraien arteko elkarrizketak informazio askoren iturri bilakatu baitziren.

Bigarren saio mota bat, bereziki Aretxabaletako Larrosa tomatearen historian gakoak izan diren pertsonen egindako elkarrizketak edo bisitaldiak izan dira. Horien helburua barietatearen historia eta horretan garrantzitsuak izan diren pertsonak ezagutzea izan da. Formalki, saio

41 Aretxabaletako Larrosa barietatearen kasuan sakonago aurkeztuko ditut.

horien muina elkarrizketak izan dira: hainbat baserri eta baratzeetara joan gara bertakoak elkarrizketatu, barietatearen historian duten papera ezagutu eta horri buruz dakitena jasotzera. Edonola ere, horrelakoetan toki handia hartu dute baratzeek eta baserriek beti. Guk asmo hori izan ala ez, gure solaskideek baratzeetara eraman gaituzte, euren lan eremuetara, alegia. Nik hala aurreikusi ez banuen ere, solasaldiotan jasotakoaz gain, elkarrizketak inguratu dituzten une eta tokiek hitzek bezainbesteko informazioa eskaini didate. Kasuak idaztean horretaz konturatu naiz eta hori islatzen ahalegindu naiz. Hori dela eta, saio horiek ezin ditut "elkarrizketa" moduan sailkatu eta izendatu, berauetan ikerketa-teknika horretatik harago doazen informazioak sortu baititugu. Badakit, berez, etnografia horretan datzala, eta lekuan lekuko saio guztiak ezin direla teknika batean edo bestean sartu, lehenago esan bezala etnografiaren gako nagusia lan-eremuan murgiltzea baita. Aitzitik, elkarrizketan izan behar zituzten baina hortik harago joan ziren horiei izena jarri nahi izan diet, berauen ezaugarriak azpimarratzeko asmotan. "Bisitaldiak" izendatu ditut⁴². Aretxabaletako Larrosa kasuaren protagonista gehienekin egin genituen bisitaldiak, kasu gehienetan Marcekin batera. Noizbait, baina, berak bakarrik edo nik bakarrik ere egin izan ditugu.

Azkenik, lehen fasean barietateen bueltako egungo praktika, harreman eta jakintzak ezagutzeko gako izan zaidan azkenengo saio mota bat behaketak izan dira. Horietako batzuk errepikatuak izan dira, eta beste batzuk aldizkakoak. Jarraikortasuna izan zuten behaketak bi tokitan egin nituen. Batetik, Neikerreko Derioko instalakuntzetan, neguan zein udaberrian, bertako tomate barietateekin entsegu bat egiten ari zirenean⁴³. Bestetik, Ekolandare Mintegikoekin ere hainbat behaketa egin nuen 2016ko udaberriko denboraldian, haziak erein eta landareak gehien saltzen dituzten sasoiak, alegia⁴⁴. Beraiekin, mintegian bertan zein zonaldeko azoka batean beraien salmahaian egin nituen behaketa saioak. Kasu horretan, haziak ereiteko eta landareak sortzeko prozesua ezagutu nuen, baita landareen salerosketarena

42 Sakonduko dut horretan metodologia kapituluaren amaieran.

43 NEIKER, Nekazaritza Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea da. Erakunde publikoa ez den arren, Eusko Jaurlaritzari estuki lotua da. Hainbat egoitza ditu eta bakoitzean arlo ezberdinak lantzen dira. Arkaute egoitzan Germoplasma-Bankua dute. Derioko instalakuntzetan, aldiz, zenbait barazki-laborantzari lotutako ikerketa eta entseguak burutzen dituzte. Germoplasma-Bankuko espezie horien haziak ere Derion gordetzen dituzte. Besteak beste, Derion hainbat urtetan bertako tomate barietateekin entseguak egin dituzte, beraien ekoizpena ezagutu eta ezaugarritzeko eta tomategintza konbentzionaleko ekoizleen artean bertako barietateren bat edo beste zabaldu nahian. Entsegu horietan Aretxabaletako Larrosa barietateak -bertan "Morado de Aretxabaleta" edo "Aretxabaleta" izendatuta- presentzia handia izan du. Entsegu horietako batean behaketak egin nituen 2016. urtean zehar.

44 Ekolandare mintegia lauzpabost urte martxan daraman landare ekologikoko mintegia da, eta Gipuzkoan dago. Proiektuaren bultzatzaile eta langileek oso presente dute bertako barietateen gaia, eta lan handia egiten dute inguruan dauden barietateak jasotzen, ezagutzen, eta beraien mintegian ereiten, saltzen eta zabaltzen.

ere. Halaber, azokan egoteak, berriz ere, zonaldean kokatzen lagundu zidan: beraien arteko harremanak, baratzarekiko joerak eta jarrerak, barietateekiko gustu zein lehentasunak eta abarrekoak ezagutu nituen bertan. Era berean, azokan bertan alde aurretik elkarrizketatutako beste pertsona batzuk ere bazeuden, eta "lan-eremuan" presentzia mantendu eta pertsonokin harreman informalagoak sortzen ere lagundu zidaten behaketa horiek. Bestalde, aldizkako behaketak ere egin ditut. Barietate honen historian denak ez dira baratzezainak, eta azkenengo urteotan tomate barietate horren bueltako ekimenak areagotu dira. Horiek ere historia hau osatzen dute, eta beraz, ekimen horietara ere bertaratu naiz, kasu batzuetan elkarrizketak ere eginez osagai gisa. Adibidez, *Aretxabaletako Tomatearen Asta*⁴⁵ ekimenean hainbatetan egon eta gero, horren antolatzaileak elkarrizketatu nituen, ekimen horren nondik norakoak hobeto ezagutzeko.

Aretxabaletako Larrosa tomatearen kasua osatzen nindoan heinean, Jack tomatearen inguruko informazioak ere biltzen joan nintzen. Izan ere, bertako barietateak, Gipuzkoa mailan - bereziki sektore agroekologikoan- ezaguna eta erreferentziazkoa bilakatzeko bidean, Jack izan du ispilu eta kontraste. Bertako barietateekin egin diren ikerketa askotan Jack "kontrol aldagai" gisa erabili da. Halaber, Aretxabaletako Larrosa barietatea definitzerakoan, maiz, Jackekin konparatuz egin dute. Hortaz, Jacken presentzia nabarmenaz ohartu, eta horren inguruko informazioak biltzen joan nintzen lekuan lekuko lanaren lehenengo fasetik bertatik. Limara ikerketa-egonaldia egitera joan aurretik lekuan lekuko lana itxi nahi nuen, beraz, orduan ekin nion lekuan lekuko lanaren bigarren fase horri. 2017ko bukaerako eta 2018ko hasierako hilabeteotan izan zen hori. Nituen informazioak osatzea nuen xede. Horretarako, fase horretan bi eremu nagusi arakatu nahi nituen: alde batetik Jacken bueltako informazioa osatu nahi nuen; eta, bestetik, orokorrean nituen informazioak borobildu nahi nituen, nituen zalantza batzuk argituz, eta testuinguru orokorra hobeto osatuz. Eta horri ekin nion.

Horretarako, alde batetik, lehenengo sektorekoak diren eta hazien ekoizpen zein ugalketarekin harremana duten hainbat langile, teknikari, agronomo eta ekoizlerekin elkartu nintzen. Bestetik, Jacken inguruan nituen zalantzak argitzeko beste bide batzuk jorratu nituen: berriz ere hainbat teknikari ezagutu eta elkarrizketatu; Jack tomateak ekoizten dituzten bi etxalde ezagutu eta bertako nekazarietako bat elkarrizketatu; Jack hazien ekoizpena gerturatu; eta, *Eusko Labeleko Euskal Tomatea* markaren inguruan informazio gehiago izateko, zigilua

45 Ekimen hau 2016an burutu zuten lehenengo aldiz eta horren ostean urtero antolatu dute, 2020an izan ezik, pandemiaren eraginez. Debagaraia Debagoienako Landa Garapenerako Elkarrekin eta Debagoienako Mankomunitateko Turismo arloak antolatzen dute, besteak beste Aretxabaletako Udalaren babesarekin. Aretxabaletako Larrosa kasuan hobeto ezagutzeko dugu ekimena bera eta antolatzaileen lan eta zeregina.

kudeatzen duen *Hazi Fundazioko* langile batekin kontaktatu. Halaber, kalitateko tomateen ekoizpen eta merkaturatzearekin zerikusia zuen hainbat ekimen ere ezagutu nuen.

Oraingo honetan, Jack tomateak ekoizten dituzten bi baserrietan lehenengo fasean egindako moduko bisitaldiak egin nituen. Aldizkako behaketaren bat ere egin nuen, baina epealdi horretan egindako saio gehienak elkarrizketak izan ziren. Fasea ixtear zegoela, Jack haziak Euskal Herrian merkaturatzen dituen komertziala elkarrizketatzea lortu nuen, Aitor⁴⁶. Bere bitartez baieztatu nuen haziok hainbat urtetan Perun ekoiztuak izan zirela, eta horrek ireki zidan lekuan lekuko lana bertan amaitzeko gogoia. Tokian tokiko lana bukatutzat nuenean joan nintzen Limara ikerketa egonaldia egitera eta, han nengoelarik, Perun multinazionalentzako hazi hibridoak ekoizten dituen etxalde bat ezagutzeko parada izan nuen. Bertan, tesi honen azkenengo bisitaldia egin nuen.

Bi fase hauetan zehar, dokumentazioa biltzeari eta aztertzeari ere ekin diot: barietateen erregistro eta hazien ekoizpenari buruzko legediak, egindako ekimenen kartel, eskuorri edo argazkiak, eta prentsan agerturiko albiste zein erreportajeak, besteak beste. Horiek ere gakoak izan dira tesi honetan, eta testuan zehar erreferentzia egingo diet.

Berriz aipatu nahi dut etnografia honetan lekuan lekuko bi epealdi horiek osatzen dituen hirugarren fase bat ezinbestekoa izan dela, hots, analisi eta idaztearena. Nire kasuan, idaztea izan da analisia egiteko unerik baliotsuena, ideiak garatu, teoriarekin lotu, eta proposamen berriak egiteko unea, alegia⁴⁷. Halaber, tesia idazten joan naizen heinean ikusi dut zein informazio osagarri behar nituen eta zein ordenatan jarri. Esaterako, 3. eta 4 kapituluetan nekazaritza-ekoizpenaren, elikaduraren, hazi ekoizpenaren eta bioteknologiaren garapenaren testuingurua garatzen dut. Horren beharra sumatu nuen kasuak idazten hasi nintzenean eta, beraz, idazteak horietara eraman ninduen. Horrenbestez, idazten hasi aurretik tesirako eskema

46 Aitor, egun, Seminis enpresarentzako Jack haziak banatzen ditu EAEn, baita inguruko erkidegoetan ere. Aitaren negozioari jarraipena eman dio, eta nekazaritza-jarduerari lotutako produktu eta hornigaien saltzaile eta banatzailea da. Berez, urte askotan Seminisen lehiakideak diren beste hazi-etxe batzuen haziak banatu ditu, eta egun ere horretan dihardu. Duela urte gutxi batzuk, Seminisen banatzailea zenak lana utzi behar izan zuen eta berari eskaini zioten. "Lehiakide" izan arren, merkaturatzea oso ondo ezagutzen zuen eta bertan kontaktu-sare oso sendoa zuelako eskaini zioten.

47 70. eta 80. hamarkadetara arte, etnografian arreta gutxi jarri izan zen idazketan (Marcus eta Cushman 1998). Handik aurrera, baina, horren inguruko hausnarketa zein ekarpen metodologikoak askotarikoak izan dira (ikus Francisco Ferrándiz 2011). Idazketari etnografian duen garrantzia aitortu egin zaio, baita ikerketen une ezberdinetan duena ere. Honorio Velasco eta Ángel de Radak (1997), adibidez, informazioa etnografia bilakatzeko pausuak -beraiek "zirkuluak" izendatzen dituztenak- definitzen dituzte eta horietako gehienetan idazketa presente dago. Edonola ere, une edo pausu horiek ez dira bata bestearen segidan gertatzen, era nahasian baizik. Hala ere, sailkapenak egin, egin dira eta, horietako batzuetan, analisia bera eta kategoria analitikoak sortzeko unea edo pausua bukaerako testuaren idazketatik bereizi izan da. Nire kasuan, aldiz, lehenago kategoria batzuk sortu banituen ere, idazketa-prozesuan bukatu eta findu dut analisia.

bat zirriboratu nuen arren, idazten joan ahala forma eman diot testuari, atalak gehitu, kendu, aurreratu eta atzeratzen nituen bitartean.

Testuan ageriko egin dudan moduan, idazketa-prozesu horretan zehar nik neuk, Marta Barba Gassók, presentzia handia izan dut. Nire kezkek, nire interesek eta nire lehentasunek baldintzatu dute zein gaietan sakondu eta zein gai utzi kanpo. Noski, horretan ere eragina izan dute zuzendariarekin izandako elkarrizketek, lankideekin partekatutako solasaldiek, eta kongresuetan izandako kontraste eta hizketaldiek.

Idazketarena prozesu luzea eta gogorra izan arren, polita eta emankorra ere izan da. Kasuei forma eman eta publiko egitea sektoreari aitortza eta itzulera egitea izan da niretzat. Omenaldi txiki bat, zeinetan beraiekiko "leial" izaten eta errealitate baten berri ematen saiatu naizen. Errealitate hori, gainera, zenbait kasutan "galtzear" dago, eta horren historia kontatzea bere memoria eraikitzea ere badela jakitun, horren pisua eta ardura sentitu izan dut hainbatetan. Halaber, historia hauetan dauden aitortza-jokoak ikusita, nik idatzitakoak horiei nola eragingo zien ere kontuan hartu dut. Izenen erabileran zein emakume eta gizonen presentzian kontuan hartu dut hori, besteak beste. Nik neuk eta nik idatzitako historiak zein eragin izan zezakeen ere presente izaten ahalegindu naiz.

Idazketa-prozesu hau ikusitakotik eta lehenago idatzitakotik zerbait sortzeko unea ere izan da. Batez ere analisiaren atalean, baina baita testuinguruan zein kasuen ataletan ere, nire aletxoak uzten ahalegindu naiz. Analisiaren atalean, batik bat, ideia berriak sortzeko eta hainbat ideia elkar-lotzeko saiakera egin dut. Une pizgarri eta aberasgarria izan da oso. Espero, niretzat ez ezik, irakurleentzat ere horrela suertatzea.

2.2.2. Bi pertsonen artean egindako etnografia partekatua, eta sektoreari itzultzea⁴⁸

Biren artean egindako etnografia partekatua

Une askotan bikotean egindako etnografia izan da hau. Hasieratik, gertuko eta kide sentitu ditudan batzuk ondoan izan ditut ikerketa honetan, Marc eta Kelo⁴⁹ bereziki. Marc MALetik

48 Ikerketa bukaeran edo prozesuan zehar, parte hartu duten pertsonekin ikerketaren beraren emaitzen inguruan partekatzen dugunari erreferentzia egiteko "devolución" hitza darabilgu gazteleraz. Euskaraz "itzultze" terminoa erabiltzea lehenetsi dut, egokiena delakoan.

49 Kelo jatorriz madrildarra da baina urteak daramatza Gipuzkoan. Kontsumo talde baterako barazkiak ekoizten urteak eman zituen, eta horretan ari zelarik beretzat hazi asko gorde eta ugaltzen zituen jada. Halaber, lehenengo sektoreko hainbat ekimen eta elkartetan parte hartzen zuen, maiz, bertako barietate eta

ezagutzen nuen, eta Donostiako *Cristina Enea Fundazioan* antolatzen dituen ekimenetara joan naiz maiz, batez ere tesiaren hasierako garaietan. Gaian sartzeko eta kokatzeko oso baliagarriak egin zitzaizkidan Haziera Artxiboan emandako orduak. Kelo, aldiz, tesi garaian ezagutu dut gehienbat. Hasiera batean, Hazien Sareko kide moduan ezagutu nuen, eta Marc eta Leire Biolurreko⁵⁰ teknikariarekin batera elkartu ginen hainbatetan, kontu ezberdinak lantzeko. Hazien Sarea elkartearen baitan, "Gipuzkoako taldea" osatu genuen, tokian tokiko lana indartzeko asmoz. Hortik abiatuta, gure harremanak sendotzen joan dira eta, usu, elkarren babesa izan gara. Nork bere proiektuak izan arren, proiektu horiek lotzen eta elkar elikatzen ahalegindu gara, eta elkarren "aholkulari" bilakatu ere.

Elkar laguntzeko eta elkar elikatzeko ahalegin horren erakusle argia da Marc eta biok egin duguna. Une bertsuan hasi behar genuen biok Aretxabaletako Larrosa tomatearen bueltan ikertzen, ingurune berean, eta antzeko galderak egiten. Beraz, lana bikoiztu baino, eta sektorekoei lan bikoitza eskatu baino, batera lan egitea erabaki genuen, eta baita bikote ona osatu ere. Marc aspaldi ari da lehenengo sektorean lanak, ikerketak eta proiektu parte-hartzaileak burutzen. Gipuzkoako sektore agroekologikoa ondo ezagutzen du; eta bertakoek ezagutzen dute. Halaber, badaki nola gerturatu jendearengana, ezagutzen ditu sektorearen beharrak, denborak, hizkerak, eta abarrekoak. Horretarako gorpuzkera egokia ere badu, edo izan baino, ziurrenik, egina du gorpuzkera eta hizkera hori. Nik ere badut hortik zerbait, baina beharbada konfiantza falta izan dut maiz. Hortaz, Marcekin joateak konfiantza eman dit, eta baita jendearengana gerturatzen lagundu ere, maiz mesfidantza sortzen duena segurtasun eza bera baita.

Nik, aldiz, beste gaitasun batzuk ekarri dizkiot osatu dugun bikoteari: besteak beste, euskara. Marc eta biok, jatorriz, katalanak gara. Dagoeneko, biok 10 urte baino gehiago daramatzagu Euskal Herrian. Marc ere euskara ikasten ari da, eta gero eta trebeagoa da. Lekuan lekuko lanaren garaian, ostera, oraindik ez zen gehiegi ausartzen euskaraz mintzatzen. Horrenbestez, askotan ni izan naiz elkarriketak ireki eta lanaren nondik norakoak azaldu dituen. Marcek

hazien inguruan lana eginez. Duela hiru urte inguru, barazkiak ekoizteari utzi eta bertako hazi ekologikoak ekoizten hasteko apustua egin zuen, eta horretarako Aleka elkarte sortu zuen. Aleka agroekologiaren ikuspegitik Euskal Herrian bertako hazi ekologikoak ekoizteko martxan jartzen den lehenengo ekimena da, eta Kelo horren bultzatzaile nagusietakoa da.

50 Biolur Gipuzkoako Nekazaritza Ekologikoaren Aldeko Elkarte da, eta ekologikoan ekoizteko hazi eta barietateen gaia da landu dituen problematiketako bat. Jada tesian nengoelarik, Biolurreko teknikaria den Leire, Marc eta Kelorekin batera elkartu ginen, Gipuzkoan bertako barietateen gaia lantzeko. Halaber, Kelo Aleka proiektuarekin hasi zenean hainbatetan gurekin kontrastatu zituen bere gogoak, kezak eta zalantzak, eta hala da oraindik gaur egun. Halaber, Leirek eta Biolurrek bultzada handia eman diote Aleka proiektuari, eta horren hastapenetan elkarlanean jardun zuten, beste hainbat elkarterekin batera.

sendotasuna eman dio gure presentziari, eta niri segurtasuna. Noski, badago egoera horren genero irakurketa argia egitea.

Biren artean egindako lan horren zenbait alde on azpimarratu nahi dut. Batetik, sektorearekin errespetuz hartu genuen erabaki hori. Izan ere, biok jakitun ginen lehenengo sektorean ikergai izateaz kokoteraino daudela. Hortaz, ikerketa egin, egin nahi genuen, baina profesionalak hitzorduz bete gabe. Bestetik, ikertzaile eta etnografo bakarraren ideiaurrean, antropologia klasikoan hainbatetan ikusi dugun eta apika ahaztuegia dugun etnografia "lagunduaren" garrantzia azpimarratu nahi dut. Horren garrantziaz Adolfo Estalellak ohartarazi ninduen 2019an, *V Congreso Internacional de Antropología AIBRn* egindako solasaldia prestatzen ari ginela⁵¹. Horretan ari ginela, nahigabeen eta erdi lotsatuta kontatu nien lekuan lekuko lanaren prozesu osoa ez dudala bakarrik egin, eta Marcekin egindakoa oso gaitetik aipatu nien. Orduan Estalellak geldiarazi, eta horretan sakontzeko eskatu zidan. Interesgarria omen zen egin nuena. Nik argi nuen niretzat oso aberasgarria eta lagungarria izan zela, baina ez neukan oso argi hau "akademiaren" aurrean oso defendagarria zenik. Solasaldi horretatik baiezkotan atera nintzen. Gainera, horri garrantzia aitortu beharko niola pentsatu nuen, alegia, tesian ondo jaso. Horrela, agian, beste norbaiti lagungarri suerta litzaiokeen. Laburbilduz, uste dut batera egindako lan honekin, elkarren lanak aberastu egin ditugula, bai elkarrizketak eta bisitak egiterakoan, bai gerora horren inguruan hausnartzerakoan eta gure testu zein ideiak plazaratzerakoan. Tesi hau "nirea" da, bai, jende askorena den moduan. Horien artean dago Marc, toki nabarmenean. Hori dela eta, hainbat unetan, singularrean hitz egin baino, pluralean hitz egingo dut, lekuan lekuko saio askotara batera joan izan baikin, eta hortik abiatuta hausnarketa asko elkarrekin sortu eta Aretxabaletako Larrosa tomatearen historia batera berrosatu baitugu.

Hala ere, hau ez da izan bere osotasunean bi pertsonen artean egindako lan bat, bi testu edo produktu ezberdinei bide eman dien lekuan lekuko lan partekatua baizik. Bi testu horiek oso formatu, denbora, helburu eta logika bereziak dituzte: bata dibulgazio-lana izan da, bestea doktore-tesia. Horren ondorioz, adibidez, denbora eta eskakizun metodologiko ezberdinak izan ditugu. Une batean, Marcek presa handiagoa zuen tokian tokiko lanarekin aurrera egiteko, eta berak bakarrik egin zituen pare bat elkarrizketa. Horrek zalantza sorrarazi zidan: erabil nitzakeen elkarrizketa horiek? Zilegi zen tesirako nik sortu ez dudana materiala erabiltzea? Egoera aztertuta, baietz erabaki nuen. Bestela, berriz ere pertsona berdin

51 "Aprender de los otros... y transformar la Antropología" izan zen solasaldi horren izenburua.

horiengana joan beharko nintzateke, galdera berdintsuekin. Beraz, pertsona horiekiko errespetuz hartu nuen erabaki hori.

Halaber, Marcek elkarrizketak egin eta gutxira atera behar zuen argitalpena, eta lehenengo une hartan berak aztertu zituen elkarrizketak eta Aretxabaletako Larrosa tomate honen historia osatu. Gutxi kontrastatu genuen historia une hartan. Orain, aldiz, berarentzat urrun dago argitalpen hura, eta ni naiz gaiaz idazten ari dena. Oraingoan ere, ez naiz ari berarekin gehiegi kontrastatzen. Beraz, lekuan lekuko lana batera egin bagenuen ere, informazioaren analisia ez dugu apenas partekatu, eta idazten hasi naizenean konturatu naiz zenbait gauzatan ez dugula guztiz bat egiten, behintzat informazioa idatzi eta zabaltzerakoan. Horretan lan kolektibo falta sumatzen badut ere, nahigabeen berriz ere historiari aniztasuna gehitzen ari garela iruditzen zait, ez baitugu modu bertsuan kontatzen, eta hori positiboa dela uste dut. Gure ahotsak aitortza har lezakeen unean, ahots pluralak agertzea eta horiekin historia ez-monolitikoak kontatzea garrantzitsua da.

Ikerketaren itzultzea birpentsatzen

Marc eta biok, nork bere ikerketa egiteaz gain, sektorean eta Aretxabaletako Larrosa tomatearen historian presentzia eta eragina izan dugu. Azkenengo hau ez da gure lanen ondorio soilak izan, propio bilatutako zerbait baizik. Tesiarekin hasi nintzenetik, argi nuen sektoreari "eskatu" ez ezik, eman ere egin nahi niola. Hala ere, ez nuen uste nik eman nezakeenak halabeharrez tesiari lotuta egon behar zuenik; hots, tesiaren itzultzea ez zen nahitaez horren emaitzei lotuta egon behar. Hartara, hainbat estrategia garatu dut horretarako.

Tesiaren hastapenetan nengoelarik, parte hartzen nuen kolektibora -*Joxemi Zumalabe Fundazioa*⁵², alegia- lehenengo sektoreari lotutako eskaera bat heldu zitzaigun. Gipuzkoan era ekologikoan ari diren ekoizle batzuek elkartu eta kolektibo bat sortu nahi zuten, baina ez zekiten oso ondo prozesua nola gauzatu, eta hori dinamizatzeke laguntza eskatu ziguten. Nik argi izan nuen prozesu horretan parte hartuko nuela, nire gaiarekin lotura zuzenik ez bazuen ere, orokorrean sektorean parte hartzeke bide bat zelako.

52 Joxemi Zumalabe Fundazioa, bertako kideek dioten moduan, Herri Mugimenduetatik, Herri Mugimenduekin eta Herri Mugimenduentzat lan egiten duen kolektiboa da. 20 urte baino gehiagoko ibilbidea du, eta Herri Mugimendu, militantzia eta parte-hartze politikoaren inguruan gogoetatu, formakuntzak sortu eta dinamizazioak burutzen ditu batik-bat. Tesiaren hasierako urteotan kolektibo horren kidea nintzen eta zenbait dinamizazio-lanetan parte hartu nuen. Horietako bat Gipuzkoako lehenengo sektoreari lotuta izan zen.

Garai bertsuan hasi nintzen Hazien Sarearekin harremana sendotzen, batez ere Marc eta Keloren bitartez. Elkarre hori nire gaiari estuki lotuta dago, eta bertan parte hartuz gaiari inplikatu nahi nuen. Ni horretaz ikertzen ari banintzen, horretan lanean ari zirenekin kolaboratzea itzultze moduko bat zela iruditu zitzaidan. Besteak beste, Marcekin batera prospekzio lan bat egin genuen Debagoienan. Jadanik zonalde horretan egiten ari ginen lanagatik hautatu genuen eskualde hura. Kontaktuak eginak genituen, eta bertan zegoen hainbat bertako barietateren berri bagenuen. Hortaz, gure aldetik egindako lana kolektibo horrentzat probestuko genuela iruditu zitzaigun. Azkenengo urteotan, batik bat Kelok bultzatzen duen Aleka elkartean ere parte hartu dugu, hainbat unetan Keleri babes eman, auzolanetan parte hartuz, edota bileraren bat edo beste prestatu eta dinamizatu.

Azkenik, Aretxabaletako Larrosa tomatearen historiari zuzenean lotutako ekimenetan ere parte hartu dugu. Marcek liburu bat idatzi du, eta Aretxabaletako herrian bertan aurkeztu zuen, liburuaren protagonistekin batera. Bestetik, azkenengo lau urteotan antolatu diren *Aretxabaletako Tomatearen Astea* ekimenaren antolakuntzan ere parte hartu dugu, hori antolatzen duten teknikariekin bilduz, egitaraua diseinatu, eta egitarauan bertan ekimenak dinamizatu. Halaber, 2017an eta 2018an hitzaldi eta solasaldi-tailer bana burutu genituen, hurrenez hurren. Horretaz gain, Marcek eta Kelok hainbat tailer ere egin dute, baita azokan presentzia izan ere.

Ekimen hauekin guztiekin sektorean gure aletxo utzi dugu, edo horretan ahalegindu gara behintzat. Hala eta guztiz ere, maiz guk ekarpena egin nahian pentsatutako ekimenak gure lanetarako informazio iturri bilakatu dira. Joxemi Zumalaberaren eskutik parte hartu nuen proiektuak, adibidez, sektorean kokatzen asko lagundu zidan, baita kontaktuak egiten ere. Alekarekin egindako lanetan eta parte hartutako ekimenetan, lekuan lekuko kaiererako informazio anitz jaso ditud, kasu horretan, hazien eta landutako bioaniztasunaren gaiari lotuago. Azkenik, Aretxabaletan egin ditugun saioetan ere tomate horren historia osatzeko informazioak biltzen jarraitu dugu. Horren adibidea da 2018ko irailean egin genuen solasaldi-tailerra. Gerora informazio batzuk bildu ditudan arren, tesi honen lekuan lekuko lanaren azkenengo saioa izan zela esan dezaket, eta bertan tesian zehar suertatuko hainbat galdera eta ezinegon partekatu genuen Aretxabaletako Larrosa tomatearen historiaren protagonistekin. Ezagutzaren sorkuntza kolektiborako ariketa izan zen, baina unean bertan izan zuen garrantziaz harago, nire tesirako jakintza iturri izan zen ere.

Apika, erabili ditudan itzultze-estrategiak ez dira ohikoenak izan. Esan bezala, ez diet egindakoa era zuzenean itzuli, prozesuan zehar lehenengo sektorekoekin bestelako momentuak eta lanak partekatu baizik. Lanaren emaitzak beraiei itzultzea baino interesgarriagoa izan dela uste dut. Halaber, estrategia honek lekuan lekuko lanak iraun bitartean "ematen" eta "jasotzen" dugunaren arteko muga lausotu egin duela iruditzen zait. Eman nahi dugunean ere, zer jaso badugu. Jasotzen ari garenean ere, maiz gure aletxoak uzten dugu. Lekuan lekuko lanaren elkarrekikotasunaz hitz egiten digu horrek, eta bertan sortzen ditugun harremanen inguruan ikuspegi dinamikoagoa eta erlazionalagoa ematen digu.

2.3. Norbere burua lanabes. Etnografiaren bizipenak

Prozesu metodologikoaren berri emateak bi helburu ditu, arestian esan bezala. Izan ere, jakintza nola sortu dugun erakustez gain, gure eskarmentu zein bizipenak partekatu eta horien inguruan hausnartzea beharrezkoa da metodologiaren inguruan ikasteko. Azkenengo urteotan, Ikasketa Feministak eta Generokoak zein Gizarte Antropologia Masterretan hainbat saio burutzen ari gara tesian ari garenok edo tesia bukatu berri dutenek. "Tailer etnografiko" deituriko saio horietan, hain zuzen ere, gure eskarmentua eta hortik ateratako ikaspenak partekatzen ditugu. Azkenengo bi urteotan "Preparar el campo" saioa eman dut bertan, 2018-19an Ainara Barrón Iriarte lankidearekin batera, eta 2019-20an nire kabuz. Hein handi batean, saio horien prestaketa dago metodologiari buruzko atal honen oinarrian. Saiootan ikasleen beharrak eta ezinegonak jaso ahal izan ditugu, eta horietan ere konturatu naiz zein garrantzitsua den eskarmentu etnografikoa partekatzea. Izan lekuan lekuko kaieraren pasarte bat partekatzea edo egoera zehatz baten berri ematea, ikasleek eskertu dute modu abstraktuan azaldutako hori gorpuztu eta nola gertatzen den entzutea. Klase horietan soilik ez, tesian bertan ere prozesua nire bizipenetik kontatu, eta bertatik ateratako hausnarketa batzuk partekatu nahi ditut orain.

2.3.1. Burua makur eta ahotsa ahul jendeari kolaborazio eske

Analisian eta idazteko fasean, tokian tokiko kaierera itzuli naizenean, bizi izan ditudan egoera batzuen gogortasunaz jabetu naiz. Jakin banekien egoera bortitz eta desatseginak izan ditudala lekuan lekuko lanean zehar, baina kaierean horien deskribapena irakurtzean hartu diet neurria. Marcekin elkarrizketa batera joan nintzen batean egokitu zitzaidan lehenengoz benetan deseroso sentitzea. Bera orduan beste proiektu batean lanean zebilen, eta biok gure lanen berri

eman nahi genion aurrean genuen gizonari, gure bidean hainbat modutan lagundu ziezagun eskatzeko. Marc arretaz entzun ostean, gizonak erreferentzia eta informazioak partekatu zituen berarekin. Nik Marcen ostean hitz egin nuen, parekoa jada nekatu samar zegoela. Egiten ari nintzena kontatzen hasi eta berehala moztu eta nire lana zalantzan jartzen hasi zen. Kaierean jasotakoaren arabera, hainbat argudio partekatu nuen berarekin, egiten ari nintzena azaldu eta justifikatzeko, baina berak lana gutxiesten jarraitu zuen. Handik atera eta Marcek berak aipatu zuen egoera: nola ez zidan entzun ere egin, eta nola hitz egin zidan, alegia, gaizki. Kasu horretan, ez naiz gerora pertsona horrengana berriz ere hurbildu. Behin toki berean egon ginen, eta nik berriz ere saiakera egin nuen, berarengana gerturatu, eta elkarrizketatu nahi nuela esan nion. Esan zidan lehenengo gauza, lehor eta zuzen, ez zela nitaz gogoratzen. Bigarrena, hauxe: "zuk deitu, ikusiko dut ahal dudan". Ez nion deitu.

Antzeko egoera bizi izan nuen beste gizon nekazari batekin. Berarengana joan eta etengabe nire lana auzian jartzen aritu zen, zer nahi nuen lasai entzun gabe. Hurrengo egunean, "gorputzaren kontzientzia" lantzeko ariketa bat egiten ari nintzelarik, gizon horrengana zein aldarte, gorputzaldi, eta gorpuzkerarekin gerturatu nintzen konturatu nintzen. Gorputza itxita, gogor eta txiki joan nintzen, burua makur eta ahots apalez. Handik apur bat txikituago atera nintzen, negargurez, eta tesia alboratzeko gogoz. Lekuan lekuko kaierera itzultzean konturatu naiz zenbateraino izan zen bortitza egoera hura. Ez dut, hala ere, afera pertsona horrengan zentratu nahi; izan ere, horrelakoak ez dira salbuespenak, etnografia-prozesuetan gertatzen zaizkigun egoerak baizik. Horregatik, aurreikusi eta horietarako prestatu egin behar dugu; gorputzaren jarrera eta adierazpena landu, ahotsa indartu, eta besteen hitzen aurrean defentsa mekanismoak garatu. Kasu horretan ere, ez nintzen pertsona horrengana itzuli, Hazien Sarean Marcekin batera egiten ari ginen proiektuaren karietara bertaratzeko beharra izan genuenera arte. Orduan, Marci eskatu nion bera bertaratu zedin. Bitartean, bere inguruko jendearekin hitz egin nuen eta jakin nuen ez zuela irekia eta atsegina izatearen osperik. Hots, gertaera ez nuela pertsonalki hartu behar, bera horrelakoa baitzen. Edonola ere, Marc berarengana gerturatu zenean oso bestelakoa izan zen gizon hark izan zuen jarrera. Ezin esan horretan norainoko eragina izan zuten berak zuen eguna eta aldarteak, eta Marcen jarrera eta presentziak, baina nago bigarren hori erabakigarriagoa izan zela. Lotsati eta "laguntza eske" joan zen neska horren ondoan -alegia, nire ondoan-, Marc ziurtasunez hitz egiten duen 40 urte inguruko gizona da, altua eta presentzia handikoa. Nik maiz esan diot "diplomazia lanetan" ona dela, jendearengana gerturatzen baitaki. Kasu horretan, bere gorpuzkera, ahots tonua eta

jakintzak -edo jakintzaren performatibitateak- beste toki batean kokatu zuten. Esan bezala, ni ez nintzen itzuli gizon horrengana.

Azkenik, antzeko egoera bat izan nuen emakume nekazari batekin, orain Itsaso izendatuko dudana. Oraingoan ere, tokian tokiko kaiera irakurtzen dudanean oraindik harritzen nau egoeraren gordintasunak. Bere bikote eta lankiderekin negutegi eta baserri artean hizketan ari nintzelarik, bat-batean agertu zen orain Itsaso. Gelditzeko inolako keinurik ez zuenez egin, bikoteak geldiarazi zuen. Izan ere, horrek bazekien ni Itsasorekin hitz egiteko gogotsu nengoela. Itsasok hasieratik moztu egin ninduen eta nire lanarekiko interes falta agerian utzi zidan. Berarekin egon nahi nuela esan nionean, denbora galduko nuela esan zidan. Ezetz erantzun nionean, argiago erantzun zidan: berak bai. Han nengoen ni, bere aurrean, ergel aurpegiarekin, zerbait azaldu eta eskatu nahian eta bere erantzuna nola jaso jakin ezinik. Horrelakoetan, bortitzena egin zaidana ez da jasotako erantzuna izan, erabat moztuta geratu eta nola jarraitu ez jakitea baizik. Une horretan, eskerrak, gizonak buelta eman zion egoerari, eta beraiek esku artean zituzten lan batzuk bukatzeko tartea hartu eta gero, elkartu nintzen berriz ere Itsasorekin behatu nahi nuena egiteko. Negutegi batean lanean aurkitu nituen, beraiekin lanean jarri nintzen, eta bitartean berrikeretan jardun ginen, lehenago ez bezala, lasai eta eroso. Jarrera aldaketa erabatekoa izan zen, eta egun horretan pozik joan nintzen etxera. Hortik aurrera oso gutxi itzuli naiz beraien baserrira, nahiz eta horixe bera zen hasiera batean eskatzen niena. Hala ere, hainbat ekimenetan egon naiz beraiekin eta horrelakoetan gustura eta eroso egon gara, eta Itsasoren partetik errespetua sentitu izan dut.

Aurreko bi egoeretan ez bezala, oraingoan bai, lortu nuen Itsasorekin harremana sortu eta tokian tokiko lanaren zatitxo bat beraienean eta beraiekin egitea. Egoerok tokian tokiko lanean zehar aurkitzen dugun "bortizkeria" agerian uzten dute. Ikusi dugun bezala, maiz, egoera bortitz horiek ez dira zehazki "gure kontra", aurrean ditugunak ez dira preseski gure aurka mintzatzen. Hainbatetan, beraien izaera eta egun horretan duten aldarrearekin zerikusirik handia dute jasotako erantzunek; beste hainbatetan, ikergai izan eta sentitzearen ondorioa ere badira, eta hori kontuan hartu behar dugu; bestetan, aldiz, eskaera baten aurrean ezetzak zilegi dira. Hala ere, maiz, lehenengo ezetz hori hasierako erantzuna baino ez da izaten, eta horren ostean ikerketarako egoerak eta harremanak irekitzen dira. Gure esku dago zenbaitetan lehenengo ezetzaren aurrean tematzea, eta beste batzuetan ezetza onartu eta beste bide batzuk bilatzea. Izan ere, lekuan lekuko lanean ireki daitezkeen eta ireki ezin daitezkeen atak aurkituko ditugu, eta horri aurre egiteko prest egon behar dugu. Horretan, noski, gure izaera,

gorpuzkera, eta ahots-tonuak, besteak beste, eragina dute. Hortaz, presta gaitzke, egoera horietan ahalik eta indartsuen joateko.

2.3.2. Haziak eta landareak nola, nik ere konfiantza irabazi behar nuen. Lekuan lekuko lanaren bizipenek ikergaiak pentsatzen lagundu didate

Itsasoren kasuan, handik etxera joandakoan nire buruari galdetu nion zer dela eta izan ote zuen horren nabarmena suertatu zitzaidan jarrera aldaketa. Nola zitekeen hasiera batean nirekin denbora galduko zuela esatea, eta handik ordubetera landare batzuen bueltan lanean eta berrikerian gustura jardutea? Lekuan lekuko egoera horrek, kasik eszena edo bineta etnografiko moduan, hausnarketa metodologiko askorako eman izan dit: konfiantzaz, kontrolaz eta gratifikazioaz, besteak beste. Areago, ikergaiari lotuta dauden gaietara ere eramanez egoera horrek. Izan ere, nirekin haziak eta barietateekin maiz egiten duten antzera egin dute eta nik bizitakoak ikergaiaren alderdi horretan arreta jartzen lagundu dit.

Konfiantzari dagokionean, sortu eta "irabazi" egin behar dela argi ikusi nuen Itsasok lan egiten duen baserrian. Jaso nuen lehenengo erantzuna, mesfidantza izan zen. Hala ere, aukera eman zidaten, eta "fidatzekoa" nintzela erakutsi eta gero, konfiantzarako atea ireki zidaten. Maiz, haziak antzeko gertatzen da. Hazi berriak heltzen zaizkienean, ez dituzte oso begirada onez hartzen, baina probatu egiten dituzte. Haziak onak direla erakusten badiete, horiek landatzen jarraituko dute eta beraiekiko konfiantza garatzen joango dira. Argi dago ez dela berdina nirekin duten inplikazioa, ardura eta menpekotasuna, edo haziakiko dutena. Hala ere, nik bizitakoak lagundu izan dit konfiantza edo kontrolaren aferak ikergaietan bertan duen garrantziaz ohartzen.

Konfiantzarekin batera, kontrola ere agertu zitzaidan. Izan ere, Itsasorekin hitz egiten hasi eta berehala esan zidan "nire berri bazuela". Besterik ez. Nik esan nionean baietz, horrekin, bestearekin, eta beste hango ez dakit zeinekin egon nintzela, ezkutatzeko ezer ez nuela adierazi nahian. Orduan esan zidan zeinek hitz egin zion nitaz. Jarraian, esangura zuzena zuen eta hitzez hitz jaso ez nuen esaldi zaharra bota zuen: "ez baduzu jakitea nahi, ez egin" adierazi zidan beste hitz batzuez. Hortaz, kontrolatuta nengoan, eta jakinaren gainean jarri ninduen. Neurri batean, kontrolatuta ninduela, eta nindutela, esaten ari zitzaidala ulertu nuen, alegia, egiten nuenaren berri bazuela eta izango zuela. Nuria Fernández Morenok (2003) lekuan lekuko lanean antropologoak dituen jarrera eta rolen inguruan hausnartzen du, eta hastapen-subjektua dela diosku. Hortik abiatuta, lekuan lekuko lanean sortu behar ditugun harremanez

hausnartzen du, bere bizipenak partekatuz. Besteak beste, behatzeaz eta parte-hartzeaz jarduten du, eta egoera zehatz batean parte-hartzeak behatzea galarazi egin ziola azaltzen du. Izan ere, bera jarri zuten egoeraren zentroan, beste guztien begiradapean, eta hain urduri zegoen, ezen ezin baitzuen egoera horretaz ezer jaso, bere bizipenetatik harago, noski. Horrela diosku:

Esta participación obligada, donde no hay opción a sustraerse y donde el observador pasa a ser el observado, forma parte de la iniciación que la comunidad hace pasar implícitamente al antropólogo. Son pasos que a veces resultan necesarios para posteriormente poder entrar a formar parte de la comunidad, pasar algo más inadvertidos y, en el caso de la observación participante, poder participar luego de manera más espontánea (Ibid., 165).

Derrigorrezko parte-hartze hori, alde egiteko aukerarik ematen ez duena eta zeinetan behatzailea behatua izatera pasatzen den, komunitateak antropologoari inplizituki pasarazten dion hastapen errituaren parte da. Batzuetan, urrats horiek beharrezkoak izaten dira komunitatean sartzeko, bertan ikusezina izateko eta, behaketa parte-hartzailearen kasuan, modu espontaneoagoan parte hartu ahal izateko.

Nik beste ikaspen bat ere aterako nuke egoera horretatik: besteak ezagutu eta behatu ditzagun, lehenengo gu ezagutu eta behatu behar gaituzte. Beraien konfiantza irabazi behar dugu. Eta, denborak ematen duen ikuspegiarekin, logikoa iruditzen zait. Ezagutzen ez dugun eta ezagutzen ez gaituen norbaiti bere bizitzara sartzea eskatzen diogu maiz, izan elkarrizketa bidez, izan beraien egunerokotasunean behatzeko baimena eskatuz. Horren aurrean, beraiek ere gugandik zerbait jakin nahi izatea logikoa eta proportzionala da. Eta horrek, lekuan lekuko harremanen elkarrekikotasunera eta lehen aipatutako gratifikaziora edo "itzultzera" narama. Horretaz ere dihardu Fernándezek. Lekuan lekuko lana egitera goazenean, "eskean" goaz, neurri batean, planteamendu metodologiko parte-hartzaile bat erabiltzen ari ez bagara bederen. Horrenbestez, eskuzabaltasun hutsez lagundu ahal digute prozesu honetan baina, normalean, gure laguntzaileek zerbait eraman egiten dute ere. Batzuetan, hitz egiteak berak asetzen ditu elkarrizketatzen ditugun pertsonak. Hitz egitea, eta entzuna izatea, nork bere historiari garrantzia eta aitortzea ematea da, eta elkarrizketa batek asko gogobete dezake. Horretarako, baina, arretaz entzun beharko ditugu, interesatzen zaizkigun gauzak, baita horrenbeste interesatzen ez zaizkigunak ere. Beste batzuetan, zerbaitetan laguntzea eskatuko digute eta, beste hainbatetan, elkarrizketa egin eta tarte luze batera bisitan joatea eskertuko digute. Apika, Patxirekin gertatu bezala, berarengana joan gabe denbora luzea eman dugunean eta berriz ekimenean batean aurkitu dugunean zuzen interpelatu gaitu: "ze, noizko etorriko zarete bazkaltzera [baratzean duen etxolaren aterpera]?". Edo, Teok egin bezala azoka egun batean, "patxo" bat eskatuz agurtu egin ninduenen. Moduren batean edo bestean, egoera

horiek harremanetan gu geu ere inplikatzera eskatzen digute, konfiantza bi norabidetan eraiki dezagun. Itzultzeaz hitz egiten den garaiotan, harremanen egunerokotasuneko elkarrekikotasunari erreparatzea beharrezkoa iruditzen zait. Izan ere, etnografiaren egungo denborek aukera murriztuak uzten dizkigute konfiantzazko harreman horiek eraikitzeke, eta zaindu beharreko zerbait dira.

Dagoeneko aipatu dut nirekiko konfiantza eraikitzeke prozesuak haziekin eraikitzen dutenaz ere pentsatzera eramanez nauela. Antzera gertatu zait kontrolarekin ere. Modu ezberdinetan sentitu izan dut nirekiko kontrola lekuan lekuko lanean zehar. Itsasoren kasuan zuzena eta agerikoa izan zen. Egunerokotasuneko sareen bitartez izan zuten nire eta nire mugimenduen berri. Antzera gertatu zait sektore konbentzionalean ere, Jacken inguruan galdezka ari nintzelarik. Elkarte baten teknikaria elkarrizketatu behar nuela eta, beraien salmenta gunera joan nintzen. Hantxe zegoen, nire izenaz agurtu eta goian, bulegoetan, itxaroteko esan zidan. Berarekin bezero bat zegoen orduan, eta bezero horrek nire izena entzundakoan ikerlaria ote nintzen galdetu zion. Izan ere, handik bi egunetara bere etxera joan behar nuen, eta berehala jabetu zen ni zein nintzen. Esan gabe doa, ni, beraiak esan arte ez nintzela ezertaz ohartu. Neikerreko, Gipuzkoako Foru Aldundiko, edota Eusko Jaurlaritzaren Lakuako instalakuntzatan, aldiz, ni kontrolatzeko bideak bestelakoak izan dira: NANA erakutsi, horren fotokopia egin eta nondik nentorren galdetu ostean utzi didate eraikin horietara sartzen. Behin baino gehiagotan bisitatu dudanez Neikerren kasuan, nire izena esatea nahikoa izan da lehenengo bisitalditik aurrera, programa informatikoak niri buruzko informazioa ondo gordeta baitzuen. Oraingoan ere, nirekin bezala gertatzen da haziekin, nahiz eta beraiak ezagutu, erregistratu eta izendatzeko moduak ezberdinak izan eta ezberdin gauzatu. Kasu batzuetan zuzeneko harremanen bitartez ezaugarritu eta ezagutzen badituzte, beste batzuetan katalogoetan gordetzen diren informazio kodifikatuen bidez egiten da hori. Hala ere, beti egon behar da moduren bat haziak zeintzuk diren jakiteko, haziak identifikatzeko azken finean. Eta, berriz ere, ni neu ere identifikatu behar ninduten.

Azkenik, badago lekuan lekuko bizipenarekin eta ikergaiarekin lotuta dagoen beste ideia bat: mahaikidetasuna. Harritzekoa bada ere, elikagai baten inguruan ikerketa egin arren, lekuan lekuko lana egitean ez nuen aurreikusi otorduetan parte hartu eta horiek behatzea. Normalean, orduak nahiko zenbatuta joaten nintzen lekuan lekuko saioetara, eta saioen artean mokadu bat besterik ez nuen jaten. Aitzitik, behin eta berriz gonbidatua izan naiz -izan gara, Marc eta biok- bazkaltzera. Areago, gonbidatua baino, behin baino gehiagotan egintzat hartu izan dute beraienean bazkalduko genuela, eta ezetz esan behar izan diegu. Baratzeekin batera,

sukaldeak izan dira tesi honen lekuan lekuko lanaren eremu nagusietakoa. Aitzitik, gutxitan erabili izan ditugu jateko. Konfiantza sortu dugunean, Kepa eta Patxirekin batez ere, ohitura bilakatu zaigu beraiekin bazkaltzea, baina beste askorekin ez dugu horrela egin.

Nire kasuan, barazkijalea izanik, ez nuen nahi inork niretzat janaria prestatu eta nik ez jatea, edo niretzako zerbait berezia egin behar izatea. Baina, hala ere, ez nengoen prest okela edo arraina jateko. Horrenbestez, bakarrik konfiantza sortu izan dudanean ausartu naiz hau esaten eta zegoena jaten. Berriz ere Fernándezen (2003) artikulua irakurtzean horren inguruko zalantzak sortu zaizkit. Bere herrialdetik urrun egon denean, Fernándezek onartu egin du sekula jango ez zuen zerbait jatea: tximinoa. Berdina egin beharko nuke nik ere, Euskal Herritik atera gabe bada ere? Zerk eramaten gaitu "guretik kanpo" gaudenean gure mugak errazago haustera, eta "gurean" gaudenean ez? Zergatik, adibidez, egunerokotasunean generoari lotuta onartzen ez dudan zenbait egoera onartu dut lekuan lekuko lanean, baina okela jatearen muga ezin izan dut zeharkatu? Fernándezek onartuak ez izateari diogun beldurrari lotzen dio egoera hori, baita etnozentrikoak izateari dioguna ere, baina zergatik dugu beldur hori "gure kulturatik" kanpo gaudenean, eta gurean aldiz ez? Dagokigun kasuan, egoerak berriz ere elkarrekikotasunean pentsatzera narama. Hainbat pertsonari beraien bizitzara sartzen uzteko eskatu diogu, eta atea ireki digutenean, zenbait kontutan, ez naiz prest egon bertan topa nezakeena onartzeko. Egoerak askotarikoak izanik, irtenbide bakarra ez dagoelakoan nago. Hala ere, ihes egin baino, iruditzen zait egoera hauek aurreikusi eta horien aurrean erabaki kontzienteak hartu behar ditugula, horrek gure lanarengan duen eraginaz zein ikerlari eta "ikertuen" arteko botere harremanez hausnartzuz.

Azkenik, eta oraindik mahaikidetasunaren gaiari lotuta, ostera ere, ikergaiaren inguruan ere hitz egiten didala esan dezaket. Hainbat unetan, lan-eremuaren protagonistak izan dira hainbat irakaspen metodologiko eman didatenak. Kasu honetan, elikagai baten inguruko tesian nik ez nuen aurreikusi mahairik partekatzea, eta beraiek izan dira horretara eraman nautenak, utzi diedanean. Elikagaiaz beraz ez ezik, pertsona horien ohiturez eta harremanak zaintzeko moduez hitz egiten didate maiz ukatu dudana mahaikidetasunerako gogo eta gonbidapen hauek.

2.3.3. Eremu tekniko eta lan-eremuen barrenean eroso

Orain arte aipatu ditudan egoerak batez ere Debagoiena ingurunean eta nekazariekin egindako lekuan lekuko saioetan gertatu zaizkit, eta horietan sentitu izan naiz deseroso gehienbat. Izan

ere, azkar konturatu nintzen eremu tekniko eta administratiboagoetan erosoago sentitzen nintzela. Ilun eta itxi espero nituen eremuak irekienak izan zaizkit: *Seminiseko* komertziala, Peruko hazien hibridaziorako etxaldea, edota Neiker bera, esate baterako. Neikerreko instalakuntzetan eta entseguetan, Peruko etxaldean, edota erakunde publikoetan, erosoago sentitu soilik ez, zuzenago jokatu izan dut, eta harremanak arinagoak izan dira. Berez, niretzat eremu arrotzagoak ziren horiek; izan ere, gertutasun handiagoa sentitzen nuen baserritar batekin, landare ekologikoak ekoizten dituen batekin, edo, are, Jack tomateak ekoiztuz bere etxaldeari jarraipena eman dion nekazari-enpresariarekin. Aldiz, merkaturatzeari begira ikerketak egiten duenarekin, hibridoak ekoizten dituenarekin, edota markaren bat sortzeari begira barietateekin entseguak egiten dituenarekin ez nuen alde zuretik gertutasun hori sentitzen. Orduan, zer dela eta nengoen beraiekin erosoago eta zergatik ziren harremanak arinagoak? Hainbat dira horretarako arrazoiak.

Lehenik eta behin, pertsona horiekiko izan dudana distantzia emozionalak erlaxatuago egoten lagundu dit. Errespetua bai, baina beraiekiko miresmenik edo beraien proiektuekiko atxikimendurik ez nuen, eta horrek beste toki batean kokatzen ninduen. Egiten ari nintzena ez bazitzaie egoki iruditzen, ez zitzaidan axola, eta egiten ari nintzenak beraiegan ondorio positiborik ez bazuen ere, ez zitzaidan inporta. Kontrakorik ere ez nuen nahi, noski. Finean, beraiekiko sentitzen nuen konpromisoa txikiagoa zen. Ondorioz, esan dezaket boterearen antropologian erosoago sentitu naizela, eta eremu horretan bideak ireki zaizkidala.

Baina hori ez da izan erosoago egoteko arrazoi bakarra. Egiturazko zenbait elementuk zein nire kokapenari dagozkionek ere eragin dute erosotasun horretan. Batetik, erakunde publikoen langileekin, teknikariek eta ikerketa-arloko beharginekin korporatibismo kutsua zuen konplizitatea sumatu dut. Ni EHUtik gerturatzen nintzen haiengana, kredentzialak propio baliaturik, ikerketa baterako laguntza eske. Beraietako batzuk Eusko Jaurlaritzaren menpe dauden ikerlariak ere badira, eta horiekin enpatia moduko bat sentitzen nuen: beraiek ere badutenez jendearen beharra ikerketak egiteko, beste ikerketetan, nirean kasu, laguntzeko prest agertu dira. Beste batzuek, ikerlariak izan ez arren erakunde publikoren batean lan egiten dute, zerbitzu publiko bat eskainiz. Ondorioz, beraien lana ni bezalakoak laguntzea ere badela ulerturik, haien denbora lasai asko eskaini eta lagundu egin didate. Halaber, nekazari batek baino denbora gehiago izan ohi dute pertsona horiek.

Aurrekoa bakarrik ez, ondo moldatzeko beste zerbait ere bagenuen komunean. Nekazarietako afinitate politiko eta sozial handiagoa sentitu dezakedan arren, egungo nire enpleguaren

ezaugarriek teknikari, ikerlari eta erakunde publikoen langile horiengana gerturaten naute gehiago, nekazariengana baino. Hitz egiteko moduak, gorpuzkerak, ordutegiak, denborak eta erritmoak, besteak beste, dira beraiekin partekatzen ditudan ezaugarriak. "Hizkuntza" bera partekatzen genuela esan dezakegu eta, noski, hor elkar ulertu dugu. Hartara, beraiekin egindako lekuan lekuko lana ispilua izan da niretzat, beraiekin sentitutako erosotasunak eta erraztasunak nitaz ere zerbait esan baitidate.

Azkenik, egoera hauetan ispilu efektua egin didan beste faktore bat ere izan delakoan nago: nire kokapen soziokulturala, batez ere neska, gaztea eta baita zuria izatea. Nire gaztetetasunak eta emakumea izateak, are nire ezjakintasunak edo nire zalantzi aurpegiak, "babestu" eta "lagundu" beharreko posizio batean kokatu naute. "Zer nahi duen" ez dakien neskatilaren paperean sentitu izan naiz maiz; aspaldiko partez, inoiz baino neskatilago. Toki horretan kokatu nautela iruditu zait, eta hor nengoelako ere lagundu didatela zenbait unetan. Parekotzat hartu baino, lagundu eta azalpenak eman dizkidate. Ondo etorri zait hori, beraien lanean egiten dutenaren inguruan azalpen ahalik eta zehatzenak jaso nahi baintuen, eta inozo aurpegi horrek lagundu dit horretan. Baina, esan bezala, generoak eta adinak horretan eragin handia izan dutela uste dut. Aspaldi ez nintzen horrela irakurria sentitzen, eta egoera horiek berriz ere naizena -edo naizenaren parte bat- bueltan ekarri didate, ispilu baten modura.

Adina eta generoari lotuta, jatorria eta "arrazak" ere presentzia izan dute eta, aitortu behar dut, erabili ditut. Tokian tokiko lana bukatzeaz nuelarik, Perura joatekoa nintzen. Bertan ekoitzi dituzte ikertzen ari nintzen Jack haziak eta, horren jakitun izanik, horiek nola ekoizten ziren ezagutzea jarri nion xede nire buruari. Ordea, ez zitzaidan iruditzen erraza izango zenik. Izan ere, *Monsanto* edo gisako multinazional baten ekoizpen-gune batera sartzea zaila izango zela aurreikusten nuen. Azkenean, Monsantorenera ez, baina beretzako eta beste hazi enpresa batzuentzako haziak hibridatzen dituen txiletar kapitaleko enpresa baten instalakuntzetara joateko aukera izan nuen. Hori lortzeko bidean, EHUko kredentzialak, ikerlari figura, eta nire jatorri europarra baliatu nituen. Ezin dut esan, zehazki, zerk izan zuen eragin handiena, eta zer dela eta tratatu ninduen ondo bisitatu nuen etxaldeko Diegok. Hala ere, esan dezaket bertako langileak nola tratatzen zituen ikusita, niri lehentasunezko tratua eman zidala.

Laburbilduz, norbere ahoskera, gorpuzkera eta izaerak, baita ezaugarri soziokulturalek ere, eragin handia dute lekuan lekuko lanean. Horiekin nola jokatu aurreikustea lagungarri suertatu daiteke gerora hainbat egoeratan hobeto moldatzeko. Nire kasuan, generoak, jatorriak, adinak, eta lanbideak -unibertsitateko ikerlaria izatea- tokian tokiko lanean eragina

izan dute, unearren arabera norabide ezberdinetan. Hainbatetan, harremanak sortzen lagundu didate, eta beste batzuetan oztopo bilakatu dira. Horren guztiaren inguruko hausnarketa feministei ekarpen txoa egin nahi izan diet honetan.

2.4. Lekuan lekuko kaiera bidelagun, gerora egindako hausnarketak eta proposamenak

Tesia egiteko bide luze honetan, metodologiaz eta etnografiaz ere eginaren eginez ikasi dut. Egitean soilik ez, gerora ere lekuan lekuko lanaren kaierera itzultzean eta metodologia atal hau idaztean zenbait hausnarketa eta ikaspen egin dut. Azpiatal honetan gerora sortu zaizkidan zalantza eta hausnarketak garatu eta jasoko ditut, hala nola hausnarketa eta ikaspen horietatik abiatuta proposamenen bat edo beste egin ere. Esan bezala, lekuan lekuko lanaren ostean egindakoak dira hemen jasoko ditudanak. Hainbatetan, egin ez dudana bainan egin zitekeenaz arituko naiz, eta, beste batzuetan, kontziente izan gabe egin, eta hobetu edo sistematizatu zitekeenaz.

2.4.1 Etnografiaren denborak eta espazioak

Denboren inguruko hausnarketak egitea eta plazaratzea ezinbestekoa iruditzen zait, ikergaiak beraz informazioa emateaz gain, metodologiaz hausnartzeko eta ikasteko aukera ere ematen baitigu. Miren Guilló Arakistainek (2020) ere tokia egiten dio afera horri berriki plazaratu duen tesian. Bere kasuan, denborari erreparatzen dio aldaketek etnografiari nola eragiten dioten eta etnografian aldaketa horiei egiten diegun tokiaz aritzeko.

Nire kasuan, lekuan lekuko lanean zehar hainbat denbora eta espaziorekin "jolasten" ibili behar izan naiz. Goizean goiz jaiki, Hernanitik Deriaino joan, bertan goiza eman Neikerreko instalakuntzetan, eta bukatutakoan Debagoienarantz abiatu, hantxe Ekolandare mintegian tomateak repikatze saioa zutelako, edota beste norbaitekin geratuta nengoelako. Beste hainbatetan, baratze batera joateko arratsaldea gorde baina, azken orduan, eguraldi-aldaketak direla eta plana aldatu dute, eta ez naiz baserri horretara joan behar izan.

Izan ere, etnografia honetan askotariko espazioetan egon naiz, eta beste horrenbeste erritmo eta denbora bateragarri egin behar izan ditut: lan-eremuaren denborak eta erritmoak, ikergaiarenak berarenak, ikerketarenak, akademiarenak eta ikertzailearenak. Lehenik eta behin, ikergaiak berak erritmo eta denbora zehatz batzuk ditu. Sasoi arabera antolatzen dira

tomate eta hazien inguruko lanak eta, beraz, horiek ezin dira urteko edozein unetan ezagutu. Horrenbestez, ikusi nahi duzun zerbait urte batean ez baduzu ezagutzen, urtebete itxaron beharko duzu berriz lan horiek egin arte. Halaber, ikergaiaren denboren arabera ere antolatzen dira lan-eremua, horren denborak eta erritmoak. Sasoiene menpe bizi dira, baita eguraldi eta bestelako baldintza batzuen menpe. Hortaz, oso une gutxi dituzte egin behar dituzten lanak egiteko, eta maiz ezin dituzte guztiz aurreikusi. Nik lan batzuk egin behar zituztenean abisatzea nahi nuen, baina askotan azkenengo unean erabakitzen zuten, edo aurreikusten ahalegintzen ziren, abisatzen zidaten, eta azkenean ez zituzten egiten.

Lekuan lekuko lanari, baina, ez diote bakarrik ikergaia eta lan-eremuaren denborek eragiten, ikerlariarenek ere badute zer esanik. Alde batetik, ikerketak berak denbora eta erritmo batzuk ditu. Normalean, lekuan lekuko lana tesiaren lehenengo urteetan egiten da. Hala ere, beka urtarrilean jaso eta ez da ohikoa, ezta nire kasua ere, berehala lekuan lekuko lanarekin hastea. Hortaz, nire kasuan, lehenengo urtearen neguaren bukaera, udaberria eta uda "galdu" nituen, eta horiek dira hilabete interesgarrienak ikerketa honen gairako. Horrela, tesiaren bigarren urtera heltzean nengoelarik ekin nion lekuan lekuko lanari. Beste alde batetik, akademiaren denborak ere badaude: kongresuetarako komunikazioak, artikuluak, doktorego programaren barruko zereginak, klaseak, egonaldiak, eta bestelakoak. Tesia bera egiteaz gain, askotarikoak dira doktore-tesia egin bitartean egin beharrekoak, eta lan horien erritmoak prozesua erabat baldintzatzen dute. Nire kasuan, 2016an bereziki sumatu nuen horren eragina: lekuan lekuko lanean bete-betean nengoen, baina unibertsitatean tesiari lotutako bestelako zereginak ere bete behar izan nituen orduko hartan. Tokian tokiko lanari nion beldurra medio, errazago ekin nien bestelako lan horiei eta, horrela, lekuan lekuko lanean egiten ari nintzen murgilketan etenalditxoak egon zen. Hori gutxi balitz, badago kontuan hartu behar dugun azkenengo denbora bat: ikertzailearena, alegia, nirea. Bekaren baldintzak eta unibertsitatearen ziurgabetasuna kontuan izanik, tesia enplegu bat bezala hartzea erabaki nuen. Hau da, hasieratik argi izan nuen eskaini beharreko orduak baino ez nizkiola eskainiko, nire bizitza ezin zela tesira mugatu. Aldiz, horrek ikerketa erabat mugatu du. Izan ere, nire kasuan behintzat, baratzeek ez dituzte lanegun eta jaiegunak bereizten, eta udak garai emankorrenetakoak dira. Beraz, horren aurrean planifikazio ona egin behar nuen "nire denborak" ere errespetatu nahi banituen baina, esan bezala, lehenengo sektorea eta baratzeak maiz ez dira planifikazioetara egokitzen. Horrenbestez, nire denborek ere eragin handia izan dute lekuan lekuko lanean eta hainbatetan ikergaia zein lan-eremuaren erritmo eta denborekin talka egin dute.

2.4.2. Barietatearen historiak (berr)egin nahian horien memoria ere idatzi dugu

Etnografia honetan, tomatearen bizitza eta biografiak jarraitu ditut. Hortaz, tomate horien historia eta, beraz, memoriak idazten topatu dut nire burua, ezustean. Lekuan lekuko lana egin aurretik etnografia gutxi landu banuen, are gutxiago nekien historiaz. Baina, aurreikusi gabe eta nahigabe izan arren, etnografiarekin batera ahozko historia ere egin dut⁵³, eta hori egitean, hainbatetan, "egiaren" bila aurkitu dut nire burua; hots, "benetan" gertatutakoaren bila ibili naiz lekuan lekuko lanean zehar. Kontraesanen bat aurkitzean, "bilatzen jarraitu behar duzu" pentsatzen nuen, "benetan zer gertatu zen" jakiteko. Hori oso argi ikusi dut Aretxabaletako Larrosa tomatearen kasuan. Istorio ezberdinekin topo egin dudanean tomatea "benetan" zein eskutatik zein eskutara pasa den jakin nahi izan dut, zehaztasunez. Laburbilduz, gertakarien bila nenbilen ahozko kontakizun horien bidez, eta idazteko fasean eta lekuan lekuko kaierera itzultzean erreparatu dut horren garrantziaz.

Jasotako istorio horiekin historia osatu dut, historia posible bat. Bidean aurkitutako inkongruentziek, baina, erakutsi didate maiz gertatutakoa bezain interesgarria dela horren inguruan eraikitzen diren kontakizun eta istorioak. Esaterako, ez zaigu argi geratu hasierako faseetan Aretxabaletako Larrosa tomatearen haziak Aramaioko Goiko baserritik Aretxabaletako Urdintxaren baratzera nola joan ziren, ez eta zehazki zein eskutatik pasa ziren. Moja bat agertzen da pasarte guztietan, baina ez dugu argi zer egin zuen⁵⁴. Gertatu zena gertatu zela, garaia ulertzeko eta garaian kokatzeko baliagarriak zaizkigun informazioak ematen dizkigute kontraesankorrak diruditen istorio horiek. Familia, moja bat, lantegia, auzoak eta pertsonen mugimenduak gakoak dira jasotako bi istorioetan, eta hori da, hain zuzen ere, interesatzen zaigun informazioa. Alessandro Portellik (1989) liokeen moduan, gertakaria baino, memoria bera da historiaren iturria.

Ildo beretik jarraituz, beste uneren batean, bi gizonen gertaera bakarraren inguruan bi istorio ezberdin kontatu dizkigute. Areago, biek parte hartzen zuten topaketa batean, biek ala biek baieztatzen zuten beraien istorioa benetakoa zela, euren artean bateraezinak izan arren. Kasu

53 Joan J. Pujadasek (2000) azkenengo hamarkadatan diziplina ezberdinetan metodo biografikoak izandako bultzada eta goraldia aipatzen du. Horrekin batera, edo horren bueltan, diziplinarako eremua sortzen dela ere badiosku, eta antropologian emankorra izan da diziplinen arteko gurutzatze hori.

54 Kasua garatzean azalduko dut hobeto zein zen hasiera batean ezagutzen zen istorioa eta nola pasa den barietatea baserri eta baratzetako beste batzuetara. Ikusiko dugunez, Goiko baserria Aramaioko dago, eta osatu dudana historiaren lehenengo protagonista da. Hara heldu ziren Aretxabaletako Larrosa barietatearen landareak Miranda de Ebrotik eta, beraz, han kokatzen dut barietate horren Gipuzkoako historiaren hasiera. Goiko baserritik, besteak beste, Urdintxaren baserrira heldu zen barietatea eta, beraz, Urdintxa da historia horren bigarren protagonista, aipatu mojarrekin eta bere suhia Peiorekin batera.

horretan, talka horrek bi gizon horien arteko talkaz hitz egin zidan. Bietako bakoitza bere tokia aldarrikatzen ari zen Aretxabaletako Larrosa tomatearen historian. Halaber, memoria osatzeko moduz ere hitz egin zidan egoera horrek. Izan ere, memoria ez da gertakarien erreproduzio hutsa, gertatutakoaren inguruan norberak eta kolektiboak eraikitakoa baizik. Memoria sortzailea da (Portelli 1998; Llona 2012), eta kasu horretan memoriaren bidez ari ziren tomatearen historia idazten -edo ahotsaz jasotzen-. Zehazki, orainalditik eraikitzen da memoria, norberaren posiziotik alegia, eta era berean norberaren posizioa, identitatea eta subjektibitatea eraikitzeko funtsezkoa da. Memoriaz eta ahozko historiaz aritzean, beraz, gertakarien inguruan galdetzea baino, interesgarriagoa da gertakari horien inguruko esanahiei buruz itauntzea (Llona 2012)⁵⁵. Gure kasura ekarrita, horrek eraman nau historiatik beratik apur bat aldentzera. Hau da, tomatearen historia ezagutu eta berregin nahi izan dugu, zalantzarik gabe, baina horrekin batera historian agertzen diren sareak, harremanak, eta praktikak dira gehien interesatu zaizkigunak. Dena dela, esan dudan moduan, memoriak sortu egiten du eta, beraz, hau historia posibleen arteko bat besterik ez da.

2.4.3. Ingurumen-antropologian pertzepzio parte-hartzailerako aukerak eta beharra⁵⁶

Azpiatal honetan, lekuan lekuko lana bukatutakoan egindako hausnarketak bildu nahi ditut. Zehazki, tesiaren diseinu metodologikoaren parte izan ez den eta praktikan era kontziente batean behintzat garatu ez dudan hausnarketa eta proposamen metodologikoa da irakurleak hemen aurkituko duena. Zehatzago, hau bezalako etnografia batean pertzepzio parte-hartzaileak egin ditzakeen ekarpenaz jardungo dut.

Sarah Pinken (2009) lanean oinarrituta, Carlos García Gradosek (2017) pertzepzio parte-hartzailea ikuspegi feministari lotzeko proposamen eta aldarrikapena egiten du. Ildo beretik, teknika horretara antropologo feministen eskuetatik heldu naiz ni⁵⁷. Ingurumen-antropologian, aldiz, presentzia txikiagoa izan dute ikerlariaren esperientzian eta gorpuztasunean zentratutako proposamenek, eta horrekin lotzen dute pertzepzioa Esteban Ruiz-Ballesteros eta

55 Beste artikulu batean egileak berak ideia hauek berretsi, eta azkenengo urteotan ahozko historiak memoriaren eta horrek identitateen eraikuntzan duen paperaren inguruan hausnartu du. Gero eta gehiago baztertzen ari da ahozko historia gertakariak ezagutzeko baliatzeko joera (Llona 2007).

56 Miren Guilló Arakistaini atal honi egindako ekarpenak eskertu nahi dizkiot.

57 Batez ere *Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia Saileko* hainbat lankideren bitartez egin dut bide hau. Izan ere, Jone Miren Hernández García, Mari Luz Esteban, eta Margaret Bullenek (2016) dioten bezala, gorputzarekin lotutako gaiak ikergai dituzten ikerketak zein gorputzaren teorian oinarritzen direnak ugaritu egin dira euskal antropologia feministaren baitan azkenengo urteotan, eta hortik egin dira, besteak beste, pertzepzioaren inguruko zenbait hausnarketa eta ekarpen (Ayesta 2003; Esteban 2011; 2018b; Martín Zapirain 2015; García Grados 2017; Zapata 2019; Hernández García 2019; Guilló 2020). Nik horietatik edan dut zuzen-zuzen.

José María Valcuende del Ríok (2020). Hori dela eta, arlo horretan ere, eta nirea bezalako tesi batean, pertzepzio parte-hartzaileak egin ditzakeen ekarpenak nabarmendu nahi ditut oraingoan.

Marc Badalekin batera egindako bisitaldietako batean, baratzean bertan ari ginela, baratzezainari -gizona zena- galdetu genion nola hautatzen zuen haziak zein landare edota tomatetatik atera. Guk, eta bereziki Marcek, batik bat liburuetan esaten dena dakigu: batetik, landareari erreparatu behar zaiola, landare osasuntsuetatik atera behar baitira haziak; bestetik, fruituari ere begiratu behar zaiola, barietatearen fruitu prototipikoari gehien gerturatzen diren fruituetatik eskuratu behar baitira haziak eta, kasu horretan ere, osasuntsu dauden aleetatik. Liburuek diotena diotela, nola egiten den jakin nahi genuen. Baina, bisitaldia udazken aldean egin genuen, eta baratzean jada ez zegoen tomaterik. Hortaz, baratzezainak hitzez kontatu behar izan zigun hori nola egiten zuen. Hona hemen orduan izandako elkarrizketa:

Marc [Mc]: Eta tomateen haziak hartzeko, nola hautatzen dituzu, zein fruituak uzten dituzu haziak hartzeko? O sea...

Peio [P]: Normalean, porruekin egiten den moduan, porrua onena ikusten dodanean, ba, hazitarako. Eta tomatea be ikusten dotenean, lobeak ipintzen dio holako zintatzo bat, tomate ona dalako. Zuk nobixa topetan dozunean [Marci zuzendua] be 'la más guapa', ez dakizu, ba tomatea be 'la más guapa', e...

Mc: Eta ez duzu hautatzen behekoak, edo handi, berdin zaizu?

P: E, ba...

Mc: lehenak edo...

P: Ba, ez dakit... Esaten dute behekoak igual hobeagoak direla, ez dakit ze esan be, e, bistaz ikusten ditudanean, ba, baldin badaude 10 bakoitzean, hauxe da handiena, ipintzen diot zinta bat eta heldu-heldu egiten denean kendu hazixa eta...

Marta [Mt]: Eta onena da haundiena? Da forma... o sea...

Mc: Zer da hoberena? Kolorea? Tamaina?

Mt: Forma?

Mc: Nola jakiten duzu zein da hoberena?

Mt: 'La más guapa', baina klaro 'la más guapa para quién'? Zeintzuk dira zuretzako?

P: Normalmente tomatea para todos 'la más guapa'.

[barreak]

P: Tomate... Tú también: 'yo también hubiera cogido esa'... diferentzia eukitzen dute, ba, da lisuagoa, bistosoagoa... (Peio, Elkarrizketa)⁵⁸.

Behin eta berriz galdetuta, tomateak hautatzeko irizpide "objektibo" gutxi batzuen berri ematen digu, eta horien artean tamaina nabarmentzen da. Hala ere, gehien nabarmentzen dena subjektibotzat har dezakegun irizpidea da: onena hartzen du. Gu behin eta berriz saiatzen gara berarentzat onena zer den azal diezagun, eta bera hori azaltzen ahalegintzen da, baina

58 Peio Urdintxaren suhia da. Bere bitartez heldu ziren Aretxabaletako Larrosa barietatearen landareak Goiko baserritik Aretxabaletanko Urdintxaren baratzerara.

hasierako puntura itzultzen da: "ez dakit zergatik, beti onena hartzen dugulako". Guk ez diogu ulertzen, baina berak badaki zein den onena. Agian hitzez ezin digu azaldu, eta ez du argudio arrazionalik, baina badaki. Jakintza oro ez da arrazionala, eta kasu honetan gorputza eta zentzumenek toki zentrala dute.

Beste egoera batean, Jack haziak EAEn banatzen diharduen komertzialak, Aitorrek, urtero Holandatik bidaliko haziak probatu egiten dituztela kontatu zidan. Berak jasotzen ditu sorta ezberdinetako haziak, eta erreferentziazko bi landare-mintegietara bidaltzen ditu, bertan erein eta proba ditzaten. 20 egun inguru pasa direlarik, mintegietatik deitzen diote, zein sortatako haziak diren onenak esateko. Bat egiten dute bi mintegiek. Ernetze-tasatik harago, nola jakin 20 egunetan zein hazietatik ateratzen diren landarerik onenak?

Hirugarren batean, tomategintzan inplikaturik egon eta maiz etxaldeak bisitatu arren tomateak ekoizten ez dituen gizon batek beste egoera baten berri eman zidan. Noizbait, etxalde bat bisitatu eta bertakoak landare batzuk ez daudela ondo esana dio. Berak, gaian aditua omen denak, primeran ikusten ditu landare horiek. Aste batzuk pasata, baina, landareak gaixo daudela ikusten du, orduan bai, inolako zalantzarik gabe.

Lekuan lekuko lanaren hiru adibide hauek ezagutza-bideei, landareekin ditugun harremanei, eta "ikusteko" moduei buruz ari zaizkigu. Ruiz-Ballesteros eta Valcuendek (2020) ingurumen-pertzepzioen etnografiaren inguruko hausnarketa egiten dute. Besteak beste, "begiratu" (*mirar*) eta "ikusi" (*ver*) ekintzak bereizten dituzte. Batetik, begiratzen dugun tokitik ikusten dugu Baina, bestetik, batzuetan ikusten lagundu behar digute. Azkenik, hainbatetan begiratu bai, baina ez dugu ikustea lortzen. Horretan, ingurumen-pertzepzioek eragina dute, eta horretaz ari zaizkigu, esandako moduan, aipatu berri ditudan hiru egoerak.

Lehenago jada hainbat lanetan presentzia izan arren, 80ko hamarkadara arte zentzumenak ez ziren antropologiaren ikergai eta mintzagai esplizitu bilakatu. Orduz geroztik, horien inguruko lanak eta ekarpenak nabarmen garatu eta zabaldu dira. García Gradosek (2017) horien azterketari loturik antropologiaren barruan egondako bilakaera jaso eta azaltzen du: hasiera batean "zentzumenen antropologia" (*antropología de los sentidos*) izendatu zena garatu zen, eta geroxeago "antropologia sensoriala" (*antropología sensorial*) deritzona nabarmendu. Hasieran zentzumenen antropologiak zentzumenen eraikuntza soziokulturalean jarri zuen arreta batik bat eta, geroago, antropologia sensorialaren baitakoek pertzepzioaren eta etnografiaren inguruan jardun dute gehienbat.

Zentzumeneren antropologiak mendebaldean eta bereziki modernitatean garatutako zentzumeneredua izan du aztergai. Eredu hori batik-bat ikusmenean zentratutakoa dela nabarmendu zuten jada duela hamarkada batzuk. Kontuan hartu behar dugu, gainera, zentzumeneren bidez ezagutzen dugula mundua eta, hartara, zentzumenereduek ikuspegi epistemologikoekin estuki lotuta daudela. Gurean, positibismoa izan da denbora luzez ikuspuntu epistemologiko hegemonikoa, eta horrek ikusmena hartzen du ezagutzarako oinarritzko zentzutzat. Izan ere, positibismoaren ikuspegitik ikusmena norberetik gehien alden du daitekeen zentzumenera omen da, munduarekiko distantzia gehien ezarri dezakeena, eta beraz, "objektiboena" izan daitekeena. Kritika hauek jasoz, besteak beste, ikusmenean zentratutako eredua etnozentriko eta antropozentrikoa dela eta zentzumeneren antropologiak horri kritika egin diola diosku García Gradosek (2017). Halaber, genero ikuspegia eta begirada feminista askotan kritika horren oinarrian egon direla ere azpimarratzen du.

90eko hamarkadatik antropologia sensoriala izenarekin identifikatu da antropologiaren baitan zentzumeneri garrantzia eman dien beste korrantea, metodologian eta metodo etnografikoan arreta handia jarri duena. Pink erreferentzia nagusietako bat da ildo horretan, eta etnografiari bestelako bideak ireki dizkion proposamen metodologikoa egin du: pertzepzio parte-hartzailea (*participant sensing*) (2009). García Gradosek teknika hori erabili eta horren inguruan hausnartu du. Bere hitzetan, Pinken pertzepzio parte-hartzailea proposatzen du:

Como una reconceptualización de la técnica fundamental en antropología como es la *observación* participante, dada la relación de esta última con la supremacía del ojo (Pink, 2009: 65). Esta propuesta, más allá del plano teórico, alcanza el/la etnógrafo/a en el terreno práctico para dar cuenta de su mayor potencial cuando emplea todo su cuerpo y sensorialidad como fuente para la reflexión (García Grados 2017, 131).

Antropologiaren oinarritzko teknika den behaketa parte-hartzailearen birkontzeptualizazio gisa, azken horrek begiaren nagusitasunarekin duen lotura kontuan izanik (Pink, 2009: 65). Plano teorikotik harago, proposamen horrek etnografoa esparru praktikoan kokatzen du. Gorputz eta zentzumenezkotasun osoa hausnarketarako iturri gisa erabiltzean duen potentzialaren berri emateko.

García Gradosek teknika hori erabili bai, baina Pinken planteamenduari kritika egiten dio. Bere ustetan, antropologia sensorialean alboratu egin da zentzumeneren antropologiaren muinean zegoen genero ikuspegia. Zentzumeneren antropologian, berriz, ikuspegi metodologiko falta sumatzen du García Gradosek. Horren aurrean, bi korrante edo ikuspegi horiek bateratzeko proposamena eta apustua egiten du, eta pertzepzio parte-hartzailea teknika etnografiko feminista gisa aldarrikatzen du (García Grados 2017).

Etnografia feministan teknika horren aldeko apustua egiteaz gain, pertzepzio-ikuspegi multisentsorial batetik (*enfoque perceptivo multinsensorial*) metodo etnografikoari egiten zaion kritikak behaketa parte-hartzailearen joera etnozentriko eta androzentrikoa gainditzen dituela ere azpimarratzen du García Gradosek (2017). Ruiz-Ballesteros eta Valcuenderen (2020) ekarpenetik abiatuta, García Gradosen proposamena osatuko dut orain. Izan ere, antropologiaren joera antropozentrikoa gainditzeko ere teknika baliagarria izan daiteke pertzepzio parte-hartzailea.

Ingurumen-antropologiaren arloan, Estatu espainiarrean bederen, pertzepzioaz gutxi hausnartu eta teorizatu da. Berriki, pertzepzio parte-hartzailearen gaia ingurumen-antropologiara gerturatu duen Ruiz-Ballesteros eta Valcuenderen (2020) artikulua argitaratu da AIBR aldizkarian. Egileek diotenez, pertzepzioen analisiak garrantzia hartu beharko luke ingurumen-antropologian, baina ez da horrela gertatzen, eta beste "munduetako"⁵⁹ pertzepzioengana gerturatzeko zailtasunak ditugula diote.

Pertzepzioa egiten dugunarekin eta zentzumenak aktibatzen diren kokapen fisiko eta praktikoarekin estuki lotuta dago. "La percepción es la dimensión más íntima de la experiencia"⁶⁰, diote Ruiz-Ballesteros eta Valcuendek (2020, 111). Hala ere, horrek ez digu horrengana heldu eta hori ulertu ahal izatea erabat galarazten. Kasu honetan, baina, etnografian zentralak diren narratiba eta diskurtsoen bidez oso zaila da besteen pertzepzioetara heltzea; izan ere, ekinez bizi eta sentitzen den zerbait dira. Lekuan lekuko lanak, eta ikertzen ditugun komunitateekin pasatzen dugun denborak irekitzen digute pertzepzioa aztertu eta ulertzeko aukera. Etnografia prozesu bat da, eta baita bizipen bat ere. Horretan, elkarrekin egon, harremanak sortu, eta elkarrekin ekiten dugu. Ruiz-Ballesteros eta Valcuendek pertzepzioak antzemateko egunerokotasuneko bizipen eta jardunen garrantzia azpimarratzen dute (Ibid.). Hori esanda, pertzepzioen garrantzia eta beraien dimentsio soziokulturala azpimarratzeko zenbait adibide etnografiko plazaratzen dute.

Egileek azaltzen dituzten egoera horietan ikusten dugu nola hel daitekeen antropologoa ikertzen dituenen pertzepzioetara eta, horrekin batera, "ikerketaren-objektua" direnek munduan egoteko eta ingurunearekin harremantzeko duten modua ere uler dezake. Horretarako, turistaren jarrera predatzailetik, eta kanpotik begiekin mundua ezagutu nahi duen

59 Besteak beste, Arturo Escobarrek (2014) "pluriverso" terminoa darabil eta harremanen inguruan eraikitako ontologia zehatzetan oinarritutako "beste edo bestelako munduaz" jarduten du. Mundu hauen pertzepzioetara heltzeko zailtasun handiak ditugula diote Ruiz-Ballesteros eta Valcuendek (2020).

60 "Pertzepzioa esperientziaren alderdirik intimoena da".

bisitari eta antropologoaren begirada zein ikusmenetik urrunduta, "paisaian" integratuago dauden bizipen eta zentzumenak ager daitezke etnografian. Adibidez, Peruko Amazonian errekararen bueltan eraikitako herri batean antropologoek etxe bat eraiki behar izan zutenean, errekarari begira egin zuten; erreka kontenplazio-objektua zen beraientzat. Gerora, beste etxe guztiek errekarari bizkarra ematen ziotela konturatu ziren. Erreka horien bizitzen parte zen, eta ez "kanpotik" begiratzeko zerbait (Ruiz-Ballesteros eta Valcuende 2020). Harawayen hitzak nire eginez, bertakoek ez zuten errekarerik inon kokatua ez dagoen begirada konkistazailerik, hots, "objektibitatearen" talaiatik, edo "besteak" markatzen dituen markarik gabeko "gizon, zuri, heterosexual eta klase ertainekoen" begiradarik (1995, 324). Antropologoek, ostera, hasieran batean behintzat, bazuten begirada hori. Ruiz-Ballesteros eta Valcuendek (2020) emandako adibideetan, komunitate horien pertzepzioetara helduz ingurumenaren inguruko ikuspegi, bizipen eta harreman ez antropozentrikoetara heltzen gara.

Aurrekotik abiatuta, proposatzen dut pertzepzio parte-hartzaileak antropologiaren joera etno- eta andro-zentrikoa soilik ez, diziplinaren joera antro-zentrikoa gainditzeko ere balio dezakeela. García Gradosek (2017) bi ikuspegi uztartu eta pertzepzio parte-hartzailea etnografia feministarako tresna gisa aldarrikatuz bere aurrekoekin egin antzera, horren erabilera-markoa apur bat gehiago zabaldu nahi dut orain. Izan ere, ingurumen-antropologiatik planteatzen denean, proposamenaren atzean feminismoak izan duen presentzia bigarren plano batean geratzen da. Halaber, ingurumen-antropologiatik egiten diren ekarpenak antropologia feministarentzako ere aberasgarriak direlakoan nago.

Proposamen teoriko-metodologiko horiek guztiak kontuan izanda, nik egindako lekuan lekuko lanean bi egoera mota ezberdin bereizten ditut. Batetik, zenbaitetan pertzepzioak kontakizunetan agertu zaizkit; bestetik, beste hainbatetan pertzepzio horiek sumatu egin ditut, horien garrantzia antzeman egin dut, baina oso gutxitan heldu naiz horiek nik neuk bizi edo sentitzera. Azpiatal honen hasieran aipatutako hiru egoeren kontakizunetan, berdin bizi eta sentitzen ez genituen zentzumen batzuk zeudela sumatu dut. Lehenengo kasuan, baratzezainak tomateak neska-lagunak bezala hautatzen dituela esaten duenean, ezin dut guztiz ulertu eta, aldi berean, ulertzen ari naiz. Ez dakit zeintzuk diren bere gustuak, baina zerbait ulertzen diot: "politena" hartzen duela esaten ari zen. Politena beti nor bere gustuen arabera eraikita dago, eta beharbada horixe bera da esaten ari zena. Horrekin batera, interakzio baten baitan kokatzen zuen ekimen hori: tomateak ezagutzen ditu, behatzen ditu, sentitzen ditu, eta orduan badaki, hitzez zehazki azaldu ezin duen arren, zeinetatik atera behar

dituen haziak. Eszena horretan, horren kognitiboa ez den eta, beraz, gorpuztuago⁶¹ suertatzen zaigun jakintza agertzen zaigu, berriz ere ikusmenetik harago doan eta hitzez azaltzeko zaila den jakintza. Hor ginela, behin eta berriz galdera errepikatu ostean, pentsatu nuen: egunak eta egunak berarekin eman ostean, beharbada, nik ere jakingo nukeen zein tomatetatik atera hazia eta, ziurrenik, nik ere ez nuke kontaktzen jakingo.

Egoera ulertzeko, nik bizitako zerbaitekin paralelismoa egiteak lagundu zidan. Badira urte asko etxean ogia egiten dudala. Ia inoiz ez dut errezeta zehatzik jarraitu. Beti ez zait berdin ateratzen, eta maiz ez dakit azaltzen zergatik geratzen zaidan ezberdin, baina badakit konturatzen orea noiz doan ondo eta noiz ez, noiz den "bat" eta noiz duen trinkotasun falta. Etxeko bati ogia nola egin kontatu behar izan nionean, aldiz, hitzak eta neurriak faltan izan nituen. Berak proportzioak eta prozesua ondo jaso eta idatzi nahi zituen, hurrengoan berak bakarrik egiteko. Ni ez nintzen azaltzeko gai. Orduan, pentsatu nuen konponbidea bolada luze batez ogia batera egitea izango zela; edo berak bakarrik egitea eta orea ezagutzea, bere ogi eta ore mota aurkitu arte. Gaur da eguna oso ogi ezberdinak egiten dituguna, eta batera jartzen bagara, nik ezin dut erabat berea ulertu, eta berak ezin du guztiz nirea ezagutu. Hitzez adierazten ez dakigun jakintza horrek badu zerikusirik tomateak hautatzeko baratzezainek dutenarekin.

Aipaturiko beste egoeretan, elkarrizketatuek beraiek egin zioten pertzepzioen afera horri erreferentzia, beste hitz batzuekin izan arren, noski. Besteen pertzepzioez aritu ziren, besteek ikusten zutena ikusteko gai ez zirela adieraziz, edo besteen ezagutza azpimarratuz. Beraz, kasu horietan ez nituen pertzepzio horiek sentitu edo sumatu, hitzaren bidez horiengana heldu baizik. Edonola ere, horien garrantzia jaso egin nuen, eta horrek adierazten digu teknika horren beharra.

Beste egoera batzuetan, aldiz, nik neuk sumatu dut nire aurrean nuenarekin ez nituela pertzepzioak partekatu. Maiz, jakintza gorpuztuari lotua izan dira egoera hauek. Izan ere, tomateak aukeratzeko garaian bezala, zerbait galdetzen nuenean ezin zidaten azaldu nik ulertu nitzakeen hitzetan. Egoera horiek metodologikoki arakatu gabe geratu zaizkit. Alde batetik, pertzepzioaren gaian analisisan eta idazketa fasean sakondu dudalako, eta une horietan ez nintzelako konturatu hor bazegoela zer arakatu eta metodologikoki zer sakondu. Bestetik, egoera horietan sakontzea ere ez zegoelako nire helburuen artean. Etnografia honetan, azaldu

61 Gorpuztuago suertatzen zaigula diot, maiz, jakintza kognitiboa ez baitugu horrela ulertu, gorputza/gogoa dikotomian eroriz. Aitzitik, dikotomia hori gainditu nahi badugu, jakintza kognitiboa ere jakintza gorputzutzat hartu behar dugu. Miren Guillóri eskertu nahi diot horren inguruan partekatutako hausnarketa.

bezala, toki askotatik igaro naiz, eta kasu gutxitan egon naiz luzaz toki berean pertsona berdinekin. Izan ere, helburuak bestelakoak izan dira, eta begirada beste toki batzuetara bideratu dut. Ruiz-Ballesteros eta Valcuendek (2020) diotenarekin bat eginik, uste dut egunerokotasuneko egoeretan sakondu dezakegula gehienbat besteen pertzepzioetan, beraiekin batera jarduten, ekiten, eta elkar-harremanean. Nire kasuan, azkenengo hori tesian garatzeke geratu zaidan gai multzo batekin ere lotzen dut, landare eta haziekin sortutako zaintza harremanak eta afektuen gaiarekin, alegia. Afera horretan sakontzeko, nirea bezalako ikerketa batean behintzat, toki zehatzetan behaketa eta pertzepzio parte-hartzaile errepikakorragoa egitea lagungarria izango litzateke. Edonola ere, uste dut lehenengo pausua pertzepzio ezberdin horien existentziaz ohartzea dela, eta bigarrena horietan murgildu eta sakontzea. Horretarako, norberak bizi izan dituen egoera eta pertzepzioetatik besteenengana gerturatzea lagungarria izan daiteke, nik ogiaren kasuarekin egindako moduan. Pertzepzio horiek partekatzeraz ezin bagara heldu, bila ditzakegu horietara gerturatzen gaituzten bizipenak, eta hortik besteenetara hurbildu.

2.4.4. Bisitaldia. Elkarrizketa eta behaketaren artean koka dezakegun ikerketa-teknika

proporcionado personal técnico del sector. Se trata de las llamadas "variedades de especies hortícolas desarrolladas para ser cultivadas en condiciones determinadas, las variedades de especies hortícolas sin valor intrínseco para la producción comercial, pero desarrolladas para su cultivo en condiciones agro-técnicas, climatológicas o edafológicas determinadas", conocidas más comúnmente como "variedades Sin Valor Intrínseco" y marcadas en el catálogo como variedades SVI -así voy a nombrarlas en adelante-. Esta es una categoría válida solo para las variedades hortícolas. Las exigencias para el registro en esta categoría son también más flexibles, y se exige una pureza varietal mínima más baja que en el caso de las "variedades comerciales seleccionadas". En este caso, no se limita el total de la cantidad a producir, pero se limita el tamaño del envase en que van a comercializarse, pues se trata de una categoría orientada a proveer a pequeñas agricultoras aficionadas de semillas que se asume que no tienen un valor propio para la comercialización. Estas variedades no están necesariamente vinculadas a un territorio y no tienen por qué ser necesariamente variedades locales. Es por ello que diferentes personas me han dicho que se trata de una categoría creada para satisfacer las necesidades de las redes de semillas, que intercambian pequeños lotes de semilla, fundamentalmente para cultivar en huertas de autoconsumo y conservar variedades locales. Registrando variedades como SVI se legalizaría la actividad de estas redes que, sin embargo, por el momento no se han dedicado a hacer un trabajo activo y generalizado de registro, por lo menos en el contexto vasco y el español. Sin embargo, sigue limitándose el uso generalizado de estas variedades, pues no pueden venderse en grandes cantidades.

Con las categorías de "conservación" y "SVI" se facilita por lo tanto el registro de variedades locales o variedades que no se ajusten a las exigencias de DHE. Sin embargo, en ambos casos se limita mediante diferentes mecanismos su producción y las posibilidades de comercialización de las mismas. Por este motivo, este tipo de categorías de registro han recibido críticas de redes de semillas y otras organizaciones, que ven que este tipo de registros pueden convertirse en una limitación a la comercialización de variedades locales, cuando el objetivo de registrarlas es, precisamente, poder comercializarlas.

4.5.3. Registro para la producción

A la vez que se regula qué variedades pueden registrarse y cómo, en el *R.D. 1891/2008, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento para la autorización y registro de los productores de semillas y plantas de vivero y su inclusión en el Registro nacional de*

*productores*¹⁶² se regula también quién puede hacerlo. Las personas que quieren tanto obtener como conservar, seleccionar y/o multiplicar semillas y plantas de vivero deben obtener una licencia para ello y registrarse como tales. En este sentido, el régimen de control tecnobiopolítico que se impone a las propias plantas y semillas se impone también a las personas que las producen, pues son un elemento fundamental en la cadena de control sobre las propias plantas. Y no se trata de una cuestión baladí, sobre todo porque trae una consecuencia importante en la misma noción y estructuración de la re-producción de semillas y material vegetal. Durante miles de años la labor de selección, mejora y conservación de variedades era una labor realizada por las propias campesinas, un pequeño paso o fase más inseparable de la producción de hortalizas. Sin embargo, al exigir un registro aparte y específico para la re-producción -multiplicación- de semillas, se separa legalmente la labor de producción hortícola de la labor de producción de semillas. Cabe especificar, en este punto, que esto es solo para las semillas que van a comercializarse y por lo tanto registrarse, pero que precisamente por ello afecta a la mayoría de la producción de semillas.

Dentro de este registro, se crean las siguientes categorías diferenciadas, con competencias también dispares: productor obtentor, productor seleccionador y productor multiplicador, tal y como aparecen literalmente en el texto de la ley. Las personas obtentoras pueden producir el material de base con el que crean y producen la variedad "nueva" obtenida. Es decir, no pueden multiplicar sus propias semillas -por ejemplo un híbrido de primera generación- pero sí las necesarias -semillas base y/o parentales- para la producción de aquellas. Son las personas multiplicadoras las que hacen el trabajo que no pueden hacer las anteriores; producen las semillas que van a comercializarse. Finalmente, quienes se registran como seleccionadoras pueden hacer todas las labores.

Aparte de las categorías anteriores, existe también la categoría de "conservador", que no es una categoría que haga referencia a la producción, o mejor dicho al proceso productivo orientado a la comercialización, sino que tiene que ver con el compromiso que se adquiere al registrar una variedad en el registro de variedades comerciales. Cuando se registra una variedad quién consta como conservadora adquiere el compromiso, mientras dure el registro, de reproducirla y tener también el material vegetal necesario para ello. Cuando a las empresas que han conservado determinadas variedades no les interesa seguir produciéndolas o, es más, les interesa sacarlas del mercado, a menudo para poder introducir otras y rentabilizar

162 Consultar en: <<https://www.boe.es/boe/dias/2008/12/06/pdfs/A48897-48900.pdf>>. [Última consulta: 20/07/2020].

inversiones realizadas en investigaciones más recientes, las sacan del registro, y con ello evitan que puedan ser reproducidas.

En relación a estas categorías y las facultades o competencias de las mismas hay algunas excepciones, en torno a las cuales suele haber bastante confusión. La más conocida es la "excepción del agricultor", también conocida como "derecho" o "privilegio" del agricultor, que establece que una pequeña agricultora puede re-producir para su propia explotación, y siempre dentro de la misma, material reproductivo de variedades que estén protegidas sin tener que pagar los consiguientes *royalties*. Sin embargo, es una excepción que se aplica solo a unas pocas especies y en condiciones muy concretas, y el tomate no es una de ellas. No se aplica tampoco a variedades híbridas y sintéticas. Se está trabajando también, tanto en el ámbito europeo como estatal, en reglamentos que flexibilicen las exigencias para la reproducción y/o comercialización de determinados tipos de semilla. A nivel europeo, y para el caso de la agricultura ecológica, se ha trabajado en una propuesta que permita a productoras hortícolas la producción y comercialización de pequeñas cantidades de semillas de variedades locales, no registradas, adaptadas a la producción ecológica. Se trata de una normativa que entraría en vigor en el año 2021 y sobre la que hay todavía poca información, y en la que no me queda claro si esas productoras deberían estar registradas también como multiplicadoras de semillas o no. Por su lado, en el Estado español se está trabajando en un reglamento que permita la producción de semillas de variedades de conservación y SVI por personas que no tengan licencia de multiplicación¹⁶³. En cualquier caso, diferentes organizaciones agrícolas han criticado que, en los momentos que entran en conflicto, se priorizan los derechos de los obtentores por encima de los derechos de los agricultores. Esto nos hace pensar en lo que dice Lander:

En los procesos de globalización del derecho, existe una inmensa asimetría entre aquellos convenios cuya orientación es la protección de los Derechos Humanos, de las mujeres, del ambiente, de la diversidad genética, por un lado, y los convenios referidos a la protección de los derechos del capital. Mientras que los primeros son declaraciones de intención, o compromisos para los cuales no hay instrumentos que garanticen su cumplimiento, para los segundos se establecen mecanismos precisos que aseguran una severa sanción en caso de incumplimiento (2001, 85).

En este caso, en el Tratado Internacional sobre los Recursos Fitogenéticos para la Alimentación y Agricultura (TIRFAA)¹⁶⁴, firmado en el marco de la FAO se establecen los "Derechos del Agricultor" -en la Parte III, Artículo 9-. Con este apartado se quiere reconocer

163 Escribo estas líneas en la primavera del año 2019.

164 Ver apartado 2.2.1 en Barba (2014).


la contribución que han hecho las poblaciones agrícolas y campesinas a la conservación de la biodiversidad cultivada, dándoles algún tipo de derecho sobre los recursos fitogenéticos. Sin embargo, esto se define de forma difusa y se deja a las manos de legislaciones estatales. Mientras tanto, en la UPOV se definen y protegen los derechos de los obtentores, que se hacen mucho más vinculantes mediante todo un entramado de convenciones y tratados internacionales -como he dicho, en la creación de la OMC se obliga a los miembros que van a entrar en la misma a establecer algún tipo de protección sobre variedades vegetales-.

Leyes, empresas, investigación científica y desarrollo biotecnológico aparecen entrelazadas en un entramado tecnocientífico y tecnobiopolítico que ha profundizado, a lo largo de las últimas décadas, en los procesos de privatización, mercantilización y control de las semillas y, de un modo más general, de la vida. Por un lado, se ha regulado, controlado, y fragmentado la reproducción y generación de semillas y variedades de cultivo. Por otro lado, y como consecuencia de lo anterior, ha disminuido de forma significativa la biodiversidad cultivada planetaria, desapareciendo gran cantidad de variedades locales de cultivo. En este contexto, las semillas y los frutos -en este caso nos interesan los tomates- se configuran como reservorios genéticos y como cuerpos re-productivos -cada vez menos generativos- a controlar.

III. Atala

Aretxabaletako Larrosa Barietatea





Irudia 4: Aretrabaletako Larrosa barietatearen ibilbidea eta historia. Egilea: Maddi Zumalabe.

Aretxabaletako Larrosa tomate barietatearen kasua

Aretxabaletako tomatea barietatea erabat garaikidea da. Hasteko, tokiko barietate gisa ulertzen delako. Nekazari munduan, horrela, elkarren ondoan, sekula paratu ez ziren bi hitz.
Marc Badal (2018, 68)

El ejercicio ontográfico de creación -de escritura de entidades en la piel del mundo-, en el que consiste el discurso de las variedades, implica singularizar objetos, no como un proceso de revelación y descubrimiento de algo que estaba oculto y ahora, finalmente, la ciencia de las plantas logra nombrar; sino como una práctica de estabilización de líneas de diferencia genética interna a la especie Malus Domestica. Una diferenciación que hace al objeto -la variedad-, y que además y también se marca a través de un nombre propio, un nombre de familia, una lista de atributos y necesidades de cultivo, un asiento en un registro legal [...].
En otras palabras, las variedades como entidades discretas emergen y re-emergen constantemente sobre un continuo de diversidad que es necesario mantener. La individuación no presupone la identificación de una esencia originaria, sino el establecimiento del origen como un acontecimiento in media res.
Montserrat Cañedo (en prensa)

Una vez que se completa la dominación, la conservación es urgente. Pero quizás la preservación llegue demasiado tarde.
Donna Haraway (2015, 58)

Tomatearen aurkezpena. Aretxabaletako Larrosaren historia eta istorioak

2015eko urrian Donostian, hazien pribatizazioari buruzko jardunaldia

Dagoeneko aipatu dut 2015ean Donostian toki hartu zuen "Norenak dira haziak" jardunaldia. Besteak beste, jardunaldi horren baitan bertako bi barietateren erregistro parte-hartzailea egin zen, Aretxabaletako Larrosa eta Piko Luze tomateena, hain zuzen. Zenbait elkarte eta eragile

beldur zen bertako hainbat tomate barietateren pribatizazio-prozesuen atarian ote ginen. Hori dela eta, erregistro parte-hartzaileak egin ziren, ofizialki balio juridikorik izan ez arren, barietate horien existentzia eta izaera komunalaren zantzuak sortzeko asmoz. Horretarako, lehenengo eta behin, tomate horiek zaindu, gorde eta hedatzeko lan egin duten pertsonak gonbidatu zituzten bertara, bi tomateen historiak kontatu zituzten. Historiak kontatzeaz gain, nolako tomateak ziren eta nola erein, landatu eta gorde behar ziren ere azaldu zuten. Gerora, tomate-dasta egin genuen, tomateak beraiek ezagutu eta ezaugarritu genituzan.

Aretxabaletako Larrosa tomateari dagokionean -bertan Aretxabaletako Morea izendatuta-, erretreta hartuta duen eta autokontsumorako baratzea duen Kepa gonbidatu zuten antolatzaileek, barietate horren zaintzan eta hedapenean egin duen lanari aitortza emateko, eta tomatearen inguruan duen jakintza parteka zezan. Kepa, gerora, tesi honen protagonista nagusienetako bilakatu da, tomatearen historian duen eta eman zaion leku zentrala dela eta. Barietate honen historian beranduago agertu eta aitortza gutxiago jaso duen Itsaseder baserriko Maialen ere gonbidatu zuten. Bera ekoizlea da, eta bere ahizparekin batera barazki ekologikoak ekoiztu eta azokan, kontsumo taldeetan eta jatetxeetan saltzen ditu. Horretaz gain, sektorean oso inplikaturik dago eta zenbait hazi gorde egiten du, Aretxabaletako tomatearenak tarteko. Berari ere aitortza egin eta hitza eman zitzaion. Kasu honetan, ekoizle profesionalaren posiziotik hitz egin zuen, eta barietatearen ezaugarri produktibo eta morfologikoen berri eman zigun.

Kepa eta Maialenen hizketaldiak entzunez, tomatea eta bere historia ezagutzen hasi nintzen, historia bera bertan performatu eta tomateari izaera marrazten zitzaion bitartean. Horrenbestez, tesian eta historian protagonista bilakatu diren batzuk ezagutu nituen bertan, batzuk aurrez aurre, eta beste batzuk beraiei buruz esandakoak entzunez. Horietako bat, Kepa bera. Kepak kontatu zuen tomate honek 40 urte baino ez daramala ingurune honetan -Gipuzkoan, eta Euskal Herrian-. Halaber, berak ezagun bati hartu ziola -gerora ezagutuko nuen eta lehenengo une horretan izenik gabe agertu zen Urdintxari, hain zuzen- kontatu zuen. Urdintxari, halaber, bere suhiak eman zion, eta azkenengo horri komentu batetik ateratako eta lantegi batera lanera joandako moja batek eman omen zion. Kepak ez zekien, baina, moja hori zein komentutik zetorren, baina landare horiek atzerritik ekarri zituela pentsatzen zuen. Hortaz, bere eskuetara heldu aurretik tomate barietateak eginiko bidea ez zegoen guztiz argi, eta garrantzi handirik ere ez zuela ematen zuen. Izan ere, berari eman zion pertsonaren inguruan informazio gutxi eman zuen Kepak, bitartekari hutsa balitz bezala. Era berean, berak kontatutako istorioan agertzen zen beste pertsona izenik gabeko moja zen, nondik etorri den

ez dakigun hori, alegia. Hortaz, Kepa zen izen eta abizenekin istorio horretan agertzen zen lehenengoa, eta berari eman nahi izan zioten aitortza ekimen horrekin.

Kepak berak esanda, berak bazuen -eta oraindik badu- gauzak gordetzearen garrantziaren kontzientzia. Kontzientzia hori dela eta, erabaki zuen ondo gordeko zituen norbaiti eman behar zizkiola tomate horren haziak, azpiegitura hobetuz zuten edota bera baino profesionalagoa zen beste norbaiti, alegia. Eta orduan Miren eta Teo ezagutu zituen Hazianitz baserrian. Berak Teoz hitz egiten badu ere, Miren eta Teo dira Hazianitz baserrikoak, eta biek eramaten dute baserriko ekoizpena -barazkiak ekoizten dituzte batez ere-. Hau da, Kepak eta beste askok bereziki Teoz hitz egin arren, historian eta gertakizunetan arakatzeko konturatu naiz itzalean geratzen zen Miren ere ekintza askoren parte izan dela, "ez-protagonista" edo aitortzarik gabeko protagonista, esan genezake. Horrenbestez, Hazianitzen egin duten lanari erreferentzia egiten diotenean biak aipatuko ditut. Aitzitik, niri bakarrik bata edo bestearen inguruan hitz egin badidate, bada, hori ere azpimarratuko dut, aitortza eta protagonismo jokoak agerian utzi nahian.

Miren eta Teo ekoizpen konbentzionaletik ekologikora jauzia egiten ari ziren Keparekin elkar ezagutu zutenean. Kepak hitz egin zien tomate horietaz eta eskatu zien beraien baratzeetan jarri eta haziak gorde zitzaten. Bikoteak onartu zuen, eta handik aurrera apustu handia egin zuen barietate horren alde. Hauek ziren, edo Teo zen, hobeto esanda, Kepa eta gero, istorio horretan izen eta abizenarekin edo izena eta baserriaren "abizenarekin" agertzen zen hurrengo pertsona. Nik Donostian jardunaldia egin eta hilabete batzuetara ezagutu nituen aurrez aurre. Ordurako, pertsona ezberdinek jada hitz eginga zidaten Teoz, bereziki, baita Hazianitz baserriaz ere. Beraz, internetetik beraien kontaktua hartuta, deitu eta beraienera joan nintzen negu bukaera-udaberri hasierako arratsalde batean. Teok -eta Mirenek- tomate honen historian aldaketa nabarmenetakoa eragin zuten. Izan ere, ekoizpen profesionalean sartu zuten tomatea, izena eman, eta azoketan ikusgaitasuna eman zioten. Hortik aurrera etorri ziren Ekonekazaritzak, Hazien Sareak eta Neikerrek egindako entsegu eta ikerketak. Laura Laredo teknikariaren lana garrantzitsua izan zen horretarako, baita ere Landarpila landare ekologikoko mintegiarena ere. Gerora ere, hainbat dasta egin izan da bertako tomate barietateekin, eta honek irabazi egin izan du maiz. Horrela, apurka-apurka, ikusgaitasuna eta onarpena lortu duen tomate gisa aurkeztu zuen Kepak.

Donostian ezagutu nuen barietatearen istorio honek kontakizun mitikotzat hartzeko moduko zenbait ezaugarri zuen, eta horrek ematen zion, hain zuzen, indarra barietateari. Horietako bat,

bere jatorri mitikoarekin estuki lotuta dago. Esan bezala, izenik gabeko moja batek ekarri zuen barietate hori. Ez dakigu nondik. Jatorri zehatz baten falta hori gakoa da, tomateari jatorri gipuzkoarra ematea ahalbidetzen baitu. Kasu honetan, baina, nabarmentzekoa da emakume eta gizonak istorio horretan duten tokia. Emakume bakarra agertzen da, izenik gabekoa, eta pertsonifikatu gabekoa. Moja. Gainera, ez da agertzen bera eta tomatearen arteko harreman esturik. Bere atzean, aldiz, izen eta abizenez ezagututako bi gizon agertzen dira, eta horiek bai, lotura estua sortzen dute tomatearekin, eta horren aita sozial bezala agertzen zaizkigu. Askotan gertatu bezala, emakumeek egindako lana itzalean geratzen da, eta gizonak dira aitortza bereganatzen dutenak. Hazianitz baserriko Miren historia honen "des-plazaturako gorputza" (González Abrisketa 2013) da, zentroan egon ezin daitekeena. Edo, Teresa del Valle (1997) dioen moduan, gizonezkoek emakumeei jakintzak -eta protagonismo eta aitortzak- usurpatzen dizkiete .

Tomatearen istorioaz gain, jardunaldi horretan tomatea nolakoa den eta nola landatu behar den ere azaldu zuten. Bertan azaldu zutenagatik zein lehenengo elkarrizketetan esan zigutenagatik, 2015eko inguru hartan Aretxabaletako Larrosa tomatearen egoera zein zen irudikatzen hasi ginen. Lehenengo eta behin, izen ezaguna zuen bertako tomatea aurkitu genuen. Hala ere, izen ezberdinekin izendatua zela konturatu ginen berehala. Aretxabaletako Morea, Aretxabaletako Mozkorra, eta Aretxabaletako Arroza dira gogoratzen ditudan lehenengo izenak, baita beraien gaztelerazko bertsioak ere: Morado de Aretxabaleta, Borracho de Aretxabaleta y Rosado de Aretxabaleta. Ezaguna zen tomate hori, Gipuzkoan nahiko hedatuta zegoen dagoeneko, bereziki nekazaritza ekologikoko sektorean, eta lurralde horretatik harago ere zabalduta zen. Baratze profesional zein autokontsumorako eta afizionatuen baratzeetan tokia zuen.

Tomatearen ezaugarriei dagokienean, "Probatzen duena gogobetetzen duen tomate gozoa da, eta, bere emankortasunak, landatzen duena ere gustura utzi ohi du" baieztatzen du Marc Badalek (2018, 13) *Aretxabaletako Tomatea. Bioaniztasun, lurraldea, eta jakintza partekatua* liburuan. Baieztapen honek bi eremuei erreferentzia egiten die: kontsumoari zein ekoizpenari. Bietan ala bietan "gogobetetzen" eta "gustura" uzten gaituen tomate on gisa agertzen zaigu Aretxabaletakoa. Eta jarraitzen du:

Neurri ederreko tomatea -Gipuzkoan gustatu ohi den legez-, azal finekoa, gozoa eta oso haragitsua; esportaziorako ere ez zen egokia, uzta oso goiz biltzea eskatzen baitu horrek; gainera, besteen artean nabarmentzen zuen kolore arrosakara bat zeukan (Ibid., 34).

Bi aipu hauekin ondo jasotzen ditu Badalek tomate barietate honen ezaugarri nagusiak. Alde batetik, ale handiak ematen dituela azpimarratu izan digute behin eta berriz, eta hori da Gipuzkoan bereziki estimatzen den ezaugarria. Bestetik, tomateen azala ere usu agertu zaigu. Oso azal fina du, eta horrek bi ondorio nagusi ditu. Batetik, azal finarekin lotuta dago zaporea. Aretxabaletakoa tomatea gozoa da -zaporetsua eta "dultzea"-. Bestetik, merkaturatze-bideekin lotura zuzena du azalak ere. Azal fin-finak tomateak jaso eta kasik berehala kontsumitzera behartzen gaitu. Beraz, batez ere salmenta zuzenaren bidez merkaturatzen da tomate barietate hau, bertatik bertara.



Irudia 5: Hazianitz baserriko Aretxabaletako Larrosa tomateak. Iturria: Nik egina.

Bestetik, tomate horren beste ezaugarri nagusietakoa da izena(k) ematen di(zki)on kolorea: *rosie* -Goiko baserrikoen hitzetan- *arrosa eta Larrosa* -Teoren hitzetan-, kolore *arrosakara* -Badalen hitzetan-, edota *moraua* edo *morea* -beste askoren hitzetan-. Koloreak berebiziko garrantzia hartzen du garaiko tomateengandik bereizi egiten duelako. Izan ere, Aretxabaletakoa agertu zenean zabalduak zeuden tomateak eta Jack tomatea bera "laranjak" ziren, Teoren hitzetan, eta tomate laranjak azidoagoak dira.

Azkenik, Badalen lehenengo baieztapenera itzuliz, Aretxabaletako Larrosa tomateak onak direla esan dezakegu. Onak jateko, eta onak ekoizpenerako. Aretxabaletako tomateak askotariko baratze eta zonalde berrietara heldu denean ikusmira sortu eta jendea bere bila erakarri du. Gainera, horrela izan da baratze eta toki mota ezberdinetan. Autokontsumorako eta nekazal sare informaletan kokatuak zeuden baratzetatik hasita, nekazal sare formal eta

egituratuagoetan dauden eta ekoizpenera bideratuta dauden baratzetaraino, azoketatik eta askotariko dastetatik pasatuz. Hortaz, maiz tomate hau baratze batera heldu denean, geratzeko heldu da.

Laburbilduz, tomate ona eta gozoa dugu, Gipuzkoara heldu zenetik ezberdin eta berezia agertu zena, ekoizpenerako egokia dena, sektorean egokitua dagoena, eta interesa eta jendea erakartzen dituena. Baina, nola heltzen da horrelakoa izatera? Nola definitu eta konfiguratu da tomate hau? Zein harreman eta testuinguruetan nabarmentzen da?

Historia osatzeko grina eta prozesua

Aretxabaletako Larrosa tomatearen inguruan genekiena horixe baino ez zenean hasi ginen Marc eta biok tomate horren inguruan gehiago jakin nahian. Nik, orduko hartan, ez neukan bereziki interes handia tomatearen historia osatzeko, edo behintzat ez zegoen nire orduko helburu zehatzen artean. Marcekin egindako lanak, aldiz, harantz eramanez ninduen. Apurka-apurka tomatearen historia ezagutzeari garrantzia ematen joan izan nintzen, -ia- konturatu gabe. Baina, zer dela eta suertatu zaigu horren garrantzitsua tomate honen historia? Zergatik hori berregiteko gogo eta grina?

Lehenik eta behin, barietatea zabaltzeko eta gordetzeko prozesua ezagutu nahi genuen. Hau da, genekienaren arabera, jatorri ezezaguna zuten tomate landare batzuek hiru hamarkadetan izena eta tokia hartu zuten, bertako barietate bilakatu arte, eta prozesu hori zen, hain zuzen, ezagutu nahi genuena. Landutako bioaniztasunaren galera- eta zaintza-prozesuak ulertzeko eta ezagutzeko kasu hau ezagutzea interesgarria suertatu zitzaigun. Hori dela eta interesa izan genuen historia hori ezagutu eta berregitean.

Bestalde, une hartan horretaz jabetu ez baginen ere, historia osatzeko hautu horren atzean beste sinesmen edo premisa bat ere bazegoela uste dut. Barietatearen izaera ezagutzeko, nondik zetorren jakin behar genuen, eta horrek esanahi bikoitza du. Alde batetik, jatorriaren ideia jartzen du mahai-gainean. Izan ere, gu barietate horren jatorriaren bila ibili ginen, Gipuzkoara nola heldu zen eta nondik jakin nahian. Bestetik, jatorri horretatik egungo egoerara artikulatu diren harremanek garrantzia hartzen dute, eta horiek logika genealogiko batez ulertzen ditugu. Hartara, historia osatzeko gogo horren atzean jatorriari garrantzia ematen dion ikuspegi genealogikoa ere bagenuela ikusi dut gerora.

Tomate honen historia zergatik osatu nahi izan dugun jakiteak eta azaltzeak bezainbesteko garrantzia du historia hori nola osatu dugun aitortzeak. Izan ere, historia hau berregitean zeri begiratu eta zeri ez erabaki dugu behin eta berriz, kontzienteki edo inkontzienteki izan bada ere. Zeri begiratzear gain, non geratu eta non ez, zein hariri heldu eta zeintzuk airean utzi, zeini ahotsa eman eta zeintzuk isilpean utzi, askotarikoak izan dira hartutako erabakiak, eta horiek guztiek eragiten diote azkenean osatu dugun eta jasota utziko dugun historiari. Hortaz, orain aurkituko duzuen Aretxabaletako Larrosa tomatearen historietako bat da, edo historia partzial bat, Harawayen (1995) hitzak hona ekarriz. Egile horri jarraiki, historia jakintza den heinean, partziala da, eta kokatu egin behar dugu. Kasu honetan, historia hori berregitean zein hautu egin ditudan eta zeri eman diodan lehentasuna argitu nahi dut. Halaber, historia eraikitzearekin batera memoria ere eraiki eta sortu egiten dugu, tomatearen memoria zein herri, sektore eta pertsona batzuen memoria, alegia. Prozesu hori problematizatzea garrantzitsua dela uste dut, historia egitearen boterea mahai-gainean jartzen baitu, eta boterearekin batera erantzukizuna baitatorkigu, baitatorkit¹⁶⁵.

Azaldu berri dut zein zen aurkitu genuen (h)istori(o)a, baita Aretxabaletako Larrosa tomate barietatearen egoera ere. Egoera eta kontakizun horietatik tiraka hasi ginen tomate horren historian eta "genealogietan" "atzera egiten", barietatearen hari genealogikoa -edo hari genealogikoetako bat- bilatzen eta jarraitzen, alegia. Hortaz, historia -genealogiko- honek alderantziz jarritako inbutu forma hartzen du. Une eta tomate batzuetatik abiatuta, beraien "jatorria" -bat balego bezala- bilatu nahian zuhaitza estutuz joan gara. Horrek kanpoan utzi ditu "belaunaldi" bakoitzean hari horretatik ateratako bestelako adarkadurak. Soilik azkenengo faseetan, Miren eta Teoren baratzetik pasa ostean, egin diogu kasu tomatearen zabalpen horizontalari. Izan ere, horrek egungo egoerara garamatza, eta egun tomate honen ugalketa eta landaketa nolakoa den ezagutu nahi genuen.

Tomatearen historia eta genealogia nola osatu erabakitzearekin batera, historia non hasi -edo atzera joate horri noiz eta non muga jarri- ere ebatzi behar izan dugu. Berriz ere, hau ez da izan oso era kontzientean egindako hautua, behintzat hasiera batean. Izan ere, pertsonaz pertsona -gizonez gizon, kasu honetan- heldu ginen barietatearen jatorrian kokatu dugun Aramaioko baserrira, Goiko baserrira alegia. Bertan jakin genuen Miranda de Ebrotik ekarri zituztela tomate barietate honen lehenengo landareak. Hortaz, ezer erabakitzen egotearen susmorik gabe, argi ikusi genuen bertan bukatzen -edo hasten- zela gure historia.

165 Metodologia atalean gehiago sakondu dut honetan.

Horrenbestez, jatorri bila ari ginen horretan, are gehiago, euskal jatorri edo jatorri gipuzkoar bila ari ginen horretan, nahikoa zen Aramaiora heltzea. Bertan hasten zen gure historia, edo guri interesatzen zitzaiguna, eta hortik aurrera gertatutakoa baino ez dugu jaso. Beraz, Gipuzkoan¹⁶⁶ tomate barietate horren bueltan gertatutakoa jasotzen duen historia da orain ezagutuko duguna, tomate barietate honen euskal historia, alegia.

Historia horren barruan, baina, hasiera edo mugarrak ere g-une ezberdinetan ezarri daitezke. Aipatutako liburuan Badalek Keparekin irekitzen du tomatearen (h)istori(o)a. Barietatearen aurre-historiari beste atal bat eskaintzen dio. Bertan, barietatea Keparengana heldu aurretiko historia jasotzen du, Gipuzkoan Keparengana heldu aurretik izan duen bizitza, alegia. Sailkapen edo erabaki hori egoki iruditzen zait, baina kasu honetan beste g-une batean ezarri nahi dut barietate horren hasiera, berriz ere, historia idaztea hautuz betetako ekintza dela argitan utziz. Oraingo honetan aipatutako Aramaioko Goiko baserrian kokatzen dut tomatearen historiaren hasiera eta jatorria -edo jatorrietako bat-. Izan ere, alde batetik, gu bertaraino ailegatu gara historia hau berregitean, eta tomatearen historiaren parte dela iruditzen zait. Nahiz eta izena beranduago jartzen zaion, eta zentzu honetan ezagutzen dugun Aretxabaletako Larrosa tomatea gerora jaiotzen den, bere jatorria lehenago kokatu nahi dut. Horrela, izena izan aurretiko gertaerei, historiari, istorioei eta harremanei ere aitortza ematen diegu. Horrekin batera, barietate honen ekoizpenean garrantzia izan duten toki, pertsona eta sareen arteko jarraipena ere mahai-gainean jarri nahi dut.

Behin bi hautu nagusi hauen nondik-norakoak azalduta, kasua eta historia nola aurkeztuko ditudan ere azaldu nahi dut. Barietatearen historia hiru fasetan xehatu egin dut, eta trantsizio une bat ere identifikatu dut. Horretarako, alde batetik, arreta jarri dut tokietan, eta tomate barietate honen garapenean garrantzia izan duten toki eta aktoreei erreparatu diet. Beste alde batetik, g-unez g-une mugitzean tomatearen inguruan gertatu diren zenbait aldaketa nabarmen identifikatu dut, eta horien arabera ezarri ditut faseak eta trantsizioak. Aldaketa horien artean, barietatearen izena da nabarmenetako bat. Bestetik, faseak ezartzerakoan barietatea toki batera nola heldu den eta handik nola hedatu duten ere aztertu dut, barietateak trukatzeko eta hedatzeko logikak, sareak, praktikak eta mekanismoak, baita berauen aldaketak ere, aztertuz.

Edonola ere, fase horietan toki eta aktore ezberdinak topatuko ditugu. Areago, barietatearen belaualdi ezberdinak aurkituko ditugu fase batzuen barruan. Kasu honetan, ugalketa-une eta

166 Aramaio Arabako herria izan arren, bere irteera "naturala" Debagoiena eskualdea, eta beraz Gipuzkoa, izan da. Horregatik, Aramaiora heldu zen arren, Gipuzkoan kokatzen dut barietatea eta bere etorrera.

-tokien arabera ere identifikatuko ditugu g-une gakoak historia honetan, baita faseen barruan ere. Horiek "belaunaldiak" izendatu ditut. Horrela, historia berregiterakoan, barietatearen "belaunaldiak" identifikatuko ditugu, barietatearen "ahaidetasun harremanak" g-une eta pertsona zehatz batzuekin eraikiz.

Azkenik, ikusten ari den bezala, Aretxabaletako Larrosa tomateaz hitz egitean hainbat izen agertu eta erabiliko dut. Idazkera eta irakurketa errazte aldera, zenbait unetan "Aretxabaletako Tomatea" izena erabiliko dut. Gainera, Aretxabaletako herrian bertan ere azkenengo urteotan izen hori erabili izan dute, eta Badalek berak ere aipatutako liburuan horrela egiten dio erreferentzia barietateari. Hala ere, beste izen batzuk ere erabiliko ditut hainbatetan, barietatea izendatzeko aniztasuna jaso eta islatze aldera. Zentzu honetan ere, belaunaldi bakoitzaz hitz egitean horren barruan -hots, gunee eta une zehatz batean barruan- erabili den izena erabiliko dut. Horrela, izenak nola joan diren aldatzen ikusiko dugu. Edonola ere, "Aretxabaletako Larrosa Tomatea" da lehenesten dudana izena, hauxe baita Miren eta Teok jarri zioten bigarren izena. Ikusiko dugunez, pertsona gakoak izan dira tomateari izena ematen, eta izen bat lehenestekotan, honi eman nahi diot aitortza nik orain.

Lerro batzuk gorago esan bezala, barietate horren historia berregitearekin batera horren jatorriaren bila ere ibili gara Marc eta biok. Luzaz, historia eta jatorri bat eta bakarra baleude bezala jardun dugu, esan bezala, "beraien bila". Aitzitik, tesia idazten ari naizen honetan inoiz baino argiago dut edozein historia eta jatorri partzialak direla, betiere eraikiak. Horrenbestez, jatorriaren bila ibili garen arren, jatorria bera nola eraiki eta performatzen den interesatzen zait gehien bat. Are, Aretxabaletako Larrosa tomatearen kasuaren bitartez jatorria eta bertakotasuna nola eraikitzen diren aztertuko dut batik bat. Ikuspegi honetatik lekuan lekuko lanaren hastepenetako jardunaldira itzultzen bagara, ezberdin ikusten dugu orduan gertatutakoa. Bertan Kepa eraiki eta berretsi zen historia honen protagonista gisa. Badalen liburuan ere, hori berretsi egiten da, egileak Keparekin batera kokatzen baitu barietatearen historiaren hasiera. Ikusten ari garenez, aitortza jokoek garrantzia hartuko dute historia honetan.

Aretxabaletako Larrosa tomatea eta bere historia. Egungo eta lehengo ekoizpen-praktika, -sare eta -subjektuak

1. Fasea. Etxeko tomatea(k) edo tomate anonimo bat(zuk). 70eko eta 80ko hamarkadak

Lehenengo belaunaldia. Goiko baserria eta "etxeko tomatie" edo "tomatie rosie"

Belaunaldia	Lehenengoa
Subjektua eta tokia	Goiko baserria. Ignacio, Pedro eta Javier hiru anaiak. Aramaio
Izena(k)	Rosie tomatie / Etxeko Tomatie. Goikoko tomatie (etxetik kanpo)
Garaia	70eko hamarkadaren bukaeran, 80ko hamarkadaren hasieran. Gaur egun arte
Nola heldu zaie, nola hedatu dute	Miranda de Ebroko feria batetik. Auzoan, Aramaion, lantegian,... eta kanpotik etorritakoei. Landarea eta tomateak

Taula 2: Goiko baserria eta "Goikoko tomatie" edo "Tomatie Rosie"

2016eko azaroan gaude, eta behingoz Goiko baserrira joateko bidea hartu dugu. Behingoz diot, bertatik etorri omen direlako Aretxabaletako Larrosa tomate bilakatu diren landareak. Marc eta biok jada hilabete luze batzuk daramatzagu tomate barietate horren atzetik, bere historia berregiten, eta espero dugu Goiko baserrian bere jatorriaren berri izango dugula. Keparekin egon ginenetik, hona etorri behar ginela jakin izan dugu. Keparen esanetan, berak Aretxabaletako Ubide auzoko baratze batean hartu zituen tomateak, bere jatorriari erreferentzia egiten dion Urdintxa ezizenaz ezaguna den Joxe Mari Odriozolari, hain zuzen. Horri, aldiz, moja batek eman omen ziola da hasiera batean jakin genuena, eta moja hori Goiko baserrikoa zela ere jakin genuen gerora. Dagoeneko jada Urdintxaren lobarekin egon gara, Peiorekin alegia, eta berak historia korapilatu digu. Landare batzuk Goiko baserretik heldu zitzaizkion bere eskuetara, baina ez zuzenean mojaren bidez. Mojarengandik bere nagusiarengana heldu omen ziren landare horiek, eta azkenengo horrek eman omen zizkion Peiori. Horrenbestez, informazio horrekin eta zalantza batzuekin abiatzen gara irrikaz Goiko baserriantz, Aretxabaletako Larrosaren jatorriaren inguruko zalantzak argituko ditugulakoan.

Maiz gertatzen zaigun bezala, adi eta astiro goaz errepidetik, jaso ditugun argibideei so, tokia aurkitzen asmatuko dugun zalantzati. Eskualdea Vitoria-Gasteiz hiriarekin lotzen duen bigarren mailako errepidetik gora goazelarik, mantso eta adi, bihurgune batean aurkitzen dugu Goiko baserrira eramaten gaituen pista. Hesi bat gaindituta baserri atariraino kotxez igo, eta hantxe aurkitzen ditugu bertan bizi diren hiru anaiak: Ignacio, Pedro eta Javier. Gure burua aurkeztu eta zertara gatozen gogorarazten diegu.

Saso ezberdinetan egin ditugu Goikora bisitaldiak eta baratzea, lurra, hazitegia, eta ingurune guztia garai horietan ere ezagutu ahal izan ditugu. Horrelako batean, baratzean gaudelarik, iratzeak Marcen arreta bereganatzen du berehala, eta behiez zein basoez hitz egitera garamatza horrek. Izan ere, gutxitan aurkitzen dugu jada iratzez egindako simaurra baratze batean, eta horrek basoa, lurra eta animalien kudeaketaz hitz egiten digu. Goiko pinuei begira ere jartzen gara halakoren batean, eta kontatzen digute Fagor eta bestelako lantegietara joandakoak izan direla etxeko guztiak. Goizean goiz jaiki, oinez "kalera" jaitsi, bertan autobusa hartu, eta lanera joaten ziren. Zortzi ordu eginak, berdina egin etxerako bueltako bidean. Orduan, etxera ailegatu eta bertan lanean jarraitzen zutela kontatu ziguten. Pinudiekin, aldiz, pisuak erosi ahal izan zituzten Arrasate eta eskualdeko bestelako herrietan, beste anai-arrebentzako. Denbora pasa den arren, ondo gogoratzen dute nolakoak ziren etxe ingurune horiek pinuak jartzen hasi aurretik: larreak, pagoak eta haritzak ziren nagusi. Pinudiek izan duten eraginaz galdetuta, erantzun argia bota ziguten:

Ona edo txarra, oso zerak dira. Ona eta txarra... que pasa, que piñuak emon dau. Inkluso momentu batean, salbatu zintuen [¿?]. Bizimodua soluzionatzen badizu, zer da hobe? Piñua edo aretxa? Aretxa da askoz politagoa,... eta bistosoagoa, eta dana... baina [¿?] zeinek emoten dizu? Piñue? Pues, ba... askoz be gehixau piñua. 500 urte pagoa saltzeko. Piñua, berriz, hemen ipinite duela 25 urtetik, eta... (Goiko baserria, elkarrizketa).

Fruta-arbolak ere badituzte. Udazkenean egindako bisitaldi batean sagarrez betetako ontziak topatzen ditugu kanpoaldean. Txikitu eta behiei ematen dizkietela kontatzen digute. Madariondo baten ondoan ere egiten dugu geldiunea. Gordetzeko madaria da, ganbaran ondo gordetzen baita. Gero, egosita jaten dute. Baratzeari begira ere azkar konturatzen gara zenbait hazi gorde egiten dutela. Esaterako, azenarioak eta azak ikusi izan ditugu bertan loratzen. Baina urazak, tipulak, tomateak, zein beste barazki eta lekale batzuen haziak ere gorde egiten dituzte. Hala ere, guztietan Aretxabaletako Larrosa tomatearena da duten hazirik zaharrena. Hori bai, bertan ez da Aretxabaletako Larrosa, "etxekoa" baizik.

Haziekin egin izan duten eta egiten duten lanaz galdetuta bi gauza nabarmentzen dituzte. Alde batetik, onak direlako gordetzen dituzte barietateak. Hau da, daukatena baina hobeagorik aurkitzen badute, aldatuko dute. Hortaz, barietate eta haziekiko atxikimendua hauen kalitateari lotuta dago, eta ez soilik haziak etxean urte asko egoteari. Garrantzitsua da haziak bere funtzioa betetzea -dela fruitu edo barazki onak ematea, dela ekoizpen ona izatea-, eta bestela, baztertu egingo dute. Beste alde batetik, barazki ezberdinetako haziak gordetzen dituzten arren, kasu askotan ez dute aspalditik etxeko barietatea zaintzen, beste nonbaitetik ekarritako haziak gorde baizik. Horrelakoetan, gorde egiten dituzte eta lantzean behin trukatu edo berriztu egiten dituzte, izan bizilagunen batekin, izan azokara joaten eta landareak erosten. Hartara, etxean dituzten hazien kasu gehienetan garrantzitsua ez da horrenbeste etxeko barietatea gordetzea, edota barietate zahar bat gordetzea, etxean haziak egitea eta erosi behar ez izatea baizik. Hala ere, barietate zahar zehatz batzuekin bai aipatzen dute pena bat dela galdu izana, azokan antzekoak ez baitira ikusten. Tomatearen kasua ere ezberdina izango da, ikusiko dugun bezala. Kasu honetan bai "etxeko tomatie" gordetzen dute, eta horren haziak ez dituzte berritzen kanpotik ekarritako landareekin.

Garaiak garai, ingurune oparoa aurkitzen dugu Goiko baserrian. Etxe barrura lasai hitz egitera goazenean, ostera, kanpokoarekin kontraste handia sortzen duen sukaldera eramaten gaituzte. Beste behin ere, sukaldeko mahaiaren bueltan esertzen gara hitz egitera. Beste behin ere, bazkaria eskaintzen digute, edo, eskaini baino, bertan bazkalduko dugula jakintzat ematen dute. Beste behin ere, agenda eta bisitaldiek estututa, ezetz esan behar diegu. Bazkaria barik, ogia eta etxean

egindako gazta ateratzen digute, solasaldia gozatzeko. Esan bezala, oso sukalde apala aurkitzen dugu. "Inolako apaingarri ezak sartzen dena hunkiarazten duen sukalde garbi eta soil [bat]" (2018, 61) aurkitzen dugula idazten du Badalek. Egurrezko mahai handia du, baina marmolezko gain handia ere, baina dena garbi eta jasota dago, eta mahai-gainetan deus gutxi ikusten dugu. Despentsan, baina, hazi-poto edo -poltsak, tomate kontserbak eta abarrekoak badaude.

Bertan hasten gara Goikotarren historia hobeto ezagutzen. Irrikan gaude beraiek entzun eta Aretxabaletako Larrosaz kontatzen dutena ezagutzeko, Aretxabaletako Larrosa tomatearen jatorriaren inguruko informazioa izateko, alegia.

Egun¹⁶⁷, Etxegaraitar hiru anaia bizi dira bertan: Ignacio, Javier eta Pedro. Ignacio nagusia da, eta laurogei urte inguru ditu. Gurekin gehien egoten denak eta handik aurrera kontaktua mantenduko dugunak, Pedrok, 67 urte ditu une hartan. Javierrekin, aldiz, ez dugu lasaitasunean solastatzen, sukaldean ematen dugun denbora hura berak kanpoan lanean ematen baitu. Bederatzi anai-arrebetatik ezkongabe geratu diren hirurak dira, eta baserrian geratu dira. Ángeles, bizirik dagoen ahizpetako bat, ez da ezkondu, baina bere kasuan ez zen etxean geratu, moja sartu baizik. Hau izango da, pentsatzen dugu hasiera batetik, aspalditik izenik gabe aurkeztu diguten moja hori, omen Aramaiokoa zena, eta auskalo nondik tomateak ekarri zituen.

Esan bezala, bailararen industrializazio garaian guztiak jaitsi ziren berriki zabaldutako lantegietara lanera, "eta eskerrak hari, e", fabrikari, erantzun ziguten, lantegiek eskualdean izandako eraginagatik galdetu genienean. Zonaldean baserri onenetan bakarrik jarraitu ahal izan dute nekazaritza eta abeltzaintzatik bizimodua ateratzen. Hau da, lursail handiak, behi mordoa eta abarrekoak zituzten etxe onenek bakarrik iraun dute sektoretik bizitzen. Hortaz, 3. atalean azaldu dudana prozesua Debagoienan ere bizi izan dute: gutxi batzuek iraun dute sektorean, eta gehiengo handi batek bertan behera utzi du nekazaritza jarduna edo autokontsumorako mantendu izan du. Kasu honetan, Goiko baserriko Etxegarai anaiek faktore gako bat jartzen dute mahai-gainean: etxe onenetakoak izan dira sektorean iraun dutenak, besteak lantegietara joan behar izan ziren, "eta eskerrak". Denak lantegietara joan, baina gurasoek jarraitu zuten etxeke lan eta jardunei eusten. Euren artean, haziak gordetzen ere segitu zuten. Ama zen hori egiten zuena. Edonola ere, gerora beraiek ere etxeke lanetan jarraitu zuten, eta erretreta hartutakoan bertan diraute. Nekazaritza jarduna, baina, gutxitu egin dute.

Baserriari lotutako zereginen edo ekimenen artean, aisialdia eta lana bereizezin, hainbat azokatarra joateko ohitura izan da. Goikotarrek ere izan dute, eta luzaz Miranda de Ebroko

167 Lekuan lekuko saio horiek 2016aren bukaeran eta 2017aren hasieran burutu genituen. Gerora, 2018an ere baserrira gerturatu gara eta hiru anaiak bizi ziren bertan, horietako bat osasunez makal bazegoen ere.

"ferixara" joan izan ziren, urtero. Azoka hori "uno de mayo egunien egiten da eta uno de marzo egiten da", eta beraiek maiatzak lehenean joaten ziren. Egun pasako plana egiten zuten, ganadua ikusi, jan, edan, eta zerbait ona ikustekotan, orduan, erosten zuten. Horrelakoren batean, duela berrogei urte inguru, 1978., 1980. edo 1982. urte inguru horretan, ekarri zituzten bertatik bi dozena landare tomate.

Tomatea jartzeko goiz zen, normalean maiatzaren bigarren hamabostalditik aurrera landatzen baitituzte tomateak. Hala ere, landatu egin zituzten. Urte txarra etorri zen, kazkabarra, euriteak eta abarrekoak, eta ekarritako landare guztietatik bakarrak biziraun zuen baratzean. Kontakizun epiko bat sortzeko hasiera-hasieratik argudioak eman zituen tomateak, beraz. Edo, bestela ere, oroimenak kontakizun epiko hori hasieratik elikatu du. Landare bakarrak biziraun bazuen ere, geratu zen hark arreta deitu zien berehala. Goiz etorri zen tomatea, "izugarria", handi samar. Gainera kolore ezberdina zuen, berezia zen. Ona eta beraien gustukoa izanik, haziak gordetzea erabaki zuten, eta horren ostean urterik urte joan izan dira barietatea mantentzen, gaur egunera arte.

Lehenago jada tomateak zituzten baratzean. Gogoratzen dute etxean txikitari tomatea potoetan gordetzeko bakarrik egiten zutela, gordinik ez zutela jaten. Mirandatik tomate landare horiek ekarri zituztenean, aldiz, jada entsaladan eta gordinik jateko tomateak zituzten, baina berri horiek ekartzerakoan eta gordetzerakoan beste batzuk jartzeari utzi zioten. Egun, etxean daukaten hazirik zaharrena da, eta hortaz aparte beste bi tomate barietate jartzen dituzte. Bata hibridoa da. Besteak, "kalekoa" izenarekin identifikatua, kiloko tomateak ematen ditu, eta urte batzuk daramatzate jartzen. Hala ere, horren inguruan informazio gutxi gehiago ematen digute, eta azpimarratzen dute Mirandatik ekarritakoa dela etxeko onena.

Hasiera batean "Rosie Tomatie" izena erabili zuten tomatea izendatzeko. Egun, baina, "Etxeko Tomatie" izena ere erabiltzen dute, eta horrela dute idatzita ganbaran eskegita aurreko urteko haziak itsatsita dituen paperean. Hala ere, etxetik kanpo Goikoko Tomatea izenarekin identifikatzen dute, eta guk ere, nahi badugu, izen hori erabil dezakegula esaten digute. Hortaz, hasiera batean tomatearen beraren ezaugarrietako batek -koloreak- ematen zion izena, baina urteekin "bertakotu" egin zen, eta "etxekoa" izatera pasa zen, goikotarrekin eta Goiko baserriarekin harremana eta identifikazioa estutzen. Izenak jada ez dio erreferentzia egiten tomatearen "berezko" ezaugarri bati, tomatearen inguruari baino. "Nongoa da" da orain nabarmentzen dena. Eta etxean "etxekoa" bada, etxetik kanpo "Goikokoa" da, etxearen erreferentzia hori mantenduz. Azkenengo izen horrekin, baina, etxeari aipamena egiteaz gain,

tomatearen inguruko harremanak ere agertzen zaizkigu, modu esplizituan ez bada ere. Izan ere, izenak tomatea nongoa den adierazi ez ezik, nondik ekarria izan den ere kontatzen digu, zeinek zeini eman dion eta zein harremanetan eratu den, alegia.

Barietatea etxekotu eta tomatearekin lotura handia eta nolabaiteko identifikazioa sortu dute. Aretxabaletako Larrosa tomateaz hitz egin genienean, argi eta garbi, eta behin baino gehiagotan, errepikatu ziguten beraiena "etxekoa zela", "beraiena", eta ez "Aretxabaletakoa". Klase berekoak zirela bazekiten, baina beraiena ez zen "bestea". Hori guri esan ziguten, eta kontatu ziguten nolatan lehenago ere beste batzuei esan behar izan dieten. Izan ere, Aretxabaletara edo eskualdeko beste herriren batera joan izan direnean behin baino gehiagotan gertatu izan zaie "Aretxabaletako Larrosa" tomatea ikustea eta beraiek duten klase berekoa dela ikustea. Horrelakoetan, hainbatek galdetu izan die ea beraiek "Aretxabaletakoa" duten, eta beraiek argi "ezetz", "guk gureak" edo "guk Goikokoa".

Klase berekoa bai, baina ez dute sentitu edo pentsatu Aretxabaletakoa halabeharrez beraiek jarritako tomateetatik ateratakoa zenik. Beraiek Mirandara joan ziren bezala, beste batzuk ere agian hara joan ziren, edo batek daki nondik ekarri ahalko zituzten barietate bereko landareak, tomateak edo haziak, eta landatzen hasi. Azkenengo hori ere errepikatu izan ziguten hainbatetan. Marc eta biok txundituta ginen. Aretxabaletako Larrosak egindako bidea argia ikusten ari zen, eta nondik zetorren ere jakin berri genuen. Eurek, aldiz, jarraitzen zuten pentsatzen beharbada beste bide bat egina zuela. Bestela ere, onartzen zuten bazitekeela eurek ekarritako landareetatik sortu izana Aretxabaletakoa, baina une horretan behintzat horri ez zioten garrantzi handirik ematen. Zentzu honetan, beraiek etxeko tomatearekin lotura eta identifikazio estua sortu bai, eta gertukoei begira ere horren harrotasuna-edo bazuten, "Goikoko Tomatea" izena erabiltzen baitzuten. Handik harago, baina, barietatearekin ez zuten ikaragarritzko atxikimendua, eta ez zuten aldarrikatzen beraienetik zetorrenik Aretxabaletako Larrosa tomatea. Hortaz, lotura gertuko izakiarekin dute, etxean gordetako tomatearekin eta barietatearekin, baina ez balizko barietate abstraktu eta orokor edo unibertsal batekin. Beraiei interesatzen zaie ukitu, zaindu, gorde eta zabaldu duten barietatea, eta horrekin batera elikatu eta zaindu dituzten harremanak.

Halaber, etxeko barietatea bera zaintzen dute ona suertatzen zaien eta gustuko duten heinean. Esan bezala, hobeagorik aurkituz gero, edota degeneratuz gero, beste bat jarriko lukete. Bestalde, barietatea zaindu eta haziak gorde egiten dituzte, baina ez labore barietateak eta haziak gordetzeko gidaliburu eta bestelako testu teknikoek ezartzen dituzten praktika

zorrotzen bidez. Haziak nola gordetzen dituzten galdetu genienean, irekita dagoen etxe kanpoko eraikintxo batera joan, eta handik hiru paper marroixka ekarri zituzten. Bakoitza burdinazko krako bati lotuta zegoen, horrekin zintzilikatuta baitzuten esandako eraikinean. Paperean bertan zeuden itsatsita haziak, eta boligrafoz idatzita zegoen bakoitza zein bariatetetakoa zen. Horrela gordetzen zituzten haziak urte osoan zehar, airean eta eskegita. Hau da, inolako babesik gabe, eta hezetasunik ez hartzeko neurririk hartu gabe. Baina, esan ziguten bezala, gehien-gehienak ernaltzen dira; hots, horrela gordeta ere ernetze-tasa ona dute.

Tomate honekiko lana ez dute bakarrik etxe barrura begira egin, baina. Nahita edo nahi gabe, bertako bariatateekin luzaz egin den bezala, bariatatea zabaltzen lan handia ere egin izan dute goikotarrek. Izan ere, oso jende ezberdinari eman izan dizkiote bariatate honen landareak edota tomateak. Alde batetik, bizilagunei, auzokoei zein aramaiotarrei banatu izan dizkiete. Hainbatetan beraiek izan dira landareak banatu izan dituztenak, soberan izan eta galdu barik ingurukoei eman baitizkiete. Berez, landarea etxerako egiten dute, baina soberan dutenean banatu egiten dute, eta lehenengo etortzen zaienak eramaten ditu. Beste hainbatetan, aldiz, tomateak eman eta saldu egin dituzte, horietatik haziak ateratzeko. Hala ere, beti ez dira beraiek izan landarea edo tomateak banatu edo saldu dituztenak. Beste batzuetan, beraiengana jo izan du jendeak landareak edo haziak ateratzeko tomate eske. Baratzeak ikusgai egoten dira maiz, eta baratzezainek beste baratzeak begiratzeko ohitura izaten dute. Horrelakoetan, ona, berezia edo interesgarria ematen duen zerbait ikusten denean galdetu egin ohi da, eta hainbatetan partekatu, bereziki norbaitek soberan duenean. Halaber ematearen bidez ere ezagutzera ematen dira norberaren produktuak edo bariatateak. Izan barazkiak soberan daudela, izan landare gehiegi ekoiztu direla, bota aurretik ondokoari eskaintzeko joera dago. Hau da bariatateak zirkularazteko bide garrantzitsu bat, baita hauen harremanak indartzeko bidea ere. Izan ere, haziak eman egiten dira eta, dohain edo Marcel Maussen (2009) "hauen" modura, eta jasotzera eta itzultzera "behartu" egiten dute, eman, jaso eta itzultzen dutenen arteko harremanak sendotuz¹⁶⁸.

Oraindik gaur egun haziak senitartekoei, bizilagunei, edo auzokoei emateko edota azoketan trukatzeko joera nabarmena da. XX. mendearen erdialdean industrializazio-prozesu azkarra bizi izan zuten eskualdean, Debagoienan alegia, lantegiak ere izan dira baratzeako fruituak,

168 Hau ez da Aretxabaletako Larrosa tomatearekin soilik ikusten dugun zerbait. Esaterako, eta adibide bakar bat jartzeko, Mexikon lekuan lekuko lanak egin duten Susana Carro-Ripaldak, Marta Astierrek eta Patricia Artiak antzeko baieztatzen dute. Bertan, arto "criollo"aren inguruan gertuko pertsonen artean gauzatzen dituzten hartu-emanek ahaide, bizilagun eta gertuko arteko harremanak adierazi eta bizirauten dituzte (Carro-Ripalda, Astier, y Artía 2015).

jakintzak eta emaitzak partekatzeko gunea. Hortaz, industria eta nekazaritza ezin dira ulertu elkarrekin aztertu gabe. Zenbaitetan industriak kalterako eragin dio lehenengo sektoreko jardunari. Edonola ere, orekatua ez den eta gatazkaz josita dagoen "elkarbizitza" batean egonda, bi eremu horiek elkarri eragin eta elkarrekin egin izan dira. Jacken kasuan ere ikusiko dugu nola Erain baserriaren bilakaera industriari estuki lotuta agertzen zaigun, hainbat urte lantegi batean lanean egon ostean jasotako kalte-ordaina funtsezkoa baita baserri horren modernizazio teknologikorako. Kasu honetan, lantegia edo enplegu-eremua eta enplegu-harremanak gakoak izan dira Aretxabaletako Larrosa tomatearen biziraupenean, ugalketan eta zabalpenean.

Kasu honetan, barietate hau Goiko baserritik Aretxabaletako Larrosa tomatearen historian gakoa den eta Aretxabaletako Ubide auzoan dagoen hurrengo baratzera nola heldu zen zehatz-mehatz ez dugu erabat argitu, baina jakin badakigu lantegi batetik pasa zela edo lantegiko harremanei esker pasa zela baratze batetik bestera. Hortaz, badakigu auzokoen arteko harremanak zein enplegu-harremanak gakoak izan zirela Goikoko tomateko landare batzuk Goiko baserritik Urdintxaren baratzera heltzeko. Urdintxaren suhiak, Peiok, eraman zizkion landareak bere aitagarrebari. Berari lantegiko nagusietako batek eman zizkion landareak, eta berak baratzerik ez zuenez, aitagarrebari ematea pentsatu zuen.


Peiok kontatu digunaren arabera, nagusi horren emaztea, bere lehengusina ere bazena, Aramaioko auzo batekoa zen, Goiko baserri azpian dagoen auzokoa, alegia. Laguna zuen moja bat, Goikoko alaba, eta horrek eman omen zizkion landare horiek. Informazio horrekin heldu ginen gu Goikora, baina ezin izan genuen erabat berretsi. Beraiek ez zekiten ahizpa mojak norbaiti eman zizkion, baina bai esan zuten ahizpa ez zela baratzean edo baserriko lanetan ibiltzen. Aitzitik, izan zitekeen beraiek lantegian lankideen artean ere banatu izana, horrela egin izan baitzuten askotan. Hauxe da argitzeke geratu zaigun zerbait. Argitu gabe, (h)istori(o/a) honi zalantzazko jatorria ematen dio, eta horrek (h)istori(o)aren mitikotasuna berriztu eta iraunarazi egiten du.

Edozelan ere, elkarrizketa horretatik izena jarri genion mojari, Ángeles, eta haziaren jatorri mitikoarekin lotzen genuen figura enigmatiko hori ezagutu ez badugu ere, ingurune batean kokatu ahal izan dugu, Goiko baserrian, alegia. Garrantzitsuena hemen, beharbada, izena eman izana da. Izan ere, Peiorekin hitz egin genuenean aipatu zizkigun bere nagusiaren emaztea eta horren lehengusina -moja-. Izena ere aipatuko zuen uneren batean, baina orokorrean izenik gabe agertzen ziren pertsonak dira, emakumeak. Bigarren mailako papera

izango balute bezala, tomatearen istorio eta historian ordura arte ia presentziarik ez zuten. Ikusi dugun eta hobeto ikusiko dugun bezala, tomatea etxez etxe edo baratzez baratze pasatzearekin batera izenak aldatzen joan zaizkio, eta izenak jatorriari erreferentzia egin izan diote. Hau da, nondik zetorren jasotzen dute horiek, izan pertsona baten izena edo izan baserri batena. Baserri baten izena hartu dutenean ere, baserriko pertsona batekin lotu izan dira, gehienetan gizonekin. Kasu honetan, berriz ere, emakumeak bitartekari bezala agertzen dira, anonimotasunean. Hori dela eta, Goiko baserrira heldu ginenean eta mojaren izena ezagutu genuenean altxor txiki bat aurkitu izan bagenu bezala geratu ginen, enigma zen hori gorpuzten hasi baikin.

Zalantzak zalantza, bertan "ziurtatu" genuen Aretxabaletara Goiko baserritik heldu zela tomate barietate hau. Hortaz, horren jatorrian eta ibilbidean pausu handi bat eman genuen baserri horretara ailegatuta. Atzerago joateko ahalegin txikia ere egin genuen, Miranda de Ebron zeini hartu zioten galdezka. Horri, baina, erantzun argirik ez zioten eman. Urte asko pasa dira harrezkero, eta azoka horretara toki askotako jendea joaten zen.

Hasieran esan bezala, jatorria nonbaiten ezarri edo moztu behar da, eta hori egitearekin batera airean gauzak utzi, erantzun gabeko zalantzak sortu, eta jatorriari nolabaiteko mitikotasuna ematen zaio. Zentzu honetan, hainbat dira (h)istori(o/a) honetan airean geratu direnak. Alde batetik zein urtetan ekarri zuten ez dago guztiz argi. 70eko hamarkadaren bukaeran edota 80ko hamarkadaren hasieran ekarri zutela esan ziguten hasiera batean. Hala ere, historian aurrera egin ahala ikusiko dugu gerora agertzen diren pertsonen beraienera ere urte horietan heldu zirela esaten digutela. Baina, horiengana goikotarren eskutik heldu bazitzaie tomate barietate hau, halaber Goiko baserrira baino geroxeago heldu behar izan zitzaie. Mojaren rola ere erabat argitu gabe agertzen zaigu, esan dugun bezala. Hortaz, Urdintxaren baratzera nola heldu ziren ere erabat argitu gabe geratzen da. Azkenik, istorioari indarra ematen dion beste elementu bat nabarmendu zaigu. Azaldu bezala, Miranda de Ebrotik ekarritako bi dozena landare horietatik bakar batek biziraun zuen lehenengo urte horretan, barietateari jarraipena emanez. Hasieratik, orduan, mehatxupearan agertzen zaigu barietatea, zaindu edo "salbatu" beharreko zerbait gisa, "zorionez galdu ez zen" eta baloratu behar den zerbait gisa. Laburbilduz, Aretxabaletako Larrosa tomatearen jatorria ezarrita eta ezagututa, horren historia istorio edo kontakizun mitikoa ere bilakatzen duten elementuak aurkitzen ditugu. Barietateak bizirauteko, hasiera-hasieratik zailtasunak gainditu behar izan zituen, eta beraz, "bizitza hautatu" gisa agertzen zaigu, hiltzear egon zen baina biziraun zuen hori bezala, alegia. Horrek barietatea zaintzea egin behar moral bilakatzen duela dirudi.



Irudia 6: Goiko Baserria eta Tomatie Rosie. Egilea: Maddi Zumalabe.

Bigarren belaunaldia. Moja tomatea edo Urdintxa tomatea

Belaunaldia	Bigarrena
Subjektua eta tokia	Peio eta Urdintxa (suhia-aitaginarreba). Ubide auzoa, Aretxabaleta
Izena(k)	Moja tomatea / Urdintxa tomatea
Garaia	1980ren bueltan
Nola heldu zaie, nola hedatu dute	Goiko baserritik heldu zitzaizen, Peio Urdintxaren suhia bitartez. Aretxabaletan zehar zabaldu egin dute

Taula 3: Moja edo Urdintxa tomatea

Historian aurrera egin ahala, lekuan lekuko lanean atzera egiten goaz, momentuz. Izan ere, tomatearen historiaren protagonistetako bat den Peiorekin goikotarrekin elkartu baino lehenago batu ginen. Areago, beragatik ez balitz, ez ginatekeen Goiko baserrira ailegatuko. Hortaz, lehenago esan bezala, Aretxabaletako Larrosa tomatearen historian aurrera egingo dugu, historia berregiteko prozesuan atzera egin ahala.

2016ko udazkenaren hasieran gaude. Duela aste batzuk Keparekin elkartu ginen. Urdintxaren suhiarekin, Peiorekin, elkartzeko aukera ireki zigun. Esan bezala, hasiera batean, tomatearen inguruan aditua dugun historian moja batek hartzen zuen pisua. Horrek tomatea batek daki nondik ekarria zuela eta Aretxabaletako langile bati fabrikari emana ziola esaten du aditua dugun istorioetako batek. Moja, "mojatik atera" eta lantegira joan berria zela ere badio horrek. Beste batzuek, aldiz, tomate landare batzuk batek daki nongo komentu batetik ekarri zituela esaten dute, guztiz argitu gabe nola heldu ziren horiek Aretxabaletako behargin horren eskuetara. Edonola ere, langile horrek ez du pisu handirik istorioetan, eta bitartekari hutsa dela dirudi. Behargin hori Peio da.

Bitartekari hutsala izanda ere, berarekin elkartu nahi izan dugu Marc eta biok, moja horren berri eman diezagukeelakoan bederen. Hortaz, Kepak horretarako aukera ireki zigunean berehala heldu genion, eta data bat jartzeari ekin. Kepa bera izan da Peiori deitu diona, berak ezagutzen baitu. Hitzordua jarrita dei egin zigun, eta esandako egunean bertaratu gara Aretxabaletara.

Lehenengo eta behin Keparekin elkartu gara, eta berarekin batera abiatu gara herriko beste puntan dagoen elkarte gastronomiko batera, hantxe elkartzeko esan baitu Peiok. Kalera ematen duen atetik sartu eta taberna itxura duen gela batera sartzeko gara. Eskuma aldean barra luze bat eta ezkerrean mahai batzuk daude. Erretiratzeko adinaren bueltan egongo diren gizon kuadrilla bat dago bertan. Peio agurtzen dugu eta zer nahi dugun galdetzen digu. Kafe eta infusioak prestatu, berehala ordaindu, eta beste gela batera abiatzen gara. Bi espazioak banatzen dituen atea gurutzatuta jangela handi batera sartzeko gara. Bertan ez dago inor, eta aurkitzen dugun

lehenengo egurrezko mahaiaren bueltan esertzen gara, egurrezko bankuetan. Oraingoan ez gara elkartu bere etxeko sukaldean, ez baikara bere etxera joan. Hala eta guztiz ere, janaren bueltan eratutako espazio batean bildu gara, elkarte gastronomiko batean, hain zuzen.

Elkartean elkartu, kafea hartu, eta solastatu bai, baina ezin dugu elkar agurtu baratetik pasa gabe. Hortaz, duela 30 urte baino gehiago Kepak bere amarekin egin zuen osteratxo egiten dugu guk ere gaur, herritik Ubide auzorako bidea hartuz. Herriko saihebidetik azpitik igaro eta eskuma aldera joaten gara, baratzeak inguruan dituen bidea hartuta. Bertatik bailara bat ateratzen dela dirudi, eta beheko partean, pinudi eta zuhaitz artean, baratzeak. Heltzen gara Peioren txokora; berrerabilitako materialekin egindako hesiek beste baratzetatik bereizita dago bere baratzea. Ondoan gizon bat dago, txakurkume bat ehiza-txakur bilakatzeko heziz. Apur bat harago Peioren lobaren baratzea dago, baina loba ez dago. Omen, bera da egun haziak gordetzeko afizioa duena, Peiok berak duena baino handiagoa. Berak laguntzen dio osabari haziak gordetzen eta horrelako lanetan.

Peiok txukun dauka baratzea, eta horrela adierazten dio Kepak behin eta berriz. Txabolatxo ere badu, eta bertan bere jardunari hartzen diogu neurria. Arbolen fruituak gordeta ditu kutxatan, han ondo mantentzen baitira. Hantxe ere dituen haziez hitz egiten dugu. Adibidez, porru haziak gordetzen ditu aspalditik. Bestalde, baratzean barazki edo fruta-arbolak izateaz gain, bestelako landare laguntzaile edo usaintsuak ere baditu. Horietako baten inguruan galdetzen diet ea noiz erein edo landatu nezakeen landarea, eta besterik esan gabe hazi batzuk ateratzen dizkio eta eman egiten dizkit. Aldaxka bat ere eman nahi dit, landare indartsua dela eta edonoiz ateratzen dela esanez. Hemen ere, Goiko baserrian bezala eta behin eta berriz gertatuko zaidan bezala, ni neu dohainak jasotzera "behartzen" naute, eta dohainen bueltako harremanetan sartzen naute.

Hasieran "Moja Tomatea" eta gero "Urdintxa Tomatea" izenekin ezaguna egin den tomatearen berri dugu Peiorekin, Aretxabaletako Larrosa tomatearen bigarren belaunaldiaren berri, hain zuzen. Berarekin egon nahi genuen, batez ere tomatea nondik ekarri eta nola heldu zitzaizen jakin nahi genuelako. Horrekin batera, tomatea nola gorde eta zaindu duten ere ezagutu nahi genuen. Horren bila joan ginen, eta informazio horiek erdietsi genuen, baina ez horiek soilik. Bertan beste izen bat(zuk) zituen tomateak, baita berezko ibilbide bat ere. Beraz, hasiera batean, tomate berri baten aurrean ginela pentsatu genuen. Gerora, tomate berri bat baino historia honen belaunaldizat hartu dut Urdintxa izeneko tomate hori, baita horrela aurkeztu ere.

Bigarren belaunaldi honetan bi dira protagonista nagusiak, tomatearekin batera. Alde batetik, Marc eta biok elkarrizketatu dugun Peio dugu. Bestetik, bere aitagarreba zena, Urdintxa ezizenez ezaguna. Azkenengo horrek Joxe Mari Odriozola du izena. 1904. urtean jaio zen, eta 92 urte zituelarik hil zen 1996. urtean. Industrialia zen. Egundak desagertua dagoen lantegi bateko bazkidea zen. Enpleguaz gain, baina, baratzea ere bazeukan. Hil baino lau urte lehenago iktus batek jo arte baratzean jarraitu zuen lanean.

Kasu honetan ere ez da arraroa gizonak izatea egoera hauen protagonistak. Hainbat ikerketek erakutsi duen bezala, enplegu eremura sartzean baratzea aisialdi gisa hartu izan du gizon askok, bereziki erretretan sartu izan direnean. Horrelakoetan, tradizionalki gehiago emakumeen espazioa izan zen eremua -baratzea, alegia- bereganatu zuten gizon horiek (San Miguel Lopez 2005). Debagoienan ere joera hori ikus dezakegu. Kasu honetan, baserrian jaiotako eta kalera jaitako askok egin izan du baratzea. Herrira jaitsi eta lantegira joan arren, lurrarekin kontaktuan jarraitu nahi izan dute, autokontsumorako baratze txikiak -ez horren txikiak- landuz. Hau zen Urdintxaren kasua ere.

Esan bezala, ia hil arte jarraitu izan zuen Urdintxak baratzea lantzen. 1992an iktus batek jo, eta utzi behar izan zituen baratzeko lanak. Orduan Peiok hartu zion erreleboa. Peio ere baserrikoa zen jaiotzez, Aramaiokoa. 14 urterekin, aldiz, Arrasatera jaitsi zen jada. Etxeko nagusia geratuko zen etxean, eta besteek kalera jaitsi behar izan zuten. Gerora, baina, Aretxabaletara joan zen, bertakoa baitzuen bikotekidea. Tomateak egin bezala, eskualdeko bizilagunak ere auzoz eta herriz mugitzen joan izan dira, oinordetza dela, lantegiko lanak direla, edota ezkontzak direla. Bereizi ezin diren mugimenduak dira hauek, pertsonarenak zein tomatearenak. Izan ere, lekualdatze horietan zenbait sare eta lotura sozial eta afektibo sortu, indartu eta berritu egiten dira, eta tomatea horien bidez ere lekualdatzen eta bertakotzen joan izan da. Kasu honetan, esan bezala, jaiotzez Aramaiokoa zen Peiori eman zizkion landareak bere nagusiak, lantegia landare-trukerako eremu bilakatuta. Hala ere, lantegiak honetan paper gakoa badu ere, familiak eta auzoak ere badute berea. Izan ere, nagusiaren emaztearen bidez heltzen dira landare horiek nagusiarengana, eta emaztea Aramaiokoa da jaiotzez, jada esan bezala Peioren lehengusina.

Baserrikoa zen Peio jatorriz eta baratzean erreleboa hartu zion aitagarrebari, azkenengo horrek zuen zaletasun eta dedikazio maila bera izan ez arren. Esan bezala, baratzea txukun- txukuna zuen. Fruta-arbolen fruituak ondo gordeta zituen. Zenbait hazi ere ateratzen zuen. Baina, hala ere, ez, ez zuen "afizio" bera. Haziak gordetzeaz ari ginenean, bere txokotxoaren ondoan baratzea zuen bere loba aipatu zuen. Horrek bai, bazuen afizioa. Omen, hori zen haziak zein tomateetatik atera behar zituen esaten ziona. Bi urte beranduago, 2019ko irailaren 21ean *Aretxabaletako Tomatearen Astearen* baitan egin den *Tomatearen inguruko Azoka Berezian* aurkitzen dugu berriz ere Peio. Marc eta biok ez dugu ezagutzen, eta Peiok ni ere ez nau kokatzen. Lerro hauek idazten ari naiz une horretan, eta berarekin topo egitea opari ezin hobeagoa da. Berari buruzko kontakizunean zalantza batzuk ditut, eta argitu nahian gerturatzen naiz berarengana. Urdintxa aipatzen dit etengabe. Urdintxa gora, Urdintxa behera,

bere tomatea Urdintxarena dela. Berarentzat erreferente handia izan dela ikusten da, errespetu eta aitortza handia diola. Halakoren batean galdetzen diot ea haziak non dituen, egiten ari naizen lanerako argazki batzuk atera nahi ditudala eta ea bere haziei atera ahalko nizkien. Orduan aitortzen dit haziak berak ez dituela. Orain jada ez da bere loba haziak zein tomateri hartu behar dizkion esaten diona. Orain, bere lursail ondoan dagoen beste bat aipatzen dit. Beste gizon bat, berriz ere. Horrek Peioren baratzean tomate on bat ikusten duenean tomate hori ez batzeko agintzen dio, haziak ateratzeko uzteko, alegia. Gerora, Peiok lagun horri tomatea eman, eta beste horrek haziak atera eta hurrengo urterako gorde egiten ditu. Hurrengo urtean, haziak erein, eta landareak ematen dizkio Peiori. Horrenbestez, oinordetza edo lekuko hartu zituen Peiok Urdintxa edo Moja tomatearen haziak, eta tomateari segida eman dio, aitagarrebaren omenez. Hala ere, berak ez ditu haziak ateratzen eta zaintzen, bere ondoan izan dituen beste batzuek baizik.

Peio eta bere ondoan baratzea duenaren arteko harremana ikusita, hazien inguruko zaintza lanak konplexuak diren sareetan egituratu eta antolatzen direla ikusten dugu, gertutasunean - baratzeak ondoan daude-, konfiantzan -haziak ondo zainduko dituztelakoan-, eta afektibitatean oinarritutako harremanetan, hain zuzen. Kasu honetan, gizonez osatutako sare eta harremanak dira, eta tomate horren genealogiari forma eta edukia ematen diote. Horiei esker biziraun egin du Urdintxa tomateak. Horiei esker haziak gordetzeko praktikak aberastu, eta biziraun egin dute.

Urdintxa eta Peio ezagutzearekin batera, tomatea nola heldu zitzaien argitzen hasi ginen bertan, nahiz eta landare horiek zehatz-mehatz zein eskutatik zein eskutara pasa ziren erabat argi ez geratu. Peiok kontatzen du izen eta abizenez aipatzen duen bere nagusi batek eman egin zizkiola. Esan bezala, horrengana, omen, moja baten bidez heldu ziren tomate landare horiek, Goiko baserriko mojaren bidez, hain zuzen. Moja, Aramaiokoa, nagusiaren emaztearen laguna zen, auzokoa, eta landareak eman zizkion. Halaber, esan bezala, nagusiaren emaztea Peioren lehengusina ere bada. Beraz, landareak familian geratzen ziren, oso gertukoaren artean. Baina hori besterik ez zekien Peiok. Gertakari hau 1978 eta 1980 urteen bueltan kokatzen du Peiok, hiru urte gora, hiru urte behera.

Kontatzen duenaren arabera, landareak maiatza bukaeran heldu ziren Urdintxaren baratzerara, jada baratzea osatuta zuenean. Hala ere, tokia egin zien, eta beste tomateak bezala tratatu zituen. Baratzeko udako sasoiak aurrera egin ahala, eta tomateak batzeko garaia heldu ahala, tomate berri horrek Urdintxaren arreta bereganatu zuen. Alde batetik, tomate arrosa zen,

zerbait arraro samarra garai hartan. Jan, gustura jaten zen, gainera. Ez zen besteak baino hobeagoa, ezta txarragoa ere, baina ezberdina zen. "Fintxuagoa" zen, eta zapore "goxua" zuen. Azkenik, denboraldiak aurrera egin, eta fruitu nahikotxo eman zituen. Hortaz, haziak gorde egin zituen Urdintxak eta hurrengo urtean barietate horren landare gehiago sartu zituen baratzean, orain arte, bere suhiak barietatea landatzen jarraitzen duela.

Hasierako urte horretatik aurrera, urtero tomate horiek landatzen zituen Urdintxak. Inguruneko baratzezain eta bestelakoak ere hasi ziren tomate horren berri izaten. Tomatea ospe ona irabazten joan zen, eta ondorioz jendeak tomate hori nahi zuen. Alde batetik, Urdintxa herriko plazan bizi zen, eta udako arratsalde gozoetan handik ibiltzen zen tomateak bistan etxerako bidean, bertan aurkitzen zituenei tomateak eskainiz. Horrela hasi zen tomate hori hedatzen. Halaber, baratzea zuen Ubide auzotik gertu oraindik irekita dagoen denda batean ere saldu egiten zituen. Denda horretan baratzerako tresnak, materialak, lehengaiak eta abarrekoak dituzte, eta landareak zein barazki batzuk ere saltzen zituzten garai hartan behintzat. Bertan saldu izan zituen Urdintxak tomateak eta landareak urte batzuetan zehar, eta bestelako tomate barietateak bazeuden ere, Urdintxarenak izena hartu zuen. Bertan saltzeak ere ospea eman zion tomateari.

Urdintxa izenez hasi zen ezaguna egiten tomatea, jendeak esaten zuen "hau, Urdintxa tomatea". Urdintxak eta bere etxeok, aldiz, "moja tomatea" deitzen zioten, eta Urdintxak errepikatzen zien behin eta berriz, "hau, tomate de monja, de monja". Hazi potaetan ere horrela jartzen zuen "monjia tomatea". Nola idatzi behar zuten ere esaten zien etxekoei. Hala ere, nahi edo ez, beraien etxetik kanpo Urdintxaren izena hartu zuen tomateak, eta egun Peiok ere horrela izendatzen du, aitagarrebaz harro. Hala ere, berak etxean edozein modutan izendatzen du, izan "etxekoa", "geurea", "Urdintxa" edo "moja", jakin badakielako jada zein tomate den.

Horrenbestez, tomate horrekin Urdintxak lan handia egin zuen. Alde batetik, baratzean landatu eta haziak ondo gorde eta ugaltu egin zituen. Bestetik, bide ezberdinetatik barietatea banatu eta zabaldu egin zuen, tomateari ospe ona emanaz. Bera harro zegoen tomateaz. Bazekien jendeak gustuko zuela eta erakutsi egiten zuen. Hala ere, ez zuen horren jatorria ezkututzen, eta nondik zetorren nabarmentzen zuen "moja" tomatea zela esanez behin eta berriz. Hortaz, izena eman zion, eta zentzu bikoitz batean egin zuela esan genezake gainera. Urdintxak "moja" izena jarri zion, jasotako landareen jatorriari erreferentzia eginez. Bitxia da kasu honetan "moja" jarri zuela eta ez baserriaren izena, Peiok jakin bazekielako Goikoko

mojak ekarritako landareak zirela. Kasu honetan, gainera, pertsona ez da ezaguna bere izen, abizen edo etxeko izenarengatik. Ematen du moja moja dela, beste ezer baino lehenago. Baina Urdintxak ez zion izen hori bakarrik eman. Barietatea zabaldu zen heinean bere pertsonarekin lotu zen, eta beste batzuek jarri zioten izen berria: Urdintxa. Kasu honetan, berak jarri ez bazion ere, tomateari izena eman ziola esan dezakegu, bere izena jarri baitzioten.

Maussen proposamenera itzuliz, dohainek -kasu honetan "taongek"- "hau" izendatzen duen espiritua dutela dio. "Hau" oparien edo dohainen arima da, hortaz, eta lehen esan bezala, espiritu horrek zerbait itzultzera behartzen du, dohainaren inguruko harremanari forma emanaz. Halaber, "Taonga" eta "hau"etan beraien jatorriaren zerbait geratzen da. Hau da, ematen duen pertsona edo komunitatearen zerbait ematen den horretan geratzen da, eta hori da hain zuzen zerbait itzultzera behartzen duena (Mauss 2009). Kasu honetan, ikusten dugu haziak ematen direnean zerbait eramaten dutela beraiekin batera, eta hori izenetan islatu egiten dela. Kasu batzuetan pertsona zehatz bati, beste batzuetan baserriari, haziekin -orain hartu-eman hauen "taongak"- horiei erreferentzia egiten zaie, eta horien lana eta garrantzia hazietan jasota geratzen da, eta haziekin mugitu egiten da.

Urdintxak tomateari jarritako izenak mojarri erreferentzia egin arren, Peiok ere badu bere tokia Moja edo Urdintxa tomatearen belaunaldian, berak bere burua "mandatari soil" edo "rekadista" hutsal definitzen duen arren. Ikusi bezala, hori baino gehiago egin du tomate honen historian. Behin aitagarrebak baratze lanak utzita, erreleboa hartu zion, eta tomatea zaintzen jarraitu izan zuen. Urdintxak egindako lanari aitortza eta jarraipena eman dio eta tomatearen historia (ber)egiten ari ginen horretan berak emandako informazioa gako izan da Aretxabaletako Larrosa tomatearen jatorria zein pasarte eta belaunaldi batzuen berri izateko. Beste alde batetik, jada azaldu bezala, haziak eta barietateak gordetzeko bestelako bideak ere ireki ditu Peiok, loba eta gertuko baratzezain batekin lan horiek partekatuz. Urdintxa tomatearen, eta Aretxabaletako tomatearen zaintza-sareak zabaltzen ere lana egin du, landutako bioaniztasunari ekarpena eginez.

Laburbilduz, Ubide auzoko baratzean 80ko hamarkadaren hasiera-hasieratik Goiko baserritik mojaren bidez heldutako landareei jarraipena eman diete. Bertan, "moja" izendatu duten tomatea zabaldu egin dute, eta tomate eta Urdintxaren artean lotura ezarrita eta indartuta, askok "Urdintxa" izendatu du tomatea, Peio bere suhiak barne. Gu hara Keparen eskutik heldu ginen, Aretxabaletako Larrosaren historia eta genealogiaren beste katebegi bat ezagutu nahian, eta hori baino gehiago ere ezagutu genuen. Izan ere, bertan egindakoa ez da bakarrik linea genealogiko batean transmisio eta ugalketa lana, linea horretatik kanpo ere zabaldu

baitute barietate hori. Gu transmisio bertikala aztertzen ari baginen, horren transmisio horizontala ere azaleratu zitzaigun bertan. Urdintxa eta Peiok, azken finean, Aretxabaletako Larrosa tomatearen historian belaunaldi bat osatzen dute, eta era berean adar genealogiko bat sortzen dute. Hau guztia kontuan hartuta, Ubidekoa tomate horren ugalketa zentroa izan dela esan dezakegu.

Ezin dut itxi, baina, bigarren belaunaldi horren historian bertan sortu zitzaigun zalantza bat mahai-gaiean jarri gabe. Bertan Aretxabaletako Larrosa tomatearen historian zehar tomate barietate berri bat sortua ote zen zalantza edo susmoa sortu zitzaigun. Hori kontatzeko, eta sortu zitzaizkigun zalantza eta erdi gaizki-ulertuak ulertzeko, atzera egin behar dugu. Lekuan lekuko lanaren hastapenetan, Aretxabaletako Patxiri egindako bisitaldi batean haziez betetako potoak atera zizkidan. Bi fruta-dendetako egurrezko kutxa potoez beteta zituen. Denetarik zuen bertan, eta ia guztiak aspalditik gordetako barietateak ziren, bertakoak. Horien artean, nola ez, Aretxabaletako Mozkorra edo Arrosa zuen. Bestetik, bazuen "Urdintxa" izeneko bat. Azkenengo hau, oharkabe geratu zitzaidan. Handik hilabete batzuetara, 2016ko irailaren bukaeran, Lehenengo *Aretxabaletako Tomatearen Astearen* baitan hitzaldi bat eman zuen Teok, tomate hori landu izan duten ekoizleetako batek. Tomatearen historia gainetik azaldu, berarengana nola heldu zen kontatu, eta nola landatu eta zaintzen zuen azaltzen eman zuen denbora gehien Teok. Hitzaldiaren bukaeran, tomateak erakutsi eta dasta egin genuen. Une horretan, 40 urte inguruko gizon batek hartu zuen hitza. Esaten zuenez, bere etxean aspalditik egin izan da tomate barietate hori. Berak zekienaren arabera, bere etxetik heldu zitzaion Kepari barietate hori, eta Keparengandik Miren eta Teorengana. Hau da, Teok zituen haziak bere etxetik etorriak ziren. Hortaz, bere etxeko tomatea eta ekoizleak eraman berri zituenak -"Aretxabaletakoak"- berdinak ziren. Hala ere, bere etxekoak ezberdinak zirela esan zuen. Bertan ondorioztatu zuen galduta zutela barietatea, degeneratu egin zitzaizela. Hortaz, ekoizleari eskatu zion ea haziak gordetzeko tomate bat hartu ahal zion, edo ea horretarako aurrerago bat emango zion.

Gaia hor geratu zen, baina ni pentsakor joan nintzen etxera. Zein zen "benetako" Aretxabaletako tomatea? Zer dela eta pentsatzen zuen gizon horrek berea txarra zela, eta ekoizle profesionalarena ona eta benetakoa? Eta, benetan bere etxekoa aldatuta bazegoen, zergatik hartu behar zen hau txartzat? Zergatik mantendu behar "benetakoa", eta tomatearen aldaketak ez jarraitu¹⁶⁹? Galdera zurrumbilo batekin etxera joan nintzen, eta lekuan lekuko

169 Galdera hauek, besteak beste, Ankulegi aldizkarian 2017an argitaratu nuen artikulua oinarrian daude (ikus Barba 2017).

kaierean jasota geratu ziren. Berriz ere, hilabete batzuk geroxeago hariak lotzen jarraituko nuen, Peiorekin egon ginenean, hain zuzen. Hitzaldiaren bukaeran hitza hartu zuen gizon hori Peioren loba zen eta horretaz konturatu nintzen Peiok baratzean Urdintxa tomatea zutela aipatu zigunean, baita Aretxabaletakoa ere. Nola zitekeen biak bertan egotea, bata bestearen arbasoa bazen? Orduan ere konturatu nintzen Patxik bi tomate horiek zituela. Hau da, beste baratze batzuetan ere bereizita zeudela bi tomate mota horiek. Halaber, Peiok beste zerbait gehitu zuen. Aretxabaletako Aste horretan bertan tomate erakusketa bat egon zen larunbatean, herrian azoka bat egiten zela baliatuz. Bertan Peiok ere ikusi zituen "Aretxabaletako Mozkorra" edota "Aretxabaletako Morea" izena zuten tomateak. Horiek ez ziren bereak bezalakoak. Bertan zeuden beste batzuk, aldiz, bai, bereak bezalakoak ziren. Zeintzuk ziren, orduan, Aretxabaletakoak? Zer gertatu zen bidean? Nola ari ziren nahasten tomateen izen eta formak?

Hasiera batean, agian Urdintxaren baratzean barietate berri bat sortua zela pentsatu genuen. Apika, besterik gabe degeneratu egin zen, baina izan zitekeen ere, urteen poderioz, barietate berri bat sortu izana. Hori oso albiste ona izango litzateke. Aitzitik, benetako Aretxabaletako tomatearen bilaketak pikutara bidal zezakeen tomate berri hura. Galduta ginen. Eta galduago egon ginen Goiko baserrira joan ginenean eta bertako tomatea Aretxabaletako Larrosa edo Mozkorra bezalako zela ikusi genuenean. Barkatu, Miren eta Teoren baserrian egindako hautaketa eta hobekuntzatik ateratako Aretxabaletako tomatea bezalakoak. Izan ere, hori hartzen ari ginen erreferentziatzat Urdintxarena edo Goikokoa zeintzuk ziren baloratzeko. Urdintxa eta gero aldatu bazen tomate hori, ezin zen jatorrizkoa bezalakoak izan. Guretzat logikoagoa izango litzateke Goikokoa eta Urdintxa berdinak izatea, eta ez erdikoa -Urdintxa-ezberdina, eta hasierakoa -Goikokoa- eta "bukaerakoa" -Teorena- berdinak. Bada, horrela zen, edo horrela iruditu zitzaigun.

Zalantza horiekin joan ginen etxera, eta zalantza horiekin geratu ginen luzaz. Zalantza horiek direla medio, 2018an *Aretxabaletako Tomatearen Astearen* baitan ekimen ezberdin bat burutzea erabaki genuen. Berriz ere hitzaldi bat egin baino, topaketa moduko bat egitea proposatu genuen Marc eta biok, eta onartu ziguten. Bertan, Aretxabaletako Larrosa tomatearen historian parte hartu dutenak gonbidatu genituen. Beraien tomate ale batzuk ekartzeko eskatu genien, eta gero historia kontatzerakoan tomateak nondik ekarriak, nola zaindu eta non, eta nori eta nola zabaldu izan dituzten ere galdetu genien. Zeresanik ez, ekimen hori tesirako garrantzitsua ere bilakatu zela. Bizitzaren bueltek hala eraginda, egun horretan Peio ezin izan zen joan ekimenera. Urte txarra pasatzen ari zen, eta tomateak

baratzean ere urri. Hortaz, ez genuen bere tomateak ezagutzeko aukerarik izan. Ekimen horretan ikusi genuen eramandako tomate gehienak oso antzekoak zirela. Hala ere, landarearen maneiak asko eragiten diela ere ikusi genuen. Izan ere, tomateak beraien artean oso ezberdinak ziren, eta horretan eragina zuen fruituek pasatako beroak edo estresak, jasotako uneak, zein bestelako baldintzek. Zentzu honetan, barietate baten barruan egon daitekeen aniztasuna ere ikusi genuen. Ekimen horretan beste zerbait ere argi geratu zen: tomate horren bueltan hartu-eman asko egon dira, ugalketa zentro anitzak sortu dira, eta guztietan ez dira berdin zaindu haziak eta berdin gorde horien ezaugarriak. Bestetik, egun tomate arrosak eta Aretxabaletakoak modan daude, eta izan zitekeen norbaitek izen hori erabili izana beste tomate barietatearen bati merkatuan irteera emateko. Beste modu batez esanda, Aretxabaletako Larrosa tomatearen historian iruzurrak ere ikusi edo sumatzen ziren. Iruzurrak ote zeuden edo ez zalantza airean zegoen, baina genituen zalantza guztiak argituko ez genituela onartuta, horiek bertako barietateen transmisioaz eta Aretxabaletako Larrosaren historiaz zer esaten ziguten aztertzea interesgarriago iruditu zitzaigun.



Irudia 7: Tomaren erakusketa popularra, Tomatearen inguruko azoka berezian. Aretxabaleta, 2019. Iturria: Nik egina.

Hortaz, 2016eko hitzaldi hartan Peioren lobak planteatutakoa erabat argitu gabe egon naiz duela gutxira arte. Esan bezala, atal hau idazten ari naizen honetan, 2019ko irailaren erdialdean, berriz ere *Aretxabaletako Tomatearen Astea* antolatu dute, 4. aldiz. Irailaren 21ean tomate azoka dago, eta esan bezala, bertan Peio aurkitzen dut. Tomatearen azokan tomate erakusketa dagoela aprobetxatuta, galdera egiten diot Peiori: erakusmahaietan dauden tomateen

artean zeintzuk dira Urdintxa tomatea bezalakoak¹⁷⁰? Bestetik, zeintzuk dira etxean daukan "Aretxabaletako Morea" bezalakoak? Lehenik eta behin azkenengo hau jada ez daukala esaten dit. Bigarrenik, mahaian daudenen artean Urdintxarenak eta Aretxabaletako Moreak bezalakoak zeintzuk diren seinalatu egiten du (ikus Irudia 7 eta Irudia 8). Berak bistaz erraz eta azkar identifikatzen ditu, tomateen alboan dagoen paperari erreparatu gabe. Paper horietan tomateak eman dituztenek esandako izena jasotzen da, eta paperean jarrita dagoena eta Peiok diona ez datoz bat. Paperari kasu egin gabe, Peioren erantzunarekin geratzen naiz. Argi identifikatzen ditu tomateak, eta beraien artean erraz bereizi daitezkeen bi tomate mota seinalatzen ditu. Horietako bat Urdintxarena da.



Irudia 8: Peiok "Urdintxa" tomate gisa eta Juanek Aretxabaletakoak gisa identifikatutako tomateak. 2019ko Tomatearen erakusketa popularrean hartutako arazkia. Iturria: Nik egina.

Zalantza argitzeko, baina, informazio bat falta zait: Peiok Urdintxarena bezalakoak identifikatzen duena, ba al da egun Aretxabaletako Larrosa edo Morea izenez ezaguna dena? Berriz ere diot, Miren eta Teoren baratzetik izen horrekin zabaldu den tomateaz ari naiz. Hori argitzeko aukera ere badut. Izan ere, azokan Juan ere badago. Berak haziak ekoizten ditu, asko landu izan du bertako barietateen gaia, eta oso ondo ezagutzen du Aretxabaletako tomateak. Eskatzen diot tomate horiengana nirekin etortzeko, eta Peiori egin diodan antzeko galdera egiten diot: zeintzuk dira tomate horien artean "Aretxabaletakoak"? Peiok Urdintxa tomate bezalakoak seinalatutakoak seinalatzen ditu berak, batez ere bat -Peiok bi seinalatu ditu-. Esaten diot Peiok esandakoa eta esaten dit baietz, biek dutela Aretxabaletakoaren antz handia. Hala ere, gaur egun jada nahasmen handia dagoela, eta bietako bat degeneratuta egon


¹⁷⁰ Hau da, bere etxera Goiko baserritik heldu zirenen bezalakoak.

daitekeela dio. Orduan, izan daiteke Aretxabaletako tomatearen hazietatik etortzea horiek baina apur bat aldatuta egotea. Edonola ere, niretzat garrantzitsuena dena da Peiok eta Juanek tomate berdinak seinalatzen dituztela. Hau da, Urdintxa tomatea Aretxabaletakoaren arbasoa izateaz gain, horren modukoa da. Ez da egon, hortaz, Goiko baserritik sortutako kate genealogiko horretan aldaketarik Aretxabaletakoa izendatu, sortu eta gorde arte. Horren ostean izan zitekeen Goiko baserrian zein Peioren baratzean tomateek aldaketak bizi izana, "degeneratu" izana, baina Aretxabaletakoa Goikora Mirandatik eraman zituzten tomateak bezalakoa da. Zirkulua ixten dela dirudi. Baina, orduan, zein da Peiok seinalatu didan beste tomate hori, berak "Aretxabaletako Morea" izendatzen zuen hura? Juanek diost Krimeako Beltza izan daitekeela, horren itxura handia duela.

Esan bezala, azoka honetan norberak dio zein den bere tomatearen izena, eta ez da egiten horren jarraipenik. Nondik atera duten, zeinek eman dien, eta nola zaindu izan den ez da kontuan hartzen. Beraz, nahasmendurako aukera irekitzen da. Orduan, baliteke hemen bezala beste uneren batean hasierako Aretxabaletako Mozkorra edo Larrosa ez zen baten bat "Aretxabaletako Morea" izenarekin zabaldu izana, handik Peioren baratzerara heldu izana, eta handik konfusioa. Baliteke. Zerbait argi badago historia honetan zera da: tomate bati pista erabat jarraitzea eta bere genealogiak guztiz jasotzea eta ezartzea zaila dela. Marc eta biok barietatea nola sortzen zen jakin eta bere jatorria zehazki zein zen jarraitu ditugu hari horiek eta genealogiak osatu. Haziak, tomateak eta barietateak euren bidea egiten dute, pertsonen eskuetatik, interesetatik, harremanetatik, jakintzetatik, eta jakintza ezatik. Horrek zalantzak edo iruzurrak sortu ahal baditu ere, aberastasuna ere sortzen du. Horretarako, galdera eta zalantza batzuk airean uztea, gustatzen ez bazaigu ere, positiboa da, barietateei bide irekia uzten baitie, forma eta izen jakin batzuekin bizitzen jarraitzeko. Arriskua ere badu, noski, ondo landuta eta gordeta dauden barietateak galaraztea ekarri ahal baitu nahasmendu horrek.

Laburbilduz, lehenengo fase honetan daukagu Miranda de Ebrotik etorritako landare horietatik garatutako barietatea. Barietateari izena aldatu diote baserri baserri edo baratzez baratze mugitu ahala, eta izen horietan gordetzen dute haziak, tomateak edo landareak eman dituztenen zerbait, eman denaren -taongaren- arima edo "hau"en antzera. Hazien inguruko hartu-emanak gertuko eta konfiantzazko¹⁷¹ harremanetan oinarritzen dira, eta senide, bizilagun edota langileen artean mugitzen dira batik bat. Lehenengo fase honen eta lehenengo bi belaunaldi hauen protagonistak autokontsumorako baratzeak dituzte, soldata duela zenbait hamarkada Debagoienan zabaldu ziren industriaguneetako lantegietan lana eginez irabazirik.

171 Arto "criolloaren" inguruan aipatu ikerketan ere konfiantzari erreferentzia zuzena egiten diote. "Relational networks of 'trust'" adierazpena darabilte horretarako (ikus Carro-Ripalda, Astier, y Artía 2015).



Irudia 9: Urdintxaren baratzea eta Monjie Tomatie. Egilea: Maddi Zumalabe.

Trantsizio garaia. Anonimotasunetik aitortzara

Hirugarren belaunaldia. Tomatea Aretxabaletan "adoptatua" eta bertan errotzen

Belaunaldia	Hirugarrena
Subjektua eta tokia	Kepa. Aretxabaleta
Izena(k)	- / Aretxabaletako Arroza/Morea
Garaia	70eko hamarkadaren bukaeran, 80ko hamarkadaren hasieran. Gaur egunera arte.
Nola heldu zaie, nola hedatu dute	Aretxabaletako Ubide auzotik. Tomateak hartu eta horiei haziak atera eta gorde. Hazianitzera, eta jende askori eman izan dizkio tomateak zein landareak

Taula 4: Kepa eta tomatea Aretxabaletari lotzen

Belaunaldi honen protagonista nagusia Kepa da. Izan ere, toki zentrala du Aretxabaletako Larrosa tomatearen historian. Hala ere, bere anteko profila duen eta Aretxabaletakoa ere baden beste gizon bat ezagutu dut: Patxi. Hortaz, gehien bat Kepaz hitz egingo dudan arren, bigarren horri ere erreferentzia egingo diot. Gainera, Patxiren bidez heldu nintzen lehenengoarengana.

Lekuan lekuko lanaren hasiera-hasieran nengoelarik heldu nintzen Patxirengana. Gertu eta erraz nuen lehenengo kontaktua izan zen bera, eta handik hastea erabaki nuen. Patxi Aretxabaletakoa da, egun erretreta hartuta du, baina luzaz Aretxabaletako institutuko irakaslea eta zuzendaria izan da; hots, pertsona ezaguna da herrian. Baserrian jaioa, gaztetan jaitsi zen kalera, eta erretreta hartutakoan, familiaren lur batzuk berrartu eta lantzen hasi zen, fruta-arbolak jarriz eta baratzea landuz. Arbola zein baratzekin bertako barietateak bilatzen eta landatzen ahalegin handia egin du, eta ederra da bere baratzera zoazenean txabolatik ateratzen dizkizun hazi-potoez betetako kutxak ikustea. Bakoitzak bere izena ondo jarrita du, eta Patxik argi dauka nondik atera duen hazi bakoitza. Izenak pertsonenak dira batzuetan, izan izenak, izan abizenak, edo izan ez-izenak. Beste batzuetan, aldiz, baserri bati edo toki bati erreferentzia egiten diote. Azkenik, barietate zehatz eta ezagun bati erreferentzia egiten dion izen bat edo beste ere ikusi nuen kutxa horretan. Hau da, izen zehatz batekin ezagunak diren barietateen kasuetan izen horiek jarrita ditu, eta ez haziak eman dizkion pertsona edo

baserriarenak, barietateak duen izaera eta nortasuna pertsona horietatik harago baitoa. Hau da, adibidez, Aretxabaletako Larrosa tomatearen kasua.

2015eko azaroaren bukaeran gaude, eta gaur geratu naiz lehenengo aldiz Patxirekin. Duela astebete Donostiako Cristina Enea Fundazioan Jakoba Errekondok aurkeztu zuen Bizi Baratzea liburua, eta bertan Marcek aurkeztu zidan Patxi. Nire lanaren berri eman eta berarekin geratu nahi nuela esan nion. Geratzeko erabateko prestutasuna adierazi zidan, eta hurrengo asterako -gaurko- geratzeko esan zidan. Arratsaldean goiz elkartzeko esan zidan, "ortura joan nahiko duzu, ezta?" gehituta, erdi galdezka, erdi baieztatzen. Nik, berez, lehenengo aldi honetan tesiaren proiektua azaltzeko asmoa besterik ez nuen. Herrian elkartu, hitz egin, eta agian beste hitzorduren bat jartzea zen nik espero nuena. Baina, tomate batengandik galdezka kafetegi batera joan? Inondik inora. Lehenengo hitzordu honetan jada hurrengoetan errepikatuko zaidan zerbait gertatzen zait. Ni hitzez eta kaieraz ekipatuta joan, eta historia honen protagonistek baratzera eraman nahi izango naute. Ia azkenengo elkarrizketa eta bisitaldiraino gertatuko zait hau. Nire konfort eremutik atera ezinik, antropologia eta etnografiaz omen gutxi dakitenak izango dira, berriz ere, irakaspen metodologikoak emango dizkidatenak.

Hortaz, lehenengo honetan Patxiren baratzera joateko geratua gaude, eta horrelaxe egiten dugu. Dituen hazi-potoen kantitatearekin eta fruta-arbola eta baratzearekin liluratuta geratzen naiz berehala. Nik hala moduz azaltzen diot zer egin nahi dudan eta zer behar dudan beraiengandik, nahiz eta nik oraindik oso argi ez izan. Berak zenbait kontaktu eta erreferentzi pasatzen dit. Azkenik, Kepaz ere hitz egin dugu. Izan ere, Kepa Donostian "Norenak dira haziak" jardunaldian egondakoa da, eta tomate horren historian gakoa da, eta Patxik ezaguna du. Are, Patxiren baratzetik herrirako bidea hartuta, herrigunera sartzerakoan zaudelarik hortxe bertan topatzen duzu Keparen baratzea. Hori dela eta esaten dit Patxik herrirako bidean pasa gaitezkeela Keparen baratzetik, ea bertan harrapatzen dugun.

Ez da beharrezkoa izan, ordea. Kotxean beheranzko bidea hartzen dugu, nik sagarrez betetako poltsa bat eskuan eta arta-txiki haziak poto batean sartuta daramatzadala. Berriz ere, lehenengo bisitaldi honetan gerora ohikoa bihurtuko zaidan zerbait gertatzen zait jada: lekuan lekuko saioetatik barazkiak, fruituak eta lurreko bestelako produktuekin helduko naiz etxera, gaur bezalaxe. Bada, halako batean Patxik bat-batean kotxea gelditzen du, baita kotxetik jaitsi ere. Hortxe dago Kepa. Ni ere jaitsarazi egiten nau, nik aurrean dudan hori zein den oso ondo kokatu ez dudala. Baina kotxetik jaitsi eta zein den konturatzen hasten naiz. Patxik kontatzen dio, apur bat eta ahal duen moduan, ni zein naizen eta zer egiten dudan bertan, eta hain zuzen Keparekin berarekin hitz egin nahi dudala gehitzen dio.

Lehenengo elkarrizketa honetan jada gerora ere Kepak errepikatuko duen hainbat esaldi, ideia, eta jarrera bota eta izaten du. Lehenengo eta behin, berak gutxi dakiela eta kontatzeko gutxi duela behin eta berriz aditzera ematen du. Hots, ondo ni tesi bat egiten egotea, baina agian bera ez da ni laguntzeko pertsonarik egokiena. Hala ere, hori esan eta berehala, beste edozer gauzarengandik galdetuta bere jakintza osoa azalarazten hasten da. Hori egiten duenean, maiz, amonari erreferentzia egin dio, "amandreak" hain zuzen, bere hizkeran esanda. Bera kaletarra bada ere, familia baserrikoa du, eta ondo gogoratzen du amandreak egiten zuena eta kontatzen zuena. Amandrea izango da Keparen ahotik hainbatetan aterako den pertsona, beti aitortzatik hitz egiten. Hala ere, Keparen jakintzak jakintza espezializatu eta idatzietatik jakintza herrikoi eta baserriarretik bezainbeste du. Liburuetatik, irratitik eta munduko beste toki batzuetatik datozen jakintzez ere elikatu egiten da. Hortaz, jakintza herrikoi eta baserriarra eta jakintza tekniko eta

espezializatua uztartzen dituen jakintza du Kepak. Horien atzean dauden munduak elkartu eta josi egiten dira Keparen baratzean. Hauxe Patxiren kasua ere bada. Bera entzuten eta bere baratzea ikusten ere sentitzen dugu bere arbasoen eta hemengo baserritarren jakintzaren herentzia, baita liburu eta jakintza teknikoena ere. Hartara, Kepa eta Patxik bi mundu josten dituzte, eta mundu horien arteko zubia ere eraiki eta gorpuztu egiten dute. Keparen kasuan, amandareekin batera bere ahotik ateratzen den beste pertsona bat ere nabarmendu eta nagusitzen da: Jakoba Errekondo, izen eta abizenaz izendatua. Amona askoren jakintzaren igorle lez, baina izen eta abizenaz ezagututa eta irratian eta liburuetan aditu gisa aritua, amona askoren ondoan -edo gainetik- nagusitu da baratze-kontuetan aditu eta aholkulari moduan¹⁷². Sukaldaritzaren kasurako Del Valle (1997) erakutsi bezala, gizonezkoek emakumeen jakintza usurpatzen dutenean sarri emakumeei erreferentzia egiten diete, baina horrekin emakumeak bakarrik sinbolikoki sartzen dira gizonen prestigio guneetan, egitura aldatu gabe, eta emakumeei egindako aitortza txiki horrek egoerak bere baitan iraunarazten laguntzen du.

Azkenik, lehenengo elkarrizketa honetan beste zerbait nabarmentzen da bere hitzetan: euskararen aberastasuna, euskalkiaren erabilera eta zaintza, eta jakintza baserritar eta herrikoiaren terminoen presentzia. Gerora jakingo dut euskara irakaslea izandakoa dela, eta baratzean haziak, barietateak eta praktikak gordetzeko duen kontzientzia bera duela euskararekiko ere. Ona dena, baliagarria dena, eta galtzar dagoena zaindu eta iraunarazi egiten du, bere hitzetan, "kontzientzia" duelako. Euskarari dagokionean, baratze eta lurrari lotutako hitz oparo ezagutu, erabili, ezagutarazi eta bizirik mantentzen ditu. "Satsberri", "satszahar", "lurrustel", "errekarea", hamaika dira, adibidez, lurrari edo simaurrari erreferentzia egiteko erabiltzen dituen hitzak. Horietako bakoitzak, gainera, lur mota zehatz bat edo lurraren egoera zehatz bat izendatzen du, eta horiek izendatu, identifikatu, bereizi eta erabili egiten ditu. Hortaz, hitzekin batera barazkigintzari lotutako zenbait praktika eta jakintza ere bizirik mantentzen du. Edonola ere, nirekin berehalako itzulpena egin behar du. Izan ere, hainbatetan nik ez ditut ezagutzen -ezta ulertzen ere- erabiltzen dituen hitzak. Berarekin izandako elkarrizketen kontura, landa-kaierean hiztegitxo polit bat osatzen joango naiz.

Hala ere, lehenengo elkarrizketa hau ez da gehiegi luzatzen, euria ari baitu. Kepak berak esaten digu kotxera sartzeko, bustitzen ari gara eta. Baina kotxera igo eta berehala geldialdia egiten dugu bere baratzean. Bertan erakusten digu nola bilakatu duen urte gutxi batzuetan pinudi bat baratze, lorategi eta fruta-arbolen eremu. Kontatzeko ezer gutxi duela esaten jarraitzen badu ere, bertan jada badituen ezagutzak erakusten hasten da. Bere baratzea ikusi ostean, orduan kafetegira joan eta kafe baten bueltan jesartzen gara. Orduan nire txanda da, eta berriz ere zer egin nahi dudana kontatzea nahi dute. Oso argia ez banaiz ere, beraiek informazio eta kontaktu batzuk pasatzen dizkidate, eta berriz egongo garela adosten dugu. Beranduenez, haziak ereiteko garaian ikusiko dugu elkar, tomateak ekoizteko prozesu osoa ezagutu nahi baitut.

Beraz, Kepa Patxiren eskutik ezagutu nuen. Lehenago ikusita eta entzunda nuen, 2015eko udazkenean Donostian egindako jardunaldian hain zuzen, eta banekien Aretxabaletako

172 Jakoba Errokondo azkenengo urteotan baratze eta barazkigintzaren bueltan ospea hartu duen pertsona da. Urteak daramatza euskal irrati publiko batean *Landaberr*i baratzearen inguruko aholkularitza-irratsaioan parte hartzen. Halaber, Argia Aldizkariarekin batera *Bizi Baratzea, Euskal Herriko isurialde atlantikora egokitua baratzearen aritzeko gidaliburua* argitaratu du (2015), eta Argian bertan saioan sasoiko informazioak argitaratzen ditu. Baratzearen inguruan berriketan aritzean oso ohikoa da bere izena entzutea, eta adineko askok erreferentziatzen du. Orokorrean, baserritarrak elkarrizketatuz pilatu du gerora partekatzen duen jakintza herrikoaia. Bere lana nabarmentzen da euskal testuingurua egokitua dagoelako, eta baratzearen inguruko liburu asko ez daude orografia eta klimatologia honetara egokituta.

Larrosaren historian paper garrantzitsua zuela. Izan ere, hau zen tesia egiten hasi nintzen horretan gehien entzun izan nuen izena. Urte hauetan zehar jaso izan ditudan dokumentu, informazio eta albisteei erreparatuz gero ere, Kepak protagonismo handia hartzen du tomate honen historian. Adibidez, Aretxabaletako Tomatearen Asteen harira zein egin diren bestelako ekimenen harira, behin baino gehiagotan elkarrizketatu izan dute Goienan, Debagoienako tokiko komunikazio proiektuan. Tomatearen inguruan idatzitako albiste eta erreportajeetan ere bera agertzen da barietate horren historian eta zaintzan pertsona gako bezala.

Gehienetan, barietatea zaintzen egindako lana goraiatzeko dute, eta horrekin batera tomatearen izaeran eta historian jauzi kualitatibo handi bat eragin zuen keinua ere nabarmendu egiten da: ekoizle profesional bati eman zion, horrek gorde zezan. Hau da Kepak egin zuen keinu berezi eta berria, barietateari izaera berri bat emango ziona, alegia. Beste hitz batzuek esanda, barietate hau galtzeko arriskutik salbu utzi izana da hainbatetan Kepari aitortu izan zaiona. Kepak ere horixe bera azpimarratzen du. Bere hitzetan, gauza onak gordetzeak duen garrantziaren kontzientzia izan du berak, eta hori dela eta tomate horren haziak gorde egin zituen eta ekoizle profesional bati eman egin zizkion.

Hala ere, jada ikusi dugun bezala, Goiko baserrian eta Ubide auzoan gaur egun oraindik zaindu, errein, landatu, ugaltu eta gorde egiten dute barietate hau. Egia da 1992. urtean Kepari haziak eman zizkionak, Urdintxak, baratze lanak utzi behar izan zituela. Hortaz, arriskuan egon zitekeen barietatea. Baina Kepak hori baino lehenago, 1990. urtean hain zuzen, eman zion barietatea ekoizle profesional horri. Motz esanda, agian barietatea arriskuan egon zitekeen, bertako barietate gehienek modura, baina bazeuden beste pertsona batzuk barietate hori zaintzen eta ugaltzen. Orduan, zer da berria Keparen ekintzetan eta egiteko moduetan? Zer da aldatzen dena bere ekintzen bidez? Areago, zein alde dago Goiko baserrian edo Ubideko auzoan barietatea mantentzeko eta zabaltzeko egindako praktika eta Kepak burututakoen artean? Zergatik da Kepa ezagun bilakatzen dena istorio eta historia honetan? Galdera hauei erantzuteko, ezagutu dezagun apur bat hobeto Kepa bera eta barietate honekin izan duen harremana.

Kepa hirurogei urtetik gorako pertsona da, Aretxabaletakoa. Egun, eta baita elkarrizketatu nuenean ere, erretreta hartuta du. Lehenago, baina, irakaslea izandakoa da, herrian bertan. Herrian ezaguna, tomate hau modu ezberdinetan zabaldu du. Patxik ez bezala, Kepak aspaldi dauka baratzea. Soldadutzatik itzuli zenean ekin zien baratze lanei. Alde batetik, Aretxabaletatik gora doan bidexka baten hasieran dagoen Errekame auzoan dauka lursail handi bat. Duela urte gutxi batzuk bere osabarena zen eta pinudia zen. Horri erosi eta lurra eraldatzen hasi zen, pixkanaka-pixkanaka. Landatuta dituen aza, ilar edota dalia loreen artean ikus ditzakegu oraindik

moztutako pinuen ipurdiak. Harago begiratuta ere, lursail barruan, pinudiak bizirik dirau, baina hori ere baratze edo fruta-arbolen lursail edota bertako arbolez osatutako baso bilakatu nahi du Kepak. Aldapan dago baratzea, eta adi ibili behar gara bertatik, edonon izan baitezake zerbait ereinda edo landatuta. Udan, adibidez, azak hostoez estalita ditu, bereziki landatu berri daudenean. Horrela ez ditu ureztatu behar, eta ez dira hiltzen. Moztutako arbolen enbortxo eta adaxkak ere baratze osoan zehar barreatua eta pilatuta ditu, konpostatzen eta lurra hobetzen, arrandegiko soberakinekin zein bestelakoekin batera. Arrain buru baten azpian edota adaxka txiki baten ondoan Kepak zaintzen duen landare edota loreren bat topa dezakezu beti. Baratzetik behera egiten dugunean, pare bat txoko aurkitzen ditugu. Horien inguruan konposta dauka. Loreak eta landare usaintsu eta medizinalak ere baditu. Horietako batekiko arreta erakusten dudanean, berehala eskaini eta lagin bat ematen dit, baina landatu eta zainduko dudala ziurtatzen badiot bakarrik. Txokoak pasata, txabolatxo bat aurkitzen dugu. Bertan, txakurrak, oiloak eta untxiak daude. Untxi eta oilo kakarekin satsa egiten du, iratzearekin. Ondo zaintzen du satsa, eta zaku batzuk betetzen eta kargatzen laguntzen diodanean nik neuk ere satsaren kalitatea konproba dezaket. Eskuarekin hartzera eta guzti ausartzen naiz, erabat "eginda" baitago. Baso eta lur usaina du, inola ere ez kaka usaina, eta fin-fina da. Horixe bera erabiltzen du tomate haziak edo bestelakoak ereiterakoan.

Lursail horretaz gain, etxe ondoan ere lursail txiki-txiki bat dauka. Lursail horretatik zuzen sar gaitezke bere etxera. Atzeko ate batetik garaje batera sartzen gara. Bertan, apur bat denetarik du, eta handik sartzen gara atarira. Ataritik gora eginda, bere pisura heltzen gara, eta handik ere sabaia baxu eta maldatsua duen ganbara txikitxo batera. Liburuz josita dago, eta bertatik ematen dit bertako euskara zaharraz nekazaritza kontuez diharduen testutxo bat, fotokopiatuta. Bertatik lore hazi batzuk ere ematen dizkit. Liburuak, haziak, jakintza eta bizitza gordetzen ditu bertan, ondokoak nahi badu, horiek partekatzeko prest.

Kepa apur bat ezagututa, nabarmena da tradizioa, jakintza eta praktika herrikoiak mantentzeko eta iraunarazteko duen gustua eta egiten duen ahalegina. Gordetzen dituen ondareen artean -izan materialak, izan materiagabeak- haziak eta bertako barietateek toki berezia dute, eta horien artean, Urdintxak pasa zion tomate barietateak. Ubide auzotik bere amarekin osteratxo bat ematen ari zen halakoren batean Urdintxari tomate ale ederrak ikusi, eta ale batzuk eraman zituen, hurrengo urterako haziak ateratzeko. Kepak azpimarratzen du tomate horiek berehala bere arreta bereganatu zutela, eta hori dela eta bere baratzean jarri nahi izan zituela. Hamar bat urte eman zituen bere baratzean tomate hori landatzen eta haziak ateratzen, gordetzen eta ereiten. Eskuaratean zerbait berezia eta ona zuela sinetsirik, horren biziraupena bermatu nahi izan zuen. Barietatea ezin zen galdu. Bera jada bazebilen lan hori egiten, baina baratzean negutegirik ez du, eta ez die ezer botatzen tomate landareei. Hortaz, "roña" edo "herdoilak"¹⁷³ tomate landareetan sartu eta uzta pikutara bidaltzeko arriskupean landatu ditu beti tomateak. Hori gertatuz gero haziak eta barietatea bera ere gal zitekeelakoan nahi izan zuen barietatea beste norbaiti eman, ondo gordeko zuen norbaiti, alegia.

173 Mildiu moduan ere ezaguna den onddoak, euskal isurialde atlantikoan, tomate landareei oso erraz eragiten die, hezetasuna eta tenperatura epeletan ateratzen baita. Tratamendu kimikorik eman gabe edo plastikopean landatu ezean oso zaila da tomateak ondo ateratzea zonalde honetan.

Horrelakoren batean Hazianitz baserrikoak ezagutu zituen, Miren eta Teo, hain zuzen. Berak beti hitz egin izan dit Teoz, eta orokorrean Teo ere bada Aretxabaletako Larrosa tomatearen historia publikoan agertzen den pertsonaia eta izenetako bat. Mirenena, aldiz, gehienetan itzalean geratzen da. Hala ere, historiaren protagonistekin hitz egiten hasten zarenean gerizpetik ateratzen da Miren, eta Teoren pertsonaren bueltan eraiki diren historia eta pasarteetan Miren ere egon dela ohartzen zara. Kasu honetan, biak ezagutu zituen Kepak. Nekazari profesionalak ziren, eta ekologikoaren munduan sartzen ari ziren. Barietatea zaintzeko pertsona egokiak zirela iruditu zitzaion Kepari, eta saiakera egin zuen. Bere tomateaz hitz egin zien, ea probatu eta gordeko zuten barietate berezi hori. Besteek, proposamena onartu eta probatu egingo zutela erantzun zioten. Gero, ikusi egin beharko zen barietatea interesgarria zitzaien edo ez, baina beste hainbatetan bezala, probatu egin, egingo zuten.

Horrela heldu zitzaizkien tomate horren barietatearen aleak Hazianitzekoei. Kepak dio azokaren batean-edo eman egin ziela zenbait tomate. Miren eta Teok, aldiz, gerora jasoko dugun beste kontakizun bat dute. 90eko hamarkadaren hasieran kokatzen dugu gertakizun hau, eta ahozko memoriak era ezberdinetan osatzen du kontakizuna. Edonola ere, garrantzitsua da noiz, zeinek, zeini, eta zein testuingurutan pasatzen den tomate barietate hau esku batetik bestera, eta hori argi dugu. Kepak Hazianitzekoei eman egin zien 90eko hamarkadaren hasiera hartan, nekazari profesionalak zirelako, eta beraiek onartu egin zuten.

Une honetan, historia honetan berria zaiguna da barietatea zaindu eta iraunarazteko Kepak duen gogo esplizitu hura. Orain arte, barietatea gordetzeko lanak norberak bere baratzean eginak zituen. Haziak edo tomateak ematearen helburua ez zen barietatea bera zaintzea edo gordetzea, elkarrekikotasunean eta dohainean oinarrituta barietatea partekatzea eta gertutasun harreman zehatz batzuk elikatzea baizik. Norbaitek eskatzen zuenean edo soberakinak zituztenean partekatzen zituzten tomateak eta landareak. Orain, aldiz, barietatea bera ondo gorde zezaten eman zizkien haziak edo tomate ale batzuk Kepak Hazianitzekoei. Hau da, hasiera batean behintzat, mesede bat eskatuz eman zien tomate barietatea.


Tomatea Hazianitzekoei eman, baina Kepak jarraitu zuen berean ere tomate hori landatzen. Beraz, bi tokietan bizirik zegoen tomatea -baita aurreko belaunaldikoen baratzeetan ere-, eta Hazianitzen gertatutakoak eragin zuzena izan zuen Keparengan eta Keparen baratzean gertatzen zenarengan. Zehazki, Hazianitzen egindakoak eragin zion zuzenean tomatearen izaera publikoari, eta behin tomateak izaera publikoa hartu zuela, beste baratzeako tomateei eragiten hasi zen. Kasu honetan, tomateari ematen zaion izenari eragin izan dio horrek. Kepak tomate

honetaz hitz egiten duenean, "Aretxabaletako tomateaz" edo "Aretxabaletako Arrosaz" hitz egiten du, eta "berea"z, aldi berean. Onartu du, beraz, gerora jarri zaion izena, eta bere egin du.

Keparekin gaudenean ikusten dugu nolakoa den tomatearekin duen lotura. Estua da, bere-berea sentitzen du tomatea, harro dago horren alde egindako lanaz, eta tomateari etorkizuna, bizitza eta ospea hartzen lagundu izan diola aldarrikatzen du. Lehenik, hazia gordez, eta gerora, Hazianitz baserrikoei horien ale batzuk emanaz. Beste hazi batzuk ere gorde izan ditu, baina tomateaz hitz egiten duenean, bere "kuttunaz" ari dela sumatzen dugu. Argi dago Kepak preziatu, zaindu, eta are maitatu egin izan duela tomatea. Horrela hitz egiten baitzuen elkarrizketa informal batean baratze lanez zein haziak gordetzeko lanez. Maitasunez, mimoz eta zainketaz egin behar diren lanak direla zioen. Hala ere, tomateak toki berezi bat hartzen du bere historian eta baratzean. Alde batetik, ahalegin berezi bat egin du barietate hori gordetzen, beste batzuek bezala baina jauzi kualitatibo bat emanik. Kasu honetan, Hazianitzekoei eman zien unetik tomateari izaera publikoa ematea erraztu egin zuen. Beste alde batetik, keinu horren ostean etorri zitzaion tomateari ospea. Agian Kepak ez zuen hori aurreikusten, edo hori ez zen bere esku erabat egon. Berak esan bezala, "seme independizatu" bezala, bere eskuetatik joan izan denean tomateari gertatu izan zaiona jada ez da bere ardura izan, eta ez du tomatearen historia osoa ezagutzen. Hala ere, tomateak ospea hartzearekin batera heldu zitzaion ospe horren parte bat Kepari, bera izan baitzen hazia eman zuen aretxabaltar hori. Gainera, ikusi dugun bezala, kontatzen den historian Keparen aurretiko pertsonaiek pisu txiki-txikia eta inpertsonala hartzen dute. Hortaz, Kepa agertzen da tomate horren lehenengo "aita" bezala, behintzat guk ezagutu genuen historian. "Adopziozko aita" dela esan dezakegu - funtsean, aita guztiak bezala-, berarengana beste nonbaitetik eta norbaitengandik heltzen baita tomate barietate hau, eta bere egitea eta zaintzea erabakitzen baitu.

Keparen kasuarekin ikusten dugu nola, tomatea bereizten den heinean, bereizi eta nabarmendu egiten diren bere inguruneko pertsonak ere, izen eta izan publikoa hartuz. Keparen kasuan, harro hitz egiten du bere tomateaz, izen ezaguna duen tomateaz, baita tomateak biziraun dezan berak egindako lanaz ere. Kepak berak kontatzen zuen Urdintxaz nola ibiltzen zen herriko plazatik tomateak bistan, harro. Kasu horretan, izenik gabeko edo izen publikorik gabeko tomateak ziren, Urdintxarekin berarekin identifikatzen zirenak. Lotura eta identifikazio zuzena zegoen tomateen eta Urdintxaren artean, izenak berak erakusten duen moduan, eta Kepak kontatutako istorioak berak ere erakusten digun bezala. Hau da, tomateak Urdintxarekin batera agertzen zaizkigu pasarte horretan. Keparen kasuan, aldiz, identifikazioa ezberdina da. Kepak ez dio izena eman tomateari, eta izenak ez dio zuzenean Kepari

erreferentzia egiten. Halaber, izenak izaera publiko eta autonomoagoa ematen dio tomateari. Izaera publiko horrekin batera tomatearen izana eta historia azaltzen da, baita zenbait istorio sortu ere. Horietan Kepa agertzen da protagonista, eta hortik sortzen da kanpora begirako Kepa eta tomate horren arteko lotura. Era berean, Kepak badu urterik urte bere baratzean eta etxean elikatu eta zaindu egiten duen tomate horrekin lotura zuzenagorik. Praktika horien guztien bidez ere zaindu, gorde eta iraunarazi egiten du barietatea Kepak, Hazianitzekoei haziak ematearekin batera.



Irdia 10: Urdintxaren baratzetik Keparen baratzera. Barietatea Aretxabaletan "adoptatua". Egilea: Maddi Zumalabe.

Laugarren belaunaldia. Hazianitz Baserria eta Aretxabaletako Mozkorra

Belaunaldia	Laugarrena
Subjektua eta tokia	Miren eta Teo, Hazianitz Baserria. Antzuola
Izena(k)	Aretxabaletako Mozkorra. Gerora Aretxabaletako Larrosa
Garaia	90eko hamarkadaren hasieran, orain arte
Nola heldu zaie, nola hedatu dute	Keparen eskutik, barietatea gorde zezaten eman zien. Bide askotatik zabaldu dute, azoketan, ekoizleekin, elkarte eta ekimenen bidez, besteak beste

Taula 5: Aretxabaletako Mozkorra eta Hazianitz baserria

2016ko martxoaren erdialdea da, eta gaur Hazianitz Baserria ezagutzen dut. Dagoeneko hainbatek baserri horretako den Teoz hitz egin dit. Teoz hitz egin didan lehenengoetariko bat Eider izan da, sektoreko teknikaria. Berarengana joana naiz tesiaren nondik norakoak azaltzera, kontaktuak pasa eta sektorean kokatzen lagun diezadan. Hainbat ekoizle aipatzen dit. Batzuek aspalditik jartzen dute Aretxabaletako tomatea, beste batzuk duela gutxi animatu dira, eta beste hainbat aipatzen dit bertako barietateak eta haziak gordetzen egiten duten lanagatik. Horien artean, Teoz hitz egiten dit. Alde batetik, jada duela urte batzuk Aretxabaletako Larrosa tomate barietatea ezaugarritzeko eta hobekuntzaren bat txertatzeko zenbait ikerketa, proba eta entsegu egin zen, eta Teok parte hartu izan zuen haietan. Beste alde batetik, Keparekin batera barietatea mantentzen dituenetako bat dela ere esana dit. Kepak berak ere, Hazianitzera joan behar nuela esan nionean azpimarratu zidan Teo ezagutu egiten zuela. Berak eman ziola Teori tomatearen hazia diost. Ekolandare landare ekologikoko mintegian ere hitz egiten didate beraz. Kasu honetan, baina, Teoz bakarrik ez, Mirenez ere hitz egin didate, lehenengo aldiz. Izan ere, Ekolandare proiektukoa den Ione Hazianitzen lanean egondakoa da, eta harremana du beraiekin. Hortaz, ondo ezagutzen du etxaldea, eta badaki Teok bakarrik ez, Hazianitzen Mirenek ere lan egiten duela. Gainera, hainbat elkarrizketatan, batarekin edo bestearekin egon naizenean, Ione eta Mirenek elkarri egin izan diote erreferentzia, lantzean behin egoten direla eta harreman ona dutela erakutsiz. Laburbilduz, Teo etengabe agertzen zait -agerrarazi egiten dute- Aretxabaletako tomatearen historian eta horren inguruko elkarrizketetan. Gehienetan, gainera, bera bakarrik agertu izan zait, Miren baserri horren itzalpean utzirik. Hartara, Hazianitzera noanean ez daukat guztiz argi zer aurkituko dudan eta zeintzuk ibiliko diren bertan lanean.

Hara joateko, lehenago deitu dut Biolur Nekazaritza Ekologikoaren Aldeko Elkartearen webgunean aurkitu dudan telefono zenbakira. Bertan baserriaren helbidea eta kokapena ere topatzen ditut, eta horri esker erraz helduko naiz bertaraino. Webgunean agertzen den telefonoari deituta, gizonarena ematen duen ahotsa entzuten dut, eta berehala Teorekin hitz egiten ari naizela konturatzen naiz. Azaltzen diot gainetik zer egiten ari naizen eta hurrengo asterako hitzordua jartzen dugu, astelehenean. Adostu bezala astelehenarekin agertzen naiz Hazianitz baserrian.

Kotxea herrian utzita, errepidea gurutzatu eta negutegi eta etxe aldera abiatzen naiz. Negutegi artean gizon bat ikusten dut. Teo, pentsatzen dut. Beraz, badakit zein norabide hartu. Negutegiak inguratzen dituen asfaltozko pistatik etxalderantz sartzen naiz. Ezkerrean kotxeak aparkatzeko tokiak uzten ditut. Parean baserria geratzen zait, dotorea eta ondo zaindua. Eskuman, negutegiak ditut. Horien sarreraraino joaten naiz eta motor baten hotsa gero eta indartsuago aditzen dut. Bertan dago Teo, traktorearen gainean. Ustekabean harrapatu izan banu bezala sentitzen naiz, eta apur bat horrela izan da. Ahaztuta zuen bertara joandakoa nintzela. Bakarrik pistatik gora ikusi nauenean gogoratu da. Ni ikusita ere, lanean segitu eta traktorerraino abiatu da.

Ez da saio erraza izango, pentsatzen dut. Ondorioz, txiki egiten naiz, eta horrek are gehiago zailtzen dit egoera. Ea grabagailua ez dudan piztu behar galdetu ostean, zergatik joan naizen galdetzen dit. Gaur, behintzat, ematen du gehiago izango naizela ni elkarrizketatua, bera baino. Bestalde, nire gaurko asmoa ez da berari elkarrizketa bat egitea edo galderak egiten hastea, lehenengo kontaktua egitea baizik. Hau da, zein lan egiten ari naizen eta beraiei zer eskatzen diedan azaltzera etorri naiz batik bat. Hortaz, saiatzen naiz tesiaren nondiko norakoak azaltzen, baina nik neuk ere ez dut guztiz argi, eta ondorioz berak ere ez du gehiegi ulertzen. Hala ere, Aretxabaletako Moreaz jakin nahi dudala esaten diodanean segidan hitz egiten hasten da, tomate hau landatzen nola hasi ziren azalduz. Azkar konturatuko naiz Aretxabaletako Larrosa tomateaz hitz egitea beraien etxaldez eta nekazaritza ekologikoan egin duten ibilbidez hitz egitea dela. Halaber, beraien historiaz eta tomatearen historiaz aritzea, Gipuzkoako nekazaritza ekologikoaz aritzea da.

Horrelakoren batean, haziak nola atera, gorde, erein eta birlandatu eta tomatea nola landatzen duten ikusi nahi dudala esaten diodanean, Mirenekin egon behar dudala diost, berak egiten baitu landareak "repikatze" ¹⁷⁴ eta haziak gordetzeko lana. Handik minutu batzuetara, oraindik berriketan ari garela, Miren bera agertzen da, eta berriz ere berari ematen diot nire lanaren berri.

Mirenekin hitz egiten dudan aldi honetan bailarako hainbat emakumeri erreferentzia egiten dio, Ione eta Goizgorriko Itziarri, adibidez. Kasu honetan, izenez aipatzen ditu, eta ez lan egiten duten baserri edota proiektuaren izenaren bidez, beste askotan gertatzen den bezala. Gainera, kasu honetan, emakumez hitz egiten dit, normalean gertatu zaidan ez bezala. Goizgorriko kasuan, denek plazan dagoen gizonaz hitz egiten didate. Hazianitzen kasuan ere Teoz hitz egin izan didate. Proiektuetan gizonak dauden kasu gehienetan beraiek dira kanporako erreferentzia, eta gizonen arteko sarean ere gehienbat gizonak agertzen dira. Horren erakuslea da Goiko Baserritik Hazianitzeraino tomate barietate honen haziak egiten duten ibilbidea. Goiko baserritik Ubideko baratzerako jauzian bi emakumeren parte-hartzea bada ere, historian gizonak agertzen dira, eta gizonen arteko harremanak dira nabarmentzen direnak. Emakumeekin egotean, aldiz, bestelako sareak eta izenak azaleratu egiten dira.

Mireni zer ari naizen egiten kontatzen diodanean beraietaz zer espero dudan edo zer eskatzen diedan ere azaltzen diot. Zehazki, tomate haziak nola erein, eta landareak nola repikatzen eta birlandatzen egiten dituzten ikusi nahi dudala diot. Agian lan hori gaur bertan egin dezaketela eta

174 Tomate landareak ekoizteko, tokia askotan ohikoa da lana hainbat fasetan bereiztea. Lehenengoz, haziak erein egiten dituzte toki berotsu batean. Haziak ernamundu eta lehenengo bi hostotxoak atera dituztenean aldatu egiten dituzte, oraindik ez lurrera, erretilu batzuetara baizik. Kasu honetan, "aldatu" aditza erabili baino "errepikatu" aditzarekin erreferentzia egiten diote ekintza horri. Repikatuta izan diren landareak handitutakoan, orduan bai, lurrera aldatzen dituzte. Euskaltzaindiaren hiztegian hitza agertu ez den arren, termino hori erabiliko dut tesian zehar, hauxe bera baita lekuan lekuko lanean behin eta berriz erabili dutena, erabili duguna.

horrela ikus dezakedala, geroxeago baina, dio Teok. Miren ados dago. Baina oraindik ez, gauzak egiteke dituzte eta. Teorekin ordua adostu dezadala eta agertuko dela esanez ixten du bere partetik elkarrizketa Mirenek.

Horixe bera egiten dut. Handik ordu batera bertan elkartuko garelakoan agurtzen dut nire arropari begira dagoen Teo. Baratzera joateko moduko arropa ekarri ote dudan aztertzen egongo da? Galdera ikurrarekin herrirantz noa, eta bueltan kotxetik pasako naizela ebasten dut, txamarraren ordeztu artilezko jertse bat hartzeko. Primeran datorkit motz geratzen zaidan ordu hori koadernoan oharrak hartzeko. Izan ere, Miren agertu aurretik Teo jada hasia zait beraien historia kontatzen eta ez dut zenbait datu eta ñabardura ahaztu nahi. Itzultzen naizenean biak daude lanean etxe pareko negutegietan. Bertara sartu eta Mirenekin batera jartzen naiz tipulinei belar txarrak kentzen.

Tipulinen bueltan elkarrizketa konfiantzazko tonua hartzen doa. Mirenek kontatzen dit beraien historia eta tomatearena. Balioa ematen dio egindakoari, eta horrela transmititzen dit. Izandako zailtasunak aipatzen dizkit, eta beraien etxaldea zein sektore ekologikoa aurrera ateratzeko egindako lan eta pausuak ere nabarmentzen ditu. Halaber, tarteka ere nitaz galdetzen dit. Horrelakoren batean "euskaldun berria" naizela ateratzen da solasgai, eta orduan Teok diost Mirenek ere nagusitan ikasi duela euskara, edo behintzat ez dela bere txikitako hizkuntza. Une honetan lehenengo hurbilpen bat sentitzen dut.

Bertan egin beharreko lanak eginda, herriko beste eremu batean dituzten lurretara goaz. Bertan negutegi handi bat dago, eta landareak lurrean landatzeaz gain, ereiteko eta repikatze lanak ere bertan egiten dituzte. Negutegira sartu eta berehala mahai bat eta bi banku daude. Horien atzean azpi-negutegi bat dago, "hazitegia". Ernaldu diren eta erretiluetan jarri dituzten landaretxoak daude bertan, tenperatura negutegi osoarena baino beroagoa baita, estufa batek lagunduta. Hantxe lurraz betetako erretiluak ere uzten dituzte, bertan landaretxoak repikatze prest; horrela lurra epeltzen baita. Hazitegi gelatik kanpo, negutegi osoaren atearen eskuma aldean, erretze-mahaia dago. Itxuraz etxean egina, gerriaren altueran geratzen da mahaia. Lurra azpitik berotzen duten erresistentzia batzuk ditu instalatuta mahaiak beheko partean. Halaber, oihal batekin estalita dago, tenperatura goxatzeko. Mahaiaren gainean zenbait erretilu dago. Horietan, haziak ereiten dituzte. Ernemuinduta daudenean, landareak apur bat hazita baina oraindik txiki eta ahul, porexpanezko erretiluetan birlandatzen dituzte, repikatu, beraien hitzetan.

Baina lanera etorri gara. Hortaz, azpi-hazitegitik erretilu batzuk atera, eta lekak erein ostean tomateak repikatzeari ekiten diogu. Horretarako, erretze-mahaira joan eta bertatik erretilu txikiak hartzen ditugu. Zenbaki eta hizkiz markatuta ditu erretilu horiek Mirenek, horrela bakoitzean zein barietate mota dauden kontrolatu egiten du. Kaieratxo batean jasotzen du noiz eta zer erein duen, eta zenbaki eta hizki horien bidez daki zer den landare bakoitza. Galdetzen diodanean ea zein izen erabiltzen dituen kaierean informazio horiek apuntatzeko, berarentzako idazten duela erantzuten dit; hortaz, berak ulertzeko moduko izenak jartzen ditu barietateak zeintzuk diren jakiteko. Hau da, bertan idazten dituen izenak agian ez dira barietateen izen ezagunak edota azoketan erabiltzen direnak, azken finean zer jartzen ari den berak jakiteko baino ez du apuntatzen. Noizbait erretilu batean zer dagoen ez baldin badaki, erretilu horren landareak bota egiten dituela azaltzen dit. Ez badakite zein barietate landatzera doazen, ez dute landatzen. Antzekoa ikusiko nuen Ekolandaren ere. Han, arrazoi handiagoz, landarea saltzen jarduten baitute. Noizbait zerbait gaizki identifikatuta badute, bota egin behar dute.

Aretxabaletako Larrosa tomate landaretxoak dituzten erretiluak hartzen ditugu eta mahaira goaz. Mirenek dagoeneko ureztatu egin ditu hazitegitik atera dituen porexpanezko erretiluak. Iltze lodi bat ematen dit, eta bera, beste bat hartuta, landareak repikatzen hasten da. Lan hau egin bitartean, berarekin hitz egin dudan lehenengo aldiko giro hotz eta bortitza guztiz ahaztuta, berriketan ibiltzen gara, lasai asko, edozer gairi buruz.

Lan hau eginda, ondoan dudan Teorengana bidaltzen nau. Hantxe bertan dago, eta ernetze-mahairako lurra prestatzen ari da. Turba eta konposta nahasten ditu, biak erosita, ekologikoak. Gero, ernetze-mahaian jarriko dituen erretiluak nahasketa horrekin betetzen ditu. Lurra ez dela zapalduegi egon behar dio, neurrian. Erretilua bete, adreilu batekin zapaldu lurra, eta gutxi gorabehera zentimetro bateko margena uzten du lurraren gainean. Orduan, galdetzen diot neure buruari ea nola dakien lur nahikoa jarri duen eta nahiko zanpatua dagoen. Ez dit azaltzen neurririk, eta ez diot ikusten hori neurtzeko keinurik. Besterik gabe, eginaren eginez, azaltzeko zailak diren eta sentitzen diren jakintza gorpuztu horietako bat izan behar dela ondorioztatzen dut. Lurra prest duelarik, haziak ereiteko unea da.

Orokorrean, beraientzako landarea ekoizten dute. Hau da, gerora beraien baratzte eta negutegietan landatuko dituzte bertan ekoiztutako landareak. Landare horietatik ateratako barazki eta fruituak salduko dituzte gero azoka eta kontsumo taldeetan. Gutxi batzuk, baina, ez dituzte ekoizten saltzeko. Izan ere, tomate barietateen bilduma ederra dute -15 barietate baino gehiago-, eta denak ez dituzte saltzen. Hala ere, denak mantentzen dituzte, eta horretarako erein, landatu eta haziak atera egin behar dira. Piperrena ere bilduma ederra dute, eta berdina egiten dute. Toki ezberdinetatik ekarritako eta emandako haziak dira bertan dituztenak, izan lagun batek emanda, izan bidaia batetik ekarrita, edo dena delakoa. Hazi horiekin historiatxo bat ere gordetzen dute. Mirenek badaki zeinek eta noiz eman dizkion. Edonola ere, landare gehiena beraientzako ekoizten duten arren, barietate zehatz batzuen landaretxoak ere saldu egiten dituzte azokan, eta hau da Aretxabaletako Larrosa barietatearen kasua. Ezaguna da zonaldean eta jendeak nahi du baratzean landatu. Hori dela eta, azokan saltzen dituzten barazkiekin batera, sasoiaren denean, beraien postuan Aretxabaletako Larrosa tomatearen landaretxoak ere aurki ditzakegu.

Tomate landareak repikatuta eta haziak ereinda, gaurko lana eginda dugu. Giroa hozten hasi da dagoeneko, eta martxa egiteko ordua da. Teoren argibideak jarraituta eta lozagia ondo erreta ateratzen naiz negutegi ondoko pistatik, etxerako bueltako bidea hartuz. Azkenean luzea izan da arratsaldea, espero baino askoz gehiago ikusi eta ikasi dut, eta Aretxabaletako Larrosa tomatearen historian kokatuago nago. Bisitaldi honen ostean hainbatetan elkartuko naiz berriz Teorekin. Gehienetan eskualdeko herri bateko azokan, ostiraletan joango bainaiz Ekolandarekoen postura. Halaber, Aretxabaletan 2016tik aurrera egin diren Aretxabaletako Tomatearen Asteen ekimenetara ere gerturatuko naiz, eta bertan ere elkartuko naiz Teo eta Mirenekin hainbatetan. 2016an ni izango naiz Teo entzuten duena. 2017an, aldiz, Miren eta Teo etorriko dira Marc eta biok emango dugun urte horretako hitzaldia entzutera. 2018an, aldiz, Marc eta biok antolatuta, formatu parte-hartzaileago bat ematen diogu hitzaldiari, eta bertara gonbidatzen ditugu beraiek ere, tomateak eraman ditzaten eta beraien historia konta dezaten. Azkenean, nahi baino gutxiagotan joango naiz beraien era, negutegietara, tomateak nola landatu eta zaintzen dituzten ikustera, baina esan bezala, beste une eta espazio batzuetan elkartuko gara.

Lehenengo bisitaldi horretan zein osteko saio eta elkarrizketa formal eta informaletan joan izan nintzen hobeto ezagutzen Miren, Teo, Hazianitz eta beraien proiektua. Lehen esan bezala, beraiekin hitz egitea Gipuzkoako nekazaritza ekologikoaz hitz egitea da, eta beraien historia,

Aretxabaletako Larrosa tomatearen historia ere bada. Teo bertakoa da, baserrikoa. Gazte zelarik hasi behar izan zuen jada amari laguntzen baserriko eta baratzeke lanetan, izan baratzean bertan, izan etxerako edota animaliei bazkarako emateko indabak eta artoa landatzen. Orduan, baina, etxerako ekoizten zuten ia dena, konbentzionalean. Soberakinak bakarrik eramaten zituzten tabernetara edo dendaren batera. Gero Teo etxetik kanpo lanean hasi zen, baina udalarentzako mendian beharrean zegoelarik istripu bat izan zuen. Horren ostean bere jarduna nekazaritzara bideratzen hasi zen. Hainbat ikastaro egin zuen eta ustiatagia martxan jarri zuen 80ko hamarkadaren hasieran. Orduan konbentzionalean egiten zuen eta batez ere uraza ekoizten zuen, *Eroskiri* saltzeko. Ez zegoen bereziki gustura horrekin, oso baldintza txarrak ezartzen zizkielako supermerkatuak, baina horretan zirauen. 1989. urtean Miren eta Teo ezkondu ziren, eta Miren bertara joan zen bizitzera. Teok une hori azpimarratzen du. Izan ere, bere esanetan, Mirenek eraman zuen zenbait kezka eta galdera baserri eta ustiatagi horretara. Adibidez, benetan landareei botatzen ari zen hori jan ote nahi zuen berak galde egin zion noizbait Teori. Mirenek ere umorez hori berretsiko du. Bai, berak eragin handia izan du etxe eta lur horietan egin diren zenbait aldaketatan. Beste pertsonekin izandako elkarrizketetan itzalean dagoen Mirenek espazioa hartzen du Hazianitzen gaudenean.

Ezkondu eta gero hasi ziren ekologikora pasatzeko aukera aztertzen. Horretan zeudelarik, Gipuzkoan nekazaritza ekologikoko ikastaro bat antolatu zen. Hiru etxaldeetan egin behar ziren praktikak, eta beraiek mila metro lur eskaini zuten horretarako. 1990. urtea zen. Orduan hasi ziren sektorekoekin harremanak sendotzen. Ikastaro bukaeran Holandako etxalde bat ezagutzera joateko aukera izan zuten, eta animatu ziren. Holandan posible bazen, beraiek ere ahalko zuten. Hortaz, 1990. urtean bertan hasi ziren ekologikora pasatzeko lehenengo pausuak ematen. Ez zitzairen erraza izan, ordea. Lur arazoak zituzten, horrenbeste urte konbentzionalean jardun ostean, eta bereziki uraza ekoizten ibili ostean. Merkatua ere ez zegoen prest, eta mesfidantzaz hartzen zituen beraien produktuak. Ferian, saltzaile lanaz gain, pedagogia lana ere egin behar izan dutela diote.

Lehenengo urteotan ekoizpen ekologikoa bertan behera utzi edo ez zalantza egin zuten arren, pixkanaka-pixkanaka beraien tokia egin zuten. Horrekin batera, Gipuzkoako eta EAEko nekazaritza ekologikoko sektorea eratzen joan ziren, eta eratu egin dute. Horretan gakoa da Teoren figura, eta horrela azpimarratzen du Mirenek. Azkenengo horrek karpetak eta albumak ditu sektoreko une gakoaren informazio, albiste eta argazkiekin. Teo eta Hazianitz horien protagonistak izan dira. Esaterako, Teo Biolur elkarteko lehenengo lehendakaria izan zen, baita Ekonekazaritzarena ere. Lehenago iradoki bezala, aitortza hartzen duten ekimenetatik at

geratzen da Miren, protagonismoaren eta plazatik kanpo dagoen "des-plazatutako gorputza" (González Abrisketa 2013). Historiaren protagonista ez, eta historia horren zaintzaile agertzen zaigu, memoriaren subjektu ikusezin bezain garrantzitsu.

Oraindik izen hori ez zuenean Aretxabaletako Larrosa tomatea heldu zitzaien baserrira nekazaritza ekologikoarekin batera. Tomate hori bilakatuko zen etxean gordeko zuten lehenengo barietate, praktika bati eta hainbat hazi eta barietateri bidea irekiz. Teoren esanetan, beraien lurretan 1990. urtean egin zen nekazaritza ekologikoko ikastaro horren baitan ezagutu zuten Kepa. Orduan oraindik irakaslea zenak izena emanda zuen ikastaroan eta Hazianitzen egin ziren saioetara joan zen. Bertan elkar ezagutu eta tomateaz hitz egin zien, horren zaintzaz arduratu eta kontserbazioa ziurtatu zezaten.

Tomatea heldu zitzaien, esan bezala, eskaera zehatz batekin: gorde zezaten. Ez zekiten, baina, tomateak bazuela beraiei zer eskaini. Beraien kontakizunean gauza argi bat eskaini zien tomateak, beraiei zein sektore ekologikoari hobeto esanda: bereiztea, nortasun propio bat eraikitzea, eta kanpora proiektatzea. Orduko hartan tomate horrek berezitasun nabarmen bat zuen: kolorea. Orduan ez zeuden egun ezagutzen ditugun more guztiak, eta euskal merkatuan tomate laranjak ziren nagusi. Hortaz, tomate horrek zerbait ezberdina egiteko aukera eman zien, edota, beste modu batez esanda, zerbait ezberdina egiten ari zirela adieraztea ahalbidetzen zien. Konbentzionaletan egiten zutenetik bereizi egin behar zuten, eta tomate horrek eman zien horretarako aukera. Beraien zutoihal bilakatu zuten tomate hura, eta hori lantzen eta gordetzen indarrak jarri zituzten. Gerora, bestelako tomateak ere landatu eta gorde izan dituzte, baita ezagun bilakatu ere, baina Aretxabaletakoarekin berebiziko lana eta ahalegina egin zuten hastapen horietan.

Badirudi beraiek zaindu behar zuten hori, delikatu eta zaugarri zen hori, beraiei mesede bat egitera joan zitzaiela, zeinek laguntzen zion zeini kolokan jarri. Izan ere, elkar egin, babestu eta indartu egin dute. Esaterako, Hazianitz bereizi nahi bazuten tomate horren bidez, ezinbestekoa zen tomatea bera ere bereiztea; hots, tomateari izaera eta nortasun bat ematea. Horrek atera zuen tomatea anonimotasunetik eta horrek eman dio gerora hartu duen ospe eta hedapena. Horretarako, baina, oso garrantzitsua izan zen ekintza txiki bat: tomateari izena ematea. Teok berak azpimarratzen du beraiek izan zirela tomateari izena eman ziotenak, bitan gainera. Hasiera batean "Aretxabaletako Mozkorra" izena jarri zioten, kolore moreagatik. Erakargarri zelakoan jarri zioten. Koloreak jada tomatea bitxi egiten zuen, eta izen horrekin bitxitasun hori elikatu egiten zuten.

Izen hori zabaldu egin zen, eta gaur egun oraindik jende askok horrela ezagutzen du. Adibidez, 2013an INTIAk, Nafarroako Nekazaritzako elikagaien Teknologia eta Azpiegituren Institutuak¹⁷⁵, egin zuen erregistroan ere horrela dago erregistratuta, baina gazteleraz: "Borracho de Aretxabaleta"¹⁷⁶. Hala eta guztiz ere, izena jarri eta urte batzuetara Kepak eskatu zion Teori izena alda ziezaiola tomateari. Omen, Aretxabaletako herrian hasiak ziren bera izen horrekin izendatzen, eta ez zuen gustuko. Beraz, herriko mozkorra izendatua izatea gustuko ez, eta eskatu zuen izendatzeko modua alda zezatela. Orduan Aretxabaletako Larrosa jarri ziotela kontatzen du Teok, hitz joko bat eginez. Alde batetik, koloreari erreferentzia egiten zioten. Bestetik, Antzuolan izendatzen duten moduan, arrosa loreari ere erreferentzia egiten zioten. Tomatea jada ez zen -bakarrik- Aretxabaletako tomatea, Aretxabaletako Larrosa, lore preziatua, bilakatu zuten izen horrekin.

Izena emanda eta azoketan salduz, tomateari ikusgaitasuna eta nortasuna ematen hasi ziren, baita tomatea beraiei ere. Urte batzuk pasata, 2000. urtearen bueltan hasi ziren Ekonekazaritza elkartetik bertako barietateekin zein barietate komertzialekin entseguak egiten, nekazaritza ekologikora egokitzen eta ondo ematen ziren barietateak topatu nahian. Ikerketa horien baitan Aretxabaletako Larrosarekin egin zen zenbait proba eta dasta, eta Hazianitzek parte hartu zuen horietan, Teok hain zuzen. Geroxeago, Neikerrekin batera egingo zen hobekuntzan ere parte hartu zuen Teok berak. Hortaz, hasiera horretatik aurrera ere jarraitu zuten tomatea hedatzen, definitzen eta zedarritzen, tomateari nortasun zehatz bat ematen, alegia. Urte horietan ere harremanetan ibili ziren bestelako ekoizleekin eta sortzen ari zen Gipuzkoako lehenengo landare ekologikoko mintegiarekin.

Behin tomateari izena emanda eta publiko eginda, zabaltzeko garaia etorri zen, eta fase honetan Teo eta Hazianitzen esku-hartzea ezinbestekoa izan zen osterera ere. Baina hitz egingo dugu honetaz aurrerago. Lehenengo une honetan, lehenengo trantsizio fase honetan gehien nabarmendu nahi duguna da anonimotasunetik atera zutela tomatea: izena eman ziotela, beste tomateetatik bereizi egin zutela, merkatuan toki bat eman ziotela, eta sare eta harreman formal eta egituratuagoen bidez zabaldu egin zutela.

175 INTIA gaztelerazko siglengatik, Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias. Lehenago ITG izan zen.

176 Ikus: <<https://www.mapa.gob.es/app/regVar/DetalleVariedad.aspx?id=es&TipoV=C&IDVariedad=20130181>>. [Azkenengo ikustaldia: 2020/07/10].

Laburbilduz, Keparen baratzean eta Hazianitz baserrian gertatutakoak tomate honen historian trantsizio bat eragin zutela proposatzen dut. Izan ere, anonimotasunetik atera eta barietateari aitortza publikoa emateko bidea ireki zuten Kepa, Miren eta Teok. Azaldu bezala, 80ko hamarkadan zehar Goiko baserriko eta Ubide auzoko baratzeetatik Aramaio eta Aretxabaletako herrietara zabaldu zen tomate barietate hau, beti ere gertuko sare eta harreman informalen bidez. Orduan, izenik gabeko "betiko" bertako barietatea zen hura, izen finkorik gabekoa eta aitortza publiko eta egonkorrik gabekoa. Kepak Hazianitzera eramateko eginiko keinuak barietateari izena hartzeko eta "bertako barietatea" kategorira irabazteko aukera ireki zion. Kepa, Miren eta Teo giltzarriak dira historia honetan, belaunaldi eta egiteko modu ezberdinen arteko zubia dira, eta tomatearen historia eta izaera iraultzen dute.

Kepak -baita berarekin batera Patxik ere- bi mundu josten ditu, tomatea bi mundu horien artean kokatu, eta horien arteko hari bilakatu egin du. Alde batetik, gertuko harreman informaletatik, harreman egituratuagoetarako eta merkaturako jauzia ahalbidetu du berak, baita Miren eta Teok ere. Tomate barietateak jarraituko du sare eta harreman informalen bidez mugitzen, baina aipatutako beste horietan ere sartua egongo da une horretatik aurrera. Beste alde batetik, bestelako jakintza tekniko eta formalagoak ere sartuko dira hortik aurrera, tomatearen landaketan, zaintzan, ugalketan eta hautaketan, besteak beste. Halaber, azkenengo horrek tomatearen ezaugarriak definitzeko eta tomateak hautatzeko bide zurrunago eta zehatzagoak ezarriko ditu. Hortaz, izena ematearekin batera, tomatearen ezaugarriak gero eta gehiago definitzen, mugatzen eta zaintzen joango dira, horren nortasuna finkoago eta definituago ezarriz. Hala ere, esan bezala, "betiko" baratzeetan ere jarraituko dute "beti bezala" barietatea zaintzen eta haziak gordetzen, barietatearen nortasuna era irekiago batez erreproduzitzen. Azkenik, tomatea ezaguna egin eta aitortza irabazten joango den heinean, bailarako mugetatik harago ere bidaiatuko du, ordura arte egindako mugimenduak esponentzialki biderkatuz. Kontraesankorra suertatu ahal bada ere, barietatea bailaratik kanpora zabaltzearekin batera, bailararekin eta zehatzago Aretxabaletako herriarekin lotuko da, izenak horrela ezarrita, eta bestelako praktika eta ekimenen bidez lotura hori indartuta.

2. Fasea. Aretxabaletako (mozkorra/larrosa/morea) tomatea Gipuzkoan ezaugarritzen, landatzen, errotzen eta zabaltzen. Subjektuen dibertsifikazioa 2000ko hamarkadan zehar

Aretxabaletako Larrosa tomatea Hazianitz baserrira ailegatu eta hurrengo urteotan ezaguna egiten hasi zen. Azoketan saltzen zuten, landarea ere saldu egiten zuten, eta inguruneekin partekatu egiten zuten, besteak beste. Tomatearentzako merkatu bat eratzen hasi ziren eta gero eta onarpen handiagoa zuen. Halaber, 90eko hamarkadaren bukaeran bertako bariedade eta landutako bioaniztasunaren inguruko kezka pixkanaka-pixkanaka zabaltzen hasi zen, estatu mailan zein Euskal Herri mailan. Nekazaritza ekologikoa eta Gipuzkoako sektore ekologikoa ere eratzeko bidean zeuden, eta horren inguruan jarduten zuten elkarteak agertzen eta sareak sortzen hasi ziren. Nekazaritza ekologikoak eta barazkigintza ekologikoak zituzten erronken artean, bariedade eta hazi ekologikoak lortzea zegoen, eta horri begira jarri zen lanean zenbait eragile. 2000ko hamarkadan zehar, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako nekazaritza ekologikoko elkarteak batzen zituen Ekonekazaritza elkarteak izan zen lan horien sustatzaile nagusienetako bat. Horrek bultzatutako entsegu eta frogetan, baina, askotariko subjektuek parte hartu zuten: ekoizleak, mintegiak eta ikerlariak, besteak beste.

Ikusiko dugun bezala, bariedade eta hazi ekologikoak eskuratzeko eta ezagutzeko proiektu horietan Aretxabaletako Larrosa nabarmentzen joan zen. Hortaz, eskuz esku pasatzen jarraitu zuen. Orain jadanik baratzezainen eskuetatik soilik pasatu ez, eta mintegi, teknikari eta ikerketa-zentroen eskuetara ere ailegatu zen. Une honetan bariedadearen hedapen horizontalari begira jartzen gara jada. Lehenengo fase eta trantsizioan hari genealogiko bat jarraitu dugu, eta bariedadeak etxez etxe hurrenez hurren nola bidaiatu duen ikusi izan dugu. Bigarren fase honetan, aldiz, genealogia horizontalari behatuko diogu.

Bestalde, orain arte etxalde, baserri edota baratzeetan kokatu dugu tomatea, eta bertan egin izan dute hori landatzeko eta ugaltzeko lana. Bigarren fase honetan, aldiz, subjektuen dibertsifikazioarekin batera ekoizle edo baratzezainak ez direnak ere sartzen dira historian, eta horiek beti ez dute bariedadea ugaltzeko eta zaindu. Hau da, adibidez, Ekonekazaritzan lan egiten duen eta bariedadeen inguruan entseguak bultzatu eta gauzatzen dituen Lauraren kasua. Berak egindako lanaren ondorioz zabaldu egin da bariedadea, eta landatu eta gorde izan da hainbat baratzeetan. Edonola ere, bera ez da izan bariedadea landatu eta gorde duena. Laurarekin bezala, beste hainbat subjektuekin ere antzera gertatzen da.

Horrenbestez, fase honetan parte hartzen duten subjektuez hitz egitean belaunaldi berriez baino, belaunaldi bereko lerro genealogikoez hitz egingo dut. Bestalde, esan bezala, subjektu guztiek ez dute lan berbera egin barietatea mantentzen eta haziak gordetzen. Areago, zenbait kasutan hazia bera ez dute atera eta gorde izan. Hortaz, pentsa genezake ez dutela esku-hartze zuzena izan ugalketan eta ezin ditugula lerro genealogikotzat hartu. Hala eta guztiz ere, horrela aurkeztea erabaki dut, pertsona horiek barietatearen ugalketan eta hedapenean erabateko eragina izan baitute.

Bostgarren belaunaldia-A. Ekonekazaritza, bertako barietateak definitzeko eta zabaltzeko ahalegina, eta Aretxabaletako Larrosa tomatearen ezaugarritzea

Belaunaldia	Bosgarrena - A
Subjektua eta tokia	Ekonekazaritza eta Laura. Neiker eta Pako
Izena(k)	Rosado de Aretxabaleta edo Aretxabaletako Mozkorra
Garaia	2000ko hamarkada
Nola heldu zaie, nola hedatu dute	Antzuolatik, Hazianitzetik. EAEko baratze ekologikoetara

Taula 6: Ekonekazaritza eta barietateekin entseguak

90eko hamarkadan zehar EAEn eta Gipuzkoan nekazaritza ekologikoaren oinarriak jartzen hasi ziren eta sektore ekologiko bilakatu eta izendatuko zenaren hazia erein zen urte horietan. 1994 eta 1995. urteen artean Ekonekazaritza eratu eta Eusko Jaurlaritzako elkartean erregistroan erregistratu zen. Ekonekazaritza EAEko nekazaritza ekologikoaren elkartean federazioa izan da, eta lanean jardun zuen 2009. urtean *ENEK* martxan jarri arte. Teo elkartearen sustatzaileetako bat izan zen, baita horren lehendakaria ere. 3. Atalean azaldu bezala, nekazaritza ekologikoaren aitortza eta hedapenaren alde lan egin zuen Ekonekazaritzak.

Azaldu bezala, lehenengo urte horietan nekazaritza ekologikoa bultzatu eta hedatzeko lan egin zuen Ekonekazaritzak. Horretarako, nekazal teknika eta teknologiak probatu eta hobetzeko, baita euskal testuinguruan egokitzeko ere, lan eta entseguak bultzatu zituen elkarteak. Entsegu horien artean, lan handia egin zuten EAEn eta ekoizpen ekologikora egokitzen ziren barietateak probatu, ezagutu, ezaugarritu eta hedatzeko. Hasiera batean entsegu horiek batez ere barietate komertzialekin egin bazituzten ere, bertako barietateei gero eta garrantzi

handiagoa ematen joan ziren, eta hor sartzen da Aretxabaletako Larrosa tomatea. Esan bezala, barietateen auziak garrantzi bikoitza zuen sektore ekologikoan. Alde batetik, euskal testuingurura eta ekoizpen ekologikora egokitzen ziren barietateak behar ziren. Bestetik, ekologikoan erabiltzen ziren hazi eta landare gehienak era konbentzionalean ekoizten ziren orduko hartan, eta ahalik eta gehienak ekoizpen ekologikotik etortzeko ahalegina egin nahi zuten eta egin behar zuten.

Ekonekazaritza barietateekin entseguak egiten hasi eta gutxira heltzen da elkartera Laura Laredo. Entsegu horiek burutzen jarduten zuen langileak lanpostua utzi eta Laura sartu zen bere ordean 2001. urtean. Proiektuak, gutxi gorabehera, bi urte lehenago jarri ziren martxan, Laurak gogoratzen duenaren arabera. 2001. urtetik 2009. urtean elkarte desegin arte jardun zuen bertan Laurak, eta bertan egin zuen lanagatik agertzen zaigu Aretxabaletako Larrosa tomatearen historia honetan. Tomatearen inguruan kontatzen den historian maiz pertsona gutxi batzuek egindako lana azpimarratzen da, sinplifikatze aldera-edo. Horiek dira historian toki nabarmena hartzen dutenak. Horien artean Kepa eta Teok hartu izan dute tokirik nabarmenena entzun ditudan historia gehienetan. Hala ere, beraien ondoan, batzuetan beste pertsona batzuk ere agertu izan dira, tarteko emakumeren bat. Horietako bat Laura da, Laura Laredo, izen eta abizenaz ezagutu eta aipatzen duten nafar hori. Kontatzen den historian agertzeaz gain, gutxitan izan bada ere, pertsona ezberdinekin hitz egin dugunean ere agertu izan da Laura. Eider teknikariak, Miren eta Teo beraiek, maitasunez -"Laura es una amiga"¹⁷⁷ esanez-, eta Landarpilakoek, besteak beste, hitz egin didate beraz. Kasu guztietan azpimarratu dute sektorearentzat oso onuragarria izan zela barietateekin eta bereziki bertakoekin Laurak egin zuen lana. Aitzitik, Laurarekin Aretxabaletako Larrosa tomatearen historian egindako lana nabarmentzen dugunean lotsatu egiten dela ematen du, berak "egin beharrekoa baino ez" egin balu bezala.

Kepa, Miren eta Teorekin gertatu bezala, tomatearen historia aipatzen dugunean azkar erantzuten du berak ez duela hori gehiegi ezagutzen. Berari Teok eman ziola, Kepaz zerbait ere badakiela, baina aurreko historiaz ezer ere ez. Hau da, barietatearekiko interesa izan zuen ez horrenbeste horrek jada zuen historiagatik, bere ezaugarriengatik baizik; ondo ematen zen, ondo egokitzen zen bertako baldintzetara, eta jendeak harrera ona egiten zion.

Esan bezala, entsegu horietan bertako barietateek gero eta pisu nabarmenagoa hartu izan zuten. Kontuan hartu behar dugu 2000ko hamarkadaren hasieran gaudela. 2000. urtean ospatu

177 "Laura lagun bat da".

zen estatu mailan lehenengo aldiz landutako bioaniztasunaren azoka, estatu mailako Hazien Sareak antolatuta. Urte bat beranduago, 2001. urtean, urte batzuk lanean egon ondoren eratu zen ofizialki EAE mailan lan egiten duen Hazien Sarea. Hortaz, bertako barietateen inguruan eta landutako bioaniztasunaren inguruan hasiak ziren ekintzak, ekimenak eta taldeak mugitzen, eta garai hartan hasten dira Ekonekazaritzan eta Biolurren gaiari ere garrantzia ematen. Zehazki, 1999. urtean hasi ziren Ekonekazaritzan gaiari benetan zentralitatea ematen. Hasiera batean, EAEn Nekazaritza Ekologikorako hazi eta landareak eskuratzeko estrategia taxutu zuten. Estrategia horren barruan garrantzia handia eman zioten EAeko nekazal testuingurura eta ekoizpen ekologikora egokitzen ziren barietateak aurkitzeari.

Entsegu horiek Ekonekazaritza desegin arte egin zituzten, Laurak bultzatuta. Lehenengo urteotan, esan bezala, barietate ezberdinak probatzen eta ezaugarritzen jardun zuten. 2002. urterako bertako barietate batzuk sartu zituzten. Tomateen kasuan bereziki nabarmentzen ziren bertakoak, ekologikoan zeuden tomate barietate komertzialak ez baitziren egokitzen bertako gustura. Jarritako bertako barietateen artean, batzuk nabarmentzen joan izan ziren: besteak beste, Pikoluze tomatea, Aretxabaletako Larrosa tomatea, eta Erandioko Zapala tomatea.

Lehenengo lan horiek egin ostean, uraza espeziearekin eta bi tomate barietateekin hobekuntza genetikoa egitea erabaki zuten. Tomateen kasuan, Erandioko Zapala eta Aretxabaletako Larrosa tomateekin egin zuten. 2005. urtean hasi ziren hobekuntza lan horiek, eta lau urtetan zehar egin zituzten Aretxabaletako Larrosarekin. Bereziki bilatu zuten ipurdian ateratzen zaion orbana txikitzea. Mildiuarekiko erresistentzia ere landu nahi izan zuten, baina Hazianitzen egin zituzten entseguak, eta bertan negutegian ekoizten zuten. Hortaz, ez zuten bereziki bilatu erresistentzia hori, hori negutegitik kanpo egin beharko baitzen. Hobekuntza lan honetan, barietatearen barruan azpitaldeak sortu zituzten, "familiak" edo lerro genealogikoak, horien artean onenak identifikatu eta hautatzeko asmotan. Lerrorik onenak hautaturik, horien barruan tomate onenetako haziak atera zituzten. Bukaeran, hiru lerro edo familia nabarmendu ziren, eta horien artean onena izan zitekeena jaso zuten, seigarrena. Neikerren 61 zenbakiarekin identifikatuta dute Aretxabaletako Larrosa tomatea. Hortaz, 61/6 da gehien nabarmendu zen familia hori. 2016. urtean Neikerreko negutegietan behaketak egiten egon nintzenean familia horrekin lan egiten zutela ikusi nuen.

Esan bezala, entsegu horietan balorazio onak izan zituzten barietateetako bat Aretxabaletakoa izan zen. Ekoizpenari dagokionean, nahiko emaitza onak zituen. Ez zuen Jack bezalako hibrido batek bezainbeste ematen, baina nahikotxo ematen zuen, eta hibrido ekologikoen

antzeko ekoizpena zuen. Egin izan ziren dastetan ere nahiko balorazio onak izan zituen. Hasiera batean zaporeak ez zituen beti balorazio onak izaten, merkatua Jack eta tomate laranjen gustuari egina baitzegoen eta Aretxabaleta bezalako arrosek zapore goxoagoa izaten baitute. Hala ere, urteekin gehiago baloratzen joan da ezaugarri hau. Okela eta testura, aldiz, hasieratik izan ziren baloratuak tomate barietate horrengan. Hibridoen ondoan, azal finagoa zuen eta haragitsuagoa zen. Tamainari dagokionean ere baloratua zen, bereziki Gipuzkoan. Izan ere, tamaina handia du.

Esan behar da entsegu horietako askotan Jack ere jartzen zutela, testigu gisa. Ordurako jada tomate nagusia zen euskal nekazaritzan, eta tomate onaren neurria horrek ezartzen zuen. Laurak azpimarratzen du berriz ere tamainaren garrantzia Gipuzkoan. Jack handia da eta horregatik zen baloratua, besteak beste. Horren ondorioz, Ekonekazaritzan egin zituzten entseguetan kalibratzeak garrantzi handia hartu izan zuen. Barietate batek ekoizpena ona bazuen baina tomate gehienak kalibre txikikoak baziren, barietatea ez zen oso ondo baloratzen. Tamainaren arabera tomateek balio bat edo bestea izaten zuten.

Entsegu horietan sektoreko askotariko subjektuek parte hartu zuten. Lehenik eta behin, proiektuak bultzatu zituen Ekonekazaritza bera dugu. Horrekin batera, zenbait lanetan Neikerrek ere parte hartu izan zuen, bereziki Pakok. Pako Hazien Sarean egon zen hasiera batean, eta gerora Neikerren jardun izan du Germoplasma-Bankuko arduradun, besteak beste. Proiektu horien bueltan Hazien Sarearekin ere harremanetan ibili ziren, eta Laurak elkarte horren bileretan parte hartzen zuen. Bestalde, zenbait ekoizlerekin ere harreman estua izan zuten proiektu horien baitan. Izan ere, nonbait egin behar ziren entseguak, eta ekoizleen etxaldeetan egiten zituzten. Horrez gain, ekoizleei begirako proiektuak ziren, hortaz, ekoizleen inplikazioa eta onespena beharrezkoak ziren proiektuak baliagarri eta eraginkorrak izan zitezten. Probak Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan egin nahi izan zituzten, geografia eta kultura ezberdinetan probatzeko. Gipuzkoan, besteak beste, Hazianitzen egin zituzten entsegu horietako asko. Proiektu horietan azkenengo subjektu gako bat sartu zen jokoan 2000ko hamarkadaren erdialdean: Landarpila mintegia.

2006. urtean jarri zuten martxan Landarpila, Gipuzkoako landare ekologikoen lehenengo mintegia. Laurak gogora ekartzen du hori baino lehenago Nafarroara joan behar zutela proiektuetarako landare bila. Horrenbestez, Gipuzkoan Landarpila mintegia martxan jarri zutenean oso lagungarri suertatu zitzaion Laurari. Haziak ereiten zirenetik landareak landatzeko moduan egon arte hainbatetan pasa zitekeen mintegitik, eta horrela barietateen

jarraipena egin eta zenbait neurri har zezakeen. Bestalde, hasiera horretan mintegiaren burua zen Iosunerekin oso harreman ona sortu zuen, eta horrek landareen ekoizpen-prozesuan zehar zenbait datu jasotzea errazten zion.

Gaur egun Landarpilaren aurpegi publikoena Ibon da, eta azkenengo urteotan mintegia ezagutu duenak bera hartzen du erreferentziatzat. Hala ere, lehenengo urteotan Iosune izan zen proiektua martxan jarri eta bultzada eman ziona. Hortaz, hasieratik proiektua ezagutu dutenek beraz hitz egiten dute gehiago, Ibonez baino. Eta hau da Lauraren kasua. Berriz ere, estimuaz hitz egiten du Iosunez, horrek egindako lanez, eta bien artean sortutako sinergieiz. Bertan entseguetarako landareak ekoizteaz gain, salmentarako landareak ere ekoizten ziren. Hortaz, entseguen emaitzei hedapen zuzena emateko toki hobeezina zen. Izan ere, entseguetan ondo ateratzen ziren landareak bertan landatzen baziren, bertara joandakoek ezagutu ahalko zituzten.

Baina elkarlan hori ez zen soilik baliagarria eta aberasgarria izan Laura eta Ekonekazaritzako proiektuentzako. Lauraren esanetan, Iosune ere oso eskertuta omen zegoen elkartetik egindako lanaz. Izan ere, mintegia martxan jartzen ari zen horretan oso ondo etortzen zitzaizkion elkartean egiten ari ziren entseguak. Horiekin barietateak ezagutu eta ezaugarritu egiten zituzten, eta aholkularitza egiten zioten hasi berria zen Iosuneri. Halaber, Ekonekazaritzako proiektuetan bertako barietateekin ahalik eta gehien jarduten ahalegindu ziren, eta horien bidez ere heldu ziren bertako barietateak Landarpila mintegira.

Ikusten dugunez, sektoreko agente mota ezberdinak inplikatu ziren proiektuetan. Horrek entsegueri indarra eman zien. Izan ere, agente horiek proiektua ezagutzen zuten eta horren emaitzekiko atxikimendua zuten. Hortaz, emaitzak agente horien bidez errazago zabaldu zitezkeen eta horrela entsegua eraginkorragoa zen. Zentzu honetan, bertan probatu eta baloratu ziren barietateak errazago zabaldu ziren ekoizleen artean.

Laburbilduz, entsegu horiek eragin handia izan zuten bertako barietateen eta Aretxabaletako Larrosa bertako tomate barietatearen zabalpenerako. Alde batetik, izena jada jarrita bazuen ere, tomatearen izena zabaltzen lagundu zuten lan horiek. Bestetik, nekazaritza ekologikoaren zirkuituan jarri zuten tomatea. Izan ere, ekoizleen artean zabalpena eman zioten. Hortaz, hortik aurrera handitzen joan zen barietate hau landatzen zuen ekoizle kopurua, eta horretan bestelako faktore, sare eta harremanek eragin bazuten ere, entsegu horiek horretan asko lagundu zuten. Gainera, ekoizle horietako batzuek tomateak landatu ez ezik, haziak gorde eta

beraiek landareak ekoiztera ere animatu izan dira. Hortaz, barietatea gordetzeko eta ugaltzeko guneak eta subjektuak ere biderkatu egin dira. Halaber, kontsumitzaileen artean ere zabaltzen lagundu zuten lan horiek, bereziki egin ziren dasten bitartez. Azkenik, ikusi bezala, mintegietan ere toki bat ireki zioten. Hasiera batean Landarpilan egon ziren, eta gero beste batzuetan ere egon da, eta horietara heltzen badira barietate batzuk, baratzetara bidaiatzea errazagoa dute. Hortaz, besteak beste mintegietan eman zitzaion -eta zaion- presentziari esker barietate horren landaketa eta ugalketarako toki potentzialak biderkatu egin ziren entsegu horien ondorioz.

Beste alde batetik, lan horietako askoren helburua barietateak ezagutzea eta ezaugarritzea izan zen. Hortaz, Aretxabaletako Larrosa hobeto ezagutzeko ere baliagarriak izan ziren. Horren ondorioz, barietatearen barruan zenbait linea edo familia hautatu zen, baita zenbait hobekuntza egin ere. Horrenbestez, barietatearen barruan dagoen heterogeneotasunaren baitan zenbait irizpideren arabera joan ziren tomateak hautatzen barietatea ugaltzeko. Hau da, barietatea hobeto ezagutzearekin batera, gehiago kontrolatu eta bideratu zuten, ekoizpen eta kontsumo irizpide zehatz batzuetara egoki zedin. Entseguen txostenak irakurtzean kontrol hori sumatzen dugu. Zenbakietan tomatearen ezaugarriak jasotzen dira, neurri zenbakarri bidez jasotzen dira ezaugarriok, eta zerbait oso zehatza bilatzen da tomate horietan. Tomateetara gerturatzeko era aldatu egiten dela ikusten dugu.

Azkenik, ugaltzeko modua edo zirkuitua ere eraldatu egiten da. Ordura arte, barietatea eskuz esku pasatzearekin batera, zenbait baratzetan geratu egiten zen, eta bertan barietatea gordetzeko lan guztiak egiten zituzten: haziak atera, gorde, erein, landatu, fruitua ekoitzi, eta berriz ere hazia atera. Hau gaur egun ere gertatzen da, eta lan hori egiten duten etxaldeak biderkatu egin dira. Hala ere, barietatea lortzeko bestelako bideak ere agertu dira. Mintegietara heldu den unetik, askoz baratze gehiagoetara hel daiteke barietatea, eta horrek bere zabalpenean eragin zuzena du. Ordea, horietako askotan ez dute bertan hazia ateratzen eta landarea ekoizten; horren ordez, urtero mintegira joaten dira. Bestalde, mintegietan ez dira ailegatzen beraientzako haziak ekoiztera. Hortaz, ekoizleei edo gertuko baratzezainei eskatu behar diete hazia beraientzako ekoizteko. Horrenbestez, hazia ekoiztu eta ugaltzeko prozesua zatikatuta agertzen zaigu.

Bostgarren belaunaldia-B. Landarpila mintegia. Aretxabaletako Larrosa tomatearen landareak Gipuzkoatik -eta harago- sakabanatzen

Belaunaldia	Bostgarrena-B
Subjektua eta tokia	Landarpila mintegia. Iosune eta Ibon
Izena(k)	Borracho, Mozkorra edo Rosado de Aretxabaleta
Garaia	2006tik aurrera
Nola heldu zaie, nola hedatu dute	Ekonekazaritzarekin harreman estua. Azoketan eta mintegian bereziki

Taula 7: Landarpila mintegia

Dagoeneko aipatu dugu Landarpila mintegia 2006. urtean sortu zela Gipuzkoan, eta EAEko landare ekologikoko lehenengo mintegia izan zela. Orduan Iosune zen horretan buru-belarri ziharduena, handik gutxira lanean sartuko zen Ibonen babesarekin. Esan bezala, hasi zirenean mundu berri batean sartu ziren. Hortaz, Laura eta Ekonekazaritzarekin harremanetan egoteak asko lagundu zien, batez ere zeuden barietateak ezagutzeko eta zer ekoitzi erabakitzeke. Laurarekin sortu zuten harreman horri esker ere ia hasiera-hasieratik bertako zenbait barietate mintegira heldu zen. Egun, aldiz, duen aniztasunagatik ezaugarritzen da mintegia, besteak beste. Berak adierazi lez, ume bat bezala pasatzen du Ibonek barietateen munduan sartzen denean. Berriak ezagutu, probatu, eman... gustuko du.

Ibonekin Aretxabaletako Larrosa tomatearen inguruan hitz egitean, horrek hartu duen ospearen "erruaren" parte txiki bat berea dela adierazten du. Izan ere, mintegiaren hasierako urteetan azoka askotara joaten ziren. Lau edo bost urteotan, "azokak non, hara Iosune eta Ibon" ibili izan ziren. Proiektuari ikusgaitasuna eta landareari irteera eman behar zieten, eta azokak horretarako aukera proposa ziren. Zer zeukaten erakutsi behar zuten, eta Miren eta Teok egin bezala, jendea hezi ere egin behar izan zuten.

Eramaten zituzten landareen artean Aretxabaletako Larrosa tomatea ere eramaten zuten. Orduko hartan oraindik erabiltzen zuten Aretxabaletako Mozkorra izena, Larrosarekin batera. Tomate arrosa batek jada arreta deitzen zuen, eta izen horrekin, are gehiago. Hortaz, azoketan ere tomatea ospea hartzen ikusi zuten. Jendeak eskatu egiten zien. Gainera, mintegiaren hasierako urte horietan herrietako azoketara joateaz gain, bestelako bideak ere landu zituzten euren burua ezagutarazteko. Esaterako, BioCultura eta Bioterra¹⁷⁸ bezalako azoka handietara

178 Bi azoka hauetan produktu eta proiektu ekologikoak aurkeztu egiten dira. EAE mailan erreferentzia dira sektore ekologikoko edonorentzatko. BioCultura Barakaldoko BECen egiten da, eta Bioterra Irungo Ficoban.

ere joaten ziren. Hortaz, euskal mundu ekologikoaren erakusleihen handietara ere eraman izan zuten tomatea. Halaber, sektoreko aldizkarietan ere agertu ziren, eta horietan ere eman zioten ikusgaitasuna tomateari.

Kasu honetan, Hazianitzen gertatu bezala, proiektuak ikusgaitasuna hartzen duen heinean tomateari ere ematen dio. Eskutik helduta garatzen dira proiektua eta tomatearen ospea eta hedapena, eta elkarri lagundu egiten diote. Tomateak arreta deitzen du, erakargarria da, eta erakargarria izateaz gain gerora jendearen gustua asetzen du. Horrek, tomatea landatu eta saltzen dutenei laguntzen die. Era berean, tomatearen eskutik proiektuak zabaltzen doazen heinean tomateari ere toki bat ematen diote, eta hau gero eta gehiago doa hedatzen.

Esan bezala, bertako hazien ekoizpen- eta ugaltze-lanetan aldaketak ikusten ditugu. Mintegietan ekoizten eta saltzen da Aretxabaletako Larrosa barietatea. Hortaz, bertako barietatea mantentzeko eta ugaltzeko lana jada ez da gertatzen etxe bakar batean, zeinetan prozesu osoa egiten den, urterik urte. Era berean, haziak jada ez dira bakarrik edo bereziki partekatzen senideekin, bizilagunekin, edo asko jota lankideekin. Orain, profesionalki ekoizten da bertako barietate hori, eta haziaren ekoizpena eta ugalketa, landarearen ugalketa, eta fruituen ekoizpena zatikatu egiten da. Hazien ugalketa-prozesuari konplexutasuna ematen zaio, eta horrekin batera zabalpena ematen zaio tomateari. Hartara, esan daiteke bertako barietatea mantentzen lagundu izan duela konplexutasun horrek. Edonola ere, aldaketa nabarmenak eragin ditu bertako barietateak zaintzeko praktiketan eta harremanetan.

Bostgarren belaunaldia-D. Pako eta Germoplasma-Bankua. Barietatearen hobekuntza, ugalketa eta kontserbazioa

Belaunaldia	Bostgarrena-D
Subjektua eta tokia	Neiker-Teknalia eta Pako
Izena(k)	Rosado de Aretxabaleta
Garaia	2000etan
Nola heldu zaie, nola hedatu dute	Ekonekazaritzarekin eta Hazien Sarearekin harreman estua. Baita estatu mailako erakunde publikoko germoplasma-bankuekin ere

Taula 8: Germoplasma-Bankua

2018ko otsailaren 23 da. Lekuan lekuko lanaren bukaerako fasean nago, eta bigarren bezala noa gaur Pakorengana. Bera izan zen bisitatu nuen lehenengo pertsonetako bat, eta zenbait ate ireki zidan. Besteak beste, berari esker ezagutu nuen Neikerreko Derioko instalakuntzetan 2016an bertako tomate barietateekin egiten ari zen proiektua. Egin nion lehenengo bisita horretatik 3 urte inguru pasa direlarik itzultzen naiz bere bulegora. Ostiral arratsaldea da. Atezaintzako leihatilan geratzen naiz eta Pakorenera noala diot. Ea zein naizen galdetu, eta NANA eskatzen didate. Oraingoan jada ez didate galdetzen nondik natorren. Aurrekoetatik jakingo dute EHUtik natorrela.

Eguneko erregistroa eginda, gora noa, Pakorengana. Esan bezala, ostiral arratsaldea da, eta isilik, hutsa eta argiak itzalita dago ingurunea. Bulego ireki eta handi horietako batean dago. Altxariek bereizten dituzte gunek espazio zabal baten barruan. Gaur, baina, ia bakarrik gaudenez, intimitatea izango dugu.

Gaurko elkarrizketan osatzen dugu lehenengo hartan jaso nuen informazioa. Orduan Germoplasma-Bankuaren inguruko informazioa jaso nahi izan nuen gehienbat. Askotan gertatu bezala, galdera batzuk egitera joan nintzen horretan jada erakutsi zizkidan instalakuntzak. Espero nuenaren kontrara, etxean bezala ibili ginen handik, gelaz gela, eraikinez eraikin. Hazien bankua gela txikitxo bat zen. Hotzean mantendua. Apalez antolatua. Hazi guztiak ez zituzten bertan, baina. Izan ere, Neikerreko beste instalakuntza batzuetan ere gordetzen dira, toki bakoitzean lantzen diren laboreen arabera. Hau da, Bizkaian barazkigintzako entseguak egiten dira, hortaz, hantxe daude izozkailu batean Neikerreko Germoplasma-Bankuko barazki-haziak. Oraingo honetan, baina, ez naiz etorri honetaz hitz egitera, Aretxabaletako Larrosa tomatearekin egin zuten hobekuntzaz baizik.

Lehenik eta behin galdetzen diot Pakori nondik dator kion bertako barietateekiko interesa. Izan ere, badakit lehenago Euskal Herriko Hazien Sarean ibilitakoa dela, eta apur bat hobeto ulertu nahi dut bere ibilbidea, zehazki, nola pasa den niretzat nahiko urrun dauden hazien sare proiektu batetik, germoplasma-banku proiektu batera. Berak argi ikusten eta azaltzen du lotura.

Landare-hobekuntzan lan egiten du berak, mundu horretan murgiltzen da. Hobekuntza genetikoak germoplasma-bankuekin lotura zuzena du bere ustez. Izan ere, landare-hobekuntzarako ezinbestekoak dira baliabide fitogenetikoak, eta horiek bertako landareekin zein basalandareekin lotzen dira maiz. Halaber, germoplasma-bankuak bertako barietateekin lotuta daude, bertan gordetzen baitituzte. Laburbilduz, bertako barietateak hobekuntza genetikorako erabiltzen ditu, horien bidez egungo nekazaritzara egokitzen dituzten barietateak sortzeko, hain zuzen.

Hortaz hitz egiten dugunean zehazten du Aretxabaletako Larrosarekin egindakoa hautaketa bat izan zela, hautaketan oinarritutako hobekuntza bat, hain zuzen. Ez zituzten barietateak gurutzatu, barietate baten barruan ale eta lerro zehatz batzuk hautatu baizik. Jadanik Ekonekazaritzarekin hainbat proiektutan batera jarduten ari ziren, eta orduan atera zen hobekuntza egitearen ideia. Entsegu horietan jada interesa agertu zen tomateekiko, eta

bereziki zenbait barietatekiko. Era berean, Teok interesa zuen barietate horretan, saltzen zuen azokan, baina arazoren bat zuen tomatearekin. Horregatik ere atera zen hobekuntzarena.

Halaber, galdetzen diot ea nola gorde zuten gerora barietate hori, eta ea ez zuten pentsatu erregistroren bat egitea. Izan ere, lekuan lekuko lanean zehar zalantza bat azaleratu zait. Hobekuntza egin zuten, baina barietate horrek beste bide batzuetatik zabaltzen jarraitu izan du. Hortaz, zaila da jakitea zein hazi datorren hobekuntza horretatik eta zein ez. Teok badaki, berak etxean mantendu izan ditu hobekuntza egin eta gero, eta Neikerren ere bai, baina hortik kanpo, haziak mugitzen joan dira eta zaila da jakitea nondik datorren bakoitza, genealogiaren zein belaunalditik atera den, alegia. Erregistroaz galdetuta, erregistrorik ez zutela egin diost. Bere ustetan, hori zen egin behar zutena, baina une horretan ez zen egin, bidean geratu zen. Hala ere, hazi horiek Teok berak gorde izan dituela eta Neikerren gorde izan dituztela badaki. Neikerren, gainera, esan bezala, familiaka dituzte gordeta, eta haziak berritzen dituzte zenbait urtetan behin.

Horrela gogoratzen du berak hobekuntza proiektu hori. Gerora, Neikerren barruan bestelako proiektuak egin izan dira. Azkenengo urteotan, 2015. urtean inguruan hasita, bertako tomate barietateak ezaugarritzeko proiektua martxan jarri izan dute, horietako batzuk tomategintzako¹⁷⁹ baratzezainen artean zabaldu eta tomateari irtenbide komertziala emateko asmotan. Bestalde, bertako tomate barietateekin ere bestelako proiektu batzuk egin ditu. Besteak beste, germoplasma-banku ezberdinetan zeuden zein hazien sareak zituen euskal tomate barietateak ezaugarritzeko lan sakona egin zuten 2000ko hamarkadaren hasieran. Argitaratu ere egin zuten¹⁸⁰.

Ikusi berri dugun bezala, barietate honen bueltan hainbat eraldaketa gauzatu da 2000ko hamarkadan zehar, ezagutu berri ditugun belaunaldi eta guneean, alegia. Fase honen hasieran jada barietatea "baratzetatik" ateratzen ikusten dugu. Izan ere, tomate horren historian, hedapenean eta transmisioan baratzeetan ez dauden subjektuak parte hartzen hasten dira, baratzeen arteko zubi-lanak egiten-edo. Orain arte, baratze batetik bestera eskuz esku pasatzen

179 Tomategintza hitza erabiliko dut euskaraz egokiena iruditzen zaidalako; hala ere, lekuan lekuko lanean zehar hitz hau ez da inoiz ere ez agertu, "sector tomatero", edo euskaraz "sektore tomateroa" dira agertu diren terminoak. Era berean, tomateak ekoizten dituztenak -pertsona zein baserriak- "tomateros" edota "tomateroak" terminoekin izendatzen dituzte. Azkenengo kasu honetan nik ere hitz hauek erabiliko ditut.

180 Ikus Carravedo eta Ruiz de Galarreta (2005).

ikusitu ditugu tomateak, haziak eta landareak. Noizbait, bitartekariren bat ere agertu izan da truke hauetan, Goiko baserriko moja bezalakoak. Hala ere, bitartekari hutsak izan dira horiek. Oraingoan, aldiz, barietatea bera gorde, ezagutu eta zabaltzeko asmoa duten bestelako "bitartekariak" agertu dira. Ekonekazaritza, Hazien Sarea eta Neiker dira horien adibide argienak. Halaber, barietatearen zaintza eta ugalketa-prozesuak konplexutasuna irabazten du. Maiz, baratze batean landarearen ugalketa- eta ekoizpen-ziklo osoa burutu baino, zikloa zatikatu egiten da. Barietatearen ugalketa ez datorkigu jada, halaber, baratze eta pertsona edo baserri bati lotuta, prozesu konplexuago bati baizik.

Bestetik, bigarren fase honetan, barietatearen genealogia horizontalean sartu gara bete-betean. Aurreko belaunaldiak ere horizontalki azter genitzakeen, ugalketa-zentro, -baserri edo -baratze bakoitzetik nora zabaldu den ikusiz. Horrela gertatu dela jakitun gara, gainera. Hala ere, barietatearen genealogia osatu nahian bertikalki jarraitu izan ditugu lehenengo fasearen belaunaldiak eta genealogia. Bigarren honetan, aldiz, belaunaldien arteko haria galtzen hasi gara, eta paraleloki sortu eta garatzen diren subjektu- eta ugalketa-guneak ezagutu ditugu. Hala ere, beraien artean oraindik denbora-lerro bat marraztu dezakegu eta bilakaera bat irudikatu. Ondorioz, belaunaldiak baino belaunaldi bereko "kideztat" hartu ditut, arrebak-eta nebak edo lehengusin-lehengusu gisa. Hau da, lehenengo fasearen belaunaldien ondoz ondoko logikarekin puskatuta, belaunaldi bereko adar gisa ikusten ditugu oraingo subjektuak. Hori dela eta, subjektu hauek izendatzerakoan, lehenengoz denak barnebiltzen dituen belaunaldiari zenbaki bat jarri, eta gero hizkiekin bereizi ditugu belaunaldi bereko adarrak. Ikusiko dugunez, hurrengo fasean horizontaltasun hori are nabarmenagoa izango da, zenbait kasutan gune eta subjektuen arteko loturak erabat ezabatzeraino. Hor, belaunaldien logika zentzua galduz hasita, berrikusiko dut subjektuak eta guneak izendatzeko modua.

Halaber, fase honetan izen finko bat(zu)ekin agertzen zaigu barietatea. Jada ez da gertatzen aurrekoetan bezala, baserri bati lotuta edo baratze batean izena aldatu egiten ziotela. Orain izen bati lotuta agertzen zaigu barietatea, eta izena da berarengandik ezagutu eta mantentzen dena, baita ospea eta izaera ematen diona ere. Hala ere, izen hori ez da bat eta bakarra. Lehen azaldu dugun bezala, hasierako "Aretxabaletako mozkorarekin" konforme ez eta aldatzeko eskatu zuen Kepak. Horrek, baina, gerora nahasmena eragin izan du. Izan ere, barietatea jada zabaldua zegoen lehenengo izen horrekin, eta aldatu ziotenean aldaketa hori ez zen heldu tomateak ezagutzen eta landatzen zuten guztiengana. Hori dela eta, hasierako izenarekin zabaltzen jarraitu izan zuen hainbatek, izen berriarekin ere zabaltzen zen bitartean. Aretxabaletako Mozkorra izenari, Aretxabaletako Larrosa gehitu zitzaion, batzuek "Arrosa"

esanda, gainera. Halaber, Aretxabaletako Moreaz ere hitz egiten dute batzuek. Izena singularizatu eta unibertsalizatu egiten den une berean, izenean aniztasuna sartu egiten da, tomatearen inguruan sortzen ari den dibertsifikazioaren erakusle.

Fase honen beste elementu gako bat tomatea eta pertsonen arteko aliantzak dira, espezieen arteko aliantzak, esan genezake. Nekazaritza ekologikoaren hastapenak dira Gipuzkoan, eta subjektu eta proiektu berriak sortzen ari dira horren baitan. Beraien burua definitu eta ezagutarazteko bidean Aretxabaletako Larrosa tomatea konplize edo aliatu hobeezina suertatzen zaie. Tomatearekin sortzen duten sinergia eta aliantza honetan barietatea ondo ezagutu eta definitu behar dute. Horrenbestez, fase honetan barietatea hobeto ezaugarrituko dute, ezaugarri zehatz batzuei lotuz eta beste batzuetatik bereiziz. Barietatearen singularizazio-prozesua nola hasten den garatzen ikusten dugu fase honetan, orduan.

Laburbilduz, nekazaritza ekologikoaren munduan zein Aretxabaletako Larrosa tomatearen bueltan dibertsifikazio-prozesuak nabarmentzen dira. Besteak beste, subjektuak eta proiektuak ari dira biderkatzen, merkaturatze-bide berriak probatu eta erabili egiten dira, eta espezie eta barietateekin esperimentazio nabarmena ikusten dugu. Aretxabaletako Larrosa tomatearen bueltan ere nabarmena da dibertsifikazio hori. Alde batetik, biderkatzen dira hori erabiltzen, landatzen, zabaltzen edota ugaltzen duten subjektuak. Bestetik, izen batekin identifikatzen bada ere, izen horren bueltan ere dibertsifikazio minimo bat ikusten dugu, aurrekoaren erakusle.

3. Fasea. Aretxabaletako tomatea "famara". Edo bigarren trantsizio baten atarian homogeneizazio eta pribatizaziorako arriskuak?

Fase berri honetan zailagoa izango da jakitea nondik nora mugitzen diren tomateak, haziak, edo landareak, eta hori dakigunean ere, horrek ez du berebiziko garrantzirik izango. Izan ere, dibertsifikazio garai honetan, izenak ematen dio izaera tomateari eta izena da eskuz esku tomate edo haziekin batera pasatzen dena, tomatearen inguruko harremanak bigarren plano batean utzirik. Era berean, izenarekin batera, tomatearen ezaugarriek eta formak ere garrantzia hartzen dute. Testuinguru honetan, dibertsifikazioa hasten denean hain zuzen, tomatearen izana edo izaeraren inguruko gatazkak edo borrokak hasten dira, eta tomatea definitzeko eta bere ezaugarriak finkatzeko ahaleginak aurkitzen ditugu. Zein da "benetakoa" eta zeinek definitu edo ezartzen du zein den hori? Galdera horren inguruko gatazkak azaleratzen joango dira hamarkada eta fase honetan zehar.

Hartara, zein eskutatik zein eskutara edota zein baratzetatik zein baratzetara pasatzen den ez dakigun honetan, belaunaldiak ezartzea are zailagoa zaigu. Are, belaunaldiek ez dute garrantzia dagoeneko. Hortaz, fase honetan ez dugu tomatearen genealogian sakontzen, eta horren belaunaldiak identifikatzen eta genealogikoki kokatzen. Oraingoan, paraleloki gertatzen diren prozesuak eta jarduten duten subjektuak ezagutuko ditugu. Elkarren ondoan kokatu behar ditugu, elkar-harremanean baitaude eta elkarri eragiten baitiote. Nik bata bestearen atzetik azalduko baditut ere, ez dira segida horretan gertatzen, aldi berean baizik.

"Borracho de Aretxabaleta" barietatearen erregistroa. Bertako barietateekin Ainhoa eta INTIAk egindako lana

Azaldu bezala, Aretxabaletako Larrosa tomatearen inguruan azterketa-kasua egitea erabaki nuenean susmo eta beldur bat zerabilen bertako barietateen inguruan zein nekazaritza ekologikoaren bueltan lanean ari ziren zenbait pertsona eta elkarteren artean. Neikerretik egindako zenbait "mugimenduren" ostean, Aretxabaletako Larrosa tomatearen pribatizazioaren atarian ote ginen beldur ziren. Izan ere, Neikerretik zenbait baserritarrengana joanak ziren, bertako tomate barietateen hazi eske. Omen, horiekin proiekturen bat egin nahi zuten, beraien erabilera zabaltzeko eta babesteko. Omen. Pribatizazio-prozesu bat gertatuko zen beldurrez, Piko Luze eta Aretxabaletako Larrosa tomateen erregistro parte-hartzailea egitea erabaki zuten, eta Hazien Sareak eta Hazizaleak elkarteek antolatutako ekimenaren baitan burutu zuten. Izan ere, balizko pribatizazio-prozesu horren pausu bat barietatea era pribatibo batez erregistratzea litzateke. Hori eragozteko, erregistro parte-hartzailea burutu nahi zuten, behin hori eginda erregistro pribatiboa gauzatzea zailagoa izango litzatekeelakoan.

Hainbaten artean beldur hau zerabilelarik jakin nuen Aretxabaletako Larrosa "Borracho de Aretxabaleta" izenarekin erregistratuta zegoela. 2013. urtean INTIAk burutu zuen horren erregistroa, eta zehazki "Berezko Baliorik Gabeko"¹⁸¹ barietate gisa erregistratuta zegoen. Kasualitatez konturatu nintzen horretaz. Espainiako Gobernuaren Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren (Ministerio de Agricultura, Pesca y Alimentación - MAPA) baitan dago labore barietateen bulego espainiarra (Oficina Española de Variedades Vegetales). Horrek labore barietateen erdiespen-, erregistro-, merkaturatze-, eta kontserbazio-prozesuak arautu eta horien jarraipena egiten du. Egiten dituen lanen baitan, Estatu espainiar mailako barietateen erregistroak eta barietate komertzial eta babestuen katalogoak kudeatzen ditu, eta azkenengo hauetako informazioa interneten eskuragarri dago. Katalogoan zein tomate zeuden

181 Gazteleraz "Variedad Sin Valor Intrínseco" deituriko kategoria. Ikus 4. atala.

bilatzen jarri nintzenean Aretxabaletako Larrosa erregistratuta zegoela ikusi nuen, esandako izenaz bazen ere. Berehala sektoreko hainbat kide eta langilerekin partekatu nuen informazioa. Inork ez zekien ezer. Nola zitekeen barietatea erregistratuta egotea eta inork ez jakitea? Zein ondorio izango zuen erregistro horrek, inork ez bazuen horren berri? Eta, zer dela eta erregistratuko zuten, gerora inolako eraginik izan ez badu? Galderak erantzuteko, erregistratu zuten horiengana jo nuen.

Aspalditik daukat INTIAra joateko etxeko-lana, baina beti bestelako lehentasunak agertzen zaizkit. 2017. urtearen bukaeran Marcek esan zidan beste kontu baten harira bertako langile batekin egon zela eta horrek Ainhoaz hitz egin ziola. Aretxabaletako Mozkorraren erregistroaz jakiteko, onena Ainhoarekin hitz egitea izango zela esan zion. Oraingo honetan Marcek ez, nik kontaktatu dut Ainhoa. Lehenengo mezu elektroniko bat bidali ostean, telefonoz hitz egin dugu. Baja batetik bueltan dagoela eta, burua ez daukala oso kokatuta esan dit. Gainera, aspaldiko kontua da barietate horren eta bestelako batzuen erregistroa. Halaber, INTIArean egiten duten lanaren baitan, lan txiki-txikia izan zen hura, eta dokumentu gutxi dituzte horren inguruan. Hala ere, jartzen dugun hurrengo hitzordurako informazioa batu eta ordenatzen ahaleginduko dela esan dit.

2018ko otsailaren bukaeran noa INTIAra. Bertan jasotzen nau bilerak egiteko gelatxo batean Ainhoak. Hasieratik jator eta kolaboratzaile agertzen da. Informazio batzuk inprimatuta ere ekartzen dizkit. Orokorrean, hitz egiten ematen dugun denboran, bi gai nagusiz aritzen gara. Alde batetik, tomatearen merkatuaz eta horren barruan bertako barietateek duten tokiaz eta izan duten bilakaeraz mintzo da. Beste alde batetik, "Borracho de Aretxabaleta"ren erregistroaren inguruan jarduten du. Gai bat zein besteari heltzeko, INTIAren funtzionamenduaren berri ere ematen dit.

INTIA, esan bezala, Nafarroako Nekazaritzako elikagaien Teknologia eta Azpiegituren Institutua da. Franco hil eta gero sortu ziren enpresa publikoen artean, nekazaritzari lotutako institutu, fundazio eta abarrekoak sortu ziren. Nafarroan hasiera batean ITG siglekin izendatu zuten, eta gerora INTIA bilakatu zen. Horren baitan hainbat lan-arlo eta lantalde dago, eta horietako bat "negutegikoen" taldea da, "los de invernaderos", Ainhoaren hitzetan. Horiek freskoan saltzeko bideratuta dagoen barazkigintzan lan egiten dute, eta lauzpabost pertsonak osatzen dute taldea. Beraien lana ekoizleak laguntzea eta ekoizleentzako baliagarria den jakintza sortzea da. Horretarako, bi lan nagusi egiten dituzte. Alde batetik, ekoizleei aholkularitza eskaintzen diete. Beste alde batetik, etxalde esperimentaletan entseguak egiten dituzte, izan labore barietateak, izan nekazaritza-teknikak edo bestelakoak probatzeko. Lan horien emaitzekin jotzen dute gero ekoizleengana eta aholkularitza lana egiten dute.

Nafarroako gobernuak zenbait mintegi zuen aspalditik, Nafarroan zehar barreiatuta. Bertan, landare eta arbola-landareak ekoizten zituzten, eta ekoizleak hornitzen zituzten. Hala ere, beraien funtzioa galtzen hasita ziren Frankismo bukaerarako, eta enpresa publiko berriak sortu

zirenean INTIAren aitzindaria den ITGari esleitu zitzaizkion negutegi horiek, bertan entseguak egin zituzten.

Urte bateko zikloak egiten dituzte bertan, eta neguan urazarekin eta udan tomatearekin egiten dituzte entsegu gehienak. Aldizka barietate komertzialekin egiten dituzte entseguak. Horien helburua merkatuan dauden barietate berriak ezagutu eta probatzea da, baita Nafarroako testuingurura egokituak dauden aztertzea ere. Askotan bezala, barietateez ari garenean, egokitasuna bi dimentsiotan aztertzen da. Alde batetik, bertako klimara egokituak dauden aztertu behar da. Bestetik, bertako gustura egokiak diren ere baloratu behar da. Tomateei dagokienean, mahaiko tomateekin egiten dira entsegu horiek. Zehatzago, entsegu konparatiboak dira. Zenbait irizpide kontuan izanik -ekoizpena, fruituaren neurria, eta abarrekoak-, barietateak alderatu egiten dira. Jacken kasuan ikusiko dugun bezala, antzera gertatu da EAEn ere. Hortaz, nekazaritzarako ikergune publikoetan zein elkarteetan barietateen gaiak toki nabarmena hartzen duela ikusten dugu. Nafarroaren kasuan, luzaz, soilik barietate komertzialekin egin izan zituzten entseguak, baina testuinguruak "eskatuta" hasi ziren bertako barietateekin probatxo batzuk egiten.

Nafarroan tomate gehiena lurrian ekoizten da, bestelako labore batzuekin txandakatzen. Hortaz, udan ekoizten dira gehien bat tomateak. Jack barietatea probatu izan dute bertan, baina Nafarroako beroarekin eta lurrian bigun samar ateratzen dira barietate honetako tomateak, eta ez dira preziatuak. Hala ere, gutxi batzuek hidroponikoan ekoizten dute duela hamarkada batzuetatik hona eta horiek Jack egiten dute. Gutxi badira ere, eragin diote tomate merkatuari. Izan ere, alde batetik aspaldiko edota "betiko" tomateen antza duen Jack tomatearen eraman izan dute berriz ere merkatuetara. Gainera, sasotik kanpo ekoizten direnez, prezio altuago batean saldu egiten dituzte. Horrek bi arrazoiengatik ireki zuten atea bertako barietateei duela urtetxo batzuk, Ainhoaren esanetan. Alde batetik, Jack agertu eta gero jendeak jada ez zituen onartzen tomate gogorrak. Bestetik, tomateak garestiago saltzeko atea ere ireki zuten tomate horrek.

Testuinguru honetan erabaki zuten INTIAren bertako tomate barietateekin entseguren bat egitea, duela jada bi hamarkada gutxi gorabehera. Hasieratik beraien jardunaren baitan oso bazterrekoa izan zen bertako barietateekin egin zuten lana. Hori dela eta, oso informazio gutxi dute egindako entsegu horien inguruan. Lehenengo entseguak 1999-2000 urteetan egin zituzten. Esan bezala, eta ez zait kasualitatea iruditzen, urte horietan ere egin zituen

Ekonekazaritzak lehenengo entseguak barietate ekologikoekin. Bertako barietateekiko kezka zabaltzen hasi zen garaia izan zen, hortaz.

Urte gutxi batzuetan errepikatu egin zituzten entsegu horiek, barietate berriak probatzen eta batzuk baztertzen. Entsegu horietan Aretxabaletako Larrosa ere probatu zuten, eta Ainhoak gogoratzen du oso emaitza onak izan zituela. Gogoratzeaz gain, entsegu horien emaitzak jasotzen dituzten artikuluen berri ere ematen dit (Sádaba et al. 2004; Aguado et al. 2006), eta bertan ikusten dugu Ainhoak esandakoa. Hortaz, garai berean EAEn zein Nafarroan bertako barietateekin eta zehazki Aretxabaletako Larrosarekin entseguak egiten ibili ziren toki bateko zein besteko elkarte edo erakunde publikoak. Bietan emaitza onak izan zituen tomate barietate horrek.

Testuinguru horretarako egokia zelarrik eta entsegu horien emaitzak ikusirik, Nafarroako zenbait negutegitan bertako tomate barietateak landatzen eta merkaturatzen hasi ziren 2010 urtearen bueltan. Izan ere, entseguak hibridoek baino ekoizpen txikiagoa zutela erakusten bazuten ere, ekoizpen ona zuten barietate horiek, eta garestiago sal zitezkeen. Hortaz, horiek ekoiztea errentagarri suertatzen zitzaiela ikusirik, erabaki zuten horiek landatzea. Egun, jarraitzen dute horrelakoak landatzen. Hala ere, zenbait birosis arazo izan dute dagoeneko.

Edonola ere, urte gutxi batzuetan zehar egin zituen bertako barietateekin entseguak INTIAk. Esan bezala, negutegikoen lantaldearen jardunaren baitan oso lan txikia zen hura. Garai hartan, gainera, bertako barietateek oraindik ez zuten egun duten ospea eta aitortza, horren hasieran baitzeuden. Hortaz, lantaldeko nagusiak proiektu horiei muga jarri zien eguna heldu zen, eta utzi egin zioten bertako barietateekin entseguak egiteari. Hala ere, urte horietan zehar ezagutu, ezaugarritu eta gordetako hainbat barietate zuten, eta ez zekiten zer egin horiekin, INTIA ez baitago Neikerren bezala germoplasma-banku bat. Orduan erregistratzea pentsatu zuten. Berezko Baliarik Gabeko Erregistroa zegoela jakin zuten eta egindako lanari jarraipena emateko aukera egokia suertatu zitzaien. Izan ere, zenbait barietate erregistratuz gero horiek gordetzeko ardura izango zutela ulertu zuten. Egun, Ainhoak ez dauka guztiz argi ea legeak horretara behartzen zaituen erregistro horretan barietate bat erregistratzen duzunean. Hala ere, beraiek horrela ulertu nahi izan zuten. Izan ere, horrela ziurtatzen zuten jasotako hainbat barietate eta egindako lana ez zela erabat galduko. Nolanahi ere, ez zituzten entseguetan erabilitako barietate guztiak erregistratu, gutxi batzuk baizik, interesgarrienak. Horien artean, Aretxabaletakoa. Orduan, kasu honetan erregistroaren helburua ez zen barietateetatik etekinen bat ateratzea, guztiz kontrakoa baizik. INTIAkoek ulertu nahi izan zuten bezala,

erregistratzeak kontserbatzaile gisa barietatea gordetzeko betebeharra ezartzen dizu. Eta horretarako, hain zuzen, egin zituzten erregistro horiek.

Azkenik, Ainhoari hazia nondik atera zuten galdetu nion, eta ez zekiela erantzun zidan. Telefonoz jada gainetik adierazia nion zertaz hitz egin nahi nuen, hortaz, etxeko-lanak eginda etorri zen. Haziaren jatorriari dagokionean, orduko lankideekin harremanetan jarri zen, ea nondik heldu zitzaien bazekiten galdezka. Pertsona baten kontaktua pasa zioten, baina ez zuen lortu horrekin hitz egitea. Beraz, gure bilerara informazio hori gabe heldu zen. Horrenbestez, ez dakigu nola eta nondik heldu zitzaien hazia, eta informazio hori ere ez dago jasota lan horien inguruko txosten eta argitalpenetan.

2013. urtean gauzatzen den erregistro horrekin ireki dut 2010eko hamarkadan kokatu dudan Aretxabaletako Larrosa tomatearen historiaren hirugarren fase hau. 2000ko hamarkadaren hasieran Gipuzkoan eta bereziki Debagoienan kokatuta zegoen tomate horretatik urrun dago jada INTIAN jaso, probatu eta erregistratu egiten duten tomatea. Tomatearekin batera datorren historiaren informazioa urria da INTIAN. Halaber, tomatea jatorri sozialik gabe jasotzen dute, edo behintzat ez dute jatorri hori gerorako gordetzen. Ikusi berri dugun bezala, Ainhoak ez daki esaten nondik heldu zitzaien tomatea. Bere jatorriari lotzen zaion bakarra, orduan, izena da. Izenak jatorria ematen dio tomateari, eta lotzen du INTIAN aurkitzen duguna Debagoienan zabaltzen ari den tomatearekin.

Aretxabaletako Larrosa tomatea baratzeetan. Barietatearen erabilera eta hedapena baratze-eta kontsumo-guneetan

Fase honetan identifikatzen dudan gune eta subjektuetako bat baratzeak eta baratzezainak dira. Horietan, horien bidez eta horietatik zabaldu zen lehenago eta zabaltzen da oraindik ere Aretxabaletako Larrosa tomate barietatea. Halaber, horietan bizirik mantentzen dute barietatea, urterik urte haziak ateratzen, gordetzen, ugaltzen eta zabaltzen, baita tomateak ekoizten eta saltzen edo kontsumitzen ere. 2010eko hamarkadatik aurrera, gainera, askotariko baratzetara heltzen da Aretxabaletako Larrosa. Debagoienatik zabaltzen, Gipuzkoako eta EAeko baratze askotan aurki dezakegu dagoeneko barietate hau, baita EAetik kanpo ere. Halaber, baratze mota ezberdinetan ere topatzen dugu gaur egun. Autokontsumorako ekoiztua, Goiko baserrian eta Urdintxa zenaren baratzean oraindik topatzen dugu. Kepa zein Patxiren baratzeetan ere aurki dezakegu, baita beraien moduko batzuen baratzeetan ere. Azkenik, eta haxe da azkenengo hamarkadan biderkatu egiten dena, baratze profesionaletan gero eta

presentzia handiagoa du, nekazaritza ekologikoko baratzeetan batik bat. Itsaseder baserria horietako bat da. Duela zortzi bat urtetik ekoizten dute barietate hau. Beste batzuek ez bezala, beraiek ia-ia hasieratik atera diote hazia tomateari, hurrengo urterako landarea bertan ekoizteko.

Itsaseder ez da bertako barietateen erabilerari dagokionean nekazaritza ekologikoko kasu paradigmakoa. Hau da, bertan gertatu dena ez da orokorrean baratzeetan gertatzen dena. Izan ere, aniztasun handia dago landareen erabilerari dagokionean, eta ezin dugu patroia bat hartu. Halaber, baratze ekologikoen artean askotan ez dira heltzen haziak atera eta landareak ekoiztera. Itsasederren, aldiz, bai. Egin duten lanagatik, eta hainbat unetan izan duten presentzia eta aitortzagatik jaso nahi dut orain beraien kasua. Esaterako, azaldu bezala, 2015ean Donostian egin zen erregistro parte-hartzailean Itsaseder baserriko Maialen egon zen, eta aitortu egin zioten barietatearen alde egindako lana. Hitzaren ere hartu zuen bertan.

Itsaseder baserrian aspalditik ekoizten dira barazkiak. Lehen, "amak" eramaten zuen baratzea, Maialen eta Naroaren amak, alegia. Konbentzionalean ekoizten zuen, baina oso produktu kimiko gutxi erabiltzen zituen. Ekoiztutakoa herriko azokan saltzen zuen, eta azokara jaisten zen astelehenetik larunbatera. Maialen ere, 8 urte zituelarik, amarekin azokara jaisten hasi zen jaiegun eta opor egunetan. Alabek ikasketetan bidea eginga zutelarik, Naroa dagoeneko lanean eta Maialen lan eskaintza batekin, amak esan zien baratzea uztera zihoala. Orduan erabaki zuten erreleboa hartzea, geroxeago egitea zailago suertatuko zitzaielakoan. Eta halaxe egin zuten. Amak garatutako azpiegitura baliatuz, hartu zuten erreleboa, eta ekologikoan ekoizten hasi ziren. Maialenen esanetan, aldaketa handiena ez da izan produktuen erabilera, baratzearen aniztasuna baizik. Orain gauza ezberdin gehiago dituzte baratze eta negutegietan. Halaber, ekoizten dutena kontsumo talde, jatetxe eta azokan saltzen dute. Ikusi bezala, bi emakume dira ustiategiko titularrak, ahizpak, ezagutu ditugun kasu gehienetan ez bezala. Halaber, sektore ekologikoan oso era aktiboan inplikaturik daude, nahiz eta nahiko "berriak" izan horretan. Hala ere, beraiekin zaudenean, pertsona xumeekin aurkitzen zara, dakitena eta egiten dutena apaltasunez kontatzen dizutenak.

Nahiko hasieratik jarri zuten Aretxabaletako Larrosa tomatea. Hasieran, hainbat barietate probatu zuten, eta hau asko gustatu zitzaion. Egun, lau bat barietate ekoizten dituzte, Aretxabaletako Larrosa eta Jack horien artean. Aretxabaletakoaz ari direnean, hainbat ezaugarri azpimarratzen dute. Alde batetik, hainbatetan aipatzen du Maialenek Jack tomatea, erreferentzia gisa. Maneiuari dagokionean, Jacken antza duela, eta erraza dela dio. Gida

bakarrekoa da, eta egonkorra. Ekoizpenari dagokionean ere ona da, eta berriz ere Jack ekartzen du ahotara. Jackek bezainbeste ez duela ematen diosku Maialenek, baina bertako askoren bikoitza ematen du. Bestetik, barietate goiztiarra da, eta hori ere baloratu egiten du. Azkenik, kontsumitzaileek gustuko dutela diosku.

Aretxabaletakoa jarri zuten lehenengo aldi hartan Landarpilan hartu zuten landarea. Mintegiaren hasierako urteak ere baziren. Lehenengo aldian handik ekarri eta gero, beraiek hazia ateratzen hasi ziren. Etxean ikusita zuten lan hau, amak zenbait hazi gorde eta ereiten baitzuen. Tomateen kasuan, Jack barietatea jartzen zuen amak, eta horri hazia atera egiten zion, baina erositako hazi edo landareei urte batean soilik ateratzen zien hazia, eta hurrengo urtean berriz ere erosi egiten zuen. Izan ere, hibrido bat denez, ezaugarriak galtzen doa, "degeneratu". Egun, Aretxabaletako tomateari eta leka edo babarrunei ateratzen diete hazia Itsasederren.

Tomateen kasuan, normalean urtero lau landaketa egiten dituzte. Lehenengoa martxoan egin ohi dute, eta horretarako landareak erosten dituzte. Izan ere, goizegi da azpiegitura berezirik gabe landareak ekoizteko, eta beraiek ez dute horrelakorik. Bertan tomate haziak ereinez gero, ez zioten hotzari eutsiko. Apirilaren erdialdean bigarren landaketa bat egiten dute, eta kasu honetan urte batzuetan beraiek ereindako haziak eta egindako landareak erabiltzen dituzte. Beste batzuetan, aldiz, bigarren txanda honetan ere, erosi egiten dituzte. Lehenengo bi landaketa horiek negutegietan egiten dituzte. Maiatzaren erdialdean kanpoan egiten dute landaketa bat, eta uztailaren hasieran egiten dute azkena, orain berriz ere negutegi barruan. Azkenengo hauetan bai, beraiek ateratako eta gordetako hazia erabiltzen dute. Gutxi gorabehera, 400 landare jartzen dute landaketa bakoitzeko, eta guztira 1200 tomate landare jarri ohi dute. Tomate landareei ez diete kimikorik botatzen.

Barietatearen ospeaz ari garenean gogora ekartzen du Maialenek duela urte gutxi batzuk Slow Foodek Donostiako Boulevarden antolatutako bertako tomate barietateen dasta eta lehiaketa batean gertaturikoa. Hainbat urtetan egin izan dute ekimen hau Donostiako Euskal Jaiekin batera. Bertan, zenbait tomate dasta daiteke, eta lehiaketa egiten da. Lehenengoa geratzen denari saria ematen zaio. Kontua da duela urte batzuk han izan zirela Itsasederrekoak. Kasualitatea edo ez, Boulevarden ondoan bazegoen produktu ekologikoen azoka bat, eta bertan zegoen Maialen baratzeko produktuekin. Goiza nahiko asperturik eman ostean, bat-batean jendea hasi zitzaion gerturatzen. Gertu, lehiaketaren emaitza jakin berri zeuden eta Itsasederreko tomateek irabazi zuten. Ordura arte kasurik egin gabe pasa izan baziren

Itsasederreko paradaren aurretik, orduan beste begi batzuekin begiratu zieten bertako tomateei. Sari horren kontura ere deitu diete gerora, bertako tomateen hazia edo aleak eskatuz. Hau, baina, ez zaie beraiei bakarrik gertatu. Tomatearen aitortza publikoarekin lotura izan duten gehienek jaso dituzte deiak eta eskaerak, izan landare ekologikoko mintegiak, izan Neiker edo INTIA, izan Itsaseder edo Hazianitz baserriak.

Mintegi eta azoketatik bertako barietateen hedapen- eta ugalketa-zikloaren konplexutasunera. Ekolandare mintegiaren kasua

Aretxabaletako Larrosa eta bertako barietateek Gipuzkoako baratzeetan duten presentzia mintegien praktikekin batera aztertu behar dugu. Aurreko fasean Landarpila mintegiak Aretxabaletako Larrosa tomatearen hedapenean rol nabarmena izan du jada. Oraindik ere, lanean dirau, eta bere negutegietan tomate barietate horrek badu tokia. Aitzitik, jada ez da EAeko mintegi ekologiko bakarra, eta bestelako mintegietan bertako barietateak tokia hartzen doaz. Hau da, zehatzago, Ekolandare mintegiaren kasua. Mintegiek, baita haziak ekoizten dituztenek ere, esku-hartze zuzena dute landareen ekoizpen eta hedapenean, eta bertako barietateen ugalketa-prozesuei eragiten diete bete-betean.

Halaber, mintegiek eragin handia dute ekoizten diren barietateengan, batik bat saltzeko ekoizten direnengan. Izan ere, baratzezain gehienek ez dute beraiantzako landarea ekoizten, erosi baizik, eta mintegian dagoena jarri behar dute. Adibidez, esanguratsua da zenbatetan entzun diedan mintegiko langileei gauzak probatu egiten dituztela, eta probatzeko ematen dizkietela ekoizle zein bestelako bezeroei, barietate berriak sartzeko ahalegina eginez. Ekolandareren kasuan, eta tomate barietateei dagokienean, bertako barietate nahikotxo sartzten dituzte urtero, 5 edo 6 bat. Bestalde, urtero barietate berriak probatzen ahalegintzen dira. Uda partean, hainbatetan dastak antolatu dituzte. Horrela barietate ezberdinak probatu eta baloratu egiten dituzte. Horren arabera erabakitzen dute hurrengo urtean zein barietate jarri.

Ekolandare mintegiak bost bat urte daramatza martxan. Debagoienan kokatuta dago, eta Ione eta Ainara dira bertako arduradunak. Nik ezagutu nituenean, 2016. urtean, proiektuaren hastapenetan zeuden, barietateak ezagutzen ari ziren, landareak nola ekoiztu ikasten, beraien proiektua definitzen, eta dirulaguntzak bilatzen. Ione, formakuntzaz, informatikaria da. Lan horretaz nazkatuta bestelako lanetan sartu zen. Landareak betidanik gustuko izan dituenez, mundu horretan sartu zen. Hasiera batean, lore-mintegietan egon zen. Gerora, Ainara eta beste lagun batekin batera, baso lanetan. Azkenean, landareak ekoizten sartu zen Ainararekin.

Ainara, berriz, abeltzaina da formakuntzaz. Bolada batez senide baten etxaldean ibili zen lanean, baina ogibide hori uzten bukatu zuen. Alde batetik, bere negozio propioa sortzeko inbertsio handiegia egin behar zuen, eta ezin zuen. Bestetik, besteentzako lan egitea ere bilatu izan zuen, baina sektore horretan gizonak bilatzen dituzte gehienbat, eta ez zuen lanik atera. Basolanetan ibili ostean, Ionerekin jarri zen proiektu honetan.

Beraiekin bi gunen nagusitan egon naiz, negutegian eta azokan. Horietan, ekoizpena nola egiten duten eta landareak nola saldu eta hedatzen dituzten ikusi ahal izan dut, bertako barietateen ugalketa eta ekoizpenaz zein horien truke eta mugimenduez gehiago ikasten. Negutegia, herritik kilometro batzuetara dagoen auzo batean zegoen, eta inguruneko etxeek baratzeak zituzten. Bertatik lortu zituzten zenbait hazi, espezie ezberdinetakoak, tarteko bertako tomate haziak. Azkenengo hau Ekolandare mintegiaren ezaugarri bat da. Bertako hazien alde lan egiten dute, eta ahalegintzen dira ahalik eta barietate hibrido gutxien erabiltzen. Bertakoak edo "zaharrak", hala ere, bailarakoak izan daitezke, Gipuzkoakoak, Euskal Herrikoak, edo beste nonbaitetik ekarritakoak. Kanpotik ekarritakoei muzin egiten ez badiete ere, nabarmena da beraien negutegian eta azokako postuan beraien ingurune hurbiletik hartutako barietateen presentzia, eta ez halabeharrez Euskal Herrian jada izena egina dutenena. Adibidez, tomatearen kasurako, nahiko ezaguna den Pikoluze barietatea ez dute. Loidi tomateaz hitz egiten ere ez diet entzun. Aitzitik, Ubera eta Haritza tomateak dituzte, biak Debagoienako baserrietatik hartuta.

Barietate horietaz hitz egitean, edo bezeroren batek galdetzen dienean, ondo ezagutzen dituztela igartzen da. Beste hainbatetan bezala, eskuekin forma eta tamaina adierazi ohi dute, "horrelako tomatea egiten da" bezalako esaldi batekin gorputzeko keinua hitzez lagunduz. Bestetik, tomateak duen hazi kopuruaz edota ur kantitateaz aritzen dira, baita tamainaz, koloreaz, azalaz, zaporez, testuraz -haragitsuak direla nabarmendu ohi dute, horrela den kasuetan- ere. Edonola ere, tomateen kasuan, bertako barietateak eta barietate zaharrak jartzeaz gain, hibridoren bat ere jartzen dute urtero. Izan ere, horrela eskatzen diete bezeroek, ekoizle profesionalek batez ere. Berez, Jack barietatea eskatzen diete, baina hauek, momentuz, ez dute hori ekoiztu nahi, Monsantoena -egun Bayerrena- delako.

Negutegietan lagundu izan diet tomate haziak ereiten eta repikatzen, eta horrela prozesua nola egiten duten ezagutu dut. Esan bezala, beste toki batzuetan ikusi bezala haziak ereiteko mahai bat dute, erretze-mahaia. Bertan, lurrazpian, erresistentzia batzuk daude, eta horiek berotu egiten dute

lurra. Bertan hainbat erretilu dago, eta hainbat barietate eta espezie ereiten dute batera, beti bakoitza zer den seinalatuz. Haziak ernamuindu eta apur bat hazten direnean, repikatu egiten dituzte, Hazianitz baserrian bezala.

Landareak repikatzeko, lehenengo lana erretiluak turbaz betetzea da. Lanera noan egun batean horretan ari dira, eta erreleboa hartzen diet. Lehenago, baina, lurra zenbat zanpatu behar dudan galdetzen diet. Beraiek esan eta egin bezala egiten ahalegintzen naiz, baina ardura sentitzen dut nire gain. Ez badut ondo egiten, kaltea beraientzako. Hala ere, gero Ionek ez du birbegiratzen nik egindakoa. Nolatan horrenbesteko konfiantza nigan? Gogoratzen dut Mirenekin Hazianitz baserrian tipulinei belar txarrak kentzen aritu nintzenean han ere gaizki pasa nuela, gaizki egingo ote nuen beldurrez. Harritzen banau ere, horrelakoetan niregan konfiantza dute eta ez datoz atzetik lana ondo egin dudan berrikustera.

Behin erretiluak turbaz beteta, bermikulitaz estaltzen ditugu. Bermikulita artelazki moduko material bat da. Horrekin turba estaltzen da, hezetasuna ondo gordetzeko eta lurraren goiko partea ez gogortzeko. Behin bermikulitaz estalita, urarekin ureztatzen dira erretiluak, hori ere neurrian. Hori eginda, landareak repikatzeko prest daude. Horretarako, ernetze-mahaira goaz, eta bertatik tomate eta piper landareak hartzen ditugu. Beno, Ionek hartzen ditu. Nik oso ahul ikusten ditut landareak eta apurtuko ditudan beldur naiz. Hortaz, lan hori berak egin dezala uzten dut. Plater batean jartzen ditu zuritik berdetik baino gehiago duten landare ahultxoak, eta erretiluak utzi ditugun mahaira itzultzen gara. Bidetik, edonon utzitako egurrezko makiltxoak jasotzen ditu, eta bat ematen dit. 15-20 zentimetrokoa izango da, eta albo bat bestea baino lodiagoa du. Hazianitz baserrian iltze batekin egin genuena makiltxo honekin egingo dugu gaur. Lehenengoz, makilarekin zulotxo bat egiten dugu lurrian. Gero, atzamarrarekin edo makilarekin berarekin lagunduz, landaretxoa sartzan dugu bertan. Ostean, lurrarekin ondo bete behar da berriz ere zuloa, sustraiak lurra ukitu behar baitu.

Erretilu bakoitzean zer jartzen dugun ondo apuntatu behar dugu. Horretarako, plastikozko makil zapal batzuk dituzte. Bertan ezabatzen ez den boligrafo batekin idazten dugu zein barietate jartzen dugun eta noiz. Halaber, horretarako duten kaier batean ere apuntatzen dute landareekin egiten dutena. Zehazki, data, erretilu bakoitzean zer jartzen duten, zein lan mota egin duten -erein edo repikatu-, zein erretilu mota den, zein turba mota, eta haziak nongoak eta zein enpresatakoak diren jasotzen dute bertan. Horrela ekoizpen-prozesu osoaren jarraipena egin daiteke. Hazianitzen bezala, lan hori oso garrantzitsua dela esaten didate, eta ez badago ondo jasota erretilu batean zer dagoen, bota egin behar dute.

Lekuan lekuko kaieraren zati hau tesiaren parte izateko moldatzen ari naizenean, ohartzen naiz ereiteko eta birlandatzeko lana modu ezberdinetan egiten dutela baratze eta proiektu profesionaletan edota etxerako direnetan. Goiko baserrian, adibidez, baratzean bertan ereiten dituzte haziak, horma baten kontra eta plastiko txiki batekin estalita duten lur eremu batean. Horrela beste baratze batzuetan ere ikusi dut. Kepak, adibidez, erretiluetan ereiten zituen, baina ez bermikulita bota eta ez albeolodun erretiluak ez ditu erabiltzen. Halaber, erositako turbaren ordeztu edo turbaz gain, baratzeako konposta edo satsa erabiltzen dute gehienbat. Azkenik, etxerako baratzeetan ez dute landatzen dutena zurruntasunez apuntatzeko beharrik, norberak jakiteko moduan nonbaiten jasota egotea nahikoa da, ez baldin bada, buruz ere

badakitela zer jarri duten eta non. Salmentara bideratuta dauden eremuetan, aldiz, ekoizten duten guztiaren jarraipen zurrunagoa egin behar dute. Bestetik, askoz kontrolatuago dute zer ekoiztu nahi duten, eta ziurtatu egin behar dute nahi duten barietatea ari direla jartzen. Hortaz, hazi eta landareen ekoizpena profesionalizatzen den heinean, proiektu txikietan bada ere, ugalketa- eta ekoizpen-prozesua ere aldatu egiten da. Kasu honetan, askoz jarraipen eta kontrol handiagoa egoten da.

Ekolandare mintegia ekoizpenerako zein salmentarako gunea da. Azokak, ostera, bakarrik salmentarako gunek dira, printzipioz. Izan ere, han nagoelarik ikusten dut salmentarako ez ezik, harremanak egiteko eta ikusgaitasuna erdiesteko gunek ere badirela. Beraiek ostiraletan joaten dira azokara, mugimendu gehien dagoen eguna baita. Azokan badaude egunero irekita dagoen zenbait postu finko. Beste batzuk, aldiz, bakarrik azoka egunetan irekitzen dira. Horietako askotan baserritarrak joaten dira, eta azokaren eremu handi bat hartzen dute. Barazkiak, ogia, loreak, baratzerako landaretxoak, arrautzak, esnea, gazta, txorizoa, denetarik aurki dezakegu bertan. Badaude erabat profesionalizatuak daudenen postuak ere. Dena delakoa ekoiztera dedikatzen dira eta azoka beraien produktuari irteera emateko bideetako bat da. Beste batzuen kasua, aldiz, herri zein hiriko azoketan luzaz ezagutu ditugun eta gero eta gehiago desagertzen ari diren "betiko baserritarren" kasua da. Hau da, kasu hauetan gehienbat etxerako ekoizten dute, denetarik apur bat, eta azokara soberakinak baino ez dituzte eramaten, diru apur bat lortzeko. Kasu hauetan emakumeak ikusten dira gehien bat postuetan. Hau da Ekolandare postuaren ondoan dagoen Ramonaren kasua. Mahaiaren gainean, ardi esne botila batzuk ditu, zenbait arrautz, usain azkarreko gazta lehor puska batzuk, txorizo ale batzuk, eta baratzekeo zerbait.

Azokan gehienek elkar ezagutzen dute, eta bertan daudenean produktuak zein informazioak trukatzeko aprobetxatzen dute. Izan ekoizten dutenaren inguruan jakintzak partekatzen, izan senide eta lagunengatik inguruan hitz egiten, izan ni bezalako pertsona berrien inguruan solastatzen. Bertan nik bezala orduak ematen dituzunean, erosi eta saldu baino askoz gehiago egiten dela konturatzen zara. Han ere lekuan lekuko lanerako kontaktuak pasa egin dizkirate. Kasu honetan, eremu formalagoetan ez bezala, eta Aretxabaletako Larrosa tomatearen inguruan ez bezala, emakumeak protagonista dituen sare bat azaleratzen da; egunerokotasunean ehuntzen dena, eta zuzeneko kontaktuan eta "pribatutasunean" gehiago geratzen dena. Hala ere, sare honetan profesionalak ere badaude, baita teknikari lanetan eta elkarteetan postu garrantzitsuetan daudenak ere. Konturatzen naiz orduan emakume hauek egon badaudela, baina Aretxabaletako Larrosa tomatearen historian orokorrean bigarren plano

batean agertu direla orain arte. Beraiek ez daude azpimarratu izan dizkidaten gune eta lanetan, eta beraien lanak ez daude tomatearen historia nabarmenetan. Egotekotan, gainera, gutxiagotan eta protagonismo gutxiagorekin izaten da.

Bestalde, Ekolandare mintegiaren postuan ikusten dut nola saldu eta mugitzen diren landareak eta barietateak. Barietateen inguruan askotariko elkarrizketak suertatzen dira, eta horrela lortu izan dituzte bertako barietate batzuk Ione eta Ainarak, azokan. Zentzu honetan, barietateak mugitzeko eta bizirik mantentzeko gune bizia da azoka, nahiz eta jakin badakigun lehen askoz gehiago izaten zela. Jakintzak trukatzeko gunea ere bada. Ione eta Ainarak ez dituzte bakarrik landareak saltzen, saltzearekin batera jakintza partekatu eta zabaldu egiten dute, eta horren bila ere badoa eroslea.

Jadanik sumatu daitekeen bezala, beraien postuan Aretxabaletako Larrosak ez du erabateko protagonismoa. Egia da tomate landareek, sasoia denean, toki nabarmena hartzen dutela paradan, baina horiekin batera sasoiko bestelako landareek ere. Aniztasuna nabarmena da bertan. Gainera, barazki-landareak saltzeaz gain, medizinalak eta bestelako landare usaintsuak ere saltzen dituzte, eta asko joaten da horien bila. Bestetik, tomateen artean ere hainbat barietate dago eta beti ez dute eramaten Aretxabaletako Larrosa, "Aretxabaletakoa" edo "Are", beraiek esaten duten bezala. Jendeak eskatu egiten die, jendeari sartzten zaio "la fiebre del de Are"¹⁸², baina eurek ez dute nahi horretan bakarrik zentratu, bestelako bertako batzuk ere badituzte, onak horiek ere, eta garrantzia ematen diete. Hala ere, Aretxabaletako Larrosa barietateko landare asko ekoiztu eta saltzen dituzte, eta zentzu honetan horren zabalpenean ere parte hartu dute.

Neiker eta Traditom proiektua. Barietatea eta bere ezaugarriak ezagutu eta finkatzeko asmoa

2000ko hamarkadan, Aretxabaletako Larrosaren historiaren bigarren fasean, Neikerrek jada bere alea jarri zuen. Batez ere Pako langileari esker, Ekonekazaritzarekin eta Hazien Sarearekin batera egin ziren hainbat entsegu eta ikerketatan parte hartu zuen erakunde publikoak. Kasu honetan, nabarmentzekoa da Neikerrek egin duen lana barietateak ezaugarritzera eta hobetzera bideratua izan dela. Horrekin batera, germoplasma-bankuan barietateak gordetzeko eta aldiro ugaltzeko ardura ere hartu eta bete izan du. Oraingo honetan, berriz ere aurrekoetan bezala agertzen zaigu Neiker, barietateak ezagutu, ezaugarritu, mugatu

182 "Are tomatearen sukarra".

eta bideratu nahian egindako lanekin batera. Kasu honetan Mikek hartuko du Pakok izandako protagonismoa.

Tesiaren hastapenetan nengoelarik Pakorekin elkartu nintzen lehenengo aldiz, 2015ko abenduaren erdialdean. Orduan jada Mikez eta Derioko guneaz hitz egin zidan. Neikerrek baditu hainbat instalakuntza eta zentro, eta Deriokoan zenbait barazkirekin egiten dute lan, besteak beste tomateekin eta piperrekin. Hortaz, handik bideratzen dira labore horien inguruko ikerketak, eta hantxe germoplasma-bankuko espezie horien haziak ere badituzte. Orduko hartan, gainera, bertako tomate barietateekin proiektu bat martxan zuten, eta 2016ko udako sasoiari germoplasma-bankuko tomate haziak berritzea tokatzen zitzaien. Bi lan horien arduraduna Mike zen. Horrenbestez, berari idazteko etxeko lanarekin atera nintzen Pakoren bulegotik.

2016ko urtarrilean elkartu nintzen lehenengoz Mikerekin, eta bertako tomate barietateekin martxan zuten proiektuaren inguruan galde egin nion. Lehenik eta behin, testuinguruan kokatu zuen proiektua. Alde batetik, bertako barietateak modan jartzen ari zirela baina ekoizle handiengana oraindik ez zirela heldu aipatu zuen. Era berean, inolako arautegirik eta jarraipenik gabe bertakoak zabaltzen ari zirela ikusten zuen eta hori, bere iritziz, negatiboa zen. Batetik, iruzurrari bidea irekitzen ziola zioen. Bestetik, bertakoen ugalketa arautu ezean "praktika txarrak" ere egon zitezkeela eta horrek barietateak galtzea, degeneratzea, edo birusak hartzea eragin lezakeela ere argudiatu zuen. Horrenbestez, bere iritziz, barietateak ezaugarritu egin behar ziren iruzurretatik merkatua babesteko. Era berean, horrelako lan batek barietate horiei bultzada emango zieten bestelako merkaturatze-ekimenak susta zitzakeela uste zuen, jatorri deitura -edo sor-marka- bezalakoak, besteak beste.

Beste alde batetik, Euskal Herrian kalitatean oinarritu eta bereizten diren ustiategi txikiak daudela ere aipatu zuen. Horiek, maiz, Labelarekin bereizten dira merkatuan, bereziki Bizkaian. Kalitatean oinarritzeak prezio altuagoak jartzea ahalbidetzen du. Hala ere, kalitateko tomateen sektorea Jack barietatearekiko oso menpekoa zela ere aipatu zuen, eta gainera Labela merkatua galtzen ari zela ere jarri zuen mahai-gainean, bereziki Gipuzkoan. Horrenbestez, kalitateari eta tomatearen ekoizpenari buelta bat eman behar zitzaiola ikusten zuen, eta bertako barietateak bide hori lantzeko aukera izan zitekeela irizten zion.

Testuinguru horretan jarri zuten martxan bertako barietateak ezaugarritzeko eta ezagutarazteko proiektua. Proiektua, berez, 2015ean jarri zuten martxan Derioko

negutegietan, lurrean, baina birus bat sartu zen. Ondorioz, landareak sustraitik atera eta negutegia berrogeialdian jarri eta urte batez erabili gabe utzi behar izan zuten, desinfektatzeko. Hori dela eta, 2016an berrartu zuten proiektua, baina moldatuta. Oraingoan, Derioko instalakuntzatan entsegua hidroponikoan egitea erabaki zuten, eta Gipuzkoako ekoizle baten etxaldean, Jacken kasuan ezagutuko dugun Zelairen negutegietan hain zuzen, lurrean egingo zuten. Bestalde, entsegu hau baliatuko zuten germoplasma-bankuko tomate barietateen haziak berritzeko. Lekuan lekuko lana egiteko aukera hobeezina nuen aurrez aurre, eta, nire harridurarako, oraingoan ez nuen aurkitu bertan jarduteko errezelo eta erresistentziarik. Neiker eta EHUren artean hitzarmen bat sinatuta, bertara joan ahalko nintzen arazorik gabe. Eta halaxe egin nuen. 2016ko apirilaren 20an itzuli nintzen Derioko instalakuntzetara. Lehenengo egun hartan, baina, proiektua eta instalakuntzak hobeto ezagutzera joan nintzen, "bisitaldia" egitera, baina ez oraindik lanera.

Mikerekin elkartzan naiz eta proiektuaren nondik norakoak hobeto azaltzen dizkit. Zehazki, bertako 19 barietate landatu eta ezaugarrituko dute. Horiekin batera, testigu gisa, 3 barietate hibrido ere sartu dituzte entseguan, Jack tarteko. Halaber, barietate bakoitzeko 18 landare jarri dute. Gehienak, germoplasma-bankutik hartutakoak dira, eta bertan horiei emandako izen -kode-berbera erabiltzen dute proiektuan. Bestalde, bankuan ez dauden inguruneke baserritar batzuek emandako barietateren bat edo beste ere badute. Horiek izenez identifikatu dituzte, haziak eman dituzten pertsonak esandako izenez, hain zuzen. Bulegoak eta laborategiak dauden gunetik atera, errepidea gurutzatu, eta zelai eta negutegiak dauden gunera sartzen gara. Lehenik eta behin, erretze-gela erakusten dit. Ikusiko ditudan erretze-gela gehienak bezala, eraikin, gela edo negutegi handiago baten barruan dago gelatxo hori, jada babestua dagoen eremuan babestuago. Nahiko hutsa dago gela, eta tomaterik jada ez dago. Hala ere, galdetzen diot nola erein dituzten entsegurako erabilitako haziak, eta perlitan egin dutela erantzuten dit. Perlita hidroponian landatzeko erabiltzen den material xurgatzailea da. Haziak ernamuindu eta egun gutxi batzuetara, apur bat handituta daudenean, albeolotako erretiluetan repikatu egiten dituzte eta negutegi batera eramanez. Azkenik, xurgatzailea den material batez betetako zakuetan landatzen dituzte landareak, beste negutegi batean.

Kasu honetan, negutegi oso bat dago erabilia entsegu honetarako. Orain, ikusten dudana lehenengo aldi honetan, landareak oraindik txiki samarrak dira, eta zabala ikusten dut negutegia. Hemendik hilabete batzuetara, bertan lanean nagoelarik, tarteka atera behar izango dut negutegitik, estututa, airea hartuz. Tomateak handituta daudelarik negutegia jada ez zait horren zabala irudituko, eta giroa itogarria egingo zait hainbatetan.

Gaurkoa lehenengo aldia da landareak hidroponian ekoizten ikusten dudana. Lehenengo aldia da negutegi bat teknika hidroponikoaren bidez barazkiak ekoizteko prestatuta ikusten dudana, alegia. Zirrara eragiten dit. Lehenengo harridura lurzoruarekin dator. Ez dago lurrik. Landareak metro erdiko altueran finkatuta dauden zaku luze eta horizontal batzuetan sartuta daude, aipaturiko materia xurgatzaileetarekin batekin betetako zakuetan. Zakuen ondoan, paraleloki, mangera bat doa, eta mangera horretatik mangera txikiago bana ateratzen da landare bakoitzeko. Halaber, zaku azpian, teilatuetako moduko erretinak daude, zakuetatik erortzen den likidoa jasotzeko. Erretinak zein mangerak mangera lodiago batzuetara konektatuta daude, eta horiek negutegiko

izkina batean elkartu eta kanpora ateratzen dira. Hurrengo egunen batean jakingo dut nora doazen eta nondik datozen, baina momentuz ez dut gehiegi ulertzen. Izan ere, hau da lehenengo begi-ukaldian ikusten dudana.

Oraindik ez dakit gauza bakoitza zertarako den eta nondik datorren, baina esan bezala, zirrara eragiten dit. Negutegira sartu eta zuzenean irudi bat datorkit burura. Apika, alderaketa latzegia da, baina hori datorkit burura une honetan. Landare denak tutuetara konektatuta eta beraien bizitza eta elikadura tutu horien menpe ikusten ditudanean, duela urte batzuk ezagutu nuen kimioterapia sala datorkit burura, zeinetan pertsonak ilaraka jesarrita zeuden, bakoitza bere tutuari lotuta, maiz mugitu ezinik. Bi eszenen artean alde handia badago ere, nonbaitetik etorri zait irudi hori. Kimioterapia sala batean bezala, bizitza kanpotik elikatzen da hemen ere, eta bortxaz sartzan diren produktu kimiko batzuei lotuta agertzen zaigu. Landareak bata bestearen ondoan, sistema handi baten barruan, eta kontrolpeko azpiegitura eta ordena batean jarrita ikusten ditugu, eta kimika da landare horiei bizitza ematen diena, bizitza zehatz bat ematen diena, hobe esanda. Kasu honetan, gainera, denak berdin tratatua, uniformatuta ikusten ditut. Nahiz eta entseguaren helburua euren artean bereiztea eta barietateka ezaugarritzea den, bertan topatzen dena erabat kontrakoa da: homogeneizazioa. Landareen arteko uniformizazioa, alegia. Gainera, berehala ikusten dut landareak beraien izenez baino, kodeen bidez identifikatuta daudela. Ospitale batean bezala, nork bere eskumuturrekoa duela, zenbaki edo barra-kode batek identifikatuta. Lehenengo egun honetan sentsazio eta zirrara orokor honekin ekiten diot etxerako bueltako bideari. Cyborga baldin bada burura datorkidan lehenengo ideia, teknologia, kimika eta landareen arteko hibridazio honek Harawayen (2004; 2016a) naturokulturetara eramango nau aurrerago.

Hurrengo bisitan, lehenengo kolpean ezezagun eta harrigarri egin zitzaidan irudia ulertzen eta "normalizatzen" hasten naiz. Negutegien eremura ematen duen atea irekita dagoela ikusirik, barrura ekiten dut. Atea gurutatu eta gizon bat ateratzen zait negutegi batetik. Galdera aurpegiarekin begiratzen nau eta "bai, Marta" ateratzen zait. Eskua eman, bere izan esan - Alberto-, eta lanera goaz. Mikek azaldu dio apur bat gaintetik zertara natorren, "praktiketan-edo", eta horretara goaz. Beraien laguntzailea izango naiz hurrengo asteetan, astean behin, bereziki tomateekin lan egin behar dutenean. Gaur hasiko naiz bertan lanean eta apur bat hobeto ulertuko dut nola doan negutegi eta hidroponiaren funtzionamendua.

Negutegira heldu eta arreta handiagok begiratzen diot denari. Adibidez, gaur ziurtatzen dut landaretxo bakoitzera mangera txiki bakarria doala. Hortaz, ez dago bat urarentzat eta beste bat elikagaiarentzat. Galdetzen diot nola doan elikagaien eta ureztatzearen kontu hori eta esaten dit "behetik" kontrolatzen dutela. Gerora ikusiko dut nola. Gaur ere lurzorua nolakoa den begiratzen dut arretaz. Ez da hormigoizkoa edo porlanezkoa, baina ez da lurra. Txintxorraz estalita dago lurzorua. Aurrekoan landareen zaku azpian zeuden erretenetan ura erortzen ikusi nuen, eta berriz ere Albertori galdetzen diot. Zer dela eta jasotzen dute landareak ureztatu eta gero erortzen den ur hori? Bada, ur horretan mineralak eta landareak elikatzeke bestelako kimikoak geratzen dira, eta gero berriz ere erabiltzeko jasotzen dute, produktuak ez galtzeko, alegia.

Tomate landareei begiratuta, aurreko astetik hona handituta ikusten ditut. Ez dakit posible den, 6 egun baino ez baitira pasa. Galdetzen diedanean zenbat denbora daramaten landatuta, badirela hiruzpalau aste landatu zituztela esaten didate. Orduan, lau astetan zenbat hazi diren ikusita, bai, izan daiteke aste bakarrean dezente hazi izana. Bestalde, guztira 22 barietate dagoela jakin arren, lehenengo begiradan denak nahiko antzerakoak iruditzen zaizkit. Lanean hasten naizenean, aldiz, kasu batzuetan erraz nabaritutako ditut euren arteko ezberdintasunak barietate batetik bestera pasatzen naizenean.

Lehenengo begirada eta galderak botata, lanera goaz. Binilozko eskularru urdinak dituzte lanerako. Albertok eskuak aztertzen dizkit eta Iker langileari niretzako eskularru bila joateko agintzen dio. Ez dut guztiz ulertzen zergatik jantzi behar ditudan, baina beraiek jantzen dituztenez, nik ere egiten dut. Handik tarte batera, eskularru urdinak berde-berde bilakatu direla ikusita ulertzen dut zergatik jantzi behar nituen. Eta horra noan hurrengo batean, bakarrik eskumako eskuan jantzen dudala, are gehiago ulertuko dut. Denbora emango dut egun hartan ur txorrotaz azpian, ura berde distiratsu nola ateratzen den ikusten, eskua ondo garbitu arte. Baina landareek ez dute soilik kolore fuertea, beren itxura osoa ere desatsegina egiten zait. Zurtoin lodi eta iletsuak dituzte, zimurtsuak, eta usain bizia sentitzen da landare artean ibiltzean. Landareak horrela begiratuta, gainera denak ilaran, bata bestearen ondoan, eta plastikopeko beroan, bada, ez nau harritzen luzaz landare toxikotzat hartu izana tomatea, edo makrobiotikoak egun ere toxikotzat izatea.

Baina gaur bi eskularruak jantzi ditut eta lanari ekiten diot. Albertok kontatzen dit zer egin behar dugun. Lehenengo eta behin landareak kimatu behar dira. Alde batetik, ateratzen zaizkien "txupoiak" kendu egin behar zaizkie. Bestetik, bereziki bertako barietateetan landarearen goiko partean gida bakarria atera ordez gida bikoizten doa, eta gida bakarria utzi behar zaie. Hortaz, zein gida utziko zaien erabaki, eta bestea moztu egin behar da. Aurrerago, kimaketa lan honi gehituko zaio landareei beheko hostoak kentzea, aireztatuago egon daitezen.

Lehenagotik ikusita eta eginda daukat txupoiak kentzearen lana, baina gidena ez neukan entzunda eta ikusita, eta ez dut ulertzen zergatik bakarria utzi behar zaien. Albertok kontatzen dit landaketa markoagatik dela. Distantzia zehatz bat utzi dute landareen artean, eta landareek ez dute espaziorik bi gida botatzeko. Orduan hasten naiz pentsatzen nola ez bakarrik kimikoekin, landareak beraiek, fisikoki eta morfologikoki, gizakion interes eta erabakietara erabat eginak dauden. Tomate landareak eta tomateak beraiek ez lirakeke direnak izango gizakiok beraiekin egiten dugun lan guztia egin ezean.

Hurrengo lana "tuta" kentzea izango da. Tuta tomate landareei eragiten dien zomorro bat da, ar bat. 2007. urtean ikusi zuten lehenengoz Iberiar penintsulan, eta azkar zabaldu da. Tuta ar bat ikusten dugunean, Albertok hartu egiten du, hostoa ireki, eta barruan dagoen arra erakusten dit. Jakintza gorpuztua eta zuzena gauzatu eta transmititu egiten da bertan. Zerbait galdetzean horra jo eta zuzenean erakutsi egiten dute. Maiz ni harrizteraino. Adibidez, tutaren inguruan galdezka nabil zein eragin duen jakiteko eta nola aurre egiten dioten jakiteko, baina ar horrekiko interes gutxi daukat, hasieran behintzat. Hala ere, tutaz galdetuta, eta tuta aurrean izanda, nolatan ez joan horrengana eta begiratu? Bada, hau da galdetzen dudanean erantzuteko egiten dutena, kasu honetan tuta bilatu, hostoa nola geratzen den erakutsi, eta gero arra bera erakutsi.

Tutaren kontra gauza gutxi egin daiteke. Landare barruan dagoenez arra, ezin zaie ezer bota. Hortaz, tutaren kontra egiten den lanik handiena tutak hartutako hostoak kentzea da. Halaber, hormonak ere erabiltzen dituzte, "nahasmen-sexualerako hormonak", hain zuzen. Horiekin espeziearen arrak edo emeak erakartzen dituen hormona zabaldu egiten da negutegi barruan, horrek giroa hormonez saturatu egiten du, eta horrekin ekiditen dute arrak eta emeak aurkitzea, elkartzea, eta gero emeak arrautzak jartzea. Beste teknika bat ere badago, hau ere hormonetan oinarrituta. Kasu honetan, ur putzu baten erdian arrak edo emeak erakartzen dituen substantzia jartzen da, uretara erakartzen ditu, eta tximeletak bustitzean hegan egin ezin eta hil egiten dira. Hala ere, horren kontra eskulana da tratamendurik eraginkorrena, tutak hartutako hostoak eskuz kentzea, alegia.

Hosto horiek kendu eta aparte bota ostean, landareak "tutoreari" lotzen dizkiogu, plastikozko pintza batzuekin. Hauek dira, orokorrean, hurrengo asteotan egingo ditugun oinarritzko lanak: tomate landareak kimatu, tutak hartutako hostoak kendu, eta landareak zurkaiztu. Asteek aurrera egin ahala, eta tomateak etorri ahala, lan berriak gehituko zaizkigu, oraingoan landareak bideratzeko baino, barietateak eta tomateak ezaugarritzeko. Gaur, baina, tomateen negutegiekin lana amaitu eta gero, beste eraikin batera goaz, "behera". Bertan dago, besteak beste, lehenengo egunean ikusitako ernetze-gela, baita beste zenbait makina eta tramankulu ere.

Eraikinaren alde batean, bidoi handiak daude, zenbait makina, eta ordenagailu bat. Lehenengo bidoi batzuetan zenbait likido dago, eta bakoitzean produktu kimiko bana. Beste bidoi batzuetan, aldiz, aurreko bidoi bakoitzetik tutu bana heltzen da eta produktuen nahasketa egiten da. Nahasketetarako bidoiak dira. Azkenengo horietatik mangerak ateratzen dira negutegietara. Prozesu hau ordenagailu batek kontrolatzen du. Negutegi bakoitzera zer bidali behar den eta produktuak zein proportziotan nahastu behar diren jasota dago ordenagailuan, eta horrek kontrolatu eta "agindu" egiten ditu nahasketak eta likidoen bidalketak.

Badaude "ureztatze" finko batzuk eta badaude gehigarriak direnak. Tomateak ordu finko batzuetan ureztatzen dira "soluzio nutritiboarekin", ia bi orduero. Halaber, egiten duen eguzki eta beroaren arabera gehitzen dira ureztatze gehigarriak. Negutegietan wattak neurtzen dituen gailua dago, eta watt kopuru zehatz bat metatzen denean ureztatze gehigarria bidaltzen da. Bestalde, ordenagailu horrek negutegien tenperatura ere kontrolatzen du, eta horien arabera berogailua martxan jartzen da, edo negutegiak irekitzen dira aireztatzeko.

Aste gutxi batzuen buruan, landareak tomateak ematen hasi direnean lan berri bat gehitzen zaigu. Batez ere lehenengo tomateen artean, batzuei ipurdia beltz jartzen zaie eta usteltzen bukatzen dute. Ipurdia belztua duten tomate horiek galdu egiten dira, eta apuntatu egin behar dugu barietate bakoitzean zenbat tomate ateratzen diren gaizki. Hartara, barietateka goaz tomate belztuak jasotzen eta zenbatzen, eta kaier batean apuntatzen dugu informazio hau. Negutegian dauden kodeak erabiltzen ditugu horretarako. Gero, ordenagailura pasatzen dutenean jasoko dute informazioa barietatearen izena erabilita.

Esan bezala, lan honen helburua jada ez da landareak bideratzea, ezaugarritzea baizik. Hemendik aurrera etorriko diren lan berriek ere funtzio berdina izango dute. Alde batetik, ekoizpenari begira barietateak ezaugarritu egin behar dira. Beste alde batetik, tomateak ezaugarritu behar dira eta horretarako beraien ezaugarri fisiko-kimikoak neurtzen dira. Hauek dira zaporeari -baita testura eta usainari- eragiten diotenak. Lan hauek maiztetik uztaileira arte egiten ditugu gutxi gorabehera.

Ekoizpenari begira landareak ezaugarritzeko, ekoizpen-prozesu osoan zehar gertatzen diren ustekabeak jasotzen dira. Esaterako, landareren bat gaixotu edo hiltzen bada, hori jasotzen da. Bestetik, esan bezala, zenbat tomateri jartzen zaion ipurdia beltz ere jaso egiten da. Azkenik, tomateen ekoizpena ere jaso egiten da. Beti data jasoz, barietate bakoitzetik zenbat tomate, zenbat kilo eta zein tamainakoak batzen ditugun apuntatu egiten dugu. Horretarako, negutegira tomateak batzera goazenean barietateka egiten dugu. Plastikozko kutxetan jasotzen ditugu eta bertan kartoi batean idatzita dago kutxa bakoitzean zein barietate jasotzen ari garen. Kutxak txabolatxo batera eramane eta pilatu egiten ditugu, eta bertan pisatu eta neurtuko dira tomateak. Esan bezala, lehenengo lana zenbat tomate -zenbat ale- jaso diren zenbatzea da, baita zenbat kilo ere. Gero, egurrezko kutxa batekin kalibrearen arabera sailkatzen dira. Kutxa horrek tamaina ezberdinetako zuloak ditu eta tomateak sartu egin behar dira beraien neurriko zuloetan. Horietako batzuk dira baloratuenak, handiak baina ez handiegiak direnak, Eusko Labeleko arautegiarekin bat egiten

duinak, alegia. Orduan ere, zenbatu eta pisatu egiten dira, kalibre bakoitzeko zenbat tomate eta zenbat tomate kilo atera diren jakiteko. Izan ere, jakin behar da barietateak tamaina bakoitzeko zenbat tomate ale eta zenbat kilo ematen dituen. Azkenik, merkatura daitezkeenak eta merkatura ezin daitezkeenak bereizi, sailkatu, eta zenbatu egiten dira. Kasu honetan, jasotzen da alde batetik zenbat merkatura daitezkeen, eta horiek zein pisu duten. Beste alde batetik, merkatura ezin daitezkeen artean, beste sailkapen bat egiten da: gaizki kuajatuak¹⁸³, ustelduak, eta arrakalatuak bereizten dira. Horiek ere zenbatu -zenbat ale- eta pisatu egiten ditugu.

Ezaugarritze lan hori eginda, txabola horretatik bidaltzen dira zenbait tomate laborategira. Barietate bakoitzeko bost aldiz errepikatzen dira laborategiko probak, eta bost aldi horietan barietate bakoitzeko hiruna tomatei egiten zaizkie dagozkien probak. Esan bezala, laborategian barietateen ezaugarri fisiko-kimikoak jasotzen dira. Bertan aurkitzen dut Udane. Praktiketara dago, eta zenbait galdera egin ostean konturatzen naiz egiten ari den entseguaren inguruan oso informazio gutxi duela. Hau da, negutegietako eta laborategiko lana erabat zatituta dago, eta Mike da horren guztiaren kontrola eta informazioa duena.

Bertara paper batekin heltzen dira tomateak. Bertan, proiektuaren zenbakia jasota dago, baita barietatea identifikatzen duen zenbakia ere. Tomateak heltzen direnean ohiko lanari ekiten dio Udane. Paper batean joango da neurri guztiak apuntatzen, eta banan-banan egiten dizkie barietate bakoitzeko tomatei zenbait proba. Horiekin, tomateen gogortasuna, kolorea, eta ezaugarri kimiko-sentsorialak neurtuko ditu. Halaber, hazi kantitate eta pisua zein likido eta solidoen proportzioa ere jasotzen da.

Une baten galdu egiten naiz hainbeste proba eta balioekin. Azken finean, proba gehienekin tomateen zaporea baino ez da baloratzen, eta hori askotan beste era batez egin izan dugu: tomateak ikusi, usaindu eta dastatuz hartzen da maiz beraien kalitate organoleptikoaren neurria. Hemen, aldiz, zaporea "dekodifikatu" egiten da, purifikatu (Latour 1991), eta hainbat baliotan zatikatu egiten da. Hortaz, balio eta neurri horien uztarketa gisa agertzen zaigu zaporea. Tomateak dituen gatzak eta beraien konduktibitatea, Brix graduetan neurtutako azukreak, parametro ezberdinetan neurtutako azidotatasuna,... Azken finean, dastetan baloratzen den berdina ari gara hemen neurtzen, baina beste parametro batzuen arabera. Parametro hauek garrantzitsuak dira, horien arabera egiten baitira gero hobekuntzak eta saiakera genetikoak. Halaber, parametro hauekin tomateak testuingurutik isolatzea bilatzen da, denak berdin-berdin tratatuz eta makinaren parametro bidez baloratuz. Nolanahi ere, makina eta parametro horiek erabat sozialak dira eta tomateak testuinguru berri batean kokatzen dituzte.

Hala eta guztiz ere, entseguaren emaitzak sektorearekin errotzeko eta lotzeko asmotan, dasta bat ere egiten da proiektuaren baitan. Dastan sektorearen interes ezberdinak eta subjektu anitzen iritzia jaso asmotan, profil ezberdinetako pertsonak gonbidatuak dira: tomate ekoizleak -tomateroak-, lehen sektoreko elkarteetako teknikariak, supermerkatu bateko arduradunen bat, eta kalitate kontuetan eta marketan dabilen baten bat. Dasta, azkar batean egiten dugu, eta espero ez bezala, beste batzuetan baino "seriotasun gutxiago" ikusten dut hemen. Esaterako, dasta egin bitartean Mikek jada ematen du tomate horien inguruko balorazioa, bereziki ekoizpenari zein onarpen komertzialari erreferentzia eginez. Ni bertan nagoelarik, Aretxabaletakoa eta besteren bat

183 Gazteleratik datorren hitz hau erabiltzen da lan-eremuan, euskaraz ere, eta horregatik bere horretan uztea erabaki dut. Kasu honetan, fruitu "ondo kuajatuak" lorea polinizatu eta gero "ondo" garatu direnak dira; barietateari dagokion forma hartu eta tomatearen ipurdia arrakalarik gabe eta forma arrarorik hartu gabe dutenak. Lore edo luku gaizki kuajatuetan batzuetan tomateak ere ez dira sortzen, edo oso txiki eta arraro geratzen dira eta ez dira kontsumitzeko aproposak.

ateratzea nahi duela pentsatzen dut, horien inguruan asko eta ondo hitz egiten baitu. Entseguaren proba bezala tomateak baloratzeko ekimena baino, tomatearen eta entseguaren zabalpena egiteko ekimena dela iruditzen zait.

2016ko udaberri eta uda hasiera hartan Neikerreko instalakuntzatan bertako tomate barietateekin egindako lanetan zein germoplasma-bankurako tomate haziak berritzeko lanetan parte hartu nuen. Bertan Aretxabaletako Larrosak zuen pisua ikusteaz gain, bertako barietateekin Neiker bezalako erakunde batek nola jokatu, jakintza nola sortu, eta barietateak nola definitzen dituen ikusi ahal izan nuen.

Neikerren ikusten dudana da, neurri handi batean, 2000ko hamarkadan zehar Ekonekazaritzak eta Neikerrek egindako entseguetako txostenetan irakurri dudana: barietateak landatu, eta beraien ekoizpena neurtu, baita dastaren bat edo beste antolatu ere. Laborategiko lana, aldiz, berriagoa suertatzen zait, gutxi irakurri baitut barietateen analisi fisiko-kimikoen inguruan. Hartara, bertako neurri guztiak berri-berriak egiten zaizkit. Izan ere, orain arte, tomateak baloratzeko ezagutu dudana dastak izan dira, eta ez bertan ikusten ditudan parametro guzti horiek. Hortaz, laborategian ezagutzen dut kalitatea, zaporea eta tomatearen gustua definitzeko eta eraikitzeko bide berri bat. Irizpide horien guztien arabera ari da kalitatea eraikitzen, eta printzipioz entseguaren emaitzekin tomategintzan eragin nahi da. Hortaz, kalitatea definitzeko moduak gerora ekoiztuko denarengan eragina du.

Hala eta guztiz ere, proiektuaren berri izan nuen bitartean -gerora pista galdu nion-, eraginik izango ote zuen zalantzak izan nituen. Bi urte beranduago, 2018aren hasieran hain zuzen, Gipuzkoako zenbait ekoizle eta teknikarirekin hitz egin nuen, eta horiek guztiek proiektuarekiko zalantzak mahai-gaineratu zituzten. Ez zuten kolokan jartzen bertako barietateen kalitatea, baina ez zuten ikusten tomategintzan toki nabarmenik har dezaketarik. Alde batetik, etengabe Jack barietatea aipatzen zuten, hori ezingo zutela ordezkatu argudiatzen. Bestetik, bertako barietateekin birosis arazo gehiago daudela ere nabarmentzen zuten. Edonola ere, proiektu hori hor dago, eta ikusteke dago Neikerretik zein bestelako entsegu, proiektu eta ekimen bultzatzen diren. Mikek adierazi bezala, hasieratik behintzat, sor-marka moduko zerbait egiteko eta bertakoen ekoizpena eta merkaturatzea arautzeko asmoa egon da, eta horrelako proiektuek eragin zuzena izango lukete barietate horiengan. Momentuz ez gaude agertoki honetan eta, egotekotan, ikusi beharko genuke zein erantzun dauden.

Bertan egindako lekuan lekuko saioekin Neiker bezalako guneetan lanak nola antolatu eta banatzen diren ere ikusi ahal izan nuen. Esan bezala, negutegietako eta laborategiko lanak nahiko banatuta zeuden, John Hartiganek (2017, 211)¹⁸⁴ erabilitako adierazpen *emic* honek ondo adierazten duen moduan: badaude botak eramaten dituztenak, eta badaude batak janzen dituztenak. Horrenbestez, proiektuaren osotasuna pertsona bakar baten edo gutxi batzuen kontrolpean zegoen, kasu honetan Mikereren kontrol eta ezagutzapean. Hortaz, lana zatikatuta agertzen zaigu, baita tomateen ezagutza ere. Negutegiko langileek landare eta barietateen ezagutza zuzena dute. Hala ere, ez dute barietateen inguruko informazio guztia. Adibidez, barietateak kodifikatuta dituzte, eta batzuk zeintzuk diren dakiten arren, gutxi dakite horien inguruan. Mikek, aldiz, barietateen inguruko datu guztiak bildu, antolatu eta aztertzen ditu. Barietateen deskribapenak oso ondo osatuak eman ditzake, eta sektorea ere ondo ezagutzen du. Hala ere, berak ez du Albertok duen ezagutza gorpuztua, esaterako tuta arra erakusten zidanean agerian utzi zuen hura.

Tomate hau zabaltzeko askotariko ekimen eta subjektuak

Aretxabaletako Larrosa tomateak "famara" jauzi egiten duen honetan, tomatearen beraren inguruko ekimenak biderkatu egiten dira. Ekimen hauetan gero eta arreta handiagoa jarri izan da tomatearengan, fruitu eta produktuarengan, alegia. Gainera, maiz tomateen jatorri guneetatik at egin izan dira ekimen hauek, Debagoienatik zein baratze guneetatik urrunduta, hain zuzen ere. Halaber, sarri, egun batean hasi eta bukatu egiten diren ekimen isolatuak dira. Hala ere, Gipuzkoa txikia da eta tomate horren bueltan dabiltzanak gutxi dira. Hortaz, ekimen isolatu hauek antolatzerakoan maiz Aretxabaletako Larrosa tomatearen historian gakoak izan diren pertsonengana jotzen dute ekimenen antolatzaileek. Hortaz, nahiko ekimen isolatuak diren arren, tomate horren sareetan kokatzen dira nolabait.

Ekimen hauen artean dastak nabarmendu egin zaizkit, hainbat eta hainbat dastaren berri izan baitut. Izan ere, dastak tomateak ezagutarazteko ekimen ezin aproposagoak izaten dira. Bertan tomateak erakutsi eta probatzeko jartzen dira. Halaber, dastak normalean ez dira soilik tomateak probatzeko gunea. Izan ere, maiz dastak lehiaketak ere izaten dira, tomateak zein ekoizleak baloratzeko g-uneak. Azkenengo horrek ere gehitzen die erakargarritasuna horrelako ekimenei, jendeak onena zein den jakin nahi baitu, baita zeinena den ere. Nolanahi ere, denak ez dira dastak eta lehiaketak, eta oraingo honetan hiru ekimenen berri eman nahi dut. Gehiago izan dira ezagututakoak, baina hauek esanguratsuenak iruditu zaizkit,

184 Cañedok ere Hartiganen aipatu eta adierazpen hau erabiltzen du (prentsan).

Aretxabaletako Larrosa tomatea Debagoienan zein eskualdetik harago nola eraiki, zabaldu eta definitzen den ikusarazten baitute.

Aretxabaletako Larrosa tomate barietatearen erregistro parte-hartzailea

Hainbatetan egin diot jada erreferentzia ekimen horri. Azaldu bezala, sektore agroekologikoko zein bertako barietateen inguruan jarduten diren zenbait elkarte eta pertsona bertako tomate barietateen inguruko pribatizazio-prozesu baten atarian ginen beldur zen. Hori dela eta, "Norenak dira haziak" jardunaldia antolatu zuten Euskal Herriko Hazien Sareak eta Hazizaleak elkarrekin. Jardunaldia 2015eko udazkenean gauzatu zen, Estatu espainiarrean lehenagotik jada antolatzen zen *Bioaniztasunaren Astearen* baitan. Aste horien baitan lehenago jada Hazien Sareak antolatua zuen erregistro parte-hartzailearen bat edo beste. Erregistro hauen bidez bertako barietateei aitortza bat eman nahi izan diete, eta barietateekin batera horiek zaindu dituztenei. Halaber, barietateen existentzia kolektiboaren frogara ere izan nahi dute erregistro horiek. Horrela, norbaitek edo enpresaren batek pribatizazio-prozesuren bat abiatzen badu, barietatearen izaera komunal eta kolektiboaren frogarik dagoeneko badago.

Testuinguru horretan erabaki zen 2015ean jardunaldi hori egitea. Tomateen inguruan prozesu pribatizatzailearen bat egon zitekeela ikusita, horien inguruan erregistro parte-hartzailea egitea erabaki zuten elkarrekin, baita sentsibilizazio jardunaldia antolatu ere. Horretarako, ostiral arratsaldean toki ezberdinetako elkarrekin batu eta beraien eskarmentua jaso eta partekatu nahi izan zuten, bereziki beste toki batzuetan jazotako erregistro eta prozesu pribatizatzaileen ingurukoak. Horretarako Catalunya eta Mallorcako hainbat kasu partekatu zen.

Catalunyatik eta Mallorcatik etorritako kideen eskarmentuak mahai-gainean jarri zuen bertako landareen pribatizazioaren dimentsio bikoitza. Bertako barietateak erregistratu eta pribatizatu egiten direnean beraien bi dimentsioei eragin ohi die prozesu horrek: alde batetik izenei, eta bestetik beraien izaera edota genetikari. Izan ere, barietate bat erregistratu egiten denean izen batekin erregistratzen da. Halaber, erregistro motaren arabera barietatearen ezaugarriak jasotzen dituen fitxa ere erantsi egin behar da. Bertan barietatearen ezaugarri genetikokoak jasotzen ez badira ere, genetikari -genotipoari, alegia- lotzen zaion fenotipoaren inguruko informazioa jasotzen da. Hortaz, handik aurrera, legalki behintzat, erregistro-fitxan jasotako ezaugarriak dituzten landareak izendatzeko baino ezingo da erabili erregistro-fitxa berean jasotako izena. Erregistro gehienetan, gainera, barietateen homogeneotasuna betebeharrezko eskakizuna da. Hortaz, bertako barietate bat erregistratu egiten denean ezin da jaso bere baitan

duen heterogeneotasun guztia, eta barietatearen banaka batzuk baino ez dira sartzen erregistroan jasotzen diren ezaugarrietan. Eta izenarekin beste horrenbeste gertatzen da, izen bakarria erregistratzen denez, erregistroetan ez da jasotzen barietate batean dagoen izen aniztasuna.

Horrenbestez, izena eta izaera erregistratzeak ondorio bikoitza du. Alde batetik, izena jada ezingo da erabili beste ezer izendatzeko, eta erregistro motaren arabera erregistratu duenaren baimenik gabe ezingo da izen hori erabili. Beste alde batetik, berdina gertatzen da ezaugarri fenotipikoekin. Erregistro motaren arabera, jasotako ezaugarriak dituen landararik ezingo da ugaltu eta saldu erregistroa egin duenaren baimenik gabe.

Eztabaida hauen ostean, iluntzean ondo sartuta jada, itxi genuen ostiraleko jarduna. Larunbat goizean berriz ekingo zioten ekimenari. Lehenik, esandako bi barietateen erregistro parte-hartzaileak egin ziren, Piko Luze eta Aretxabaletako Larrosa tomateenak, alegia. Barietateen historia kontatu, ezaugarri batzuk jaso, eta horiek zaindu dituztenei aitortza eman zitzaien. Dena bideoz grabatu zen, erregistroaren froga izateko. Horren ostean, dasta antolatu zuten Kaxilda Liburudendaren ondoko frontoian -egun terrazez betetako "plaza" bilakatutakoa-, kaleko jendea ere erakarri nahian. Dastan hainbat tomate barietate egon zen, Piko Luze eta Aretxabaletako Larrosa tomateez gain, eta berriz ere tarteko Jack tomatea.

Ikusiko ditugun beste bi ekimenetan ez bezala, honetan tomateak testuinguru bati nahiko lotuta agertzen zaizkigu. Izan ere, erregistro parte-hartzailea egitean beraien historia jaso eta partekatu egiten da, lehenengo pertsonan gainera. Hau da, tomate barietate horiek luzaz gorde, ugaltu eta landu izan dituztenak bertan izan ziren, eta beraien ahotsez jaso genituen euren esperientziak zein tomatearen testuingurua. Hala ere, ekimenak Donostiako erdialdean tokia hartu zuen, liburudenda-taberna batean. Ekimen gehienetan sektorean inplikaturik gaudenak egon baginen ere, dasta kalean egin zen propio, eta kaletik zebiltzanak erakartzea bilatu zen.

Esan bezala, nahiko ekimen isolatua izan zen hura, bi elkarteren artean antolatua, eta hasiera eta bukaera zehatz eta itxiak izan zituen. Elkarre horiek bertako barietateen inguruan jarduten jarraitu izan duten arren, ez dute inplikazio berezirik izan tomate horrekiko zehazki. Hala ere, eraginak izan zituen ekimena izan zen, beti ere tomate horien bueltako sareetan kokatzen badugu. Lehenengo eta behin, hortik abiatuta erabaki nuen nik tesia Aretxabaletako Larrosa tomatearengan zentratzea, eta bertan ezagututako pertsonetatik tiraka ekin nion ikerketari. Baina ez nik bakarrik, Marcek ere bazuen buruan hurrengo urteko *Telecoria* bildumako alea

bertako barietate baten inguruan egitea, eta Aretxabaletako Larrosaren bueltan egitea hasi zen pentsatzen orduko hartan. Ikusiko dugun bezala, hortik abiatuta egin diren lanek eragina izan dute tomatearen historian.

Halaber, erregistro horrekin indartu zen barietatearen izaera eta aitortza publikoa. Orduko hartan pribatizazio baten beldur baginen, niri iruditzen zait egun oso zaila litzatekeela horrelako zerbait gertatzea. Baliteke nire optimismoa izatea iritzi horren arrazoi nagusia, baina gaur egun tomate hori gero eta ezagunagoa egin da, bere izaera kolektiboaren inguruan dokumentu eta frogas asko daude, eta gero eta subjektu gehiago inplikaturik daude bere bueltan. Hortaz, pribatizazio bat bultzatuz gero horren kontrako frogas eta ahotsak egongo liratekeela pentsatzen dut. Hona heltzeko bidean jardunaldi hori mugarri bat izan zela iruditzen zait, txikia izan bazen ere. Izan ere, azkenengo hamar urte hauetako ekimenen baitan kokatu behar dugu hura ere. Ekimen gehienak txikiak eta isolatuak izan arren, esan bezala, tomatearen izaera eta aitortza publikoa indartu egin dute, eta ondorioz, tomatea babestu.

Mozkorra (tomatea)ren Igoera

Keparekin izan genituen lehenengo solasaldi horietako batean, tomatearen garrantziaz ari ginelarik, Aretxabaletako jaietan ere tokia bazuela aipatu zigun. Jaiak, omen, tomatearen igoerarekin irekitzen zituzten gazteek. Bera inoiz ez zutela gonbidatu gehitu zuen, baita bera ez zela bertaratu ere. Hortaz, data agendan apuntatu eta hurrengo jaietan joango ginela esan genion Marc eta biok. Eta hala egin genuen.

2016ko abuztuaren 13a da, larunbata. Gerora kultura teknikariak azalduko didan bezala, Aretxabaletan jaiak ofizialki abuztuaren 14an hasten dira. Hala ere, badira urte batzuk txosnagunea aurreko egunean martxan jartzen dutela. Hortaz, txosnako egitarauaren hasierari abuztuaren 13an ekiten diote. Keparen etxean bazkaldu ostean, harantz mugitzen gara Marc, Kepa eta hirurok. 18:00etan dago iragarrita Mozkorra Tomatearen Igoera eta apur bat lehenago gerturatzen gara. Giroa nahiko lasaia da. Abuztuaren erdialdean gaude, arratsaldea da, eta ez da mugimendu gehiegirik ikusten kalean. Txosnagunean hainbat gazte dago, gora eta behera, gauzak prestatzen, eta besterik gabe zerbait edaten eta solastatzen. Ikusten duguna espero genezakeen jaien irekieratik urrun dago. Esan bezala, gerora jakingo dugu jaiak ofizialki hurrengo egunean hasten direla. Halaber, hau gazteek antolatutako ekimen bat da, eta ez du egitarau ofizialak duen oihartzun berbera.

Halakoren batean, berriz ere espero genuen zeremonia handirik egin gabe, txupinen bat edo beste bota eta gero, txingote bat soka bati lotu eta sokatik tiraka igotzen dute txingotea parez pare dauden txosna batetik bestera. Txosna baten gainean eskegita eta ondo lotuta utzi, eta pare bat argazki ateratzen dituzte gazteek. Mozorrotuta daude, eta lehenengoz denon argazki bat ateratzen dute, eta gero bakarrik mutilak agertzen diren beste bat ere egiten dute. Txingoteak gizaki itxura

hartzen du gorputzari begiratzeko badiogu, baina goiko partean tomate forma duen aurpegi eta burua dauka. Tomatea gorri-gorria da eta pertsona aurpegia du marraztuta. Tomatea pertsonifikatua ikusten dut nik txingote hori begiratzeko. Izan ere, Tomate Mozkorraren Igoera irakurrita, tomate bat, besterik gabe, igoko zutela espero nuen. Baina ez dute tomate bat igo, pertsona itxura eta tomate aurpegia duen txingotea baizik, tomate pertsonifikatua baizik. Edo, beste era batez ikusita, mozkortia den tomatea igo dute, horregatik "mozkorra tomatearen" igoera.

Gure moduko heldu edo "gazte ez horren gazte" den jendea ere badabil inguruetik. Argazkiak ateratzen ibili da. Kazetaria. Galderak egiteko gure txanda ere heltzen zaigu, eta nik baino lotsa gutxiago duen Marc jaikitzen da eserita gauden bankutik eta gazte horietako batengana gerturatzen da. Gu beraiei begira egon garen bezala, galdetzen diot nire buruari nola ikusten gaituzten haiek koadroan tokiz kanpo agertzen garen gu. Esan bezala, Marc, koadroko arkitekturaren eta espazioen arteko lotura eginez, bankutik altxatu eta txosnara gerturatzen da. Bere euskararen mugak direla eta, berehala etorri da gazte batek lagunduta guregana, elkarrizketari ekin diezaiozun. Lehenengo gazte bati galdetu dio, eta horrek beste batengana jo du, tomatearen kontu horren inguruan ezer gutxi baitaki. Bigarren horrek ere informazio gutxi eta lausoa du, baina zerbait kontatzen digu. Tomatearen igoera zer dela eta egiten duten galdetzen diogunean azkar eta motz erantzuten digu, historia motza baitu kontu horrek. Lehenengo une honetan dioskunaren arabera, halakoren batean kultura zinegotziak deitu egin ziren Aretxabaletan mozkor izeneko tomate bat bazegoela esanez, eta horren igoera egin zezatela proposatuz. Hori duela bost bat urte izan zela eta horren ostean mozkorraren igoera urtero egiten dutela diosku. Berak ez daki tomate hori nolakoa den, baina badaki Aretxabaletan askok jartzen duela.

Nik berehala pentsatzen dut baietz, nabaritzen dela ez dutela ezagutzen. Tomateari izena nondik dator kion ere ez dakitela ematen du. Izan ere, tomate gorri-gorria jarri diote buruan Aretxabaletakoaren antzik ez duen txingoteari. Bitxia egiten zait egoera. Kepak kontatuta, aurrekoan, ekimen jendetsu eta esanguratsua espero genuen, tomateari tokia eginez, eta tomatea baliatuta herria trinkotuz. Topatzen duguna, aldiz, ez da inondik inora aurreikusitakoa. Tomateari kasu gutxi egiten diote. Aretxabaletako tomateari bultzada emateko ere, ez du ematen balioko duenik ekintzak, bertan gutxi baitakite tomate horren bueltan. Orduan, zein zentzu du ekintza horrek? Besterik gabe, zinegotziak proposatu du eta egin egin dute? Baina zergatik? Zertarako? Zinegotziarekin hitz egin beharko dugu horretarako.

Ia bi urte beranduago, 2018ko otsailaren bukaeran, elkartzen naiz Ana Aretxabaletako Kultura Teknikariarekin. Mozkorra tomatearen igoera egiteko ideia nondik etorri zitzaion jakin nahi dut, udalaren partetik zein interes izan zuten ekimen hori bultzatzeko jakin nahi dut, alegia. Berehala ematen dit azalpen argi bat.

Gazteek jada urte batzuk zeramatzen abuztuaren 13an horrelako txingote baten igoera egiten. Nahiko ekimen berria zen, azkenengo urteotakoa, baina gazteen inizatibaz egiten zen, eta hori positibo iruditzen zaio Anari. Kontua da txingote hori mozkorra zela. Hau da, "mozkorraren igoera" ospatzen zuten, eta hori ez zitzairen gehiegi gustatzen batez ere udaleko zenbait politikari eta prebentzio alorrekoiei. Izan ere, ekimen horrekin gazteen artean mozkorria bultzatzen zutela iruditzen zitzairen. Hori dela eta, adibidez, ekimena egin zen lehenengo urteotan ez zuten egitarauan jartzen, eta ekimena ez egiteko presioa egiten zuten batzuek.

Anak politikariekin urte batzuk tentsioan eman zituen, kontu horren atzetik joan ez zitezten. Horrelakoren batean gatazkari irtenbide erraza emateko ideia izan zuen. Herrian mozkor izeneko tomatea egonda, tomate horren igoera egin zezaketen gazteek, eta horrela jada ekimenerako justifikazioa izango zuten. Txosnagunean zebilen gazte bati deitu edo idatzi eta proposamena egin

zion. Horrek taldekideekin komentatu eta gero ideia ona iruditu zitzaizela erantzun zion, eta horren ostean egin izan dute Mozkorra Tomatearen Igoera jaien hasieran. Anak ez du oso ondo gogoratzen noiz hasi ziren horrekin, baina jaietako egitarauak begiratzen ditugu, eta ikusten dugu gutxienez 2013. urtetik egin izan dela. Lehenago, baina, ez dakigu jada egiten zen edo ez, ezta Mozkorren Igoera egiten noiz hasi ziren, urte horietako egitarau ofizialetan ez baitzituzten sartzen txosnaguneko ekimenak.

Urte horietan, hain zuzen, zabaltzen hasia zen tomatea, bereziki 2010eko hamarkadan, eta orduan izan zen Anak proposamena bota zuen garaia. Ordurako, Aretxabaletako Mozkorra izena baztertzea eskatua zuen Kepak, baina hala ere zabaldua zegoen izen hura eta batzuek erabiltzen zuten. Urte horien bueltan ere egin zituzten tomate horren inguruko lehenengo ekimenak Aretxabaletako herrian. Testuinguru horretan Aretxabaletako Larrosa, orain *Mozkorra* izena hartuta, berriz ere konplize bilakatzen da, gazteen eta Ana teknikariaren konplizea, hain zuzen. Mehatxupear zegoen ekimena biziraunarazteko lagun izan zen tomatea. Eta horretarako "erabilia" izan zen, gure harridurarako. Kepak tomatearen igoera egiten zutela kontatu zigunean, tomateari zein herriari bultzada emateko ondo pentsatutako ekimena izango zela pentsatu genuen. Tomatea ondarea bilakatzeko eta horri balioa eman eta zukutzeko propio egindako ekimena izango zela espero genuen. Aitzitik, guztiz bestelakoa izan zen aurkitu genuena. Jada tomateak zuen ospea erabili zuten horrekin harremanik ez zuen beste ekimen bat babesteko. Tomateak, erabat ezezagun bazitzaieen ere, lagundu zien. Gerora, eta orain arte behintzat, ekimenak ez du balio izan tomateari ospe handiagoa emateko edota tomatea gehiago ezagutarazteko. Hala ere, hor dago ekimena bera, eta tomateak izena eta ospea hartzen jarraitzen badu, ikusi beharko da horrek nola eragiten dion *Mozkorra Tomatearen Igoerari*.

Gipuzkoako bertako tomateen erakusketa eta lehiaketa Donostiako Euskal Jaietan

2016eko irailaren 3a da, larunbata. Donostiako Euskal Jaiak dira, eta "euskal identitatearen" erakusle -edo erakusle- diren ekimenez josita dago kalea, eguraldi onak lagunduta. Pertsona andana ikusten da kaletik ere, egiten diren ekimenetara gerturatzen. Hizkuntzagatik, itxuragatik eta mugitzeko moduagatik, batzuk bertakoak eta beste batzuk turistak eta kanpotarrak direla ondorioztatzen dut. Ni goizeko 10:00etarako etorri naiz Boulevard aldera, ordu horretarako iragarrita baitzegoen Gipuzkoako bertako tomateen erakusketa eta lehiaketa. Inguruan, Boulevardetik Bretxa aldera hartuta, duela urte batzuk Biolurrek eta Behemendik antolatzen duten Nekazaritza Ekologikoko Azoka dago. Boulevarden bertan, tomateen erakusketa eta lehiaketarako mahaien ondoan, behin-behineko frontoi bat dago, publikorako aulkiak jarrita daude, eta frontoian ondo inprimatuta daude ekimena babesten duten enpresen izen eta logoak. Aurkezlea ere agertuko da, gaztetxoak jokatzeko hasten direnean zuzeneko komentarietan lanetan ibiltzeko. Frontoian dena txukun, dena argi, dena handi. Horren atzean dirua, babesle onak eta enpresa-interesak daudela sumatzen da. Ondoan, mahai luze batean jarriko dira tomateak, antolatzaileen informazioarekin pare bat panel asko jota, eta ekimenaren berri emateko triptiko batzuk jaso ahalko dira bertan.

Erakusketa prest dagoenean gerturatzen naiz mahaira. Ekimenaren triptikoa ematen didate. Antolatzaileak Slow Food Donostia, Gastronomiako Euskal Anaiarte eta Blas Enea mintegia dira, Donostia Kultura, Donostiako Udala eta Donostia 2016 erakundeek lagunduta. Hala ere, ekimenean bertan Blas Eneak eta Kimu Bat elkarteak hartzen dute presentzia gehien. Mahaiaren gainean hainbat tomate dago, mota ezberdinetakoak, eta gehienak bertako barietateak dira. Tomate bakoitzak fitxa bat dauka, eta bertan Blas Enea eta Donostiako Udala ere agertzen dira. Mahaiaren gainean ere bertakoa ez den barietatearen bat edo beste dago, tarteko Jack. Hauek lehiaketan ez dute parte hartuko, baina erakusketan bai. Berriz ere bertakoez ari garenean Jack barietatea agertzen da. Izan entsegu batean testigu moduan, izan erakusketa batean, ia beti erreferentziazko tomatea izaten da, konparaketarako eredu.

Kaletik dabilen jendea mahaira gerturatzen da. Tomateak begiratu, ukitu, eta argazkiak ateratzen dizkie. Hala ere, ez du jende asko erakartzen ekimenak, eta mahaiaren atzean daudenak kaleko jendearengana gerturatzen dira ekimenaren berri ematen. Mahaia eta tomateak behatzen ekimena apur bat "paripea" dela sentitzen dut. Bertan ez dago ekoizle baserritarren arrastorik eta landa eremuaren berri gutxi dugu mahai horren bueltan. Dena tomateetan eta ekimenaren antolatzaileengan zentratuta dago. Nonbait, propagandarako ekimena dela iruditzen zait, baina ez tomatea edo baserritarrei bultzada emateko, antolatzaileei baizik. Hala ere, denborarekin, elkarre hauen jarduna, funtzionamendua eta sareak ezagutzen ditudanean ikusiko dut ekimen hauek ez dutela sektore, tomate eta baserritarrengan eragin zuzena, zeharkakoa baizik. Gaurko ekimenaren antolatzaileei bultzada emanaz, sektoreari ere bultzada ematen zaie nolabait. Bestalde, hauek dira hirian zenbait produktu eta praktika zabaltzeko gaitasuna dutenak, eta horiek ezagutarazteak kontsumitzaileari eragiten dion heinean, ekoizleari ere bai.

Une batetik aurrera dasta egiten da, eta lehiaketaren emaitzaren berri ematen dute. Dastan tomateak ez daude prestatuta beste hainbatetan ikusi dudak bezala. Hemen, olio eta gatza bota diete tomateei, eta laukitan moztuta daude. Normalean, dastetan, tomatea bakarrik probatzen da eta tomatea goitik behera moztuta egoten da, tomate osoa hartzen duten zatiak mozten. Horrela, okela zein haziak hartu ohi dira, eta tomate osoaren erakusle diren zatiak egiten dira. Edo hori bilatzen da behintzat. Hemen ez, hemen plateretan laukitan zatikatuta daude tomateak.

Lehiaketaren emaitza emateko unea heltzen denean, bozgorailu txiki bati lotutako mikrofonoa martxan jartzen dute. Ekimenaren berri eman eta irabazlea zein izan den aipatzen dute. Irabazlea Teo izan da, "Teo con el Tomate de Aretxabaleta", diote. Irabazlea, beraz, ekoizlea izan da, eta ez tomatea bera. Areago, barietate honetako hiru lagin zeuden, baina bakarrak irabazi du. Kasu honetan, Teo aipatzen dute, eta ez Miren ezta Hazianitz ere. Erabat pertsonifikatzen da saria eta tomatea. Hortaz, barietatetik harago beste zerbaitek eragiten dio tomatearen kalitateari. Teok kontatuko digu laster Aretxabaletako Tomatearen lehenengo astean. Oso garrantzitsua da noiz batua izan den tomatea; kontsumitu baino lehen ahalik eta ordu gutxien pasa behar dira fruitua batu izan den unetik.

Tomateek, baina, ez dute bakarrik beraien artean lehiatzen. Donostiako 2016ko Euskal Jai hauetan, Boulevardeko eszenografia honetan, tomateek frontoiarekin ere lehiatzen dute, pilotarekin. Tomate dasta eta lehiaketa egiten den ordu berean partidua jokatzen ari dira gazte batzuk, mutilak. Esan bezala, azpiegitura hobeezina dago frontoian, musika ekipo eta komentaria eta guzti, eta tomate lehiaketaren berri emateko komentaria-lanetan ari denarekin lehiatu beharra dago. Bi eremuetan gizonak nagusi dira, baina pilotariak eta pilota bera plazagizonagoak dira, tomateak baino. Tomateen inguruan merkantilizazio- eta identifikazio-prozesu nabarmena egoten ari den arren, eta euskal identitatearekin zein bertakotasunaren ideiarekin lotzen ari diren arren, pilotaren ondoan jartzen direnean hartzen dugu prozesu horren neurria. Pilotak ematen dit

ikertzen ari naizenaren neurria, alegia. Tomateak euskal identitatea eraikitzeko erabiltzen ari dira, bai, eta euskal identitatea bera ere erabiltzen da tomateei bultzada emateko. Hala eta guztiz ere, bazterrekoa da tomateek duten tokia identitate honetan.

Nik 2016an ezagutu eta behatu nuen Donostiako Euskal Jaien testuinguruan egiten duten bertako tomateen erakusketa eta lehiaketa hori. Hala ere, urte batzuk lehenago hasiak ziren jada hori egiten, eta gerora ere jarraitu izan dute ekimenarekin. Lehenagotik entzunda nuen hau egiten zela, eta gehienetan Slow Foodek antolatzen zuela entzunda nuen. Maialenek berak ere kontatuko zuen behin irabazi zutela lehia hori. Orduan izan zen beraiek ondoko azoka ekologikoan zeudela eta behin lehiaketa irabazita jende mordoak hasi zitzaizela paradara gerturatzen, tomate eske.

Horrelako ekimenean Slow Foodek ere presentzia hartzen du barietate honen historian. Hainbatetan aipatu izan dizkirate antolatu dituen dastak, nik neuk 2016ko hori ezagutu ahal izan nuen, eta prentsan bilatuta tomatearen inguruko hainbat albistetan Slow Food ere agertzen da. Alde batetik, zenbait dasta antolatu izan du, eta horietan Aretxabaletako Larrosak irabazi duenean ospea eman dio, hainbatetan albiste bilakatuta¹⁸⁵. Bestetik, "Arca del Gusto" ekimena burutzen du elkarte horrek, eta bertan katalogatu egiten ditu desagertzeko arriskuan dauden zenbait elikagai, produktu, barietate edota arraza. Bertan ere sartu egin zuten Aretxabaletako Larrosa.

Horrelako ekimenean, zuzenean ikusten direnean, txiki eta eraginik gabeko dirudite. Kaletik jende asko ez da gerturatzen mahaira, eta ez du ematen tomatea zabaltzen eragin zuzena izan dutenik. Horrelakoetan, maiz, pentsatu dut ekimen hauek elkartearen eta erakundearen jarduna eta dirulaguntzak justifikatzeko egiten direla, duten inpaktu zuzenagatik baino. Hala ere, esan bezala, zeharkako eragina dute, eta Aretxabaletako Larrosa tomatearen historian tokia hartzen dute. Apika, Boulevardera jende gutxi bertaratu zen, baina Slow Foodek 2010ean egindako dasta baten harira *Diario Vascon* argitaratu zuten albiste bat, eta hori jende gehiagorengana heltzen da. Ikusiko dugun bezala, 2012an Aretxabaletan lehenengo hitzaldi bat antolatu zuten bi elkarteek, Slow Food ere egon zen bertan, eta berriz ere *El Diario Vascon* albiste bat aterako zuten¹⁸⁶.

Halaber, ekimen txikiak badira ere, horrelako hainbat egin izan da dagoeneko, eta apurka-apurka joan dira tomateari ikusgaitasuna eta toki publikoa ematen. Zentzu honetan,

185 Ikus, adibidez: <<https://www.diariovasco.com/v/20101024/alto-deba/aretxabaleta-tomate-20101024.html>>. [Azkenengo ikustaldia: 2020/07/13].

186 Ikus: <<https://www.diariovasco.com/v/20121021/alto-deba/tomate-rosado-aretxabaleta-20121021.html>>. [Azkenengo ikustaldia: 2020/07/13].

nabarmenezkoa da nola aurkezten duten tomatea. Albisteetan edo 2012an egin zen hitzaldian tomatea historia baten barruan eta zonalde batean kokatzen bazuten ere, dastetan nahiko objektibizatuta agertzen da tomatea, produktu bat, alegia. Bere baitan baloratu behar den produktua da -horretarako dasta eta lehiaketa-, asko jota baserri edo ekoizle bati lotuta. Kasu honetan, Donostiako herrigunean egiten dira Euskal Jaietan dastak, baserriarren arrastorik ez dago bertan, eta gutxi kontatzen da bertako barietate horien historiaz. Lurralde "saltzeko" eta "dastatzeko" produktu bilakatzen dira, erabat beraien testuingurutik kanpo, eta gorputz itxi batean -tomatea bera- mugatuak.

Debagoaraia Debagoienako Landa Garapenerako Elkarte eta Debagoienako Mankomunitateko Turismo Arloa: Aretxabaletako Tomatearen Astea eta bestelako ekimenak

2016an gaude orain ere, lekuan lekuko lanean bete-betean murgilduta nago, eta lagun batek bidalitako korreo elektroniko baten bidez ekimen baten berri daukat. Aretxabaletan bertan Aretxabaletako Tomatearen Astea antolatuta dago iraila bukaerarako. Oraingo honetan, Kepa da zonaldean gehien bisitatu dudana pertsona, eta berarekin dut konfiantza gehien. Hala ere, bera ezin da joan aste horren baitako ekimenetara, egun hauetan kanpoan baitago. Hori dela eta, bakarrik gerturatzen naiz ekimenetara.

Asteazkenean, irailaren 21ean, antolatu duten tomate kontserba-tailerrera noa, izena eman eta gero. Lotsatuta noa, kanpotar sentitzen naiz, eta ez naiz eroso posizio honetan. Gazteena naiz diferentziaz, eta ez dut bertako hizkeraz egiten. Tailerra Jakion enpresako gerenteak ematen du, emakume batek. Jakion Debagoienan sortu zen enpresa bat da, eta bertako baserrietako produktuei irteera emateko eta errazteko helburuarekin sortu zen, produktuen eraldaketarako eta osasun-erregistrarako aukerak irekiz. Besteak beste, kontserbak egiten dituzte, eta tomateekin tomate saltsa zein tomate erreximenta egiten dute. Gaur tomate "naturala" eta tomate berdeen erreximenta egiten dugu. Bitartean, tailerrean etorritakoak, denak emakumeak, berriekin aritzen dira, besteak beste, tomateen inguruan. Ea zein tomate dituzten baratzean, ea nondik atera dituzten haziak, ea

ARETXABALETAKO TOMATEAREN ASTEA
Irailak 21etik 24ra
Del 21 al 24 de septiembre

Irailak 21 septiembere
TAILERRA/TALLER. Tomatea kontserban. El tomate en conserva
 Tokia: Arkupe. Ordua: 18:00. Aurrez izena eman behar da. Previa inscripción (*)

Irailak 22 septiembere
HITZALDIA/CHARLA: Bertako tomatea, Aretxabaletako tomatea, hobeto ezagutzeko aukerak. Conoce el tomate de Aretxabaleta.
 Hizlaria: Tomas Larrañaga. Tokia: Arkupe. Ordua: 18:30

Ortu lehiaketa. Aurrez izena eman behar da. Concurso de huertas. Previa inscripción (*)

Irailak 24 septiembere. Azoka ekologikoa. Feria ecológica.
 - 12:00etatik aurrera tomate erakusketa popularra.
 Edonork parte hartu dezake, aurrez izena eman behar da. Exposición popular de tomates. Previa inscripción (*)

- 14:00etan Herriko Plazan ortu lehiaketaren eta tomate erakusketa popularreko sari banaketa. Reparto de premios del concurso de huertas y de la exposición popular de tomates.

(*) Informazio gehiago eta izena emateko/Para más información e inscripciones:
 ARKUPE KULTUR ETXEA turismo@debagoiena.eus 943 79 64 63
 www.turismodebagoiena.com

Irudia 12: 2016ko Aretxabaletako Tomatearen Asteako kartela. Iturria: Turismo Debagoiena.

zein den tomaterik onena, besteak beste. Bukatzeko ordua heltzen denean, erreximenta poto bana hartu, eta etxera goaz. Hurrengo egunean itzuliko naiz Aretxabaletako Tomatearen inguruan dagoen hitzaldia entzutera.

18:30ean da hitzaldia. Minutu batzuk lehenago gerturatzen naiz Arkupe Kultur Etxera. Mugimendu gutxi ikusten dut eta sarreran dagoen langileari hitzaldiaz galdetzen diot. 19:00etan dela esaten dit. Nik, zalantza, kartela bilatu eta zer jartzen duen ziurtatzen dut. 18:30ean da. "Ah, ba, orduan bai, 18:30ean" esaten dit langileak. Areto nagusia non dagoen esan, eta harantz noa ni, harrিতuta. Gaur, atzo ez bezala, gehien-gehienak gizonak dira gelan. Hasieran ikusten ditut bi emakume, baina horiek antolatzaileak dira, gerora jakingo dudana bezala. Berriz ere, nire presentziak ez daitezen konturatu nahi dut, baina hitzaldia eman behar duen Teok ni ezagutu eta berehala hitz egiten dit. Ea zelan nagoen nire lanarekin, eta ea jada bukatuta dudana galdetzen dit. Ikusi ditudan bi andre horietako batek esaten du aurreko egunean ere tailerrera joandakoa naizela, zintzo-zintzo, eta Teok esaten dio ezagutzen nauela.

Minutu batzuk itxaron eta gero, areto nagusia handiegi geratzen zaigularik, Teo hasten da tomatearen historia kontatzen. Hitzaldian historia kontatzen du, labur-labur. Historia azkar kontatu ostean, tomatearen laborantzaren inguruan jarduten du, baita barietate horren ezaugarriez ere. Horretaz hitz egiten hobeto moldatzen da, eta gehiago luzatzen da. Horretaz ere galdetuko diote gehien bat hitzaldia bukatutakoan. Hala ere, tomatearen historiak ere galdetzen dute publikotik. Omen, beste historiaren bat entzunda zuen etorritakoren batek. Orduan eztabaidatzen jartzen dira, ea zein etxe edo baratzetatik pasa den tomate hori Teorengana heldu aurretik. Nik ordurako badaukat informazio gehiago historiaren inguruan, eta lehenengo batean pentsatzen dut historia ez dela esaten ari direna izan, gaizki ari direla. Hala ere, isiltzen naiz. Gerora pentsatuko dut ondo egin dudala isiltzen, eta era berean zalantza sortzen zait: zergatik da nirea "egia" eta besteena okerreko bertsioa? Eta, horrela balitz ere, noraino da garrantzitsua "egia", eta noraino tomatearen inguruan askotariko istorioak egotea. Hitzaldiaren bukaeran, Teok ekarritako tomateak gertutik ikusi eta dastatu egiten ditugu. Orain da lehenago jada aipatu dudana: Urdintxaren suhia den Peioren lobak hitz egiten du, eta bere etxean tomate horren aurrekariak egon direla baina jada Teorenak bezalakoak ez direla kontatzen du.

Azkar bukatzen dugu dasta eta horren bueltako solasaldia, eta jendea joaten hasten da. Orduan Teok galdetzen dit -galdetu-edo, erretorikoki- ea ez dugun pote bat hartuko. Ezin ezetz esan, eta Arkupe Kultur Etxeko sarreran geratzen naiz bere zain. Ekimena antolatu duten bi emakumeekin

ARETXABALETAKO
TOMATEAREN
ASTEA
Irailak 25etik 30ra
Del 25 al 30 de septiembre

Irailak 26 septiembre
HITZALDIA-DASTATZE/CHARLA-DEGUSTACIÓN. Landatutako bioaniztasunaren bidarri: Aretxabaletako tomateak. Biodiversidad cultivada: el tomate de Aretxabaleta, Marra Barba eta Mare Badal. Tokia: Udaltzeveko lorategia. Ordua: 18:30.

Irailak 28 septiembre
TAILERRA/TALLER: Tomate kontserbatzeko tailerra. Taller de conservación del tomate. Ordua: 12:00 (*)

Ortu lehiaketa. Aurrez izena eman behar da. Concurso de huertas. Previa inscripción (*)

Irailak 30 septiembre. Azoka ekologikoa. Feria ecológica
TAILERRA/TALLER: nola lortu haziak - 12:00etatik aurrera tomate erakusketa popularrak. Edonork parte hartu dezake, aurrez izena eman behar da. Exposición popular de tomates. Previa inscripción (*)

- 14:00etan Herriko Plazan ortu lehiaketaren eta tomate erakusketa popularrak sari banaketa. Reparto de premios del concurso de huertas y de la exposición popular de tomates.

Tabernetan tomatearekin egindako pinchoak dastatzeko aukera. En los bares, restaurantes se podrán degustar pinchos de tomate.

(*) Informazio gehiago eta izena emateko/para más información e inscripciones: ARKUPE KULTUR ETXEA - hurrina@debagoiena.eus. 943 79 64 63



Irudia 13: 2017ko Aretxabaletako Tomatearen Asteko kartela. Iturria: Turismo Debagoiena.

ateratzen da, baina horiek martxa egin behar dute. Hortaz, aspaldiko partez, Teorekin lasai solastatzeko unea dut. Oraingoan lasai egongo gara, bera ez dago ez etxean, ez negutegietan, eta ez azokan. Hortaz, garagardo baten bueltan bestelako gaiez aritzen gara. Esaterako, nire bizitzaren proiektuaz edo Bayer eta Monsantoaren fusioaz jarduten gara gustura eta lasai. Hala ere, gehiegi luzatu gabe elkar agurtzen dugu, etxerako bueltako bidea egin behar dut eta.

Bi egun beranduago, larunbatean, itzultzen naiz Aretxabaletara. Gaur azoka dago herrian, eta Aretxabaletako Tomatearen Asteari bukaera emateko ortu lehiaketa eta tomate erakusketa herrikoia antolatu dute. Azokatik apur bat aldentuta, herriko plazaren izkina batean, mahai bat dago bertako tomateekin. Tomate itsusienaren lehia egiten dute, eta edonork bozka dezake bere iritziz itsusiena zein den adierazteko. "Gaur bai, gaur hitz egin behar dut hau antolatzen ari direnekin", esaten diot nire buruari, eta banoa mahaian dagoen emakume batengana. Aurreko egunotan jada ikusi dut, eta antolatzailea dela pentsatzen dut. Kostata, baina ematen diot tesiaren berri. Ainara du izena, eta bertako elkarte batean lan egiten duela esaten dit. Momentuan ezin dugu lasai hitz egin, baina bere kontaktua pasatzen dit, eta guztiz prest agertzen da nahi dudanean nirekin elkartzeko.

Hilabete batzuk pasa ziren Ainararekin berriz elkartu nintzen arte, baina handik aurrera aldirokoa izan da gure harremana. Debagaraia Debagoienako Landa Garapeneko Elkarteko langilea da Ainara, eta Debagoienako Mankomunitateko turismo arloko Isa langilearekin batera antolatu zuen 2016an *Aretxabaletako Tomatearen Astea*. Handik aurrera, hurrengo urteotan, urtero antolatu izan dute *Aretxabaletako Tomatearen Astea*. Formatu eta ekimenen aldetik, aldaketa txikiak egiten joan izan dira, baina *Astearen* formatua mantendu izan dute. Azkenengo urteotan, gainera, Marc eta biok parte hartu dugu hitzaldiren bat edo beste ematen, baita zenbait ekimen proposatzen eta koordinatzen ere¹⁸⁷. Halaber, 2016an antolatu zuten lehenengo aste hori baino urte gutxi batzuk lehenago antolatu izan zuten herrian tomatearen inguruan hitzaldi bat. Bertara, Kepa, Teo eta Maialen gonbidatu zituzten. Tomatearen historia azaldu eta dasta bat egin zuten, tomatea herrian bertan ezagutarazteko asmotan.

Ainara eta Isaren arteko elkarlan hau, baina, lehenagotik dator, baita Aretxabaletako Larrosarekiko interesa ere. Izan ere, biak baserrikoak dira edo familia baserrikoa dute, eta bakoitzak bere eremutik sentsibiltatea du nekazaritzarekin lotura duten gaiekiko. Isak oso argi ikusten du, berak baserriarekin lotura izan ez balu turismo arlotik ez liratekeela berak bultzatu dituen ekimen batzuk egingo. Ainarak, bere aldetik, askoz lotura sendoagoa du baserriarekin. Izan ere, berak etxean betidanik ezagutu izan du nekazaritza jarduera, eta 90eko hamarkadan hartu zuen jardunaren erreleboa. Etxaldearen buru jarri zen eta kotizatzen hasi zen. Ekologikoan hasi zen ekoizten, eta batez ere baratzea egiten zuen. Orduan ezagutu zuen Aretxabaletako Larrosa tomatea, Teoren bidez. Garai hartan zonaldeko mintegi konbentzional

187 Gerora zehaztu eta aztertuko dut zeintzuk izan diren Marc eta bion artean Aretxabaleta inguruan egin ditugun ekimenak.

batean erosten zituzten landareak. Ez bailaran ez Gipuzkoan ez zegoen mintegi ekologikorik, eta orduko hartan ekologikoan oraindik onartzen zen landare konbentzionalak erabiltzea. Hala ere, batzuk hasiak ziren gaiarekin kezkatzen, Teo tarteko, eta bazituzten bertako batzuk, Aretxabaletako Larrosa tomatea horietako bat. Lehenengo urte horietan Teori erosten zion tomate landarea. Gerora, Landarpila mintegia martxan jarri zenean hasi ziren hara joaten landare bila, eta horri esker ere hasi ziren gero eta bertako bariedade gehiago jartzen. Izan ere, Aretxabaletakoa izan zen berak jarri izan zuen lehenengo bertako bariedadea.

Hamar bat urte sektorean instalatuta zeramatzanean, 2004. urtean, hasi zen Debagaraia elkartean lanean. Hasieran, Biolurreko kide gisa hasi zen Debagaraiko bileretara joaten. Une jakin batean, baina, elkartean langile bat behar izan zuten lanaldi erdian, eta orduan sartu zen Ainara. Handik ez askora lanaldi osora pasa zen, eta horretan urtebete inguru eman ostean baserriko jarduna uztea erabaki zuen, bi lanak bateratzea ezinezkoa baitzitzaien. Hala ere, egun bere bikotea dago nekazaritzan altan emanda. Ardiak ditu eta barazkiak ekoizten ditu. Hortaz, Ainarak gertu-gertutik ezagutzen du nekazaritzako errealitatea eta Aretxabaletako Larrosa tomatea.

Mankomunitateko turismo arlotik eta Debagaraia elkartetik batera lanean nola hasi diren jakiteko, atzera egin behar dugu, eta turismo arloan Isak egin duen lanari erreparatu behar diogu. Beste arlo askotan bezala -nekazaritza eta elikagaien kontsumoa barne-, turismoan ere kalitate zigilu eta markak nagusitu dira aspaldi honetan. Estatu mailako zigilu bat lortzeko, hainbat ekimen eta praktika burutu behar zuten, eta horri begira lanean jarri ziren mankomunitatean 2007an. Horretarako, jatetxeekin batera hasi ziren lanean, kalerako egitarau bat lantzen eta bertako produktuei tokia egiten. Turismo arloan ohikoak izan diren natura eta kultura edo ondare alorrei horiek biak uztartzen dituen hirugarren bat gehitu zaio azkenengo urte luzeotan: gastronomia. Eta bereziki Euskal Herrian. Debagoienan ere, horretan jardun dute.

Testuinguru honetan ikusi zuen Isak bazutela bertako produktuekin eta jatetxeekin zer landu, eta jardunaldi gastronomikoak antolatzeari ekin zioten. Jardunaldi horiek zonaldean ezagunak diren produktuen inguruan antolatzen dira, produktu horiei ikusgaitasuna eman nahian. Horretarako hainbat ekimen antolatzen da, besteak beste, zenbait jatetxetan produktu horiekin egindako sasoiko kartak prestatzen dituzte. Bildotsa, gazta, eztia, eta txakolina dira jardunaldi hauetan landu dituzten produktuetako batzuk. Isa, baina, turismo arloko langilea da, eta falta zitzaion lehenengo sektoreko ekoizleekin kontaktua eta harreman arina. Hori dela eta hasi zen

Debagaraiarekin elkarlana. Isak egingo zuen lana jatetxeekin eta ekimenak antolatzen, eta Ainarak landuko zuen ekoizleen kontua.

Elkarlan horretatik egin izan dituzte askotariko ekimenak, eta horien artean Aretxabaletako Larrosarekin egin duten lana daukagu. 2012-2014 urteen bueltan lehenengo hitzaldi bat antolatu zuten tomatearen inguruan, eta 2016an egin zuten lehenengoz *Aretxabaletako Tomatearen Astea*. Horretarako, Aretxabaletako Udalaren babesak izan dute, udalari interesatzen baitzaio herriari zein tomateari bultzada ematea. Esan bezala, 2016tik hona urtero antolatu dute aste hau, eta azkenengo urteotan Marc eta biok beraiekin batera elkarrekin lan egin dugu ekimen horri begira. 2017an guk eman genuen tomatearen inguruko hitzaldia. "Landatutako bioaniztasunaren bidean: Aretxabaletako tomatea" izenburua jarri genion, eta tomate horren kasutik abiatuta bertako barietateen garrantziaz mintzo ginen.

2017an zehar ere, bion artean egindako elkarrizketetatik abiatuta Marcek idatzi zuen *Aretxabaletako Tomatea. Bioaniztasuna, lurraldea eta jakintza partekatua* liburua, eta 2018an argitaratu zuen. Aretxabaletako udalarekin batera atera zuten Marcek eta *Cristina Enea Fundazioak* liburuaren argitalpena. Liburua aterata, aurkezpena egin zuten herrian, eta aurkezpenarekin batera ekimentxo bat ere egin zuten: bertako tomate landareak banatu zituzten Ekolandare mintegiko Ione eta Ainarak. Horren guztiaren antolakuntzan Isa eta Debagaraiko Ainarak ere parte hartu zuten.

2018. urte horretan sendotu zen Ainara, Isa, Marc eta lauron arteko elkarlana, eta *Aretxabaletako Tomatearen Asteari* begira zenbait proposamen egin genien, egitarauan txerta zitzaten. Alde batetik, berriz ere egongo ginen Marc eta biok hitzaldiaren egunean. Urte horretan, baina, hitzaldi formatutik aldenduz ekoizleekin batera tomateen bueltan elkartzea erabaki genuen, Aretxabaletako Tomatearen baitan sortutako aniztasuna zein konfusioak aztertzeko. Halaber, tomate kontserbak egiteko tailerra egin ordez, haziak ateratzeko tailerra eman zuen Marcek. Azkenik, haziak ekoizten dituen Aleka elkarteko kide bat azokara joan zen haziak saltzera. Horrela, Aleka bera sartu zen *Astearen* antolatzaile edo babesle gisa. Izan ere, Marc eta biok horren izenean ere parte hartu izan genuen aste horretan. 2019ko *Astea*, aldiz, gure parte-hartzea berriz ere mugatu egin zen. Kasu horretan, astean zehar egin zen haziak ateratzeko tailerra, eta azokan Alekaren postua eta haziak ateratzeko erakustaldia izan ziren gure parte-hartzea, kasu honetan nirea edo biona baino, Marcena erabat.

Badira jada 4 urte *Aretxabaletako Tomatearen Astea* antolatu eta egiten dela. Zenbait unetan, azokan edo hitzaldiren batean egon naizenean ekimenaren seriotasun eta ondorioen inguruan zalantzak sortu zaizkit. Izan ere, maiz oso pertsona gutxi egon gara hitzaldi edo tallerretan, eta askotan berdinak urterik urte. Halaber, azokatik jendea pasatzen bazen ere, ez nuen sumatzen ekimenarekiko berebiziko interesik. Hori bai, azkenengo urteotan bereziki jende asko gerturatu da azokara Aretxabaletako Larrosa tomatearen hazi edo landare eske. Perspektibaz begiratuta, baina, egonkortu den ekimena dela ikusten dut, pixkanaka-pixkanaka herrian toki bat hartu duen ekimena, alegia.

Aretxabaletako Tomatearen astea 2018
Irailaren 17tik 22ra
Del 17 al 22 de septiembre

Irailak 18 septiembre
HITZALDIA/CHARLA: Aretxabaletako tomatea. Erakusketak, dastaketa eta ekizileen topaketa. El tomate de Aretxabaleta. Exposición, degustación y encuentro entre productores. Tokia: Arkupe. Ordua: 18:30.

Irailak 20 septiembre
TAILERRA/TALLER: Haziak lortzeko tailerra. Taller para extraer semillas. Tokia: Arkupe. Ordua: 18:30

Ortu lehiaketa. Aurrez izena eman behar da. Concurso de huertas. Previa inscripción (*)

Irailak 22 septiembre
 - 11:00: Tomatearen inguruko azoka berezia. Feria especial del tomate. Durana kalea
 - 11:30: Jakoba Errekondoren landare kontu-buletaria. Consultorio sobre plantas de Jakoba Errekondo. Durana kalea
 - 12:00: Tomate erakusketak popularra. Edonork parte hartu dezake, aurrez izena eman behar da. Exposición popular de tomates. Previa inscripción(*)
 - 12:00: Gastronomi elkartearen arteko lehiaketako tomate sopa hotzen eta tomatearekin egindako pintxoaren dastatzea. Degustación de las sopas frías de tomate del concurso de sociedades gastronómicas y de pintxos elaborados con tomate.
 - 14:00: Ortu lehiaketaren, tomate erakusketak popularreko eta tomate sopa hotzen lehiaketako sari banaketa. Reparto de premios del concurso de huertas, de la exposición popular de tomates y del concurso gastronómico de sopas frías de tomate.
 Gainera, Aretxabaleta tomatearen pintxo ibilbidea. Además, ruta de pintxos de tomate Aretxabaleta.

(*) Informazio gehiago eta izena emateko
 Para más información e inscripciones:
ARKUPE KULTUR ETXEA
 turismo@debagoiena.eus 943 79 64 63/943 71 89 11
 www.turismodebagoiena.eus

Irudia 14: 2018ko Aretxabaletako Tomatearen Astea. Iturria: Turismo Debagoiena

Aretxabaletako Tomatearen astea 2019
Irailaren 16tik 21ra
Del 16 al 21 de septiembre

Irailak 17 septiembre
HITZALDIA/CHARLA: Gure tomatearen onurak. Los beneficios de nuestro tomate. Amaia Diaz de Monasterioguren. Tokia: Arkupe. Ordua: 18:30.

Irailak 18 septiembre
HAURENTZAKO TAILERRAK. Tokia: Herriko Plaza. Ordua: 18:00.

Irailak 19 septiembre
TAILERRA/TALLER: Haziak lortzeko tailerra. Taller para extraer semillas. Tokia: Arkupe. Ordua: 18:30

Irailak 21 septiembre
 - 11:00: Tomatearen inguruko azoka berezia. Feria especial del tomate. Durana kalea
 - 11:30: TAILERRA/TALLER: Haziak ateratu dituen artean, Hazilana, Marc Badal. Extracción de semillas. Tokia: Durana kalea.
 - 12:00: Tomate erakusketak popularra. Edonork parte hartu dezake, aurrez izena eman behar da. Exposición popular de tomates. Previa inscripción(*)
 - 12:00: Gastronomi elkartearen arteko lehiaketako tomate sopa hotzen eta tomatearekin egindako pintxoaren dastatzea. Degustación de las sopas frías de tomate del concurso de sociedades gastronómicas y de pintxos elaborados con tomate.
 - 14:00: Ortu lehiaketaren, tomate erakusketak popularreko eta tomate sopa hotzen lehiaketako sari banaketa. Reparto de premios del concurso de huertas, de la exposición popular de tomates y del concurso gastronómico de sopas frías de tomate.
 Gainera, Aretxabaleta tomatearen pintxo ibilbidea. Además, ruta de pintxos de tomate Aretxabaleta.

(*) Informazio gehiago eta izena emateko
 Para más información e inscripciones:
ARKUPE KULTUR ETXEA
 turismo@debagoiena.eus 943 79 64 63/943 71 89 11
 www.turismodebagoiena.eus

Irudia 15: 2019ko Aretxabaletako Tomatearen Astea. Iturria: Turismo Debagoiena.

Ikusi ditugun beste ekimen guztiekin batera, honen bidez tomatearen berri ematen da, tomatearen historia kontatu egiten da, tomateak beraiek erakutsi egiten dira, eta haziak ere zabaldu egiten dira. Aste horren aitzakiaz, halaber, bertako komunikazio proiektuak zein bestelako komunikabideak gerturatzen dira ekimenetara edota Ainara eta Isa teknikariengana, eta irrati, egunkari zein telebistek herritik eta bailaratik harago zabaldu egiten dute tomatea. Argi dago ekimen hauek ez direla nik aldeztu aurretik espero nitzakeenak. Herri osoa ez dago tomatearengan inplikaturik, eta ez dira asko tomatea bere eta bertakoa sentitzen dutenak. Hala ere, galdetzen diot nire buruari, horrelako produktu bat sortzen denean, elikagai baten

inguruan patrimonializazio moduko prozesu bat gertatzen denean, alegia, horren bueltako ekimenak eta atxikimenduak prozesuaren aurretikoak al dira beti, edo prozesuarekin berarekin sortzen dira? Jendea dago patrimonializazioaren oinarrian, edo produktua eta bere inguruko ekimenak balizko lotura horren ilusio edo lilurak dira?

Kasu honetan, argi ikusi dugu lotura bat egon badagoela tomate horrekiko. Bailarako zein Gipuzkoako barazkigintzan eta nekazaritza ekologikoan gakoa izan da, bidelagun hobeezina kasik. Herrian ere, bere tokia izan du, sare informalen bidez batez ere. Orduan, aitortzaren plazara, fokuetara eta karteletara jauzi egiten duenean, kale, azoka eta kultur etxeetan ez ditugu tomate horren bueltan egon diren guztiak topatzen, ezta gehienak ere, baina horrek ez du esan nahi tomatearen inguruan oinarri sendo bat ez dagoenik. Hori bai, ekimen hauekin proiektio berri bat ematen zaio, g-une eta sare berri batzuetan kokatzen da tomatea eta subjektu eta interes berri batzuk sartzen dira horren historian. Horrekin, tomateari berari zein bere inguruko nekazariei bultzada eman nahi zaie. Halaber, Aretxabaletako herriari zein ekimena antolatzen dutenei ere tokia egiten die tomateak. Edonolakoak direla interesak, tomateak, herria, elkarteak eta ekoizleak gurutzatu egiten dira, eta ekimenei guztiei eragiten diete.

Aretxabaletako Larrosa tomatearen meta-historia: Marc eta bion eragina tomate horrengan

Aurten ere -2018an gaude-, hirugarren biderrez, Aretxabaletako Tomatearen Astea antolatu dute. Aurten ere Astea egin behar zen, eta maiatzean Marcek idatzitako liburua atera zenez, Marcekin harremanetan egon ziren Ainara eta Isa. Hori dela eta, urtean zehar harreman aktiboagoa mantendu izan dugu eta hortik sortu da gure esku-hartzea Astearen antolakuntzan. Besteak beste, tomatearen asterako, aurten, hitzaldiaren orde zerbait partekatuagoa eta parte-hartzaileagoa egitea proposatu genien. Hainbatetan jaso ditugu Aretxabaletako tomatearen zein den "kolokan" jartzen duten komentarioak. Baten batek ere iruzurra aipatu digu noizbait. Beraz, zalantza dugu ea izen berdinarekin barietate ezberdinak izendatzen ari ote diren, edota barietatearen baitan barietate berriak sortu dituen dibertsifikazio-prozesurik egon den. Horren aurrean, interesgarria iruditu zaigu zenbait barietateekin batzea, tomateen inguruan hitz egiteko eta euren antzekotasun-ezberdintasunen inguruan berrikeria jartzeko. Marc eta bion ardura izan da hau antolatzea.


Gaurko, tomate honen historiaren protagonistak gonbidatzen ahalegindu gara, eta bereziki emakumeak etorrarazten. Halere, gonbidatu ditugun artean gehienak gizonak izan dira eta gainera gonbidatu ditugunetatik bakarrik gizonak gerturatu dira. Beraz, ekimena gizonen topaketa bilakatu da, gizonen eta beraien tomateen topaketa, apur bat.

Aspalditik horietako batzuk ikusi gabe. Bereziki Goiko baserriko Pedrok harritu nau, pozik agurtu nau eta. Patxik ere, gertuko, "errua" bota digu, lehenago ez baikara joan berarekin bazkaltzera, askotan egin bezala. Keparekin gutxi egon naiz, eta Teorekin, betiko lez, musua eskatu eta zerbait komentatu dugu.

Areto nagusian ez egitea eskatu genuen, horrek zailtzen baitu formatu parte-hartzaileagorik egitea. Marc eta biok lehenago heldu gara, Debagaraia elkarteko Ainararekin batu, eta gora abiatu gara, espazioa prestatzen hasteko. Aulkiekin borobiltxo bat egin, arbelean inguruko herriak marratzu, eta mahaiak prestatu ditugu. Horretan genbiltzala jendea heltzen hasi da. Azkenean soilik 4 pertsonak ekarri dituzte tomateak, beraien artean Hazianitz baserriko Teok eta Goiko baserriko Pedrok. Papertxo batean euren izena -beraiena edo baserriarena- apuntatu ditugu, baita zein herritik datozen ere. Paperaren atzean euren tomateak jarri ditugu, baten bat gora begira eta baten bat behera begira, goiko partea zein behekoa ikusgarri egon daitezen.

Tarte honetan ezagutzen ez nituen bi gizonekin berriretan egon naiz. Halako batean, erretretan sartzeko adinaren bueltan egon behar duen batek sakelakoa atera eta bere baratzeko tomateak erakutsi dizkigu, argazkitan. Argazki bat erakutsi digu eta bertan dituen 4 tomate klase agertzen dira. Berak tomate horien haziak gordetzen ditu, eta 4tik 3 arrosa-moreak dira. Horietako bat, Aretxabaletakoa. Bitxia izan da bera bere tomateen inguruan hitz egiten ikustea. Bere tomateekiko atxikimendua eta harrotasuna nabaritu diot.

Horrezkero berotzen hasi gara. Bai gu -Marc eta biok- eta bai beraiek. Kontatzeko gogoia sumatzen zen giroan. Kepa eta Patxik, aldiz, ez dute tomaterik ekarri. Urte txarra izan da, eta jada ez dute tomaterik. Halere, haziak gordeta ditu Patxik behintzat, aurreko urtetakoak. Aurten Goiko baserriko eta Urdintxa tomateak izan ditu jarrita. Antzekoak/berdinak, dio.



Irudia 16: Aretxabaletako Larrosa tomatearen historia eta mugimenduak osatzen. Iturria: Nik egina.

Tartetxo bat itxaroten egon eta gero, jesarri gara, hizketaldiari ekiteko. Marc eta biok prestatutako gidoia jarraitzen ahalegintzen gara, baina bertaratu direnen hitz egiteko gogora moldatzen bukatzen dugu. Orokorrean, tomateak egin duen ibilbidea denon artean berregiten dugu, arbelean horixe bera jasotzen dugun bitartean (ikus Irudia 16). Tomatearen ibilbidez gain, bakoitzak tomateak nola landatu, haziak nola gorde eta erein, eta barietatea nola zabaldu duen ere jasotzen dugu. Orokorrean, aurreko ataletan kontatu duguna da bertan berriz ere azaleratzen dena. Hala ere, guk zalantza batzuk argitu nahi genituen arren, bertan zalantza berriak agertzen zaizkigu. Ematen du historia argitzear dugunean -ordurako Marcek jada liburua argitaratu du-, berriz ere korapilatu eta zalantza berriak agertu behar direla.

Daukagun zalantzetako bat tomatearen dibertsifikazioarekin lotuta dago. Pertsona ezberdinei entzunda diegu barietatea degeneratu egin zaiela; beste batzuei, batzuek Aretxabaletako Larrosa izenarekin barietate horrena ez diren tomateak landatu eta zabaltzen dituztela; baten bati, baratzean Aretxabaletako Larrosa izateaz gain, Urdintxa ere baduela, bi ezberdin balira bezala. Hori dela eta, historiaren parte direnak eta berauen tomateak elkartuta, hori argitu nahi izan dugu. Hartara, mintzaldia zutik eta tomateen bueltan bukatzen dugu (ikus Irudia 17). Tomateak nahiko ezberdinak dira beraien artean, batez ere tamainari dagokionean eta heldutasun puntuari dagokionean. Hala ere, beraien arteko antzekotasunak ere nabarmenak dira. Horiei begira, balorazioak egiten jartzen dira berehala. Teok azpimarratzen du maneiak duen eragina. Adibidez, tomate batzuek goiko partea berde samar dute, beheko partea helduta egon arren, eta Teok berehala daki negutegipean landatuak izan direla eta beroa pasa dutela.



Irudia 17: 2019ko Aretxabaletako Tomatearen Astean baitan egindako solasaldi-dasta, Aretxabaletako Larrosa tomateak. Iturria: Nik egina.

Orokorrean, antzekoak diren arren, Teok ikusten du mahai-gainean dauden tomateen artean batzuk Aretxabaletako Larrosaren ezaugarrietatik apur bat urrunduta daudela, batez ere formari dagokionean. Edonola ere, mahai-gainean beste elementu bat ere jartzen dute. Irailaren bukaeran gaude, eta azkenengo tomateak dira gaur aurrez aurre ditugunak. Gainera, tomateentzako oso urte txarra izan da. Normalean, sasoiaren bukaerakoak ere arraroenak dira, txikiago geratu ohi dira, besteak beste.

Azkar bukatzen dugu dasta eta tomateen inguruko hizketaldia. Gustura gauden arrear, berandu da eta nork bere etxerako bidea hartu behar du. Azkar jaso, eta nik ere martxa egiten dut. Etxerako bidean, tomateen bueltako irudia daukat grabatuta, eta bat-batean bitxi eta arrotz egiten zait sortu eta bizi izan duguna. Aurrean oso antzekoak ziren tomateak izan ditugu. Orokorrean, era ekologikoan ekoiztuak. Denak bertako barietateak. Denak onak, oso. Hala ere, horiek bereizteko eta sailkatzeko beharra izan dugu. Bitxi suertatzen zait orain azkenengo hau, kasik absurdo bilakatzeraino. Nondik bereizteko behar hori? Nondik oso tomate onen artean beraien artean zeintzuk ziren gozoagoak epaitzeko beharra? Pentsatzen dut bakarrik barietate honen bueltan berebiziko interesa dugunoi interesatu ahal zaigula hori, kanpotik ikusita denak berdina eta onak baitira. Baina beste zerbait ere ikusten dut egoera honetan. Tomateen bitartez euren burua bereizten dutenei ere axola zaie tomateak bereiztea. Tomate horiek "berdinak" diren arren -hau da, barietate berekoak-, ez dira guztiz berdinak. Bakoitza toki batean landatua eta gordea izaten da, eta horrek bereizten ditu. Esan bezala, tomateek ere toki eta pertsona horiek bereizten dituzte.

Idazteko eran azalarazi nahi izan dudanez, Marc eta biok ikerlari-kazetari roletatik haragoko esku-hartzea eta eragina izan dugu Aretxabaletako Larrosa tomatearen inguruko harreman, praktika, jakintza eta memorieta. Beharbada, hobe nuke esatea ikerlari eta sasi-kazetari rol horietatik, hain zuzen, izan dugula eragin hori. Eta bietan egiatik zerbait dago. Izan ere, ikerketan aurrera egin ahala ikertu dugunarengan eragina izan dugu. Halaber, ikerlari lanetatik harago, zenbait ekimenetan antolatzaile rol aktiboa izan dugu, sektorearengan inplikazio handiagoa harturik. Edonola ere, azkenengo kasu hauetan ere, gure ikerlari alderdia etxean utzi ezinik, ekimen horiek gure ikerketetarako baliatu izan ditugu. Azaldutako azkenengo egoera horren adibide argia da.

Azpiatal honetan, Aretxabaletako Larrosa tomatearen kasuari itxiera ematen hasiz, horren historian eta izaeran Marc eta biok -izan- dugun eragina aztertuko dut, horren historiaren beste protagonisten ondoan subjektu gisa agerturik. Lehenago esan bezala, nork bere eraginak aztertzea ikerlariaren ardura dela uste dut. Kasu honetan, Aretxabaletako Larrosa tomatearen hirugarren fasean sartzen gara jokoan Marc eta biok, eskutik baina ez beti batera, ez beti norabide berean, eta ez beti helburu eta interes berdinekin. Subjektuak erabat dibertsifikatuta daudenean, tomatearen belaunaldi ezberdinen arteko lotura eta haria zenbaitetan galduta dagoenean, eta tomateak ugaltzetik haragoko inplikazioak daudenean sartzen gara jokoan Marc eta biok, alegia. Hortaz, gure lana ez da izan tomateak landatu, haziak gorde eta erein, eta gero zabaldu. Guk tomatearen historia eta bere inguruneke sarea zabaldu ditugu, eta beste batzuek ugaldutako haziak eta landatutako landareak banatzeko eta zabaltzeko lana egin dugu.

Halaber, tomate horren inguruan zalantzak eta konfusioak agertzen hasiak zirenean agertu gara gu. Hainbatetan, izen berdinarekin tomate ezberdinak izendatzen zirela esan izan digute, eta hainbatek horren aurrean kezka adierazi du. Alde batetik, iruzurra egiten ote ari zen beldur

zen hainbat. Bestetik, barietatearen inguruan nahasmendua sortu eta barietatea galduko ote zen izuz zen beste hainbat. Era berean, dibertsifikazio-prozesu luze eta zabal baten ostean edo agian bukaeran, homogeneizazio-, singularizazio- eta pribatizazio-joera batzuk sumatzen genituen guk hasiera batean. Hau da, barietatea bi "mehatxu"pean sumatzen genuen, gehiegizko edota araurik gabeko dibertsifikazioaren mehatxupean eta, era berean, edo aurrekoari erantzunez, singularizazio eta homogeneizazioaren mehatxupean. Biek ala biek, barietatearen izaerari eta unizitateari eragingo zioten. Agian, barietate baten definizioan eta zaintza-prozesuetan dagokien berezko kontraesana edo paradoxa da hori. Izan ere, barietatea bere baitan gorde nahi denean, bere aniztasuna eta heterogeneotasuna mugatu egiten da. Halaber, barietatea gordetzeko zabaldu nahi denean maiz ezaugarri zehatz batzuetan itxi eta mugatu gabe egiten da, eta hor dibertsifikazioan galtzeko arriskua agertzen zaigu. Testuinguru honetan, bi beldur horiek genituen guk, baina singularizazio eta homogeneizatorako joerak kezkatzen ninduen gehien bat ni, behintzat hasiera batean. Hori dela eta, barietate horren bueltan izan ditugun esku-hartzeetan landutako bioaniztasunaren galeraren gaia eta bertako barietateen garrantzia lantzen ahalegindu gara. Hala eta guztiz ere, tomate horren historia -bat balego bezala- (ber)egin izan dugun heinean, historia bat jaso eta kontatu izan dugu, eta horrek, berriz ere, horren inguruan kontatu diren askotariko istorio eta historiak mugatzeko arriskua ere badakar.

Egin ditugun lan eta bestelako ekimenekin, Marc eta biok bost eremu edo bost modutan izan dugu eragina tomatearengan. Lehenik eta behin, historia bera berregitean historiari, istorioei zein tomatearen inguruko bestelako elementuei eragin diegu. Bigarrenik, izenak gatazkatsuek eta anitzak izan diren historia honetan guk izen bat edo bestea erabiltzen dugunean ere tomatearen izen eta aitortzarengan ari gara eragiten. Hirugarrenik, historia berregitean horretan parte hartu duten batzuei aitortza eman diegu, eta historiaren partaideak harremanetan jarri ditugu. Laugarrenik, historia horren barruko aniztasuna jaso eta aitortza eman nahi izan diogu, barietateak egun duen izaera eta indarra horri lotuz. Azkenik, balizko pribatizazio-prozesu baten atarian, horri aurre egingo dioten sare eta historia indartu -nahi- izan dugu. Ikusiko ditugu banan-banan eragin hauek.

Finean, Marcen lana eta nire lanaren parte handi bat Aretxabaletako Larrosa tomatearen historia (ber)egitea izan da. Horrek, tomateari eta historiari berari eragin izan dio. Hortaz, horren balorazioa egitea komeni da. Lehenik eta behin, historia osatzeko, Aretxabaletako Larrosaren genealogia egin nahi izan dugu, horrela izendatu ez arren. Historiaren haria -genealogikoa- aurkitu nahi genuen, tomateak, haziak eta landareak zein eskutatik zein

eskutara, zein baratzetik zein baratzetara, eta zein baserritik zein baserritara pasa diren jakin nahi genuen, alegia. Horrekin, barietatearen jatorrira joan nahi genuen -jatorri bat balego bezala-, eta horren inguruan zeuden nahasmenak argitu. Aitzitik, jatorri bila joan garen honetan jatorria non jarri guk erabaki dugula argi ikusi dugu.

Jatorriak indar politikoa du, eta horregatik bilatu eta eraiki nahi izan dugu. Hortaz, erabaki politikoa da jatorria non eta nola jarri ebatzea. Jatorria ezartzearekin batera, tomateari izaera bat eman eta aitortzen diogu, eta denbora baten barruan kokatzen dugu bere historia. Tomatea produktu eta merkantzia bilakatzen ari den honetan, edukiz betetzen dugu produktua bera, eta eduki horiek -tomateari erantsitako balioek, alegia- salgarri -edo ez- bilakatzen dute. Horrekin batera, tomatetik harago doazen balio, harreman eta sinesmenak ere elikatzen ditugu tomatearekin eta tomatearen jatorriarekin. Esaterako, tomate bati "euskal" abizena jartzen diogunean salgarriago egingo duelakoan eranstean diogu balio hori, euskalduntasun hori, alegia. Halaber, euskalduntasunari ere eragiten diogu. Kasu honetan, Marcen liburuan tomatea "Aretxabaletako Tomatea" da eta bere historia Keparekin hasten da. Nik, aldiz, historian bertan Goiko baserria eta Urdintxaren baratzea kokatu nahi izan ditut, historiaren barruan aniztasun gehiago eta izenen aldaketak eta lekualdatzeak jaso nahian.

Halaber, tomatearen genealogia osatzean lehenago "ezberdinak" ziren tomateak harremanetan jarri eta parekatu egin ditugu. Esaterako, Aretxabaletako Larrosa Goiko tomatetik datorrela esan dugu. Tesi honetan tomate ezberdin gisa aurkeztu, eta era berean tomate berdinak direla esaten dut, Aretxabaletako Larrosa tomatearen historia Goiko baserriko tomatearekin hasten dudana heinean. Halaber, urte hauetan zehar tomate hauekin guztiarekin lan egin dutenak harremanetan jarri ditugu, beraiek eta beraien tomateak hain zuzen. Beraien tomateak "berdinak" direla ere ikusi ahal izan dugu. Horrenbestez, ezberdina edo ezberdindua zena, eta hortaz aniztasuna biderkatzen zuena, parekatu egin dugu. Hau da, Goikoko, Urdintxaren eta Aretxabaletako Larrosa tomateak hiru izan ordez, bat direla esan dugu. Tomatea berdintzeko keinu hau bera mugatzailea da, eta tomate horien bueltako aniztasun soziala mugatzen du. Halaber, tomate horiek parekatzen ditugun heinean elkarren ordezko bilakatzen ditugu eta gerta liteke uneraren batean ezagutu dugun baratzetako batean bertako tomatea utzi eta historian aitortza hartu duen beste baratzaren batera joatea tomate eske. Gerta liteke, eta gertatu da. Ikusi bezala, Peioren loba joan zitzaion Teori tomate bila, beraien etxekoa galduta zegoelakoan. Pentsa genezake hor ez dagoela arazorik, tomate berdinak diren heinean ordezkarriak direla, alegia. Hala ere, baratze hauetan urte asko daramatzate nork bere haziak gordetzen eta ugaltzen, eta denak barietatearen beraren parte diren arren, egokitzen

joan izan dira lur horietara eta landatzen dituzten horien praktiketara. Barietatearen barruan aniztasuna egon daitekeela jakitun, ez dira erabat ordezkagarriak. Zentzu honetan, ordezkagarritasunaren ideia hori sortzea arriskutsua da. Edonola ere, historia berregin dugun honetan baratze eta baserri horiei guztiei garrantzia eman diegu, norik bere tomateari duen atxikimendua jaso egin dugu, eta egin duten lanari aitortza eman diogun heinean atxikimendu hori sendotu dugula pentsa dezakegu. Atxikimendu horrek bereizten ditu tomate horiek, eta tomateen ordezkagarritasunaren aurrean prebentzio gisa uler dezakegu.

Azkenik, barietatearen Hari genealogikoa, Jatorria eta Historia aurkitu eta osatu nahi izan dugun honetan, zalantzak argitu eta "gezurrak" deuseztatu nahi izan ditugu, era kontziente batean izan ez arren. Horrela, tomatearen bueltako istorioak sortzen eta elikatzen zituzten elementuak historiatik atera ditugu, eta horrekin batera istorioak ere deuseztatu egin ditugu. Hala ere, istorio horiek eta gerora guri zalantzak sortu zizkiguten hutsuneak gakoak izan dira tomateari aureola mistiko bat emateko. Nondik zetorren ez jakiteak, izenik gabeko moja batek ekarri izanak, edota Ameriketatik etorri izanak, indarra ematen zioten tomatearen istorioari eta tomateari berari, urrutiko jatorri ezezagun eta mitikoa ematen baitzioten, eta berezi egiten baitzuten tomatea. Zentzu honetan, balizko "egiazko" historiaren bila, istorioei indarra ematen zien elementu bat ez ote diegun kendu galdetu izan diot nire buruari hainbatetan. Neurri batean, lurtarrago bilakatu dugu tomatea, eta apika hori barietatearen kalterako suerta daiteke.

Bigarrenik, Marc eta bion lanak beste eremu batean izan du -edo izan dezake- eragina: tomatearen izenean. Ikusi dugun bezala, barietate horren bueltan izen ezberdinak erabili izan dira. Hasiera batean baserri edo baratzezainei lotu zitzaizkien tomateari emandako izenak, baina barietateak publikotasuna irabaztearekin batera berezko izen bat eman zitzaion. Hau da, landatzen den tokian landatzen dela, barietateak bere izen propioa du. Hala ere, izen hori toki eta pertsona zehatz batzuek eman zioten, eta horrek ere lotura sortu du barietatea eta beraien artean. Ikusi dugun bezala, hasierako "Aretxabaletako Mozkorra" izenarekin desadostasuna eta deserosotasuna erakutsi zuen Kepak, eta Miren eta Teok aldatu egin zioten. Hortaz, tomateak "berezko" bi izen hartu zituen, "Aretxabaletako Mozkorrarekin batera, "Aretxabaletako Larrosa" izenarekin ere ezaguna egin baitzen. Handik aurrera, zenbaitek, "Larrosa" baino "Morea" ere deitu izan dio. Egun, nik hiru izenak entzun izan ditut barietateari berari erreferentzia egiteko. Gainera, batzuetan gazteleraz eta batzuetan euskaraz entzun ditut. Azkenik, azkenengo urteotan bereziki Aretxabaletan egin diren ekimenetan koloreari eta tomatearen ezaugarriei erreferentzia egiten dien "abizena" kendu eta "Aretxabaletako Tomatea" izenarekin aurkeztu izan dute hainbatetan. Barietateak

Debagoienatik harago ospea hartu duen honetan, gero eta gehiagotan handik kanpo ere ikusten dugu "Aretxabaleta" izenarekin, "Larrosa", "Morea" edo "Mozkorra" abizena kenduta. Hortaz, ematen du izenean bertan ere mugimendu bat egoten ari dela eta Hazianitz baserrian jarri zioten izenetik ere independizatzeko ari dela. Beharbada, horrek tomatearen inguruko egungo sareak eta praktikak ondo islatzen ditu, hirugarren fase honen aldaketak, alegia. Hala ere, oraindik erabiltzen dira bestelako izenak, eta ezin dugu esan "Aretxabaletako Tomatea" izenak erabat gain hartu dienik.

Testuinguru honetan, garrantzia hartzen du guk ere tomatea nola izendatzen dugun, bereziki kanpora begira egiten diren ekimen edota argitalpenetan. Marc Badalek idatzi duen liburuan, adibidez, herriari lotzen dio tomatea, eta bertan erabiltzen ari den izena jasotzen du berak izenburuan. Jada esan bezala, liburuak "Aretxabaletako Tomatea" dauka izenburu. Nik, aldiz, beste hautu bat egin dut. Alde batetik, tomatearen historia berregitean uneak uneko izena erabiltzen ahalegindu naiz, zenbait unetan hori zaila dela jakitun. Beste alde batetik, modu orokorrean barietateaz hitz egitean "Aretxabaletako Larrosa" izena lehenestea erabaki dut. Izan ere, hori da Miren eta Teok tomateari eman zioten izena eta beraien ingurunean onartua izan zen izena.

Azkenengo urteotan "Aretxabaletako Tomatea" izena lehenetsi den arren, eta izen horrek azkenengo urteotako joerak ondo islatzen dituen arren, zilegitasun eta aitortza eman nahi nien izena jarri zioten baratzezainei. Halaber, elikagaiak ondare bilakatzeko prozesuen baitan lurraldeekiko loturak nola sortzen diren eta jatorriak nola sortu eta ekoizten diren sakonki aztertu behar dela iruditzen zait. Horregatik, Aretxabaleta herriarekin bakarrik lotzen duen izena baino, tomateari berari, bere historiari, bere inguruneako harremanei, eta berarekin lan egin izan dutenei erreferentzia egiten dion izena lehenetsi dut. Aretxabaletako Larrosa izenak Hazianitzera eramaten gaitu, eta hemen azaldu ditugun harreman, praktika eta sareetan kokatzen du tomatea. Hirugarren fase honetan ikusi dugun bezala, tomatea bere hari genealogikotik eta bere inguruneako praktiketatik urruntzen ari den honetan, "Aretxabaletako Larrosa" izena mantentzeak errotutako historiari eta memoriari toki gehiago egiten diola iruditzen zait. Hau esanda, une zehatz batzuetan, testu barruan beti, eta ez inola ere izenburuetan, "Aretxabaletako tomatea" edo "Aretxabaletakoa" izenak erabili izan ditut, idazkera eta irakurketa errazte aldera.

Hirugarrenez, barietatearen historia berregitean hainbat pertsonari lehenago emanda ez zitzaion aitortza eman diogu, eta historiaren partaide bilakatu ditugu. Halaber, beraien artean

harremanetan jarri ditugu. Hau da bereziki Goiko baserriko anaien kasua, baita Urdintxarena berarena eta bere loba Peiorena ere. Halaber, Kepa eta Teoren eskuetatik pasa eta gero, tomatearen historian lan handia egin duten zenbait emakume ere lerro hauetara ekarri nahi izan dut, besteen ondo-ondoan. Hasierako istorioan Kepa eta Teo ziren horren protagonista nagusiak. Hainbatetan beste izen batzuk agertzen ziren arren, gizon gutxi batzuen izenak nabarmentzen ziren. Orain, aldiz, beste pertsona eta ekimen batzuei ere garrantzia eman nahi izan diegu, tomatearen historian ñabardura eta harreman gehiago jasoz.

Entonces, en ese sentido el Jack tiene algunas cosas que hace que triunfe. Yo creo que el Jack, lo conoces, ¿no?, es una variedad que a nivel productivo está bien, produce, es bastante regular en lo que son los cuajados entre racimos. Es una variedad que en el manejo que... o sea, es una variedad que no puede venir de otro lado porque viaja mal, pero que en el viaje corto tampoco va tan mal. Y es una variedad que se adapta muy bien a nuestro clima. Por ejemplo, tú dices, yo voy a cultivar esta variedad en Burgos, sí, y en Navarra. Pero es diferente. O sea, su sabor es diferente. O sea que ahí se ha conseguido una variedad que funciona bien en nuestro clima, que tiene un nivel productivo que está bien, y que los consumidores, bueno que es una variedad que tiene mucho sabor, primero, que es lo más importante. Quiero decir que al final, la cantidad de tomate que se vende como Jack, pues a los consumidores no les engañas. Tú igual en el mes de abril tienes que pagar 6 euros un kilo de tomate. Quiero decir, la gente está buscando, y está buscando eso, ¿no?, está buscando ese sabor de esa variedad. Y es muy buena. Y es muy buena independientemente del sistema que uses. Es buena en suelo, es buena en hidropónico, es buena en ecológico. Las características genéticas del sabor, le vienen dadas por la variedad. Son por el genotipo (Miguel, elkarrizketa)²²³.

Orduan, Jackek badu arrakasta ematen dioten zenbait gauza. Nik uste dut Jack, ezagutzen duzu ezta?, ekoizpenari dagokionean ondo dagoen barietatea dela, ematen du, lukuen kuajatuan egonkorra da. Maneuari dagokionean, barietatea da, ze, hau da, beste toki batetik etor ezin daitekeen barietatea da gaizki bidaiatu egiten baitu, baina bidai motzetan horren gaizki ez doana. Eta gure klimara oso ondo egokitzen den barietatea da. Adibidez, zuk esaten duzu, barietate hau landatuko dut Burgosen, bai, eta Nafarroan. Baina ezberdina da. Hau da, bere, zaporea, ezberdina da. Hau da, hor gure kliman ondo ematen den barietatea erdietsi egin da, ekoizpen maila ona duena, eta kontsumitzaileek, beno, zapora handia duen barietatea, lehenengoz, garrantzitsuena dena. Esan nahi dut, azkenean, saltzen den Jack tomateen kopurua, ba, kontsumitzaileei ez diezula iruzurra egiten. Zuk agian apirilean ordaindu behar duzu sei euroan tomate kiloa. Esan nahi dut, jendea bilatzen ari da, eta hori bilatzen du, ezta?, barietate honen zapora hori bilatzen ari da. Eta oso ona da. Eta oso ona da erabiltzen duzun sistema erabiltzen duzula. Ona da lurrean, ona da hidroponikoan, ona da ekologikoan. Barietateak ematen ditu zaporearen ezaugarri genetikoak. Genotipoarengatik dira.

223 Kapitulu honetan egileak egin ditu jatorriz euskarazkoak ez ziren aipu eta testuen itzulpenak.

Tentsio honetan murgilduko gara atal honetan zehar. Beraz, Jack ondo zer den bukaerara arte jakin ezingo badugu ere, tomatearen lehenengo aurkezpen bat egingo dut hasteko. Izan ere, tomatea zerbait bada, elikagai bat da, forma, usain, zapore eta kolore zehatz bat(zuk) d(it)uena, eta bere historia ezagutu aurretik bera apur bat gehiago ezagutzea dagokigu. Horren ostean, Jack hazi eta tomateen euskal historia ezagutuko dugu, euskal nekazal-testuinguruan kokatuz eta bereziki tomategintzaren eraketa-prozesuarekin batera aztertuz. Bigarren azpiatal horretan, haziengan baino tomateengan jarriko dugu arreta gehiago, historia hau osatzerakoan fruituak protagonista agertu baitira. Hortaz, Jack barietatea eta euskal tomategintzaren historiak osatzeaz gain, Jack tomateen ekoizpenaren berri ere izango dugu. Horretarako, Erain eta Eguzkipe baserrien kasuak ezagutu eta aztertuko ditugu. Horren ostean, Jack tomateen ekoizpen-zikloan atzera eginez, Jack hazien historia, jabego-harremanak, eta ekoizpen-prozesuari erreparatuko diegu. Azkenik, azkenengo urteotan gertatzen ari den zenbait aldaketek Jacken hegemonia kolokan jar dezake. Kasua ixteko, etorkizunari begira jarrita aldaketa horiei begiratuko diet.

Jack tomate barietatearen aurkezpena

Jack tomatearen irudi eta aurkezpen komertzialak


Irudia 19 Jack tomate barietatea aurkezteko *Seminiseko* web-orrian aurkitzen duguna da²²⁴. *Seminis* 2005az geroztik Monsantoaren filiala izan arren, bere izenarekin jarraitzen du produktuak merkaturatzen. Irudian, alde batetik, forma borobila duten tomate gorriak ikusten ditugu. Bestetik, hitzetan bestelako informazio batzuk ere ematen dituzte: nola ekoiztu behar den, zein landare mota den, eta zein nolako fruitu dituen. "Sabor y calidad. Híbrido F1 recomendado especialmente para invernadero. Planta de entrenudos muy cortos y poco follaje. Gran aptitud para el cuaje. Frutos tipo beef²²⁵, carnosos, muy lisos y con el cuello ligeramente marcado en verde. Calibre grueso²²⁶". "España"-n ekoizten dela ere ikusten dugu,

224 Ikus: <<https://seminis.es/producto/jack/740>>. [Azkenengo ikustaldia: 2019/06/14].

225 Tomateak hainbat tipologiaren arabera sailkatu edo definitu egiten dira, eta horien artean dago "beef" kategorian bera. Hala ere, sailkapen mota ezberdinak daude. Ofizialena Landareen Baliabide Genetikoaren Nazioarteko Institutua-k (IPGRI ingelesezko siglengatik) ematen duena da (IPGRI, s. f.), baina bertan ez da agertzen "beef" tipologia. Azkenengo hau tipologia komertziala da, eta landare indartsuak, emankorrak, fruitu handikoak, eta goiztiarrak ematen dituzten barietateak definitzeko erabiltzen da.

226 "Zapore eta kalitatea. Híbrido F1, batik bat negutegiaren jartzeko gomendatua. Adabete oso motzeko landarea eta hosto gutxikoa. "Kuajao" onekoa. Beef moduko fruituak, mamitsuak, oso leunak eta lepoa berde ukituekin. Calibre handia". Ikus: <<https://seminis.es/producto/jack/740>>. [Azkenengo ikustaldia: 2019/06/14].

eta azkenengo informazio teknikoago batzuk ere ematen ditu "produktuaren xehetasunak" atalean. Bertan jasotzen da zein erresistentzia mota dituen, zein motatako tomatea den, eta zein merkatu motatarako bideratua dagoen -freskoan saltzeko-. Hitzak eta irudiak, baina, apur bat kontraesanetan daude. Izan ere, ikusten ditugun tomateak gorri-gorriak dira, eta hitzetan esaten dute lepoa -tomatearen goiko partea, landareari lotua dena- berdexka duela.



Irudia 19: Jack barietatearen aurkezpena Seminiseko weborrian. Iturria: Seminis.

Aitorrek, Seminis enpresarentzako lan egiten duen komertzialak, tomate honen aspaldiko "fitxa tekniko" bidali zidan. Bertan Seminiseko web-orrian topatzen ditugun antzeko informazioak agertzen dira, baina garatuagoak. Alde batetik, gehiago azpimarratzen dute tamaina: tomate handiak ematen ditu. Bestetik, ekoizpen industrialari begirako bestelako azalpenak ematen dituzte. Azkenik, fruituen kalitatea eta ekoizpenaren egonkortasuna ere goratzen dituzte.

Bigarren fitxa horretan ere tomateen irudiak daude (ikus Irudia 20). Lehenengoarekin konparatuta, baina, berde eta laranjagoak dira. Tomate hauek eta lehenengo irudian agertzen direnek barietate ezberdinetakoak ematen duten arren, biak ala biak Jack barietatearen haziak merkaturatzen dituzten enpresek ateratako irudiak dira. Horrek jada erakusten digu zein tomate ezberdin atera daitezkeen hazi "berdinetatik".



Irudia 20: Jack tomateen irudia. Iturria: Petoseed.

Euskal Herriko azoka eta supermerkatuetan topa ditzakegun barietate honetako tomateek bigarren irudian agertzen direnei antza gehiago diete, lehenengo irudian agertzen diren tomate gorri-gorri horiei baino. Edonola ere, laranjagoak direnak eta berde gehiago dutenak zein gorriagoak diren Jack tomateak ekoiztu eta saltzen dira Gipuzkoan. Hori bai, beti muga batzuen barruan, bereziki Euskal Tomatea zigiluarekin saltzen diren tomateen kasuetan. Izan ere, Euskal Tomatea markaren araudiak fruituak zein heldutasun fasetan jaso eta saldu behar diren ezartzen du, eta horrek zaporeari zein koloreari eragiten die.



*Irudia 21: Eusko Label tomatea.
Iturria: Eusko Labela.*



*Irudia 22: Eusko Label tomatea.
Iturria: Eusko Labela.*

Eusko Labeleko web-orrian ere tomate honen beste irudi batzuk topatzen ditugu, aurreko bien artean koka ditzakegunak. Esanguratsua da bi irudi horiek beraien artean ere ezberdinak izatea. Lehenengoa, tomate bakarra kolore beltzaren gainean agertzen zaigu. Tomateari saihetsak nabarmentzen zaizkio, eta fruituak ez du erabateko forma borobil eta homogenea. Bertako barietateen edo baserriko tomateen antza hartu nahi duela dirudi. Euskal Tomatearen beste irudian, oster, homogenezasuna nabarmentzen da. Tomate borobilak, gorri-gorriak, eta

tamaina eta forma berekoak agertzen dira. Lehenengo irudia markaren araudi zorrotz eta hertsiarekin talkan agertzen zaigu. Izan ere, Euskal Tomatea markak fruituen homogeneousutasuna bilatu eta eskatzen du, ekoizpenari dagokionean zein fruituei dagokienean. Lehenengo irudia eta markaren araudiaren arteko talka honek zer pentsatua ematen du. Bertako barietateen eta itxura "rustikoa" duten bestelako tomateen gorakada bizi izan dugu azkenengo urteotan, eta ziurrenik irudi hori testuinguru honetara egokitua izan da. Labur esanda, alde batetik ekoizpen- eta merkaturatze-moduei begira nahiko barietate homogeneousoa bilatzen da: aurreikus daitekeen ekoizpena duena, homogeneousoki heltzen dena, eta parametro batzuen arabera identifikatu daitekeena. Beste alde batetik, aldiz, markaren publizitatean heterogeneousutasuna apur bat gehiago nabarmentzen dute, horrek bertako tomate edota deritzen baserriko tomateak, "tomates rústicos", gogora ekartzen baitzikigu.

Laburbilduz, Jack barietateak fruitu ale handiak ematen ditu. Fruitu gorriak izaten dira, baina heldutasun mailaren arabera laranja ere jotzen dute, eta goiko saihtsek ukitu berdeak izan ditzakete. Formari dagokionean, ale nahiko borobilak ematen ditu barietate honek. Azkenik, zaporeari dagokionean, tomate azidoak ematen ditu Jack barietateak.

Jack bertakoa eta kalitatekoa: "hemengoa" eta "ona"

Jack tomateak, ikusmenetik ezagutzeaz gain, lekuan lekuko saioetan zehar eman dizkidaten deskribapenetatik ere ezagutu ditut. Jack tomateaz hitz egitean nabarmendu zaidan lehenengo gauzetako bat tomate honen onarpen eta balorazio positiboa izan da. "Tomate ona" dela eta "hemengo tomatea" dela esan didate behin eta berriz. Hauek dira, batez ere, Jacken inguruan aurkitu ditudan "egia borobilak"; egia eztabaidaezinak, alegia. Gainera, berezko zerbait gisa aurkeztu dizkirate, behintzat lehenengo azalpen batez. Hau da, ez didate azaldu zer dela eta ona den edo hemengoa den, kontrakoa baizik. Ona izatea eta hemengoa izatea merkaturian hegemonikoa izatearen arrazoia dela esan didate, ona zer den eta tomate bat hemengo nola bihurtzen den auzitan jarri gabe.

Elkarrizketetan ona eta bertakoa izatea zer den sakontzean, baina, apur bat gehiago garatu dituzte ideia hauek. Adibidez, hemengo tomate moduan ezaguna izateko arrazoia zaporea dela jaso dut hainbatetan. Izan ere, Jacken zaporea hemengo tomatearen zaporearekin lotzen da, eta horrek hemen egonkortzea eta/edo bertako bihurtzea eragin du. Eusko Labelko langile batekin solasean ari nintzelarik ideia hau atera zuen. Eusko Label eta Euskal Tomatea nola eta zergatik sortu ziren azaltzen ari zen, eta markaren barruan erabil zitezkeen tomate barietateak

nola eta zergatik definitu zituzten kontatu zuen. "Hemengo tomateari" antza zioten eta hemen baloratzen zen zaporea zuten barietateak bilatu zituzten, eta horien artean Jack hautatu zuten, besteak beste. Beraz, lehenago hemen zeuden tomateei antza izateagatik hemengotzat hartzen da barietate hau, eta zaporea da lotura hau egiten duena, hain zuzen. Azalpen hauen arabera, zaporeak egiten du tomatea bertako.

Ona zer den edo ontzat zer hartzen den apur bat gehiago ulertzen ere ahalegindu naiz. Lehenengo erantzunetan "ona dela" esateaz gain, asko jota "jendeak gustuko duela" mahaigaineratu izan dute tomate hau landatzeko arrazoi lez, baina berriz ere jendeak zergatik gustuko duen azaldu gabe. Aitorrek dastetan baloratua dela esaten zuen, eta Madrilen egiten diren dastak ahotara ekartzen zituen. Bere esanetan, bertan euskaldunok "Jacken erotzat" hartzen gaituzte, barietate honekin obsesio bat izango bagenu bezala. Aitzitik, Madrilen ere egiten dira itsukako tomate-dastetan Jack tomateak irabazten du. Azkenengo hau argudio zuen Aitorrek, tomatearen berezko kalitate eta zaporearen alde egiteko.

Barazkiak ekologikoan ekoizten dituen Maialenek ere tomate-dastetan Jackek duen presentzia ahotara ekarri zuen. Kasu honetan, beti erreferentzia izaten dela zioen. Lekuan lekuko lanaren beste une batzuetan nik neuk ere probatu ahal izan dut hori. Jack tomatea beti egoten da dastetan, eta gehienetan erreferentziazko tomate gisa agertzen da. Hau da, beste barietateak Jack barietatearekin alderatzen ziren. Horrenbestez, Jack tomatea ona izan edo ez, horrelako dasta, ekimen eta entseguetan erreferentziazko tomate on bilakatzen dute, kalitatearen erreferentziazko barietate gisa ezartzen baitute. Beste hitz batzuez esanda, tomate ona zer eta zein den eta nola egiten den Jackekin alderatuz egin izan da, azkenengo barietate hau kalitatearen erreferentzia bilakatuz.

Lurrean eta konbentzionaletan tomateak ekoizten dituzten Erain baserriko Jose aita-seekek ere azpimarratu zuten jende askori gustatzen zaiola, hemengo gustuari egokitzen dela, eta horregatik jartzen dutela. Hala ere, horretan sakontzean, argudio batzuk eman zituzten. Batetik, hemengo gustuari egokitzen da barietate hau tomate handiak ematen dituelako. Esan bezala, Jack tomateak tamaina handia du, eta Gipuzkoan horren zaleak dira. Bestetik, zapore handia ere badu, berriz ere "hemengo gustura" egokitzen dena. Azkenik, beste elkarrizketa batzuetan tomatearekiko hemengo gustua nolakoa den galdetzean, daukan azidotasuna azpimarratu dute. Izan ere, hemen ukitu garratza duten tomateak estimatuak dira, eta Jackek badu.

Edonola ere, hemen dagoen tomatearekiko gustua kolokan jarri gabe jarraitzen dugu, eta hauxe da tesian zehar argitu ez dudan zerbait: noiz edo nola sortzen da gustu hau tomateekiko? Argitu ez badut ere, Jacken historia eta hegemoniak gustu hori indartu eta berregin dutela esan dezakegu. Izan ere, 3. atalean azaldu bezala, gustuak -eta zaporeak- performatiboak dira, eta kulturak eta gizarteak eragiten dute euren definizio eta balorazioetan (Le Breton 2009; Méndez Montoya 2010; Cárdenas 2014). Kasu honetan, behin Jack tomatea hegemoniko bihurtu eta hemengo tomatearekin lotua izan dela, daukan azidotasun ukitu hori ere lotzen diogu hemengo tomateari, tomatearekiko "hemengo gustua" ber-definituz.

Jacken azala: euskal tomategintza eratu eta babestu duen ezaugarria

Bestalde, azkenengo elkarriketa horretan beste barietate batzuekin alderatzen dutenean Jacken beste ezaugarri batzuk ere aipatzen dituzte Jose aita eta semeak: azala, kultiboaren zikloak, eta produktibitatea, besteak beste. Fruitu edo produktutik harago doazen ezaugarriak dira, eta ekoizpen- eta merkaturatze-sistemetara eramaten gaituzte. Azalari dagokionean, Eraingo negutegietan azpimarratu zuten azal fina duela tomate honek eta hori jendeari gustatzen zaiola. Lekuan lekuko lanean zehar behin eta berriz ikusi dut hori. Baratze batean zela, azokan zela, edota edozein solasaldian zela, tomate ezberdinen inguruan berriketan aritu garenean eta horien inguruko iritzia eman dugunean azala maiz agertu da gure hitz artean. Azala ez nabaritzea baloratu egiten da; hots, tomateak azal fin-fina izatea. Eredu formal eta instituzionalagoetan ere, tomate-dastak eta balorazioak egiten direnean azala baloratu behar den eremua izaten da.

Hemen, berriz ere zalantza sortzen zait: tomateen gusturako noiztik da horren garrantzitsua azala? Zergatik baloratzen da azal fina? Ziurrenik entsaladako tomateak jaten direnetik gehiago baloratzen da azalaren kontu hori. Baina hortik harago doan zerbait da, etengabe performatu eta berrindartu egiten dena, dasta eta proba horien guztien bitartez berrindartu egiten dena, hain zuzen. Izan ere, Jacken azalak badu garrantzia tomateari ematen dion zapore eta testuratik harago. Edo, hobe esanda, zapore eta testura ematearekin batera beste zerbait ematen die tomate honi eta bere merkatuari: euskal tomategintza babesten du Jack tomatearen azal fin horrek, eta horrek ere ematen dio daukan balioa tomatearen azalari. Baina sektorea babestu eta indartu egiten du azal honek "fina-baina-ez-horren-fina" delako, bertako barietateen azal fin-finarekin alderatuz.

Orain, tomatearen zaporetik horren ekoizpen eta merkatura eramaten gaitu bere azalak. 3. atalean esan bezala, Euskal Herriko isurialde atlantikoan dauden nekazal-etxaldeak "txiki" bihurtzen dira elikagaien ekoizpen sistema globalizatuaren baitan kokatzen ditugunean. Urrunago joan gabe, Almeriako etxaldeen ondoan txiki-txikiak dira hemen ditugunak. Horrek eragin zuzena dauka produktibitatean eta, ondorioz, prezioetan. Hemen gutxiago ekoizten da eta ekoizpen hori errentagarria izateko garestiago saldu behar da, Almerian, Israelen edo Holandan ekoiztu, hona ekarri, eta hemengo supermerkatuetan saltzen diren jakiekin alderatuz. Beraz, hemengo barazkigintza sektoreak ezin du zuzenean lehiatu beste horrelako tokietatik datozen produktuekin²²⁷. Guztiz kontrakoa, handik datozen produktuetatik bereiztea izan da hemen garatu den estrategia, bertako eta kalitateko produktuen aldeko apustua eginik (Goikoetxea 1991; Alberdi 2002a; Galdós 2004). Testuinguru honetan, hain zuzen, Jack eta bere azala tomategintzaren arrakastarako gako bihurtzen dira.

Tomate batek azal fina -baina ez horren fina- izateak bi ondorio nagusi ditu, tokian tokiko lanean hainbatetan errepikatu didatenaren arabera. Alde batetik, azal fina duten tomateak zaporetsuagoak izan ohi dira. Bestetik, azal finak mugatzen du tomateen garraiorako eta denboraz irauteko gaitasuna. Izan ere, egin den hobekuntza genetiko askok bilatu du tomateek distantzia luzeetan eta denboran iraun dezaten. Horretarako, azal gogorreko tomateak sortu eta ekoiztu dira, baina horrek kalte-ordain "txiki" bat izan du: tomatearen zaporearen galera. Hori Ainhoa lehenengo sektoreko teknikariak kontatzen zidan, tomateetan azal gogorra eta zaporearen arteko bateraezintasun genetikoa dagoela esanez. Eta hain zuzen ere hori da jada aipatu dudana "harri tomateak" (*tomates piedra*) eta "zapore tomateak" (*tomates sabor*) dikotomia eragiten duena, kantitate-kalitate dikotomiara eramaten gaituena.

"Tomate harri/tomate zapore" edota "kantitate/kalitate" dikotomia hauetan Jack zapore eta kalitatearen aldean kokatzen da, betiere nekazaritzako elikagaien merkatu globalaren logika batzuen barruan. Izan ere, horren barruan bazterretako tomatea eta ekoizpena bada ere, isurialde atlantikoan eta bertako barietateen zein ekoizpen ekologikoaren ondoan kokatuta,

227 Hiru leku hauek aipatzen ditut entzunenetakoak direlako. Hala ere, horrekin ez dut indartu nahi guztiz egiazkoa ez den ideia edo sinesmen bat, toki horiei ospe txarra ematen diena. Izan ere, beste hainbat tokitan ere ekoizten dira tomateak. "La Ruta del Tomàquet" txostenean (ODG 2014) azaltzen da nolatan Katalunian Almeriako tomateei errua botatzen dieten. Bertakoei lehia egiten dietela argudiatuz, bertako merkatuaren suntsipenaren erantzule izatea leporatzen zaie. Txosten horretan erakusten dute bertako tomateei lehia egiten dietenak beste herrialde batzuetatik datozenak direla, bereziki Holandatik eramandakoak. Almeriakoek eta Marokokoek, aldiz, elkarren kontra lehiatzen dute Bartzelonako merkatuan. Izan ere, toki hauetatik Kataluniako denboraldi baxuan heltzen dira tomateak Bartzelona eta Kataluniara, bertakoei lehi txikia eginez. Holandatik joandakoak, aldiz, bertakoak sasoirik onenean daudenean heltzen dira oso prezio merkeetan -kiloa hogeita hamar zentimotara heltzen da hainbat unetan-. Edonola ere, Holanda eta Almeriari erreferentzia egin diet, tomate ekoizpen gune gisa ezagutzen ditugulako.

Jack hegemonikoa da eta merkatu kapitalistaren erakuslea da. Hots, bertako tomate barietateekin alderatuz gero, kantitate eta gogortasunaren aldean kokatzen da. Honek erakusten digu dikotomia hauek ez direla itxiak eta elkarren baztertzailak, hau da, tomateak ez ditugula batean edo bestean kokatu behar. Guztiz kontrakoa, *continuum* baten modura ulertu behar ditugu, eta horien barruan tomateek duten posizioa beti erlazionala da, beste tomateekiko duten posizioaren arabera, alegia.

Baina itzul gaitezen tomate honen azal finera eta garraiatua izateko bere ezgaitasunera. Miguelek, lehenengo sektoreko teknikariak, Jack eta garraiatuak izateko diren barietateak konparatzen zituelarik zaporea ahotara ekarri zuen:

Claro, luego es un tomate, a diferencia del que se pueda hacer en otros lugares, que, que viajan mal a lo largo, y hombre que no tiene una conservación como pueden tener los tomates que vienen de fuera y no saben a nada, que puedes tenerlos una semana ahí y... no. O sea, es decir, se te va a ablandar más. Es un tomate para consumir. Para hacerlo localmente y para consumirlo localmente. Entonces, viene un poco por ahí (Miguel, elkarrizketa).

Klaro, gero tomate bat da, beste toki batzuetan egin daitekeenarekin alderatuta, zera, gaizki bidaiatzen dutena zeraren barrena,... eta, hombre, ez daukana... kanpotik datozen eta zaporarik ez duten tomateen adinako iraupena, hortxe astebete izan ditzakezunak eta... ez. Hau da, gehiago bigunduko zaizu. Kontsumitzeko tomatea da. Tokian toki ekoiztu eta tokian toki kontsumitzeko. Orduan, apur bat hortik dator.

Beste hitz batzuetan adierazten zuten Erain baserriko negutegietan. Aita-emeak kontatzen ari ziren Almeriara joandakoak zirela, hango etxaldeak ezagutzera, eta Almeriako eta Gipuzkoako tomate ekoizpenaren artean alde handia dagoela nabarmentzen zuten. Hemen partzelak metroka zenbatzen ditugun bitartean, Almerian hektareaka egiten dutela esaten zuten. Segidan gehitu zuten tomateen artean ere alde nabarmena dagoela, eta ekoizpen- zein merkaturatze-moduekin lotuta dagoela. Horrela adierazten zuen Jose aitak: "bai, bai, eta gainera, 8 egun egiten baditu gureak ya izorratu, izorratu, edo usteltzen. Horrek berriz [Almeriako edo Kanarietako tomatea] hilabete irauten du, eta nik, nik esaten dut, hori bai ederra bada saltzeko, oin jateko ez" (Jose aita eta semea, elkarrizketa).

Santiago eta Amalia teknikariek ere antzekoa esan zidaten. Gogortasuna erlatiboa dela erakutsiz, orduko hartan Jack tomatea "gogorra zela" esan zidaten, burua Gipuzkoako merkaturatze eta merkaturatze-bideetan jarrita. Horri begira, tomate barietate hau gogorra da, ez Andaluziatik Holandara eramateko modukoa -edo kontrakoa-, baina bai hemen saltzeko modukoa. Kasu honetan, aipatzen ez badute ere, bertako barietateak dituzte buruan, horiek zailago saldu baitaitezke Gipuzkoako tomategintzak erabiltzen dituen merkaturatze-bideen

bitartez. Jack barietate, Felipek esaten duen moduan, "gaur bildu eta bihar saldu" egiten dute tomateroek. Bildu eta hurrengo egunean saltzaile txikiari saltzen dio Felipek, eta tomateak egun gutxi batzuk irauten ditu dendan eta gero kontsumitzailearen etxean. Bertako barietate gehienek, aldiz, azal are finagoa izaten dute eta behin jasota arin galtzen dute trinkotasuna eta testura. Azoketan aurki ditzakegu, bai, baina egun berean edo aurreko gauean batuak izan dira eta segidan saldu egiten dira, hurrengo egunotan kontsumituak -janak- izateko. Egun gutxiko margen hori da, besteak beste, bertako barietateak eta Jack barietatea bereizten dituen, beti ere merkatuari begira.

Era berean egun gutxiko margen hori ere bada Jack barietatea bestelako tomate hibridoetatik bereizten duen zerbait. Horrela zioen Felipek:

Hemen, zera hau, adibidez, tomate Jack hau hemen oso ondo saltzen da, baina, baina hemen egiten da. Baina egiten bada, Almerian ezin da egin praktikamente, zergatikan han egiten duten, maneiatzen duten bezala ta, ta gero gainera komeni da, pues, guk egiten degu hor bildu eta bihar ya saldu egiten degu, eta, hortan bentaja daukagu, horregatik... degu, bestela ez genuke konpetituko prezioetan eta horrela. Hemen kostuak askoz altuagoak dira, hor behean baino... (Felipe, elkarrizketa).

Barietate komertzialera eta bere azalera itzuliz, Jack tomateak ezin du bidaiatu, ez behintzat distantzia luzeetan eta kapitalismo globalaren denbora, erritmo eta kantitateetan. Barietate honen tomateak jaso eta berehala merkaturatu egin behar dira, eta euren "azal-fin-ez-horrenfina"-k ahalbidetzen die dendetan zenbait egun irautea, baina ez garraioan egunak ematea eta biltegietan itxarotea. Beraz, arazoa ez da horrenbeste garraioa, horrekin eta distantziarekin bat datozen erritmo eta denborak baizik. Hori dela eta, ikus ditzakegu Bizkaian ekoiztutako Jack tomateak Madrilen eta noizbait Bartzelonan, baina egun jakin batzuetan eramaten dira, kantitate txikietan eta prezio altuetan, kalitate handiko produktu berezi gisa saltzeko. Horrenbestez, ekoizpen-gune handi eta industrializatueta ezin da tomate barietate hau ekoiztu, eta ezin dira gune hauetatik Euskal Herrira prezio merkeetan ekarri. Bestalde, hemendik beste toki batzuetara ere ezin da gehiegi eraman, baina ez dago horren beharrik, hemengo etxaldeak txikiak baitira eta ez dute hemengo tomate merkatu osoa hornitzen. Areago, ez dago beharra hemendik kanpo eramateko eta gainera, Miguelek esan bezala, barietate honek dakarrena da tokian toki ekoiztu eta merkaturatu behar dela, eta horixe bera da tomate honi aitortzen zaiona eta balio ematen diona: bertakoa "izatea" edo bertakotzat hartzea.

Jack tomatearekin, orduan, ez da asetzen tomate-merkatua, kalitatezko tomate-merkatua baizik. Izan ere, kanpotik datozen azal gogorreko eta zapore gutxiko tomateen ondoan -kiloa euro batean aurki ditzakegunak- garestiak dira tomate hauek, baita "kalitatezkoak",

"zaporedunak" eta "bertakoak" ere. Kasu honetan "zaporea", "kalitatea" eta "bertakotasuna" erabat bereiz ezin ditzakegun balioak dira, eta horiei esker sal daitezke garestiago tomate hauek. Honenbestez, Jack tomateen azal finak eragiten du zapore handi(ago)ko tomateak izatea, tokian toki ekoitzi behar izatea, eta beraz, bertakotzat hartzea, kalitatekotzat ere hartzea, eta ondorioz garestiago saldu ahal izatea. Bestalde, azal honek berak ekiditen du kanpotik eta merkeago ekarri ahal izatea tomate hauek, esan bezala, merkaturatze-bide luzeetan ez baitu irauten.

Ekoizpenerako ere ona, edota jada ondo ezagutzen duten tomatea?

Ekoizpenari dagokionean ere ona dela esan izan didate batzuek. Beste batzuek, aldiz, gehiago azpimarratu izan didate ona baino, ezaguna zaiela. Hau da, urte asko daramate "tomateroek" bariedade hau landatzen, euren etxaldeak ere horrekin batera moldatzen joan izan dira, eta primeran ezagutzen dute bariedadea. Horrek ez du kentzen zenbaitetan bariedade zaila izatea, baina badakite nola landatu, zaindu eta "maneiatu". Aitorrek, Seminisentzako lan egiten duen komertzialak, horrela azaltzen zuen:

Luego hay otra cosa, luego hay otra cosa, claro, después de 30 años, al final la gente de los baserris quieras que no son los mismos, entonces le han pillado el truquillo, lo conocen, o sea, es como, como el albañil que siempre está haciendo lo mismo que ya al final lo hace con los ojos cerrados, pues ya al Jack le tienen cogido el truco, cada variedad de tomate es muy, el tomate, es difícil el tomate, es un cultivo difícil. Entonces, como ya le han pillado el tranquilo, lo que producen con el Jack ahora hace unos años era impensable. Lo conocen como tú conoces al perro de casa, es una pasada (Aitor, elkarrizketa).

Gero beste gauza bat dago, gero beste gauza bat dago, noski, 30 urte eta gero, azkenean baserrietako jendeak, nahi edo ez, berdina dira, orduan neurria hartu diote, ezagutzen dute, hau da, da..., igeltseroa bezala beti berdina egiten ari dela eta azkenean begiak itxita egiten duela, bada, Jacki jada neurria hartua diote, egun Jackekin ekoizten dutena duela urte batzuk pentsaezina zen. Ezagutzen dute zuk etxeko txakurra ezagutzen duzun bezala, izugarria da.

Norabide berean ere beste teknikari batek azaltzen zidan zenbaitetan, etxaldeetara bisitak egiten dituenan, ekoizleek landareak gaizki daudela esaten diotela, "gaizki datozela". Horrelakoetan, maiz, berak ez du ikusten, landareak begiratuta ondo ikusten ditu, baina hala ere ekoizleek esaten diote ezetz, eta egunak edo asteak pasa ahala landareek txarrera egiten dute. Hau kontatzen zuen, hain zuzen, ekoizleen eta Jacken arteko harremanaz hitz egitean, kasu honetan tomate bariedade hau zein ondo ezagutzen duten azaltzeko.

Horrenbestez, sektoreko nekazariak oso ondo ezagutzen duten bariedadea da Jack. Sektorea tomate horrekin batera garatu da, baita tomatea bera ere. Horren ondorioz, ekoizpen ona

dauka tomateak. Baina horren arrazoia ez dago bakarrik tomatearen genetikan, tomate eta *tomateroen* arteko elkar ezagutza eta harremanean baizik. Beraz, tomate barietate honetaz ekoizpena baloratzen dutenean, harreman hori ere kontuan hartu behar dugu.

Ona bertakoa da, edo bertakoa ona da

Laburbilduz, Jack tomatea lehenengo belaunaldiko barietate hibridoa da, Monsantoena, eta 30 urte baino gehiago ditu. Eusko Label markaren barruan saltzen da, baita hortik kanpo ere, eta EAEn gehien ekoizten den tomate barietatea da. Kolore gorria du, laranja eta berde ukituak baditu ere, eta kalibre handia, azal fina, eta zapore handia du, azidotasun puntu batekin. Azkenengo hauek aurkezten dira bere ezaugarri gisa, baina horrela izateko landarearen maneiua horretara bideratzen da, eta Eusko Labelen kasuan horren araudiak berak ezartzen du horrelakoak behar dutela izan, hori nola neurtu eta ziurtatu behar den ere xedatuz²²⁸.

Azkenengo ezaugarri horiek dira, besteak beste, tomate honen kalitatea baloratzen denean azpimarratzen direnak. Aitor Jack hazien saltzailearen esanetan, Jack hazia zaharra da dagoeneko. Izan ere, 30 urte baino gehiago ditu, eta ez da batere ohikoa hazi batek merkatuan horrenbeste denbora irautea. Hala ere, euskal tomategintzan arrakastatsua da oraindik. Bi argudio dira nagusi arrakasta hau azaltzerakoan. Alde batetik tomatearen kalitatea: ona da. Bestetik, identitatea: bertakoa da, "euskal" tomatea da. Kalitatea eta jatorriari dagokienean, biak ala biak bi dimentsio ezberdinetan gauzatu edo islatzen dira. Tomatea edo barietatea "ona" dela esaten denean, alde batetik elikagaiaren kalitateari egiten diote erreferentzia, tomatea bera baloratua baita, zaporetsua dela baloratzen baita. Bestetik, ekoizpenari dagokionean ere barietate ona dela esaten dute, emankorra alegia, nahiz eta balorazio positibo honetan barietatearen ezagutzak nabarmen eragiten duen. Ona da ezagutzen dutelako, maneiatzen dakitelako, eta beraz, horren ondorioz ekoizpen kantitate ona ematen duelako. Jatorria edo bertakotasuna baloratzekoan ere, dimentsio bikoitza ikusten diogu balorazio honi. Alde batetik, tomatea bera, elikagai gisa, bertakotzat hartzen da bertan ekoizten delako gutxi gorabehera duela hogeita hamar urtetik hona, eta beraz bertako tomatetzat hartzen dute barietate hau. Bestetik, bertako zaporera ere -tomatearen euskal zaporera- egokitzen dela azpimarratzen da, eta horrek ematen dio balioa. Hau da, kasu honetan bertako egiten duena ez da besterik gabe berez duen zerbait, berezko duen hori hemengo zerbaitera egokitu izana baizik.

228 Ikus: <<https://euskolabel.hazi.eus/images/productos/tomatea.pdf>>. [Azkenengo ikustaldia: 2020/10/13]. 7. atalean aztertuko dut sakontasun handiagoz elikagaien kalitatearen eraikuntza eta horretan Eusko Labelak duen rol eta eragina.

Edonola ere, aipuren batean jadanik agertu da Jacken berezkotasuna kolokan jartzen duen ideiarene bat. Izan ere, Jack tomateak ez dira berdinak -zaporez eta testuraz, adibidez- Nafarroan edo EAEnko isurialde atlantikoan ekoizten badira. Hortaz, Madrilen tomate-dastak irabazten dituzten Jack tomateak EAEn ekoiztuak dira, beste toki eta klima batzuetan ez baita horren ona ateratzen. Horren ondorioz, Estatu espainiarreko iparraldean ekoizten ari da barietate hau, eta bereziki Bizkaia eta Gipuzkoan. Halaber, Asturiasen, Galizian edo Aragoian ekoizten diren Jack tomateek ez dute hemengoek duten sona berdina, klima antzekoetan landatuak izan arren. Izan ere, barietate ona den edo ez, beti merkatu eta kultura baten baitan definitzen da, besteak beste horiek baitira balioa ematen diotenak. Beraz, tomate zaporetzat hartzen da Jack, bereziki zaporerik gabeko tomateen garaian. Gainera, edota hain zuzen ere horren ondorioz, zaporea oso baloratua da tomateengan. Ainhoak esaten zidan bezala, "zaporeak egiten du tomatea".

Laburbilduz, Jack tomatearen aurkezpenean ikusi dugu zaporea, kalitatea eta jatorria balio zentralak direla tomate honetan. Hau, baina, ez da bakarrik Jack tomatearekin gertatzen den zerbait, XXI. mendean elikagaien ekoizpenean homogeneotasunaren aurrean eta ekoizpen global lehiakorren aurrean hainbat produktorekin garatzen den bereizteko estrategia baizik. Ezberdina izateak balioa erantzen dio produktuari (Amaya Corchuelo eta Aguilar Criado 2012b), eta beraz, diferentzia ekoiztu egin behar da (Contreras 2013). Era berean, balio hauek tomateak berezko balitu bezala aurkezten badira ere, testuinguru eta harreman-sare jakin batzuen barruan balioa dutela ikusi dugu. Hurrengo ataletan honen guztiaren historia, prozesua eta eraketa aztertuko dugu, ikuspuntu diakroniko bikoitz batez. Alde batetik, barietatearen historia eta bilakaera ikusiko dugu, Gipuzkoako tomategintzaren bilakaerarekin batera. Beste alde batetik, hazitik tomatera Jack ekoizpenaren zikloa aztertuko dugu, duen dimentsio tenporala kontuan izanik.

Jack tomatearen (euskal) historia. Tomategintza sektorearen eraketa eta barietateak euskal isurialde atlantikoan duen bilakaera eta garapena

Jack tomatea(k) ezagutzen d(t)iugu jada. Ikusi bezala, testuinguru jakin batean eratu, ezaugarritu eta definitu dira, eta egiten dira. Baloratu ere, testuinguru zehatz batean baloratu dira. Harremanetan gauzatzen diren bere ezaugarriek ez lukete balio bera izango bestelako merkatu-testuinguru batean kokatuz gero, edota bestelako gizarte eta kultura batean garatuz gero. Besteak beste, Jack tomatearen azala, Gipuzkoako etxaldean egitura, eta nekazaritzako

elikagaien industria gakoak izan dira tomate honen historia eta arrakastan, betiere elkar-harremanean.

Azpiatal honetan Jack barietatearen bilakaera eta arrakastatsu bilakatzeko prozesua ezagutuko dugu, aipatutako elementuen gurutzaketak eta elkar-eraketak argiago ikusiz eta ikusaraziz. Horretarako, EAera heldu zenetik gaur egunera arte Jacken bueltan gertatutako prozesu, ekintza eta ekimenak jasoko ditugu. Hainbat elkarrizketa eta lekuan lekuko saiotako informazioa erabiliko dut horretarako. Hala ere, bereziki bi baserri/ustiategiren kasuak ekarriko ditut lerrootara, azaldutako prozesua beraien osotasunean aurkeztutako kasuen bitartez ulergarriago izango delakoan²²⁹. Halaber, kasu hauek paradigmaticoak dira sektorean gertatu dena ulertzeko, eta beraien baitan nahiko balio dutela sinetsirik hona ekarri nahi izan ditut. Edonola ere, tesi osoan zehar bezala, konfidentziasuna dela eta, izenak aldatu dizkiet baserriei zein bertako protagonistei.

Hasiko gara bi baserri hauetara gerturatzen, segidan Jackekin batera zein bilakaera izan duten ezagutu dezagun.

Eguzkipe baserrirantz gerturatzen

Eguzkipe ingurune urbanotik kanpo badago ere, hiritik gertu dagoen baserria da. Muino txiki baten goialdean dago, toki eguzkitsu batean. Baserri hau "ezinbestez" agertu behar zen tesi honetan. Izan ere, "[ezinbestez] Eguzkiperekin egon behar duzu" iradoki baino agindu kutsuarekin esaten dit Santiagok, Gipuzkoako lehenengo sektoreko teknikari batek, tomatearen laborantza eta Jacken inguruan galdetzen diodanean. Santiagoren bitartez, baserriaren izenarekin -Eguzkipe-izendatzen duen Feliperen berri daukat lehenengo aldiz. Berak pasatzen dit Feliperen kontaktua, baita sektoreko teknikaria ere baden eta Felipe baino lehenago elkarrizketatzen dudana Miguelena ere. Azkenengo horrek ere, tomategintza, tomate barietateen erabilera, eta Jacken hedapena ulertzeko, Eguzkiperekin egotea oso ondo etorriko zaidala esaten dit.

Miguel teknikariak lehenengo sektoreko elkarte batean egiten du lan, eta sarri elkarte horren egoitzara joaten dira nekazariak lehengaiak erostera, aholku-eske, eta abar. Ni ere bertara noa Miguel elkarrizketatzera. Berak emandako argibideak jarraituta eta GoogleMapsek lagunduta poligono industrial batean dagoen pabiloira heltzen naiz. Altua eta zabala da. Ate handia du. Bertan mugitzen direnak laneko arroparekin jantzitako langileak dira, gizonezkoak, eta lan fisikoak egiten eta makinariak mugitzen dihardute. Nire neska eta hiritar itxurarekin lotsatuta eta

229 Tesian zehar, eta bereziki atal honetan, "baserri" eta "ustiategi" terminoak aldizka erabiliko ditut tomateak ekoizten dituzten etxaldeak izendatzeko. Baserri terminoak ekoizpen-gune hauen historia eta egitura jartzen ditu mahai-gainean. Ustiategi terminoak, aldiz, ekoizpenari eta alderdi ekonomikoari ematen dio zentralitate gehiago, baserriak ekoizpen-gune bezala definituz. Tesian zehar biak erabili izan ditugu etxalde hauek izendatzeko, bai nik neuk, bai sektoreko teknikariak, eta bai ekoizleek beraiek. Hori dela eta, biak ala biak erabiliko ditut errealitate berdinari erreferentzia egiteko.


ate handi horretan txiki agertzen naiz. Miguelengandik galdetu eta "Marta naiz" azalpena eman ondoren, gora -bulegora- igotzeko esaten didate. Pabiloi barruan eskailera batzuk igota gunee itxi bat dago: bulegoa.

Ez dakit nire neska-gazte-hiritar itxurak salatu nauen, baina izenak bai. Pabiloira heldu eta Miguelengandik galdetu dudanean, kasualitatez, bertan zegoen Eguzkipe ere. Nik oraindik ez nekien bera zein zen, beraz, ez dut ezagutu. Berak, aldiz, Marta izena aditu duenean handik bi egunera bere etxera joan behar duen ikerlari hura ni naizela konturatu da, baita Miguelekin komentatu ere. Hau ez da izan horrelako zerbait gertatu zaidan lehenengo aldia. Beste batzuetan ere gertatu izan zait pertsona batengana elkarrizketa bat egitera joan eta lehenagotik beste baten bidez nire berri izan duela esatea. Eta jakinaraztea. Sare sendoek jositako sektore txikia dela erakusten dit horrek, baita kontrolatuta dagoela eta kontrolatu nautela ere. Kontrola tokian tokiko lanean zehar etengabe presenten egon arren, forma ezberdinak hartu eta praktika ezberdinetan gauzatu da. Esan bezala, ekoizleekin egon naizenean "ahoz ahokoan" eta gertuko harremanetan oinarritutako kontrola izan da. Harreman horien bidez ni ezagutu, kokatu, eta kontrolatu egin naute.

Horrenbestez, 2018ko otsailaren bukaeran Santiago eta Miguelek gomendatuta heltzen naiz Eguzkiperenera, hots, Feliperenera. Kasu honetan ere, Felipek baserrira ailegatzeko jarraibideak emanak dizkit telefonoz, baina bere euskara ulertzeko zailtasunak izan nituen. Internetak zalantzak argituko zizkidalakoan ez nion esan ez nuela erabat ulertu. Oraingoan, baina, GoogleMapsek huts egiten dit -interneten baserria ez dago elkartearen egoitza bezain ondo erregistratuta- eta galduta nagoela deitu egin behar izan diot Feliperi. Dagoeneko pasa naiz baserri aurretik. Areago, hortik pasa naizenean zalantza ere egin dut, ea hori Eguzkipe baserria den galdetu edo ez galdetu. Gainera, negutegiren bat ikusi dut bertan, beraz, bazitekeen hori izatea. Aitzitik, dotoreegia iruditu zait -etxe berritua eta sarreran marka oneko autoak aparkatuta- eta aurrera jarraitu dut. Hortaz, orain bai, buelta eman, Feliperen argibideak jarraitu, eta nire aurreiritziek baztertu duten baserrian geratzen naiz.

Hortxe dago nire zain. Kotxea aparkatu, gauzak hartu, eta berak aginduta etxera sartzen gara, beste hainbatetan bezala, sukaldera. Bertan egiten diot ordubete inguru irauten duen elkarrizketa, tarteka alabaren bat bertatik pasatzen delarik. Berak proposatuta, negutegietako batean bukatzen dugu gaurko solasaldia. Negutegi horretan "landarea egiten dute"; hau da, gerora aldatzen dituzten tomate landareak ekoizten dituzte bertan. Izan ere, Eguzkipeen tomate landareak erosi ordez haziak erosi eta eurentzako landareak ekoizteko erabiltzen dituzte hazi horiek. Hainbatek esan didanaren arabera, Gipuzkoako tomategintzan hori egiten duten bakarrenetakoak dira. Gainera, azkenengo urteotan landare txertatuak erabiltzen dituzte, beraz, haziak ereiteaz gain landare txertaketak ere bertan egiten dituzte.

Txertaketaren teknika aski ezaguna da, batez ere fruta-arboletan. Euskal Herrian tomatea bezalako landareetan, aldiz, azkenengo urteotan agertu da. Hala ere, berriki erabiltzen hasi den teknika izanagatik, azkenengo urteotan Gipuzkoako tomategintzan nabarmen zabaldu da. 4 atalean azaldu bezala, txertaketaren bitartez bi barietate ezberdinen ezaugarri batzuk profitatzen dira eta horretarako barietate bateko landare bat beste barietate batekoa den landare baten gainean jartzen da. Hau da, oina izango den landareari goiko partea kentzen zaio, besteari sustraiak eta beheko partea, eta gero bi landareen bi zati horiek elkartzen dira, produktu batzuk erabiliz. Horrelakoetan, goian jartzen den barietatea da ekoiztu nahi dena, hots, fruituak goian jartzen den barietatearenak izango dira. Behekoak – deritzon "oina", "patroia" edo gazteleraz "portainjertos"-, aldiz, goiko barietateak ez dituen zenbait ezaugarri ematen dio landare txertatuari, besteak beste indarra eta zenbait gaitz eta izurriteren aurkako erresistentziak.



Irudia 23: Landareak ekoizteko negutegia, Eguzkipe baserrian. Iturria: Nik egina.

Gipuzkoako tomategintzan horrela egiten dute, eta oin bezala batez ere Maxifort eta Beaufort barietateetako patroiak erabiltzen dituzte, zenbait gaitzari erresistenteak baitira eta landareei indarra ematen baitiete. Gainean Jack barietatea jartzen da; beraz, ekoizten diren tomateak Jack tomateak dira. Landare txertatuak erabiltzen direnean indar handiagoa dute. Hori dela eta, landare bakoitzeko gida bakar bat atera ordez bi edo hiru gida atera ohi dituzte bakoitzetik. Izan ere, normalean txertatu gabeko tomate landareak landatzean gida bakarra uzten zaie. Ateratzen diren beste gidak edota deritzon "txupoiak"²³⁰ kimatu egiten dira. Horren helburua landarea gorantz joatea, indarra gida horretan ateratzen diren tomateetara bideratzea, eta landareak aireztatuago egotea da. Landareak txertatuak direnean, aldiz, indartsuagoak izan ohi dira eta bi edo hiru gida uzten zaizkie. Eguzkipen ere horrela egiten dute gehienetan.

Negutegira sartu eta neure arreta bereganatzen duen lehenengo gauzetako bat lurra da. Lurra hormigoiak estalia da. Traktore bat bertan gordeta egon arren, argi dago negutegi honetan, behintzat, ez dutela erabiltzen. Izan ere, Felipek lehenago azaldu didan moduan bertan teknika hidroponikoaren bitartez ekoizten dituzte tomateak. Negutegiko atea pasa eta ezker aldean "ernetze-mahaia" dago. Lurretik altxatuta, lanerako altuera egokian dago mahaia, eta bertan bi barietate motatako bost zentimetro inguruko landaretxoak daude. Alde batetik, Jack barietatekoak daude. Bestetik, landatuko duten landarearen oinak, "portainjertos" edo "patroiak" deitutakoak. Kasu honetan Maxifort edo Beaufort barietateetakoak dira. Berez, jakin jada badakit teknika hidroponikoaren bitartez ekoizten dituztela tomateak hemen. Hala ere, landaretxoak ikusi eta egiten dudan lehenengo galdera da ea lurrean ereinda dauden. Erantzuna ezezkoa, noski. Gerora egiten den bezala, haziak ere ez dira lurrean ereiten, bestelako oinarrietan baizik.

230 Botanikan "adar zupatzaile" terminoa ezarrita egon arren, "txupoi" hitza erabiliko dut, hauxe baita tesian zehar agertu eta erabili izan duguna.

Ernetze-mahaiak manta moduko bat dauka gainean, ernamuindu berri diren landareak hotzetik babestuago egon daitezten. Bestalde, mahai horren gainean lanpara bat dago, landareek argi falta izan ez dezaten. Negutegi osoan ere argia dago. Izan ere, neguan ereiten dituzte lehenengo haziak, argi natural gutxien dagoen garaian, alegia, eta landareek argi ordu gehiago behar dute hazteko. Argia ez ezik, negutegi osoan ere berotzeko sistema dute, biomasarena hain zuzen, bestela tomate landareek neguko tenperaturei ez baitzieten eutsiko.

Negutegian apur bat aurrera eginda, ezkerreko partean ere, jadanik txertatuak izan diren landareak daude, lurzoruan jarrita, hormigoi gainean. Gune horretan zorua maila apur bat baxuagoa da. Horrela, lurzoru zati hori deritzon "soluzio nutritiboz" betetzen dute landare hauek ureztatzeko eta elikatzeke. Landareak loreontzi txikietan daude, bakoitza batean, eta lurraren ordez oso xurgatzailea eta bizigabea den substratu batean daude landatuta -perlita, bermikulita, harri-zuntza edo koko-zuntza, besteak beste-. Loreontziak lurzoru gainean daude eta behetik xurgatzen dute hormigoi gainean botatzen den soluzio nutritiboa.

Esan bezala, bertan daude jadanik txertatuak izan diren landareak. Negutegian are apur bat aurrerago eginda, "kamara" dago, gela itxi bat, negutegiko azpi-gela bat balitz bezala. Bertan tenperatura eta hezetasun mailak oso kontrolatuta daude, horixe baita txertaketak egiteko eta txertatu berri dauden landareak gordetzeko tokia. Txertaketa egin berri dagoenean landareak baldintza atmosferiko zehatz eta kontrolatu batzuetan egon behar du, horregatik dago negutegi barruan baldintza horiek ziurtatuta dituen azpi-gelatxo hori. Felipek esanda, gela hori 22 gradutan mantentzen da eta %80-85eko hezetasun maila dauka.

Landare txertatuekin lan egiten hasi zirenean Felipe eta berarekin aspalditik lan egiten zuen langile bat ahalegindu ziren txertaketak egiten, baina ez zuten lortu. Hori dela eta, urte eta erdiz Eguzkipen landare mintegi batetik ekarri zituzten landare txertatuak. Gerora, bertan lan egiten duen alabetako bat ere ahalegindu zen, eta berak bai, erdietsi zuen txertoak ondo ateratzea. Harrezkero bera da horren ardura daukana. Izan ere, ikusiko dugun bezala, Eguzkipen asko baloratzen dute bertan landarea egitea, horrela horren kalitatea ziurtatzen baitute.

Eguzkipen gaur egun ia tomatea baino ez dute ekoizten. Tarteka beste zerbait ere ekoizten dute, baina oso-oso kopuru txikia izaten da tomate ekoizpenarekin alderatuz gero. Dena negutegipean, hidroponia teknikaren bitartez, eta landare txertatuak erabilia egiten dute. Halaber, egiten duten tomate guztia Jack barietatekoa da. Duela hamarkada batera arte Robin barietatekoak ere jartzen zituzten, baina kanpoan zituzten lurrak utzi zituztenean barietate hau jartzeari utzi zioten, negutegi barruan ez baita ondo ateratzen. Bestalde, esan bezala, gaur egun landare txertatuak erabiltzen dituzte, *Maxifort* eta *Beaufort* barietateko oinak erabilia. Bai oinak bai Jack Monsanto enpresarenak dira. Batetik, Monsantoen filiala den Seminisek ekoizten du Jack. Oinak, aldiz, De Ruiters Seedsek egiten ditu, eta hau ere Monsantoena da.

Guztira, 17.000 metro negutegi inguru dituzte eta sei lagunek jarduten dute bertan lanean, Felipe eta beste bost. Familia-ustiategitzat har dezakegu, baina kanpora ireki den familia-

ustiategia da. Izan ere, sei langile horietako bi etxeko alabak dira, beste bat Felipe bera, eta beste hiru "kanpoko langileak". Langileak txertatzeko prozesua pixkanakakoa izan da, eta hori azpimarratzen du Felipek bera ere. Ustiategia pixkanaka-pixkanaka handitzen joan da, eta apurka-apurka ere eskulana gehitzen joan da. Hasiera batean bera bakarrik zegoen, gero etxeko besteren bat ere gehitu zen, duela 32 urte inguru jada lehenengo langilea sartu zen, gaur egunera arte; egun guztira sei dira bertan lanean.

Tomate ekoizpenari dagokionean ia urte osoan izaten dute, baina ekoizpen eta salmenta onak bederatzi hilabetez izaten dituzte gutxi gorabehera. Hala ere, ez da kontu matematikoa eta, esan bezala, bertan ekoizpen baldintzak (tenperatura, hezetasuna, ura, argia bera, nutrienteak, eta abar) oso kontrolatuta egon arren meteorologiaren eraginpean ere badaude, eta urtero tomatea "ez dator" une berean.

Marta [M]: Ze... tomatea orain noiztik noiz arte daukazu?

Felipe [F]: Aurten ez dakit [barre ironikoa egiten du]²³¹.

M: Beno, gutxi gorabehera.

F: Iaz, otsaila, o sea, otsailan gaude, otsaila azkenean hasi ginen biltzen, eta horregatikan ez da asko biltzen, baina ya martxoan nahiko ondo bildu dugu, eta apirila eta maiatza asko. Aurten, gutxieneko hilabeteko atzerapena dauka, giroagatik, ilunagatik. Ze, hotza baino gehio ilunagatik, horregatik atzerapena dauka. Baina guk normalean, esan dezagun, biltzen dugu nahiko segidan, pues, apirilari aurretik, martxoan atzenetik, pues abenduan atzena, urtarrilan zera. Eta orain ere zerbait biltzen dugu, baina orain oso gutxi biltzen da, ze ez dago batere argirik. Baina esan dezagun, gure zera pues dira, pues, 9 bat hilabete urtean bai (Felipe, elkarrizketa).

Bederatzi hilabete hauetan bi uzta jasotzen dituzte. Hau da, bi landaketa egiten dituzte. Hala ere, bi landaketa horiek ez dituzte denak batera egiten, txandaka baizik. Horrela tomateak ez datoz denak batera. Izan ere, bezero txikiei saltzen diete batik bat eta horiei saltzeko beti izan behar dute produktua. Antzekoa esaten zidaten Erain baserrian ere, hobe dutela soberan izatea, faltan baino, bezeroak ase egin behar baitituzte.

Azkenik, Eguzkipe ustiategi konbentzionala da; hau da, ez dute era ekologikoan ekoizten. Hala ere, "ekoizpen integratua" egiten dute, produktu kimikoen erabilera kontrolatua eginez eta ekoizpenaren kontrol zurruna eramanez. Eusko Labelen daudenez ekoizpen integratua egitera behartuta daude. Hala ere, sinesmenez egiten dutela azpimarratu zidan Felipek. Gainera, gaur egun euren tamainako ustiategietarako dauden kontrol eta osasun neurriak ekoizpen integratua egiteko daudenen oso antzekoak dira. Hortaz, zigilu hori izan edo ez izan,

231 2018ko negua oso euritsu eta iluna izan zen, horregatik barre ironikoz esaten du ez dakiela, nekazaritzarako negu gogorra izan baitzen.

antzeko ekoizpen-bideak eta kontrolak egin beharko lituzkete bertan. Esan bezala, Eusko Labelen daude eta urtearen arabera ekoizpenaren zati txiki bat horrekin saltzen dute.

Laburbilduz, Eguzkipe Gipuzkoako tomategintzan ustiategi garrantzitsu eta esanguratsua da. Bertan egin duten ibilbidea sektorearen bilakaeraren isla da: mistoa izatetik tomatearen ekoizpenean zentratu den familia-ustiategia da; hidroponikoan ekoizten dituzte egun tomateak; Jack barietateko tomateak ekoizten dituzte bertan; eta, ekoizpenaren zati bat Eusko Label markaren barruan saltzen dute. Hala ere, tomateroen artean bereizi egiten dira, bertan puntako berrikuntzak egiten lehenengoetarikoak izan baitira.

Erain baserrirantz gerturatzen

Erain baserriaren kasua ere paradigmatikoa da Gipuzkoako tomategintzan. Kasu honetan, baina, puntako berrikuntzak beti ez dituzte txertatu, eta etxeko ereduaren zenbait ezaugarri iraunarazteagatik -edo saiatzegatik- nabarmentzen dira. Kasu honetan, esanguratsua da beraien ekoizpenaren zati handi bat salmenta zuzenaren bidez saltzen dutela, beraien herriko eta inguruneko herrietako azoketan beraien postua jartzen baitute.


Erain baserria hiri baten mugan dago. Batera eta elkar harremanetan dauden baina bisualki bereiz daitezkeen bi eremuen arteko muga edo trantsizio gune bat dira Erain baserria bera eta inguruan dauden negutegiak, herri guneko eraikinak bukatu eta basoa eta zelaiak hasten diren tokian baitaude, hain zuzen. Muino txiki-txiki batean topatzen ditut, toki eguzkitsu batean. Eguzkiperen kasuan gertatu bezala, Santiago zein Miguelek hona etortzea gomendatu didate. Kasu honetan, ez da horren punta-puntako baserria -teknologia eta berrikuntzen erabilerari dagokionean- baina bada Gipuzkoako tomategintzaren ezaugarri nagusien isla. Besteak beste, bi teknikariek azpimarratu didate bertan salmenta zuzena egiten dutela, eta Eusko Labelen egondakoak direla baina azkenengo urteotan atera egin direla. Beraz, merkaturatze-bideei erreparatzeko, eta Jack eta Eusko Labelaren hedapena eta garapena nola artikulatzen diren ulertzeko gako batzuk topa ditzaket hemen. Gainera, baserri honetako negutegietan egin izan dute tomate barietateekin entseguren bat edo beste. Kasu honetan, Neikerrek bultzatuta eta Gipuzkoako Foru Aldundiko langile batek gauzaturata, bertako tomate barietateekin egiten ari den ikerketa baten entseguak egin dituzte Erainen duela gutxi.

Esan bezala, Santiago zein Miguel baserri honetaz mintzo zaizkit. Oraingoan, baserriaren izena baino bertako profesionalaren abizena erabili dute: "Zelarekin egon behar duzu". Berari baimena eskatu ondoren, kontaktua pasatzen dit Santiagok, izen-abizenak emanda. Deitu eta tokira nola heldu azaldu zidatenean esan zidaten baserriaren izena: Erain. Oraingoan ere, izen hori ondo apuntatu eta interneten begiratuko nuela pentsatu nuen. Kasu honetan, lehen sektoreko ekimenak eta agenteak ikusgarri egitea helburua duen "Nirea" web-orrian aurkitzen dut Erain baserriaren kokapena.

Bertara abiatzen naiz, baita erraz aurkitu ere: etxe bat ikusten dut, horren atzean haizeak puskatuta eta "belar txarrez" beteta negutegi batzuk, eta parean ateak irekita dituen biltegi moduko bat. 2018ko otsaila bukaeran gaude. Bazkalosteko ordua da eta ingurunean ez dut inor ikusten. Etxea oso itxia sumatzen dut. Beraz, Joseri deitzen diot. Non nagoen azaltzen diodanean, "etxean" nagoela esaten dit, beraiek negutegietan daudela. Beraiek. Orain arte nik pertsona bakar batekin hitz egin dut, baina bi pertsona omen ditut zain. Eta negutegietan. Egun erabiltzen dituzten negutegi gehienak beste nonbaiten egongo dira, pentsatzen dut. Behin galdetuta azaltzen didate etxe ondoan daudenak zaharrak direla, eta apurtuta daudela gainera; beraz, etxe ondoko lurretan ekoizpenaren parte txiki bat baino ez dute egiten gaur egun. Etxean nagoela esan ondoren, telefonoaren bestaldean entzuten dut Jose beste batekin hizketan, "ama etxean dagoen" erdi galdezka, erdi baieztatzen, eta bueltan niri zuzentzen zaidan ahotsak berresten dit "etxean ama dagoela" eta berak esango didala negutegietara nola heldu. Deia moztu eta berehala telefono finko baten hotsa aditzen dut etxe barruan, ahots bat berrikeretan, eta segidan andre bat ateratzen da balkoira, ama -izango dena-. Bertatik negutegietara nola heldu azaltzen dit.

Apur bat deskolokatuta abiatzen naiz kotxera. Ematen du negutegietan aita eta seme batekin topo egingo dudala, baina ez dakit horietako zeinekin hitz egin dudan orain arte. Aitarekin, pentsatzen dut, aita izan beharko baitu ustiapena aurrera eramaten duena. Aitzitik, balkoira irten den emakumea nagusia iruditu zait, eta aita hori horren senarra baldin bada, agian ez da bera izango ustiategiko burua edo titularra. Gerora argituko dut apur bat kontu hori. Izan ere, gaur egun aita eta semeak, biek ala biek, ama eta arrebarekin batera egiten dute lan familia-ustiategian. Hala ere, garapen teknologikoez eta etorkizunean egin behar dituzten aldaketek hizketan ibiltzen garenean aita arduraren eta belaunaldi aldaketaren pisua duen begirada botatzen dio semeari, eta berak

jada ez duela horrelakorik egingo gehitzen du. Hots, bertan bi belaunaldiek lan egiten badute ere, ustiategiaren erantzukizuna eta etorkizuna bigarrenaren esku dagoela sumatzen da begirada eta elkarrizketa horietan. Edonola ere, ordura arte zeinekin hitz egin dudan beraiekin batzean argituko dudala pentsatzen dut, nik Jose batekin kontaktatu izan baitut eta orduan jakingo dut Jose aita edo semea den. Ordurako jada gerora hobeto ulertu eta ezaugarrituko dudan familia-ustiategi itxura hasi naitzaio hartzen Erain ustiategiari.



Irudia 24: Eraineko negutegia landareak aldatu berri. Iturria: Nik egina.

Kotxera itzuli, eta andreak esandako bidetik abiatzen naiz. Bost minutu ez dira pasa negutegietara iritsi naizenerako. Horrek beste itxura bat du. Pinudi baten erdian goraka egiten hasi naiz, eta lehenengo bihurtune batean bidexkaren bi aldeetan lurra berdindua eta nabe bana dago. Bidexkaren eskuinaldean, ardiak gordetzeko izan

zitekeen tunel bat dago; ezkerreko partean, sarrera hormigoiz estalita duen hiru tuneleko negutegi handi bat. Bidexkatik goraka segi eta berehala beste bi negutegi handi eta eraikintxo baten erdian bukatzen da pista. Hortxe daude nire zain.

Gauzak hartuta -kaiera, grabagailua, eta abar- kotxetik atera eta beraiengana noa. Minutu batzuk hizketan daramatzagula konturatzen naiz bertan egingo diedala -egiten ari naizela- elkarrizketa. Bertan ez dago sukalderik. Esan bezala, otsaila bukaeran gaude eta negu euritsua izan arren gaur eguzkia harrapatu dugu. Edo harrapatu gaitu. Solasaldia negutegiko atearen bueltan izaten dugu, negutegira sartzen eta negutegitik ateratzen. Kanpoan hasten gara, baina giroa fresko samar dago, eguzkiak begietan ematen dit, eta gainera instalazioak ikusteko barrura sartu behar dugu. Barruan, baina, bero handia dago, eguzkiak gogor jo eta plastikopean bero handia sortzen baitu, eta gainera, horren ondorioz, sabaia ireki eta itxi egiten da, zarata handia eraginez.

Elkar agurtu, eta berehala konturatzen naiz, galdetzen ez badut behintzat, ezingo dudala jakin horietako zeinekin hitz eginga naizen, biek Jose izena baitute, biak Zelai. Beraz, batzuentzako behintzat, Jose edo Zelai baino, aita edo semea dira.

Negutegira sartzen naizen lehenengo aldian ez diot arreta handiegirik jartzen barruan dagoenari. Landareak duela gutxi aldatutakoak dira, nahiko txikiak oraindik, eta negutegia horiek hazteko prest dago. Ez dut arreta handiegirik jarri, baina hidroponiko itxura hartzen diot. Lurra plastikoz beltz batez estalita dago eta plastikoz zuloak daude landareak dauden tokietan. Landareak karratu txiki batzuetan sartuta daude eta karratu horiek dira lurraren barruan zeudenak. Azkenengo hau, baina, ez dut ikusten. Landare ilara bakoitzaren ondoan dagoen mangera batetik mangeratxo txiki eta laburrak ateratzen dira landareetara. Landareak dauden karratu bakoitzarentzako mangera txiki bana dago, eta karratu barruan dagoen lurrean sartuta daude. Halaber, landare bakoitzaren gainean hari batzuk daude zintzilikatuta, «tutoreak», landareak hazi ahala bertan lotuak izateko.

Lurrean landatu arren, Neikerreko instalazioetan ikusita nuen ekoizpen hidroponikoari antz handia dio ikusten nagoenak. Alde batetik, lurra estalita egonda, ez da ikusi ere egiten. Beste alde batetik, landareak ez daude lurrean zuzenean sartuta, baizik eta erosten dituzten bezala jarriak dira, esandako laukitxo horietan. Azkenik, landare bakoitzera mangera zati bat joateak ere hidroponikoa dela pentsarazten dit, hidroponikoan horrela ikusita baitut. Izan ere, hidroponia erabiltzen denean ura ez ezik, elikagaiak ere ematen zaizkie mangera horietatik urarekin batera, deritzon "soluzio nutritiboan", eta mangera indibidualizatuak ikustean hidroponikoa dela ondorioztatzen dut zuzenean. Edozein kasutan, ez dute hidroponikoan egiten, baina lehenengo begirada lego batentzako hidroponikoari antz handia dio instalazio horrek.

Erainen, gaur egun, tomatea ekoizten dute gehienbat. Gutxi gorabehera euren ekoizpenaren %80 da tomatea. Salmenta zuzena egiten dute eta gertuko herrietako azoketan saltzen dute euren ekoizpenaren zati handi bat. Hori dela eta, bestelako barazki batzuk ere jartzen dituzte, azokan tomateaz gain beste zerbait izan behar baitute. Horrela, gainera, tomaterik ez duten garaietan ere badute zer saldu. Tomatea negutegipean ekoizten dute, baina Eguzkiperen kasuan ez bezala, Erainen lurrean ekoizten dituzte barazkiak. Tomatearen kasuan, Jack barietatea baino ez dute erabiltzen, eta gaur egun landare txertatuak erabiltzen dituzte. Beraz, ekoizten dutena Maxifort oinaren gainean jarritako Jack barietateko tomateak dira.

Duela hamar bat urte pinudia zen lursail berri batean 5.000 metro negutegi jarri zuten, eta gaur egun bertan ekoizten dute ia egiten duten guztia. Gutxi gorabehera, 5.000 metro horietatik 4.000 bat erabiltzen dituzte tomatea ekoizteko. Familia-ustiategia da Erainekoa, eta bertan bi belaunaldik egiten du lan. Esan dudan bezala, ni aita eta semearekin batu nintzen, baina aipatu zidatenean zeintzuk egiten zuten lan, beraiek ez ezik, bertan "ama eta arrebak" ere lan egiten zutela esan zuten. Oraindik guztiz argi ez dagoen arren, seme-alaben belaunaldia lekukoa hartzen ari da. Kasu honetan ez dute etxetik kanpoko langilerik.

Tomate ekoizpenari dagokionean, otsaila aldera aldatzen dituzte landareak eta normalean maiatzean hasten dira tomateak jasotzen, abendu erdialdera arte, udaberri eta udazkenaren arabera. Erainen ere bi landaketa egiten dituzte. Kasu honetan, negutegi barruan landareen kokapena egokitu dute lehenengo txandakoak azkenengo fruituak ematen ari direnean bigarren txandakoak lehenengo fruituak ematen has daitezten. Horrela daukaten lur-eremua hobeto baliatzen dute eta ez dute tomaterik gabeko tarterik bi uzten artean. Horretarako oso lagungarria izan da landare txertatuak erabiltzea, bi gidakoak erabiltzen baitituzte eta horrek ahalbidetzen du landare bakoitzaren artean *toki gehiago uztea bigarren landaketa bertan egiteko*.

Ustiategi honetan ere nekazaritza konbentzionalean jarduten dute, Gipuzkoako tomategintzako ustiategi guztiek bezala. Izan ere, monolaborantzara dedikatzen dira eta ekoizpen ekologikoaren ezaugarrietako bat aniztasuna eta osagarritasuna izaten da. Eguzkipen bezala "ekoizpen integratua" egiten dute. Kasu honetan Eusko Labelean jada ez dauden arren eta "paper mordo" egin behar duten arren horretan diraute. Lehen erabiltzen zituzten produktu batzuk erabiltzeari ere utzi diote, "ahal den botika gutxiñena ibiltzen" dute egun, eta horretan belaunaldi berriak eragina izan du.

Baratzegintzan espezializazioa eta Jack barietatearen etorrera

Jacken hedapena eta arrakasta ulertzeko sektorearen eraketa eta garapena ulertu behar ditugu, tomategintzarena, alegia. Era berean, sektore honen bilakaera eta norabidea ulertzeko, euskal nekazal-sektorearen egoera eta bilakaera ere kontuan hartu behar ditugu. 3. Atalean azaldu bezala, azkenengo hamarkada luzeotan bi joera nagusitu dira baserrietan: gutxi batzuk berriztatu eta espezializatu egin dira, eta gehiengo batek nekazaritza jardunak bertan behera utzi du, asko jota autokontsumorako diren produktu batzuen ekoizpenari jarraipena emanaz (Ainz 2001; Alberdi 2009). Kasu honetan, abandonurako edo berritzerako bi joera horien

artean bigarrean kokatu dira tomategintzan eta Jacken ekoizpenean zentratu diren baserriak. Bigarren horretan kokatu diren heinean, aldaketa handiak egin dituzte beraien ustiategietan, gero eta gehiago zentratuz ekoizpen mota batean. Hasieran barazkigintzara bideratu ziren, eta gero horren barruan tomatearen ekoizpenean gero eta gehiago zentratu dira. Horretarako, belaunaldien arteko erreleboa gakoa izan da, horrekin batera ekoizpena zein instalakuntzak berrizatu egin izan baitira, errentagarritasuna handitzeko asmoz.

Ezagutzen ari garen bi baserrien kasuak horren erakusle argiak dira. Azkenengo hamarkadotan bi ustiategi hauen buruak izan diren Felipe eta Josek kasu batean zein bestean azpimarratu egin dituzte beraiek baserrian lanean sartu zirenean egin zituzten aldaketa eta berrikuntzak. Nahiz eta aldaketak pixkanaka-pixkanaka egin, biek nabarmentzen dituzte belaunaldien aldaketarekin batera ustiategi hauetan bultzatu zituzten berrikuntzak. Biak ala biak familia-ustiategiak dira, biak ustiategi misto batean jaiok dira, eta biek baserriaren modernizazioa eta tomatearen ekoizpenean espezializazioa ikusi eta bultzatu dute.

Eguzkipek [Felipek] horrela kontatzen du nola izan den beraien kasuan:

Betidanik an, e, hemen egin det lana, nik 8-10-11 urterekin ere eskolara joaten nintzen, hor ibiltzen nintzen, garai hartan ez zegoen [...] eta ni etxeko zaharra izanikan, ba etxean oso gaztetatikan hasi nintzen bai lanean eta bai, zea... eta guk, garai batean, orain dala, pues klaro, nik ya 60 urte ditut, 61, ba oin dala 30 eta 40 urte ere oraindikan, esan dezagun, ustiategi hau mistoa zan. Alde batetik ganadu zegoan, behi batzuk, eta beste alde batetik baratza egiten genuen. Ari naiz hizketan, garai batean oraindikan negutegirik ez zegoela eta ezta Gipuzkoan ere, nik uste aurrenekoak hasi zirela jartzen oin dela 45 bat urte, gutxi gorabehera, eta ez hemen. Eta orduan, pues, hori, zen mistoa zen, eta egiten genuen baratza eta ganaua. E, bueno, e, ni etxerako gelditu nintzen, mayorazgoa bezela, ta horrela, eta soldaduzka bukatu nuenean, nik erabaki nuen, pentsatu nuen ez zala posiblea eredu horrekin jarraitzea, zergatikan, azkenean, ganadua izan eta baratza izan denbora asko kentzen du batek eta besteak eta gauza gehiegi zan. Eta erabaki nuen baratzea zeratzea... eta orduan hasi ginene, pues negutegia jartzen. Baratzarekin bakarrik eta udaran egiten duenarekin, pues, ez du... lehen ez zuen ematen, ta orain gutxiago... (Felipe, elkarrizketa).

Felipek argi kontatzen du nola izan den Eguzkiperen bilakaera eta nola pasa diren berrogei urtetan gutxi gorabehera ustiategi mistoa izatetik tomatea ekoiztera dedikatzen den gunea izatera. Bera Eguzkipe baserrikoa da, bertan jaiok. Elkarrizketatu nuen unean jubilatzeaz zegoen, eta ordura arte beti bertan egin zuen lan. Etxean bizi izan duten espezializazio-prozesu honetan gakoa izan zen Felipek ustiategiaren lekukoa hartu izana, orduan erabaki baitzuen ekoizpen mota batean zentratzea eta horretan inbertsioak egitea, barazkigintzara bideratzea eta negutegiak instalatzea, alegia. Abereak kendu eta baratzean zentratzen hasi eta gutxira jada lehenengo negutegiak jarri zituzten, 1979-1980. urte inguru hartan. Hasiera

horretan "denetik" egiten zuten baratzean, garai hartan baratzerako zeuden gauzak jartzen: negurako azak, porruak, eta eskarolak, eta udarako tomateak, piperrak "eta holako gauzak".

Erainen ere belaunaldi arteko erreleboa gakoa izan zen ustiategiaren bilakaerarako. Hala ere, kasu honetan inbertsioak progresiboagoak izan dira, eta aldaketak ez dira horren nabarmenak izan. Bertan, aldaketei bideak ireki baina era berean zenbait praktika eta egiteko modu iraunarazi dute. Halaber, Eguzkiperen kasuan aipatu ez dugun beste elementu garrantzitsu bat jartzen du mahai-gainean bigarren kasu honek. Jose aitak ustiategiaren erreleboa hartu ahal izan zuen eta horretarako behar zuen inbertsioa egin ahal izan zuen lantegian irabazitako diruari esker.

Esan bezala, Jose aitak ustiategiaren agintea hartu arte Erain ustiategia mistoa zen. Bera txikia zenean batez ere barazkiak egitera dedikatzen ziren baina esnea ere saltzen zuten, etxean ganaduak pisu gutxi bazuen ere. Orduan, behiak baino ez zituzten. Egun, aldiz, behiak jada ez, baina azkenengo urteotan ardiak jarri dituzte, "semeak jarri ditu", hain zuzen, negutegien ingurua sasiz bete ez dadin. Halaber, Jose aita txikia zenean salmenta zuzena egiten zuten: barazkiak egunero plazan saltzen zituzten, eta esnea etxeetan banatzen zuten. Eredu horri heldu diote, gaur egun ere hauxe baita euren ezaugarri nagusienetakoa.

Marta [M]: Ze, familia ibiltzen zen...

Semea [S]: Gurasoak? Gurasoak bai, inbernaderoakin ez, baina baratza bai.

Aita [A]: Baratza bai, baratza bai. Baratza gure ama... mutil koxkorra ginenean...

M: Saltzeko eta, edo etxerako?

S: Plaza, plaza.

A: Plazara joaten ginen. Karretilla zan, oin hemen ez dakogu, zen hola luze antzeko bat, etxean egindako...

S: Egurrezkoa.

A: Aurrean errueda batekin, han otarrak ipini, ta eskolakoan hartu karretilla ta eramaten genion amari plazan, han laga, eta gero etxerako hartu karroa eta, mutil kozkorak, hori. Eta, nik ikusi nuena zan orduan, gure ama egunero plazara joaten zen, etxera jatekoa ekartzeko, dirua handik.

M: Eta barazkiak bakarrik edo, arrautzak edo...?

A: Esnea, orduan behiak eukin genuenean, goizean jaisten ginenean, ematen genuen bezeroei, gu kalean, egon zara ba, han bizi ginen, gure baserri zaharra, goizean jezten zena entregatzen genuen bezeroei.

S: Kaleko jenteari.

A: Iluntzen jezten egiten genuena, bi aldiz jezten genuen, berriz be partidu, etxeetan.

S: Baina azokara ez zenuten eramaten?

A: Azokara ez, ez. Gurea ez zen ganau asko, hamar, hamar... (Jose aita eta semea, elkarrizketa).

Kasu honetan ere tomatean espezializatutako ustiategi bihurtzeko aldaketa nagusia belaunaldi aldaketarekin batera etorri zen. Jose aita "lanera ateratakoa" zen. Paper-fabrikan lanean zortzi

urte eman ostean bera edo bere lankide bat bota behar zuten. Bestea kaletarra izanik pentsatu zuten hobe zela bera joatea eta etxean lanean jartzea, eta horrela egin zuten. Lanetik bidaltzeagatik ordaindu zioten kalte-ordainarekin negutegiak ezartzeko inbertsioa egin zuten. Nekazal-eremu eta eremu industrialak elkar-harremanetan, elkarrekin garatzen, eta elkar elikatzen agertzen zaizkigu kasu honetan, industrian egindako diruarekin bultzatu baitzuten ustiategiaren bilakaeran gakoa izan den berrikuntza nagusienetakoa: lehenengo negutegien instalazioa. Horren ondorioz ekoizpena handitu ahal izan zuten. Alde batetik, bera sartu zenez etxean lanean eskulan gehiago zegoelako, eta bestetik negutegiekin ekoizpena handitu zutelako. Ondorioz, euren herriko eta ondoko herriko azoketara joateaz gain, inguruko herrietara ere joaten hasi ziren, bereziki tomatearen kanpaina egitera.

3. atalean esan bezala, soilik erreleboa badago egiten dira inbertsioak eta ekoizpena berriztatu egiten da, eta hau gertatzen denean, produktibitatea handitu egiten da etxaldearen ekoizpena biderkatuz. Hauxe da, hain zuzen, Erain eta Eguzkipe baserrien kasua. Edonola ere, egin diren berrikuntza horiek guztiak "pixkanaka-pixkanaka" egin izan dituzte, eta horrela nabarmentzen dute Eraineko Jose aita-emeek zein Eguzkipeko Felipek. Pixkanakako berrikuntza eta aldaketa txiki horien ondorioz eredu bati forma ematen eta horretan sakontzen joan dira. Felipek argiki erakusten du bere hitzetan, gerora aipatuko ditugun zenbait berrikuntza teknologikoren berri emanez:

Beno, gero... pixkanaka-pixkanaka, esan dezagun denboraren poderioz, joan gera instalazioa hobea jartzen eta modernizatzen eta teknologia gehiago sartzen, esan dezagun. Eta nik uste, pues, ez dakit ba, baino, negutegia jartzen hasi eta handikan 8 edo 10 bat urte ya hasi ginen pentsatzen, tomateakin adibidez, eta baita bainakin adibidez, ekoizpena aurreratzeko beroa sartzen hasi ginen. Eta, beno, eta pixkanaka-pixkanaka joan gera gero eta instalazio hobea egiten, eta azkenean orain iritsi gera une batera, orain bakarrikan ia tomatea egiten degu. Hortan zeratu gera, esan dezagun espezializatu edo, eta ia-ia bakarrikan egiten degu tomatea (Felipe, elkarriketa).

Ikusi bezala, egin zuten lehenengo aldaketa eta inbertsioetako bat negutegiak instalatzea izan zen. Hasiera batean negutegi sinpleak jarri zituzten. Sinpleak eta, beraz, "merkeak", orduan egin behar izan zuten inbertsioa gerora egin behar izan dutena baino txikiagoa izanik. Baratzezaintzan zentratzen eta horretan inbertsioak egiten joan, eta jardun mistoa utzi zuten horrelakoa egiten zuten baserriek. Pixkanaka-pixkanaka negutegi gehiago sartzen joan ziren, neguan batez ere letxuga egiteko, eta udan gehiena tomatea, baina baita piperra ere. Gerora, "pixkanaka-pixkanaka" instalazio hobegoak jartzen joan ziren, ustiategia modernizatzen eta teknologia gehiago sartzen. Eguzkiperen kasuan negutegiak sartu eta zortzi edo hamar urtetara hasi ziren jada pentsatzen beroa sartzea, tomate eta lekaren ekoizpena aurreratu ahal

izateko. Horrela ekoizpena luzatu ahal zuten, beroa jarrita abenduan jada landareak aldatu zitzaketelako.

Barietateen erabilerari dagokionean, negutegia jarri eta barazki gutxi batzuen ekoizpenean zentratu ziren lehenengo urte horietan tomate barietate ezberdinekin lan egiten zuten. Hainbatek bertako barietateak saltzen zituela kontatu zidan Aitorrek, Seminiseko komertzialak. Beste batzuek, aldiz, hazi-etxeei erosten zizkieten tomate haziak. Ordurako jadanik hibridoak bazeuden ere, merkatuan hibridoak ez ziren zenbait barietate mugitzen zen oraindik. Felipek Precolor, Montecarlo eta Ramon aipatu zizkidan, baina beste batzuk ere bazeudela gehitu zuen. Orokorrean, tomate handiak ematen zituzten barietateak ziren. Josek ere hainbat aipatu zuen: Olimpia eta Precolor. Onak izan baziren, baina Jack barietatea agertu zenean atzean geratu ziren. Txikiagoak zirelako, beranduago zetozelako, Jacken ondoan okerragoak geratu ziren.

Hainbat barietate zegoen testuinguru batean eta etengabe barietate berriak probatzen ari diren ekoizpen sistema batean agertu zen Jack, beste edozein barietate bezala. Hortaz, ez da isurialde atlantikoan ekoiztua eta saldua izateko diseinatutako barietatea, hazi-enpresa batek ekoiztu zuen beste barietate bat gehiago baizik. Edozein kasutan, hazi-enpresetako komertzialek badakite toki bakoitzean gustu eta baldintza ezberdinak daudela, eta normalean horietara egokitzen diren barietateak probarazten dizkiete bertako ekoizleei. Jack horietako bat zen, eta hona ekarri zuten probatzeko. Lehen sektoreko elkarteko teknikariak, Miguelek, horrela azaltzen du:

No, el tema es que realmente las variedades llegan por medio de los comerciales. O sea, comerciales que te dicen 'oye, que tengo, que estamos con una variedad' de una casa comercial, no 'que estamos con una variedad'. Ellos ya saben lo que buscamos nosotros. O sea, buscamos un tomate de sabor, de un calibre determinado, de un color determinado, ¿no?, ellos saben, entonces, año a año las casas... y se están probando variedades constantemente, ¿no?, y en una de esas apareció un comercial que se llamaba [¿?] que no me acuerdo de qué casa era entonces, porque digamos que la variedad Jack ha ido cambiando de casas, y, y bueno, pues hicieron unas pruebas en un invernadero, seguramente además sería en el productor que vas a estar mañana [Eguzkipe] que es el que más información te puede dar del tomate porque es el más puntero y el que más historia tiene. Y bueno, fue una variedad que fue funcionando. Y este hombre, además, el de mañana, te puede hablar mucho de variedades porque él todos los años tiene una colección de variedades. Esto que decimos, no ya de las locales, sino de variedades comerciales, las que puede, siempre las está probando. Entonces, siempre, siempre todos los años hay alguien que dice 'joe, tenemos una variedad que realmente va a funcionar' y luego la pones y no, realmente, no llega (Miguel, elkarrizketa).

Ez, kontua da barietateak komertzialen bitartez heltzen direla. Hau da, komertzialak etorri eta esaten dizute 'aizu, daukadala, barietate batekin gaudela', etxe komertzial batena, ez, 'gaudela barietate batekin'. Beraiek jada badakite guk zer bilatzen dugun. Hau da, zaporeko tomatea bilatzen

*dugu, kalibre jakin batekoa, kolore zehatz batekoa, ez?, eurek badakite, orduan, urterik urte hazi-
etxeak... eta etengabe probatzen ari dira barietateak, ez?, eta horrelakoren batean agertu zen [¿?]
izeneko komertziala, ez dakit orduan zein etxetakoa zen, zeren Jack barietatea etxez aldatzen joan
izan baitzen, eta, eta beno, bada, negutegi batean zenbait proba egin zuten, ziurrenik gainera izango
zen bihar bisitatuko duzuna [Eguzkipe], tomatearen inguruan informazio gehien eman ahal dizuna
dena, punta-puntakoenetakoa eta historia luzeena duena baita. Eta beno, izan zen ondo ematen joan
izan zen barietatea. Eta gizon hori, gainera, biharkoa, barietatez hitz egin ahal dizu asko, urtero
barietate mordoa baitu. Esaten dugun hau, ez bertakoen inguruan, komertzialen inguruan baizik,
ahal dituen, beti probatzen dabil. Orduan, beti, beti urtero norbait agertzen da eta esaten du 'aizu,
benetan ondo emango den barietatea daukagula' eta gero jartzen duzu eta ez, benetan, ez da heltzen.*

Orokorrean jaso ditudan kontakizunetan horrela azaldu dute. Beste barietate batzuk bezala azaldu zen Jack duela hogeita hamar urte inguru, ekoizleei gustatu zitzaizkien eta kontsumitzaileei ere bai, eta apurka-apurka bestelako tomate barietateei tokia hartu zien Jackek. Prozesua, baina, ez da "besterik gabe" gertatu, eta Jacken arrakastaren arrazoi guztiak ez ditugu tomatean bertan topatzen. Erainen, adibidez, Eusko Labeli erreferentzia egin zioten. Beraiek jadanik Jack tomateak landatzen zituzten, baina Eusko Labelera sartu zirenean bertako langileek gomendatu zieten barietate hori erabiltzea. Izan ere, Euskal Tomatea marka sortzerakoan Eusko Labeletik zenbait entsegu egin zuten, hemen landatzeko tomate egokienak aurkitzeko. Alde batetik, hemengo kliman ondo moldatzea bilatzen zuten. Bestetik, ezaugarri jakin batzuk zituzten tomateak nahi zituzten, hemengo gustura egokituak. Aitorrek azal fina, zapore handia, azukre kantitatea, kolore gorria, eta tamaina jakin batekoa izatea nahi zutela nabarmentzen zuen. Hainbat tomate barietate probatu zuten orduko hartan, eta Jack izan zen gehien gustatu zitzaizkienetako bat. Ondorioz, markaren barruan hori landatzea bultzatu dute.

Beste barietate batzuk bezala heldu, baina geratzeko heldu zela ematen du gaur egungo begirada batetik aztertuta. Hainbatek errepikatu izan dit Jacken agerpena sektorearen garapenaren gako izan zela. Areago, Jack sektore bat bultzatu eta sostengatu duen barietate gisa aurkeztu zidan Miguelek, sektorea barietate baten bidez garatu izan dela esanez. Jack heldu zenean aldaketa eta berrikuntza batzuk eginda bazeuden ere, oraindik hainbat barazkiren ekoizpenean zentratutako sektorea zen barazkigintza. Tomategintzaren eraketa ulertzeko, beraz, Jacken etorrerarekin batera egin ziren berrikuntza teknologikoak eta merkatuaren garapena ere kontuan hartu behar ditugu. Horiek, Jack barietatea bera ere definitzen joan dira, tomate honek forma ematen zien bitartean.

Jack barietatearekin batera tomategintza sektorearen garapena eta bilakaera I: azpiegitura eta berrikuntza teknologikoak

Esan bezala, Jack barietatea Euskal Herriko isurialde atlantikora heldu zenean zenbait etxalde jada barazkien ekoizpenean zentratuta zegoen, eta lehenengo negutegiak dagoeneko instalatuta zituzten. Orduko hartan, baina, oraindik barazki -gutxi- batzuen ekoizpena dedikatzen ziren gehienbat, eta negutegietan letxugaren ekoizpena nagusi zen neguan. Udan, aitzitik, tomatearekin batera lekek eta piperrek ere tokia hartzen zuten, baita dirua eman ere. Hortik aurrera, baina, tomatearen ekoizpenean gero eta gehiago zentratzen joan ziren. Letxugaren merkatuaren jaitsiera horren arrazoietakoa bat izan zen. Ordura arte urazak ematen zuen, baina prezioak jaisten hasi ziren eta errentagarria izateari utzi zion. Bestetik, eskulana merkeagoa den tokietatik etorritako produktuak presioa egiten hasi ziren piper eta leken merkatuetan. Tomatea, aldiz, gora egiten hasi zen, gero eta baloratuago zegoen merkatuan, eta beste toki batzuetatik etorritakoek ez zuten egiten presio bera. Alde batetik, tomatearen ekoizpenean eskulanak ez baitu horrenbeste pisu. Beste alde batetik, kanpotik, tomateak ekarri, ekarri egiten ziren, baina hauen eta hemen ekoiztutakoen zaporea guztiz bestelakoa zen. Beraz, kanpotik ekarritako tomate merkeek ez zuten lehiatzen hemen ekoiztutako kalitatezko tomate zaporetsuekin, eta horregatik beragatik garestiago sal zitezkeen.

Testuinguru horretan, 2000ko hamarkadaren bueltan, tomatearen merkaturia handitzen joan zen eta Jackekin batera tomategintza sektorea garatzen joan zen. Prozesu honetan hainbat elementu gako aurkitzen dugu. Alde batetik, azpiegitura eta berrikuntza teknologikoak funtsezkoak izan dira. Bestetik, sektorearen eragile ezberdinen arteko harremanak eta sareak ditugu. Tomate ekoizleak, saltzaileak, foru aldundiko eta nekazal-elkarteetako teknikariak, ikertzaileak, eta hazi-banatzaileak harremanetan daude etengabe, eta forma ematen diote tomategintzari. Hainbatetan bat datozen helburuekin eta beste batzuetan interes ezberdinekin, euren arteko harreman eta sare sendo eta trinkoen ondorioz eratu da eta forma hartu du tomategintzak Gipuzkoan. Harreman horien bitartez bultzatu eta garatzen dira sektoreari begira egindako hainbat ikerketa. Egin diren -eta egiten diren- ikerketen kopuru handi bat barietateak probatzeko entseguak dira. Azkenik, beste elementu gako bat merkaturatze-bideak eta -estrategiak izan dira. Esan bezala, bide motzetan oinarritutako merkaturatzeko estrategiak ahalbidetu du Jack tomatea erabiltzea eta kalitatezko produktu bat sortzea. Izan ere, kalitatea eraiki eta bermatzen duen elementuetako bat bide motzetan oinarritzen den gertutasuna eta konfiantza da.

Goazen, orduan, garapen teknologiko eta azpiegituraren berriztapenetik hasita bi baserri hauen kasuetan aipatutako elementuak nola gauzatu eta garatu diren ikustera. Berrikuntza teknologikoei dagokienean, hainbat eta hainbat izan dira egin diren berrikuntza eta inbertsio teknologikoak: negutegiak instalatu, bero-sistemak jarri, hidroponia teknika erabili, zenbait produktu kimiko eta tratamendu biologiko erabili, eta azkenik landare txertatuak landatzea.

Urtea (gutxi gorabehera)	Nola adierazten du	Berrikuntzak
1979-1980	"1979-80-81ean hasi ginen aurreneko negutegiak jartzen, 81ean". "Negutegian, oain dala pues hori, gu hasi ginenean, pues 40 urte laister izango dirala"	Lehenengo negutegiak jarri zituzten. Denetik ekoizten zuten
		Negutegi gehiago jarri zituzten. Batez ere letxuga neguan eta tomatea udan ekoizteko
1990	"Eta nik uste, pues, ez dakit ba, baino, negutegia jartzen hasi eta handikan 8 edo 10 bat urte ya hasi ginen pentsatzen, tomateakin adibidez, eta baita bainakin adibidez ekoizpena aurreratzeko beroa sartzen hasi ginen"	Beroa jarri zuten negutegietan. Tomate eta leka ekoizpena aurreratu eta luzatu ahal izateko
1992-93 ²³²	"Eta hori atera zala da, a ver, esango dizut, urte bat gorabeherakin, hori da, aurren, 26 edo 27 urte, gure etxera etorri zala". "Ez dakit, orain ari naiz hizketan, Jack, Jack lurtean jarri genuen aurrena. Egia da hidroponikoan hobeto egiten dala. [...] Hidroponikoa, ez dakit, ba, 2 edo 3 urte beranduago edo sartuko zan"	Jack hasi ziren jartzen
1998	"Eta gero baita ere lurretik haratago hasi ginenean, o sea, hidroponikoa esaten dena, zergatikan, hori ere izandu zen aldaketa bat oin dala 20 bat edo hogeitapiku urte. Hori ere esan dezagun Gipuzkoan gu izandu ginela aurrena hemen"	Hidroponia teknikarekin ekoizten hasi. (Monolaborantza jada egiten zuten)
2000 inguru	"Tomatean istorio hau, igual oin dala, 15 bat urte edo, izandu zen boom bat, igual esan genezake, eta, bai... 15 urte, 2000 buelta hortan eta oso ondo saltzen zena"	Tomatearen booma
2010	"Ba, injertuen istorio hau, nik pentsatzen dut, e, honezkero, aurreneko hasi zirela 10 ez dira izango, baina igual 8 bat urte izango dira. Ni, egia esan, hasi nintzan probak egiten injertuen istoriyakin, arazoak izan baino lehenago"	Oinak edo patrioiak

Taula 9: Tomategintzaren bilakaera eta berrikuntzak. Eguzkipe baserriaren kasua.

Eguzkipe baserrian berrikuntzak egiterakoan lehenengoetarikoak izan dira beti, sektoreko elkarteetako teknikariek elkar harremanean. Esan bezala, lehenengoz negutegi batzuk jarri zituzten. Gerora, Jack barietatea heldu zitzairen eta tomatearen ekoizpenean zentratzen joan

232 Erregistro ofizialean 1993. urtean inskribatu zuen PetoSeed enpresak, beraz, ezin da izan hori baino lehenago ekoizten hazi zutenik. Hala ere, ikusten dugu erregistratu eta berehala zabaldu dela hemengo merkatuan, Eguzkipek dionaren arabera.

ziren. Jack barietatea heldu eta gutxira hasi ziren hidroponiarekin ekoizten, eta tarte horretan ere beroa sartu zuten negutegietan, ekoizpena aurreratu ahal izateko. CO² ere erabiltzen dute landareek gehiago emateko²³³. Azkenik, azkenengo urteotan landare txertatuak erabiltzen dituzte. Taula 9an ikusten dugu zeintzuk diren baserri honetan egin diren berrikuntzak eta noiz egin dituzten. Edonola ere, ez dira beraiek bakarrik egin dituzten aldaketak edo inbertsioak, testuingurura egokituz bizirauteko praktikak baizik.

Eta, hori da, esan dezagun, honen ibilbidea... klaro, eta hori dana, azkenean da merkatuaren arabera. Ez da guri okurritu zaigulako, baizik guk daramagu denbora asko hor eta orduan pues gu egia esan oin duela 30 urte gehiena egiten genuena letxuga zan, [...]. Baina gero, pixkanaka-pixkanaka ikusten genuen tomatea gehiagora zihoala eta, eta igual letxuga gutxiagora, ez? Eta errentagarriagoa zela tomatea, eta bestea... gero, zeratzen dena, desagertu dena, esan dezagun, ta ez gure etxean bakarrik, baina egitea zergatikan ez da errentagarria. Eta hortan jarraitzen degu, gaurko egunean, ya tomatea egiten dugu (Felipe, elkarrizketa).

Erainen ere antzeko bilakaera izan dute. Kasu honetan, baina, beranduago egin dituzte inbertsio eta berrikuntza teknologikoak, eta gutxiago ere egin dituzte. Ikusiko dugun bezala, beraiek salmenta zuzena egiten dute batik bat, ia ekoizten duten guztia horren bidez salduz, eta hori dela eta zenbait praktika mantentzea -lurrean landatzea kasu- lehenetsi dute, teknologia gehiago sartu eta inbertsio handiagoak egitea baino. Kasu honetan negutegiko azalera handituz joan dira, eta negutegi modernoagoak jarri dituzte urteen poderioz. Horrek tomate ekoizpena handitzea eragin du. Alde batetik, tomate kilo gehiago ekoizten dituzte, eta bestetik gero eta handiagoa da euren ekoizpenaren barruan tomate ekoizpenaren proportzioa. Hasiera batean 700 metro negutegi ezarri zituzten eta pixkanaka-pixkanaka gehiago sartu zituzten, etxe ondoan 3.000 metro negutegi ezarri arte. Gero, duela hamar urte inguru, elkarrizketa egiten dieran tokian pinuak kendu, lurra berdindu, etxe ondok lur ona eraman, eta 5.000 metro negutegi jarri zituzten. Etxe ondoko lurra baino ez zituztenean dena ez zen tomatea, baina 3.000 metro horietatik 2.000 bat metro tomaterako ziren. Egun, goiko partean dauden 5.000 metro horietatik 4.000 bat dira tomatea egiteko erabiltzen dituztenak.

Beroa ere jarri dute, uzta aurreratu ahal izateko eta urtero bi uzta atera ahal izateko. Hala ere, gasolioarekin doan bero instalakuntza zaharra dute, eta beraz garestia. Hori dela eta, ez dute uzta asko aurreratzen, garestiegi ateratzen baitaie hori. Horrenbestez, bakarrik otsaila aldera erabiltzen dute beroa eta ahal den heinean bakarrik gauez. Hortaz, maiatzera arte ez dituzte

233 Azaldu didatenaren arabera, CO² erabiltzen da landareak azkarrago hazi eta tomate gehiago eman dezaten. Izan ere, landareek CO² kontsumitu egiten dute. Hortaz, gas hori gehiago emanez gero, euren prozesua azeleratu egiten da.

lehenengo tomateak batzen eta abenduko erdialdean normalean bukatu egiten dute urteko uzta, betiere udazkeneko giroaren arabera.

[Aita] Garai batetik... oin martxoan, edo, oin aldautu daukagu, garai honetan baino, orduan aldatzen genuen hilabete bat geroago, geroago... es que han [etxe ondoko negutegietan] ez kalefakzio ez ezer. Hilabete beranduago aldatzen zenuen, baina beldur zinen, izotz bat bazetorren, dana a tomar por saco... lehen esan duena, gasoila da gastua, ta... orduan horretan ere geneukan gastua. Izaten ziren urteak bildurra zekaten eta ahal dan beranduen aldatzen zen, gero orduan aldau aldiro bakarrik egiten genuen (Jose aita eta semea, elkarrizketa).

Etxalde hauen bilakaera teknologikoa nolakoa izan den ezagutzen dugunean zenbait dinamika eta joera aurkitzen dugu. Alde batetik, elkar indartzen duten aldaketak egiten direla ikusten dugu, eredu zehatz batean sakontzen joaten direnak. Hori oso argi ikusten dugu hidroponiaren erabilerarekin. Hori erabili aurretik txandaketa minimo batzuk egin ohi zituzten ekoizleek. Izan ere, lurtean ez da komenigarria beti labore berdina landatzea, zenbait gaitz eta izurrite izateko arriskua handiago baitago. Edonola ere, gutxi ziren eta lur arazoak izan bazituzten jada. Hidroponiarekin hastean, aldiz, lur arazoak minimizatu egin ziren, eta gainera, errazago konpontzen zituzten. Landareak landatzeko erabiltzen diren zakuak bota egin daitezke; lurra, aldiz, beti hor dagoela, eta beraz "lur" -edo substratu- arazoak izanez gero beti aukera hori dago: zakuak bota eta berri batzuk jarri. Eta horixe da, hain zuzen, egun egiten dutena. Zenbait urterik behin aldatu behar izaten dituzte. Horrenbestez, lur arazoak minimizatzen direnez oztopo gutxiago izaten dituzte monolaborantza batera dedikatzeko. Miguel teknikariak argiki azaltzen du prozesu hau:

Yo creo que hay que situarse en esos años eh, en los años 80, vale. Entonces en los años 80 ya había una serie de productores que habían empezado a poner invernaderos principalmente, los primeros invernaderos en Gipuzkoa se pusieron en los años 70. Bueno, y poco a poco se empezaron a poner invernaderos y en esos invernaderos se empezaron a cultivar aquellas especies que demanda el mercado, ¿no? Principalmente lo que era tomate, y luego... de verano, eh. Tomate, pimiento, vaina, y luego de invierno, lechuga y acelga. Esos eran los, como, con esto no se pueden hacer muchas [rotaciones?]. Eh, bueno, con el tema de la hidroponía, eh, el tema es que claro, cuando tú preparas un invernadero en hidropónico lo preparas adaptado a un cultivo, a una especie. Cuando se cultiva en suelo en invernadero decías, bueno, ahora en verano tengo tomate pero luego hago lechuga, hago las labores, hay un cambio, ¿no? Pero cuando preparas un invernadero en hidropónico ya lo estás preparando de una manera para una especie, ¿no? Y eso te está llevando quieras que no a un monocultivo. Entonces, claro, dices, bueno, ¿tienes problemas de patógenos? Cambio los sacos. Digamos que es un sistema de cultivo que te permitía mantener un poco tus necesidades comerciales como productor, y no, siempre se ha vendido la hidroponía como un sistema que va a producir más... no. Es un sistema que te permite no tener patógenos en principio de suelos, que luego los ha habido. Y viene un poco por ahí. Y poder hacer monocultivo. Claro, si a esto añades que las explotaciones son pequeñas, que el problema de suelo, ¿no? Porque tú dices, para rotar necesitas superficie, y no tenemos superficie. Entonces, una horticultura pequeña pues está condicionada por eso. Entonces, ha habido un grupo de productores que están muy pegados a los consumidores, en distintos sitios y

distintos pueblos, que han ido evolucionando en hidroponía y que hoy conforman un sector tomatero. Eso a nivel de sistema (Miguel, elkarrizketa).

Nik uste kokatu behar garela urte, e, laurogeietan, bai. Orduan laurogeietan dagoeneko batik bat negutegiak jartzen hasiak ziren ekoizleak zeuden, Gipuzkoan lehenengo negutegiak hirurogeita hamarretan jarri zituzten. Beno, eta pixkanaka-pixkanaka negutegiak jartzen hasi ziren, eta negutegi horietan merkatuak eskatzen zituen espezieak egiten hasi ziren, ez?. Nagusiki tomatea, eta gero,... udakoa, e, tomatea, piperra, leka, eta gero negukoa, uraza, zerba. Hauek ziren, ba, nola, horiekin ezin dira egin [txandaketa] asko. E, beno, hidroponiarekin, e, kontua da, klaro, negutegi bat hidroponikoan prestatzen duzunean labore batera egokitua prestatzen duzu, espezie batera. Negutegian lurlean landatzen zenean esaten zenuen, beno, orain udan daukat tomatea baina gero egiten dut uraza, lanak egiten ditut, eta aldaketa dago, ezta? Baina negutegi bat hidroponikoan prestatzen duzunean, modu zehatz batez espezie baterako prestatzen ari zara, ez? Eta horrek eramaten zaitu, nahitaez, monolabore batera. Orduan, klaro, esaten duzu, beno, patogenoekin arazoak dituzu? Zakuak aldatzen ditut. Esan dezagun, ekoizle gisa dituzun behar komertzialak mantentzea ahalbidetu egin dizun kultibo sistema bat da, eta ez, beti saldu izan da hidroponia gehiago ekoizten duen sistema gisa... ez. Printzipioz lurreko patogenoak ez izatea ahalbidetzen dizun sistema da, gero egon egon izan direla. Eta dator apur bat hortik. Eta monolaborantza egin ahal izatea. Noski, horri gehitzen badiozu ustiategiak txikiak direla, lurreko arazoa, ez? Zeren,... zuk esaten duzu, txandaketak egiteko lur azalera behar duzu, eta ez dugu azalera. Orduan, horrek baldintzatzen du nekazaritza txikia. Orduan, egon izan da kontsumitzaileei oso atxikituta dagoen ekoizle talde bat, toki eta herri ezberdinetan, eta horiek hidroponiarekin batera garatzen joan dira eta tomategintza osatzen dute. Hau sistema mailan.

Laburbilduz, hidroponia ereduaren zenbait zailtasunari aurre egiteko erabiltzen da, eta era berean hidroponia erabiltzean ereduak sakondu egiten da. Azkenengo hau da ikusten den beste dinamika edo joera bat. Tomategintzaren etxaldeetan etengabe aurre egiten diete zenbait arazo eta zailtasunari. Kontua da maiz izaten direla ereduak berak sortutako zailtasun edo mehatxuak, eta maiz topatzen diren irtenbideek arazo berriak ere jarriko dituzte mahaigainean. Berrikuntza teknologiko horiek sektorearen oztopoak eta mugak gainditzeko eta ekoizpena handitzeko asmoz edo aitzakiaz egin dira, edo behintzat horrela azaltzen dute. Hala ere, oztopo edo muga horiek ez dira ezerezetik ateratzen, eta maiz berrikuntza teknologiko batek eragindako kalteei aurre egiteko bilatzen dira asmakizun eta berrikuntza berriak. Hauxe da hidroponiaren kasua, baita landare-txertaketarena ere.

Esan bezala, Eguzkipen hidroponiarekin hasi zirenean tomatearen ekoizpenean zentratuta zeuden jada, monolaborantza ereduak sakontzen. Horrek, besteak beste, lur arazoak dakartza, zenbait birus eta bestelako izurrite errazago garatzen baita. Horren aurrean hasiera batean lurra desinfektatzen ibili ziren, egun debekatuta dagoen metilo bromuroa produktua erabiliz, baina gero hidroponiara pasatu ziren, horrela lur arazo gutxiago zituztelako. Halere, hidroponian erabiltzen duten substratua ere hiru urtean behin aldatu behar zuten, lurlean izaten zituzten antzeko arazoak izaten zituztelako, nahiz eta maiztasun txikiagoarekin izan.

Urte batzuk beranduago, duela hamar urte inguru, "portainjertoak" edo patroiak agertu ziren, besteak beste lurreko zenbait arazori aurre egiteko. Eguzkiperen kasuan, arazoak izan baino lehenago hasi ziren landare txertatuekin probak egiten. Baina gero arazoak beraiengana ere heldu ziren, eta orain dena landare txertatuekin egiten dute. Ez dira arriskatzen.

Oin dala, a ver, gu hidroponikoa hasi ginan egiten, hori edozein kultibo, monokultibo egiten genuelako, ta orduan arazoak izaten direlako. Eta orduan, hor izandu zen momentu bat, beno, zerbait egin behar zala. Eta, de hecho, hasi ginan, behin edo beste egin genuen, eta beste leku batzuetan be bai, lurra zeatzen, desinfektatzen, metilo bromurorekin baina beno, oso arriskutsua zan, e, gero gainera oin ya debekatua dago, o sea que, orduan, hor erabaki bat hartu genuen eta, erabaki genuen hidroponikoa izan zitekeela bide zuzena, dago zea, este, bi edo hiru urterekin zakua aldatzen dezu, eta gero berriro... baina gero hor ere arazoak azaldu ziren, ze azaldu zan fitoptora, eta izandu ziren inguruan, ustiapenak, pues, joan zitzaioleta, e, o sea, galdu egin zitzaieela ez dena, baino behintzat ekoizpena kristona jeitsi zitzaiena. Qué fitoptora, fitoptora baino gehio fusario, fusariogatik an. Ta orduan, horrerri irtenbidea emateko, pues, daude, esan dezagun, patroiak, dauzkatena erresistentziak horretarako. Eta horregatik jartzen dira patroiak, eta ez bestegatik (Felipe, elkarriketa).

Erainen, Eguzkiper bezala, lur arazoak izan dituzte. Monolaborantza eredian sakontzen joan diren heinean eurek ere "lur arazoak" izan dituzte. Kasu honetan, baina, hidroponikoan sartu baino lurra desinfektatzea izan da luzaz erabili duten estrategia. Badira hogeit bat urte lurra desinfektatzeko lurruna erabiltzen dutela. Izan ere, eurek baloratzen dute oraindik lurreko nekazaritza egitea, eta hidroponikoan ez egitea. Kanpoan ginela, negutegiaren bueltan egin genuen horrelako sartu-irteneko batean simaurra erabiltzen dutela esan zidaten, eta ni harrituta geratu nintzen. Azaldu bezala, negutegian sartua nintzen jada eta hidroponikoan ekoizten zutela pentsatu nuen. Izan ere, lurra plastikoz estalita zegoen, landareak karratutxo txikietan zeuden jarrita, eta karratutxo bakoitzean mangera zati bat zegoen. Hau da, ikusi ditudan ustiategi hidroponikoen antz handia zuen hangoak ere. Baina ez. Eta gainera ea lurrean egiten zuten harrituta galdetu nienean aitak erantzun zidan baietz, "lurrean, bai", lurra gustatzen zaiola, lurra ukitzea gustatzen zaiola. Handik tarte batera, berriz ere negutegira sartu ginenean, makurtu zen, lurra ukitu, eskukada bat hartu, eta apurka-apurka berriz ere bota, lurra zegoela ikus nezan.

Lurreko arazoei aurre egiteko baporea erabiltzea izan da luzaz erabili duten estrategia. Egun, oraindik erabiltzen dute lurruna, baina badira bost bat urte landare txertatuak ere ekartzen dituztela, eta horrek ahalbidetu die gutxiagotan desinfektatu behar izatea lurra. Aldaketa hau lurrean lan egitearekin, monolaborantzarekin eta Jack erabiltzearekin lotzen dute.

Marta [M]: Eta noiztik ibiltzen zarete injertoekin eta? Aspalditik egiten duzue?

Semea [S]: E, lau urte, lau bost urte, gehien bat. Lau bost urte. Ez dizut esango ze urte dan, baina lau bost urte. Eta hori hasi ginen gehienbat, ze hemen lurrean ibiltzen gara, lurra desinfektatu egiten deu, desinfektatzen degu baporeakin.

Aita [A]: Aurten baporeakin ipini dou 100 gradotik gora lurra e.

S: Baporeakin desinfektatu lurra eta problema gutxixago do. Baina guk lurrean nola ari garen, Jack bakarrik ipintzen badeu, Jackek ez ditu erresistentzia batzuk lurreko onddo batzuen. Orduan, horregatik injertata ekartzen deu eta orduan problemarik ez deukou, susterrena.

M: Ze beste horrek, o esa, beste horrek badiu resistentziak.

S: Hori da, hori da, erresistentziak.

A: Honek bai, honen susterrak oin, da, tomaterik [¿?] horren hostoak, hosto diferenteak. Inoiz hostoak eta ateratzen dugu.

S: Ta gero oin ya lurrean segitzeko mesede egiten du. Gero esaten dute [¿arbolie?] altu dijoan heinean indarra hobeto.

A: Baporeakin hasi ginela 18 urte edo gehio.

S: Gehio.

A: Orduan, urtero pasatzen genuen. Susterregatik ez gendun euki. Hiru urtean izaten zen Jackek lekun baten aldatzen baldin bazen derrepente hasten zala susterren gaitzakin... eta, baporea pasau, ez du harrapatu. Han, urtetan jardun genuen. Urtero pasau, eta ez zuen susterren gaitzik harrapatu. Eta honekin lasaiago ibiltzen gara.

S: Ta oin ya ez dugu urtero pasatzen, hiru urtean behin.

A: Gainera beste gauza ona da indarra askoz gehio hartzen du suster horrek, fuerteagoa da (Jose aita eta semea, elkarrizketa).

Edonola ere, hidroponiaren eta txertaketen garapenaren ondorioz, duela hamar eta duela hogeitau urte baino askoz produktu kimiko kutsakor gutxiago erabiltzen dira egun Gipuzkoako tomate ustiategi konbentzionaletan. Egun askoz tratamendu gutxiago erabiltzen dituzte, eta horien orde duela hamar edo hamabost urte inguru "xomorroekin" egiten dute lan, hizkera teknikoan esanda "laguntzaileekin" edo gazteleraz "auxiliares"²³⁴. Gainera, erleak eta bestelako laguntzaileak erabiltzen badira jada ezin dira zenbait tratamendu erabili, tratamenduek xomorro horiek hilko baitzituzten. Legeak ere prozesu hauek bultzatu ditu, zenbait produktu debekatuz, kontrolak areagotuz, eta Eusko Label bezalako marken barruan egoteko kalitate irizpideak zorrotzuz.

Produktu kimiko gutxiago erabili ahal izateko gakoa izan da barietateen garapena eta erabilera zein ekoizpen teknika bera, hidroponia alegia. Hartara, Eguzkipen txertatzen joan diren garapen teknologiko guztiekin batera gero eta laborantza kontrolatuagoa garatzen joan dira. Askotarikoak dira horrelako ustiategietan mehatxu gisa hartzen dituzten arriskuak, batez ere

234 Fauna laguntzailea edo auxiliarra kontrol biologikoko teknika bat da, eta bereziki negutegietan erabiltzen da, bertan ingurunea oso kontrolatuta baitago (ez soilik tenperatura, ura eta hezetasuna, espazioa bera ere mugatuta eta kontrolatuta dago). Ingurune kontrolatu hauetan zenbait izurrite errazago ager daiteke, eta hauek kontrolatzeko hauen predatzaileak diren bestelako xomorroak -fauna auxiliarra- sarrarazten dira. Fauna laguntzaileak ere badiu bestelako funtzio batzuk, besteak beste, polinizazioa areagotzea. Horretarako erlaster moduko batzuk erabiltzen dira, adibidez.

monolaborantza egiten denean, eta horregatik kontrol handiko laborantza izaten da, eta kontrol hau gero eta bioteknologikoagoa da. 4. atalean azaldu bezala, kontrol honek mekanismo biopolitiko eta teknobiopolitikoak uztartu egiten ditu. Alde batetik, mekanismo biopolitiko gisa uler dezakegun zenbait garapen egon da, hidroponiaren garapena kasu. Izan ere, hidroponiak, "subjektibaziorako teknologia" gisa ulertuta (Preciado 2008), kanpotik kontrolatzen du gorputza eta bizitza -landareak eta tomateak, kasu honetan-, kanpoko gailu ortoarkitektoniko lez. Teknika horren bitartez inguruarentzat eta nekazarientzat kaltegarriak ziren zenbait produktu alboratu ahal izan dute, ekoizpen eredia bera kolokan jarri gabe. Horrela, tomate landareen ekoizpena askoz kontrolatuago dago. Hala ere, zenbait mekanismo teknobiopolitikoren garapenak -barietateak beraiek eta txertaketak egiteko "oinak", kasu-zenbait mekanismo biopolitikoren erabilera gutxitzea ere ekarri izan du. Kasu honetan, landareen inguruan kontrol handia egoteaz gain, landareen baitan ere badago kontrol hori, kontrolatu behar den gorputzetik bereizezin. Barietateak dira teknobiopolitika honen oinarrietako bat, ingurune batean bizirauteko eta tomateak emateko diseinatuta baitaude. Preciadok garatu bezala, barietateetan subjektibaziorako teknologiak beraien baitan daude, gorputza bera -barietateak beraiek- da kontrol hori ezartzen duena. Teknobiopolitika gorputzetan beraietan dago, beraz (2008). Adibidez, duela hamar urtera arte Jack barietatea erabiltzea zen gakoa, ekoizpen testuinguru batean egokituta baitzegoen. Hau da, ekoizpen sistema eta testuinguru zehatz batzuetan egokitzeko diseinatuta zegoen -eta dago-. Hala ere, patrioen hedapenarekin Jack landareak are programatuagoa daude ingurune batean bizirauteko, "arriku batzuei" aurre egiteko. Ez da kasualitatea horrelako patrioiak zabaldu izana zenbait produktu -metilo bromuro kasu- debekatu den garaian. Horrela, landareei kanpotik ezartzen zitzaien kontrola ordezkatu edo osatu egin da landareen baitan ezarritakoarekin.

Aipatu ditugu Eguzkipean egin dituzten berrikuntza teknologiko nabarmenenak. Felipek esan bezala, "pixkanaka-pixkanaka" egin dituzte, eta eredu batean eta ekoizpen mota batean sakontzen joan dira. Gaur da eguna dituzten instalazioak tomatea ekoizteko eginak daudela. Areago, tomatea bere sasotik kanpo ekoizteko prestatuta daude, hauxe baita tomatea garestien eta gehien saltzen den garaia. Eta tomatea egiten da "dirua ematen duelako".

Egun, aldiz, merkatu hori ez dago horren indartsu, "tomatearen boom-a" pasata dago. Behera ez du egin, baina tomateak duela hamar urte saltzen ziren antzeko prezioetan saltzen dira. Horrenbestez, Felipek esanda, gaurko testuinguruan egin dituen inbertsioak ez lituzke egingo,

hasieran egin zituenak sinple eta merkeagoak baziren, oraingo negutegiak askoz konplexuago eta garestiagoak baitira.

Prezioa oso oso gutxi igo da. E... guk oain saltzen dugun prezioa eta oain dala 10 urte saltzen genuena, antzekoak dira. Oin udaberrikoan igual garestixoago saltzen da, baino udaran da hor eta... baina ari naiz hizketan udaran ez abuztuan, baizik eta behin maiatza eta ekaina eta horietan, oraindik negutegiko zea dala, tomatea dela, eta gainera beroa jarritako, o sea, dirua gastatutakoa, eta instalazio honetan... eta ez da lehen baino garestiago saltzen, eta, margena gutxiago daude... orain, orain oso arriskutsu izango litzateke guk egin ditugun inbertsio batzuk egitea. Eta de hecho, batzuk, nik uste ya hartu dituztela muturreko batzuk e, ez dakit... ez dakit. Ez da, ez da garestiago saltzen (Felipe, elkarrizketa).

Edozein kasutan, behin instalazio horiek izanda alternatiba gutxi ikusten ditu. Izan ere, uraza ekoizteko ez dira errentagarriak, askoz negutegi sinple eta merkeagoekin ekoiztu ahal baita. Piperra landatzea ere ez da irtenbidea, horrenbeste piper ez bailitzateke salduko. Lekak ekoizteko ere ez du merezi, horiek ekoizteko eskulan asko behar baita eta "hegoaldean" eskulana merkeagoa denez bertatik askoz ere leka merkeagoak heltzen dira. Beraz, tomatearen monolaborantzan sakontzen joan diren heinean, tomatea ekoizteko egokitu dituzte euren instalazioak, eta egun ia horretarako baino ez dute balio.

Ikusi bezala, Erain baserria ere Gipuzkoako tomategintzaren isla da. Sektorearen bilakaerarako gakoak izan diren berrikuntza teknologiko garrantzitsuenak bertan bultzatu dituzte: negutegiak jarri zituzten duela hogeita hamar urte inguru, beroa sartu eta ekoizpena zertxobait aurreratu zuten urtero bi uzta jaso ahal izateko, eta txertatutako landareak landatzen dituzte, besteak beste. Horrela, kasu honetan ere ustiategi misto izatetik tomatean oinarritutako ustiategia izatera pasatu dira hamarkada gutxi batzuetan. Hala ere, Erainen Eguzkipen baino berrikuntza teknologiko gutxiago sartu dituzte: besteak beste, ez dute teknika hidroponikoa erabiltzen, beroa gutxi jartzen dute, eta ez dute CO²a sartzen ekoizpena handitzeko. Izan ere, sektorearen ezaugarria ere baden salmenta zuzenean oinarritzen eta ezaugarritzen den ustiategia da, eta familia-ustiategia izanik ez dute kanpoko langilerik kontratatzen. Horrenbestez, ez dute ekoizpena asko handitzeko beharrik, bezeroak fidelizatzeko eta kontent mantentzeko baizik.

Laburbilduz, orokorrean, Erainen punta-puntako berrikuntza teknologikoak txertatu izan ez arren, tomategintzan sakontzen joan dira zenbait aldaketaren bidez. Jarrera berritzaile eta era berean kontserbadorea izan dutela esan genezake; hau da, bizirauteko eta barazkigintzatik bizitzeko inbertsio eta berrikuntzak egin dituzte, baina aldaketa eta berrikuntza ez dute halabeharrez positibotzat edo hobeagotzat hartzen. Ekoizpena eta etekinak ahalik eta gehien

handitzea ez dute helburu izan, eta gainera baloratzen dute euren etxean "betidanik" egin diren zenbait gauza, lurrian landatzea dela, edota salmenta zuzena dela. Eguzkiperen ezaugarri nagusienetakoak Gipuzkoan barazkigintzan erabiltzen diren puntako berrikuntza teknologikoak txertatzea eta merkaturatze-bide laburrak erabiltzea izan bada, Erainen ezaugarri nagusienetakoak salmenta zuzena egitea eta euren eremuan bizirauteko beharrezkotzat jo dituzten berrikuntza teknologikoak txertatzea izan da. Jarraian ikusiko dugun bezala, horrek eragiten du ekoiztu eta saltzen dituzten tomateekin identifikazio handiagoa izatea.

Jack barietatearekin batera tomategintza sektorearen garapena eta bilakaera II: merkaturatze-bideak

Orokorrean, Gipuzkoako tomateroek antzeko merkaturatze-bideak erabiltzen dituzte. Euren artean estrategia apur bat ezberdinak badituzte ere, oro har gehienetan merkaturatze-bide laburrak erabiltzen dituzte. 3. Atalean esan bezala, merkaturatze-bide laburretan gehienez ekoizle eta kontsumitzailearen artean bitartekari bat bakarrik dago. Halaber, beste merkaturatze-bideen ondoan, zeintzuetan bitartekariak botere handia duten, bide laburretan ekoizle zein kontsumitzaileek erabakitze ahalmen handiagoa dute. Kasu honetan, beharrezkoa da zehaztea hori Gipuzkoan gertatzen dela, Bizkaian ez baita berdina gertatzen, eta horrek zuzenean eragiten dio Eusko Label markaren erabilerari. Bizkaian, *Garaia* ekoizle kooperatibaren bitartez saltzen dira produktuak gehien bat, eta hortik supermerkatu eta saltoki handietara bideratzen dira. Salmenta mota honetan labelaren barruan saltzea, eta hortaz etiketa erabiltzea, estrategia nagusienetakoa da. Izan ere, horrekin bermatzen dute produktuen kalitatea, eta horrek ahalbidetzen die tomateak garestiago saldu ahal izatea. Baina, esan bezala, hau ez da Gipuzkoako kasua.

Gipuzkoan bi ezaugarri nagusi ikusten ditugu tomategintzan merkaturatze-bideei dagokienean. Alde batetik, salmenta zuzena eta bide laburrak erabiltzen dira gehienbat. Bestetik, merkaturatze-estrategiak dibertsifikazioan oinarritu dituzte, eta ohikoa da askotariko merkaturatze-bideak erabiltzea etxalde bakar batean. Ezagutzen ari garen bi kasuetan horrela da, nahiz eta bien artean ezberdintasunak egon badauden. Ezberdintasun horiek, hain zuzen, kalitatea eta identifikazioa nola eraikitzen ari diren ulertzeko zenbait gako emango digute.

Eguzkipe baserriaren ekoizpenaren zati handi bat Mercabugatin saltzen du Felipek. Mercabugati Donostian dago eta bertan batez ere barazki, fruta eta loreak banatzen dira. Batik

bat handizkariak joaten dira bertan fruta eta barazkiak banatzera, baina Gipuzkoako Baratzezain eta Lorezainen Elkartek -GILBEK- ere bertan dauka salmenta-postua, elkarteko kideek euren produktuak han sal ditzaten. Bertan saltzen ditu Felipek tomate gehien, Gipuzkoako "dendero txikiei", baita azoketan euren barazkiak saltzen dituzten "baserritarrei" ere. Bestetik, Felipek berak zerbait banatzen du toki eta denda zehatz batzuetan. Halaber, ekoizpenaren beste zati bat, %20 gutxi gorabehera, aspalditik ezagutzen duen biltoki batean saltzen du. Biltoki hau bere hiritik gertu dago eta aspalditik harremana dute. Beraz, kasu honetan ere zuzeneko harremana dauka. Azkenik, bakarrik ekoizpen handiko uneetan soberakinak baldin badituzte, Iruñera edo Gasteizera "irteeraren bat egiten du" eta handizkariren bati eramaten dizkio tomateak. Soilik azkenengo kasu horretan Eusko Labeleko etiketa jartzen die tomateei.

Erainen kasua are paradigmaticoagoa da, ekoizten duten ia guztia salmenta zuzenaren bidez merkaturatzen baitute. Ekoizpenean aldaketak egin arren eta tomatea egiten espezializatzen joan diren arren, salmentari dagokionean etxeko ereduari eutsi diote. Aurreko belaunaldiak herriko zein ondoko herriko azokara joaten ziren, eta oraingoakoek ere azokan saltzen jarraitzen dute. Kasu honetan, baina, beste herri batzuetara ere joaten dira saltzera, batez ere tomate kanpaina egitera. Edonola ere, ekoizpenaren zati bat herriko bi dendetan saltzen dute, eta beste zati bat Bilbotik datorren handizkari bati saltzen diote, eta horrek inguruko herrietan banatzen du. Horrenbestez, ekoizten duten guztia inguruko herrietan saltzen dute, ezagunak diren inguruan, hain zuzen. Hori dela eta, euren izenarekin saltzea nahikoa zaie prezio onean saltzeko; hau da, kalitate tomate gisa saltzeko. Hartara, ez dute Eusko Label etiketaren beharrik.

Bi kasuetan saltzen dute ekoizpenaren zati handi bat -edo ekoizpen osoa- beraien izenarekin, Euskal Tomatea markatik kanpo, alegia. Eguzkipen markaren barruan mantentzen dira, soberakinak dituztenean horiei irteera emateko. Erainen, aldiz, ekoizpen osoa beraien ingurune hurbilean saltzea lortu dute, eta horretarako ez dute labelaren beharrik. Labelen barruan egon ziren hainbat urtetan, baina horren beharrik ez zutela ikusita atera egin ziren.

Bi kasuetan aipatu didate labeletik atera direla -edo labeletik kanpo saltzen dutela- beraien izenarekin saldu ahal izateko. Izan ere, Gipuzkoan bereziki, hobeto baloratzen dira ekoizle ezagunen produktuak, labela daukatenak baino. Areago, Felipek kontatzen du hainbatetan gertatu izan zaiola labeleko etiketarekin tomateak saldu izana eta gero azokan saldu behar duenak etiketak kendu, etiketa ekoizpen industrialago batekin lotu baitu askok. Beraien izenarekin saltzeak ez du esan nahi Eusko Labeleko etiketak beraien izena duen etiketa

batekin ordezkatzea. Gertutasuna eta harreman zuzenetan oinarritzen diren merkaturatze-bideetan ez dira beharrezkoak etiketa horiek. Harremanek bermatzen dute nongoak diren eta nolakoak diren tomateak. Eguzkipen, adibidez, etiketak jartzen dizkiete tomate kutxei edo kortxo zurizko erretiluei, baina trazabilitateko eskakizunengatik, eta ez bezeroari begira.

Beno, alde bat behintzat kontaktu zuzena dakatelako, nere bezeroak ezagutzen naute... o sea, nik uste, ta gero, es que hemen, Gipuzkoan gauza kuriooa gertatu izandu da zerarekin, Eusko Labelarekin, e... oraindikan ere, oraindikan ere merkatuetan jenteak erosten baldin badu tomatea Eusko Labela, batzuek kendu eiten diote pegatiña, ta nik 'zuek, kartzelara joan beharko zenukete'... o sea, hori kostatzen dana jartzen, eta kentzen gero pegatiña. Zeren, jentea, hombre, hori ari da aldatzen, ze hainbeste urte dira ya... jenteak zeratzen du etiketa kanpokoakin. Ulertzen? Etiketa daukan generoa ez du hemengoa bezela zeatzen jente askok, edo ez zuen. Orain gehio, joe, ya Eusko Labela, ya zea badauka, baino, baino aurrenetikan exageratua zen. Eta hemen jente asko da labela egiten ez duena, e, eta berdin, eta ez du horregatikan saltzen merkeago. Hori ez da behin ere pasa Bizkian. Bizkaian, edo Labela jartzen duzu edo erdi prezioan saltzen duzu, nahiz ta berdina izan. Ta jentea beste zera badauka, ezberdina da (Felipe, elkarrizketa).

Kalitatea hiru subjektu mota ezberdinen aurrean bermatu behar da. Alde batetik bezeroei bermatu behar zaie. Bestetik, instituzioei eta jarraipena egiten dutenei. Erdian, saltzaileak daude, eta maiz horiek dira kalitate-berme jakin bat eskatzen dutenak. Batzuetan, hiru subjektu horien aurrean kalitatea bermatzeko bideak ez dira berdinak. Beste batzuetan, aldiz, instituzioen aurrean kalitatea bermatzeak besteen aurrean ere zuzenean bermatzen du, hauek ematen dituzten zigilu edo kalitatearen egiaztagiriek lagunduta. Adibidez, zenbait unetan bezeroei eta saltzaileei kalitatea bermatzen diena etiketa bera da. Hortaz, instituzioen aurrean bermatu behar da kalitatea lehenago, eta horiek ematen dituzten zigiluek bermatzen diote bezeroari. Beste batzuetan, aldiz, instituzio eta bezeroek eskatzen dituzten kalitate-bermeak eta -irizpideak ezberdinak dira. Adibidez, salmenta zuzena egiten den kasuetan edo merkaturatze-bide laburrak erabiltzen direnean, bezeroari maiz berdin zaio erakundeek eskatzen duten trazabilitatea eta pegatina. Ekoizlearekin harreman zuzena edo gertuko harremana duenean, bezeroak trazabilitatea eta konfiantza beste modu batez eraikitzen ditu. Hala ere, ekoizlea beti da erantzule erakunde publikoen aurrean, eta gertuko bezero bati saldu nahi izan arren, trazabilitatea bete behar du edozein dela ere bere merkaturatze-bidea. Zentzu honetan, askotariko kalitatea bermatzeko irizpide eta praktikak daude, eta zenbaitetan uztartu edo gurutzatu egiten dira, eta beste batzuetan bakoitza bere bidetik doa.

Erainen zein Eguzkipen lehenetsi egin dute beraien izenarekin saltzea. Bi kasuetan nabarmentzen dute horrela garestiago saltzen dituztela tomateak. Horren arrazoi bat da Gipuzkoan hobeto baloratzen direla ekoizle "ezagunen" produktuak. Labela bera bitartekari

bat da, eta mahai-gainean jartzen du ekoizle eta eroslearen arteko distantzia. Baina hau ez da arrazoi bakarra. Labela maiz erabili izan da -eta erabiltzen da- saltoki handietan eta supermerkatuetan saltzeko. Horrelakoetan bitartekariak botere handiagoa dute prezioa finkatzeko, eta gutxiago ordaintzen diete ekoizleei. Horregatik, beste bide batzuen bitartez tomateak sal ditzaketen heinean ez die merezi labelean saltzeak.

Horretaz hizketan ari ginela, merkaturatze-bideekin estuki lotuta dauden beste elementu batzuk ekarri zituen ahotara Felipek: tomateen kalitatea eta tamaina. Euskal Herrian, eta Gipuzkoan bereziki, prezioari eta kalitateari lotuta dago tomateen tamaina, tomate handiak gehiago baloratzen baitira. Eusko Labelek kontuan hartzen du hori, eta Euskal Tomatea etiketarekin saltzeko, tomateak kalibratu egin behar dira eta neurri jakin batekoak izan behar dira, neurri batzuen barruan handiak, alegia. Hala ere, hau ez da soilik Euskal Tomatea markaren eskakizun bat. Eguzkipean eta Erainen Eusko Labeleko etiketa barik saltzen dituzten tomateak ere kalibratzen dituzte, eta tamainaren arabera prezioa jartzen diete.

Erainen kasuan ez dituzte tomateak bereizten soilik prezio ezberdinak jarri ahal izateko, baina hala ere prezioak ere bereizten dituzte. Prezioari dagokionean, saiatzen dira urte osoan zehar prezio berean saltzen: hiru eurotan saltzen dute gutxi gorabehera. Hala ere, kalibreari dagokionean, hiru tamaina bereizten dituzte, eta handiak eta ertainak garestiago saltzen dituzte, txikiak baino. Edozein kasutan, prezioagatik baino bezeroek nahi dituzten tomateak hauta ditzaten bereizten dute kalibrea. Izan ere, jakin badakite jendearentzako tamaina garrantzitsua dela, batzuek handiagoak nahiago dituztela eta beste batzuek txikiagoak, eta beraz, bereizita eramaten dituzte aukeratzeko parada egon dadin. Gainera, euren postuetan bezeroek beraiek har ditzakete tomateak, eta horrela eramateak errazten die zeregina. Bestalde, handizkakoei begira ere bereizten dituzte tomateak kalibrearen arabera, horiei handiagoak saltzen baitizkiete.

Felipek ere bereizten ditu kalibrearen arabera, eta txikiagoak direnak merkeago saltzen ditu:

Felipe [F]: Klaro, guk kalibratzen ditugu. Beno, guk jartzen dugu, hiru kalibreetan jartzen dugu. Hor, Eusko Labelarekin guri pasa zitzaigun gauza kuriozoso, eta oraindik pasako da... gu lehen, bolada batean, ez dakit, urte pare batean edo, ari naiz hizketan, igual oin dala 8 bat urte horrela, eramaten genuen, zera handi batera, [merkatal-zentro batera] eramaten genuen tomatea. Horrekin zer gertatzen da? Prezioa berak jartzen duela. Orduan, haiek, dauzkate, ni bezela, beste ez dakit zer... pues dauzkate, pues hori, eta orduan, jenteak sobra baldin badauka, pues igual merke eskeintzen du eta igual zuri harrapatzen zaizu, ni askotan pasa zait, eta horregatik utzi nuen e, zea... tomatea garestiago, askoz ere garestiago saltzen [supermerkatuak] ordaintzen didana baino. Baina ari naiz hizketan igual ni ari naizela bi euro t'erdian saltzen eta [supermerkatuak] bat eta erdi ordaintzen

duela. Orduan zer egiten duzu han? Ba, kalibre txikiagoa jarri. Klaro, hemen, zera, este, tomatearen kalibrea kalidadearekin zedatzen da, o sea, jentea... guk beti handia garestiago saltzen dugu. Orduan, zer egiten genuen, txikiagoa jarri, txikiagoa jarri, sartzan zana, klaro, labelen zera baino... ta orduan zer saltzen duzu, etiketarekin bestea baino kalidade txikiagoa. Eta... azkenean utzi nuen. Kurioso pasa zan.

Marta [M]: Eta hori, etiketarik gabe saltzen duzuenen ere bereizten duzue kalibrea?

F: Bai, bai, bai. Bai, bai, bai. Guk...

M: Eta prezioa ere orduan, kalibrearen arabera?

F: Klaro, kalibrearen arabera prezio. Guk normalean saltzen dugu hiru edo lau kalibre ezberdina, esan dezagun.

M: Eta zaporea ezberdina da?

F: Kalibreagatik? Hombre, a ver, nik zaporea ez dut esango ezberdina denik, baina nik ere haundia nahio, ez dakit, mamitsuagoa da, eta,... eta, eta... baino... (Felipe, elkarrizketa).

Azkenengo lerrootan ikusi bezala, baserriaren edo ekoizlearen izenarekin eta tomateen tamainarekin lotzen da kalitatea, besteak beste. Eusko Label markak baserria eta ekoizlearen identitate eta izenak ordezkatzen ditu merkaturatze-bide luzeetan, eta kalitatearen "adierazleak" arautu eta definitu egiten ditu. Esan bezala, tamaina kalitatearekin lotzen da eta hori dela eta marka horren barruan tomateak kalibratu egiten dira. Txikiegiak direnean Euskal Tomate zigilutik kanpo geratzen dira, eta beste irtenbide komertzial bat bilatzen zaie. Batzuk *Euskal Baserri* jatorri markarekin saltzen dira. Beste batzuk, ostera, kontserbak egiteko bideratzen dira, horretara dedikatzen diren enpresa batzuei salduz. Tamainaz gain, azukre kopurua eta heldutasun maila ere arautu eta neurtu egiten da Euskal Tomate markaren barruan saldu ahal izateko. Halaber, saltzeko formatua ere arautuago dago: multzoka, plastikoz inguratuta, eta markaren zigiluarekin erretiluetan saltzen dira, edota banaka markaren pegatinarekin identifikatuta. Praktika hauekin tomateen kalitatea bermatu ez ezik, kalitatea bera zer den eta zein ezaugarri dituen ere eraiki egiten da. Kasu honetan, kalitatezko tomateak handiak, gorriak, homogeneousak, garbiak eta azukre eta azidotetasun maila jakin batekoak dira. Esan bezala, irizpide zehatz batzuek definitzen dute kalitatea Eusko Label markaren barruan, eta horrekin saltzen diren tomate guztiek parametro batzuen barruan egon behar dute. Hala ere, markatik kanpo saltzen direnekin konparatuz gero, horien kalitatea "erlatiboagoa" da. Eguzkipek esan bezala, Euskal Tomatea zigiluarekin saltzeko markaren irizpideak bete bai, baina hobetoak beti beraien izenarekin saltzeko gorde izan dituzte. Izan ere, zigiluarekin saltzen dituztenak merkeago saldu izan dituzte, eta orduan onenak beraien kabuz saltzeko gordetzen dituzte. Ikusten dugu honekin perbertso bilakatzen dela kalitatea bermatzen duen edo bermatu beharko lukeen zigilu honen logika. "Kalitatezkoak" direnen artean kalitate gutxien duten fruituak izaten dira markapean merkaturatzen direnak. Testuinguru honetan hainbat Eusko Labeletik atera da, Erain baserria bezala. Beraien izenarekin garestiago saldu

dezakete ekoizpen guztia, eta ondorioz markak ez die etekin edo erraztasunik eskaintzen. Gipuzkoan nabarmendu den joera izan da Eusko Labeletik ateratzearena, eta teknikari batzuk kezkatuta agertu dira horrekin, sektorearen eta markaren biziraupenerako aldaketak egin beharko direla iritzita.

Salmenta zuzenaren bidez edo bestelako merkaturatze-bide laburren bidez tomateak merkaturatzen dituztenean kalitate-irizpideak eta kalitatea eraikitze bideak apur bat ezberdinak dira. Erainen kasuan bezeroarekin zuzeneko harreman izateak eragiten dio laborantza ereduari, tomatearekin duten identifikazioari, zein ekoizpenari eta merkaturatzeari dagozkien zenbait erabakiri. Adibidez, lurlean zergatik ekoizten duten -eta ez hidroponian- azaltzen zutenean erreferentzia egin zioten bezeroekin duten zuzeneko harremanari. Tomatera dedikatzen direnen artean lurlean egiten duten bakarrenetakoak direla esan nienean, ekoizpen-kantitatearekin eta salmenta zuzenarekin lotu zuten. Hidroponikoan egiten denean tomate kilo gehiago ekoizten, baina tomateetan nabaritu egiten dela esan zidaten. Beraiek salmenta zuzena egiten dute, nahi dutena daukatena saltzea da, eta ez halabeharrez beti gehiago ekoiztea eta saltzea. Orduan, lurlean egiten dutela nabaritzen dela diote, eta horregatik nahiago dute lurlean egiten jarraitzea.

Halaber, kalitatea zuzeneko harremanaren bitartez eraikitzen dute Erainen. Bertan, nahiago dute beraien izenarekin saldu, horrela garestiago sal dezaketelako. Baina garestiago saltzeko kalitatezko tomateak izan behar dira, edo beste hitz batzuek esanda, onak izan behar dira. Bezeroei begira, horren bermea zuzeneko harremana da, harreman honetan eraikitako konfiantza, alegia. Izan ere, jada Eraineko tomateak ezagutzen dituzte eta beti bezain onak ez direnean, bezeroek badute non kexatu, baita hori egiteko konfiantza ere. Tomate txarragoak saldu izan dituztenean parez pare izan dituzte bezeroak eta horiek konfiantzaz esan diete tomate txarrak -edo ez horren onak- saldu dizkietela. Kasu bat kontatuz azaldu zidaten hau guztia:

Semea [S]: Bai, jentea ya gure izenakin bezela eskatzen de.

Aita [S]: Es que, nik baten egin nuen erosi, hemen, beste bati, hidroponikoa, eta plazara eraman nuen, [gertuko herri batera] eraman nuen. Eta [herri horretan], hurrengo astean joan nintzenean 'Jose, el tomate del otro día no era igual' batek esaten dit... eta, eroritakoren bat izango dana, lurlean edo, zergatik ez nintzen akordau. Handik eta pixka batera beste andra bat etorri zan eta 'joe' harek ere esan zuela ez zala 'el mismo tomate', eta gero hirugarren batek esan zidan, eta hasi nintzen pentsatzen... mekatxis, zazpi kaja hartu nituen [ondoko herrian] hidroponikoan eta han saldu nituen. Danak antzeman. Eta orduantxe esan nuen, nik ez dut erosiko, ez daukadanean ez daukat eta kitto. Eta horixe egiten dugu orain. Oin e, guk tomatea egiten dugu amaitu arte (Jose aita eta semea, elkarrizketa).

Azkenengo aipu horretan ikusten dugu lotura zuzena eraikitzen dela tomatea eta Erainetarren artean, eta saltzerakoan indartu egiten dela. Lotura hau ekoizpen-praktika batzuek, Jack barietatearen erabilerak, merkatu-harreman batzuek, zuzeneko salmentak, eta "tomaterako gustuak" sostengatzen dute, eraikitzen dute. Era berean, lotura horrek tomateak beraiek zein Erain ustiatagia bera ere sostengatzen ditu, eta Jose aita-emeek zein etxeko besteek aktualizatzen dituzte sare eta harreman horiek tomate ekoizpen-praktikekin zein salmenta-praktika eta -harremanekin. Harreman hauen guztien zentroan ikusten dut nik tomate eta ekoizleen arteko identifikazioa, batez ere Erainen kasuan, tomateak salmenta zuzenaren bitartez merkaturatzen baitituzte. Euren ereduaren gako bat tomate onak izatea da, eta euren harremanetan tomate onak izateak definitzen ditu. Ez da kasualitatea Erainen Eguzkipen baino zehaztasun handiagoz azaldu izana zergatik Jack baloratua den eta zer den jendeak bilatzen duena tomate horrengan.

Identifikazio hori indartze aldera ere irten ziren Eusko Labeletik. Zenbait urtetan zehar euren ekoizpenaren zati bat Bilbo inguruan saltzen zuten, Euskal Tomatea markapean. Orduan, batzuetan tomatea sobratu egiten zitzairen eta soberakin horiek urrun saltzeko handizkakoie saldu behar zizkieten. Horretarako, ezinbestekoa zitzairen Eusko Labelarekin saltzea. Gainera, "ezezagunari" prezio onean -altuan- saldu nahi izanez gero ere Eusko Labela beharrezkoa egiten zaie. Duela hiru urtetik hona, oster, jada ez dute Eusko Labelarekin saltzen, ingurunean ekoizpen osoa sal baitezakete. Hortaz, Labeleko beharrik ez zutelako atera ziren, areago, euren izenarekin saldu ahal izateko, honekin gehiago eskatzen baitiete.

Semea [S]: Eta oin duela hiru urte erabaki genuen irtetzea. Bai, irtetzea porque gu azoketan benta direkta egiten dugu gehixen bat eta geure izenarekin ezagutzen dute tomatea eta ez dugu labelaren beharrik.

Marta [M]: Eta mayoristei ya ez diezue saltzen?

S: Mayoristei saltzen diegu, bai, baina mayoristei gehiago badauke gure izena ezagutu egin daue eta geure pegatiña ta atera genuen eta geure pegatiñarekin saltzen du.

Aita [A]: Orain askoz gehio eskatzen digue lehen baino (Jose aita eta semea, elkarrizketa).

Laburbilduz, ikusi bezala, kalitatea gako garrantzitsua da tomate hauen merkaturatze-bideetan. Hala ere, kalitatea irizpide, praktika eta arau ezberdinen bidez definitu, sortu eta bermatu egiten da merkaturatze-estrategia ezberdinetan. Barietateak ere garrantzia hartzen du kalitatea definitzerakoan. Halaber, tomateak identifikatzeko eta ezagutarazteko bideak ere gakoak dira kalitatea definitu eta bermatzerakoan. Salmenta zuzena egiten denean ekoizleak garrantzi handiagoa hartzen du eta baserri, ekoizle eta tomateen arteko harreman eta

identifikazioa estuagoa da. Merkaturatze-bide luzeagoetan, aldiz, harreman hau lausoagoa da eta etiketak ordezkatu ohi ditu konfiantza- eta identifikazio-harremanak.

Jack barietatearekin batera tomategintza sektorearen garapena eta bilakaera III: sareak, entseguak eta barietateak

Jack tomatearen arrakasta eta hedapena ulertzeko kontuan hartu behar ditugu nekazal sektorean dauden sare eta harremanak, horien baitan egiten diren ikerketak eta berrikuntzak, eta bereziki labore barietateen inguruan egiten direnak. Lekuan lekuko lana egitean berehala jabetu nintzen sektore "txiki" bat neukala aurrean, harreman estuez jositako sektore bat zela, alegia. Horren barruan, ekologikoan eta konbentzionalean egiten dutenak bereiz ditzakegu, eta bi sare ezberdin aurkitzen ditugu. Hala ere, bi sare hauen artean nodoak ere badaude, eta zenbait pertsona, eragile, landare eta problematika bietan aurkitzen dugu. Esan bezala, konfiantzan eta gertutasunean oinarritutako sektorea da, sektore trinkoa, alegia. Eta konfiantza eta gertutasuna sortzen duten harreman eta praktikek sektoreari ematen diote forma, elkar lagunduz eta joera orokor batzuk sorraraziz sektorearen barruan. Trinkotasun eta konfiantza hau lagungarri izan zait lekuan lekuko lanean zehar. Izan ere, teknikariren batekin hitz egitea eta bere konfiantza irabaztea lortzen banuen, beraren bitartez hel nintekeen beste batzuegan. Hala ere, beraien arteko konfiantza eta gertutasun honek ere "kanpoko" norbait gisa kokatu nau askoz gehiago, eta kontrolatua izatearen eta konfiantza irabazi behar izatearen sentazioa izan dut maiz.

Eguzkipe eta Erain, berriz ere, paradigmaticoak dira. Beraien kasuak ezagutuz sektorearen funtzionamenduaren berri dugu. Zentzu honetan Eguzkipe Gipuzkoako tomategintzan erreferentziatzko baserria da. Izan ere, sektoreko teknikari eta ikerketa-zentroekin elkarlanean bertan egin izan dira hainbat entsegu, horietako asko tomate barietate berriak probatzeko. Halaber, maiz izan dira azkenengo hamarkadotan sektore honetan egin diren berrikuntza teknologikoak txertatu dituzten lehenengoetarikoak. Arin konturatu nintzen horretaz. Gipuzkoako bi nekazal-teknikarirekin hitz egin nuenean biek Eguzkiperenera joateko agindu edo gomendatu zidaten. Azaldu bezala, Santiago eta Miguel Gipuzkoako nekazal-sektoreko bi teknikariek gomendatuta heldu nintzen Eguzkiperenera. Biekin egon nintzenean jada ohartu nintzen Eguzkipe dezente ezagutzen zutela eta berarekin lantzean behin harremanetan zeudela. Izan ere, Santiagok esan zidan bere kontaktua pasa aurretik galdetu behar ziola eta Eguzkipek hala baieztatu zidan: "bai, Santiagok esan zidan". Halaber, Miguelen bulegora joan nintzenean hortxe zegoen Eguzkipe, eta nire bisita izan behar zuela ere esan zion Migueli.

Bestalde, Miguel elkarrizketatu nuenean hainbatetan erreferentzia egin zion Eguzkiperi, sektoreko erreferentziatzat hartuta.

Teknikariek Eguzkiperi egiten dioten aitortza hau elkarrekiko aitortza da. Felipek ere estimatzen du elkarte horietatik egiten duten lana. Kasu honetan, behin eta berriz aipatu zidan Julián Rodríguez, izen eta abizenarekin aipatzen zuen beste teknikari bat, Gipuzkoako zenbait elkarte eta gune zientifiko-tekniko-administratibotan lanean egondakoa. Izan ere, batez ere Juliánen bitartez egin dituzte entsegu asko Eguzkipen bertan. Barietateen entseguen inguruan hitz egiten ari zelarik aipatu zidan Julián, eta aipatu eta berehala horrelaxe esan zidan:

Hori da, ointxe ya jubilatzeaz dago, este, [nekazal zentro baten] zuzendaria da orain, baino oin, honezkero igual dira 10 edo 12 urte hara joan zala, baina lehenago zegoen, zeran, hemen [gertuko herri bateko] bulegoan, eta oso tipo, zera, aktiboa beti, eta horrekin ensayo asko egin dira. Nik esan behar det etxean horrek bultzatuta izan dirala zera asko, guk etxean egin diran, pues bai hidroponikoa sartu zanean, eta barietate pila bat probatu dira, eta baita berogailuakin eta holako historioakin. Tipoa azkarra da, azkarra da (Felipe, elkarrizketa).

Sektoreko harreman hauetan, baina, ez daude soilik ekoizleak, instituzio eta elkarteetako teknikariak, eta ikerketa zentroetako ikerlariak. Besteak beste, banaketa sektoreko arduradunak, Eusko Labeleko teknikariak, edota lehengaiak ekoiztu eta saltzen dituzten enpresen saltzaileak ere presente daude eta elkar-harremanetan daude, Aitor tarteko. Aitorrek Estatu espainiarreko iparraldean lan egiten du, Seminis eta Monsantozen zenbait produktu saltzen. Horrenbestez, Jack haziak eta De Ruiters Seeden patroien haziak banatu eta saltzen dizkie Gipuzkoako ekoizleei. Berarekin patroien inguruan hizketan ibili ginenean kontatu zidan nola probatzen duten zeintzuk diren egokienak. Horren arabera erabakitzen dute hemen zeintzuk erabili.

Nosotros [Seminis] para finales de junio, normalmente, solemos hacer una charla, una charla no... a ver, esta gente [mejoradores de Seminis que trabajan en Almería] trae, este año no ha habido variedades nuevas de injertos, de portainjertos, no ha habido. Pero cuando hay una buena variedad nueva, te mandan semilla, y tú a gente de confianza, pues por ejemplo el año pasado se hizo en [un pequeño pueblo de Gipuzkoa], el ensayo, y luego coges a gente de Bizkaia y gente de Gipuzkoa, y les llevas ahí. Y, pues para que vean, en un invernadero tienen un portainjerto o otro, o otro, y siempre con Jack. Claro, para, para... entonces, se ve, pues este... y el tío que lo ha puesto dice, 'yo me he dado cuenta que este es más resistente, más vigoroso, menos vigoroso, tira más a vegetativo, tira más a productivo...' bueno, se hace una charla, viene el de los portainjertos del sur, viene el delegado, viene el jefe, se hace una charla, y luego se va a comer. Y se hace ahí como una... es curioso, parece una tontería, yo llevo dos años haciéndolo, mmm... como una hermandad, un buen rollo ahí entre... al final somos competencia, yo produzco tomate y tú también (Aitor, elkarrizketa).

Guk [Seminis], ekaina bukaerarako normalean, hitzaldi bat egin ohi dugu, hitzaldi bat gu... ea ba, jende horrek [Almerian lan egiten duten Seminiseko genetistak] ekartzen du, aurten ez dira

txertaketarako barietate berriak egon, portainjertoenak, ez dira egon. Baina barietate berri on bat dagoenean, hazia bidaltzen dizute, eta zuk konfiantzazko jendeari, adibidez iaz egin zen Gipuzkoako herri txiki batean, entsegua, eta gero hartzen duzu Bizkaiko jendea eta Gipuzkoako jendea, eta hara eramaten dituzu. Eta, bada, ikus dezaten, negutegi batean portainjerto bat edo beste dute, edo beste bat, eta beti Jackekin. Noski, zera, zera,... orduan, ikusten da, bada, hau... eta landatu dituenak dio, 'ni konturatu naiz hau erresistenteagoa dela, indartsuagoa, indar gutxikoa, begetatibora jotzen du, edota ekoiztera jotzen du...' Beno, hitzaldi bat egiten da, hegoaldekoa dator, portainjertoena, ordezkaria dator, nagusia dator, hitzaldi bat egiten da, eta gero bazkaltzera goaz. Eta egiten da hor, zera,... bitxia da, tontakeria dirudi, nik bi urte daramatzat egiten,... senidetasun moduko bat, giro ona zeren artean,... azkenean lehiakideak gara, nik tomatea egiten dut eta zuk ere.

Sare hauetan batera jarduten dute enpresek, sektoreko elkarteek, erakunde publikoek, eta nekazariak, interes ezberdinak izanda ere. Konfiantza dute elkarrengan eta beraien artean elkarrekikotasunezko harremanak eraikitzen dituzte. Sare hauek baliaituz bultzatzen dira ikerketa asko, sektoretan hobekuntzak eta/edo berrikuntzak martxan jartzeko. Aitorrek aipatzen zuen kasua adibide argi bat da, zeinetan hazi-enpresa batek "eskaintzen" dizkien barietate berri batzuk eta sektoreko teknikari batzuekin batera burutzen diren ekoizleen lursailetan barietate horien probak. Emaitza onak izanez gero, agian, barietate horiek erabiliko dira -Aitorri erosiak- hurrengo uztetarako.

Ikerketa eta entsegu horiek tomategintzan garrantzia duten baliabide eta teknikak probatzera bideratzen dira. Besteak beste, negutegi mota ezberdinak probatu izan dira, askotariko tratamendu mota, eta labore barietateak. Gehienetan, sektorean egin diren berrikuntzak ikerketa horien ondorioz etorri izan dira. Hots, administrazio publiko zein sektoreko elkartek bultzatuta egiten dira ikerketak, "sektorearen behar eta mesedeei begira", eta ikerketa horien emaitzen arabera berrikuntzak bultzatzen dira. Hala ere, kakotxen artean esaten dut sektorearen behar eta mesedeei begira egiten dela, sektorean mota ezberdinetako behar eta interesak baitaude. Ekologikoan jarduten dutenak maiz kexu dira administrazio publikoan ez dituztela beraiei begirako ikerketak egiten, dena konbentzionalari begira egiten dutela. Instituzioetatik, aldiz, mesfidantza ikusten dute ekologikoan ekoizten dutenen partetik, eta kolaboratzen ez dutela esaten dute. Halaber, multinazionalak sektorearen partetzat hartzen badira, beraien interesak eta sektoreko beste batzuenak talkan egon daitezke. Gainera, ikusi bezala, maiz sostengarria ez den eta etekin monetarioak bilatzen dituen eredu industrialaren parte diren enpresek bultzatzen dituzte ikerketak. Izan ere, beraiek aurkezten dituzte egin dituzten azkenengo berrikuntzak -teknologian dela, barietateetan dela- eta hortik abiatuta bultzatzen dira ikerketak.

Edonola ere, ikusten dugu baserri batean gertatzen dena eta bertan egiten diren inbertsio, berrikuntza eta apustuak ez dira kasu isolatuak, sistema eta eredu baten parte baizik. Eguzkiperen kasura itzuliz, bertan oso argi ikusten da ustiategi horretan sare honek duen eragina. Bertan eman diren berrikuntza teknologikoak ez ditu Felipek berak bakarrik berari okurritu zaizkiolako bultzatu, merkatura egokitzen eta sektoreko eragileekin batera baizik.

Bai, beti gutxi gorabehera ez zen izandu 'ba, hor jarri behar dugu guk...' ba, ez, gutxi gorabehera bai egondu dira Deriotikan [Neikerretik], eta garai hartan eta, pues bai, bazeuden, esan dezagun, ba, ikertzen zuten eta bai, tomate barietateekin ere gauza berdina, eta bai, eta gero baita ere lurretik harata hasi ginenean, o sea, hidroponikoa esaten dena, zergatik an, hori ere izandu zen aldaketa bat oin dala hogeita bat edo hogeita piku urte. Hori ere esan dezagun Gipuzkoan gu izandu ginela aurrena hemen, baina ordurako ya Deriotikan ta, zera, bageneuzkan emaitza batzuk eta bagenekien funtzionatzen zuela (Felipe, elkarrizketa).

Beraz, berrikuntza hauetan ikerketa zentroek, elkarrekin eta administrazioen teknikariek eta ekoizleek eskutik helduta lan egiten dute. Ekoizleek euren instalazioak eta eskulana jartzen dituzte maiz entseguak egiteko. Teknikariek, aldiz, gerora ekoizleentzako -batzuentzako behintzat- baliagarriak izango diren ikerketak bultzatzen dituzte, "sektoreari ekarpena" egin nahian.

Egiten dituzten ikerketen artean, barietateak probatzera, ezagutzera eta ezaugarritzera bideratzen dira batzuk. Hori sektore ekologikoan zein konbentzionalean gertatzen da, eta barazkigintzan barietateek duten garrantzia nabarmentzen du. Bietan ala bietan, gainera, barietate hibridoekin zein bertakoekin probak egin izan dira, une ezberdinetan. Aipatutako baserrietan ikusi dugu jada. Eguzkiperen aspalditik urtero probatzen dituzte tomate barietate komertzialak. Erainen, aldiz, 2017an bertako tomate barietateekin egin zituzten Neikerrek bultzatutako ikerketaren entseguak. Nafarroan ere, urte batzuk lehenago, bertako tomate haziekin proba batzuk egin zituzten, eta ostean zabaldu zen bertakoen erabilera nekazari konbentzionalen artean²³⁵. Esan bezala, ekologikoan ere egin izan dira horrelakoak. Bereiziki nekazaritza ekologikoaren hastapenetan Ekonekazaritzak burutu zituen horrelako lanak, hemengo klimara eta ekoizpen ekologikora egokitzen ziren barietateak topatu nahian.

Eguzkiperen eta Erain baserrien kasuetara itzuliz, barietateekin maiz aurkitu dudana jarrera bat oso argi ikusi dut bi etxalde horietan. Alde batetik, barietateak probatzeko prestutasuna izan dute, eta Eguzkiperen kasua paradigmatikoa da, urtero probatzen baitute zenbait barietate

235 Aretxabaletako kasuan jada aipatu ditut ikerketa hauek.

bertan. Hala eta guztiz ere, bietan ala bietan Jack jartzen jarraitzen dute, eta gainera ez dute aurreikusten beste batek Jack ordezkatzetik.

Gauza berrien aurrean -kasu honetan barietate berrien aurrean- probatzeko prest daude, ez dute atea ixten probatu aurretik, alegia. Hala ere, barietateek euren konfiantza irabazi behar dute, Jack baino hobek direla erakutsiz, bestela ez dituzte landatu eta salduko. Mesfidantza eta irekitasuna erakusten dute jarrera honekin. Halaber, mesfidantza ez da barietate berrien kontra sentitzen duten ezer, ez da halabeharrez negatiboa, konfiantza eza baizik. Jackek urteen poderioz irabazi du euren konfiantza, sektorearena, baita kontsumitzaileen onarpena ere. Ikusi dugun bezala, zenbait harreman eta praktikaren bitartez eraikitako konfiantza izan da. Barietate berri bat jartzeko prozesu berdina beharko lukete. Eta horretarako irekita daude, hori dela eta barietateak probatzen jarraitzen dute.

Azpiatal honetan zehar Jack barietateak Euskal Herrian izan duen historia ezagutu dugu. Horretarako, hiru dimentsiori erreparatu diegu: azpiegitura eta teknologien erabileraren garapen eta bilakaerari, merkaturatze-bideei, eta ikerketak bultzatu eta barietateen erabileran eragin duten sektoreko harremani. Hiru dimentsio horiek kontuan hartzea ezinbestekoa da Jack barietatearen nolakotasuna eta historia zein euskal tomatogintzaren izaera eta bilakaera ulertzeko. Izan ere, ez Jack barietatea bera, eta ez euskal tomatogintza, ezin ditugu ulertu harreman horietatik kanpo. Horietan definitu egiten dira: elkar-eratu, elkar-eragin, eta elkarrekin dira.

Barietatearen historiatik Jack hazi eta landareen urteko ekoizpena

Lekuan lekuko lanarekin hasi nintzenean ez nuen tesiaren atal hau aurreikusi. Areago, tokian tokiko lana bukatutzat ematear nuenean atal honen oinarrian dagoen ate berri bat ireki zitzaidan. Perura joatekoa nintzen ikerketa-egonaldi bat egitera. Horren helburua bikoitza zen. Alde batetik, tokian tokiko lana bukatuta transkribapenak egin eta analisisia burutzea nuen helburu, egunerokotasuneko zurrumbilotik urrunduta horretan gehiago zentratu ahalko nintzelakoan. Izan ere, Liman nire ahizpa bizi da, eta bere etxean instalatuta tesian zentratzeko baldintza onak izango nituelakoan joan nintzen hara. Bestetik, analisisia egiterakoan, hain zuzen, bertan egotea lagungarri suertatuko zitzaidala generitxon nire tutoreak eta biok. Izan ere, bertako Pontificia Universidad Católica del Perun (PUPC) patrimonializazio-prozesuen inguruko ikerlari adituak daude, eta bereziki sukaldaritzaren

inguruan aritu izan direnak. Bestetik, baliabide ekologikoen erabileraz, ustiapenez eta patrimonializazioaz jarduten direnak ere badaude. Azkenik, bertan "Maestría en Estudios de Género" masterra ere badute. Beraz, tesian lantzen ari naizen zenbait alderdi bertan ere landu nezakeela iruditu zitzaigun.

Baina, Perura joan baino astebete lehenago, egin nuen azkenengo elkarrizketetako batean, Jack haziak urteotan Perun ekoiztuak izan direla baieztatu zidan Aitorrek, EAEn Jack haziak saltzen dituenak. Azkenengo urtean edo bi urteetan Txiletik etorriak zirela esan zidan orduko hartan, eta horrela zela baieztatu nuen 1.000 haziko zorroa erakutsi zidanean, bertan halaxe baitzioen. Hala ere, lehenago Perutik etorriak zirela gehitu zuen, eta are lehenago baita Txinatik ere.

Perun egin nezakeen lekuan lekuko lanerako ate bat ireki zidan Aitorrek. Izan ere, Jack haziak noizbait ekoiztu dituen hazi-ekoizleren batekin batzeko itzaropena piztu zitzaidan, txikia bazen ere. Hiru hilabete nituen aurretik, eta saiatuko nintzen apur bat gehiago jakiten. Ordurako Jack haziaren ekoizpenaren inguruan tesian ezer gutxi txertatzea espero nuen, ordura arte ez bainuen arreta eta lana horretara bideratu. Gainera, lekuan lekuko lanak tomateengan arreta zentratzera eramana ninduen, eta tokian tokiko lanean aurkitutakoari jarraituz haziak bigarren plano batean lagata nituen. Hortaz, lekuan lekuko lana amaitutzat nuen orduko hartan gutxi nuen galtzeko. Edozein informazio gehigarri ongietorria izango zen.

Esan bezala, Aitorrekin izandako elkarrizketa horrek ordurako sortutako informazio osoari beste dimentsio bat emango zion ate bat ireki zidan. Jack haziak nork, non eta nola ekoizten dituzten jakiteko aukera irekitzen zitzaidan. Horrek hemengo tomate-ekoizpena lurraldetasun-harreman jakin batzuetan kokatzen lagunduko zidan²³⁶, Jack hazi eta tomatearen kasua azaltzeko gako berri batzuk mahai-gainean jarriarik. Edonola ere, ate hori "beranduegi" ireki zen, edo beranduegi heldu nintzen bertara. Hori dela eta, atal honetan jasotzen dudana informazioa esanguratsua bada ere, ez dago erabat osatuta. Hortaz, Jack hazien historia eta ekoizpena ezin izan ditut guztiz berregin, eta pausoz pauso azaldu. Hala eta guztiz ere, jaso dudana informazioa garrantzitsua delakoan, nahiago dut atal hau hankamotz agertzea, ez agertzea baino.

Eta atal hau egitera nindoala, toki bat aurkitu behar nion tesian, eta beraz bilatu. Jacken inguruan diharduen atal orokor honen hasieran kokatzea egokia litzateke. Izan ere, badirudi

236 7. atalean sakonduko dut ideia honetan.

hazia nekazal ekoizpenaren lehenengo katebegia dela, hazirik gabe tomaterik ez baitago. Historia honen guztiaren jatorria izango lirateke Jack haziak. Eta neurri handi batean izan, badira. Baina ez, bukaeran kokatzea erabaki dut. Azaldu berri dudanez, tesiaren bukaeran heldu naiz hazietara. Hazietatik abiatu nintzen, tomateengan zentratu naiz, eta lekuan lekuko lanak, bukaeran eta ia ustekabeen, hazietara eraman nau berriz ere. Jatorrira, bai. Horrenbestez, kasua jatorrira itzuliz itxi nahi dut, ziklo bat osatzen bezala.

Horrela ixteak badu beste zentzu bat. Kasua tomateetatik hasi dugu. Euskal Herrian -eta bereziki euskal isurialde atlantikoan- Jack tomateek bizi izan duten historia eta bilakaera ezagutuz osatu dugu, eta historia honetan eta testuinguru honetan nola eratu eta ezaugarritu diren ere ikusi dugu. Besteak beste, tomate hauen inguruko identifikazio-prozesuak hasi gara ikusten, Erainetarren eta tomateen artekoa dela, edota euskal tomatearekin eta tomatearen euskal zapoarekin lotzen dutenak direla, besteak beste. Edonola ere, orain eta hemen -eta azkenengo hamarkadotan- garatutako merkatu global batean kokatu behar dugu, horrek ere egiten baitu euskal tomatea eta Jack tomatea. Baita kontrakoa ere, hemen egiten dugunak ere merkatu global hori elikatzen du. Dimentsio global hau bukaeran ekartzen dugunean, lehenago azaldutakoari esanahi berri batzuk ematen dizkio, bereziki identifikazio-prozesuei eta Jacken balizko "bertakotasunari". Tomate hauen dimentsio identitarioa eta lurraldeari dagokiona osatuago agertuko zaizkigu orain. 7. atalean landuko dut sakontasun handiagoz ideia hau, baina orain jada bertakoa eta jatorria erabat eraikita eta harremani lotuta dauden kontzeptuak direla agerrarazten hasiko gara, horiek bistarazten dituzten zein estaltzen dituzten harreman, lurralde eta jatorriak lerrootara ekarriz. Beraz, has gaitezen Jack hazia apur bat gehiago ezagutzen eta bere historia zein izan den ere partekatzen.

Jack hazia. Lehenengo belaunaldiko hibrido zahar bat Bayerren eskuetan

Barietatearen erregistroa eta bere inguruko jabego-harremanak

Jack hazia 1993. urtean onartu eta erregistratu zen Estatu espainiarreko barietate komertzialen erregistroan. Barietate komertzialen erregistroan egon izan da hasieratik, eta gaur egun 2019eko abenduaren 31era arte erregistro horretan mantentzeko baimena emanda dago²³⁷. Nire hasierako ustekaberako, ez dago eta ez da egon barietate babestuen erregistroan. Beraz, pentsa genezake barietate "askea" dela. Izan ere, estatuan haziak ekoizteko eta ugaritzeko baimena duen edonork legalki ekoitz ditzake erregistro komertzialean dauden eta babestuak


237 2019eko ekainaren 17an idazten ditut lerro hauek.

ez dauden haziak, hortaz, baita Jack haziak ere. Praktikan, aldiz, zailagoa da. 4. atalean ikusi bezala, lehenengo belaunaldiko hibridoak ekoizteko parentalak behar dira, urtero gurutzatzen diren eta urtero berdinak diren barietateak, hain zuzen. Baina parentalak barietatea erregistratu eta ekoizten duen enpresaren esku egoten dira, eta baratze-barietateen kasuan, gainera, erregistratzen direnean ez da derrigorrezkoa parental horien berri ematea. Beraz, enpresak ez badu publiko egiten ez dago jakiterik lehenengo belaunaldiko baratze-hibrido baten parentalak zeintzuk diren, eta beraz, horiek ezagutu gabe ezin dira hibridoak haziak ekoiztu. Horrenbestez, Jacken kasuak argi erakusten du babes legalaz gain bioteknologia eta horien inguruko ezagutza eta sekretuak gakoak direla hazien pribatizaziorako. Kasu honetan, legalki Monsanto ez den beste hazi-enpresa batek Jack haziak ekoiztu ditzakeen arren, praktikan ezinezkoa du, parentalak ez baititu ezagutzen.

Beraz, lehenengo belaunaldiko hibrido bat daukagu. Lekuan lekuko lanean kontaktu didatenaren arabera, soilik Estatu espainiarrean ekoizten da, eta parentalak kontrolatuta dituen heinean soilik enpresa baten esku dago, Bayer enpresaren esku, hain zuzen. Hala ere, lehenago beste enpresa batzuen izan da, eta egun ezagunagoa da Monsantoena izateagatik, Bayerrena izateagatik baino. Petoseed izan zen barietatea sortu eta erregistratu zuena. 1988. urtean erregistratzeko eskaria egin zuen, eta 1993. onartu zioten. Horrenbestez, enpresa estatubatuar hau agertzen da Jack barietatearen erregistro fitxan erregistroaren eskatzaile gisa. Petoseed 1950. urtean sortu zen Kalifornian, ikusi dugun bezala tomateen industrian eta tomate hazien hobekuntzan garrantzia handia izan duen tokian, hain zuzen. Enpresa honek lan handia egin zuen 70. eta 80. hamarkadetan tomate eta piperren hobekuntzan. Hainbat gaitzari erresistentziak txertatu zituzkien fruitu hauei, eta Mexikon eta Estatu Batuetan merkaturatzen zituen haziak gehienbat.

Petoseed enpresaren eskuetatik, Seminis enpresarenetara pasa ziren Jack haziak. Enpresa hau 1994. urtean sortu zen, historia luzea zuten hainbat hazi-enpresen erosketaren bitartez. Hasieran erosi zituen enpresen artean, zaharrena *Asgrow Vegetable Seeds* da, 1865. urtean sortuta. Beste bat *Bruinsma* izan zen, 1934. urtean sorturikoa eta European lehenengo tomate hazi hibrido eta komertziala aurkeztu zuena. Enpresa sortu eta urte batera, 1995. urtean alegia, Seminisek Petoseed enpresa erosi zuen. 2000ko hamarkadaren hasierako urteotan bere barneko marken fusioa osatu zuen eta barazkien hazien marka aurkeztu zuen, *Seminis Vegetable Seeds* marka, hain zuzen. 2005. urtean, aldiz, *Monsanto Company* izan zen Seminis atxiki izan zuena, jabego bakarreko filial gisa bere enpresan barne hartuz. Hala ere, filial bezala hartu zuenez, Seminis izenarekin jarraitu izan du enpresak bere produktuak

merkaturatzen. Egun Seminis hazi-enpresa garrantzitsua da, Monsantoena izan arren. Almerian egoitza bat du, eta El Ejidon Europa mailako tomateen inguruko ikerkuntza zentrorik handiena du, zeinetan mundu osoko genetista hoberenetariok lan egiten duten.



Eskema 5: Jack barietatearen jabearen historia. Egilea: Alberto Gil

2008. urtean Monsanto berak De Ruiters Seeds enpresa ere erosi zuen. Enpresa honek bereziki negutegipean landatzeko laboreen haziak ekoizten ditu, eta Seminisek, aldiz, orokorrean librean landatzeko haziak ekoizten ditu. De Ruiters Seeds ere oso ezaguna egin da azkenengo urteotan patroiak edo portainjertoak ekoiztearren. Azkenik, 2018. urtean Bayerrek erosi zuen Monsanto, eta baita bere parte ziren bi hazi-marka handi horiek ere, Seminis eta De Ruiters Seeds, alegia²³⁸. Horrenbestez, Jack haziak "eskuz esku" pasatzen joan dira, jabe ezberdinenak izan dira, alegia. Hala ere, Seminis markapean saltzen dira, eta Monsantoarenak izateagatik ezagunak izan dira zenbait gunetan. Laburbilduz, sektoreak bizi izan dituen fusio eta kapitalaren metaketa bera bizi izan dituzte hazi hauek, egun, sektorearen hiru enpresa nagusienetako baten menpe egonda²³⁹.

238 Seminis enpresaren bueltan egon diren salerosketen inguruko informazio hau guztia Seminiseko web-orrialdean aurki daiteke, lotura honetan: <https://seminis.es/sobre/historia/>. [Azkenengo ikustaldia: 2019/06/03].

239 Nekazaritza sektorean gertatutako kapitalaren metaketaren datuak izateko eta analisisan sakontzeko, ikus Hazizaleak Elkartea (2016).

Barietatearen ezaugarriak, erresistentziak, eta garapen bioteknologikoa

Aurreko atalean Jack tomateen zenbait ezaugarri ezagutu dugu jada. Kasu honetan, haziaz aritzeko beraien ezaugarriak ere aurkeztu nahi ditut. Horien inguruan informazioa bilatzean, erresistentziek garrantzi handiagoa hartu dutela ikusi dut berehala. Jack hazien eta barietatearen inguruko informazioa bilatzean, dituen erresistentziak agertzen dira, laburduren bidez: Va, Vd, Fol: 1,2, Ma, Mi, Mj, eta ToMV patogenoen aurka erresistentziak ditu Jackek. Lehenengo hirurak onddoak dira, hurrengo hirurak nematodoak, eta azkena birus bat da. Beraien artean, lekuan lekuko lanean aditu dudanaren arabera ezagunenak bi dira. Bata, *Fol: 1-2* da, eta *fusariumari* erreferentzia egiten dio. Zehazki Jackek *fusariumak* eragindako zimeltasunari erresistentzia ematen die tomateei. Bestea, *ToMV* da, tomatearen mosaikoaren birusa, hain zuzen. Hala ere, haziek patogeno horiei erresistentziak izateak ez du esan nahi izurrite horietatik erabat salbu daudenik, izurrite handiak daudenean ere patogeno hauek tomateak har baititzakete. Hortaz, Jack haziek zenbait patogenori erresistentzia dioten arren, tomate ekoizpen guneak ez daude izurriteetatik salbu, eta horren aurrean azkenengo urteotan landareak txertatzea izan da topatu den irtenbide berri bat. Euskal isurialde atlantikoaren kasuan, *De Ruiters Seed* sek merkaturatzen dituen tomateentzako bi oin erabiltzen dira batik bat: *Maxifort* eta *Beaufort* oinak. Bi oinek dituzten erresistentziak ia Jackek berak dituenen berdinak dira, bat bakarrik gehituta: *For*. Azkenengo honek *fusariumek* koroan eta sustraieran eragindako usteltzeari erreferentzia egiten dio. Hortaz, hauxe da bi oin hauek daukaten erresistentzia berri bakarra. Edonola ere, erresistentziak ez dira erabatekoak, eta esan bezala ekoizleek eredu batean sakontzen duten heinean arazoak areagotzen dira eta irtenbide berriak topatzen joan behar dute. Kasu honetan, barietate batzuen eta besteen erresistentziak indartzen dira landareak txertatzerakoan.

Halaber, *fusariumaren* kontra ere lurra desinfektatu izan dute tomateroek, lurruna zein *metilo bromuro* produktua erabiliz, eta produktu horren debekuaren ostean agertu ziren oinak eta landare-txertaketak. Azkenengo hau 2005ean debekatu zuten, gerora bere debekuaren gainean luzamendu bat ezarri bazuten ere. Ez zait kasualitatea iruditzen hori debekatzen den garaian *fusariumari* aurre egiteko portainjertoak agertu izana. Hortaz, funtsean, portainjertoak erudian sakontzen duten irtenbide berri bat dira, norabide apur bat ezberdina hartzen badute ere. Izan ere, kimikoen erabileran sakondu baino, barietateen diseinu eta kontrol bioteknologikoan sakontzen dute, baita nekazaritzako elikagaien sektoreko multinazionalen bat-egitean zein botere metaketan ere.

Jack. Sektorearen indarra eta ahuldadea

Jack hazi eta barietatearen aurkezpenarekin bukatzeko, hazien merkatuan duen kokapenari eta horrek euskal tomategintzan izan ditzakeen ondorioei begira jarriko gara orain. Esan bezala, Jack hogeita hamar urte inguru dituen barietate zaharra da. Hala ere, Seminisek ez dio ordezkoko hobeagorik aurkitu. Bere ezaugarriren bat hobetzen duten barietateak sortu ditu, baina bata hobetzearekin batera euskal merkaturako ezinbestekoa den beste ezaugarriren bat kaltetzen dute. Hots, momentuz Seminisek ez du aurkitu Jacken ezaugarriak mantendu eta hobetzen dituen barietaterik. Halaber, euskal tomategintza Jacken oso menpekoa da. Beste barietate batzuk jartzen badira ere, oso gutxi dira eta garrantzi ekonomiko oso txikia dute. Zenbait ikerketa egin izan da beste barietate batzuk testatzeko, baina orokorrean konbentzionaleko ekoizleak ez daude prest beste barietate batzuk erabiltzen hasteko. Areago, merkatuan -supermerkatuetan ere- itxura "rustikoko" barietate berriak agertzen ari diren honetan ere ez dute Jack beste batek ordezkatzetik nahi.

Sektoreko zenbait teknikari, aldiz, kezkatuta dago. Izan ere, Monsantoena da hazi hau, eta dakigun bezala Monsanto nekazaritzako elikagaien industriaren nagusietako bat da, mundu mailan milioi asko mugitzen dituena. Jack, aldiz, Estatu espainiarreko iparraldean bakarrik saltzen du, eta bereziki euskal isurialde atlantikoan. Monsanto edo Bayer batentzako hau ez da ezer. Teknikari eta ikerlari batek baino gehiagok iradoki du edozein unetan enpresa horiek erabaki dezaketela Jack merkatutik erretiratzea. Horren mehatxuak berak euskal tomategintza erabat zaugarri uzten du, bere txikitasuna agerian utziz. Beraz, euskal tomategintzaren gako eta indarra izan den -eta baden- Jack barietatea bere mehatxu eta ahuldade ere bilakatzen da, testuinguru global batean kokatzen dugunean. Ikusteke dago, hala ere, zer gertatuko den eta noiz arte ekoiztuko duten barietate hau. Ikusteke dago, aurrekoarekin batera, sektoreak horretarako prestatzen jarraitzen duen, edota daukanari zukua ondo ateratzen jarraitzen duen eta gerokoa gerorako uzten duen.

Jack haziaren ekoizpen- eta merkaturatze-prozesua. Hazien ibilbidea eta prozesua zeharkatzen duten balioak

Jack hazien ekoizpen-, ontziratze-, eta merkaturatze-prozesuak

Lekuan lekuko lana bukatzeaz nuelarik, oso gutxi nekien hazi hauen ekoizpenaren inguruan. Egindako elkarrizketetan eta etxaldeetako bisitetan galdetzen banuen ere, informazio gutxi zeukaten Jack hazien ekoizpenari buruz. Batek vietnamdarrak zirela esan, besteak Perutik

zetozeela, ez zidaten askoz gehiago esaten. Ikerkuntza-zentroko teknikari eta ikerlariekin hitz egitean, hazi hibridoaren ekoizpen-prozesuaren inguruko xehetasun gehiago ematen zizkidaten, baina hala ere niretzat nahiko zabalak. Adibidez, hibrido bat ekoizteko bi barietate puru -parentalak- erabiltzen direla esaten zidaten, baina horiek nondik ateratzen ziren eta nola ekoiztu edo sortzen ziren ez zidaten azaltzen.


Hala ere, banuen Seminiseko komertzialarekin elkartzeko asmoa. Berak Jack hazien inguruan eta euren ekoizpenaren inguruan gehiago kontatuko zidala espero nuen. Baina, nola heltzen da Monsanto langile batengana, galdetu nion nire buruari hasiera batean? Lekuan lekuko oharrak berrirakurtzen, gerora, Ibonek kontaktua pasatzea eskaini zidala ikusi dut. Orain ere, Aitor jada ezagutu dudala eta sektorea ondo marraztuta dudala nire buruan, badakit ekoizle zein sektoreko teknikariren bidez lor nezakeela bere kontaktua. Baina ez nuen ez bata, ez beste bidea hartu, biderik zailena baizik.

Monsantoren web-orrian sartu, bezeroen arretarako telefonoa apuntatu, eta horra deitu nuen. Tomateen komertzializazioaren inguruko ikerketa bat egiten ari nintzela eta zonaldeko arduradunarekin hitz egin nahi nuela esan nion Kataluniako telefonogune batetik hitz egiten zidanari. Honek mezu elektronikoa idatzi behar nuela esan, eta "animo" esanez agurtu ninduen. Itxaropen gutxirekin eskegi nuen telefonoa, baina idatzi egin nuen. Oker ez banago, mezu hori erantzun zidaten, zonaldeko arduradunari nire telefonoa pasako ziotela eta berak deituko zidala esanez. Eta deitu egin zidan. Izen euskaldun batekin bere burua aurkeztu zuen gizon bat aditu nuen berriz ere telefonoaren bestaldean. Tesiak zertaz ziharduen kontatzea eskatzen zidan. Kasu honetan, beste batzuetan ez bezala, mesfidantzarik ez nion aditzen ahotsean, eta egiten ari nintzena ulertzeko gogo sumatu nion, niri hobeto lagundu ahal izateko. Gainera, denbora gutxi zuela ere gehitu egin zuen, eta kontatzen banion zertaz ari nintzen, agian informazioak presta zitzakeen elkarrizketa baino lehenago, eta lana aurreratu. Nola azaldu zertaz doan elkarrizketa kualitatibo bat? Edonola ere, prest agertu zen elkartzeko.

Eta prest egon, bazegoen, baina esan bezala, beti denboraz larri zebilen, bere agenda egun batetik bestera zehazten, eta gaur Bizkaian bazegoen, bihar Kantabriatik ibiltzen zen. Beraz, prest bai, baina zaila. Ni ere azkenengo elkarrizketak egiten nentzen, Limara joan aurretiko azkenengo aste haietan, eta egun batetik bestera agendan toki bat egitea zail samar nuen. Azkenik lortu genuen elkarrizketa adostea, ni Limara joan baino egun gutxi batzuk lehenago, Abadiñoko Eroski handi bateko kafetegian. Nola egingo nioke elkarrizketa bat hor? Nola aterako nuke grabagailua? Han egin nahi bazuen, argi zegoen arin-arin egin nahiko zuela. Beldurrak eta segurtasun falta. Baina joango nintzen. Joango nintzen, baina ez nintzen joan, egun hartan elurrak nor bere etxean harrapatuta utzi baikintuen. Aukera galdua, pentsatu nuen. Ez dakit nola, baina handik gutxira, etxeokoen Hernani aldean Limara joan aurretiko agur-bazkarian ginelarik, deitu zidan Aitorrek. Astigarragan zegoen eta ordu baten buruan geratu zitekeen nirekin. Jantzita nuen arropari begiratu eta, tira, propio ez nintzen horrela jantziko, baina gaizki ez nindoan. Eta grabagailua, eskerrak, azkenengo asteotan bezala kotxean nuen. Beraz, postrea arin-arin jan eta Astigarragarantz abiatu nintzen. Gezurra zirudien arren, Seminiseko komertzialarekin geratuta nongoen. Monsanto komertzialarekin, pentsatzen nuen nik. Lortu nuen.

Astigarragako herrigune ondoan dagoen poligonoko tabernako kanpoaldean itxaroten nengoan, infusio bat eskuartean, eta ikusi nuen berrogei urte inguruko gizon bat tabernara sartzen eta bilatzen. Bera izango zen. Ez zen inondik inora espero nezakeen itxura oneko eta formaleko komertziala. Guztiz kontrakoa, mahuka motzeko kotoizko kamiseta eta txandal prakak zeramatzan. Jack hazi-zorroa erakutsi ziezadan bere kotxera joan ginenean ere antzeko. Kotxe txikia zen eta ez bereziki berria. Zerikusirik ez Monsanto komertzial batengandik espero nezakeenaren ondoan. Nire aurreiritzietatik errealitaterako jauziaren dimentsioaz jabetzen joan nintzen apurka-apurka, eta bidenabar nekazaritzako elikagaien sistema globala tokian toki nola gauzatzen den hobeto ulertu ere egin nuen. Berak aitaren enpresari jarraipena eman zion. Bere aita lehenengo sektoreko komertziala zen, eta marka handietako produktu, makinaria eta haziak banatzen zituen Euskal Herrian eta inguruneko zonaldeetan.

Orokorrean, beste hazi-enpresa batzuentzako egin izan dute lan, baina duela urte gutxi batzuk hasi zen Aitor Seminisentzat ere lanean. Izan ere, duela urte gutxi batzuk Aitorren oso ezaguna den eta Seminisentzako Jack haziak banatzen lan egiten zuen pertsona gaixotu zen, eta Aitorrek kompetentziarako lan egin arren, gomendatu zuen bera ordezkatzeko. Seminisentzat hau ez zen oztopoa izan. Aitorrek urte asko zeramatzan sektorean lanean, bere bezero propioak zituen, eta enpresak baliatu nahi izan zuen hau. Hortaz, Aitor ez da horrenbeste Seminiseko langilea, baizik eta Seminisentzat, besteak beste, lan egiten duen komertzial bat, euskal nekazal-sektorean ondo errotuta, eta horri egokitzen zaion jarrera eta portaera duena, formaltasunaren gainean gertutasuna eta konfiantza ematen duen pertsona baita.



Irudia 25: Holandako hazi-sortak mintegieta probatzen, Aitorren bitartekaritzarekin (ekoizpen-prozesuaren 4. irudia). Egilea: Maddi Zumalabe.

Ur botila eskuan, hasiera-hasieratik oso atsegin jardun zuen Aitorrek nirekin. Hasieratik esan zidan denboraz larri zebilela, ea zer nahi nuen, harira joateko. Nire sorpresarako, baina, patxadaz eta eroso erantzun zidan gero, uste baino gehiago luzatzen, eta erantzuteko tartea lasai hartzen. Bera izan zen xehetasunez Jack hazien ekoizpen-prozesuaren zati batzuen berri eman zidan lehenengo pertsona, baina, esan bezala, fase batzuen berri bakarrik eman zidan.

Aitorrek 2018ko otsaila horretan esan bezala, haziak Txiletik ekartzen ari ziren azkenengo bi edo hiru urteotan. Bertatik edo ekoizten dituzten tokietatik Holandara eramaten dituzte. Holandan "egin beharreko probak egiten dizkiete" eta ostean hainbat sortatan ontziraten dituzte. Proba horiek hazien kalitatea eta osasun-segurtasuna bermatzeko egiten dira, eta trazabilitatea betetze aldera sorta horiek zenbatu egiten dira, identifikatu.

Bertan gordetzen dira eta urteroko tomate kanpaina hasi aurretik Aitorrek eskatzen dizkie sorta ezberdinetako haziak, onenak zeintzuk diren probatzeko. Orduan Aitorrek bi mintegitara eramaten ditu eta horko langileek, haziak erein eta hogeitaz egun ingurura, biek bat eginik, zein sortatakoak diren hazirik onenak esaten diote. Aitorrek Holandatik haziak bidali dizkionari esaten dio, eta hautatutako sortatik zenbat zorro nahi dituen ere eskatzen dio²⁴⁰.

Beraz, Aitorrek eskatuta mila hazitako zorroetan heltzen dira Jack haziak Euskal Herrira. Maiz, baina, Euskal Herrira heldu ez, eta zuzenean Kantabria, Murtzia edo Andaluziara eramaten dira, gerora ikusiko dugun bezala bertako landare mintegietan egiten baitira Jack tomate landareak. Hortaz, Aitorrek maiz egiten duena Holandatik eskatu eta zuzenean mintegi horietara haziak bidaltzea da, baserri jakin batentzako tomate landare kopuru zehatz bat ekoitz dezaten.

Hazien ekoizpena eta merkaturatzea zeharkatzen duten balio eta praktikak

Hauxe da, gutxi gorabehera, Jack haziek egiten duten ibilbidea ekoizten diren tokietatik Murtzian, Andaluzian, Kantabrian, eta kasu batzuetan Euskal Herrian ereiten dituzten arte. Txiletik edo bestelako tokietatik, Holandara bidali, bertan zenbait proba pasa eta ontziratuta, gero Euskal Herrian sorta hautatu, eta orduan Murtzia, Andaluzia, Errioxa, Kantabria edo Euskal Herriko landare mintegietara bidaltzen dira haziak, eta orduan bai ereiteko unea heltzen zaie. Zenbait balio eta irizpidek zeharkatu eta egituratzen du prozesu eta ibilbide hau: trazabilitatea, desinfekzio eta garbitasuna, purutasuna eta anonimotasuna. Halaber, balio horiek bermatzeko hainbat praktika abiarazten eta arautzen da. "Balio" izendatzea erabaki dut, nahiz eta kontzeptu hauek, berez, agian ez ditugun baliozat hartzen. Izan ere, hazi hauen ekoizpen-prozesuan balio gisa eratzten direla ikusi izan dut, bermatu eta babestu egin behar diren balio gisa, hain zuzen. Bestalde, produktuari ere balioa erantzen dioten balioak dira. Areago, balioa erantsi baino, produktuaren balioaren berme gisa eratzten dira, eta ekoizpen-prozesuan zehar balio hauek ez badira bermatzen, produktuak berak ere galtzen du bere balioa eta ez da merkaturatzen.

Balio nagusienetako bat jadanik aipatu dut: trazabilitatea. Trazabilitatea prozesu osoan zehar presente dago, eta haziei eragiten dien ekintza oro jasotzea dakar. Segidan ikusiko dugun bezala, hibridazio zelaietan etengabe ari dira informazioa jasotzen. Langileen inguruko informazioa jasotzen da, labore eta landaketaren inguruko informazioa, egiten dituzten


240 Prozesu hau ere ilustrazioekin jaso du Maddi Zumalabek. Eranskina IVan aurki daitezke irudiak tamaina handian eta prozesuaren ordenean. Testuan, aldiz, tamaina txikiagoan txertatuko ditut, eta ez halaberrez ordena kronologikoan.

tratamendua, eta jasotzen diren haziena: noiz erein, noiz landatu, nork, zerekin eta zeinek tratatu, polena noiz jaso eta zenbat eman, eta zenbat hazi atera eta zein kalitatekoak, besteak beste. Egiten diren ekintza guztiak jasota geratzen dira, ekoizten ari diren landare eta haziekin arazorik egonez gero arazoa non sortu den identifikatu ahal izateko. Horrela adierazten zuen Diegok, Perun haziak hibridatzen dituen LimaHazi enpresako langileak:

En el GSPP la esencia son los registros, siempre estamos registrando lo que entra, lo que sale, quién entra, quién sale, qué saco, qué meto, si desinfecté, si no desinfecté, y las desinfecciones propiamente dichas del personal, entre plantas, entre variedades, entre módulos, hacia afuera, hacia dentro, nuestros exteriores, interiores. Siempre son nuestros pilares para poder prevenir. Nuestro manejo es preventivo, no curativo (Diego, elkarrizketa).

GSPPren bihotza erregistroak dira, beti erregistratzen ari gara, sartzen dena, irteten dena, zein sartzen den, zein irteten den, zer ateratzen dudana, zer sartzen dudana, ea desinfectatu dudana, ea ez dudana desinfectatu, eta desinfezioak beraiek ere, langileena, landareen artekoak, barietateen artekoak, moduluen artekoak, kanporaka, barruraka, gure inguruneak, gure barrenak. Beti gure zutabeak dira, prebentziorako. Prebentzio-kudeaketa egiten dugu, eta ez gerora landareak sendatzekoa.

Hibridazio-guneetatik Holandara bidaltzen direnean ere informazioa jasotzen jarraitzen dute. Esan bezala, Holandan berriz ere probak egiten zaizkie haziei eta identifikatutako sortatan



Irudia 26: Holandan, haziak probatzen, sailkatzen eta ontziratzen (ekoizpen-prozesuaren 3. irudia). Egilea: Madi Zumalabe.

ontziratzen dira. Horiek irekitzean identifikazioa aldatzen zaie, beraz, sorta ireki eta ixtearen ekintza txiki hori ere jasota geratzen da. Azkenik, zorroetan sortaren zenbakia agertzen da, haziak non izan diren ekoiztuak, zein enpresetakoak diren, eta zein tratamendu mota izan duten.

Horrenbestez, trazabilitateak prozesu osoa ezagutzeko aukera ematen digu. Edonola ere, trazabilitatearen informazio osoa duen pertsonarengana heldu behar da horretarako, eta informazio hori interpretatu -jakin- behar da. Zoritxarrez, nik ez nuen lortu pertsona horiek topatzea eta, trazabilitatea trazabilitate, ohikoena da pertsona bakoitzak ekoizpen-prozesuaren fase txiki baten berri baino ez izatea.

Aurreko eta hurrengo faseen inguruko informazio apur bat ere izaten dute, beraien lanerako beharrezkoa zaien heinean, baina hortik harago oso gutxi dakite. Zentzu honetan, pertsonak kontrolatzen ez dutena jasotzen da trazabilitatearen bitartez, eta maiz prozesu osoa ez dugu ezagutuko, baina horrek ematen digu horretarako aukera, edota horren itxaropena edo ilusioa behintzat.

Trazabilitateak badu ere aipatu dudan beste funtzio bat: akatsen edo arazoen ardura topatzea, edo topatzea baino, arduraz libratu ahal izatea. Izan ere, birusak eta bestelako patogenoak agertzen direnean oso zaila da jakitea nondik datozen. Hazietan egon daitezke, baina mintegietan har ditzakete landareek eta lurrak, edota azkenik negutegietan ere sor daitezke. Eta nola jakin nondik datorren arazoa? Bakoitza ahalegintzen da ardura ez duela erakusten, baina arazoa negutegietan agertzen da batez ere, eta oso kaltegarriak izan ahal dira izurriteak, batez ere Gipuzkoakoak bezalako etxaldeetan. Aitorrek esaten zidan Andaluzian jada ohituta daudela, eta lortu izan dutela izurriteekin elkar-bizitzea. Birus edo izurrite bat agertzen denean negutegia itxi, berrogeialdian jarri, eta gero berriz ere bertan ekoizten jartzen dira. Bitartean, ondoko negutegietan lanean jarraitzen dute. Horretarako ere, langileak negutegi batetik bestera igarotzen direnean higie-neurriak hartu behar izaten dira, badaezpada oraindik ikusi ez duten patogeno bat baldin badago, beste negutegi batera ez pasatzeko. Euskal tomategintzan, aldiz, ez dituzte negutegi asko, eta horietako batean birus bat sartzen bada galeraren proportzioa oso handia da. Negutegi bat berrogeialdian jartzeak urte bateko uztaren parte handi bat galtzea dakar, eta beraz arriskua handia da. Edonola ere, ez dute lortzen ardura zeinena den identifikatzea, eta ekoizpen-katearen arduradun bakoitzak esaten du berak bete beharrekoak bete egin dituela. Trazabilitateak sistema hori indartzen du.

Baina trazabilitatearekin batera heldu gara ekoizpen-prozesuan gakoa den beste balio batera, garbitasun eta desinfekzioa, hain zuzen. Izan ere, trazabilitateak horiek bermatzea bilatzen du. Laborearen ekoizpenari eragiten dion zenbait gaitz hazien bitartez kutsatzen da. Hori dela eta, haziak ekoizten direnean gaitz horiek ez hartzeko neurriak hartu behar dira. Haziak beraiek garraiatu eta ontziratzen direnean ere beste hainbat neurri hartu behar da. Hortaz, osasuna, higiezia eta desinfekzioa hazi hauen ekoizpenaren beste mantretako bat dira, trazabilitatearekin batera identifikatu dudan bigarren balio bat, alegia.

Horrekin batera eta horretatik erabat bereizezinik hirugarren balio bat dugu: purutasuna. Hazi hauen araztasun genetikoa bermatu behar da, eta berriz ere trazabilitatea horretarako tresna dugu. Haziak genetikoki Jack barietatekoak izan behar dira ehuneko ehunean, eta horretarako

parentalak ondo gurutzatu -polinizatu eta hibridatu- direla ziurtatu egin behar da. Izan ere, hazi horietatik ateratzen diren tomateak Jack barietatekoak izan behar dira, denak berdinak, ekoizpen eta produktu ahalik eta homogeneoenak eman ditzaten.

Landareen purutasuna, garbitasuna eta osasuna bermatzeko GSPP (Good Seeds and Plant Practices) protokoloa eratu da nazioarte mailan. European hazi-enpresek egin duten fundazio pribatu batek kontrolatu eta arautzen du GSPP protokoloa. Hau tomateen ekoizpenean bereziki aplikatzen da, eta *Clavibacter michiganensis subsp. Michiganensis* bakteriarik -kankro bakteriano izenarekin ezaguna- sahiesteko eginga izan da. Izan ere, bakteriarik hau hazien bitartez transmititzen da, oso kaltegarria da tomate ekoizpenean, eta horren kontrako tratamendurik ez dago.

Maiz ikusezin geratzen den baina ezinbesteko garrantzia duen, hazien hibridazio-prozesura zuzenean eramango gaituen, eta trazabilitatearekin batera garrantzia hartzen duen beste balio bat ekarri nahi dut lerrootara: anonimotasuna. Esan bezala, parentalak hazi-enpresen altxor nagusienetakoak dira. Hala ere, hazi-enpresak ez dira heltzen beraien hazi guztiak ekoiztera, edo hel zitezkeen baina merkeago ateratzen zaie lan hau azpikontratatzeari. Horrelakoetan, beste enpresa bati parentalak bidaltzen dizkiete, azkenengo horrek hibridazioa egin dezan, eta hortaz, hazi hibridoak ekoiztu ditzan. Enpresa horiek, baina, ezin dute jakin zein barietateen hazi ekoizten ari diren, ezta zein parental erabiltzen ari diren ere. Horregatik kode bitartez bidaltzen dizkiete parentalak, eta hauek ere kode bitartez bidaltzen dizkiete ekoiztutako hazi hibridoak hazi-enpresei. Edonola ere, badaezpada ere hitzarmenak sinatzen dituzte hazi-enpresekin, parentalak ez dituztela beste ezertarako erabiliko eta bertan ekoiztutako guztia hazi-enpresarako dela adieraziz.

LimaHazi. Hazien hibridazio-prozesua

LimaHazi enpresara gerturatzen

Perura heldu eta berehala lehenengo albiste ona dut. Ahizparen etxean bizi naiz, eta bere sareetan berehala sartu naiz. Segidan komentatu dit Pedro bere lagun batek esana diona. Pedro katalana da, eta ahizpa bezala Liman bizi da duela urte batzuetatik. Beraien ingurunean katalan, espainiar eta iparralde globaleko lagun dezente dituzte. Gehienak hara lan egitera joanak dira. Multinazional europar edo estatubatuarrentzako atzerriratu²⁴¹ gisa lan egiten du askok, beste batzuk bertako enpresen goi karguetan daude, eta beste zenbaitek enpresak martxan jartzen

241 Beraien artean, lanaren inguruan hitz egiten dutenean ohikoa da, gazteleraz, "expatriada/o" terminoa. Horrela definitzen dute euren burua, enpresek horrela adierazten dute, eta kategoria honen lansari, zerbitzu eta konpentsazio ekonomikoak jasotzen dituzte -besteak beste, etxea ordaindu, norbere herrialderako bidai-txartelak familia osoarentzako, eta ikastetxeetako matrikulazioa umeak dituzten kasuetan-.

dihardu. Hala ere, profil gaztea dute eta euren bizitza profesionalaren lehenengo urteetan daude. Auzo dirudunetan bizi dira, baina era berean ingurune sasi-alternatiboetan mugitzen dira. Besteak beste, batzuek beraien auzoetan larunbatetan egiten diren "Bioferian" erosi ohi dute zenbait elikagai, bereziki produktu freskoak, baita kontserbak, zerealak eta bestelakoak ere.

Miraflores auzoko Bioferian ezagutu zuen Pedrok Nadia. Nadiak Limako unibertsitate batean lan egiten du, agronomia arloan. Hortaz aparte, etxalde bat dauka eta bertan barazki ekologikoak ekoizten ditu. Behin, berari barazkiak erosten ari zelarik, Katalunian zein tomate mota zegoen aipatu zion Pedrok. Izan ere, Liman egun topatzen diren tomateak "tomate-pera" modukoak dira. Nadiak eskatu zion hazi batzuk Kataluniatik eraman ziezazkion, eta horrela egin zuen Pedrok. Orain, Nadiaren postuan tomate mota ezberdinak aurkitzen ditugu.

Horixe bera kontatu zion Pedrok ahizpari, azkenengo horrek tesian zertaz ari nintzen kontatu zionean. Nadiarekin egon behar nuela esan zion, ekoizlea izateaz gain, unibertsitateko irakaslea baitzen eta gaiak asko kontrolatzen baitzuen. Horrenbestez, Limara heldu eta gutxira Mirafloreseko Bioferiara noa, eta bertan topatzen dut. Nadia, baina, bereziki nekazaritza ekologikoaren inguruan aritzen da klaseak ematen, eta Perun nik guztiz kontrakoa ezagutu nahi dut; hazi hibrido eta komertzialen ekoizpena ezagutu nahi dut hemen. Hortaz, bere lankide Ignacioren kontaktua pasatzen dit, eta berehala lortzen dut berarekin hitzordu bat adostea. Oraingo honetan unibertsitatean elkartzeko gara, azokan ordez, eta oraingoan bai hazi-ekoizpenaren sektorearen inguruko informazio garrantzitsuak ematen dizkit Ignaciok.

Perun batez ere kostaldean ekoizten dituzte haziak, negutegipean. 1995. urtean instalatu ziren lehenengo enpresa batzuk, bertako klima oso egokia zaielako. Kasu batzuetan hazi-enpresak beraiek instalatzen dira eta hazien ekoizpena -hibridazioa- egiten dute. Beste kasu batzuetan, hazi-etxe multinazionalentzako lan egiten duten eta bakarrik hibridazioa egitera dedikatzen diren enpresak dira Perun instalatu direnak. Edonola ere, hazien ekoizpenari dagokionean, Perun egiten dena hibridazioa da batik bat. Hau da, hazi-enpresek parentalak bidaltzen dituzte etxalde hauetara, eta bertan parentalen hibridazioa egin eta gerora merkaturatzen diren hazi hibridoak ateratzen dituzte. Gero, Holandara edo Holanda bezalako guneetara bidaltzen dituzte haziak, bertan multinazionalak berriz ere zenbait proba egin diezaieten eta ontziratu ditzaten. Hortik jada erein eta landatuak izango diren zonaldeetara bidaltzen dira.

Ignaciok eskatzen diot ea horrelako etxalderen batean lan egiten duen norbaiten kontaktua pasako didan eta baietz esaten dit, baina aurrerago izan beharko dela diost. Martxoaren bukaeran gaude eta ekoizpena gogorrean daude etxaldeetan; beraz, inor ez da prest agertuko nirekin hitz egiteko. Maiatza aldean idazteko esanez agurtzen nau.

Maiatza heltzen ari delarik, kasualitatez agian, oso baliagarria izango zaidan lana aurkitzen dut interneten. Lanak "Producción de semillas híbridas de tomates (Solanum lycopersicum L.) determinados e indeterminados en el valle de Cañete" izenburua du eta Gustavo Adolfo Martín Merino Ruiz-ek egina da ingeniari agronomo titulua eskuratzeko. Bertan egileak azaltzen du tomateen hibridazio-prozesua nolakoa den. Egilearen informazioa begiratzen ari naizelarik, lana elkarrizketatu nuen irakaslearen unibertsitate berean aurkeztu zuela ikusten dut. Lanaren egilea elkarrizketatzea lagungarri izango zaidalakoan, Ignacio irakasleari idazten diot, agian berak izan

baitezakeen bere kontaktua. Horrelaxe da, eta Ignaciok egilearen kontaktua ematen dit. Egileari idazten diot, eta bere ezagun baten kontaktua pasatzen dit erantzun gisara, berak baino gehiago lagunduko didalakoan. Bere lagunari Diego jarri diot ezizen, eta hazien hibridazioan jarduten duen enpresa baten langilea da. Berari deitu eta segidan "fundo"ra joateko gonbidapena luzatzen dit. Kasu honetan, Aitorrekin bezala, bere prestutasuna adierazten dit, baina egun bat finkatzea zailagoa da. Lortzen dudanean, harantz noa. Hori bai, zein instituziotik joaten naizen egiaztatzen duen agiri bat eraman behar dudala diost. Enpresaren politika, omen.

Diegok LimaHazi izendatu dudana enpresan lan egiten du. LimaHazi hogeitun urte baino gehiago duen enpresa da. Kapital txiletarrak sortutakoa da. Hazi-enpresentzako haziak hibridatzen dituen enpresa handienetakoa da mundu mailan, eta Peru mailan ere pisu handia duen enpresa da -gehien esportatzen duten Peruko lehenengo ehun enpresen artean dago, adibidez-. Toki ezberdinetara bidaltzen dute bertan ekoizten dutena, baina bezero gehienak holandarrak dira. Europara bidaltzen dituzten haziak sofistikatuenak izaten dira, eta hortaz garestienak ere, esaten dit Diegok. Sasoa denean, bertan hiru mila langile inguruk egiten du lan, eta solanazeo²⁴² eta kurkubitazeoen²⁴³ haziak ekoizten dituzte. Eskaera mota ezberdinak egiten dizkiete, eta batzuk oso handiak.

Enpresak Peruko iparraldean eta hegoaldean ekoizpen-guneak ditu, bi klimatan, alegia. Horrela, urte osoan zehar ekoizten dute, batean negua denean bestean uda baita, eta kontrakoa. Hazi-etxeei bereziki interesatzen zaie hau, eta beraz, Perun instalatzeko argudioetako bat hau da. Izan ere, munduko toki ezberdinetan merkaturatzen dituzte hazi horiek, eta urte osoan zehar hazien beharra dute. Hala ere, beste arrazoi handi bat daukate Perun ekoizteko: eskulanaren prezioa. Hazien hibridazioan eskulan asko behar da, eskuz egin behar baita polinizazioa, eta Perun eskulana "merke" ordaintzen da. Horrek ahalbidetzen die enpresei hazietatik etekin handiagoak ateratzea, eta hortik dator, besteak beste, Perun haziak ekoizteko interesa. Edonola ere, hazi-enpresek toki ezberdinetan hazi berdinak ekoiztu behar dituzte. Perun ezbeharren bat gertatuz gero hazirik gabe geratu ahalko ziren, eta beti ziurtatu behar dute saltzeko haziak izango dituztela. Ezbeharra, baina, ez dira oso ohikoak, eta beraz, asko dira urtero sobratzen diren haziak. Horrek ahalbidetzen die horien artean kalitate handienetako haziak hautatzea.

242 Landareen taxonomiaren barruan solanazeoak familia bat dira. Horren barruan 98 genero eta 2700 espezie daude, eta espezie horien artean daude, besteak beste, tomatea, berenjena, patata, piperra, eta tabakoa.

243 Landareen taxonomiaren barruan kurkubitazeoak familia bat dira. Horren barruan dauden espezieen artean aurkitzen ditugu, besteak beste, kalabazak, kalabazinak, pepinoak, meloiak eta sandiak.

GSPP protokoloa, fundoaren egitura, eta hazien garbitasunaren ekoizpena

Bisitatu behar dudan fundoa Limatik ehun eta piku kilometrotara dagoen nekazal ingurune batean dago, hiriburutik autobusez bi ordutara. Hortaz, goizean goiz jaiki, Limako bus geltoki nagusietako batera joan, bertan autobus bat hartu, eta hegoalderako bideari ekiten diot. Basamortuan dago hiriburua eta basamortuan dago ere fundoa eta bere ingurunea. Hala ere, basamortua Andeatatik datozen erreka eta bailarek zeharkatuta dago, eta bailara horien inguruan eratu dira nekazal-guneak, erreken ura probestuz. Halaber, basamortu azpian ere, metro asko lur azpian bada ere, Andeatatik datozen urak pasatzen dira, nekazaritzarako baliabide. Hala ere, normalean ez dira baliatzen, ur horiek erauztea oso garestia baita.

Txikia bada ere, herri kaotiko batera heldu naiz, eta hemen bai, herrialdeko hiriburutik urrunduta, bereziki zuria naiz, eta sentitzen naiz. Zuri bakarra bus geltokian, eta luzaz itxaroten. Ordu erdi pasatxo bertan egon ostean heltzen da Diego "pick up"²⁴⁴ batean. Kotxetik jaitsi eta ni agurtzera dator, kotxeak buelta ematen duen bitartean. Kotxera sartu eta berehala mintzatzeko hasten da, bertako nekazaritza egoeraz eta bilakaeraz. Gidariak, aldiz, ez du tutik esaten. Pixkanaka-pixkanaka bere funtzioa, hain zuzen, hori bera dela konturatzen naiz: enpresako gidaria da.

Lehenengo unetik bertatik Diego oso atsegina da nirekin. Fundoa erakutsi eta nola funtzionatzen duten azaltzen didanean komertzial lanetan dabilela dirudi, ekoizpen-guneak zeinen ondo funtzionatzen duen goratzen baitu etengabe. Pentsatzen dut nire kredentzialak eta jatorriak -eta, hortaz, azal-koloreak- zerikusia duten egoerarekin. Ni behintzat gogobete egin behar den ikerlari europarraren paperean sentitzen naiz etengabe, baita rolean sartu ere. Izan ere, Perura etortzean horrelako etxalde bat bisitatzea ezarri nion nire buruari xede, eta horretarako nire pribilegioek lagundu diezadaketelakoan, horiek baliatu ditut. Bereziki agerikoa egiten zait nirekiko begirunea eta tratu ona fundoko langileak nola tratatzen dituen ikusi dudanean. Orduan ere konturatzen naiz bera ez dela langile soil bat.

Fundoko postu garrantzitsu bat dauka.

Esan bezala, kotxez heltzen gara fundora, "pick up" batean, hain zuzen. Sartzerakoan, sarrerako erregistrotik pasa aurretik putzu bat zeharkatu behar dugu kotxez. Horren funtzioa gurpilak garbitzea da, hain zuzen. Kotxetik jaitsi eta materialik sartu behar ote dudan galdetzen dit Diegok, eta baietz erantzuten diot: kaiera, grabagailua eta argazki kamera sartzen ditut. Orduan materialen gunera joan behar dugula esan, eta segidan harantz abiatzen gara. Lehenago, baina, dei bat egite du eta "dama" -andre- batekin datorrela dio. Nik ez dut besterik galdetzen. Orduan azaltzen dit GSPP gune batean gaudela, eta bertan ekoizpen-gunera sartzen diren material eta pertsonak kontrolatu, garbitu, eta desinfektatu egin behar direla. Esan bezala, GSPP batik bat tomate hazien



Irudia 27: GSPPko etxalde, gune gorri, hori eta berdeak. Iturria: Gustavo Adolfo Martín Merino Ruiz (2017).

244 "Pickup" terminoarekin ibilgailu mota zehatz bat izendatzen da. Normalean lur orotako ibilgailuak dira eta atzeko parte irekia dute, objektu handiak garraiatu ahal izateko. Kamioneta eta lur orotako autoen fusio moduko bat dira.

osasuna bermatzeko egin den protokoloa da. Orokorrean ekoizpen-prozesu osoa kontrolatzen du, haziak edozein patogeno har ez dezaten. Hala ere, "kankro bakterianoaren" kontra sortutako egitasmoa da.

Landarea kutsatzeko lau arrisku faktore nagusi ezartzen ditu protokolo horrek, beraz, bereziki horiek kontrolatzeko sortzen da GSPP. Ura, pertsonak, materialak eta haziak beraiek dira faktore horiek, eta bakoitzarentzako prebentzio-neurri ezberdinak ezartzen ditu protokoloak. Haziei dagokienean, GSPP barruan ekoiztu diren haziak ereiten dituzte bertan, edo behintzat ahalegindu. Esan bezala, zenbait gaitz hazien bidez kutsatzen dira; hortaz, ziurtatu behar da ereiten diren haziak garbiak direla. Urari dagokionean, ur garbia erabiltzea gakoa da. Kasu honetan, esan dugu basamortuan kokatzen dela fundoa, baina Andeatatik datorren bailara baten inguruan. Han erreka ura erabiltzen dute nekazaritzarako, zenbait erretenaren bidez bideratuta. Ur horren kalitatea eta garbitasuna, baina, ezin dute erabat bermatu. Gainera, nekazal ingurune batean egonda litekeena da patogenoz inguratuta egotea eta horiek uretan ere egotea. Hartara, ez dute ur hori erabiltzen, lur-azpian dagoena baizik.

Arrisku faktoreen artean pertsonak eta materialak ere badaude. Horiek kontrolatzeko ekoizpen-eremua arrisku mailaren arabera hiru zonaldetan banatuta dago: eremu gorria, eremu horia eta eremu berdea (ikus Irudia 27). Eremu gorria arrisku handiko gunea da, horia trantsizioa, eta berdea eremu garbia da. Eremuen artean zenbait garbiketa-praktika egin behar dira, eta horrekin batera erregistroak ere egin behar dira. Eremu gorria gunearen ingurunea da, perimetroa. Hortaz, kotxea putzutik pasatzen denean eremu gorrira sartzen gara. Hemendik eremu horira sartzeko bakarrik bi sarrera daude, bata materialentzako eta bestea pertsonentzako. Bi sarrera horiek beti banatzen dira, materialentzako erabiltzen diren produktuak fuertegoak baitira. Orduan, lehenengoz materialen sarrerara abiatzen gara. Hemen ere putzu handi bat dago, eta bertan sartzen dira lanerako material handiak -aitzurrak eta horrelakoak-. Eskura daramatzagun materialak -kaiera, telefonoa eta bestelakoak-, aldiz, plastikozko poltsa batean sartzen ditugu eta poltsa horretan produktu desinfektatzailearen bat lainoztatu egiten dute, material horiek garbitzeko.

Bertan gauzak utzita, pertsonen sarrerara goaz, eta orduan ulertzen dut Diegok apur bat lehenago egindako deia, "dama" batekin doala esanez. Izan ere, bi sarrera daude, bata emakumeentzako eta bestea gizonentzako. Niri dagokidanera sartu eta langile bat nire zain dago, zer egin behar dudan azaltzeko. Barrukoa izan ezik, jantzita daramadan arropa guztia erantzi eta estetikoki denak berdintzen gaituzten praka, kamiseta eta botak janzten ditut. Aldagelatik irten aurretik izen-abizenak eta filiazioa jasota uzten ditut eguneko orrialdean. Hori egin ostean eskuak bi produktu ezberdinekin garbitu behar ditut; bata detergentea da, eta bestea amonio kuarternarioa. Segidan, eman didaten txartel identifikatzailean produktu bat lainoztatu behar dut bertako produktu batekin. Aldagelatik irten eta zuzenean gela handiago batera sartzen naiz. Bertan ere izen-abizenak, filiazioa eta ordua jasota utzi behar da orri batean, eta halaxe egiten dut, berriz ere eskuak bitan garbitu, eta handik ateratzerakoan oinak zenbait ontzi eta putzutuan sartu behar ditut, botak ere garbitzeko. Eremu horian nago jada.

Eremu horian bulegoak, jateko tokia, eta negutegien arteko korridore luzeak daude. Lanerako trantsizio gunea da, alegia. Bertatik bozgorailu batzuen oharrak entzuten dira, eta bereziki laneko segurtasunerako eta GSPPko arauak betearazteko mezuak botatzen dituzte handik. Lanerako tokiak -negutegiak, polen etxea, haziak erauzteko eta garbitzeko gunea, eta abar- gune berdeak dira, eta horietan sartzeko berriz ere garbiketa erritu batzuk burutu behar dira. Negutegiak telazkoak dira eta horietan sartzeko lehenengoz irristailu-ate batetik sartu behar da. Atea ireki, oinak ur eta produktu batez betetako ontzietatik pasa, barrura sartu, atea itxi, eta eskuak produktuekin garbitu behar ditut. Orduan bigarren ate batetik pasatzen naiz. Ate hau goma batekin


ixita dago, eta sartu eta berehala bera bakarrik ixten da. Azpierrez txiki batera sartzen naiz hortik, eta bertan lohihartzekoak daude. Daramadan arroparen gainean jantzi behar dut, eta irtendakoan garbitzeko utzi. Bertatik garbitokira eramaten dituzte, eta negutegi honi dagokion garbigailuan baino ez dute garbitzen. Lohihartzekoa jantzita, izen-abizenak jaso behar ditut berriz ere, orain negutegiko eguneko orrian, eskuak bi produktuekin garbitu, eskuetan daramatzadan materialak horietako batekin lainoztatu, eta negutegira ematen duen azkenengo atetik sartu naiteke jada. Berriz ere bi ontzietatik oinak pasatu, eta eremu berdean nago, negutegian, alegia. Negutegiaren bestaldean, aldiz, materialen sarrera dago eta han produktuak fuertekoak dira.

Hauek dira, oro har, materialak eta pertsonak desinfektatzeko praktikak, erritu gisa ere izendatu ditudanak momentu batean. Garbiketari begira eta landare-osasunari begira praktika hauek eraginkorrak direla ez dut inondik inora kolokan jarri nahi, baina une batean baino gehiagotan konfiantzarako praktikak ere bazirela iruditu zitzaidan. Izan ere, kontrol-praktika asko egon bai, baina gero zenbait unetan nik ez nituen erabat bete praktika horiek guztiak eta Diego ez zen egon hori zaintzen eta ez zidan ezer esan. Une horietan pentsatu nuen segurtasun-neurri asko egon bazeudela, eta langileak kontrolatzeko baliabideak ere -erregistroak kasu-. Hala ere, une batez betetzen ez bazenituen ez zela ezer gertatzen ere ikusi nuen, eta orduan pentsatu nuen hau: segurtasuna eta garbitasuna mantentzeko sistema zela bai, baina konfiantza eraikitzeko eta bermatzeko ere bai. Bruno Latourrek (1991) definitutako purifikazio-prozesuen antzera, praktika horiek hazi hibridoak definitzeko eta purifikatzeko funtzioa ere badute.

Praktika hauetaz gain, ekoizpen-prozesuan zehar ere zenbait neurri hartu behar zituzten langileek landare-osasuna bermatzeko. Esan bezala, oihalezkoak ziren negutegiak, eta horiek urtero-urtero muntatu, desmuntatu, garbitu eta berriz muntatu egiten dituzte. Desmuntatuta daudenean aprobetxatzen dute lurra desinfektatzeko, eta hori ere urtero egiten dute. Lurra desinfektatzean "hil" egiten dute bertan dagoen guztia eta antzu bilakatzen da lur hori. Gainera, lurrari ez diote simaurrik edota bestelako ongarririk botatzen. Hortaz, lurrean ekoiztu arren, lur antzuan ekoizten dute eta landareak uraren bitartez elikatzen dituzte, deritzon soluzio nutritibo batekin. Hots, lurrean egin arren, hidroponikotik oso gertu dago bertako ekoizpena, lurra substratu antzu moduan erabiltzen baita.

Hibridazio-prozesua eta landareen zaintza

Landareen polinizazioa egitean ere zenbait neurri hartzen dute, landare-osasuna bermatzeko zein hibridazioaren purutasuna ziurtatzeko. Barietateak hibridatzeko bi parentalen haziak erein eta horien landareak ekoiztu behar dira. Hortaz, lehenengo pausuak tomate landareen



Irudia 28: Jack hibrodaren parentalen jatorria:
Monsanto (ekoizpen-prozesuaren 1. irudia).
Egilea: Maddi Zumalabe.

ekoizpenaren berdinak dira: haziak erin, landaretxoak ekoiztu, eta gero landare horiek birlandatu. Landareak birlandatzerakoan negutegiz aldatzen dira eta ekoiztu behar duten kopuruaren arabera negutegi batean barietate ezberdinetako landareak egon daitezke edo ez. Pausu hauek egitean informazioa jasotzen doaz -zeinek, noiz, eta non erin eta landatu dituen-, ekoizpen-prozesuaren bukaeran informazio guztiak ondo jasota egon daitezke.


Esan bezala, bertan ez dakite zein barietate ekoizten ari diren, enpresek kodeekin identifikatuta bidaltzen baitizkiete haziak. Hortaz, kodeak ekoiztuko duten barietatea identifikatuko du. Halaber, kodeak ekoiztuko den barietatearen parentalak ere identifikatzen

ditu, "sexu" marka batekin batera. Polinizazioan esleitzen zaien funtzioaren arabera definituko dira landare horiek, eta landare femenino edo maskulino bilakatuko dituzte, eme eta ar. Polinizatuak izango direnak landare femininotzat hartzen dituzte. Polena "emango dutenak"²⁴⁵, oster, maskulinotzat hartuak dira. Hala ere, zelaietan ez dituzte enpresen kodeak erabiltzen, lanerako ez baitira oso praktikoak. Horien ordez, marrazkiak eta koloreak erabiltzen dituzte landareak identifikatzeko. Adibidez, biolin edo igel batekin identifikatu daiteke barietate bat, eta koloreekin bereizten dira beraien funtzio "sexualaren" arabera ere. Horrela jakingo dute nondik nora eraman beharko duten polena -igel arretatik igel emeetara, adibidez- eta identifikatu ahalko dituzte etengabe landareak eta polena. Adibidez, demagun bertan Jack barietatearen haziak ekoizten dituztela. Monsantoek Jack barietatea JDX4 kodearekin identifikatzen du eta Jack parentalak kode berdinarekin identifikatuta bidaltzen ditu, barietate femeninoa edo maskulinoa diren zehaztuz: lehenengoa JDX4 femeninoa/emea da, eta bigarrena JDX4 maskulinoa/arra. Bertan, lana errazteko, JDX4 irudia bilakatzen dute, demagun igela. Halaber, barietate femeninoak kolore batekin identifikatzen dituzten, demagun gorria, eta maskulinoak beste batekin, demagun berdea. Orduan, zelaietan, igela irudiarekin

245 Kasu honetan ez dute polena "ematen", erauzi egiten zaie baizik. Hala ere, "polinizatzaileak".

eta kolore gorriarekin identifikatzen dira Jack barietatearen parental femeninoa, eta igela eta berdearekin Jack hazien parental maskulinoa.

Esan bezala, haziak erein eta plantela ekoiztu negutegi batzuetan egiten dute, eta handik beste batzuetara eramaten dituzte. Bertan landareak landatu eta polinizatu, eta tomateak ekoiztu egiten dira. Bigarren hauetan barietateen arabera eta ugalketarako funtzioaren arabera banatzen dituzte landareak. Nik ikusi nuen negutegian, landareak nahiko hazita zeuden jada, eta metro eta erdiko altuera zuten. Bertan oso argi ikusten zen zeintzuk ziren landare femeninoak eta zeintzuk maskulinoak. Izan ere, tomatea ekoizteko landareak kimatu



Irudia 29: Jack hazien hibridazioa (hibridazio-prozesuan 2. irudia). Egilea: Maddi Zumalabe.

egiten dira, eta gida bakar bat -edo batzuk- uzten zaizkie, tomate gutxiago baina handiagoak eman ditzaten eta landareak aireztatuago egon daitezen. Negutegi horretan, aldiz, landare batzuk ondo kimatuta zeuden bitartean, beste batzuk adar, hosto eta loreez josita zeuden. Kimatuta zeudenak femeninoak ziren, eta kimatu gabe utziak zirenak, aldiz, maskulinoak. Landareak hibridatzen direnean polinizatzen diren landareetako tomateak dira interesa dutenak -landare femeninoen tomateak, alegia-; horiek dira bilatutako polinizazioaren ondorioz sortutako fruituak. Tomate horiek oraindik parentalaren tomateak dira; hau da, barietate parentalaren ezaugarriak dituzte. Tomate horietan sortuko diren haziak, aldiz, polinizazioaren ondorioa dira jada, hortaz, barietate hibridoarenak.

Landareetara itzulita, polinizatuta dauden landareak tomateak ekoizteko bezala tratatzen dira, lehenengoz tomateak eman behar baitituzte gerora haziak emateko. Polena emateko funtzioa duten landareek, oster, polinizatzeko funtzioa besterik ez dute zelai horietan. Hortaz, ez dira kimatu behar tomate hobeagoak eman ditzaten. Areago, kontrakoa interesatzen da, ez dira kimatzen ahalik eta lore gehien eman ditzaten, horietatik al bait polen gehien erauzi ahal izateko. Prozesu hau ulertu aurretik galdetu nion Diegori zergatik zeuden landare batzuk

kimatu gabe. Landareak "papitos" eta "mamitas" izendatzen zituen Diegok zuzenean erantzun zidan: "para que a las hembras no les falte nunca su polen"²⁴⁶.

Hibridazioa eskuz egiten dute, eta horrek eskulan asko behar du. Alde batetik, polinizatuak izango diren landareei loreak ireki aurretik polena kendu behar zaie -deritzon landarearen atal "maskulinoa"-, autopolinizatu ez daitezten. Horri zikiratu edo irendu deitzen zaio, gazteleraz "emascular", eta etengabe egin behar den lana da. Izan ere, tomate landareek progresiboki ematen dituzte loreak eta asko zaindu behar da loreei atal maskulinoa noiz kendu. Inondik ere, ezin dira inoiz autopolinizatu, baina goizegi ere ezin zaie atera loreei atal hori. Zikiratuak izan diren loreak markatu egiten dira eta handik bi edo hiru egunetara polinizatuak izaten dira. Lan hauek aldi berekoak dira. Hau da, landare batean lore batzuk polinizatzen diren egun berean beste batzuk zikiratuak izaten dira. Halaber, landare "maskulinoei" ere atal "maskulinoa" kentzen zaie. Kasu honetan, baina, ez dute botatzen, polen etxera eraman baizik. Bertan lorezilei polena erauziko diete, horrekin landare femeninoak polinizatzeko.

Lan hauek egitean langileek hiru poltsatxo eramaten dituzte gerrikoari lotuta. Batean uzten dituzte landare femeninoei erauzitako atal maskulinoak, botatzeko dena. Beste batean esnea uretan diluituta eramaten dute. Eta hirugarrenean amonio kuarternarioa eramaten dute. Kasu honetan esnea erabiltzen dute detergentearen ordez, loreak ukitzen ari direlako eta oso atal sentiberak direlako hauek. Esnea ez da horren gogorra, eta loreak ez ditu kaltetzen, baina hala ere garbiketa funtzioa egiten du. Amonioak eta esneak funtzio desinfektatzailea dute, eta landareren batean kankrorik balego, landare batetik bestera pasatzea eragozteko dute helburu. Horretaz aparte, barietate batetik bestera pasatzen direnean edo landare maskulinoak zikiratu eta gero, eskuak alkoholarekin ere garbitzen dituzte, bertan geratu ahalko zitzaaien polena garbitzeko xedez, nahi ez duten landare bateko polena nahi ez duten landare batera joan ez dadin. Horretarako, barietateaz aldatzen direnean negutegi erdian dagoen mahai batera joaten dira eta han hobeto garbitzen dituzte eskuak.

Negutegietatik horietatik polen etxera eramaten dituzte landare maskulinoei ateratako lorezilak. Horra sartzeko, berriz ere eremu horitik eremu berdera pasatzeko protokoloa bete behar da. Polen etxe barruan zenbait azpi-gela dago. Horietako batzuetan lorezilak lehortzen jartzen dira eta hazi-enpresaka daude banatuta. Hau da, azpi-gela horietako bakoitzean soilik hazi-enpresa batenak diren barietateen lorezilak daude. Horietan, apal batzuk daude eta zatituta daude, eta zati bakoitzean barietate baten lorezilak daude. Lehor daudenean,

246 "Emeek inoiz polena faltan izan ez dezaten".

loreziletatik polena erauzi, bahetu, eta xiringetan sartzen dute. Xiringa horiek tuper batzuetan sartzen dira, hezetasuna bereganatzen duen material batekin batera, eta dagokion hazi-enpresaren hozkailuan sartzen dituzte. Tuperrean polena noiz erauzia izan den jartzen du, eta hozkailuaren atean barietatearen marraskia jartzen dute. Izan ere, marrazki honek laguntzen du barietate horren material guztia identifikatzen: landareak, lorezilak, eta polena, besteak beste. Normalean bi edo hiru egun egoten da polena hozkailuan eta segidan eramaten da zelaira, landareak polinizatzeko. Bestalde, beti dute kantitate txiki bat izoztuta, badaezpada uneren batean polen faltan baldin badaude, bertatik hartu ahal izateko.

Landareak polinizatuak izan direnean berrogeita hamar bat egunez zaindu egin behar dira, tomateak ematen hasteko. Esan bezala, landareak ureztatu egiten dira, eta baita uretatik ematen zaizkie elikagaiak ere. Bestalde, zenbait tratamendu egiten zaie. LimaHazi enpresan lantaldeka aritzen dira, eta landaketa lanak eta polinizazio lanak eskuz egiten jarduten dutenez gain zenbait gairen ikuskapena egiten duten lantaldeak daude: kalitate-lantaldea eta osasun-lantaldea horien adibideak dira. Lantalde horiek prozesu osoa ondo egiten dela ziurtatzen dute, eta landareen purutasuna eta osasuna ziurtatzea dute xede. Osasun-lantaldeak tratamenduak kontrolatzeaz eta aplikatzeaz arduratzen da. Batzuk prebentiboak dira, arautua daude, eta bai edo bai aplikatuak izaten dira. Horietaz gain, landareen osasunari erreparatzen dion lantaldeak komenigarria iruditzen zaienean tratamendu gehigarriak ematen dizkie landareei.

Orokorrean, hazien ekoizpenean tratamenduen erabilera askoz handiagoa da barazkien ekoizpenean baino. Izan ere, ekoizten diren landareak ez ditu inork jango, eta hori dela eta tratamenduen araudiak permisiboagoak dira. Gainera, ikusten ari garen bezala, eremu ilun eta ezezaguna da hazien ekoizpena, eta inork gutxi daki zer gertatzen den hor. Edonola ere, inork jango ez baditu ere, erabiltzen diren tratamenduak lurrera eta airera doaz, inguruneak kutsatuz eta ziurrenik langileentzako kaltegarriak izanez. Ziurrenik hauxe ere bada haziak Iparralde Globaletik kanpo ekoizteko arrazoia, Perun, alegia.

El modo de referirse a esa zona me sorprendió y fue lo que me hizo reparar en la diferenciación y construcción de ese nos-otros entre la producción vasca y la del sur peninsular; es decir, en la forma en que se construían los límites -"étnicos, en términos de Fredrik Barth (1976)- entre la comunidad vasca y la del sur del estado. La mayoría de las veces hablaban de "allá más al sur" o "allá abajo", a veces acompañándolo con un gesto de la mano indicando lejanía y extrañeza. Se me aparecía, entonces, un "sur" marcado y nombrado como sur, en el que además de una cuestión solamente geográfica se marcaba una posición política y económica de esa cardinalidad. Señalaban el sur económico, político y cultural del Norte Global. Asimismo, al utilizar este tipo de denominaciones genéricas, muchas de las veces no me han nombrado territorios concretos, como por ejemplo Almería o Murcia, sino que con estas expresiones denominaban esos territorios de forma generalizada e uniformizante. No eran Murcia y/o Almería, sino ese "ahí abajo" difuso y a la vez homogeneizante.

Finalmente, con estas referencias se marcaba una clara distancia entre un aquí -Gipuzkoa o País Vasco diríamos ahora- y ese otro de "ahí abajo". Establecían, en cierto modo, un límite territorial e identitario entre el País Vasco y esos territorios del sur de la península que tenía que ver también con la diferenciación entre los alimentos producidos en uno y otro territorio. Lo vasco era ahora sinónimo de calidad, de localidad e incluso de "limpieza" o desinfección, mientras que el sur aparecía como ese espacio de producción industrial de los alimentos y lugar de movilidad de mercancías en el que el contacto y esa misma movilidad facilitaban la aparición de nuevos virus y plagas, de modo que ese sur se convertía también en la entrada de determinados patógenos a Europa o al territorio peninsular.

De forma similar a como sucede con los virus que afectan a poblaciones humanas, definidos como "el extranjero, el otro, el extraño" (Preciado 2020), para los virus y plagas que afectan la producción hortícola también se trazan sus recorridos, apariciones y entradas a "nuevos territorios", y se ubica el origen de virus y plagas en territorios *otros*. Así, en un momento en que hablábamos de la tuta, una mariposa que ha aparecido en la última década en la producción tomatera vasca y que afecta bastante este cultivo, me dijeron cuándo y dónde se vio el primer caso en el territorio español, y cuándo sucedió lo mismo en el territorio vasco. Sabían por dónde había entrado, cómo se había expandido, y cómo llegó al territorio vasco.

Si el sur peninsular aparecía como este otro productivo "negativizado", para mi mis sorpresa mis interlocutores del trabajo de campo no se referían del mismo modo a las producciones industriales tomateras holandesas. Igual que han visitado las andaluzas, productores tomateros vascos han podido conocer las instalaciones de ese centro neurálgico europeo de la producción y, sobre todo, distribución hortícola, donde también se reciben, almacenan y distribuyen las semillas de la variedad Jack. Holanda, sin embargo, aparecía ahora por su propio nombre, y no como un "norte" generalizado. Asimismo, enfatizaban mucho más el nivel de tecnologización que caracteriza la producción y distribución agrícola en ese territorio, más que la calidad y la escala de esas producciones. Si bien Holanda y las explotaciones de Murcia y Almería forman parte de un mismo sistema y modelo productivo, en el relato de muchas de las personas que he visitado y entrevistado esos territorios no aparecían ni se nombraban del mismo modo.

Otro factor que contribuía a establecer esta línea divisoria entre la producción vasca y la del sur peninsular tenía que ver con el contexto y mercado de mejora varietal y producción de semillas. El sector agrícola vasco aparecía marginado por ese mercado en los relatos de las personas

entrevistadas. Se quejaban de lo que ahora llamo la "desventaja competitiva" de este territorio frente a las grandes zonas de producción agrícola. En miras a estas últimas se invierte la mayoría de los recursos en mejora vegetal. Sin embargo, lo que en un primer momento me pareció que podría ser, raramente, una de las pocas veces en que el "norte" resultara perjudicado frente a inversiones que se orientaban principalmente a la producción sureña, tomó rápidamente otro significado. Como hemos visto al conocer el caso de la variedad Jack, la marginación del sector vasco frente a las producciones industriales hortícolas y la existencia de una variedad hoy en día considerada vieja y que no es rentable para ser producida en Murcia, Almería u Holanda, han sido las protecciones del sector tomatero vasco. Lo que presentaban como desventaja competitiva y marginación del sector se ha convertido en la protección e impulso de la conformación de un sector basado en la "localidad" y la "calidad", con explotaciones relativamente pequeñas que no hacen un uso intensivo de productos químicos, y que pueden vender los productos a precios rentables, bastante más altos que los de los tomates importados de otros territorios. La gran inversión que hacen empresas semilleras para producir semillas nuevas para la horticultura industrial, más que un aliado de los territorios donde estas se producen, aparece ahora como un condicionante más de su explotación como territorio, y de la explotación que se produce en esas fincas.

Mientras que las explotaciones vascas son principalmente familiares, relativamente pequeñas y con poco uso de productos químicos sintéticos, las explotaciones del sur peninsular se convierten en lo que se ha denominado "un mar de plástico", donde se explota mano de obra muchas veces migrante que trabaja con condiciones laborales de pseudo-esclavitud, y donde el alto uso de productos químicos y la alta ocupación del territorio por parte de estos invernaderos tiene grandes efectos ecológicos y sobre el paisaje. A lo largo de los años en que he estado realizando la tesis doctoral, en diferentes momentos nos han llegado noticias sobre esas explotaciones. Una de las que generó más alarma contaba la situación de mujeres procedentes de Marruecos que hacían la temporada de la fresa y que trabajaban en condiciones de explotación sexual en Huelva²⁸⁶. Miriam del Pino Molina, que está realizando su tesis sobre las mujeres Fulah en Roquetas de Mar, Almería, y que ha conocido más de cerca las explotaciones agrícolas almerienses, me contaba en una comunicación personal la

286 En la primavera del 2018 la revista alemana *Correctiv* publicó un estudio en el que se recogían las condiciones laborales y de explotación sexual en las que estaban trabajando las mujeres marroquíes en los invernaderos de fresas en Huelva. Esta publicación y la denuncia realizada por parte de esas mujeres fue recogida de forma notoria en diferentes medios de comunicación durante esa época. Puede consultarse en castellano en el siguiente enlace: <https://www.buzzfeed.com/pascalemueller/violadas-en-campos-europa?utm_term=.vmLydBwR1W#.sdJL639D4G>. [Última consulta: 12/01/2021].

situación de esos invernaderos, la precariedad en que viven a veces incluso los mismos propietarios y jefes de las explotaciones y cómo se ha visto desde Almería la divulgación de noticias como la que acabo de mencionar. Mientras que noticias como la referenciada los presentan como los "grandes explotadores", del Pino ha podido recoger también las presiones a las que están sometidos esos agricultores por parte de las grandes transnacionales del sector. El libro *El Ejido: Ciudad-cortijo. Claves socioeconómicas del conflicto étnico* (Checa 2001) hace un análisis pormenorizado de la situación y desarrollo agrícola almeriense hasta principios del siglo XX, centrándose principalmente en los conflictos sucedidos en El Ejido a inicios del año 2000. Esto último, más que "liberar" de responsabilidad a estos agricultores, lo que nos muestra es cómo se materializa y "hace cuerpo" este mismo sistema agroalimentario mundial en diferentes territorios. Para el caso del sur peninsular, el modelo agrícola industrial no solo explota esos territorios, sino que además, frente a la "calidad vasca", nos lo presenta como ese "sur" antiecológico y explotador. Lo que a menudo falta en esas noticias es la otra cara de la moneda: explicar para quiénes producen esos territorios y cómo y bajo qué presiones están produciendo.

En cualquier caso, a pesar de que la producción vasca y la del sur peninsular sean presentadas como grandes antagonistas, el límite que se establece entre esos territorios, poblaciones y productos no acaba de corresponderse con la realidad de la producción de los tomates vascos. Por un lado, el consumo de tomate crudo, en ensalada, llegó hace relativamente poco de esos territorios, y en este caso ha sido aceptado e integrado en los hábitos de consumo y hortícolas vascos, hasta el punto de que tener buenos tomates en la huerta parece un símbolo definitorio de un buen hortelano. Por otro lado, actualmente, en muchos casos se trae la planta de Murcia y Almería para producir con ella esos tomates. Nuevamente, ese territorio presentado como el "gran otro" es necesario e imprescindible para el nosotros y la producción de vasquitud. El miedo a los virus que puedan venir de "más al sur" no impide que se traigan plantas desde ahí, pues son mucho más baratas y vienen más fuertes, debido al clima más cálido y luminoso de esas zonas. Así, lo que se nos presenta como "otro" productivo acaba formando parte del sistema y modelo productivo de la calidad vasca, que necesita tanto de las semillas producidas en China, Chile o Perú, como de las plantas baratas injertadas en Murcia y Almería. Así, la producción hortícola de cantidad y calidad aparecen más interrelacionadas de lo que los relatos nos las presentan, integrando un mismo modelo hortícola. No obstante, esto no impide que existan relaciones de explotación o dominación entre esos territorios y, por lo tanto, la construcción de fronteras "norte" y "sur" que en estos casos son fronteras y, por lo tanto,

reposicionamientos entre lo que ahora puede ser un "más al norte" del "Norte Global" -la producción tomatera de calidad vasca- y un "más al sur" de ese Norte Global -la producción del sur peninsular-.

En estos posicionamientos que se presentan como cardinales -norte-sur-, pero que son principalmente económicos, políticos y sociales, el norte y el sur son ahora posiciones móviles y relacionales. Frente al norte vasco, el sur peninsular es también un sur económico y productivo. Sin embargo, ese sur se convierte en el norte de poblaciones situadas todavía "más allá" -cardinal y económicamente-, como por ejemplo Marruecos, desde donde llega anualmente mano de obra temporera a los invernaderos andaluces a hacer los trabajos que nadie más quiere hacer. Asimismo, dentro del propio territorio Andaluz, Almería se convierte ahora en el norte económico de ese territorio. Lo que para la producción vasca se marca claramente como ese sur generalizado, se posiciona como norte frente a otras zonas, tanto aquellas más cercanas -el resto de Andalucía- como otras más alejadas -Marruecos, por ejemplo-. Como decía, por lo tanto, el norte y el sur son posiciones relacionales y móviles.

La forma de explicar y mostrar -o no- estas relaciones se basa en el establecimiento de lo que Barth llamaría "límites étnicos" entre poblaciones y sus territorios. En este caso, se establece un claro límite entre un nosotros -vascos- y ese "ahí abajo", ambiguo y generalizado. Con eso, se alimenta la "vasquitud" de los tomates Jack o los tomates vascos, así como la propia idea o noción de "lo vasco". En otras palabras, para la producción de los tomates vascos es fundamental el proceso de diferenciación del producto -como vasco y de calidad-, que se construye en base a la diferenciación frente a un "otro": los tomates "piedra" que vienen de "más al sur". Pero no solo se diferencian los tomates. La propia diferenciación entre tomates alimenta, asimismo, la diferenciación y los límites que se establecen entre diferentes poblaciones o comunidades. En este caso, entre lo "vasco" y lo "no-vasco".

7.3.2. Explotación y colonización en la producción de calidad y localidad

Ubicada en casa de mi hermana, en el barrio acomodado y algo bohemio de Barranco, Lima, a la vez que fijaba mi atención en los cortes e identidades establecidas en el territorio peninsular y en el marco de la producción de tomates vascos de calidad, la territorialidad de la producción de estos tomates se ampliaba: Perú comenzaba a formar parte del sistema-mundo de mi tema de investigación. En el proceso mediante el cual llegué hasta Diego, que es quien me permitió conocer la finca LimaHazi, contacté primero con una agricultora ecológica,

Nadia, profesora también en una facultad de agronomía limeña, y luego con un compañero suyo de la universidad, este dedicado al ámbito de la producción convencional.

En la primera conversación que tuve con Nadia, se me empezó a dibujar claramente la historia colonial de "mis tomates", y de los tomates en general. Acucillada yo a su lado, entre la mesa de su puesto y la contigua en el mercado "Bioferia" del barrio de Miraflores, y al lado de bandejas con gran diversidad de tomates, en color, forma y tamaño²⁸⁷, me explicó cómo ha sido el proceso de pérdida de variedades locales y de variedades "para la mesa", vinculado principalmente a la expansión de la producción de "tomates pasta", que cuando le pregunté me tradujo diciendo que eran "tomates para la industria". En su explicación aparecieron también de repente los "tomates españoles", que captaron mi atención al instante. Nuevamente, en un juego de dicotomías y contrastes, estos últimos eran la contra-parte del "tomate pasta". Una vez forzada la pérdida de las variedades locales por la imposición de producir para la industria conservera, y perdida también la diversidad asociada a las mismas y el cultivo y consumo de tomates en crudo, empezaban a llegarles "tomates para mesa" del otro lado del Atlántico. Se trata de algo que ya me había sorprendido; todos los tomates que encontraba en ferias y supermercados eran iguales, del tipo "pera" que llamamos aquí, y que yo por lo menos utilizo para hacer conserva. Según me dijo Nadia, cultivaban principalmente dos tipos de tomate del que yo llamo "pera", unos más pequeños destinados a la industria conservera, y los más grandes al consumo en fresco y crudo. Aun así, estos últimos eran también tomates insulsos y de piel dura. ¿Cómo podía ser que en uno de los lugares originarios de los tomates tuvieran frutos de tan mala calidad? Lo más irónico es que ahora, a los tomates para el consumo en crudo, grandes y diversos, se les llamara tomates españoles. El sabor y calidad parecían venir del Norte Global, como ya he dicho siempre móvil y relacional. Una vez realizado el expolio, volvían los tomates "sabor", podríamos decir ahora, que ya no se llamaban "tomates para mesa" sino "tomate español". Nuevamente, la corta memoria caracteriza la producción de identidades -de los alimentos en este caso- en el siglo XXI, escondiendo además historias de expolio, colonización y explotación.

Después de estar con la profesora-agricultora, que trabaja en ecológico tanto en su versión productiva como investigadora y docente, tuve la oportunidad de juntarme con su compañero

287 Como he explicado al exponer el caso de la variedad Jack, al puesto de Nadia regresaron estos tomates de la mano de Pedro, el amigo catalán de mi hermana que me llevó a ese puesto. Fue hablando con él, cliente habitual de Nadia, que agricultora y cliente empezaron a hablar de diferentes tipos de tomate, y que ella le pidió que le trajera semillas desde Catalunya para empezar a cultivar esos tomates, "tomates españoles". Parte de los tomates que tenía ese día en su puesto era fruto de las semillas traídas por Pedro desde Catalunya.

de facultad, Ignacio. Él me proporcionó algo más de información sobre la producción agrícola peruana y, concretamente, sobre la producción de semillas. Desde aproximadamente inicios del siglo XXI, se ha abierto un nuevo nicho de producción agrícola en Perú destinado a la producción de semillas híbridas para las grandes empresas transnacionales del sector. El clima, pero también las condiciones laborales, han sido dos condiciones muy favorables a la creación de este sector, pues la producción de semillas híbridas necesita de mucha mano de obra, que cuanto más "barata" sea mejor les resulta a las empresas que las producen. Para ello, las empresas semilleras deslocalizan la fase de la hibridación a territorios donde pueden abaratar los costes de la mano de obra. Perú encaja perfectamente con esta necesidad.

Estando ya con Diego, ingeniero agrónomo de la finca LimaHazi, empezó a darme más detalles de la producción semillera. Para la producción de semillas utilizan el mejor agua de la zona, el agua subterránea, para cuya extracción hace falta tecnología cara que no se utiliza para la producción de vegetales pues, me decía, que un virus llegue a un cultivo no es tan dañino como que ese virus llegue a la semilla, pues afectaría al conjunto del nuevo cultivo. Sin embargo, a esa explicación me parece que hace falta añadirle otro factor. Esas semillas se producen para exportarlas, principalmente a Europa y Estados Unidos, y debe garantizarse que a esos territorios no llegan determinados virus mediante la semilla. Parece que los virus no tienen el mismo valor y riesgo en esos diferentes territorios.

Asimismo, y al contrario de lo que pasa con el agua, como estas semillas no son alimento, la legislación que afecta a la producción de las plantas de la que saldrán estas semillas es mucho más flexible en relación al uso de agroquímicos que la que regula la producción de alimentos. Como no van a ser ingeridas, el riesgo para el consumo humano de la aplicación de esos productos parece desaparecer. Sin embargo, me pregunté enseguida cómo se regulaban o tenían en consideración las consecuencias que tiene el uso de tanto agroquímico para el entorno -aire, agua y tierra- y para la salud de las personas que ahí trabajan. Se trata de un factor que no comentan al decir por qué se ha llevado la hibridación de semillas a esos territorios, pero me parece que al clima y al coste de la mano de obra, habría que sumarle la externalización de los costes ecológicos de la producción de semilla y la búsqueda de regulaciones más laxas al respecto. Solo apunto a ello, pues me faltó poder acabar de contrastar estas cuestiones.

Finalmente, otro ejemplo de la colonización en la producción de híbridos F1, concretamente de tomates, lo vemos con el protocolo GSPP, que regula estrictamente la producción de las semillas que llevarán este sello para asegurar que no han cogido un virus que afecta mucho al

cultivo de tomate. Este protocolo se ha definido principalmente por las transnacionales semilleras, europeas y/o estadounidenses, y regula la producción de semilla híbrida en diferentes lugares del mundo. Homogeneiza, por lo tanto, todas esas producciones, en base a unos criterios definidos desde un lugar muy determinado: el capital transnacional del Norte Global.

El expolio, explotación y colonización de territorios en que se producen las semillas híbridas es evidente. Sin embargo, ¿dónde queda eso en la historia e identidad de los tomates Jack y del Euskal Tomatea? Mientras que frente al nosotros "vasco" y de "calidad" se construía ese sur peninsular generalizado como un "otro" productivo, el corte o límite establecido entre la producción de las semillas y los tomates no busca la construcción de ningún "otro", sino directamente su ocultación. En este caso, la construcción de calidad y el origen necesita hacer desaparecer la des-localización de la producción de las semillas y las relaciones de explotación y colonización que la estructuran.

Cuando lo miramos en su globalidad, el proceso que lleva a la producción de los tomates vascos de calidad se estructura en base a relaciones de explotación entre territorios. La producción transnacional no implica la desaparición de diferentes escalas territoriales e incluso de fronteras -jurídicas o de otro tipo- entre territorios y comunidades, sino precisamente una regulación que facilita todavía más la explotación de unos territorios sobre otros y, por lo tanto, la diferenciación y mayores desigualdades entre ellos. Sin embargo, para producir alimentos locales y de calidad es necesario esconder su dimensión transnacional. En este caso, hemos visto cómo se establecen diferentes "cortes" y límites discursivos en la producción de los tomates vascos de calidad que ayudan a la producción o imaginación de un nosotros-otros -que son tanto los tomates, como la calidad y los mismos vascos- frente a un otros -en este caso el sur peninsular dedicado a la producción agrícola industrial-. Se trata también de unos cortes que esconden partes del proceso productivo incompatibles con el contenido de la noción de origen y calidad alimentaria que quiere venderse con esos tomates.

7.4. Pureza, limpieza y tradición. ¿Lógica eugenésica en la producción de calidad y localidad?

El tomate es un fruto originario de los Andes, donde se han encontrado los ejemplares silvestres más antiguos. Domesticado también en tierras americanas, llegó al continente europeo como tantos otros cultivos, plantas y semillas, en los barcos que regresaban del expolio y colonización

de los continentes americanos. Tardó en llegar al País Vasco, y lo hizo desde diferentes lugares, si bien el relato mayormente escuchado hace referencia a la procedencia "extremeña", "gitana", "andaluza" o "maqueta" de este cultivo. Como hemos visto, desde estos territorios no llegó el cultivo de este fruto, sino sobre todo el consumo en crudo de tomate a las cocinas vascas. En contraste con la reticencia a incorporar otros alimentos "foráneos" a la cocina "autóctona", en los últimos años el tomate ha pasado de ser esa "comida de maquetos" al distintivo de un buen hortelano en la huerta -"la reina de la huerta"-, y también de las ensaladas. Asimismo, mientras que dentro de la marca Eusko Label otros frutos se identifican con poblaciones concretas, para el caso del tomate este se identifica como el Euskal Tomatea, convirtiéndose en el fruto que alimenta la "comunidad imaginada" vasca.

Sin embargo, y frente a lo que sucede con muchos de los alimentos localizados, en este caso la producción del origen y localidad de este producto no se basa en un vínculo con el territorio, atravesado y articulado por la genética del tomate -la variedad-, ni tampoco en la interpelación a un procedimiento tradicional de elaboración del mismo, que muestre el vínculo del producto con la comunidad. Es por ello que me preguntaba al inicio del capítulo acerca de cómo se produce la calidad y localidad de estos tomates y que he articulado el mismo para dar respuesta a esa pregunta inicial.

Mientras que en la producción de Jamón Ibérico, queso Idiazabal o Ibarako Piparrak, la genética -raza o variedad- es fundamental para la construcción del origen y localidad de estos productos, no sucede igual con el Euskal Tomatea. Aun así, en el proceso de construcción de la calidad de estos tomates, es igualmente fundamental la apelación a algún tipo de pureza y, por lo tanto, a su genética. En este caso, es en las fincas donde se hibridan los parentales para producir las variedades F1 que la genética de los mismos adquiere mayor relevancia. La pureza genética de estas semillas es una de las bases de la calidad de las mismas. Asimismo, junto a la genética, está también la importancia de la limpieza y desinfección de las mismas.

Sea apelando a la genética de las razas y variedades "tradicionales", o sea enfatizado la importancia de la pureza de variedades F1 que luego se borran del discurso y producción del origen, la pureza genética atraviesa de pleno la producción de estos alimentos localizados y de calidad. Amaya Corchuelo y Aguilar Criado (2012b; 2012a) enfatizan la importancia de la raza, el origen y la higiene en la producción del Jamón Ibérico. Asimismo, Contreras (2013) vincula la expansión de los productos locales al miedo generado frente a determinadas "crisis" alimentarias como la de las llamadas "vacas locas". Frente al miedo a lo de fuera, no solo se refuerzan medidas sanitarias en la producción alimentaria, sino también la idea de que lo

foráneo es más peligroso que lo local. Es en este contexto que emergen con fuerza los productos locales y de calidad, y la genética, y concretamente la pureza genética, toma un lugar relevante en ellos.

Hablamos de eugenesia al hablar de técnicas de selección genética en la reproducción humana. Cuando esto va de la mano de proyectos nacionalistas y/o imperialistas basados en la supuesta superioridad de determinadas razas, hablamos de discriminación, cuando esto sucede de forma generalizada incluso hablamos de genocidio, y suelen emerger en nuestro inconsciente colectivo las prácticas eugenésicas del nazismo. Volviendo ahora a los paralelismos realizados entre reproducción humana y vegetal, ¿podemos hablar de eugenesia vegetal? Propongo hacerlo, y pensar la producción de los alimentos locales y de calidad en estos términos, de acuerdo también con la propuesta biopolítica y tanatopolítica de Esposito (2006) ya referenciada. En este caso, además, no solo es la calidad la que necesita de la pureza genética, sino que la producción del origen y la localidad también va estrechamente de la mano del uso, cultivo o crianza de determinadas razas o variedades. La producción del origen alimentario necesita, por lo tanto, de algún tipo de vínculo de base genética con el territorio, que nos lleve a una historia o tradición lejana arraigada en un lugar concreto. Cuando, como en el caso de la variedad Jack, ese vínculo no existe, es la calidad, indisociable ahora de la producción del origen, la que necesita de la pureza genética.

En un contexto de producción de la diferencia, en el que parecería que se fomentan los particularismos y, con ello, la diversidad y heterogeneidad, a la vez que se produce la diferencia, esta se homogeneiza. Así, los procesos de producción de localidad y calidad son muy similares en diferentes lugares del planeta, y responden a las mismas lógicas de mercado. En otras palabras,

La identidad y el patrimonio son nuevos 'recursos' de la modernidad y de usos polivalentes. Ya no se trata de producciones mundiales que pierden la huella de su lugar de origen, sino de productos que lo encarnan (Contreras 2013, 52).

De acuerdo con Contreras, lo local vende -lo productos que lo encarnan, diríamos ahora-, pero lo hace de forma similar en diferentes lugares. Retomando palabras de Franklin et al. (2000a), en el contexto de una cultura global en que triunfa lo universal, la diversidad cultural tiene ahora la tarea de producir nuevas formas y productos universales. Así, en tanto que lo identitario es un "nuevo recurso", es absorbido y producido desde las lógicas del capitalismo del siglo XXI. La variedad Jack y los tomates vascos han encajado perfectamente en estas dinámicas.

Bukaerako hausnarketak

Bertakotasunaren eraikuntza tomateen historia kolonialean

Andeetan basa-landare gisa sortua, Perun bertan edota Mexikon domestikatua izan zen tomate landarea. Handik Europara ekartzean, ordea, jatorrizko izenari aldaketa txikia ezarri zitzaion jada. Mexikon “jitomatea” (*xtomatl*) zena “tomatea” (*tomatl*) izango zen handik aurrera “mundu zaharrea”, eta bertan emandako izena izan da gerora zabaldu eta egonkortu dena. Historia, badakigu, botere-guneetatik idazten da, eta izenak ere, Atxagak esan bezala²⁸⁸, nagusiak ematen ditu. Kostata, baina zabaldu zen tomateen ekoizpena eta kontsumoa Europan zehar. Egun, Perun, gordinik jateko bertako barietate gehienak desagerrarazi dituzten unean, Europatik “itzultzen” dira mahairako barietate zapoetsuak. Hartara, gaur egun, Perun, mahairako tomateak “tomate espagnolak” dira; kolonizazioaren ironia eta adierazle.

Jack eta *Euskal Tomatearen* kasuekin ere argi agertu zaigu beraien historiak baduela kolonialismotik ere; pobretutako lurralde, ekosistema, eta komunitateen esplotaziotik, espoliaziotik eta kolonizaziotik, hain zuzen. Kasu horretan, historia kolonial hori bateragarria da bertako produktu baten sorrerarekin. “Nola liteke, Euskal Tomatea *Monsantorena* den hazi batekin ekoiztea?”, galdetzen nion nire buruari tesiaren hasieran, eta hala galdetu didate behin eta berriz etnografia honetan zehar ere. Ikusi dugu, jada, nola den posible. Tomatearen historia koloniala eta hazien jatorria ezkutatzeko, barietateen singularizaziorako eta berauen jatorria sortzeko prozesuetan zenbait “mozketa” funtsezkoa izan da, eta badira; barietate eta tomateak

288 Ikus tesi honen 5. kapituluaren hasierako aipua.

ekoizteko eta ugaltzeko prozesua zatikatu egiten da, eta horren kontakizunean aldakorra den zenbait muga jartzen da.

Prozesu horrek, tomate hauetaz baino, elikagaien kalitate eta bereizketaz, identitateaz, bertakotasunaz, eta euskalduntasunaz hitz egiten digu. Elikagaien kalitatea eta jatorria produktuari erantsitako balioak dira, hots, produktuaren balioa areagotzen duten balioak. Hartara, kanpora begira eraikitakoak dira, produktua apaintzeko eta salgarri izateko. Produktuak berak “berez” omen dituen balizko ezaugarriei erreferentzia egin nahi diete baliook, baina lortzen dutena, batez ere, produktua mozorrotzea da, ahalik eta garbien eta osoen erakutsi nahi badute ere. Kalitatea eta jatorria ez daude produktuaren oinarrian, produktuaren ondorio dira; produktuarekin batera (bir)sortzen da kalitate eta jatorriaren ideia bera, baita bertakotasun eta euskalduntasunaren ideiak ere. Jack eta Euskal Tomatearen kasuan, bertakotasuna memoria eta identitate oso laburrean oinarritu da historikoki, eta hala da gaur egun ere. Gutxi dakigu barietatearen historiaz, sortu zutenez, eta EAEn eta Gipuzkoan daraman denboraz. Eta gutxi dakigu egun barietatearen jabeaz eta berorren haziak ekoizteko eta ugaltzeko prozesuaz. Horrek ahalbidetzen du tomate hauen euskal identitatea mundu mailako ekoizpen transnasionalean oinarritzea. Are, pobretutako lurralde, herrialde eta komunitateen espoliazioa du oinarri, eta horren ezkutaketa-prozesua ere, noski.

Euskal Tomatea, halaber, bera bezalako beste hainbat “kalitateko elikagai” bezala, nolabaiteko purutasun genetikoan oinarritzen da. Bertako barietateak edo arrazak erabiltzen diren kasuetan, horien genetikari lotzen zaio bertakotasuna eta produktuaren historia. Jack barietatearen kasuan ez da horrela gertatzen, ez baita bertako barietate bat. Edonola ere, genetikak badu garrantzirik bere identitate eta ekoizpenean: bere purutasuna da hazi-merkatuan bereizten duena eta hazien ugalketa-prozesuetan bermatu beharrekoa. Eraikitzen ari den jatorriarekin loturarik izan gabe ere, purutasuna Jack barietatearen hazien ekoizpenean gakoa da. Hartara, bertako barietateak erabili ala ez, kalitateko eta nolabaiteko jatorri bati lotua den produktu horretan, genetika eta purutasuna bermatu behar diren balio eta praktikak dira.

Purutasun hori iraunarazte aldera, eugenesikotzat har ditzakegun askotariko praktikak abian jartzen dira. Markaren barruan sar daitezkeen produktuek nolakoak izan behar duten zurruntasunez arautzen da -garbiak, homogeneoak, eta egonkorrak izan behar dute, besteak beste-, eta irizpide horiek betetzen ez dituen bizitza-forma oro markatik kanpo uzten da. Horrela, ezin dira bestelako tomateak edo bizitza-formak sortu eta bertako eta kalitateko

produktuen etiketetan txertatu; nolabaiteko bertakotasuna eta euskalduntasuna elikatzen duten “kalitateko bertako/euskal produktuak” nozioak “bestea” baztertu, ukatu edota galarazten duten praktika eugenesisikoetan oinarritzen dira. Kasu horretan, landareen bizitzari eragiten dioten praktika eugenesisikoez ari naiz. Edonola ere, euskalduntasuna, bertakotasuna eta komunitateak zein nazioak *Euskal Tomateak* bezalako produktuen bidez eraikitzeko prozesu eta mentalitatez hitz egiten digu horrek; *gutasun* kolektibo hauek nolabaiteko purutasun genetikoan eta praktika eugenesisikoetan oinarritzen dira, memoria oso motza eta estua duten identitateak sortuz.

Aretxabaletako Larrosa tomatearen kasuan, jatorriak zein bertakotasunak bestelako ñabardurak hartzen dituzte. Kasu horretan, haziak eta barietateak beraiek dira toki zehatz bati, herri bati, atxikiak agertzen zaizkigunak. Euskal Tomatearen kasuan tomateak EAEn ekoiztuak eta ontziratuak izateak egiten ditu fruituak “euskal”, hala nola fruituaren aurreko ekoizpena ezkutatzek. Aldaera zein eta nongoa den ez da esanguratsua bere jatorriarentzat. Edo, hobe esanda, fase horiek duten garrantziagatik beragatik itzalpean uzten dira, tomateen euskal jatorria eraiki ahal izateko. Bertako barietatearen kasuan, aldiz, guztiz bestelakoa da. Barietatea bera da errota eta bertakotu dena, eta toki zehatz batean gainera: Aretxabaleta herrian.

Kasu honetan, bertakotasunak baditu zenbait ertz eta esanahi. Alde batetik, labore barietateen kasuan “bertakoa” izateak tokian toki landatu, egokitu eta errota izana esan nahi du. Tokikotzat hartua izateko, gutxienez belaunaldi batez egon behar du barietate horrek toki zehatz batean -hau da, 30 urte gutxi gorabehera-. Planteamendua hau da: barietate batek toki zehatz batean belaunaldi baten denbora irauten duenean, kulturalki, sozialki eta ekologikoki toki horretara egokitua da. Bertakoa izateak, baina, baditu bestelako esangurak. Elikadura burujabetza eta agroekologia ideien inguruan batzen direnentzako, bertakoa izateak tokian tokikoa izatea ere esan nahi du, “0 kilometrokoa”. Eta horrek balio ekosoziala du. Bertatik bertara ekoiztua denak garraioan kalte ekologiko gutxiago eragiten ditu, tokian tokiko baldintzetara egokitzen da, eta zirkuitu laburren bidez merkaturatu ohi da. Horri, justizia sozialaren balioa ere erantzen zaio.

Bertako barietateen eta Aretxabaletako Larrosa tomate bezalako barietateen kasuetan, aldiz, bertakoa izateak badu Jacken kasuan ere ikusitako bestelako esanahirik. Bertakotasuna produktuari erantzen zaion balioa da, batzuetan horren atzean zer dagoen edo bertako zerk egiten duen oso ondo jakin gabe. Euskal tomatearekin gertatu bezala, Aretxabaletako Larrosarekin merkantilizazio- eta objektibizazio-joerak atzeman ditugu, eta horrelakoetan

tomatea bere harremanetatik at aurkezten zaigu, balioz osatutako produktu soil gisa. Kasu horretan, Aretxabaleta herriari ondo etorri zaio herria eta tomatearen arteko lotura: bertakoa izatea Aretxabaletakoa izatea da. Herriaren izena zabaldu eta herriari ospea zein mapan toki bat eman dio herriko tomateak.

Halaber, Aretxabaletako Larrosa tomatearen kasuan, Jackekin gertatu antzera, jatorria hasiera bezala aurkezten da; ez (bir)sortze modura. Tomatearen jatorria Aretxabaletan kokatzen da eta barietatearen historian bertara heldu aurretik gertatutakoa lurrundu egiten da. Horrela, berriz ere, aldaera horren jatorria zera estatiko eta monolitiko bezala eraikitzen da, eta memoria motza dauka. Izan ere, 40 urte baino ez daramatza tomate horrek Gipuzkoan eta Aretxabaletan. Bi barietateen artean aldeak nabarmenak badira ere, Aretxabaletako Larrosa tomatearen kasuan ere ikus ditzakegu Jacken kasuan nagusia den zenbait joera.

Barietateen ezaugarritzea eta singularizazioa bizitzaren kontrol eta kolonizaziorako bide? Singularizazioa eta dibertsifikazioa tentsioan

Un dispositivo de producción de una variedad nueva -el programa de híbridos- es propiamente una ontografía; un procedimiento de singularización sin el cual las nuevas variedades, como entidades materiales, no existirían (Cañedo, prentsan)²⁸⁹.

Barietate berri baten ekoizpenerako dispositibo bat -hibridoen programa- ontografia bat da berez; singularizazio-prozedura bat, zeina gabe barietate berriak, entitate material gisa, ez liratekeen existituko.

Montserrat Cañedo hibridoek ari zaigu baieztapen honen bidez hibridazio programek barietateak sortu egiten dituztela dionean. Barietateak ez dira abiapuntua, helmuga baizik. “No se parte de una variedad, sino que en todo caso se *llega* a ella”²⁹⁰ (prentsan), diosku. Erlazionalak dira. Barietateak sortzeko bidean, barietateei izena eman eta erregistratzeak berebiziko garrantzia hartzen du (Ibid.). Areago, dagoeneko izena duten eta erregistratuta dauden barietateen kasuetan ere, hauek tokiz eta testuinguruz mugitzen direnean estatus prekarioa hartzen dute. Bakarrik tokian tokiko lurrak, klimatologiak, nekazarien jakintza eta ekintzek, eta hazien ugalketan parte hartzen duten bestelako izakien jardunek bilakatuko du barietatea “barietate” (Ibid.).

289 Kapitulu honetan, nik neuk egin ditut jatorriz euskarazkoak ez ziren aipu eta testuen itzulpenak.

290 "Barietatea ez da abiapuntua; aitzitik, gehienaz ere horretara *heldzen da*".

Ikusi dugun moduan haxe da, argi eta garbi, Jack barietatearen kasua. Haziak Monsantoen zelai esperimentaletan sortuak dira, urterik urte modu berean ugaltzeko, elkar-ekintza eta elkar-eraginetarako aukerarik gabe. Hala ere, barietateak EAeko eta Gipuzkoako negutegietan egokitu eta onartua izatea behar du, "izan" ahal izateko, hots, Euskal Tomatea eta "hemengo tomate" bilakatzeko. Aretxabaletako Larrosa barietatearen kasuan ere barietatea singularizatzeko prozesu argia ikusten dugu. Errealaren mundura barietate berri bat sortu, marraztu eta gorpuzten da, kasu honetan ere barietateari izena ematea funtsezko ekintza delarik. Halaber, "Norenak dira haziak" jardunaldiaren baitan egin zen aitortza legalik gabeko erregistro parte-hartzaitetik harago, erregistro praktikekin elementu komunak dituzten praktikak ere nabarmendu dira bertako barietatearen kasuan. Horren historian eta definizioan funtsezkoak izan ziren 2000. hamarkadan zehar egin ziren ezaugarritze-, hautatze- eta hobetze-lanak. Barietatea ezagutu soilik ez, barietatea ezaugarritzearekin batera izenari izaera bat lotu zitzaion, aniztasunaren *continuumean* barietatea puntu zehatz batean kokatu eta mugatuz, behin-behinean bada ere. "Benetako" Aretxabaletako Larrosa tomatearen inguruan sortutako eztabaida eta "gatazka" horren isla da. Barietatea sortu eta identifikatu dela aldarrikatzen da, balizko identitate eta izaera bati erreferentzia egiten baitzaio. "Barietate bat da, eta horren inguruan nahasmena sortzen ari da", transmititzen zidan Patxik bere baratzeko txabolan mokadu bat hartzen ari ginelarik. Baina, era berean, barietatearen definizioa desegonkorra eta zalantzakoa ere badela sumatzen nuen Patxiren hitzetan, barietatea definitzen den unean bertan berorren inguruko zalantza eta gatazkak agertzen baitziren. Nolanahi ere, hibridoaren kasuetan ez bezala, bertako barietateen kasuan aldaketarako, nahasketa "genetikorako", eta deskontrolerako aukera handiagoa da beti. Belaunaldi berriekin batera gurutzaketa berriei eta aldaketei aukerak irekitzen zaizkie, eta berrikuntza eta kontserbazioaren artean dantzan ibiltzen dira nekazariak eta barietateak gordetzen dituztenak; aniztasunaren *continuumean* zerbait sortu eta egonkortu nahian, aniztasuna sortzen duten zenbait praktiketatik aldentu gabe. Tentsio horretan, barietateak sortzeko prozesuek, singularizazio-prozesuek, alegia, aniztasuna mugatu eta bizitza kontrolatzen -eta kolonizatzen- dute; edo, bederen, horretarako joera marrazten dute. Graduan, baina, oso bestelakoa da barietate hibrido eta komertzialekin gertatzen dena, edo bertako barietateekin ikusten duguna.

Hitz egin dut bizitzaren genetizazioaz (Franklin 2000), fetitxismo genetikoaz (Haraway 2004) eta, are hazien fetitxismoaz ere (Aistara 2011). Prozesu hauek argi ikusten dira hazi transgenikoekin (Franklin, Lury, eta Stacey 2000), baita hibridoekin ere, lan honetan erakutsi

nahi izan dudan bezala. Hazien purutasuna goreneko balioa da hibridoen ekoizpenean, eta haziak ugaltu eta ekoizteko prozesuak hori bermatzera bideratuta daude. Hazi hibridoen genealogia eta ahaidetasuna euren baitan eraikitzen da, beraien genetikari estuki lotuta, eta horrek beraien genealogia sozial zehatz eta mugatu batzuetara eramaten gaitu: beraien jabe eta “aita” sozialetara. Jacken kasuan, Monsanto eta Bayerreara. Horrek hazi hibridoen pribatizazio eta merkantilizazioa ahalbidetzen du. Halaber, hazi eta barietateetatik harago, tomate edo fruituekin ere antzeko merkantilizazio eta fetitxizazio prozesuak ikusten ditugu. “Euskal” tomateak, zigiludunak edo zigilurik gabeak, produktu huts bilakatzen dira; beraien harremanetatik kanpo, eta beraien historia sozial eta genealogikoa ezabatuta, balio erantsiek ematen diete salgai izateko balioa tomate horiei. Hazietatik tomate horietara doan historia, bideak, ibilbideak eta harremanak tomate horietatik ezkututzen dira, “Euskal Tomatearen” produktua sortu ahal izateko.

Transgenikoekin jada nabarmenduak izan dira prozesu hauek, eta hibridoen kasuan ere merkantilizazio eta pribatizazio prozesuak nabarmenak dira. Horrek, apika, ez gaitu erabat harritzen baina, hala ere, nabarmendu behar dugulakoan nago. Izan ere, nekazaritzaren inguruko iruditegi kritikoan barietate transgenikoak oso demonizatuta daude, baina hibridoen inguruan, aldiz, askoz gutxiago entzuten da nahiz eta azkenengo hauek diren, bereziki, azkenengo mendean zehar nekazaritzaren eraldaketaren erantzuleetako bat eta, beraz, nekazaritzan sortutako aniztasun biologikoaren galeraren erantzule nagusietakoak. Edonola ere, hibridoetatik at, bertako barietateekin gertatzen ari diren zenbait prozesutan ere merkantilizazio-, objektibizazio- eta fetitxizazio-joerak ikus ditzakegu; bizitzaren kontrol eta kolonizatorako joerak edo arriskuak, alegia. Aretxabaletako Larrosa tomate barietatearen azkenengo faseetan horrelakorik suma dezakegu jada, joera edo arrisku txikiak baino ez badira ere. Nabarmena da, zentzu horretan, azkenengo urteotan tomatearengan jarri den arreta. Hainbatetan, bere harremanetatik at, haziengandik bereizita, eta ekoizpen- zein ugalketa-prozesuetatik aldentuta agertu dira Aretxabaletako Larrosa barietateko tomateak. Produktu bilakatzen edo jada bilakatuta horrelakoetan beren historia, eta inguruko aniztasuna eta harremanak eteten dira, eta izaki isolatu gisa agertzen zaigu.

Barietateak singularitu eta, beraz, ezaugarritu, bereizi eta identifikatzeko praktikak bizitzaren kontrol eta kolonizatorako praktika moduan agertu zaizkigu. Bizitzaren aniztasunaren *continuumean* puntu batean eten eta ugaltu nahi da bizitza, beti berdina -edo ia- ugaltu eta birsortu nahian. Bizitza eta ugalketa -“la generación”, Donna Harawayen terminoetan- basatia da, eta izaki kontrolaezinak, onartezinak, desegokiak eta jabetu ezinak sortzen ditu, *besteak*,

funtsean. Bizitza-formei izena jarri, ezaugarritu eta bere horretan ugaltu nahi direnean, bizitza bera regulatu, sailkatu, eta kategorietan sartzen da, edo horretan sailtu bederen. Harawayen onartezinak eta jabetu ezinak diren besteak taxonetan sartzen ez direnak baldin badira, taxonetan sartzen diren horiek apropiatuak eta, beraz, kontrolatuak eta kolonizatuak dira. Gizakiokin bezala, landareei pasaporteak eta herritartasuna ematen zaie -Guntra A. Aistarak (2014) “citizenship of plant varieties” ideia erabiltzen du-, eta horrek normalizatu eta arautu egiten ditu; bizitza kolonizatu, finean.

Esan bezala, “bertako” barietateetan eta, zehazki, Aretxabaletako Larrosa tomatean barietateak arautu eta mugatzeko joerak ikusten ditugu. Hortaz, barietate horren inguruko zenbait prozesu bizitzaren kontrol eta kolonizaziorako prozesu gisa pentsa dezakegu. Hala eta guztiz ere, hibridoaren ugalketa eta ekoizpen praktiketatik bertakoenetara jauzi kualitatiboa nabarmena da. Hartara, bertakoen kasuetarako joerak edo arriskuak aipatu ditut eta ez, momentuz, kolonizaziorako-prozesuak. Izan ere, pribatizaziorako, objektibizaziorako eta kontrolerako praktika horiekin batera, bizitzaren ugalketa kaotikorako eta “bestelako” izakiak sortzeko aukerak oraindik bertako barietateen ugalketaren baitan dira.

Areago, bertako barietateen ekoizpen, ugalketa eta hedatzean, singularizazio eta dibertsifikazioaren arteko etengabeko tentsioa identifikatu dut. Bertako barietateak bioaniztasuna zaintzeko eta tokian tokiko praktikak, jakintzak eta haziak bizirauteko asmotan aldarrikatu, landatu eta ugaltu egiten dira. Bide horretan, baina, horiei izena jarri, ezaugarritu, forma eman, eta identifikatu egin behar dira; ia-ia produktu gisara-edo, identifikatu gabe zaila baita izaki bati aitortza eta bultzada ematea. Horrek, ordea, egoera kontraesankorreen kokatzen gaitu. Barietateak, esan bezala, aniztasunaren *continuumean* sortzen dira, aniztasun horren ondorioa dira, baita tokian tokiko nekazaritza-praktika zehatz batzuen ondorioa ere. Halaber, barietateak, barietate moduan identifikatuta egon gabe ere, aniztasunaren sorrera dira. Horiek ugaltzen, trukutzen eta zabaltzen sortu egin dira barietate berriak. Barietate bat bere horretan identifikatu eta gorde nahi denean, aldiz, aniztasuna eta izaki berriak sortzeko bide hori eten edo moteltzen da. Sortutako aniztasuna “gordetzeko”, identifikatu, *kosifikatu* eta bere horretan sortu eta gorde behar da, singularizatuz.

Halaxe gertatzen dela ikusi dut, hein batean, etnografia honetan. Baina errealitatea ez da zuri ez beltz; tentsio horretan singularizazioa eta dibertsifikazioa elkarrekin bizi dira, elkarren ondoan, beti orekatua ez den harremanean. Singularizaziorako arriskuak ikusi ditugu Aretxabaletako Larrosa barietatearen kasuan baina, hala ere, aldaeraren bueltan dagoen

aniztasun sozial, kultural eta biologikoari esker, singularizaziorako joerek ez dituzte aniztasuna sortzeko bide guztiak galarazten. Hau da, barietatearen ugalketan eta ekoizpenean parte hartzen duten subjektu, toki eta praktiken aniztasuna erabakigarria da barietatearen inguruan aniztasuna sortzen jarraitzeko. Halaber, barietateak ugaltzeko prozesu bioteknologikoa ere gakoa da honetan. Izan ere, edonork ugaltzeko bere baratzean barietate hori, eta urterik urte egin behar da. Gainera, askotariko toki eta baldintzetan egiten ari da, eta horrek bestelako bizitzak sortzeko bideak ireki eta ugaritu egiten ditu. Azkenik, barietatearen egonkortasuna bilatuta ere, eskuz loreen polinizazioa egiten ez dugun artean hibridazio berrietarako aukerak irekita daude.

Gauzak horrela eta arriskuak arrisku, pribatizaziorako, kontrolerako eta kolonizaziorako joerak ekiditeko, haziak eta aldaerak bere horretan gordetzeko objektutzat baino, nekazaritzako jardunean eta aniztasunaren sorreran bidelagun eta konplize ditugun izakitzat hartzea proposatu dut tesi honetan. Esana zidan jada bere baratzean askotariko haziak gorde eta ugaltzen dituen Juanek elkarrizketa batean: espezieen arteko bizitza-mataza honetan, gordailu batean biltzeko objektu baino, izaki konplize eta aliatuak ditugu haziak, elkar-eraginean, elkarrekikotasunean, eta elkar-zaintzan oinarritutako harremanetan.

Ugalketa-koreografiak²⁹¹ eta transespezie ahaidetasunak: bestelako ekologia batzuetarako bide?

Haziak hibridatzeko etxaldean, Perun, aurreikusi nitzakeen baina ordura arte oraindik “ikusteko” gai izan ez nintzen gaiak gain hartu zidaten: bertakotasunaren lurraldetasuna, batetik, eta ugalketa eta ahaidetasunari lotutakoak, bestetik. Lehenengo une batean, bertan sexu eta generoaren erretorikak zuen presentzia deigarri egin zitzaidan eta, horrekin batera eta berehala, bertan ikusten ari nintzena eta gizakion “laguntza” bidezko ugalketaren arteko paralelismo edo zubiek ere nire arreta bereganatu zuten. Maria Zapatarekin egina nuen jada bi eremu “ezberdinen” arteko lanketa bateratua eta konparatiboa eta, oraingoan ere, antzeko ariketa egin nezakeen gizakion eta landareen ugalketaren artean. Ariketa hori, beraz, hibridoaren ugalketari loturik hasi nuen. Berehala, baina, bertako barietatearen kasuarekin ere antzera egiten hasi nintzen. Esan bezala, aurreikusten ez banuen ere, ugalketa eta ahaidetasuna lekuan lekuko lanean azaleratu eta tesian nabarmendu diren gaiak izan dira. Denboraren

291 Horrela euskaratzen dut Thompsonen "ontological choreography" terminoa.

begiradarekin harrigarria egin zait lehenago horretan arreta jarri ez izana. Edonola ere, hori lekuan lekuko lanaren indarraz ari zaigu. Horretarako, baina, lekuan lekuko lanera irekita joan behar gara, asalda gaitzan eta ikusten ez ditugun bideak ireki diezazkigun.

Ugalketari dagokionean, alde nabarmen bat identifikatu dut Jack edo hazi hibrido eta Aretxabaletako Larrosa edo bertako hazien artean. Hibridoen kasuan, beti berdin-berdinak diren parentaletatik sortzen dira, eta horietatik aurrerako bizitza-aukerak galarazten dira. Bizitza toki batean finkatu eta mantentzen da, izaki berdinak sortu eta bilatuz. Bertako barietateen kasuan, berriz, urtero hazi berriak erein eta ugaltzen dira, baita barietatearen belaunaldi berriak sortu ere. Horien inguruan kontrol-mekanismoak egon arren, bizitza eta izaki berriak sortzen dira; belaunaldiz belaunaldi inguruko harreman eta izakiei irekita daudenak, horiekin elkar-eraginean eta elkar-eraturaz. Hartara, bizitzaren kontrola mugatuagoa da, eta ezberdina, arraroa edo aurreikusi ezin daitekeenarentzako aukerak zabalagoak dira.

Bi barietate mota hauen arteko aldea argi ikusi arren analitikoki aztertzea zailagoa izan zait, feminismotik edaten duen begirada kritikoarekin egin nahi bainuen. Nire buruarekin eta beste batzuekin asko eztabaidatu ondoren, landareen ugalketaren analisi teknobiopolitikora heldu naiz, baita aniztasunaren inguruan hausnarketa feministak jaso eta garatzera ere. Halaber, ugalketan identifikatutako alde nabarmen horretatik tiraka, hazi eta barietateen inguruan sortzen diren genealogia eta ahaidetasun-harremanetara ere heldu naiz. Eta, kasu horretan ere, nabarmenak dira barietate hibrido eta bertako barietatearen arteko aldeak.

Aretxabaletako Larrosa barietatearen kasuan, bereziki lehenengo belaunaldietan, barietatearen inguruan sortutako harremanak belaunaldi gisa aztertzea proposatu dut. Hartara, horien bidez barietatearen genealogia osatu dut, genealogia soziala. Barietatearen eraketan, hazi eta tomateekin batera giza-harremanek, gizakion praktikek, zein landare eta gizakion arteko harremanek -multiespezie-harremanek- toki nabarmena hartu dute. Aretxabaletako Larrosa barietatearen identitatean, beraz, bere genealogia soziala nabarmentzen da. Hala ere, azkenengo urteotan, belanunaldiak desegituratzen eta difuminatzen joan dira, eta barietateak izaera autonomoagoa hartu du; bere nortasun genetikoa gailentzen hasi da eta, horrekin batera, barietatearen genealogian toki gehiago hartu du genetikak, lotura sozialek baino.

Jack barietatearen kasuan, aldiz, genetikak hartzen du protagonismoa, eta hori da zaindu eta bermatu behar dena, baita ezkutatu ere. Barietatearen izaera eta purutasun genetikoa

ezkutatzeke eta bermatzeko bideek, baina, bestelako genealogia sozialez hitz egiten digute; jabegoa eta, kasu honetan eta ez kasualitatez, aitatasuna lotzen duten genealogiez, hain zuzen: Monsanto -edo Bayer- da barietatearen jabea eta aita edo ahaide. Hainbatetan ezkutatu nahi izan bada ere, barietatearen identitatean horrek du tokia nagusia. Eta, agian, horrek bestelako genealogiez eta loturez hitz egiten digu. Sarah Franklin, Celia Lury eta Jackie Staceyk (2000) proposatu bezala, Jack barietatearen genealogia egitean “markaren” genealogia egin genezake, eta hala egin beharko genuke. Bere genealogia soziala haziaren bueltako salerosketek eta jabetza-aldaketek osatzen dute, eta elikagaien industriaren sektorean azkenengo hamarkadotan egon diren batuketa eta erosketek barietateari zuzen eragin diote: enpresaz enpresa pasa da barietatea, beste une eta toki batzuetan haziak eskuz esku pasatzen diren moduan.

Jack eta Aretxabaletako Larrosaren artean nabarmendutako aldeak, baina, ez dira bi barietate isolatu hauen kasua bakarrik. Franklin et al. (2000), eta Aistarak (2011), besteak beste, jada jasoa zuten hazi eta barietateen inguruan genealogiak eta ahaidetasunaren hiztegiak duen pisua eta, hori aztertzerakoan, bertako barietate eta barietate hibrido, transgeniko edo erregistratutakoen arteko aldeak aztertutak zituzten. Kasu honetan, baina, Aretxabaletako Larrosa eta Jack barietateen arteko aldeak beraiek nabarmentzeaz gain, Aretxabaletako Larrosaren historiaren eta bilakaeraren baitan agertzen zaizkigun logika ezberdinak nabarmendu nahi ditut. Esan bezala, hasieran genealogia sozialek pisu handiagoa izan bazuten, azkenengo urte eta hamarkadotan genetika nabarmendu da, eta barietatearen nortasuna bere baitako zerbaiten gisara eraiki da. Hori gertatu da, eta ez kasualitatez, arreta gero eta gehiago fruituarengan jarri denean, eta barietatea objektibizatzen eta merkantilizatzen zein fetitxizatzen hasi den garai berean.

Aretxabaletako Larrosa barietatearen ugalketa-prozesu eta -praktiketan, baina, aldaketa nabarmenak egon dira. Horiei begira jarri naiz, bioaniztasunaren auzia buruan: nola eragiten diote ugalketa-praktika horiek bizitzaren aniztasunari? Hasiera batean, aniztasun hori sortu duten praktikak desagertu edo gutxitzean aniztasuna sortzeko bideak beraiek ere agortzen zirela pentsatu nuen. Horrenbestez, aldaketa horien aurrean kritiko agertzen nintzen, bioaniztasunaren sorrera eragozten baitzuten. Hala, Aretxabaletako Larrosa barietatea gordetzeko asmotan, haziak ugaltzeko prozesuak konplexuago bilakatu eta zatikatzen ziren, baratze bakar batetik ateratzen ziren, alegia, eta hori problematikoa iruditzen zitzaidan. Izan ere, bertako barietateak tokian toki ugaltzen eta urtero baratze berdinetan ereiten, landatzen,

eta haziak erauzten sortu eta gorde izan dira urteetan zehar, eta dinamika hori apurtzean, bioaniztasuna sortzeko bideak ere arriskuan jartzen zirela ondorioztatu nuen. Aitzitik, gaiaren bueltan hausnarrean eta beste batzuekin eztabaidatzen ibili ostean, bestela ikusi dut. Horretarako ere, ugalketaren inguruko lanek lagundu didate. Azkenean, Aretxabaletako Larrosa bariatatearen ugalketaz jarduteko bariatateen ugalketa-koreografiaz hitz egitea erabaki dut. Kontzeptu horrek ugalketan parte hartzen duten bestelako subjektu eta ekintzak “ikusi” eta aitortzen lagundu dit. Kasu horretan, baratzte bakar batean eta pertsona bakar batek edo gutxi batzuen eskutan baino, Aretxabaletako Larrosa tomatea sare konplexuago eta zabalagoetan ugaltzen ari da egun. Tokian toki errotzen eta egokitzen ari da, eta bere inguruan aniztasuna sortzeko bideak egon, badaude. Ez dira, aldiz, duela hiru hamarkada zeuden berdinak, izan ere, bizitza sortu eta birsortzeko bideak aldatu dira, baita landareen munduan ere, eta bariatateen ugalketa-koreografien aldaketak horien isla dira.

Bestalde, landareen ugalketaz aritu arren, aldaketa hauek eta bariatateen egungo ugalketa-koreografiak feminismotik ugalketaz pentsatzeko eta hausnartzeko baliagarriak zaizkigulakoan nago. Egun, Aretxabaletako Larrosa bariatatearen ugalketan mota ezberdinetako izakiek hartzen dute parte, eta horrek ugalketa bikotetik eta dimorfismo sexualetik harago doala erakusten digu. Gizakion kasurako, usu, “laguntza bidezko” ugalketaren bueltan erabiltzen da problematikoa suertatzen zaidan adierazpena: “hirugarrenen” parte-hartzea. Nago, horrelako adierazpen batekin, balizko normaltasuna berresten dela, hots ohikoena ugalketan bi pertsona parte-hartzea dela eta, hala denean, gizon eta emakume bana direla. Guztiz bestela, koito bidezko ernalketan eta ugalketa heterosexualean ere ugalketa-koreografiak konplexuagoak dira. Bada, Aretxabaletako Larrosa bariatatearen kasuan askoz agerikoagoa egiten da askotariko parte-hartze hori, eta uste dut horrelako kasuek ugalketa heterosexualitatetik eta bikote-ereduetatik ateratzen laguntzen digutela. Horretarako, koreografia hitza erabat aproposa iruditzen zait. Nire ustez, kontzeptu hau oso baliagarria izan daiteke ugalketan esku hartzen duten harreman eta ekintza konplexuak erakusteko, eta prozesu horiek ugalketaren eta sexualitatearen azalpen biologizista eta heteronormatibora mugatu ezin direla agerian uzteko.

Halaber, bereziki Aretxabaletako Larrosa bariatatearen kasuan berriz ere, belaunaldi eta genealogiaz aritu naiz. Jacken kasuan ere, bariatate eta pertsonen arteko genealogiak topa ditugu, baina kasu horretan bestelako logika batzuekin. Feminismoaren ikuspegitik lehenengoak bigarrenak baino interesgarriagoak zaizkit. Nolanahi ere, Jacken zein

Aretxabaletako Larrosa barietatearen bueltan identifikatu ditudan genealogiek espezieetik, odoletik eta familia heteronormatibotik kanpo edo harago doazen genealogiez hitz egiten digute, bestelako harreman eta loturetan arreta jartzen lagunduz, eta bestelako aitortzak sortuz. Hau feminismotik aldarrikatu eta aldarrikatzen den zerbait da, baita lan honekin egin nahi izan dudana ere. Oraingo honetan, gizonak presentzia handia hartu dute marraztutako genealogietan. Beraiei aitortza eman baino -edo horretaz gain-, genealogia horietan jada dauden aitortzak erakutsi nahi izan ditut; genealogia horiek ageri egitean, bertan dauden aitortza-jokoak, pribilegio eta botere-harremanak mahai-gainean jarri nahi izan ditut. Beharbada, beste lan baterako geratzen da emakumeen arteko aliantza eta genealogiak marraztea. Oraingo honetan, eta zentzu ezberdinetan, “subalternitatearen” edo bazterretakoen etnografia egiten baino, erosoago sentitu naiz boteredunen eta pribilegiatuen inguruko lana egiten, Debagoienako nekazari gizonak “boteredun” edota “pribilegiatu” izendatu ahal baditugu.

Edonola ere, genealogia hauek bestelako genealogiak dira. Besteak beste espeziearen mugak zeharkatzen dituzten “transespezie genealogiak”. Horiekin batera, transespezie ahaidetasunaz ere mintzatu naiz lan honetan. Hazkuntzatik haragoko ahaidetasun kontzeptua erabili badut ere, barietateen bueltako hazkuntza harremanak gakoak izan dira horien ahaidetasun harremanak sortzeko eta identifikatzeko. Hazkuntza bizitzaren jarraikortasunerako gakoa da, landare eta barietateen kasuetan ere, eta zaintza praktikekin batera horren bueltan eraikitzen dira harreman afektibo sendoak pertsona eta landareen artean. Hazkuntza harremanak elkarrekikoak dira, eta landareak eta pertsonak parez-pare jartzen dituzte; elkarren menpe, elkarren lagun, “eko-inderdependiente”. Antropozeno eta kapitalozenoaren garaian, bizitza agortzen ari den garaian, aliantza hauek bestelako aterpe eta bizitzak sortzeko bideak dira; Chthuluzenorako fikzio eta errealtatea.

A diferencia del Antropoceno o el Capitaloceno, el Chthuluceno está hecho a partir de historias y prácticas multiespecies en curso de devenir-con, en tiempos que permanecen en riesgo, tiempos precarios en los que el mundo no está terminado y el cielo no ha caído, todavía... Estamos en riesgo mutuo. Contrariamente a los dramas dominantes en el discurso del Antropoceno y el Capitaloceno, los seres humanos no son los únicos actores importantes en el Chthuluceno, con todo el resto de seres capaces solo de reaccionar. El orden ha sido retejido: los seres humanos son de y están con la tierra, y los poderes bióticos y abióticos de esta tierra son la historia principal (Haraway 2019, 95).

Antropozenoa edo Kapitalozenoa ez bezala, Chthuluzenoa elkar-bilakatzen diren istorio eta praktika multi-espezieen bidez egina dago, arriskuan dauden garaietan, oraindik mundua finitu gabe eta zerua erori gabe dagoen garai prekarioetan... Elkarren arriskuan gaude. Antropozenoaren eta Kapitalozenoaren diskurtsoan nagusi diren drametan ez bezala, gizakiak ez dira Chthulucenoko aktore garrantzitsu bakarrak, erreakzionatzeko gauza besterik ez diren gainerako izaki guztiekin.

Ordena aldatu egin da: gizakiak lurrarenak eta lurrarekin dira eta daude, eta lur horren botere biotiko eta abiotikoak dira historia nagusia.

El chthuluceno, todavía inacabado, debe recolectar la basura del Antropoceno, el exterminismo del Capitaloceno; trocear, triturar y apilar como un jardinero loco, hacer una pila de compost mucho más caliente para pasados, presentes y futuros aún posibles (Ibid. 2019, 98).

Oraindik amaitu gabe dagoen chthulucenoak Antropozenoaren zaborra bildu behar du, Kapitalozenoaren sarraskia; lorezain zoro gisa zatitu, txikitu eta pilatu; iragan, orainaldi eta oraindik posible diren etorkizunetarako konposta pila askoz beroagoa egin.

Beharbada ez naiz Haraway bezain “optimista”, baina nago Aretxabaletako Larrosaren bueltako harremanak eta praktikak Antropozenoaren eta Kapitalozenoaren zaborrak direla, baita balizko Chthuluzeno baterako konpostaren osagaiak ere. Egun, barietate hau baldin bada, beraren bueltan sortu diren espezieen arteko eta espezieen zeharreko harremanei esker da. Aretxabaletako Larrosa tomatearekin batera, Debagoienako eta Gipuzkoako zenbait etxalde, baratze eta nekazari baldin bada, barietate horrekin sortutako aliantza, konplizitate eta ahaidetasun-harremanengatik da.

Aniztasun (biologiko)aren berrirakurketa teknobiopolitiko

Landutako bioaniztasuna tesiaren abiapuntuan zegoen, eta tesia zeharkatu du, nahita edo nahi gabe. Aitzitik, azkar konturatu nintzen kontraesankor eta arazotsua suertatzen zaidala. Bioaniztasuna, kontzeptu moduan, aniztasun biologikoa galtzen ari den unean definitzen da, eta halaber, galera hori eragin duen sistema eta eredu berberetatik eman nahi zaio arazoari konponbidea. Kontraesankorra da. Edo gurpil zoroa. Natura ustiatu edo babestu beharreko zerbait gisa eraikitzen duen natura/kultura dikotomiara garamatzen kontzeptua da. Franklin eta enparauen hitzetan, "Biodiversity is precisely the kind of emergent cultural value by means of which it is possible to trace the paths of what we call new universalist esencialisms in the production of global nature" (2000, 84)²⁹². Alegia, bioaniztasuna “kontserbazionismora” eramaten gaituen kontzeptua dugu.

Beraz, landutako bioaniztasuna terminoa ahalik eta gutxien erabiltzen saiatu naiz, berez ontzat hartzen den eta problematizatzen ez den kontzeptutik ihes egin nahian. Nolanahi ere, ez dut

292 "Bioaniztasuna da, hain zuzen, sortzen ari den balio kultural mota bat, zeinetatik Natura Globalaren ekoizpenean esentzialismo unibertsal berriak deitzen ditugun bideak marraz daitezkeen".

aniztasunaren kontzeptua erabat zokoratu nahi izan. Ikuspegi feminista batetik -ere- bazegoen aniztasunean interesatzen zitzaidan zerbait, denbora luzez zer zen argi izan ez arren. Bestetik, Jack eta Aretxabaletako Larrosa barietateen arteko zenbait diferentzi ulertzeko eta azaltzeko baliagarri zitzaidan. Batez ere ugalketa prozesu eta praktikei lotutako zenbait diferentzia azaltzeko eta horietaz, edo horiekin, hausnartzeko. Halaber, Aistarak (2011) ere aniztasuna hazien ugalketarekin lotzen du. Kasu honetan, hazien ugalketaren bueltan sortzen diren harremanei, ahaidetasun-harremanei lotzen die. Aniztasunaren definizio kualitatibo baten alde egiten du hark; nekazarietat bioaniztasuna erabilgarri dagoen hazi kopurutik harago doa, eta estuki lotuta dago familia eta laguntasun sareekin. Aniztasun biologikoa ezin da aniztasun sozial eta kulturaletik bereizi, eta lehenengoaren galera, halaber, bigarren eta hirugarrenaren galeraren eskutik doa.

Jack kasuarekin alderatuz, Aretxabaletako Larrosaren ugalketan bestelako bizitza biologiko, sozial eta kulturalak sortzeko aukera gehiago daude. Batetik, ugalketaren prozesu biologikoa bera irekiagoa delako; urterik urte eta toki ezberdinetan haziak ugaltzen direlako, belaunaldi berriei toki eginez. Bestetik, barietatearen beraren zein bere ugalketaren bueltan ere askotariko praktika, subjektu eta ekimenak aurkitzen ditugulako. Aniztasun soziokultural hori aniztasun biologikoaren bermea da eta, beraz, bioaniztasunaren gaiak aritzean, ugalketa biologikoari berari begiratzeaz gain -nik hasiera batean gehiegi jarri nuen arreta horretan-, ugalketan gakoak diren bestelako praktika, harreman eta subjektuei begira ere jarri behar gara. Oraingoan, baina, ez nuke nahi berriz ere aniztasuna berez positiboa den balioztat hartu. Zer dela eta, orduan, nabarmendu nahi dut Aretxabaletako Larrosa barietatearen bueltan edo bertako barietateen bueltan sortzen den bizitza eta kultura aniztasuna? Bertako haziak “*criollas*” izendatzen dira hainbat tokitan. Kreolizazioak haziak nahasteko, bertakotzeko eta egokitzeko prozesuei erreferentzia egiten die, baina hortik haragoko esanahia ere ematen dio Aistarak (2011). Hizkuntzaren arloan egindako lan eta ekarpenei jarraiki, kreolizazioa nahasketatik harago doan zerbait dela diosku. Kreolizazioa subertsio leunerako bidea da, kode menderatzaile eta hegemonikoak desegonkortzeko modua. Hartara, hazien kreolizazioarekin nagusi diren botere-harremanen aurka egiten dugu, hots, hazi kreoleak botere harremanak desegonkortzeko bidea dira. Hazien erregistroarekin, aldiz, purutasuna bilatu eta finkatu, izen bat eman, eta kategorizatu zein erregistratu egiten dira haziak, gerora, “berdin” mantentzeko. Horien aurrean, hazi kreoleak onartezina edo desegokia eta jabetu ezina den bestea dira, “*otras inapropiadas/inapropiables*” (Haraway 1999). Halaber, horiekin batera “bestelako” harremanak ere sortzen dira:

The act of producing and reproducing creole seeds is thus a direct challenge to existing power relations. And as organic farmers do this, they also restructure their kin networks to form broader cultures of relatedness with their peers. This represents a creolization of their kin-based exchange networks, by adapting to changing conditions and their own cultural preferences. Thus, creolization of organic seeds and of farmer kin networks act as mutually reinforcing forms of cultural and agricultural resistance (Aistara 2011, 498).

Beraz, hazi kreolak ekoitzi eta ugaltzea botere-harremanei zuzeneko erronka botatzea da. Eta nekazari organikoek hori egiten dutenean, familia-sareak ere berregituratu egiten dituzte, beraien kide edo berdinekin harreman-kultura zabalagoak sortuz. Horrek familian oinarritutako truke-sareen kreolizazioa dakar, baldintza aldakorretara eta norberaren kultura-lehentasunetara egokitzearen bidez. Hala, hazi organikoen eta nekazari-sareen kreolizazioa elkar indartzen diren kultura eta nekazaritza erresistentzia formak dira.

Kreolizazioa, beraz, nahasketa hutsetik harago doa. Erregistratutako hazien kasuan ez bezala, sailkatu, menperatu eta erabat kontrolatu ezin daitezkeen bizitzak sortzen dira kreolizazioaren ondorioz. Hauen balioa berezkoa da, eta, aldi berean, ez da hala. Ez da berezkoa zenbaki huts bezala. Ez dute berezko balioa izaki berri edo ezberdin gisara. Balioa dute, proposatzen dut, onartezinak, desagokiak eta jabetzen ezinak diren heinean, Harawayen (1999) terminoetan; bestea, arraroa eta “xenoa” diren heinean, Helen Hesterren (2018) terminoetan; bestelako bizitzak bizigarri edo negargarri egiten dituzten heinean, Judith Butlerren (2010) hitzetan; egonkortasuna, emankortasuna eta ekoizpena bultzatzen duen teknobiopolitika arrazista, kapitalista eta heteropatriarkaletik kanpoko bizitzak diren heinean. Bizitza basati, espero ezinak eta zenbatu ezinak sortzeko aukera dago bertako barietateen eta Aretxabaletako Larrosa tomateen ugalketan, eta horri eman nahi diot orain garrantzia. Juanek haziak gure aliatu eta konplizeak direla esan bazidan, gure ahaideak direla diot nik, ez bere horretan gorde beharreko zerbait. Haziak trukatu, gorde eta ugaltzeko praktikak, orduan, aniztasuna eta “bestelako bizitza” sortzeko praktika gisa interesatzen zaizkit, "bioaniztasuna sortzeko gune" (Van Dooren 2008) bezala interesatzen zaizkit; ez, ordea, haziak ondo sailkatuta eta “beti berdin” gordetzeko praktika gisa. Ez zait (bio)aniztasuna bera interesatzen, baizik eta, batez ere, bestelako harreman eta bizitzak, arraroak, xenoak, desagokiak eta negargarriak sortzea ahalbidetzen eta sustatzen duten jardunbide eta harremanak. Sortzen dituzten harreman eta bizitzak interesatzen zaizkit: kontrolaezinak, ez-emankorrak, eta aurreikusi ezinekoak; teknobiopolitika kapitalista eta heteropatriarkala ezegonkortzeko harremanak eta bizitzak; Antropozeno eta Kapitalozenoren zaborretatik sortu eta etorkizun posible eta bizigarrirako konpostaren osagaiak diren harreman eta bizitzak.

Feminismotik zientzia eta bere kontzeptuak arrakalatu

Duela hogeit hamar urte baino gehiago jada, Harawayk (1995) feministak interpelatu, eta feministek bizitzaren eta naturaren bestelako zientzia eraikitzeke ardura har zezaten/genezan proposatu zuen, feminismoarentzat eta ekologismoarentzat erraza ez den ardura hartzeko deia eginez. Zientzia -ekintza eta fikzioa- errealtatea sortzen duen botere-gunea da, eta, hartara, bestelako mundu bat adierazi, sortu eta definitzeko asmoz ekofeminismotik zientzia eraikitzeke gonbita edo interpelazioa bota zuen. XXI. mendean ondo sartuta gauden honetan, bere hitzak ez dira basamortuko oasi baten moduan galdu; bide hori jorratu du dagoeneko hainbat eta hainbat ekintzaile, ikerlari eta pentsalari feministak. Tesi hau eta bertan erabilitako bibliografia horren adierazlea izatea nahi izan dut, neurriren batean. Halaber, duela hogeita piku urteko Harawayen aldarri eta gonbidapen horrek ez du zentzurik galdu, eta gaurkotasuna dario. Horren isla eta froga gisa ere tesi hau. Feminismotik zein ingurugiro-antropologiatik mendebaldeko pentsamenduan era estatiko eta monolitikoan agerrarazi zaizkigun zenbait kontzeptutan arrakalak sortu eta mundu errealean aurkitutako praktika zein esanahiak jaso eta erakusten ahalegindu naiz. Sexu, genero eta sexualitateari dagozkien kontzeptuak landareen ugalketan gizakionean bezain nahastuta eta estuki lotuta agertzen direla eta eredu heteronormatiboa biologiatik elikatzen dela erakutsi nahi izan dut. Halaber, ugalketan oinarritutako “espezie” taxonaren mugak erakutsi nahi izan ditut, transespezie ahaidetasuna eta -genealogia kontzeptuak erabiliz. Aniztasuna eta bioaniztasuna kontzeptuei esentzialismotik kanpo eta feminismotik behatzeko proposamena izan da hau; bizitza bera ere, aniztasunari lotuta, zerbait unibertsal gisa baino, egin, sortu edo galarazi egiten den zerbaiten gisara ulertu dut, egun teknobiopolitiken baitan kritikoki ulertu eta aztertu behar duguna. Bestalde, mundu eko-interdependiente batean, hazkuntza eta zaintzak espezieen arteko harremanetan kokatu eta elkarrekikotasuneko praktika bezala definitu ditut. Halaber, lehendik ere ezbaian zegoen natura kontzeptua bera berriz ere gatazkarako gunea izatea nahi izan dut, baita, berarekin batera, kontserbazioaren ideia ere. Azkenik, aurrekoarekin batera eta horren ondorioz, haziak beraiek, bariatateak eta tomateak ere, era kritiko eta konplexuan aztertu nahi izan ditut. Natura-kultura dikotomia bera, bere oinarrian dagoen ontologia edo mundu-ikuskerak, eta horrek eragindakako jarrera eta kalteak gainditzeko aliatu eta bidelagun moduan aurkeztu eta aztertu ditut hazi eta tomateak; espezie-arteko harremanetarako aterpe; kontraesan eta gatazkez beteriko izaki.

Reflexiones finales

La construcción de la autoctonía en la historia colonial de estos tomates

Nacida en los Andes como planta silvestre, la planta del tomate fue domesticada en el propio Perú y/o en México. Al ser exportada a Europa, se adoptó su nombre original; aunque sufrió una pequeña variación. Lo que en México se conocía como "jitomate" (*xitomatl*), pasó a llamarse "tomate" (*tomatl*) en el "Viejo Mundo". A posteriori, ha sido este último nombre el que se ha extendido e instaurado. Como bien sabemos, la historia suele ser escrita desde los centros de poder; y los nombres, como bien apunta Atxaga²⁹³, también los suele poner el amo. Costosamente, pero se extendió la producción y el consumo de tomates por toda Europa. Actualmente, en el instante preciso en el cual en Perú se ha hecho desaparecer gran parte de las variedades locales de tomate para el consumo fresco, las variedades "sabrosas" para "la mesa" "vuelven" desde Europa. En la actualidad, a los tomates para mesa en Perú les llaman "tomates españoles", ironía y evidencia de la colonización.

Esto no sucede solamente con los tomates en general. Los casos específicos de la variedad Jack y el Euskal Tomatea nos muestran que sus historias también están relacionadas con el colonialismo; que sus historias están relacionadas con la explotación, el expolio y la colonización de territorios, ecosistemas y comunidades empobrecidas. En este caso, lo relevante es que esta historia colonial es compatible con la creación de un producto local o autóctono. "¿Cómo es posible que el Euskal Tomatea se produzca con una semilla que es de Monsanto?", me preguntaba al principio de la tesis; y me lo han preguntado una y otra vez a

293 Ver la cita inicial del capítulo 5 de esta tesis.

lo largo de esta etnografía. Ya hemos comprobado cómo estos hechos son posibles. Para ocultar la historia colonial del tomate y el origen de las semillas, han sido y son fundamentales varias rupturas u omisiones en los procesos de singularización y de creación del origen de la variedad. Se fragmenta el proceso de producción y reproducción de la variedad y los tomates; y en su relato, se establecen ciertos límites y diferentes nosotros y otros que, como hemos visto, a la vez son móviles o cambiantes.

Estos últimos sucesos no se refieren únicamente a estos tomates específicos; sino que nos hablan de cómo se crea la calidad y diferenciación de los alimentos, la identidad, la autoctonía, y la vasquitud. La calidad y el origen de los alimentos se construyen como valores añadidos que aumentan el valor comercial del producto. De tal manera, son contruidos de cara al exterior para embellecer el producto y hacerlo vendible. Estos valores pretenden hacer referencia a unas supuestas características propias del producto "de por sí"; sin embargo, lo que realmente hacen es disfrazar el producto, aunque lo quieran mostrar lo más limpio e íntegro posible. La calidad y el origen no son cualidades propias o intrínsecas del producto, sino consecuencia de aquel; junto con el producto se (re)genera la idea misma de calidad y origen, así como las ideas de autoctonía y vasquitud. En el caso de la variedad Jack y del Euskal Tomatea, la localidad se construye en base a una memoria e identidad muy cortas y recientes; histórica y actualmente. Tenemos pocos conocimientos acerca de la historia de la variedad, de sus creadores, y del tiempo que lleva en la CAPV y Gipuzkoa. Y tenemos pocos conocimientos acerca del actual propietario de la variedad y del proceso de producción y reproducción de las semillas de la variedad. Esto permite que la identidad vasca de estos tomates se construya sobre un proceso de producción transnacional mundial. Es más, se basa en el expolio de territorios, países y comunidades empobrecidas. Y por supuesto, en el proceso de encubrimiento del mismo.

Asimismo, el Euskal Tomatea, como tantas otras "marcas de calidad", se basa en una cierta pureza genética. En los casos en que se utilizan variedades o razas autóctonas, la autoctonía y la historia del producto se asocian a su genética. En el caso de la variedad Jack no ocurre así; dado que no es una variedad local. Sin embargo, la genética es relevante en su identidad y producción; es su pureza la que la distingue en el seno del mercado de semillas y la que debe asegurarse en los procesos de reproducción de las semillas. Aunque no esté relacionada con la construcción del origen vasco de estos tomates, la pureza es clave en cuanto a la producción de las semillas de la variedad Jack. Así, independientemente de si se utilizan o no variedades

locales, en este producto de calidad vinculado a algún tipo de origen, la genética y la pureza son valores y prácticas que deben garantizarse.

Para conservar esta pureza, se ponen en marcha diversas prácticas que se pueden considerar eugenésicas. Se regula estrictamente cómo deben ser los productos -limpios, homogéneos, estables.- que entran en la marca; y se excluye de la misma toda forma de vida que no cumpla los requisitos establecidos. Así, no se pueden crear ni incorporar otros tomates u otras formas de vida en el etiquetado de productos locales y de calidad; de este modo, los productos locales/vascos de calidad que alimentan algún tipo de autoctonía y, en este caso, vasquitud, se fundamentan en prácticas eugenésicas que discriminan, niegan o impiden la existencia de "otras formas de vida". En este caso, me refiero a prácticas eugenésicas que afectan a la vida de las plantas. Sin embargo, se refieren también a procesos y mentalidades que atraviesan la construcción de la vasquitud, la autoctonía y las comunidades o "naciones" a través de productos como el Euskal Tomatea, de modo que estas colectividades se basan en algún tipo de pureza genética y prácticas eugenésicas, creándose identidades con una memoria muy corta y limitada.

En el caso del tomate Rosa de Aretxabaleta, el origen y la localidad adquieren otros matices. En este caso, son las propias semillas y las variedades las que se encuentran vinculadas a un lugar específico, a un pueblo específico. En el caso de la variedad Jack o el Euskal Tomatea, el hecho de que los tomates sean producidos y envasados en la CAPV es lo que hace que los frutos sean "vascos". Se oculta el proceso productivo anterior a la producción del fruto, y cuál es la variedad y de dónde es no es relevante para la construcción del origen. Más bien, debido a la relevancia que tienen estas fases se omiten del proceso productivo y se construye así el origen vasco de estos tomates. En cambio, en el caso de la variedad local, el origen o localidad de la misma se constituye de distinta manera. No solamente el fruto, sino que es la propia variedad la que se ha arraigado y localizado. Además, en un lugar preciso: en Aretxabaleta.

En este caso, la autoctonía o localidad consta de diversos matices y significados. Por un lado, en el caso de las variedades de cultivo, decir que son locales significa que han sido cultivadas, adaptadas y arraigadas localmente. Para que una variedad sea considerada local debe haber estado, por lo menos, el tiempo de una generación -es decir, alrededor de unos 30 años- en un mismo lugar. El planteamiento es el siguiente: cuando una variedad perdura el tiempo de una generación en un mismo lugar, se entiende que se ha adaptado cultural, social y

ecológicamente a ese lugar. La localidad, sin embargo, tiene también otros significados cuando hablamos de variedades locales. Para quienes defienden las ideas de soberanía alimentaria y agroecología, ser local significa producirse ahí donde se consume, ser "de kilómetro 0". Y este hecho, adquiere un valor ecosocial. La producción local produce menos daños ecológicos en el transporte; se adapta a las condiciones de producción y consumo locales; y suele comercializarse mediante circuitos de cercanía. Las variedades autóctonas serían, entonces, aquellas producidas y consumidas localmente.

Asimismo, en el caso de las variedades locales y del tomate Rosa de Aretxabaleta, ser local también adquiere otro significado que ya percibíamos en el caso de la variedad Jack. La autoctonía o localidad es también un valor añadido al producto, en torno al cual, a veces, se sabe muy poco. Del mismo modo que sucede con el Euskal Tomatea, en el caso de la variedad Rosa de Aretxabaleta también hemos percibido tendencias hacia la mercantilización y cosificación de la misma. En estos casos el tomate se nos muestra ajeno a sus relaciones, como un simple producto configurado por "valores añadidos" entre los cuales está su localidad o autoctonía. A la vez, es un producto que precisamente refuerza dichos valores. En este caso, le ha venido bien al pueblo de Aretxabaleta esta conexión entre el pueblo y el tomate; en el caso del tomate Rosa de Aretxabaleta, ser local es sinónimo de ser de Aretxabaleta. De este modo, el tomate local ha contribuido al renombre del pueblo y ha hecho localizar el pueblo en el mapa.

Por último, del mismo modo que con el caso del tomate Jack, el origen del tomate Rosa de Aretxabaleta se presenta como un principio o comienzo; y no como una creación o (re)generación. El origen del tomate se sitúa en Aretxabaleta y lo ocurrido antes de llegar allí se difumina en la historia de la variedad. De nuevo, en el caso de esta variedad, el origen se constituye como algo estático y monolítico, y de nuevo, tiene una memoria muy corta. Así, aunque sean notables las diferencias entre ambas variedades, en el caso del tomate Rosa de Aretxabaleta podemos percibir algunas de las tendencias que predominaban en el caso de la variedad Jack.

¿La caracterización y la singularización de las variedades como una forma de control y colonización de la vida? Tensiones entre la singularización y la diversificación

Un dispositivo de producción de una variedad nueva -el programa de híbridos- es propiamente una ontografía; un procedimiento de singularización sin el cual las nuevas variedades, como entidades materiales, no existirían (Cañedo, en prensa).

Al realizar dicha afirmación, Cañedo se refiere a variedades híbridas. Los programas de hibridación crean variedades. Las variedades no son el punto de partida de dichos procesos, sino la meta. "No se parte de una variedad, sino que en todo caso se llega a ella" (en prensa), afirma. Las variedades son relacionales. La inscripción y registro de variedades adquieren una importancia crucial en el proceso de generación de las mismas (Ibid.). Más aún, incluso en los casos de variedades que ya constan de un nombre propio y están registradas previamente, cuando estas se mueven de lugar y contexto, de nuevo adquieren un estatus precario. Únicamente la tierra, la climatología, los conocimientos y acciones de los campesinos y las actividades de otros seres que participen en un lugar concreto en la reproducción de semillas convierten la variedad en "variedad" (Ibid.).

Sin lugar a dudas, este es el caso de la variedad Jack, como hemos podido comprobarlo. Las semillas son producidas en los campos experimentales de Monsanto; son reproducidas año tras año de la misma manera; y se les niega la posibilidad de interactuar e influenciarse mutuamente con las poblaciones que luego cultivan esos tomates. Sin embargo, la variedad necesita ser adaptada y aceptada en los invernaderos de la CAPV y Gipuzkoa para poder "ser"; para poder llegar a ser el Euskal Tomatea y convertirse en el "tomate de aquí". Por otro lado, en el caso de la variedad Rosa de Aretxabaleta también sucede un proceso de singularización de la variedad. Surge una nueva variedad en el mundo de lo real, se dibuja, y toma cuerpo. En este proceso, de nuevo, la acción de dar nombre a la variedad es fundamental. Asimismo, en el caso de la variedad local he identificado varias prácticas que tienen elementos compartidos con las prácticas de registro y que son fundamentales en el proceso de singularización de la variedad. En la historia y definición de la variedad fueron fundamentales los trabajos de caracterización, selección y mejora realizados a lo largo de la década de los 2000. Esos trabajos no se limitaron a dar a conocer la variedad, sino que, con la caracterización de la misma, vincularon a su nombre una serie de características asociadas desde entonces a la variedad; situaron y delimitaron la variedad en un punto determinado del continuo de la diversidad existente dentro de la especie. El debate generado en torno al "verdadero" tomate Rosa de Aretxabaleta es un reflejo de este "conflicto". Se proclama que se

ha creado e identificado la variedad, dado que se hace referencia a una supuesta identidad y características de la misma. "Es una variedad, y en torno a la misma se está generando confusión", me transmitía Patxi mientras tomábamos un bocado en la chabola de su huerta. Sin embargo, con esas palabras, no solo hacía referencia a la existencia de "la variedad", sino que también mostraba, en cierto modo, que la definición de la variedad es inestable y cuestionable. En el mismo momento en que se define la variedad aparecen dudas y conflictos al respecto. A diferencia de los híbridos, en el caso de las variedades locales las posibilidades para que se produzcan cambios, mezclas "genéticas", y descontrol son siempre mayores. Las nuevas generaciones traen consigo la posibilidad de que se produzcan nuevos cruces y cambios; y en estos procesos las agricultoras y quienes conservan las variedades se tambalean entre la innovación y la conservación. Tratan de crear y estabilizar algo en el continuo de la diversidad, pero a la vez no se alejan de ciertas prácticas que, precisamente, generan diversidad.

En esta tensión, los procesos de creación de variedades -procesos de singularización- limitan la diversidad y controlan -y colonizan- la vida; o al menos, dibujan una tendencia hacia ello. Sin embargo, hay diferencias de grado importantes entre lo que ocurre con las variedades híbridas y comerciales, o lo que percibimos en el caso de las variedades locales. He hablado sobre la genetización de la vida (Franklin 2000), del fetichismo genético (Haraway 2004) e, incluso, del fetichismo de las semillas (Aistara 2011). Como he querido mostrar a lo largo de esta tesis, dichos procesos se perciben claramente en el caso de las semillas transgénicas (Franklin, Lury, y Stacey 2000) e incluso híbridas. La pureza de las semillas es el valor máximo en la producción de híbridos; y los procesos de reproducción y producción de semillas están destinados a garantizarla. La genealogía y el parentesco de las semillas híbridas se construyen en ellas mismas y están íntimamente ligados a su genética. Esto nos lleva a unas genealogías sociales concretas y muy limitadas: a sus dueños y "padres" sociales. En el caso de la variedad Jack, a Monsanto y Bayer. Este hecho permite la privatización y mercantilización de las semillas híbridas. Sin embargo, más allá de las semillas y variedades, en el caso de los tomates o frutos también percibimos procesos similares de mercantilización y fetichismo. Los tomates "vascos", con o sin sello, se convierten en mero producto; presentados al margen de sus relaciones y eliminando su historia social y genealógica. Son los valores añadidos los que dan valor a estos tomates para ser comercializados. La historia, los caminos, las rutas y las relaciones que van desde las semillas hasta los tomates se omiten en la identidad de estos últimos para poder crear el producto Euskal Tomatea.

En cuanto a los transgénicos, ya han sido destacados dichos procesos. En el caso de los híbridos, en cambio, también han sido notables los procesos de mercantilización y privatización, pero a menudo han pasado más desapercibidos o se les ha prestado menos atención. Es por ello que creo que debemos enfatizarlo. En el sí de imaginarios críticos sobre la agricultura las variedades transgénicas están muy demonizadas, mientras que se reflexiona menos sobre los híbridos. No obstante, estos últimos son uno de los principales responsables de las transformaciones de la agricultura sucedidas a lo largo del último siglo; y, por tanto, uno de los principales responsables de la pérdida de diversidad biológica generada en la agricultura.

En cualquier caso, al margen de los híbridos, en algunos procesos que se están produciendo con variedades locales también podemos observar tendencias hacia la mercantilización o cosificación y fetichismo; es decir, tendencias o riesgos en cuanto al control y la colonización de la vida. Observamos que esto sucede principalmente en las últimas fases de la historia de la variedad Rosa de Aretxabaleta, aunque estas tendencias hacia el control y la homogeneización no sean tan fuertes como en el caso de las variedades híbridas. En este sentido, es notable la atención que en los últimos años está adquiriendo el tomate; es decir, el fruto. En varias ocasiones, los tomates de la variedad Rosa de Aretxabaleta se presentan ajenos a sus relaciones, separados de las semillas, y alejados de sus procesos productivos y reproductivos. Convertida en producto -o convirtiéndose en ello-, se difumina su historia y se limitan la diversidad y las relaciones que se generan en torno a la variedad; de este modo, el tomate se presenta como un ser aislado.

Las prácticas de singularización de las variedades -y, por lo tanto, de caracterización, diferenciación e identificación- se presentan así como prácticas de control y colonización de la vida. Buscan interrumpir y multiplicar la vida en un punto específico del *continuum* de la diversidad de la vida, tratando siempre de reproducir y regenerar lo mismo -o casi-. La vida y la reproducción -"la generación", en términos de Donna Haraway- es salvaje, y produce seres incontrolables, inaceptables o inapropiados e inapropiables; fundamentalmente, produce "otredades". Cuando se pretende dar nombre y caracterizar las formas de vida, y multiplicarlas "en sí mismas", la vida misma se regula y se clasifica en categorías; o al menos es lo que se pretende. Si las otras inapropiadas e inapropiables de Haraway son precisamente aquellas que no entran en los taxones; esas que entran en los taxones son aceptadas y, por lo tanto, controladas y colonizadas. Del mismo modo que sucede con las humanas, las plantas son dotadas de pasaportes y ciudadanía; en ese sentido, Guntra A. Aistara (2014) utiliza la

idea de "*citizenship of plant varieties*". En este proceso, se normalizan y normativizan las variedades; en definitiva, se coloniza la vida.

De ese modo, en las variedades "locales" y, en concreto, en el tomate Rosa de Aretxabaleta, identificamos algunas tendencias hacia la normativización y hacia la limitación de las variedades. Así, algunos procesos en torno a esta variedad pueden concebirse como procesos de control y colonización de la vida. A pesar de todo, hay un salto cualitativo significativo desde las prácticas reproductivas y productivas de los híbridos a las de las variedades locales. Es por ello que he hablado de tendencias o riesgos a la colonización y control de la vida en el caso de las variedades locales y no, por el momento, de procesos de colonización propiamente dichos. De hecho, junto a estas prácticas de privatización, cosificación y control, persisten las oportunidades de reproducción caótica de la vida y de creación de seres "otros" en el seno de la reproducción de variedades autóctonas.

Por otro lado, he identificado una tensión constante entre la singularización y la diversificación en la producción, reproducción y difusión de variedades locales. Las variedades locales se reivindican, cultivan y multiplican con el fin de preservar la biodiversidad y la supervivencia de prácticas, conocimientos y semillas locales. Sin embargo, hay que ponerles nombre, caracterizarlas, darles forma e identificarlas como productos; dado que es difícil dar reconocimiento e impulso a un ser sin haberlo identificado previamente. Así, nos encontramos frente a una situación algo contradictoria. Como he mencionado previamente, las variedades surgen en el *continuum* de la diversidad existente dentro de las especies y son consecuencia de la misma. Son, asimismo, consecuencia de determinadas prácticas agrícolas locales. Por otro lado, las variedades, al no estar identificadas como variedades, son también origen de la diversidad. En su reproducción, intercambio y difusión se han generado nuevas variedades. En cambio, en el momento en que se trata de identificar una variedad y conservarla como tal, se interrumpen o ralentizan esas posibilidades para la creación de diversidad y nuevos seres. Para poder "preservar" la diversidad generada, esta debe identificarse, cosificarse y ser creada y conservarse en sí misma. Hay que singularizarla.

He comprobado que así sucede a lo largo de esta etnografía. Sin embargo, la realidad no es ni blanca ni negra. La singularización y la diversificación conviven en constante tensión; yuxtapuestas en una relación que no siempre es equilibrada. Hemos observado riesgos o tendencias hacia la singularización en el caso de la variedad Rosa de Aretxabaleta. Sin embargo, gracias a la diversidad social, cultural y biológica que rodea la variedad, las

tendencias a la singularización no han acabado con las prácticas y relaciones que dan lugar a la generación de diversidad en torno a la variedad. Es decir, la diversidad de actores, lugares y prácticas implicadas en la re-producción de la variedad son fundamentales en cuanto a la generación de la diversidad y posibilidades generativas en torno a la misma. Asimismo, el proceso biotecnológico de reproducción de variedades también es clave en ello. Cualquiera puede reproducir en su huerta esta variedad, y debe hacerlo año tras año. Además, esto se está llevando a cabo en lugares y condiciones diversas. Así, se abren y multiplican las posibilidades para crear otras formas de vida, o vidas "otras". Por último, aunque se busque la estabilidad de la variedad, mientras no se realice manualmente la polinización de las flores, seguirán estando abiertas las posibilidades de nuevas hibridaciones.

Teniendo en cuenta lo anterior, y con el fin de evitar los riesgos y tendencias hacia la privatización, control y colonización, a lo largo de esta tesis más que considerar las semillas y las variedades como objetos de conservación, he propuesto considerarlas compañeras y cómplices, tanto en la actividad agrícola como en los procesos de generación de diversidad. Ya me lo había comentado en una entrevista Juan, agricultor que en su huerta conserva y reproduce gran diversidad de semillas. En este entramado de vidas que trasciende los límites entre las especies, más que considerar las semillas como objetos a conservar en bancos de germoplasma, las defino como nuestras cómplices y aliadas, en el marco de relaciones basadas en la interacción, la reciprocidad y el cuidado mutuo.

Las coreografías reproductivas y los parentescos transespecies: ¿posibilidades para ecologías "otras"?

En la finca de hibridación de semillas que visité en Perú, me sobrecogieron ciertos temas que podía prever pero que hasta entonces aún no había sido capaz de "ver": por un lado, el tema de la territorialidad de la autoctonía, y por otro lado, las cuestiones relacionadas con la reproducción y el parentesco. En un primer momento, me llamó la atención la presencia que tenían el sexo y el género en ese lugar. A su vez, de inmediato ocupó mi atención el paralelismo o puentes que existían entre lo que estaba viendo y la reproducción "asistida". Anteriormente, había realizado un trabajo comparativo con María Zapata entre dos campos de la antropología que a priori se podrían considerar muy "diferentes". Y una vez más, pensé que quizás podía hacer un ejercicio similar, ahora entre la reproducción humana y la vegetal. Comencé este ejercicio vinculándolo a la reproducción de híbridos. No obstante, de

inmediato, empecé también a hacer algo similar para el caso de la variedad local. Aunque no lo hubiera previsto, como comentaba previamente, la reproducción y el parentesco han sido temas que han aflorado en el trabajo de campo y que han acabado siendo centrales en estas tesis.

